



SERMOIAK

Domingo Agirre

Iturria: *Sermoiak*, Domingo de Aguirre (Sebastian Garcia Trujilloren edizioa).
Labayru-BBK, 2000.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AgirreDSermoiak.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ASUNCIÓN

(Bascuence.)
bizcaino.

Beatam me dicent omnes generationes, quia fecit mihi magna qui potens est.
Bedeinkatia deitzen deustee gisaldi guztiak,
Altsua danak gauza andijak nigan egin ditualako.
S. Lukasek, lenengo kapitulian, 48 eta 49. garren bersuan.

Neure entsula bijotzekuak: Emeretzi gisaldi igaro dira ija Judeako mendi tontor baten, bere sanetan Dabid erregiaren odola eukan emakume batek esan zituala berba oneek: «Doetsua deitzen deustee gisaldi guztiak, Altsua danak gauza andijak nigan egin ditualako». *Beatam me dicent...*, etc. Eta igarrera miraritsu au bete da sasoi, leku eta denpora guztietan. Eztago dierri bat, eztago uri bat, eztago baserri eskutu bat Marija guztiz santiaren izena goratzeko eta bedeinkatzeko zerbait egin eztabenik: diñozkue bere izenian mundu guztian egin diran Elisa ederrak, diñozkue bere gomutarako sortu diran altara ikusgarrijak; diñoskue añ ugari leku guztietan billatzen ditugun Mariaren irudijak; Elisa au barriztatutiak diño bere berbeta ixil, baña esan andikuagaz.

Eta egijaz, n. e. m., zergaitik Maria agertu zan bardin bagia bere sortueran; zergaitik Maria ikusi zan andija bere jajotzan, etorri zalako mundu onetako argia poz eta atsegiña legez Adanen ondorenguentzat; zergaitik agertu zan miragarrija zeruko aingeruak deitu eutzanian grazijaz betia eta Jaungoikuaren Ama; zergaitik agertu zan besterik ez legezkoa munduko bizitzan, Jaungoikuak egiten ebanian bere agindua, Jaungoikuak berak ligortzen zituanian bere malkuak, Jaungoikuak emoten eutzanian bere maitasun guztia; eta azkenez agertu zalako iñoiz baño andijagua, guztiz zerutarra bere zerura igoera glorijaz betian.



Ze ikusgarri ederra! Entzun egizue zelan dirauskun S. Juan Damaszenok: «Gaur, diño, gaur da poz, gozotasun eta atsegiñezko egun doetsua; gaur da Jaungoikuaren egoleku glori jaz betia, Jerusalem zerutarra, Maria guztiz santia zeruetan sartzen dan eguna. Gaur zeruak artzen dabe bera-gan Eba barrija, diabruaren arrotasuna goitu daben emakumia». Maria guztiz santia, mantxa edo orbanaren kexeriak berak ikutu bagako emakumia, eztua beste Adanen ondorengiak legez bere ama lurragana, ezpada ze betiko glori jazko tokira. Adanen alabia legez eriotzako legiak amaitu badau bere gorputza Jaungoikuaren Ama dalako sartu da betiko deskanstuko lekuan.

Eta zein ek esango eztau gaurko jaija dala Marijaren jairik andijene-takua, gaur amaitzen bada beretzat nekia, negarra eta zispurua, gaur itxi badau lurra zeruagaitik, gaur ikusten badau Jesus bere anditasun eta alizate guztiagaz?

Amajera miraritsua! Amajera bardinbagia Maria santiarena, mirari-tsua bere izatian, berdinbagia jaijo diranentzat; bada *sortutakuen glori ja iñoiz eldu ezta Marijarena beteraño, eta iñok ezin leike bardindu berak zeruetan daukan alizatia*. Au da gaur goiseko berbaldijan erakutzi nai nenkian pensametu-a.

N. e. m.: esagutzen dot ez nasala diña Marijaren alabantzak esateko; badakit urtero gaurko egunian entzuten dituzuela berbaldi onak ao jakintsuetatik; neuk bere entzun ditut Elisa onetan; eta esagutzen dodalakoa nire izerestasuna, eskatzen deutzuet bijotz guztiagaz lagundu egidazuela zerutik jaristeko biar dodan grazija.

Ama maitia, iñoiz baño biarrago dot zure argitasuna; jaritxi egidazu Jesusegandik, ama errukiorra. Geijago samurtzeko zure bijotza, guztiok erregutzen deusugu, esanagaz: «Abe Marija».

Beatam me dicent etc.

N. e. b.: Sarijak izan biar badau merezimentuagaz bardiña glori ja emoten bada birtutiak diran aña, izanik Marija santiaren merezimentu eta birtutiak santu guztien gañekuak, gisonak asmau ezin leikezanak, santu guztien gañekua, gizonak ezin esan leikiana da bere sari ta glori ja zeruetan. Marija ezta Jaungoikua beste; baña Marija baño geijago Jaungoikua bakarrik da, zergaitik Marija dan Jaungoikuaren ama, Jaungoikuaren alabia, Jaungoikuaren emastia; Aitaren alabia, Semiaren ama, Espiritu santuaren emastia.

Iregiko balira Siongo atiak unetxu baten an ikusiko gendukez millak eta millak aingeruak, auzpeztuta, zoñu gozuan, alleluia! kantetan dabela Bildots Jaungoikozkuaren aurrian; an lege sarreko gurasuak, igarlak eta

justuak; an apostoluak, martirjak, fedia autortu dabeenak, emakume garbijak; eta onen dauken glori ja ikusgarritik, esagutuko genduke zer bait Jaungoikuaren amarena; baña iñok ikusi ezpadau, entzun ezpadau, pensau ezpadau zeruetan esleidentzat dagon glori ja; nok pentsau leike Marija guztiz santiarena?

Marijak, bere amatasun Jaungoikozkuagaitik daukaz: Aita zerukuaren anditasuna, Seme Jaungoikuaren santutasuna eta Espiritu Santuaren doiak; bera da, S. Eusikiok diñuanek, Irutasun santiaren akabera, *totius Trinitatis complementum*: zer izango zan bada emakume oni, beste santu guztien gañetik, zeruetan gertau jakon jarrilekua?

Aingeruak eta zerutar guztiak begiraten deutsee Jaungoikuaren eskuetatik urten daben gauzarik astun eta ederrena legez; betikotasunetik euren erregiñatzat esleidua legez, ekijelako eguala Irutasun santuaren pensamentuan, mendijak eta itxasuak, odeijak eta izarrak sortu ziran baño lenago. Eta benetan, ikusten zan gisaldijen illuntasunen tartian eta betikotasun sakonian, Jaungoikuaren jarrilekuaren onduan, emakume bat urrezko jantzia jagaz apaindua eta argi mirarizko betia: *Astetik regina a destris tuis circumdata varietate*.

Gañeratu daigun ontzuko ezkribitzalle baten pensamentu sakon bat: Jaungoikuak jaijo biar beban, izan biar zan emakume garbi bategandik, eta emakume garbi batek sortu biar beban, sortu biar eban bakarrik Jaungoiko bat. Jaungoikuak nai izan ebanian jaijo gizontasunera izanik Maria esleidua Jaungoikua sortzeko, zein ek esan leike amatasun onetatik jator-kon aberastasuna? Zein ek pentsau leike bere glori ja? *¿Generationen ejusquis enarrabit?* S. Pedro Damianogaz esan geinke: jaijo diran guztiak mutututen dira eta ezin leike bururik jaso Jaungoikuaren amaren aurrian.

Gauza oneek jakin eskero, esan geinke bildur baga Marija santiaren zerura igoera glori jaz betia, bere andi izatiari egokion legez, izan dala zeruak eta lurra ikusi dabenik *jairik* andijena.

Irakurri egizue lege zar eta barriko kondaira edo histori jak; irakurri egizue lenengo egunetatik gertau diran gausarik andi eta ikusgarrienak; munduaren asieratik gaur arte begiratu egizue ikusten ete dozuen beste emakume bat bardingarririk zeru eta lurreko erregiña eta agintari onegaz.

Guazen pensamentuagaz Dabiden errira eta ikusi daigun zelan dakarren errege onek kaixa santua Obededonen etxetik Siongo Jauregira nun gertau eban toki ikusgarri bat. Dana zan anditasuna, guztia ederra; Jaungoikuari eskeñitako gizonak dakarre euren sorbaldetan; ezin kontau ala jente dator kaisa santuaren inguruan; musika zoñu gozuak entzuten dira; elisgizonen kantak, erriaren diadarrak eltzen dira zeruraño; Dabid errigia



bera, nastaurik bere mendekuakin dantzari dator ezin gorderik bere poza. O Israel, zeñ ederrak diran zure dendak, zeñ ederrak diran zure jaijak. Baña, zer da au Marijaren zeruko sarrieriagaz bardintzeko? Kerexia, illuntasuna, utza.

Guazen emendik Betuliako urira. Eukan urian eztututa bere gerralarrijakin Holofernes agintarijak. Asiriatik etorri zan tximista sutsu baten irudira erri guztiak birrintzen, eta berak oña ipiñi eban leku guztietan etzan geratu negarra, odola eta ondamendija beste gauzarik. Ikaraturik egozan Betuliako semiak eta zer janik ez eukela gañera; galdu zirala uzte ebanian, urten eban Juditek uritik kanpora, bere edertasunagaz egin eban lekua Holofernesen dendan sartzeko eta lo eguala kendurik burua agintari oni, kendu eutzan bere erriari eriotza errukarri bat. Betuliako jentiaeren eskertasunak Juditen sarrierarako eta gero iru illabetian egin zituen jaijak, zelakuak ete ziran? Bada Marijaren zeruko sarrieriagaz bardindu nai eskerona dana da kerexia, illuntasuna, utza.

Ikusi geinke ondio ontzuago Erromako agintarijak, gerrak irabazi ta gero, zelan igoteeben koroetuta kapitolio esaten jakon mendira urrezko burdijetan eta euren atzetik ainbeste errege menderatuak zituela; baña, zetarako? Mariaren zerura igoeriaren irudi illun bat ezipada; Marijaren zerura igoeriagaz bardintzeko Jesusen igoeria bera? Eta iñor badago emen uzte dabenik geijegi ezan dodala askenengo berbeetan, nik erantzungo deutzat S. Pedro Damianogaz batera: «Altzau egizuz, goratu egizuz zure begijak, kristiñauba, ta ikusi egizu ondo Marijaren sarrieria zeruetan; eta zeuk esango deustazu eztala izan sarrera oberik, ezta Jesu Kristorena bere Jaungoikotasuna kendu eskero; bada Jesu Kristok igo ebanian aingeruak bakarrik urten eben ez egualako besterik; baña Marijak igo ebanian aingeruak, justuak, Patriarkak, igarlak, martirijak, zerutar guztiak eta Jesukristok berak». Au da Elixako gurasuen erakutzija, zeñtziek S. Anselmogaz diñuen munduaren salbatzalliak igo ebala zeruetara Marijak baño len, gertau naijan bere amari eutzan maitasunagaitik, sarrera bat eta jarri leku bat bere Amaren diñakua.

Ah! Eldu zanian une edo instante au, entzun zan zenar laztanaren dei gozua bere maitiari: «Altzau zaite, diotza Jesusek, altzau zaite neure maitia, neure ederra, neure laztana; itxi egizu negarrezko leku ori, ligortu egizu betiko zure malkua. Juan da negua, uda barrijan sartu gara, zelaijak usain gozoso loraz jantzi dira. *Jam hiems transiit*. Eztozu entzungo geijago munduko aixiaren durundirik, erdu eta izango zara koroetua munduko eta zeruko erregiñatzat. *Veni de Libano*. Erdu, eta nire aitag emongo deutzu bere alizatia; erdu eta nik emongo deutzut neure jakiturija; erdu

eta Espiritu Santuak emongo deutsu bere maitasuna. *Veni de Libano*. Erdu, zure birtutien sarija artzera eta asetera gozotasun amaibagakuetan, naikua malku, naikua zispuru eta zotin euki dozu munduan. Erdu neure ederra, neure maitia, neure usu bedeinkatua. *Veni de Libano, veni coronaberis*».

Bere bijotzeko maitiaren dei au entzun ebanian jagi zan Marija bere obi edo sepultratik eta bisturik illezkorra eta argi Jaungoikozkoz betia, igoten asi zan, bere argijagaz, bere edertasunagaz illuntzen zituala eguzki eta izar guztiak. Bedeinkatu eben odeijak, aixiak eta izarrak, illargija bere oñetan jarri zan, iregi ziran zeruko atiak, belaunikatu ziran bere aurrian aingeru eta santuak; eta zoñurik zoragarrirenak entzun ziran zeruetan infernua orruaz eguan bitartian. Goi eta bee, alderdi guztietan, itanduerabakarra entzuten zan: Zein da emakume au, añ ederra, añ argitsua, illuntzen dituana bere albuana eguzki ta izar guztiak? *¿Quae est ista quae progreditur quasi aurora consurgens?* Zein da emakume au urteten dabena mundutik, arantzasko toki ligor onetatik añ garbi, añ aberats, ainbeste apaindurijaz jantzija? *¿Quae est ista quae ascendit de deserto deliciis affluens?* Ete da Judit Betuliako alabia, Asiriako gerralarriak goitu dituan alarguna? Ete da Esther, Asueron emastia, bere errija atera ebana eriotza errukarri batetik? *¿Quae est ista?* Zein da au?

Ah! Da emakume guztien artian bedeinkatia, da grazijaz ugaritua, santia santa guztien artian, Jaungoikuaren maitia, sortueratik garbija, jaijo dan emakumerik ederrena. Da gure ama mailla, jarri dana santu guztien eta aingeru guztien gañetik. Emakume garbi guztien gañetik, zergaitik Marija izan dan guztiak baiño garbijagua; Eleis gizon guztien gañetik, zergaitik bera izan zan, Jesusek zerura igon eskero, Eleisiaren burua; martirijen gañetik, zergaitik Jesusen eriotzan martini guztiak baño martirijago izan zan; igarla guztien gañetik, zergaitik umiltasun andijagokua izan zan; aingeru guztien gañetik, eurak baño santiagua izan zalako eta maite ebako Jaungoikua ez bakarrik bere Egillia legez baita Semia legez bere.

Maria da sortutako gauza guztien jaubia, diño. S. Juan Damaszenok, *rerum omnium conditarum dominam*; au bera dirautzee S. Bernardok, S. Anselmok, S. Epifaniok, S. Atanasiok, eta azkenez S. Gregorio Nikomediakuak diño: *Nihil resistit tunc potentiae, nihil repugnat tuis viribus; omnia obediunt tui imperio; omnia tuae potestati serviunt*: eztago gauza bat ezin zeinkianik; eztago gauza bat obeiduten ez deutzunik; gauza guztiak egiten dabe zure agindua. Jaungoikua bakarrik da Maria santia baño geijago; Jaungoikua kendu ezkerona dana dago bere mendian, bada sortudanik eldu ezta bere glorijara eta bere alizatera.



Errazoiagaz ezan zeinke, ama maitia: *Beatam me dicent omnes generationes quia fecit mihi magna qui potens est*. Bedeinkatua deitzen deustee gisaldi guztiak Jaungoiko altsuak nigan gauza andiak egin ditualako.

N. e. m.: Ama maitia deitu deutzat Maria santiari eta alan da. Poztu zaiteze: mundu guztiko erregiñatzat, zeruko erregiñatzat koroetu dabee-na gure ama da. Amatasun au emon eutzan Jesu Kristok kurutziaren oñetan bere eriotzako orduan. Ez egizue pentzau Zerura igo dabelako astuko dala negarrezko leku onetan itxi dituan semiakaz; ez, Marija ezta astuko arerijoz inguraturik geratu garala; bere gaurko irabazija da esperantzarik onena gure asken irabazirako. Ama bedeinkatua, ama errukiorra, ikusten dozu erri guztia zure altara aurrian inguratuta gaurko zure jaija doaindituteko; ikusten dozu deitzen deutzula bere ama, bere zaintzallia, bere esperantzia.— Ama zara, bedeinkatu egizu jente au, ama batek semiak bedeinkatzen dituan samurtasunagaz; zaintzallia zara, gorde egizu zure estalpian dagon erri au, lagundu egjjezu batez bere ainbeste maite zaituen itxas gizon orrei euren nekietan, gorde egizuz fededun euren gurasuak izan diran legez; esperantzia zara, zukan itxaroten dogu guztiok, mundo onetatik urtetan dogunian, betiko zoriona, zein guzti ori opa deusuedan. A. S. E. I.

(ERROSARIOA)

Aizarna

¿Quis potest similiter sic gloriari tibi?

Zein da beste bat zuk aria gloria daukana?

(Eklesiastes esaten zaion liburuan 48en buru ta 4.en bersuan)

Amairugarrengo eunkidan, Albigensen esaten zitzaian fede ukatzalleak zebiltzazenian zabaltzen mundu guzian beren dotriña galgarri infernutarrak, eramanaz beren atzetik ainbeste arimia engañatuta ondamendiko bidetara, sortu zan Españatar leial goitandi bat pensatu zuana eleizetsai guzien aurrean jarri ta dendenak bentzutzea Maria txit santaren laguntasunarekiñ. Gizon au zan Guzmango Domingo. Eta badakizue nola nai zituan fede ukatzalle guziak purrukatu? Gizon ta emakumien batzar santu bat sortuarekin bakarrik, emanaz gizon ta emakume abei errosarioa esateko obligazioa fedea geiago pistu ta jasotzeko, erejia zapaltzeko eta pekatariak zeruko bidetara biurtzeko.— Baña zer egingo zuan batzar santu onekin? Zer? Fede ukatzalle guziak bentzutu, zapaldu austu ta desegiñ.

Ezagutu zuan Santo Domingok bere argitasun ta jakituriya andian munduko indarrarekiñ geiyago zirala noski relijiyuaren etsaiak eta orregatik juantzan zeruko indarren eske. Sortu zuan batzarra eta agindu zuan guztiak errosariyua erresatzeko, au da, eskeintzeko koroï eder bat zerue-tako erregiñari, eta nola eskeintsariya oi dan bezela, izan biar zuan Mariari geiyen guztatzen zakon gisara, koroia zan larrosaskoa, zergaitik diran larrosak Mariaren birtuteak obeto agertzen dituen lorak. Orregatik geratu zaio debozio oni erdaldunak rosario eta guk larrosagintza ezan geikion izena.

Osta ziran asi batzar santa onetakuak errosariyua erresatzen gelditu zanian arriturik mundua ikusten zuan mirariarekin; pekatariak ta fede ukatsalleak zetozen Eleisa santagana aldraka, katolikuen espiritua biztu zan, ill zan herejiya, birtutiak artu zuan bere argitasuna eta Eleisaren arpegia ikusi zan bere lelengo egunetako edertasunarekiñ.

Ikusirik gauza aiñ izugarriyak Eleisa santuak bota zituan batzar onen gañian bere bedeinkasio guztiak eta batak baña bestiak naiyago Aita Santutik asi ta askenengo katolikoraño jarri zituen beren izenak errosarijako kofradiya edo batzarrian.



Orregatikan bada eztet esango geijegi esaten badet mundu katolikua-
ren iskiña batetik bestera etzala entzuten diadar bat baño. *¿Quis potest
similiter sic gloriari tibi?* Nun da beste batzar bat errosariyoko kofradia beze-
lakua.

Erakutziko dizutet zenbat baliyo duan deboziyo onek eta zein frutu
ugarajak ekarri lezakezan gure gañera. Baña biar dan bezela gai au argi-
tzeko biar det Espiritu Santuaren graziya zeini eskatuko diogun lagunta-
suna Maria txit santaren bitartez, esanarekin aingeruakin batian: Abe
Maria.

¿Quis potest etc

Eztet nai, n. a. m., beste kofradien anditasuna batere laburtu; ikus-
ten det zenbat baliyo duen, esagutzen det beren santutasuna, badakit zein
maitagarriak diran. Zabaldut bitez lur guztian eta bizi bitez urte askuan
orain arte bezela izan ditezen erlijio ta Elisa santaren laguntzarako; baña
utzi biar dirazue jasotzen biar dan bestean errosarioko kofradi edo batza-
rra; eta esaten onetarako eztala beste bat berak bezelako jaiotza, antsiña-
tasuna, zabalera, senidetasuna ta izen andiya daukanik. Itz bitan amaituko
det lenego zati au.

Asi gaitian bere jaiotzatik. Nun da beste bat Maria txit santak berak
asmatu, erabagi ta konpondu duana? *¿Quis potest similiter sic gloriam tibi?*
Bada errosarioko kofradiak esan lezake bera dala Maria txit santak asma-
tu ta erakutzi ziona Santo Domingori ereji guzien kontrarako armarik
gogorrena bezela, pekatu ta griña gaisto guzien osagarririk onena bezela
ta zabaldut zala laguntasunarekin.

Begiratzen badegu bere antsiñatasuna, nork esan lezake berak beze-
la igaro dituala zaspik eunkida? *¿Quis potest similiter sic gloriam tibi?* Bada erro-
sarioko kofradiak esan lezeke iya zaspik urte dituala eta oraindik dau-
kala bizitza gisaldi askorako Manaren laguntasunarekin.

Eta bera bezela zabaldut danik, nun arkitzen da beste bat? *Quis potest?*
Begiratu zazute eta ikusiko dezue jarriya edozein tokitan, probintzi guz-
tietan, uri ta erritxo danetan: begira ta ikusiko dezue errosarioko kofradi-
kuak dirala, emakumiak eta gizona gaztiak eta zarrak, pobriak eta abera-
tzak, txaboletan jaiuak ta jauregietan bizi diranak, sazerdotiak, frailiak, eta
erregiak, aita santua bera, mundu guztia.

Ikusi dezagun bere aidetasuna eta esan geinke berriz ere: *¿Quis potest
similiter sic gloriam tibi?*

Naikua da jakitia errosarioko kofradiya dala Santo Domingok sortu
edo fundatu zituan frailien arreba; bada biyok dauke ama bat, Maria txit
santa, bijok aita bat Santo Domingo eta biyok jaio ziran era baten amai-

rugarren gisaldiko lelengo urteetan. Eta badakizue zeintzuk diran Santo
Domingok sortutako frailiak? Ez dituzue esagutzen? Ara nola itz egiten
duan aita santu batek beren gañian: «Da Predikatzallean Ordena loratsua
santidadian, izen andikua jakiturian, ugariya birtutean eta beti bedeinka-
tua Aita Santuak gandik. Bere gizonak dira langilleak Eskritura santak
ikasten, oraziuan eta arimak salbatzen, ta zabaltzen due alde guztietatik
birtutiaren eta jakituriaren argi ederra. Gizon abek dira lege jakiñak, izke-
tan berdingabiak, egitadetan indartsuak, predikatzen biotz mugitzalleak,
eta beren españetatik gañezka dator zeruetako dotriña errien salbaziora-
ko... Gison abek argi egiten due zeru izarrek bezela... eta dira maitatuak
Jaungoikuagandik ta baita erriakgandik ere... Jaungoikuak nai (...) zuan
Domingoren semeen bitartez bere izen (...tua) izan zedin altxatua... Azke-
nez gizon

abek dira, utzirik mundu onetako aberastasunak, bizi diranak pobre-
zan eta garbitasunian Jesu Kristoren irudira». Abek dira Guzmango
Domingoren semiak, aita santu batek dionez, ta errosariyoko kofradi-
kuak aben anaia arrebak dira. *¿Quis potest similiter gloriari tibi?*

Eta orain ikusi desagun zein frutu ederrak irabazi lezakezan errosa-
riyoko kofrade batek. Familiya ondo batuetan gerta oi dan bezela batzuk
irabasten duena danentzat izatea, onela gertatzen da kofradiya onetan.
Emen esan geinkez Jaungoikuak Abraani esan ziozen itz abek: *Leva oculos.*
Begira, kofrade ditxas betea, alderdi guztietara, bada alderdi guztietan
dabiltz Guzmango Domingoren semiak zeruko dotriña sabaltzen... berak
irabazten duen sariya, beren arimako aberastasunak, beren gloriya... zuria
da, zuk irabazten dezu etxetik irten gabe. *Leva oculos tuos... ad aquilonem,*
begira eta ikusiko dituzue donzella garbiyak... igaroten ditue egunak kon-
bentuko ixiltasun ta bakian, gabak oraziuan, astiak, illak, urtiak... peni-
tentzian, beste zeregiñ gabe birtuteak billatzia baño, beste pensamentu
gabe Jaungoikua serbitzia eta euren burua santifikatzia baño, beste desio
gabe zerurtzia baño... Eta zeñena esango dezue dala beren orazio eta
meditaziaren irabazia beren borondatia ukatziarena, beren barau eta
penitziarena?... zuria da, errosarioko kofradia. *Omnem terram quam con-
cupiscis tibi dabo. Leva oculos tuos ad meridiem,* begiratu beste aldera. Ikusten
dituzue ainbeste apostolu beren gurasuak, anaia, aidiak eta lagunak utzi ta
dabiltzala karidadiaren eguakin kristauen izena erakusten ur...etako
lurrean etsaien artian, beti prest beren bizitza fediagatik emateko? Ah,
Zenbat lan, zenbat estutasun, zenbat perill igarotzen dituen! San Pablo
Apostoluak bezela ditue etsaiak alderdi gizietatik: etsaiak bideetan, etsaiak
urietan, etsaiak basamortuetan, etsaiak itxasuan... askotan gozez ta ega-



rriz, otza batian, beruak bestian... *in labore et aerumna... in fame et sitz, in frigore et nuditate*. Zeiñena uzte dezute dala ainbeste izerdiren irabaziya? Zuená, errosariyoko kofradiak. *Omnem terran quam concupiscis tibi dabo*. * Begira beste alde batera: *leva oculos ad orientem*. Ikusiko dezue gizon aldrea andi bat zein, bat egiñik, Madalenaren eta Martaren **bizitz...** ...zi dan munduko jira-bira lanetan alde batetik ta bakartadeko oraziuán santuan bestetik batzuk zebebratzen due altarako mesa santua, beste batzuek erre-zatzen due; batzuk daude eskribitzen, bestiak zeruko dotriña erakusten; batzuk predikatzen bestiak konfesatzen; bide batez dira eskutuan beren burua kastigatzen bizi diran penitentiak eta agiriyan fede ukatsalliak ben-tzitzen dituen gizon jakitunak. Eta zeñena da ainbeste oraziyo, ikasi ta erakutzien lana? Zuená, errosarioko kofradiak. *Omnem terram quam concupiscis tibi dabo*. Begiratu oraindik beste alde batera: *leva oculos tuos... ad occidentem*. Ikusiko dituzue ezin kontatu ala martiri Jesu Kristoren amodiyua-gatik ainbeste lan, neke, samín daramatela S. Pablo bere eskutiz edo karta baten zion bezela: «Batzuk sufritzen ditue arrikadak, golpiak, katiak eta presondegíyak, beste batzuk dira serra batekiñ ebakiak edo kentzen diote lepua ezpata batekiñ, beste batzuk dabilta igesti aruntz ta onuntz, estuta-sunarekiñ eziñ billatuta nun eskutatu beren burua baso eta mendiyetan». Ta zeñena da ainbeste odol ta estutasunen sariya? Zuená errosariyoko kofradiak. *Omnem terran quam concupiscis tibi dabo*. Zein zorionez betiak zera-ten! Zuekgatik ezan lezake gure salbatzealleak bere ikasleai ezan ziotena: batzuk ereiten dute gariya, beste batzuk ebaki; batzuk egin lana, beste batzuk alort edo frutuak artu: *Alius est qui seminat, et alius est qui metit*; zergatik errosarioko batzar edo kofradiakuak izanarekiñ bakarrik dira zuenak Guzmango Domingoren semiak munduko lau aldietan ainbeste lanekiñ irabasten dituen aberastasunak. Zeiñ ongi esan lezakian bada kofradia onegatik. *¿Quis potest similiter sic gloriari tibi?* Nun da beste bat ainbeste aberastasan irabazten ematen dituanikan lanik egin gabe?

Gaiyago oraindik. Gure munduko bizitza amaitzen danerako, erio-tzak ordurako, danik ordurik eztuenerako, dauka errosarioko kofradiak pekatu guzien parkaziorako grazia, indulgenzia osoa ezaten zaiona; baña gure pekatuen parkazioa konfesio on baten bitartez artuta, iltzen bagera ere, indulgenzia osoa ongi artu gabe, zenbat laguntasun izango ditugu munduan gelditu diran anaiak gandik! *¡Vae soli!* dio Eskritura santak, ai bakarrik dabilztanak, zergatik erortzen badira eztuen izango nok altxatu! Baña errosarioko kofradiyakuakgatik millak eta millak erregutzen due munduan; millak eta millak bialtzen ditue zeruruntz beren *Abe Mariak* ama maitiagana millak eta millak egingo due alegina altxatzeko beren

anaiak erori diran lekutik. Ze pozgarria izan biar duan gure etxeko gura-soak anaiak eta lagunak izer ezin duenian egin gure onerako ainbeste adis-kide oraziuan gure pekatuen parkaziorako eukitia! Santiago apostoluak dionez asko baliyo badu justo baten orazioak, ainbeste Jaungoikuaren ser-bitzariren oraziuak, mesak eta indulgenziak zer egingo eztu? Esan lezake batere bildur gabe eztatola errege bat, enperadore bat, edo aita santu bat, errosarioko batzarrekoa izan ezikean ainbeste laguntasun idukiko duanik munduan ta munduko bizitza amaitzen danean.

Ara or errosarioko kofradi edo batzarra zer dan. Ete dago norbait aberastasunik nai eztuanik? Gutxi esagutzen ditut. Baña bai badira zeruko aberastasunak utzirik alde batera jaramonik egin gabe saiatzen diranak indar guziarekin munduko aberastasunen billa. Aiñ gaude denpora gal-duetan eze astu degu jaiyuak gerala zerurako eta uzte degu beti bizi biar degula lurrian. Aiñ gaude denpora galduetan ese naiyago degu lurra zerua baño, maiteago degu deabrua Jaungoikoa bera baño!

Ah! Bedeinkatuak España guztiko errietan errosario santuan erre-satzen zan denporak! Bedeinkatuak erri guztietako etxeetan koroí eder au Mariari eskeintzen zintzaion egunak! Bedeinkatuak Euskal-erri maiteko zukalde guztietan oítura santu au gordetzen zan gabak! Ze gozua izan biar zuan koroí eder au Mariari ipiñi ta kontzientzia garbiarekin Aingeruen gisara geratzia!

Ah, gaur! Batzuek, askok!... geijenok!!! astu ditugu gure asabaen oitu-ra eder bedeinkatuak... Kristauak, kristau maiteak, eztegu naiko izan gure aitonak bezelakuak? Ukatuko degu gure odola? Aitzen zaudeten euskal-dun biotzekoak, eztegu jarraituko gurasuak erakutzi diguen bide santua? Ote da norbait bere Ama bedeinkatu nai eztuana? Ote da norbait hereje guziak akabatu nai ez dituana oraziuaren bitartez? Zer diot? Ez, ez! Eus-kaldunak len, euskaldunak orain, euskaldunak beti. Euskalerría izan bada orain arte Mariaren erria, baita ere emendik aurrera. Gure gurasuak jaso zituen mendi tontorretan eleisatxoak Mariari? Guk jasoko diogu bular bakoitzian altare bat eta an eukiko degu Mariaren izena maitasunik andi-yenarekiñ. Aizarnako etxe guzietan entzun dedilla gauero errosario san-tuaren orazioko murmurada gozoa. Ezkera bat geratuko errosarioko kofradian sartu gabe, ezkera geratuko iñoiz ere errosariyo santua erresatu gabe.

Bai Ama bedeinkatua, sortu egizu gure bularretan errosariyo santua-ganako debozio andi bat, egizu izan gaitezala leiyalak debozio au betetzen eta *erregutzen ezazu gu pekatoriok gatik* zure seme Jesusi: Erregutu ezazu *orain*, mundu onetan, zergatik gauden alde guztietatik etzaiz inguratuak,



alegin guztia egiten dabiltzanak gure arimak galtzeko. Erregutu ezazu *orain*, egun larri triste ta eztu onetan, zergatik zure Semiaren relijiyuaren kontra altxatuta dabillen infernu guztia. Erregutu ezazu *orain* gure Aita Santu Leon amairugarrenagatik eman zaiozu argitasuna eta indarra olatu ta ekaitzen artetik atera dezan bere ontzia eta auzpeztu ezazuz betiko bere etsai gaistoak. Erregutu ezazu *gure eriotzako orduan*, instante larri artan zaindu gaitzatu eta Abigail jakitunak bezela ez taldu zazu gure ezjakiña, lagundu zaiguzu askenengo zispurura artian; zure izen santua izan dedilla gure askenengo itza, artu zazu zure amodiosko besuetan gure arima eta eraman zure seme Jesusegana koro ederra zeruetan jasteko betiko gozotasunarekiñ. Amen.

SAN JUAN

(Gorozika)

*Et posuerunt omnes qui audierant in corde suo,
dicentes: ¿Quis putas puer iste erit? Luc. 1. 66.*

Atsegindu gaitezen, neure entzula biotzekuok, poztu gaitezen guztiok egun dontsu ta miragarriko onetan. Jaijo da Jaungoikuak bialdutako gizona, santuen edertasuna, arima justuen gloriya, Aingeruen alegriya, Jesu Kristoren barriemollia eta bere batiatzalle andiya. Jaijo da erregerik andijenaren soldauba, juesik zuzenenaren pregoia, basamortuko diadarra, penitenziaren predikadorea, garbitasunaren jaolia, nasaikerijaren etsaija eta inozenzijaren laguna. Egun onetan jaijo zan San Juan Batiatzalle edo *Bautistia*, eta bere jaijotziak pozez beterik itxi zituan munduaren alde guztiak. *Multi in nativitate ejus gaudebunt.* Egun onetan jaijo zan, ta mirarituten ziran auso eta senidiak eta aĩn ume soragarri au ikusten eben gustiak, eta ikaraz beterik aĩn beste mirariren artian itantzen deutsee bata bestiarri «¿*Quis putas puer iste erit?*» Zein uste dozue dala ume au? Serafin bat etorri da bere sorreria adierasotera, Jesu Kristok santutu dau bere amaren zabelian, jaijo da mirariz ama zar bategandik eta mundura agertutia izanda asko bere aita Zakarias-en mina askatu eta etorkisun eskutuben barrijak munduari emoten asteko. Zelakua izango ete da egunen baten ume jaijo barri au? ¿*Quis putas puer iste enit?*

Itaune oni biar dan legez erantzuteko jua biar genduke eremu edo desiertura nun egin zituban aĩn penitenziya garratzak; jua biar genduke Jordango ibaira nun batiatu eban Jesu Kristo gure Jauna; jua biar genduke erregeen jauregijetara, nun libertade osuagaz agertu eban zeruko egija; jua biar genduke presondegijetara, nun irago eban martirijorik gogorrena: obeto esateko, jakiteko zelakua izango zan San Juan Batiatzallia itandu biar geuskijube Igarla Santubai, Aingerubai, ta Jesu Kristori zeintzubek etxuratu eben berbarik jasuenakaz.

Egija da, n. e. b., izan diriala munduban aĩn gizon santu ta birtute-tsua ze, euren garbitasun ta santidade miragarijagaitik izan dirian eukijak edo gure aragijagaz estaldutako Aingerutzat edo Aingeru-espirituagaz indarturiko gizontzat; baña San Juan Batiatzallia bere zeregin altu, birtute ta merezimentuak gaitik, aĩn beste aurreratu zan beste santubai ze, ez



bakarrik izanda eukija Aingerutzat, baita bere Jaungoiko edo Jesu Kristo-tzat.

Esango deusubet lau berbatan zelakua izan zan bere bizitza Santua, izan daitian gure modela Zerurako bidian, egiten dogula gero bardinkun-tza edo konparaziñoe bat bere era geure bizitziagaz.

Danok dakizue nire argaltasuna, gaur, lenengoz igotian leku Santu onetara; eskatu egizube bada guztiok biotz biotzetik Espiritu Santuari emon daidala biar dan grazija, leunda daijala nire miña, argitu daijala nire adimena biar dan legez aitzen emoteko zueri Eleisa Santubaren egija andi-jak. Ipiñi daigun bitarteko geure Ama Maria guztiz Santia, dirautzagula guztiok Aingeruakaz batian: *Abe Manija*.

Et posuerunt omnes qui audierant in corde suo, dicentes: ¿Quis putas puer iste erit? Luc. 1. 66.

Betikotasun edo eternidadetik izan zan ezin da geijagokua Jesu Kris-tok San Juan-eri eutzan amodijua, eta amodijo onen billabide edo *pruebak* emoteko denporia eldu zanian emon eutsazan ezin da ederraguak. Ondo dakizube Jangoikuak bialdu zituala mundura Igarla edo profeta asko munduko Salbatsalliaren barrijak emotera. Igargarri edo profezija onek bete baño lenago ikusi zirian zeruetan iru eguski; bardin ikusi eben Erro-mako ostatu batetik urteten egun bat osuan orijozko erreka bat Osorio eta Baroriok esaten dabez; baita bere ikusi zirian beste mirari asko.

Mirari guzti onen bitartian izan zan sortua San Juan Batiatzallia bere ama Isabel urtez beterik eta indar guztiak galdurik eguala.

Osta gertau zan Jesusen sorrera edo Enkarnaziñoiko misterijua Maria guztiz Santiaren erraija garbijetan, zeruko erregiña au jua zanian ber bertatik bere lenguziña Isabelen etxera. «Zer da au, Marija, zer gauza barri gertetan da zu aiñ lasterka juateko?». Oh, amodios betetako biotza! Ez dozu begiratuten zenbat peligruren artian ikusten dozun zeure buru-ba baso triste orretan? Begiratu egizu zeñ astuna ta luzia dan bide ori. Begira eijezu zeure indar orreri. Ez zaitu atseratuten peligru orretatik oraiñ artu dozun Jaungoikuaren Amaren izate miragarritzko orrek? Ikusi nai badozu ume orren jaijotzia, ez dakizu oraindik zeigarren illian aurkituten dala zeindun Isabel? Oraindik denporia daukazu, ez zaite eztutu, Marija. Baña Marija guztiz Santiari bere Seme Jesu Kristok sabeletik emo-ten deuta priesa esanten deusala: doiala ainbat lasterren Judeako mendi-jetara zergatik bere batiatzallia nai daben Santutu bere amaren errajetan.

Bost milla eun ta larogeta amazortzigarren urtian munduaren asie-ratik, Jaungoikuaren semia jaio baño sei illabete lenago Herodes Askalo-nitaren erregetasunaren askaneruntz, agertu zan munduan Aigeru au,

agertu zan Igarla au, igarla guztiak baño geijago zana, geure Salbatzalliak dirauskun legez, agertu zan Mesias egiaskuaren bideaurrera bialdutako gizon au, gizon miraritsua, oi ez diran legezko gizona.

Bere aita Zakarias eguan mutututa bederatzi illabetian ziñistu ez eba-lako zeruko aingeruak agertu eutzanian bere semiaren sorreria, eta itan-durik zer izen ipiñiko eutzen erantzun eban: Juan izan zedilla bere semia-ren izena eta orduan, askaturik bere miña, asi zan Jaungoikua bedeinka-tuten. Arriturik jentia ainbeste mirari ikustian itantzen eben bata bes-tiari: Zelakua izango ete da egunen baten ume onen gloriya? Egun senti-jan ainbeste argitasun zabaltzen baldin badau, ze argi izango da eguski onena egunaren erdijan? *¿Quis putas puer iste erit?*

Aiñbeste mirari gertau zan San Juanaren jaiotzan ze Judea guztian izan zan esagutua. San Pedro Alejandrinok diño, gausa guztientzat agirija legez, Herodesek Jesus billatu ebenian bere bizitzia kentzeko, bardin nai izan ebala egin San Juan Batiatzalliaz, bere jaijotziak munduan emon eutzan entzutiagaitik; baña bere ama Isabelek, eruanik basamortura, gorde eban Herodes-en eriotzara artian. Herodes iltzanian biurto zan Santa Isabel bere zenar Zakarias-egana; baña an geratu zan San Juan bere predikaziñoirako denporara artian. Basamortuan egin eban bizitzia daki-gu Ebangelijo Santuetatik. Bere jana zan bakarrik baso eztija eta larrapo-te edo langosta esaten deutzen pistija batzuk; eta onetarikuetatik bere aiñ zan gitxi jaten ebana ze Jaungoikuak berak esan eban «ez ebala jaten eta edaten». Bere jantzija zan animalijaren narru zatar bat uel bategaz gerri-jan lotuba, eta igaroten zituban egunak eta gabak Jangoikuagaz berbetan, gertetan zala, oraziñoiagaz, baruakaz eta penitenzija mueta guztijakaz bere bizitza agirirako.

Modu onetan eldu zan aiñ santu andija izatera ze ziñuan S. Pedro Krisologok eukala aingeruben jakiturija, esageria ta garbitasuna: *Par Angelis*. San Agustiñek diño: aiñ andija zala ze Jangoikotzat artu ebela; *tan magnus ut possit Cristus putari*; S. Bernardok: S. Juanek ebala martiri santuak baño indar andijagua eta Ebangelistak baño argitasun geijago. Gizon andijak zirian Moises, Josue ta Elias, baña ez dauke ze ikusirik Juanegaz. «Baña, zer diñot nik?, dirausku S. Bernardok, munduan izan diran gizon andi guztiak ikusi ditut; baña aurkitu ez dot zeñegaz bardindu eta nire neke guztiak alperrik artu ditut». Beste guztien artian zatitua aurkitzen dan gloriya guztia beragandurik dauka S. Juanek. Begiratuten badeutzat Abrahamen fediar; Dabiden penitenzijari, Salomonen jakiturijari; Joseren lejaltasun ta garbitasunari, Samuelen bere jentianako karidadiari, Isaak patriarka santuaren obedienezijari eta Jakobek nekiari, bertatik autortuko



dot gizon guztiz miragarriak izan ziriala onek; baña ezingo dot itxi esan бага, oneek beste gizoni kendu eutzezen geide edo bentaja guztiak, San Juanek bakarrik keñdu eutsala gizon miragarri onei».

Baña zetarako geijago jardungo dot Santu onen alabanza baldiñ gizonik andijenak labur gelditzen badira? Zer esan neike aurkituten ezpada nogaz bardindu?

Pensau egizube, bada, n. e. b., zein altsua izango dan zeruetan santu onen bitartekotasuna eta zein premiñaskua guretzat beraren adiskidetasuna. Eta, zer egiten dogu onetarako? Noiztik bein santuari mun bat egitia, zortzijan bein mesa labur bat entzutia, bada ezipadan aita geuria bat erresetia izango ete dira naikua? Ez, n. e. b., ez; Zer egingo dogu bada? *¿Quis putas puer iste erit?* itandu giñaike geuk bere. Ze izango da gaste zoru orregaz, emakume argal orregaz, gizon nasai orregaz? Ze izango da nigaz? Jarraituko ete deutsa eriotza santu batek bizitza nasai ta lokarribagakuari? Mundutar espiritu batek, ekandu galdu batzuk emongo ditue alort edo frutu onak betiko bizitzarako? Zeruan, nun sartzen eztan orbanik txikijen bat bere, artuko ete dabe arima aragijari emona? Emongo ete deuskube betiko zoriona bizitza pekatuz betetakuaren zaritzat? *¿Quis putas puer iste erit?*

Gura dogu jakin zer izango garian?... begiratu daigun zer garan. Geure deboziñoiak, geure ekandubak, geure esatiak eta geure egitiak erakutziko deuskube zer izango garian. Pekatuko bidetik bagabiz erantzueratristia emon biarko deutzagu itauntze oni.

Baña ez; gaur emen batu garianok zerutar baten alabantzak kantau naijan jarraituko dogu berak erakutzi euskun bide ederretik, iges egingo dogu arimiaren galgarri dirian pekatuko lagunetatik, izango gara birtute-tsua S. Juanen irudira, beteko doguz bautismo santuan artu genduzan lokarria edo karga guztiak.

Oh, Santu miragarrija! Gozatu zaite ordu onian zeure bizitza da egitada andijakaz irabazi zenduzan gloriako atsegiñetan; baña ez zaites, arren! gortu lurreko erbeste negarresko onetan zure bitartekotasuna billatzen daben erregu eta eskarijak ganako. Erregutu egisu Eleisa Santiagai-tik, zein aukera eta eskubidiak an sendaro zaindu zenduzan. Gorde egizu zerutik zuk lurrian zabaldu zenduan Jesu Kristoren fede Santia. Gorde egizu Euskalerra au. Egisu jarraitu dajogula zeure pausubai, oraiñ emen lurrian, poztuteko egunen baten zugaz batera zeruko gloriñan, zein guztioi opa deusuedan.

SAN MARTÍN

(De González)
En Asquizu

Memoria justi cum laudibus. Prov. 10. 7.

N. a. m. Kristandadeko gizon andiyak, beren bizitza amaituta ere, munduan utzitzen dituen argitasun ta usain gosoa ain dirade andiyak ese, ez dira naikua borrazteko gisaldi guztiak ta denboraren illuntasunik andiyenak. Relijio egiazkoaren kondaira edo historiya dago zeru urdiña bezela izar ederrez jantzia, eta izar abek argitzen ditue munduan zeru onetarako dauden bide guziak; bada gure Jaungoikuak zabaltzen ditu bere graziak modu askotan da gauza askotarako, kristau bakoitzaren izateari dago-kion bezela. Orregatikan gertatzenda santidadeko urre gorriya egotia inguratua añ adornu desberdiñez ta orregatikan esan lezake Dabid erregerikiñ: *Astitit Regina a dextris tuis in vestitu deaurato circumdata varietate.*

Baña santu batzuen bizitzan ikusten dira zeruko graziaren señala ta ageragarriyak añ modu miraritsuan ese, eztago bastertxo bat bere birtute andiaren izena eltzen eztanik. Ta orduan artzen ditue erriyak beren zuzengaitzat zerurako bideetan. Onela gertatzenda biyotz andiyen ispillu Martin santuarekiñ zeñen gomuta izango da beti bedeinkatua. *Memoria ejus cum laudibus.*

San Martiñen bizitza beteta dagan egite izugarrien artian billatuko ditugu geuk onduen berdinduko espaditugu ere, imitatu geinkezanak, bada denbora guzietan izan badira santuen jaiyak gure biotzari egiten zakozan dei batzuk eta gure adiñ edo entendimentuari egiten zakozan erakutziak jakin dezagun nola ta nundik dagan zerurako bidia, arrazoi andiaguarekin gaurko denboretan zergatik eldudan ostasuna fedean eta gaistakeria bularrian mendi tontor guzietaraño..., pena andi batekin esaten det, baita Euskal-erri maiteraño ere.

Orregatik gaurko nere itzaldiaren gaia izango da erakustea *San Martini birtuteak eman basiuere bere gloriya*, guk alkantzatuko degula gurea birtute abek berdintzen alegiña egiñarekin.

Baña au biar dan bezela erakusteko zuri eskatzen dizut argitasuna, argi guztien aita, bada zure tronutik bakarrik jatxitzen da gausa on guztia lurrera. Nola biar dan bezela altxatu leiteke zure serbitzari S. Martin zeru-



ko argitasun gabe? Garbitu egizuz nere españak, leundu egizu nere min-
gaña, bistu egizu nere biotza eta izan zaite zu itz egingo dezuna nere
aotik. Ala uste det izango dala; bada erregutzen dizut zure ama onaren
bitartez, zeñi eskatzen diogun mesede au esanarekin guztiok aingeruare-
kin batian: Abe Maria.

Memoria etc.

Ezta izan ta ezta izango ere munduan gauza izugarriagorik gizon bat
umetasuneko inozenziarekin gaistakeriaren onduan bizi izatea baño, gar-
bia arkitzea maliziaren albuan, biotz bigunekoa dollorren artian, santua
bizi izanik pekatariakin. Bada au da Martiñen irudiya nere aditzalle mai-
teak.

Jaiyo zan santu argitsu au Panonia esaten zaion lurrian laugarren
gisaldiko bukaeran edo bostgarreneko lelengo urteetan; denpora gaitza,
bildurgarrija fede eta kostunbre edo oitura onentzat; zergatik zan fede
ukatzalle eta relijiyo gezurreskuen adiskideak indar guztiak egiten zituen
gure J.K. jaunak sortutako relijiyua ito naian bere jaiotzan. Oraindik etsan
Martiñ kristaua, bere biotza kristauena bazen ere, bada jaiyot etxian dauka
bere pentsamentuen etsairik andiena, bere aita. Onela beti zeguan peli-
gruan ta Peligruak geitutzen dira lege berri batek Juliano fede ukatzallea-
ren laguntsan gerralaria izateko agintsen dionian.

Baña ez bildurtu; Abrahanek bezela irtetzen ezpadu bere etxe eta
lurretik ere, Lotek bezela utzitzen ezpaditu uri ustelduak ere, Martin, Elei-
sa santaren ikaslea izanik bakarrik, oraindik batiatu gabia, ibilliko da bate-
re mantxatu gabe bere anima fedegabekuen ekandu loituen artian birtute
ederrarekin apaindua bere anima, lotzatzen dituala, ez bakarrik orduko
gizonak, baita gu ere, bizi geralako bataio santuan agindu genduzan gau-
zak kunplitzia zekulan ere akordatu gabe. Orduan izan zan gustiok daki-
zuen S. Martiñen gertaera: ikusirik egun baten eskale bat larru gorrian,
entzun zuan bere Jaungoikozko karidadearen eta biotz samurraren deiya,
atera zuan gerriyan zeukan ezpata, ebaki zuan soñian zeukan kapa eta
eman zion erdiya eskale gaixuari. Eskale au zan J.K. gero agertu zitzaon
bezela.

Gelditu gaitian piska bat emen eta ikasi dezagun zerbait. Gu jaio
giñan, Jaungoikuaren mesedez, kristauen artean, artu genduan bataio san-
tua, eta izan gera indartuak beste Eleiza santaren sakramentuakin. Txiki
txikitatik, gastetasunian eta gerora ikusi ditugu ejemplo onak eta asko gure
inguruan: eztet galdetuko zer egin degun denpora abetan, nola lagundu
diogun Jaungoikuaren graziari; baño ezin utzi nezake galdetu gabe iya guk
ere *erdibitzen degun gure jantziya Jesu Kristorekin*; au da, laguntzen badiogu

pobretxuari bere nezediari dagokion bezela, guk, kristandadiaren erdiyan
bizi geranok; *erdibitzen badegu gure jantzia J.K.rekin*, au da, animako bizitza
Jaungoikuarentzat bada, ta ez munduko gauzetarako; *erdibitzen badegu gure
jantziya J.K.rekin*, au da, astutzen bagera espirituko aberastasunekin geiye-
gi saiaturikan gorputzekuetan; *erdibitzen badegu gure jantziya J.K.rekin*, au da,
etortzen bagera biar dan bezela eleizetara, egiten badegu alegiña eleizaren
onagatik, laguntzen badiogu eleisaren nezesidadiari al degun bezela? Ah!
Negar egin lezake gauz onen gañian! Gutxi, txit gutxi dira S. Martiñek
bezela erdibitzen duenak bere jantziya J.K.rekin baño asko, txit asko dira
ikusirikan jantziyarekin J.K. jantzi orren satiya kenduko luekenak. Esta
izango berdiña abek eta S. Martiñek artzen duen sariya.

S. Martiñen egitada eder au eziñ lesakian geratu zaritu gabe, ta laster
artu zuan sariya bataio santuan, zer zan berak aspaldiyan naian zuen
gauza. Bataio santua artu eskero etsuan pensatu beste gausarik J.K.ren
ejerzitian gerralaria izatea baizik, eta, ze gerralaria! arturikan lelengo S.
Hilarionen lezio ederrak asi zan gauzarik onenaren atzian, santidadiaren
billa S. Pablo, S. Antonio eta S. Hilarion bezela. Irten zuan fede sutsu
batekin ebanjeliyuaren santidadeko kastillua arrapatzera, bere ama kristau
eginda gero, fede ukatsalle arrianuak mututu da gero; egin zuan konben-
tu bat eta an bizi izan zan fraille batzuekin. Eta utzi biar dirazue emen
atzentxo bat egiten.

Konbentua esan det! Zetarako dira konbentuak? Frailiak! Zetarako
dia frailiak? Zenbat bidar aituko zenduesan itz abek, n. a. m. Utzirik alde
batera gizonaren lokarri gabe izateari edo libertadeari, esaten dan bezela,
egiten zakon injuriya, dago itz abetan pensamentu gogor bat, pensamen-
tu samiñ eta estu bat munduan beren anima salbatu eziñik edo esperan-
tsa obiarekin munduan baño beren animak salbatzeko konbentuan sar-
tzen dionentzat Jaungoikuaren diadarrari jarraitzen diotela. Zetarako
diran konbentuak? Konbentuak dira lorategi eder batzuk. Jaungoikuak
jarriak bere Eleisaren erdijan sabaltzeko mundu guztian birtutearen usain
gozoa: konbentuak dira egunero gure biotzetan munduko engañuak ira-
giten dituan sauriyen osagarriyak: konbentuak dira orazioko lekuak: kon-
bentuak dira biar biarreko etxe santu batzuk gizonaren dignidade eta
libertadea esagutzen dan toki guztietan: konbentuko gizonak frailiak nai
due jaso espiritua eskuakin ikutzen diran ta begiakin ikusten diran gauze-
tatik gora eta gora: konbentuak, azkenez, dira jakituriaren jarrilekuak eta
pobrien laguntasunak. Ah! Konbenturik izan ez balitz zenbat santu, zen-
bat jakitun gutxiago. Akaso, akaso, gaur dan aurrerapenik etsan izango
munduan konbentuko liburuetan artu ezpalitz sustraia. Konbenturik izan



ez balitz zenbat pobrek ezingo zuen erakutzi zenbat baliyo zuen. Etzan gaur beste izen andi irakurriko kondaira edo historiyyetan.

Konbentutik irten zuan S. Martiñek ere *Tours*go obispo izateko. Pena izan zuan Martiñek ixill eta bakartasuneko lekua utzitzia, artzeko bere gañian aingeruak eurak bildurtzen dituen aginpidia, ainbeste arantza orduan gaur bezela daukazan aginpidia; baña Jaungoikoaren borondatia zan da Jaungoikoaren borondatiaren aurrian makurtu zuan bere burua.

Ta beteko du Martiñek bere lekua. Beste Elias bat bezela urturikan Jaungoikua serbitzen, bat egiñik Obispuaren birtute andiyak frailien bizi-tza pobre ta umillarekin, eukiko du indarra esku batian erortzen usteko purrukatuaz Jaungoiko gezurrezkuen irudiak eta leun ta gozotasuna bes-tean beraganatzeko gentil eta fede ukatsalleak; eukiko du batian indarra soberbiosuak lotutzeko eta amodiua bestean umillarekin tratatzeko. Etzan batere ikaratu *Elisaren* etsai Balentiniano eta Maximo enperadorien aurre-ra juaten fediak biar izan zuanian, eta aiiñ errespeto andiya artu ziyuen ese, enperadoriaren emastiak berak jarri eta bere eskuetatik eman zion janariya ere. Ara jakituriyak eta birtuteak egiten dituen mirariak.

Baña nola gauza guztiak amaitzen diran, amaitzera zijuan Martiñen bizitza ere. Inguratu ziuen bere obia askenengo orduan ardi maiteak eta negar eta zispuruarekiñ esaten ziuen: «Onela utzitzen gaituzu, gure aita, gure albuana leoe gozestuen orroiak zentitzen diranean? Zer egingo degu arzai gabe?» Eta utzirik alde batera bere Jaungoikuarekiñ bat egiteko desiua orduan, karidadearen sugarretan erretzen bere biotza, esan siozen itz eder abek Jaungoikuari: «Jauna, oraindik biarra banaiz zure erriyaren-tzat, etorri bedi lana; egin bedi zure borondatea» *Fiat voluntas tua*. Baña Jaungoikuan beraga...du izan zuan. Eta bake santu baten eman ziyon Martiñek bere espiritua Egille altsuari. Bere borondatia egiten bizi izan zan; bere borondatia egiten ill zan gerralaria, fraillia, Obispo santua.

Baña zer diot? Illten al dira santuak? Ez, n. a. m. Guelditzen da beren gomunta gozoa gizonen artian betiko, betiko bere anima zerua gozaten dijuan bezela, Santuak illeskorrak dira.

Martin santua! Biraldu egizu zerutik begirakuna errukior bat oraindik munduan bizi geranoi. Izan zaite gure laguntasuna gure askenengo ordu triste ta estuan. Entzun egizuz gure errekuak eta alkantzatu egiguzu Jaungoikuagandik zu imitatzeke grazia izanarekin relijiyuaren defenso-reak lurrian gero zeruan jantzi dezagun zurekin batean illezkorren koro-i ederra, zein guziori opa dizuedan biotz biotzetikan.

San Martiñek, argitasun zerutar batekin inguratua, eman zuan bere arnasa ta bere arimak aingeruekin batian iriki zituan odeiyak eta igo zuan zeruetaraño nun daguan deskantzaten mundu onetako lanetatik.

Nai degu guk ere alkantzatu izen bat edo gloriya bat sekula amaitu-ko eztiranak? Izan gaitian birtutetsuak S. Martiñen gisara eta birtutiak irekiko diguz bidiak. Eztaiguzan aldendu gure begiyak Santuakgandik eta animaturikan bere ejenplu eta Jaungoikuaren graziarekin elduko gera beurak eldu ziran lekuraño.



MISA NUEVA

(Zarauz)

Mediator Dei et hominum.

Jaungoikoaren eta gizonen bitartekoa

S. Pablok Timoteori egin zion kartan IIgarren c. 5. v.

N. a. m.: Gure Jaun eta Jaungoikoak bere errukitasun neurrigabeen sortu eta utzi zituan lurrian gauza bi munduaren salbaziorako: liburu bat eta gizon bat. Zer da liburua? Da liburua Jesus salbatzallearen kondaira; da dotriña zerutarra, jakituri guzien asiera, egia guzien kutxa, edertasun guzien jatorria, ondasun guzien lekua, esperantza guzien iturria; itz batean, Ebanjelio santua. Zeiñ da gizona? Guziok esagutzen dezue zergatik dagon leku guzietan, zergatik toki guzietan zabaltzen duan zeruko dotriña, eguzkiak argia toki guzietara eramaten duan bezela: da sazerdotia. Bera bear da jaiotzan, bera bear da eriotzan, bera seaskatikan obi edo sepulturaraño. Bakar eta ixiltasunean bizi bada ere, beragana dijoaz biotzaren erdian eskutuan dauden gauzak esatera, poztasunik txoroenak, malkorik tristenak agertzera. Naiz ta etxe pobretxoan jaioa izan sartzen da erregien jauregietan artxaien txaboletan bezelasean. Bera da bitarteko aberatzen eta pobreen artean, eta batzuk eta besteak deitzen due bere atean. Ezta igarten andia edo txikia dan; bada bere umiltasunagatik txikia dirudi; baña bere jakituri eta birtuteagatik andienetakoa da. Egiak esaten ditu aberats eta pobreentzat, beti dago gerran gezur eta gaistakeriaren, eta nun dagan gezurra an dago beti sazerdotearen etsaia.

Eta nola egongo ezta gezurra, deabruaren semea sazerdotearen kontra, bada sazerdotea Jaungoikoaren ordiazkoa, kristauak zeruko bidean eraman bear ditutana, bada Jaungoikoaren eta gizonen bitartekoa. *Mediator Dei et hominum?*

N. a. m.: Eleizgizon berri baten, Sazerdote berriaren lenengo mesa entzutera batu geran eskerokoan, ikusi bear degu nola dan Jaungoikoaren eta gizonen bitartekoa atera dezagun ortatikan bere izate andia eta berari zion diogun errespeto eta amodio garbia. Au da gaur goiseko itsaldi laburtxoaren gaia.

Baña nola gizona eztan berez izertxo ere zeruko laguntasun gabe, lagundu bear dirazue guziok jaristen ontarako bear dedan grazia, esanarekin danoen ama bedekatuari: *Abe Maria*.

Mediator Dei et hominum.

Jaungoikoaren eta gizonen bitartekoa.

S. Pablok Timoteori egin zion kartan esan dedan kapitulo eta bersuan.

N. a. m.: Edozetara begiratzen degula sazerdotearen anditasun eta alizatea, beti ikusiko degu dala Jaungoikoaren eta gizonen bitartekoa. Begiratzen badiozue sazerdoteari altara santuan ikusiko dezue berristatzen, odolikan ixuri gabe J. Kristo gure Jaunak Golgota-ko mendi gañean egin zuan eskeintza berbera munduaren salbaziorako, isuririkan bere odol txit santua. Sazerdotea altaran Jaungoikotzen da, dio S. Dionisiok, zergatik bere alizatearen indarrarekiñ sortutzen duan Jesusen Gorputza, egiñikan mirari bat mundu guziaren gañetikakoa. Ikusgarria izango zan munduaren asiera, ikusgarria izango zan, eguzki, illargi eta izarren sortuera goietan, ikusgarria izango zan itxasoaren eta lurraren egintza bere edertasun guziekin, baña etzan andiagua altarako eskeintzari edo sakrifizio santua baño.— Gauza guzien Egilleak nai izan zuanean egin ikusten degun guzia, etzuen beste bearrik izan itz egitea baizik: *egin bedi*, esan zuan, eta bereala ezerestik atera ziran gauza guziak. Berdiñean, Aitaren Seme Jaungoikozkoak nai izan zuanean bete betikotasunetikan pentsamentuan zeukan egintza, artu zuan bere eskuan ogi puska bat, itz egin zuan, eta ogi puska ura bere gorputz biurtu zan; artu zuan ardo puska bat, itz egin zuan eta ardo biurtu zan Jesusen odol! Oh, miraririk andiena? Mirari izugarria, erakusten diguna Jaungoikoaren jakituria eta amodio neurrigabea!

Nere aditzalleak; au berau egiten du sazerdoteak mesa santuan. Itz egiten du eta zeruak irikitzen dira, urratzen dira odeiak, auzpestzen dira aingeruak, dardaratzen da infernua eta sortutzen da altaran Jaungoiko eta gizon egiazkoa. Eta bereala jasotzen du bere eskuetan Jesusen Gorputza erriak adoratu dezan, eta esaten dio Aita Betikoari: «artu dezala eskeintsari ura lenagoko denporetan Abel, Abraham eta Melkisedekena bezela pekatuen parkaziorako», eta Jaungoikoak ikustean eskeintzen diola bere Semearen odola, sazerdoteak munduko pekatuen zorra parkatzeko gelditzen du bere aserria, gelditzen du gorrotoa eta jetxitzen du mundua kastigatzeko altxaturik zeukan esku indartsua. Ara or nola dan sazerdotea altaran izan leiteken izaterik andiena, Jaungoikoaren eta gizonen bitartekoa. *Mediator Dei et hominum.*

Nork....

Begiratzen badiozue sazerdoteari J. Kristok lotutzeko eta desegiteko eman zion alizatean ta eskubidean, zer besterik ikusiko dezue ezpada bitarteko paketsu bat baño, gizona Jaungoikoarekin katigatzen duan loka-



rri bat baizik, mundu itxuari zeruko bidean argi egiten dion izate bat berterik? zeñ maitagarriya agertzen zaigun Eleizgizona ikusten degunean barkatzen gure pekatu eta utzegiteak Jaungoikoaren izenean, gordetzen dituala gure utzegite danak zekuletan egundaño da iñortara ere desegingo eztan ixiltasunean!

Aitu zazue nola ta nondik datorkion alizate au. Erri guziak estaldurik zeudenean gezurraren laño tartean, gizonaren jakituri labur baña orgulloz betea galdurik zegoala justiziako bideetan, agertu zan Jesus ipintera zetorrena ainbeste gaitzen osagarria. Agertu zan Jesus, mundu eta Zerua-ren Egillea, gizon eta aingeruen jabea bere Apostolu edo ikasleak gana, eta esan zien: *Quorum remisitis peccata remittuntur eis*. Zuek parkatzen dituzuen pekatuak parkatuak izango dira; zuek lotutzen dezuena lotua geratuko da. Ara or, sazerdotearen podere edo alizatearen asiera, alizaterik andiena, aingeruak eztaukena, Jaungoikoak bere Amari berari eman etzaiona. Alizate bat Jaungoikoarena bakarrik izanikan bere ordeazko ete bitarteko diranei bakarrikan emana.

Alperrik gisaldi onetako fedegabekoak nai due ukatu podere onen indarra. Esan bezate eztala eskubide au Zeruak emana, esan bezate gizonak egiña dala beste gizonak beuren aurrean auzpez ikusteagatik. Zer da beuren esana iya emeretzi gisaldiren siñistearen kontra? Zer da beuren esana S. Irineo, Tertuliano, Origenes, S. Zipriano, S. Atanasio, S. Hilario, S. Anbrosio, S. Jeronimo, S. Agustin, S. Leon eta beste ainbeste Eleizako guraso eta jakitunen kontra? Ezin esan liteke gauza onen gañean liburu txit ederretan ezkribitu dan guzia; bañan aitatu bear det Eleizaren etsai bik esaten duana: etsai abetatik bata da Lutero protestantien buru edo naguzia eta Aita Santu Erromakuaaren etsairik andiena. Onek esaten du: «Naiyago nuke Aita Santuaren aginpidean egon (eta au beretzat gauza andia zan) konfesioko Sakramentua kentzia baño». Bestia da Voltaire, azkenengo gisaldiyan Franzian bizi izan zan ezkribitzalle gaisto bat, eta onek dio: «Ezin zala sortu gauza bat ohea munduaren onerako Konfesioko sakramentua baño. Zala konfesio santua munduko legiak kunplitzeko eta norbere obligaziuak betetzeko egin zezakian lokarririk onena». Onela itz egin due Eleizaren etsaiak beurak; eta alperrikan gaur beste gauza bat asmatuko due; konfesio santuak jarraituko du Eleisa dan arte, mundua dan artean, zergatikan dan Jaungoikoaren egintza eta Jaungoikoaren egintzak ez dira bukatzen gizonarenak bezela. Jarraituko due sazerdoteak konfesio santuaren bitartez paketzen mundua zeruarekin bada sazerdotea da Jaungoikoaren eta gizonen bitartekoa. *Mediator Dei et hominum*.

* * *

Begiratu zaiozue oraindikan Eleizgizonaren bizitzari bere pauso guzietan eta beti ikusiko dezue esaten dizuedan bitartekotasuna. Ondo daki berak bere lan santua, eta begiratzan die gizon guziaz Jaungoikoaren irudiak bezela. Ikusiko dezue leku guzietan (Pág. 126, 125 y 126) ardi galduen billa, pekatutikan atera eziñikan Jesusen odolarekin erositako animak, bide zuzenetara ekarri nairikan kristau guziak. Ikusiko dezue aberats eta andikiyen etxeetan samurtzen beuren biotzak pobretxuen onerako, eta pobreen etxeetan bere españian beti karidadezko eta amodiozko itzak dituala. Ikusiko dezue leku santu onetan egia andiak erakusten, len esan degun liburu Ebanjelioaren dotriña zabaltzen. Ikusiko dezue eztakianari argitzen bere adimentua eta jakitunari esaten jakituri guzien asiera dala Jaungoikoaren bildur santua. Beti, beti ikusiko dezue gaistakeriaren kontra, egi eta birtutearen alde, beti gizonak ezin eramanikan Jaungoikoagannuntz. *Mediator Dei et hominum*.

Ah! Zenbat ezker zor diozuen Kristauak Eleiz gizon edo sazerdoteari! Apostoluetatikan gaur arteraño zekula ezta geratu sazerdotea bere lan santuan. Eleizetan, hospitalietan, kartzeletan, errian, mendian, basoan, udan eta neguan, gabaz eta egunaz, Euskal-errian, Españian, Europan, Afrikan, Ameriketara eta Ozeania-ko toki ezkutuetan Kristoren Eleizako sazerdoteak laguntzen dio gizonari jaiotzatikan eriotzaraño. Eriotzan batez ere! Zergatikan nor da bere bizitza edonola igaro badu ere, aitu bere aldamenian nai eztuana azken orduan Eleizako otoitzaren murmurra, nor da ikusi nai eztuana bere aldamenian sazerdotearen kereixa, nor da azkenengo arnasarekin batera artu nai eztuana bere bedekazua? Ah! Orduan denok autortzen dezue bera dala lagunik onena, bera dala bitartekoa. *Mediator Dei et hominum*.

Sazerdote berriya: Itz gutxitan esan det zure bitartekotasuna eta zure gañean artu dezu ardura andia. Ondo dakizu zeñ alizate andiarekin apaindu zaituan zeruak; baita ere daguala mundua iñoiz baño okerrago, Eleizaren etsaiak iñoiz baño gogorrago, erriak iñoiz baño eskergaistoago. Orregatik, ezingo dizudaz esan, naitala ere larrosa kolorezko etorkizunak. Ez, dena kontrara; leku guzietan izango dituzu etsaiak, eleizgizona zeralako! Badijoaz, adizkidea, badijoaz Euskal-errian ere zatika, zatika gure oitura onak gure itzkuntz ederra dijoan bezela, eta, pena andi batekin esaten det! bildur naiz juango ete dan ere gure aitonen fedea. Nun lan egin asko daukazu; bañan zure lanen erdian zaudenian, luzatzen dituzunean



zure eskuak kristauen gañean zeruko parkaziua jetxitzeko, irikitzen dezu-
nean zure aua Zeruko dotriña erakusteko, nork daki saritzat emango
badizue presondegi edo kartzela bat?

Baña, zer digu? Jaungoikoagatik, zeruagatik egiten degu, eta jarraitu-
ko degu ikaratu gabe gure lanean Jaunak berak bere aldamenara deitu
artean.

Eta orain, sazerdote berriya, igo zazu altara santuko malla ori eta
eskeñi zaiozu Jaungoikoari bere Semearen Gorputz eta odola. Erregutu
zaiozu Aita santuagatik, erregutu zaiozu, euskal erriagatik, erregutu zaio-
zu zure erri maite Zarauzegatik, erregutu zaiozu zure familiagatik, batez
ere zure arreba Jaungoikoak oraindik denpora asko ezala negarrezko leku
onetatikan eraman duanagatik. Ah! Ze poztasunarekin ikusiko duan
eskeiñtzen dezula ostia santu eta bedeinkatua bere arimaren onerako.
Azkenez, erregutu zazu, lagun maitea, nigatik ere izan daidan indarra
mundu onetan nere obligazio andia betetzeko, munduak ukatzen digun
saria izan dezagun guziok zeruak. Amen.

SAN JOSÉ

Hay que arreglar este sermoncito (Predicado en Cestona)

Joseph, fili David. Matth. I.

N. a. m.: Egia esatea, egizalea izatea eta egia defenditzea gauza txit
ona dan señaierik andiena da gezurraren aldeko guziak esaten duena: egia
diuela, egiaeren alde dabilzala, egizaleak dirala. Au bera gertatzen da leñar-
gi edo nobletasunarekin. Nobletasuna gauza ona dan señaierik andiena
billatzen det mundu guziak ematen dion estimazioan; eztu iñork esango
lapur baten semea dala, urkamendian il zala bere aita, presondegiatan
daguala; baña oso antziñetatik onragarritzat euki izan oi da familia noble
edo leñargikoak izatea. Gure jatorria odol garbikoa dala erakustea beti
euki izan degu gauza anditzat; gure aideak zirala onelako edo alako gizon
birtutetsu edo jakituri andikoak agertzean, denok panparroitu oi izan
gera. Eta ez bakarrik etxadiak, baita era erri, probintzi, Dierri edo Nazioe
guziak ausi andietan ibilli izan dira umant bat nungoa dan agertzeagatik...
Zuek, n. a., irakurriko zenduezan milla kondaira gai onetakoak; zuen
begiakin ikusiko dituzue jauregiatiko ate zabalaren gañean, arri landuzko
eskutu iraunkorrak errespeto eta itzaltasuna ematen bezela gizon andien
jaio lekua izan zan etxeari; eta guk bakoitzak ere, n. a., gordetzen ditugu,
ogi bedeinkatua bezela, nor bere jatorriaren arbola edo leñargitasuna era-
kusten duen paper batzuk.

Bada eztaukazue jatorri andikoa izatea gauza honragarria, zergatikan
miraritu, nai badet nik Eleisaren gidari ta gordetzalle S. Jose gison guzien
gañetik jaso bere egiazko nobletasunagatik, Dabid erregearen semea zala-
ko. *Joseph, fui David.*

Bañan, ez dezazueta pensatu, n. a., nai dedala jarri S. Jose añ goietan
Dabiden odolekoa zalako bakarrik beste gauza gabe, ezpada eze bere ani-
man bere biotzaren erdian ondorengo egiazkoa bezela, Dabiden birtute
guziak gorde izan zitualako. Dio S. Juan Krisostomok bazala *Tebas* zeri-
tzaion uri batean Espartako etxadi edo famili bat, nondik jaiotzen ziranak
zuen gorputzean berezko txusu edo *lanza* baten irudi bat bezela, nobleta-
sunaren señaiean, eta señaie au etzeukatenak etzirala etxade artakotzat
euki oi izan. Onela, n. a., bakoitzak euki bear ditu leñargitasunaren seña-



leak; nobletasun egiazkoa norberarena izan bear du eta ez gurasoena ta jatorrizkoa bakarrik; bene benetan leñargia danak erakutzi bear du bere egitada guzietan eta ez leñargitasuna ondo gordea euki familiako paper zimur batzuetan edo arrasako kondaira edo istorian.

Natorkizue, bada, n. a. m., gaur, agertzera S. Jose dala leñargi, birtutetsu eta santoa, Dabiden seme egiazkoa zalako, bere ariman Dabiden birtute guziak eta geiago zaukazalako; batez ere zalako Dabid bezela, *Israelgo argia*, *Gizon Jaungoikozkoa*, *zeru ederretako aingeru gozo baten antzekoa*. Lagundu zadazue onetarako bear dedan grazia Espiritu Santuagandik jaristen S. Joserren Esposa garbi Maria santaren bitartez, esanaz guziok nerekin batera: *Abe Maria*.

Josepb, fiai David. Matth. I.

N. a. m.: Dabid errege santua arkitzen degu Eskritura santuetan itz eder eta onragarri askorekin izendatua, merezi zuan bezela; baña gaurko nere itzaldia ez geiegi luzetzeagatik begiratuko ditugu bakarrik onduen datorkiozan izen batzuek. Dabidi deitzen zaio erregien liburuan *lucerna Israel*, Israelgo argia, bada zan egiaz argi bizi bat bezela bere jakituri, justizia eta ejenplu ederreko errañu gozuen bitartez, eraman zezan Jaungoikoaren bideetatik Israelgo jente errukarri illun eta lauso tartean zebillena, mundu eguski gabeko baten gisara edo gizon itxu baten modura.

Eta nork, n. a. m., esagutzen ez du Jose Santua ere izan zala munduan J.K.-ren famili pobretxoaren argi ta gidaria? Jose-ren etxean, egia da, an zegoan Jesus, eguskirik argitsuena; an zegoan Maria, illargi zuri maitagarria; baña Jesus umetxoa zan eta gorderik zeukan sasoiara artean bere argitasun guzia; Maria emakumea zan, eta estaltzen zuen berea umiltasun eta oniritziaren mantupear, senarrari zion errespeto neurri gabeagatik. Gauza bearra zan, bada, Josek egitea agintari ta zuzendaritzat famili santu artan, eta Jesus eta Mariaren aurrean bere argia ikustea, Artizarra zeru urdinean eguski ta illargiaren aurrean ikusten dan bezela.

San Jose gabe, n. a. m., zer izango zan mundu galduan famili santu arrekin? Nola ibilliko zan guraso gabe, nondik billatuko zuan janari ta bizimodua? Non segurantzta? Nola ibilliko ziran itxuran emakume gaste bat eta semea lurreko biaje eta jua-entorrietan? Nola lotuko zituen beñ ere falta eztiran mingañ gaistoak? San Jose zan, bada, n. a., Jesus ta Maria estaltzeko jaio zan argi sutsu ta diz-dizaria, *lucerna ardens et lucen*, eta argi egin zuan munduan bizi izan zan arte guzian Jaungoikoak emandako jakituri eta karidade egiazkoarekin.

Ez dezazutela dudarik euki, n. a. m. Gizon jakintsuekin dabilztate-nak jakituriako kontuak eta gauza askoren berriak ikasten badituzte; Moi-

sesek Jaungoikoarekin euki zuan isketatik arpegi eta izate modu berriko bat atera bazuan; S. Josek, Jaungoikoaren seme jakintsu Jesus eta bere emazte Mariarekin egunoro zaukazan isketa gozuetan, zenbat ikasiko zuan, nolako argitasunak aterako zituan! Errotan dabilztatenak zuritzen badira; suaren onduran daudenai berotasunak koloriak gorritzen badizte; gauza usai gozozkoen artean dabilzanai, usai gozoa gelditzen bazate, nola Jose santua, ainbeste denporan Eguski ta Illargi zerutarrekin bizi izan zana agertuko etzan munduan zeruko argiz apaindua? Bai, n. a., Dabidi deitzen badio Eskritura santak *lucerna ardens et lucens*, esan giñaike guk ere bere ondorengo Josegatik izan zala munduko argi ditzizari ta sutsua. Eta orregatik, lurrean, gure gabeko eginkizunen laguntzarako eukitzen ditugun argi danak itzaltzen ditugun bezela, goisean, mendi altuko gallurrean, eguzki alaiak bere errañu pozgarriak erakusten dituan orduan, ala, S. Josek amaitu zuan bere bizitza Jesus sasoiua gertatzen zanean bere Ebanjelio osasungarria zabaltzeko lur guzi-guzietan.

2. Bigarren, deitzen zaio Dabidi Eskritura santuan *Jaungoikoak berak zuan biotzaren irudiko gizona*, *vir secundum cor Dei*, errege onek bete zituala-ko zintzoro Jaungoikoak egin ziozkan aparteko aginduak, mundu guziarentzako Jaunak eman zituan mandamentuetan iñoiz erori bazan ere.—Eta zenbat obeto esan geinke Jose garbiagatik, zala, *Jaungoikoak zeukan biotzaren irudiko gizona*, *vir secundum cor Dei*, bada añ zintzo, añ laster, añ oso osoan bete ditu Jaungoiko Egillearen mandamentu eta aparteko agindu guziak?

Igarri zuanian Josek Maria txit garbia aur egiteko zegoala, beragandikan alde egiteko pensamentuetan zebillenean, *agintzen zaio* gelditu zedilla bere emaste santa Mariarekin, eta Josek, makurtzen du bere burua Jaungoikoaren mandatariaren aurrian, eta gelditzen da Mariarekin batian; agintzen zaio Jaungoikoaren seme zanari Jesus izena ipintzeko eta obedezitzen du, agintzen zaio, Zesar enperadoriak dion bezela, juateko Belenera an familia guziaren izenak jartzeko eta badijoa beriala; agintzen zaio Moisesen legiak esaten duan gisan eskeintzeko eleizan Jesus eta ebaki bat emateko seme laztan arren gorputzean... eta Jesus eskeñia da eleisan, bere gorputz Jaungoikozkoa odoltzen da pekatari batenaren eran; agintzen zaio Joseri, lorik gozoeñan zegoala menturaz! jaikitze-ko ai da batian eta eramateko Jesus eta Maria Egiptora, eta jaikitzen da itxaron apurtxo bat gabe eta badijoa gau illunian erbesterruntz; agintzen zaio etortzeko berriz Israelgo lurretara eta badator itz bat bakarra erantzun gabe; agintzen zaio Galilea-ra juateko; urtean iru bidar Jerusalengo Tenplora igotzeko, eta Galilea-ra dua, Jerusalengo Tenplora igoten du, bein bakarrik erantzun



bat eman gabe, galdaera bat egin gabe, duda bat euki gabe, inoiz ere okertu gabe berak nai zuan eran Jaungoikoaren agintza ta borondatea. Zeinbat arrazoiarekin esan zeikian, bada, Jaungoikoak Josegatik: *Inveni virum secundum cor meum, qui faciet omnes voluntates meas*. Billatu det gizon bat nere biotzaren irudikoa, nere borondate guzi guzia edozein ordutan beteko duana?

Ah! n. kristauak: begiratu zaitezte ispillu onetan; begira zaitezte ongi, ya zuek ere beti zaudeten prest Jaungoikoaren borondatea egiteko, naiz gustokoa, naiz gusto gabekoa izan, ala bakoitzak zuen borondatea egiten deuzen Jaungoikoak guraso, agintzalle, espirituko gidari eta artzairen bitartez esaten dizuena alde batera utzirikan.

Munduko erregeai beñere etzaite gustatu beuren borondatetik, apurtxo baten bada ere, apa?atu izan dan mendekorikan. Atenastarrak kastigatzen zuen eta arrazoiarekin, bada mendekoak asten badira legearen kontra, beuren burua erregearen gañean jarri nairikan, ezin leiteke izan gauza onik, eztago Nazioetan pakerik, familietan izango eztan bezela umetxoak gurasoen gañean jarri nai badue, ez bakarrik legea bete nai etzuen, baita ere lege ura itz bakar baten okertu nai zuana. Erromatarrak lepua kentzen zioten, juez izateko denpora bukatu eskero, egun bat geiagoan juez izaten zanari. Nere aditzalleak: lur doakabe onetako gizonak onela nai badue beuren borondatea obedezitzea eta arrazoiarekin nai badue, nola naiko ezta gure Jaun eta Jaungoiko gauza guzien Egille altsuak, bere eskuakin sorturako gizon zirzillak ongi, ziatz, egiaz eta zintzoro bere agindu guzi-guziak betetzea? Eta mundu onetan ainbeste eskergabetasun arkitu duan Jaungoikoak, nolako atsegiñarekin esango zuan Dabiden ondorengo egiazko Josegatik: *Inveni virum secundum cor meum qui faciet omnes voluntates meas*?

3º. Irugarren esan det deitzen zaiola Dabidi Eskritura santan *Zeruko aingerua bezelako gizona*. *Sicut enim angelus Dei, sic est Dominus meus rex*, eta txit ondo merezia zeukan Dabidek deitze au, bere birtuteakgatik zalako bene benetan, errege on guztiak izan bear lutekeen bezela, bere erriaren aingeru gordetzalle bat. Baiña askoz obeto esan geinke bere ondorengo Josegatik, zala egiazko aingeru gordetzallea Jesus eta Mariarentzat; bada izan zan lenengo Maria santarentzat bere garbitasunaren zaintzallea, bizitza gaistoko emakumetzat artu ez zezaten genteak; gero janari irabastzallea familia santua biziko bazan; osteria bizitzen defenditzallea; eta azkenez Jesukristo Jaungoikoaren semeak bear zuan fama ta onraren gordelaria; bada Maria emakume gaistotzat artua iduki izan balitz, Jesus bera seme borte edo zelegartzat eukiko zuan mundu ezjakiñak.

Eleizako guraso eta jakintzalleen pensamentua da, Sto. Tomasekin batera, Jesukristok etzuala izan beste kristauok degun bezela aingeru gordetzallerik, ezpada eze, bera, Jesus izan zala aingeru guzien gordelaria; baña ukatu ezin lezake S. Jose izan zala Jesusen zaintzalle, eta gai onetan San Jose aingeruak beurrak baño geiago izan zala.

Gauza jakia da erregien semeai ematen zaiztela maisu ta erakustzale jakintsu eta birtutetsuenak, eta onetan bear bezela, erregeak ipintzen duela beuren aletin ta borondate guztia. Eta S. Jose, Zeru altutik gizonen buru eta biotzak garbiro ikusten dituan Jaungoikoak ezleidia izan bazan, Jaungoiko jakintsuak bere Semearen gidaritzat esleidu bazuan, nolako jakituri zerutarrak, nolako birtute miragarriak izango zituan S. Josek?

Josek zaintu zuan eta libratu zuan Jesus Herodesen biatzetatik, S. Rafaelek dragoiagandik Tobias gorde zuan bezela, Josek gorde zuan bizitzako landara eder ta mardula lurreko pausoetan, eta Dabidegatik esan al bazan aingeru baten irudikoa zala, Josegatik esan leike aingeruak eta santuak guziak baño geiago, zergatik aingeruak eta santuak Jaungoikoaren serbitzariak izan diran, baña Jose Jaungoikoaren gordelari eta guraso.

Uste det, n. a., ikusi degula Dabidi deitzen bazaio arrazoiz *Israelgo argia*, Jaungoikoaren biotzaren erako gizona, aingeru baten irudikoa, askozaz obeto esan geinkeala au berau S. Josegatik; uste det esagutuko zenduela Dabid bazan jakituri andiko eta biotz oneko errege leñargia, S. Jose bere ondorengoak aberastu zuala gurasuen odola birtute, diñadi eta goiende miragarrienarekin; uste det esagutuko zenduela Joserekin etzala gertatu beste askorekin gertatzen dana; au da: bizi izatea gurasoak, aurreragokopak, asabeen izenak ematen duan keriz edo itzalpean; ez, kontrara: Dabiden arrasa San Joserekin eldu zan izaterik andienara, San Jose izan zalako arrasa artako eta gerora munduan izan diran gizon guzietatik nobleena.

Baño, n. a., diñadirik andienetara eldu bazan ere, munduaren aurrean arotz langille bat baño etzan; nondikan esagutuko degun Eleiza santak ainbeste bidar erakutzi duan egia, au da: Jaungoikoaren aurrean edozein langille izan leitekeala andikirik aberatzena beste, erregerik alisate andikoen aia, bada *andia* benetan izatea da birtutetsua izatea eta ez beste gauzarik. Ai! egi au balekie mundu guziak!, n. a. m.; gu, erri soko bedekintatu abetan, baketsu eta zorioneko bizi gera, Jaunari eskerrak! oraindik ontzu soberbiaren txongarten bat eldu ezpada; baña mundua, fedegabekuen doktriña galdumendikoak zabaldu diran eskero, gaistakerian eta zentzu gabeko pensamentuetan irakitzen dabill. Orregatik, nai nuke nik orain boz indartsu bat euki, naikua erririk-erri eta mendirik-mendi oiarzunetan munduaren kaburaño juateko nere diadarra, esanaz: O langilleak, langille



kristauak, aditu zazute Eleizaren dei amodiozkoa: zuen buruak aizez ta arrokeriz bete dituen jentiak, gezurrezko dotriña erakusten dizue; obedienziaren kontrako eta arrotasunezko doktriñak ezin litezke onak izan kristau langilleak, andiki eta noble izatea nai badezue zuen eskuetan daukazue, bada birtutea da nobletasunik eta aberastasunik andiena. Katoliko zeraten langilleak, egunoroko janaria euki eskero, ez dezazutela bururik ausi munduko aberastasun au laster galtzen diranen billa, billatu zazue zeruko zorientasun iraunkorra; langille kristauak, ara emen zuen ejenplurako *langille pobretxo* bat Jaungoikoaren guraso egiñik!

Nere aditzalle maiteak: guk, euskaldunok, Jaungoikoaren graziaz, jatorritik degu nobleak eta kristau onak izatea, erakutzi dezagun lengo lengoak gerala orain ere, ez gerala bein ere ez eskuira ez eskerretara okertuko, jarraituko degula gure aitonak erakutzi ziguen bide zuzenetatik aurrera.

Ez dedilla esan munduan lengo euskaldunak gauza bat zirala, nobleak, kristau onak, baña beste bat gaurko eguneko euskaldunak.

Eta, Oh! Aita S. Jose zeruetan gloriak beterik zaudena; bada argia izan ziñan Israelgo errian, argi zaiozu illuntasunetan dabillen munduari; an umill ta obediazia izan ziñan Jaungoikoaren borondatera, erakutzi zazu ainbeste falta egiten duan umiltasun eta obediazia; izan ziñan Jesusen aingeru gordelaria, gorde gaitzatzu lurreko pausu guzietan, zurekin batera gozatu dezagun egunen baten zeruan. Amen.

[Barnean agerturiko gehigarri kokaekinak]

Baño munduak dauzka bere pensamentuak ta bere legeak, pensamentu ta lege ondo etortzen dira Jaungoiko Santuaren pensamentu ta legearekiñ, ta munduaren lege orretatik sortzen dira erru asko ta arimarentzat kalte andiak. Denok gera Jaungoikoak egiñak, denok, andi ta txiki, aberats ta pobre, jauregietan jaiotako ta txaboletan sortuak Jesusen odolarekin irabaziak, denok gera Jaunaren aurrian berdiñak; baña egia eder ta pozgarri au sarritan ikusten degu astutzen duala.

Batez ere, aberatsak, famili nobletik jaiotakoak, pobreak izanda ere odol garbikoak diranak, beren burua besteak baño zerbait geiagotzat euki oi izaten due. Eta nola gu, euskaldun guziok...

Nik badakit onenak gerana; baña naikua onak salbatzeko?

eta erakusten ditugu igeska gure aldamenian egunak, illak eta urteak. Gaur, garizumako egun triste eta penitenziakoen erdian billatzen degu

egun alai ta pozgarri bat, *San Jose-ren* eguna; zuen buruak aizez ta arrokeriz bete dituen jentiak, gezurrezko dotriña erakusten dizue; obedienziaren kontrako era arrotasunezko doktriñak ezin leitezke onak izan.



(MARIAREN ALABENTZAT)

Ipsa conteret caput tuum.

Emakume batek zapalduko du zure burua

(Genes. c. III, v. 15.)

N. a. m.: Gerra bat mundua baisen antxiñakua da ikusten deguna begiratzean gizonaren sortuerako kondaira edo historiya. Osta esan zuan Egilla altzuak bere itsa: *egin bedi*, ateratzen dira ezerestik, zeruak, lurra, itxasua eta ikusten ditugun gausa guztiak; baña irtetzen du ere bat batera Jaungoikuaren gloriyaren etsaiyak enbidia andiyarekin, ta nai du, esin danian eldu bere soberbian nai duan bezela Jaungoikua beste izatera, desberdindu, nastu, banatu Jaungoikuaren egintza. Jaungoikuak egiten du gizona gauzarik onena bezela bere irudira, ipintzen du' munduko gauzen erregetzat, dana jartzen du bere borondatearen aspiyan; ta txorijak, arrañak, pisti gustiak, arbolak, landarak, lurra apaintzen duen lora danak artzen due beren izena Adanen aotik.

Gizon-erregea jarri zuan baratz alai loratsu batean, an bizi izan zedin gozoro bere Jaun ta Egillea bedeinkaturikan; baño bisturik Satanasek etsaia- ren amorrua, eta desegin nairikan onek Egillearen pentsamentua, asma- tsen du engañatzea gizona eta jartzea bere mendean. Onetarako batzen du zeruan ikasi zuan jakituriya guztia, artzen du zube baten itxura eta bigun, makal eta errasiñagana bezela, badijua gizonaren lagun emakumia- gana. *Jaungoikua beste izango zerate*, esaten dio, *eukiko dezue gauza onaren eta txarraren jakituriya*... eta, ah! emakume argigabea! zer egiten dezu? Ebak faltatzen dio Jaungoikuaren aginduari, jaten du alort edo frutu debekatua; ematen dio Adani; jaten du ark ere, baña, oh gisajua! eztaki artu duan bokaua izan dala beretzat eta bere jatorriarentzat eriotzako bokaua.

Ah, Guraso pekatariya! alperrikan gero nai zera eztaldu arbolaren orri zabalakin; Jaungoikuaren kontra egin dezun pekatua eztezu sekulan eztalduko. Eta, ah! zeruak nai baluke zuentzat bakarrik izatea pekatu orre- tatik etorri bear duan gaitza. Baño ez; gizonaren pekatua elduko da ondo- rengo guztiakgana: Adan aterako da paraisotik eta andik kanpora jaiyoko dira bere semeak madarikatuak, aita bezela, beren Jaungoikuagandik. Ara or gizona: betiko aldendua Jaungoikuagandik, betiko kanporatua zerutik. Gaisuak, miñak, eriotza ta eriotza betikoa, ara or pekatuaren frutuak.

Baña etzaitzte bildurta aiñ laster, n.a.m., Jaungoikuak digun amodi- uak ezin du ikusi gizona deabruaren oñaspiyan eta Adan erori ta beria-

la ezaten dio deabruari: «Ez arrotu, zube gizon iltzallea; zuk uste zenduan jarri ziñala betiko gizonaren gañian engañatu zendualako emakume arga- la; baña alperrik; nik sortuko det beste emakume bat, zeñek zapalduko duan zure burua eta kenduko dizun aginpidia. *Ipsa conteret caput tuum*».

Eta ara, egun pozgarri baten, goisaldean mendi gañetik irtetzen dan eguzki errañua bezela, agertzen da munduan emakume bat, Aingerurik ederreña baño ederrago, Jaungoikuaren graziaz eta miragarritzko apain- duriaz betea. Zan emakume au Maria txit santa Jaungoikoaren amatzat betikotasunetik esleidia, eta zan bere sortueratikan garbia, pekatu jato- rrizkoaren orbanik gabe.

Au da gaur alsaldeko itsaldi laburraren gaia. Baña esaguturik nere moteltasuna nai nuke Jaungoikoaren laguntsa, zein guzioen bitartez eska- tuko diogun zeruko erregiñari esanaz: *Abe Maria*.

N. a. m.: Maria txit santa izan zala sortua grazian eta pekatuaren orbanik gabe esatea da esatea beste dala *Egillearen alizatearen egintza, amodi- uaren egintza, graziaren egintza*.

1º. Esan det dala alizatearen egintza. Eta benetan, zer da gizona argi- taratzen danean pekatuan sortua? Au ondo esagutzeko, ikusi dezagun zer- tzan Adan Jaungoikuaren eskutik irten zuanian. Zeukan adiñ edo enten- dimentu bat argitsua, borondate bat biguna graziari jarraitzeko, arrazoia zeukan griña gaisto guztien gañetik, beti zeguan prest onerako eta gaista- keriaaren kontra. Bere gorputza zan indartzua eta ederra eta zeguan mun- duko min, neke ta eriotzaren gañean. Ori zan Adan inozenziako denpo- ran. Baña pekatu egin zuan eta berbertatik galdu zituan apainduriya abek, illundu zan bere adiña, bere borondatia makurtu zan gaitzera, griña gais- toak jarri ziran arrazoiyaren gañean, itz batean, galdu zan gizontasunaren lelengo landara; eta nola arbola gaistotik ostro gaistoak zabaltzen diran, Adanen seme gustiak izan bearzuen galduak, mirari baten bitartez libratu ezik.

Eta miraria egintzan. Mariak irten zuan gizonen artean garbia, ede- rra, pekatuak gabea bere sortueratikan. Pekatuen ujuiak bazebiltzan munduan eldu zanian Maria sortutzeko instantea, eta orduan gomutatu- rik Jaungoikua, onela itz egin al bada, dala emakume au antxiñako zubi- are burua zapaldu biar duana... luzatzen du bere esku altzua, eta Israelta- rrak itxas gorrian pasatu ziran bezela, pasatzen ditu Mariak pekatuaren ujulak bere oñaspiyan ur tanto baten señaletxo bat bakarra eraman gabe. Ara zergatik Maria dan Jaungoikuaren alizatearen egintza.

2º. Ikusi dezagun oraiñ nola dan amodiwarena. Mariak izan bear zuan Jaungoiko gizon egiñaren ama, gizonen pekatuko lokarriyak urratu bear



zituaren ama, gizona bere lengo izatera biurtu bear zuanaren ama. Mariaren odol garbitik artu bear zan Jesusen gorputz santua egiteko odola, Kalbarioko mendian gure pekatuakgatik ixuri bear zan odola. Nola bada maitatuko zuan Jaungoikuak bere odola, bere Ama izan biar zuana? Maitatuko zuan beste edozein bezela? Ez, n. a., gauza bat ainbat maitatzzen da, zenbat balio duan, eta Mariak nola balio zuan gauza guztiak baño geiago bere ama izan biar zualako, Jaungoikuak maitatu zuan beste gauza guztiak baño geiago. Maitatu zuan, Jaungoiko eta gizonak alleikian amodio guztia erekin, maitatu zuan betikotasunetik, maitatu zuan al zuan gustia, au da, kaburik gabe, ezin ezan dan beste.

Eta oraiñ, erantzun zadazue, n. a. m. Maitatuko zuan bear dan bezela utzi izan balio sorrerako pekatuan, instante baten bada ere? Utzi izan balu bere etzai deabruaren mendean? Etzuan Jaungoikuak faltatuko bere izate berdingabeari, artu bearrean ama bat beretzat, urtu ezpalitu bere aberastasun guztiak Ama onen gañean? Ondatu gaitzen n. a. Jaungoikuaren aditasun neurrigabekuaren barruan. Zer egingo etzuan bere amagatik Jaungoiko batek, zeñien borondatea bukatzen eztan, askentzen eztan, zeñien borondateak amaituera eta neurririk estuan? Zer egingo zuan Jaungoiko batek amodiyuaren askenengo agergarriya ematera zijuanian, gizon egiñarekin gu zalbatzeko? Ezagutu zazute arrazoi aben indarra eta etzerate bildurtuko esaten Maria dagola zeruetako koro guztien gañetik, aingeruetatik asi eta birtutietara; bat bakarrik dala bera baño geiyago: Jaungoikua.

Eta izango litzateke onela utzi izan balu, instante baten bada ere, Satanasen oñaspian bere ama? Naiko ete zuan ikusi bere amaren sañetan gizon pekatariaren odola? Naiko ete zuan bere sañetan artu pekatuko iturritik zetorren odola, pekatuaren kerixa bera ikusi ezin duan Jaungoikuak? Naiko ete zuan odol loituarekin garbitu pekatua? Ez, n. a. m., pentzamentu abek, itz abek arrasoiaren kontrakuak dira. Maria txit santa, Jaungoikuaren ama, izan zan sortua pekatuaren orbanik gabe, zergatik zan Jaungoikoaren amodiaren egintza.

3°. Eta zer beste gauza izan liteke grazia ezipada Maria aldendu zuana Adanen ondorengo guztiak zeukaten pekatutik? Bakar bakarrik zorioneko guztien gañian jarri zuen graziak; bada, dio S. Anselmok «Espiritu santua sartu zala Mariaren gorputzian, egin zuala, bere tronua, egin zuala bere emaste eta zabaldu zituala bertan aberastasun izugarriyak; beste emakume eta gizon guztienak bat eginda baño asko ugariyago».

Ah! Siongo Alaba, norekin berdinuko zaitugu? Dena zera ederra eta orbanik zurekin eztago. Ezango det zerala egunik argiena baño argia-

gua? Ezango det dezula zure espāñetan udaberriaren irribarri gozua? Ezango det zerala lirio lerdan bat arantza tartean jaio zerana? Ezango det zerala Jeriko-ko larrosa uzai gozoko zekulan ere legortzen etzerana? Ezango det... *graziaren miraria*, ezango det zergatik dan onduen datorikisuna, oh garbitasunaren ama! zergatik dan gisaldiya baño lenagotik apaindu zenduzana, denboretan lagundu dizuna, eta betikotasunian aldenduko etzaitzuna; zergatik zera Jaungoikuaren graziaren egintza, alizatearena eta amodiarena zera bezela.

4°. Bai, n. a. m., Maria da graziaren miraria, bada izan zan sortua, beste inor ez bezela, pekatuaren orbanik gabe, deabrua oinperatzeko. Egia da, Adanen ondorengo guztiok jaiotzen gerala pekatu jatorrizkoan, egia da lege au dala betiko eta danentzako, egia da tronuetan jartzen diranak eta gu ate batetik etortzen gerala eta guziok pagatu bearko degula eriotzaren sorra. Baña lege abek guztiak nok egin ditu? Bada egin dituanak desegñi lezakez. Gure gurasuen kulpā baño Jaungoikoaren grazia zenduagua da.

Jaungoikuak agindu zion eguzkiari nola eman bere jira bira eta orregatik dira neurtuak egunak eta gabak; baña Gabaonen aurrian agindu zion gelditzeko ta eguna luzatu zan. Jaungoikuak agindu zuan gizonak beñi bakarrik iltzeko; baña Jesusen diadarrera bistu ziran Lazaro, Naimgo alarguna eta Jairoren alaba, eta ill ziran bi bidar. Jaungoikuak nai izan zuan gizonak pekatua egin eskero guztiok pekatuan sortzea; baña libratu bear zuan bere ama, eta libratu zuan. Emen ezan giñaike jakitun andi baten arrazoiya: nai izan zuan? bere eskuan zeukan? bada egintzuan. *Maria santa izan zan sortua pekatu jatorrizkuaren orbanik gabe.*

Au izan da beti espāñatarren sinistea, au izan da beti euskaldunen sinistea, au izan da eskoletako jakitun andien sinistea, au da fedeko gauza Espiritu Santuak Pio bederatzigarrenaren aotik ezan zigun eskero.

Mariaren alabak: eztet nai jetxi leku santu onetatik, itz bi zueri ezan gabe. Ikusi degu Maria dana deabrua oñaspiratu zuan emakumia, ikusi degu dala santu guziak baño santagua, ikusi degu dala aingeru guziak baño geiyago, badakigu dala zeruetako erregiña, Jaungoikoaren Ama ta zuek zerate Mariaren alabak. Ze gauza andiagorik, ze gauza pozgarriagorik ezan nezake zuentzat?

Ezta egia txit zeratela poztutzen izate zoragarri onekiñ? Esta egia eztagola gauza andiagorik munduan? Nola bada Mariaren alabetako batzarrekuak estira munduko neskatxa guztiak?

Ah! Sinistuko dirazue orain badirala munduan asko Mariaren alaba izatea ezer eztzat daukatena? Kristauen artean sinistu lezake dagola iñor



ezerestzat daukana Jaungoikoaren amaren, zeruetako Erregiñaren alaba izatea?

Geiyago oraindik: Siñistuko dirazue badirala munduan esaten duenak «eztet nai izan Mariaren alaba»? Bildurtu egin lezake itz abek esaten ere. Bai, n. a., bai; badira onela itz egiten duenak, badira zube madarika-tuak engañatuak, badira Jaungoikoaren Ama maitatzen estuenak. Zer da bada neskatxa askok daukaten ostasuna kongregazio edo batzar onetara-ko? Amodiua sutzua da, amodiuan eztago ostasunik.

Edo uzte al du iñork mesede bat egiten diola Mariari bere alaba izanarekiñ? Deabruaren beraren soberbiyak ez luke geiagi asmatuko. Ah! eztet uste batzar ontan egongo danik orlakorikan; baña balitzateke, nik ezango nioke Jaungoikoaren izenean eztiola faltarik egiten onelako alabak bere amari, eztuala nai Mariari negar eragingo dionik bere ostasunarekiñ, bere borondate gabearekiñ, bere ibillera gaistoakin. Borratu dezatela beuren izena kongregazioko liburutatik, zeruetako liburutatik borratzen dan bezela.

Baña, ez Ama, ez: ill lenago zure seme alabak izatea utzi baño, ill lenago zure liburutatik gure izena kendu baño. Ama, zure alabak nolako amodiyuarekiñ inguratzen zaituzten, *monstra te esse matrem*, ezan zaiozu zure Seme Jesusi parka daiyala oraiñ artean zuretzat izan bada ostasunik, *monstra te esse matrem*, egizu izan gaitezala emendik aurrera, amodiyo sutzuarekin zure batzarrekoak alaba onak egunen baten zeruetako ataian orgullo santu batekiñ. «Gera Mariaren seme alabak». Amen.

Nere kristauak: Eztezazutela pensatu, Maria txit Santa kontentatu zala garbi sortzearekin, ez; sortu zan garbi eta garbiro bizi izan zan lurrian egon zan artean, eta ainbeste maitatu zuan garbitasuna eze lenago utziko zuan Jaungoikoaren Ama eta zeruetako erregiña izatea, garbi ta donzella izatea baño: Maria da munduko loikeri guzien artean lelengo altzatu duana lerdan garbitasuneko bandera zuri, eder ta alaia; eta gerora, etxe Jaungoikozkoetan, millaka ta millaka inguratu dira leku guztietatik, bandera oneganako amodiyuarekin beterikako donzellak, Mariaren irudira bizi izatearren garbiro. *Adducentur virgines post eam*.

Da zergatik da au? Zergatik ikusi zuten txit ohea eta nobleagoa zala, gorputzik ezpagenduke bezela bizi izatea aingeruegodunen antzera garbi eta eder gorputz ta arima.

Eztizuet zueri ainbeste eskatzen, nere aditzalleak: eztira jente guziak gauza danetako duin diranak; baña bai eskatzen dizuet, Mariaren izenean! bere laguntasuna nai badezute, bizi izan zaitezatela bakoitzari bere estaduak eskatzen dion garbitasunian.

Zein da bat gauza ederra guztatzen etzaiona? Eta zer gauza ederragorik garbitasuna baño? Zer gauza ederragorik Maria baño?... Guazen guziok bere bandera zuriaren atzetik, deabruaren loikeriko bandera beltza alde batera utzirikan; batez ere zuek, Mariaren alabak deitzen zeratenok, eztezazutela geiyegi eman zuen biotza munduko edertasunei: edertasun oriek azten dira goiseko eguzki eta intsarekin eta amaitzen dira illun abarrerako. Maitatu zazute betiko iraungo duan edertasuna izan zaitezte zuen amaren alaba diñak, eta orrela eltzen zeratenian zeruetako ataira eriotza paketsu baten bitartez, zuek ezango dezue eta guk ere bai orgullo santu batekin: *Gera Mallaren seme edo alabak*. Ala izan dedilla.



SAN JOSÉ

*Constituit eum Dominus dominum domus suae,
Jaungoikoak egin zuan bere etxearen buru ta nagusi.
(CIV garren Salmoan 21 garren bersotik artutako itzak.)*

N. a. m. Zer gauza ederra dan esperanza! Birtute Jaunkokindako edo teologalen artean bigarrena, da esperanza gauza bat zeñ gabe gizona eziñ bizi leitekean mundu onetan. Birtute guzien asiera ta sustraia da beti fedea, bañan bigarrengo mallan dator beti esperanza gerorako pensamentu gozo ta pozgarriarekiñ: da fedea gauza on guztien sustraia, esperanza ostro berdedun arbola ederra ta karidadea fede ta esperanzaren fruitua.

Gizonak esperanza andia izan biar du beti Jaungoiko santu Egilleagan. Baña, esango dirazue, zer zimendu dauka gizonaren esperantzak? Gizonaren esperantzak dauka zimendutzat Jaungoikoaren itza, zeñ dan itz bat faltako eztana Zeruak eta lurra faltako balira ere; esperantza santuak dauka zimendutzat Jaungoikuak gizonaganako duan *errukia*. Jaungoikoak emandako itza billatzen degu Eskritura Santuetan eta Jaungoikuak digun errukia denok dakigun gauza da. Nola ezta gurekiñ errukituko Jaungoikua bere semeak bagera denok? Nola ezta errukituko bere semearen odolarekiñ erosiak bagera? Geiago, Nola maitatu ez gu bere semeak bagera?

Ainbesteraño maitatu genduzan eze bere Seme maite bakarra emon zigun, gizon egin zan, gizonen artean bizi izan zan dotriña eder zerutarra erakusten, ta gizonagatik iltzan. *Sic Deus dilexit...*

Orregatik izan biar degu denok Jaungoikoagan esperanza, orregatik jun biar degu konfianza osoarekiñ bere beso bigunetara; baña beragana zuzenean juaten atrebitzen ezipagera ere bere Jaungoikotasun ta magestadeak bildurtzen gaitualako, badauzkagu, a, bitarteko on asko, ta batez ere gaurko eguneko santu andia, A. S. Jose Zeruko gloriáz betia.

Doi doikiro datorren gauza da, Santu andi au izan zan, n. k., Jaungoikoarekiñ konfianza andi batean bizi izan zana bere bizitza guztian, eta pensatu det zuek eskeintzen diozuen festa eder onetan txit egoki datorren gauza dala zueri agertzea S. Joserén birtuteak ta batez ere bere konfianza osoa Jaungoiko Egillearekin, ikasi dezazuen emendik zuek sor diozuen konfianza.

Ara emen nere gaurko itsaldiaren gaia.

Bañan au biar dan bezela erakusteko zuri eskatzen dizut argitasuna argi guztien aita ona, bada zure jarrilekutik bakarrik jetxitzen da gauza on guztia lurrera. Eman zadazu argia, pistu zadazu nere biotza eta izan zaite zu nere aotik zure erriari itz egingo diozuna. Eskatzen dizugu zure ama onaren bitartez, zeñi erregutzen diogun mesede au esanaz aingeruakiñ batean *Abe Maria*.

Constituit. etc.

N. a. m.: Oso itz gutxi esaten ditu Ebangelio santuak S. Joserén lenengo urtien gañean, baño itz aiek bakarrik naikua dira jakiteko Jose Santua zertzan, Mariaren senartzat aukeratu baño len. *Joseph autem*, irakurtzen degu, *cum esset justus*. Nondikan ikusten degun S. Jose izan zala bere lenengo urteetan ere birtutetsua ta Jaungoikoagan konfianza andia zuan gizona, bada eztago justurik birtute gabe, eztago justurik Jaungoiko Santuaren esperantza gabe.

Zer egiten zuan S. Josek Mariaren senar izan baño lenago? Bakartadean bizi zan, ixil, isillean bizi zan, jatorri andiko gizona izanagatik langille bat bezela bizi zan, Jaungoikoaren legea betetzen, Jaungoikoaren ontasunean esperantza zuala, mundu onetan lagunduko ziolako esperantzetan, zeruko gozotasuna atxituko zualako esperantzetan. *Erat justus*. Justua zan. Eta ara emen *merezimentu* bat munduaren begietan gutxi balijo duana, baño txit asko Jaunaren aurrean berialaxen ikusiko degun bezela.

Jose eskutuan ta ixillik bere Jaunagan esperantza guztia jarrita bizi zan bitartean, Maria Santa, Maria garbi ta umilla estadu artseko sasaira etorri zan, eta orduan Jerusalemgo Eleiz gizon naguzienak eman zuan ordena deitzeko Dabiden odoletik zetozen gisaseme gustiai Mariaren senar izan nai bazuen jakiteko, Israelgo legeak agintzen zuan bezela. Eta nola Mariaren edertasuna ta birtuteak izen andikoak ziran Israelen ordu-rako, ara nun agertzen diran Dabiden ondorengo Prinzipe asko, gasteak, ederrak eta aberatsak Mariaren eskuaren billa. Eleiz gizon nagusiak esaten die, Jaunaren aginduz, almendrazko arbolaren makilla igar bat ekarri biar duela, ta makilla aietatik ezetu ta loratuko dala bat, zeñen jabea izango dan Mariaren senartzat aukeratua. Ekartzen ditue makillak, jartzen ditue tabernakulo santuan, ta bitartean prinzipie gaste aiek an daude amesetan, pensatzen zuala bakoitzak berea izango zala Maria, bada bakoitzak bere burua uste zuan gauzarik andiena zala; baño irikitzen da tabernakulo santuko atia, ateratzen dira makillak eta, agur amesak! makilla guziak igarrak zeuden. A! Jerusalemgo tenploan batu ziran gustiak berengan zuten esperantza, beren odol garbian, beren aberastasunean, beren edertasunean zuten esperantza dana, ta orregatik umilltzen ditu Jaungoikoak erri guz-



tiaren aurrian. Ez ote dago Israelen Jaungoikoagan bakarrik konfianza duan odolgarbiko gizonik?

Zeñ falta da? galdetzen due sazerdoteak. Zeñ? Iñortxo ere ez, Jose arotz pobrea ezpada. Bada datorrela Jose. Ematen da ordena berri bat esaten duana iñortxo ere ez dedilla gelditu etorri gabe: badator Jose legea kunplitzeagatik, badator Jose bere makillatxoarekiñ, oso umilla baño Jaungoikoagan konfianza gustia jarririk; sartzen dira berriz makilla guztiak tabernakulo santuan ta ateratzen diranean, o zer eraspea! ikusten da Joserren makilla datorrela ezea ta lora txuri ederrez apaindua ta beste guzien makillak igarrak len bezela. A! bai, Joserren anima umilla ta esperantzaz bete zegoan Jaunaren aurrian ezea, bizia ta loratsua; ta menturaz besteen anima guziak igarrak eta illak beren panparroitasunean. Jose, gizonik umillena, gizonik garbiena ta santuena aukeratu zuan Jaungoikoak emakumerik umillena, garbiena ta santuena sanaren senartzat.

Nai nuke, a., zerbait pensatu dezazuten aukeratze onen gañean, esagutu dezazuten zenbat balio duan Jaungoikuarentzat justua ta esperantzaz bete izateak, esagutu dezazuten zenbaterañoak izango zan S. Joserren birtutea.

2. Jaungoiko santu gauza guzian jakituri neurri gabea duanak, pentsamenturik eskutuenak ikusten dituan Jaungoikoak, biotzik zimurrenaren tolosturak ikusten dituan Jaungoiko Egilleak, eldu zanean bere Semea gizon egiteko sasoia, aukeratu zuan amatzat Seme Jesusentzako munduan sortu zanik emakumerik garbi ta Santaena, mirari bat egin zuan, miraririk andienetakoa Jesusi ama bat emateko zeruko apainduriz bete! Gauza au bidezkoa da ta errez entenditzen dezue guziok, n. a. m.; Jaungoikoaren semearentzat Jaungoikoaren semearen diñako ama bat beartzan.

Bada oraiñ gogoratu zazue billatu bear zuala ama onentzat senar bat, eta pensatu zazue nolakoa billatuko zuan, nolakoa izango zan Jose. Eztago munduan guraso bat bere alabaren senartzat gauzarik onena nai eztuanik, eta azkozaz geiago alaba ura berez bada txit ona ta maitagarria; orduan gauzarik onena ere utsa ta ezereza iduritzen zaio aita bati, eta aita-ren eskuetan badago, pensatu zazue zer billatuko duan bere alabarentzat. N. a., nik eskatzen dizuet zuen entendimentu edo adimenaren indar guzia arrazoi onen sendotasuna aditu zazuen ondotox. Jaungoikoak billatu bear zuan senar bat berak mirariz sortu zuan alabarik maiteenarentzat; Jaungoikoak bere mendean zeuzkan zeruak bertako aberastasun ta aingeru guztiekin, lurra gizon guztiekiñ ta baita ere infernua bere diabru guztiekiñ; ikusten zituan munduan izan ziran ta izango ziran gizon santu guzien biotzak Moisesetik asi ta azkenengo gure altaretan ipiñi dan santuraño,

Moises baño lenagokoak, mundua mundu dan artean izango diran gizon on guzienak, eta, danen artetik Jaungoiko jakitunak ateratzen du bere alaba maitearen senartzat Jose Israeldarra, Dabiden odoleko semea! Arrazoi onetatikan ikusten dezue, n. a, urrutitxoan ta laño tartean bada ere, zeñ garbia izango zan Joserren biotza, nolakoa bere birtutea? bada gizon guzien artean aukeratua izan zan.

Bañan eztizuet dana esan. Zeruaren egilleak etzuan billatu bear mirariz sortu zuan alaba maitearentzat senarra bakarrik, nai zuan gañera zeruetatik lurrera zetorren seme kutunarentzat guraso ordeazkoa ta zaintzallea, Maria ta Jesusek egin bear zuen familirako burua, eta zeru ta lurreko danen artetik Jaungoiko jakitunak ateratzen du famili santu onen Jaun da jabetzat Jose Israelarra, Dabiden odoleko semea! *Constituit eum Dóminus dominum domus suae*. Iruditzen zerate nolakoa izango zan Joserren birtutea!

3. Jaungoikoak bere etxearen jaun da jabetzat autatu zuean Jose santua, eman ziozkan Jesus ta Maria ondo zaintzeko bear zituan graziak. Bada eztio iñori arturapen bat ematen artarako bear diran graziak eman gabe. Jesusek S. Pedrori kristandadeko artaldea zaintzeko zeregiña eman zionean, esanaz: *Pasce oves meas, pasce agnos meos*, agindu zion erregutuko ziola beragatik Aita zerukoari fedea galdu ezezan, fedea zalako S. Pedrok eien bear zuan gauza. *Ego rogabo pro te ut non deficiat fides tua*. Onela S. Joseri eman zionean Jaungoikoak bere artalde apartekoa, artalderik maitena zaintzeko zeregiña esanaz: *Pasce ovem meam Mariam, pasce agnum meum Jesum* ixuri zituan S. Joserren gañean zeregiñ onetarako bear zituan zeruetako graziak ugaritasunik aundienean, ta gero beregan utzi zituan konfianzarik andienarekiñ bere seme kutun Jesus ta bere alaba maite Maria.

4. (Ta Josek, zeñ ederki erantzun zion Jaungoikoaren konfianza oni!) Mundu guziko ondasunen jabe dan Jaungoikoak eztio ematen Joseri, famili santuaren buru egiten duanean, lurreko ondasunik, baña Joseri eztio ajola: «osasuna dedan artian, pensatzen du, nik billatuko det nere izerdiarekin nere familiak bear duan janaria; osasuna galtzen bazait Jaungoikoak dana ikusten du ta begiratuko dio nere familiari. Jaungoikoak neregari ipiñi du konfianza, nik ostera beregan daukat: maitasuna maitasunarekin pagatzen dan bezela, konfianza konfianzarekiñ».

5. Bañan Joserren konfianza au, laster progatzen du Jaungoikoak modurik gogorrean. Josek ezertxo ere etzekiala sortzen da Jesus Mariaren erraietan Espiritu Santuaren bitartez, eta S. Josek ikusten du bereala zer pasatzen dan, baña nola pasatzen dan eztaki. Zer egingo du Josek? Iges. Eta, uste dezue a, Josek, igez egiteko asmoetan asten danean galdu



duala konfianza? A, ez, ezta orduan ere: berak ondo daki Mariaren garbitasuna; ziur ziur dago Maria, bere ernaste maitea, inozenziarik andienean dagola, santarik andiena dala; begien aurrean ikusten duana ikusita ere eztu galtzen Mariaganako konfianza; baña Jose justua da ta legeak agintzen dio bere emastea entregatzeko justiziar, eta, bildurtu egin da! Aditu zazue zer esaten dion Jaungoikoak misterioa agertzean: *Ne timeas, Joseph, accipere Mariam conjugem tuam*. Etzaite bildurtu Jose esaten dio aingeruak Maria zure emaztetzat gordetzen, bere erraietan sortu dana Espiritu Santuaren obra eta egintza dezu. Eztio esaten: eztezazula konfianzarik galdu, ezpada ze: ez bildurtu, *ne timeas*. Gertaera eztu orretan galdu ote zuan Josek Jaungoikoaganako konfianza? Ezta ere, iñoiz baño gutxiago: Joseren pensamentua au zan: «orrelako gertaerarik ezta beñere munduan izan: Mariari sor diodan maitasunak eta legeak biyen erdian artzen nauenik eztaikit zer egiñ eta dena Jaungoikoaren eskuetan utziko det, bada Jaungoikoagan bakarrik daukat nere konfianza». Eta Jaungoikoak konfianza onen saritzat Josek etxetik erten baño len eman zion berria Espiritu Santuaren obra zala Mariagan gertatzen zana, eta Jaungoikoaren itzean konfianzaz beterik juntziran Joseren bildurrak. Zeruak zeukan konfianza etzuala Josek biar etzan gauzarik egingo: Josek zeukan konfianza zeruak konponduko zuala dana. 5. Eta zenbat gozotasun etorri zitzaiozkan Joseri bildur onen ondorean! Berak, Mariarekiñ batean jun zanean Belenera, penaz ikusi bazuan ere etzeguala tokirik etxeetan famili santuarentzat pobretxoaz zalako, izan zuan gozotasunik andiena laster ikusi zuanean jaiotzen zeru ta lurraren jabea aingeru zerukoen soñu alaiaren artean, ta etortzen zirala umetxo ura adoratzera mendietako artzaiak lenengo ta urietako errege ta jakintsuak geroago.

Jose onela pozez betea zegoan bitartean, nok daki Belengo jauregietan negarra bazegoan ere! Bada jauregietan ere negar egiten da, n. a., jauregietara ere juten da eriotza, aberatzen etxeetara ere eltzen da Jaungoikoaren besua bere justiziaren zigorrarekin: Iñoiz pasatu izan naiz ni ere jauregietako ate zabaletatik barrura; iñoiz igo izan ditut etxe ederretako marmolezko eskillera mallak eta eldu izan naiz alfonbra bigunez ta apainduriz beterikako saloietara. Eta an ere negarrez ikusi ditut. Bai, a., jauregietan ere negar egiten da.

7. N. a. m., Añ laster dijoakigun denborak gaba ta egunak dituan bezela, gure bizitzak postasunak ta naigabeak ditu lurrean. Onela S. Joserentzat ere Jesusen jaiotzan izan zituan postasunak samindu ziran laster Egiptora iges egiteko zeruko agindua artu zuanean, bada Erodesez galdu nai zuan Jesus. Gabaz, eztaki ziur nondik ta nola, baña Jaungoikoagan

bere konfianza guzia ipiñita, badijoa Jose, bide eskutuetatik eta denborarik gaiztoenean, naigabez beterik Jesus eta Mariak alako ibillera txarrak egiñ bear zituelako gizon gaiztoakgatik. Ejiptora dijoa eta eztauka Ejipton esagun bat bakarra; eztaki lanik izango duan bere familiarentzat janaria irabasteko, baña konfianza oso osua darama Zeruak dena konponduko dualako: Zeruak beragan utzi du Jesus eriotzatik libratzea, berak zeruan dauka bere esperantza guzia, bada oroitzen zaio Isaías Igarlearen esana: *In spe erit fortitudo vestra*. Eta benetan, etzeguan gaizki ipiñia S. Joseren esperantza: etzitzaion faltatu Jaungoikoaren laguntasuna, billatu zuan bere familiak bear zuan janari pobrea, ikusi zuan bere onduan asten Jaungoikoaren semea, paketsu ta bildur gabe, *Aita* deitzen ziola, bere belau-netara igotzen zitzaiola askotan, berarekin laztantzen zala milla bidar. Jaungoiko-Jesusen gurasoa zan, ta guraso maitatua! O zer konfianza Jaungoikoarena Joserekin! O zer konfianza Joseren Jaungoikoarekin!

8. Onela bizi izan zan S. Jose, Jaungoikoarekin esperanzaz betea, bere azken orduan, Jesus ta Mariak lagunduta, gozo gozoro bere arima Aita Zerukoaren eskuetan utzi zuan artean; eta zerura juanda gerora ere, an dago S. Jose, Jesusen fundatu zuan Eleiza guziko buru ta Patroitzat, *column Ecclesiae*, an dago, bere Seme maite Jesusen aldemenean jarriarik, gozotasunik andien erdian, Jesusen aotik aditzen duala: *Pete, Pater*. eskatu zazu, nere lurreko Aitordea, eskatu zazu, eta etzatzu ukatuko ezer ere.

9. Eta oraiñ esaten dizuet nik, a. m., gure Jaun ta Jaungoikuak ainbeste konfianza izan badu S. Joserekin munduan bizi izan dan artean, eta baita ere zeruan dagoanean, nola guk denok izango eztegu S. Joserekin konfianza neurrigabeko bat? S. Josek, a., libratu zituan Jesus ta Maria beren etsaietatik; San Josek libratu geinzke gere arimaren etsaietatik: deabruagandik, zergatik deabrua aspiratu zuan, zeruko graziarekin, tentazio guzietan: munduagandik, zergatik mundua bentzutu zuan pobretasunean ta andinai-izetatik aparte bizi izanda, bada Joseren mundu ta aberastasuna Jesus ta Maria ziran bakarrik: aragiagandik, zerren garbitasunean bizi izan zan beti. *Pete, Pater*, esaten dio Jesusen: eskatu zure debotoentzat biar dezuna, eta etzatzu ukatuko.

10. Aditzalleak: nik badakit arturapen andi bat dezuenean, zeren gogoarekiñ aurrera erten dezuenean, ausi gogorren bat darabilzuenean, billatzen dezuela bitartekorik onena edo abogaurik famatuena. Bada, jakin zazue, denok darabilgula eskuartean arturapen bat arturapenik andiena: «salbatuko geran edo salbatuko ez geran»; denok darabilgula ausi gogor bat deabruarekiñ, zeñek egiten duan alegin guzia gu infernuetara eramateagatik. Arturapen estu onetan eztegu billatuko denok gure lagun-



tzat bitartekorik onena? Ausi gogor onetarako eztegu nai abogaurik abilena?

Eta eztet uste iñok dudarik izango duanikan Jaungoikoak bazekiala zeñ izango zan zaintzallerik onena bere semearentzat, eta danok dakigu S. Jose aukeratu zuala. Etzerate kontentu izango Jaungoikoaren Semeak zuan zaintzallearekiñ?

11. Bai, n. a. m.: *Ite ad Joseph* esaten zien Faraonek bere mendeko jentiai, mesede bat eskatzen zienean; *ite ad Joseph* dio Jaungoikoak kristandade guztiari: euki dezagun beragan konfianza, izan dezagun denok S. Joseren bitartez salbatzeko esperanza. A, bai, esperanza! Zer izango litzateke mundua esperanza gabe? Izar gabeko gau illun bildurgarri bat baño bildurgarriagoa, erteera gabeko presondegi betz bat baño beltzago. Kendu zaiozue esperanza miñaren miñez oian ezin egon dan gizon bati, kendu zaiozue esperanza beti neke, lan ta samiñen artean dagoanari, ta munduan egiten diran gaiztakeri guztiak errazoizko gauzak izango dira.

N. a.: bildur izan zaitezte beti salbatzeko esperantzarik eztaukan gizonarekiñ!

12. O nere kristuak: Jaungoikoak ta Maria Santak ainbeste konfianza izan bazuen S. Joserekiñ, nola guk eztegu izango? *Ite ad joseph* esango dizuet danori: senar emasteak, nai dezue zuen bizi moduarentzat ispillu bat euki? *Ite ad Joseph*, zuazte Josegana. Familietako gurasoak, nai dezue zuen obligazinoa betetzeko ejenplu on bat ikusi? *Ite ad Joseph* zuazte Josegana. Gizon langilleak, nai dezue ikasi honrautasun maitagarrian bizi izaten? *Ite ad Joseph* zuazte Josegana. Jente gazteak, nai dezue garbitasunean bizi? *Ite ad Joseph*. Emakume eskonduak, nai dezue ikasi mundu onetako nekeak pazienzia eramaten? *Ite ad Joseph*; guazen denok Josegana, bada, Joseren bitartez, bizitza on bat egiten badegu, salbatuko gera.

Aditu zadazue ondo zer esan dedan: *bizitza on bat egiten badegu*. S. Joseren bitartez mirari asko egin dira ta irakurtzen ditugu liburuetan; baño bada mirari bat S. Josek ere ezin egin lezakeana, eta da gu salbatzea gizon gaiztoak gerala, gu salbatzea pekatuan bizi gerala. O, ez; ori ezin lezake inork ere! Nola nai dezue S. Josek laguntzea bere seme laztanaren kontra jokutzen duan pekatariari? S Josek lagunduko dizue pekatuetatik ertetzen, lagunduko dizue tentaziak bentzitzen, lagunduko dizue nekeetan pazienzia ematen, lagunduko dizue garbiak izaten; baño pekatuetan bizi zeratela, deabruaren adiskide zeratela, ez esan: «S. Joseren bitartez salbatuko gera». Ez, engañatuak zaudete, n. k. m., pekatutik erten nai ezpade-gu eztu Jaungoikoak guzaz errukirik izango; gure esperantza ezta izango esperanza, ezpada deabruak ipintzen digun ilusioa. Egia da, S. Josek kon-

fianza aundi bat zuan Jaungoikoarekin, baño ez errezkeri lasaian bizi izanda, ez pekatuetan bizi izanda, ezpada biotz ta anima garbi ta santu bizi zalako. Ez aztu.

13. Guazen denok S. Josegana, baño guazen bere irudira kristau onak izateko asmoetan; eskatu daiogun laguntasuna egunean baño egunean obiak izan gaitezen; esan daiogun saintu gaitzala Jesus ta Maria zaintu zituan bezela. O, Aita S. Jose bedeinkatua, aditu zazuz gure erreguak. Zugan ipintzen degu gure salbazioko esperanza guzia, libra gaitzatzu munduan gure etsaien tentazioetatik, ez bakarrik gaur, baita ere bizitza guztian ta batez ere gure eriotzako orduan, Amen.



SOLEDAD

Azpeitia 1893

*Idcirco ego plorans, et oculus meus deducens aquas:
quia longe factus est a me consolator.*

Orregatik nago ni negarrez, ta nere begiak iturri bi dira,
bada nere atsegiña nigandik urruti dago.

(Jeremias Igarlearen itzak, lenengo kapituluan, 16 garren bersuan).

N. a. m: Ixil ta bakartadean dakuzgu emakume bat, emakumerik santa ta garbiena; ama bat, amarik samur ta errukiorrena, Maria santa, gizonetatik jaio diranen artian andiena; Zerueta erregiña, Jaungoikoaren ama, negarrez ta zizpuruz, samintasunik neurrigabienarekin. *Idcirco ego plorans, et oculus meus deducens aquas, quia longe factus est a me consolator.* Negar egiten det, dio, nere begiak erreka bi dira, zergatik galdu dedan nere poz ta atsegiña.

Samintasun ta naigabeak berez du misteriozko indar bat bezela gizonik otzena mugitzeko, biotz ta bularrik gogorrena biguntzeko, bururik arroena makurtzeko; añ modutan eze nai gabe andi baten aurrian ezta go beñere gizon arrorik, ezta bular ta biotz gogorrik ta ezta etsairik ere; eta zenbat eta andiagoa, zenbat eta urreragokoa dan zorigaitza ainbat eta andiagoa da biotzetan sortzen duan errukia.

N. a: Mariak negar egiten duan zorigaitza da zorigaitzik andiena; Mariak negar egiten duan samiña ezin leiteke izan urreragokoa. Zuek, kristauak, edozer zorigaitzen aurrian samurtzen zeraten kristauak, esaguturik Maria santaren samintasun neurrigabea inguratu zerate errukiz beterik bere altara aurrian, zeru ta lurreko erregiña onekin batera negar egiteko asmoan.— Ondo egin dezue, bada munduko naigabeak merezi badue laguntasun ta errukia, ongi merezi du Mariaren naigabeak. Oroitu zaitezte zuen bizitza guztian irakurri dituzuen gauzarik mingarrienakin; oroitu zaitezte ikusi dituzuen gauzarik negargarrienakin; oroitu zaitezte zuen senarra edo ematea, gurasoa, semea edo anaia bat galtzean sentitu dezuen naigabeakin... eta jakin zazue gero naigabe oiek eztrala naigabeak Mariak sentitzen duan samintasunaren onduran.

Zabala ta gazia da itxasoa; bildurgarria da ekaitz denporako gaberdia, aise indartsuaren soñua ta trumoi gogorraren burrunbada sentitzen danian; ordu larria eriotzako ordua... baña ama onen gazitasunaren alda-

menian ezta gazia itxasoa; ama onen ariman dabilztan ekaitzen onduran ezta bildurgarria ekaitz denporako gaba; ama onen larritasunen onduran ezta larria eriotzako ordua bera.

Mariaren penak jakitera etorri zeraten eskeroan, *Attendite*, esango dizuet Jeremias Igarlearekin, *attendite et videte si est dolor sicut dolor Mariae*. Zuen entendimentu ta zuen borondatearen indar guziarekin begiratu zazue ete dan beste naigabe bat Mariaren naigabea bezelakorik.

Agertuko dizuet sermoi laburtxo batian Mariaren naigabea, galdu dualako bere arimak maita zuana eta daukalako utsune bat iñork beteko eztuana.

O nere ama doakabea! Eman zadazu nik esagutzea zure arimako naigabea, eman zadazu nik sakontzea zure biotzaren erdiraño, esaguturik bear bezela zure naigabea, erakutzi dezadan zure altara inguratzen duen aditzalleen aurrean zuri denak sor dizuen maitasun ta errukia. Mesede au eskatzen dizut, ama maitea, eta geiago mugitzeko esango dizugu denok aingeruak esan zizuen salbea. *Abe Maria.*

Idcirco etc.

N. a. m.: Arreta piska batekin begiratzen badiogu maitasunari, ikusiko degu beriala dala maitasuna, batzuetan atsegin ta gozotasun guzien iturria, eta, beste batzuetan gazitasunik andienen itxasoa. Bada, Zer da egiazko maitasunaren eginkizuna? Egiazko maitasunaren eginkizuna da arima birekin bat egitea lokarri batekin estutuko balira bezela, borondate birekin bat egitea. Eztituzue esagutzen or nunbaiten benetan maite diran persona bi? Begiratu zaiyozue ondo, eta ikusiko dezue egia dan edo ez nik diodana. Ikusiko dezue batarentzat samintasun ta naigabeak diran gauzak samintasun ta naigabeak dirala bestearentzat ere, ikusiko dezue batarentzat gozo ta pozgarri dan gauza bestearentzat ere gozo ta pozgarria dala. Orrela da egiazko maitasuna.

Eta orrela zan Maria santak Jesusentzat zeukana ere, bada Jesusekin gauza bat zan bere arima guziarekin, baña etzan munduko maitasun nagargarriak bezela, ezpada ze maitasun garbia, zerutarra, Jaungoikozkoa. Zan ama baten maitasuna.

Esaten da, ta egia da, eztagola munduan maitasun bat amak semiai dien maitasuna bezelakorik. Ama on batek, nolako lanak erabiltzen dituan bere semearen osasun ta apainduriak gatik! Zer oarpilla ta nekeak semeak gero ondo izan ditezten! Eta semea bada bakarra, ta semea berez bada maitagarria, nork esan amak seme arrentzat dituan amodio ta samurtasunak? Eta beste aldetik, zer naigabeak amarenak semearen gaixo ta miñetan! Eztezue ikusi iñoiz ama bat bere seme bakarra ia illian daguan oe



baten aurrian? O! Nola sentitzen dituan amak biotzaren erdi erdian bere semearen miñak! Nola betetzen dituan semearen desio txikiak! Nola irakurtzen dituan bere begietan pensamentu guztiak. Nola dagoan dindilizka berak esango dituan itzetatik! Nola estutzen duan bere bularraren kontra, bere bizitza, bere indarra, bere espiritua eman nai balio bezela indar, bizitza ta espiritua galtzen dijoan semeari!

Eta, n. a., zer dauke ze ikusirik ama guztien maitasunak Mariak Jesusen zion maitasunakin berdintzerako? Maria Betikotasunetik izan zan Jesusen amatzat esleitua eta bere sorrera garbian jaio baño ere len aberastu zuan Jaungoikoak milla grazi, milla birtute, milla samurtasun, milla apainduri eta espirituko aberastasunez. Aberastasun ugari abekin bada, bear zan bezela, emakume guzien gañetik zegoan, bere semea jaiotako gizon guzien gañetik zegoan gisan eta Mariaren biotzean samurtasun geiago zegoan emakume guzien samurtasunak bat eginda baño. Samurtasun neurrigabeko gozo onekiñ ikusi zuan Mariak bere seme kutun mirariz sortutakoa mirariz jaiyotzen; ikusi zuan mende eta artzaiak ta urietako erregeak adoraten zuela esagaturik salbatzalletzat; ikusi zuan asten bere aldamenian landararik mardulena bezela, jakitun, eder ta zoragarria; ikusi zuan amabi urte bakarrik zituala mututurik utzitzen gizonik jakitunena bere jakituri Jaungoikozkoarekin; ikusi zuan gero erririk-erri Ebanjelio osasungarria sabaltzen, milla mirari egiten gizon askoren malkoak legortzeko; ikusi zuan erriak *hosanna!* deiezka triumfalaria eramaten zuela.

Ama guztiak beuren semeak maitatzen baditue, nolanaikuak dirala, nola Mariak maitatuko etzuan seme añ maitagarri ta apainduriz betea?

Ogeta amairu urtean bizi izan zan gañera Jesusekin batian, etxepe batian, mai batian jaten zuela beuren janari pobrea. Milla bidar euki zuan bere magalian irribarrezko aingeruen lo gozogozaan; milla bidar Jesus umearen eskutxoak katigatu ziran Mariaren lepoan; milla bidar eztuturik elkarrekin lastandu ziran samurtasunik andienean. Jesusekin bizi izan zan Belenen, Jesusekin bizi izantzan Nazareten; berak jasten zuan Jesus, berak ematen zion jaten da edaten; bere gozotasunik andiena zan Jesusen ume-tasunian, bere seme lastanaren arpegi zoragarria ikustea.

Asi zanean Jesus, gorputzian bezela ariman ta jakiturian Jesus izan zan bere maisua, bere gidaria, bere adiskidea, bere saintzallea... eta Jesusentzat ziran Mariaren pensamentuak, Mariaren desiuak, Mariaren amodio neurrigabe guzti-guztia.

Iruditu zaitezte bada, aditzalleak, nolakuak izango ziran Mariak Jesusekin zeuzkan maitasunezko lokarriak. Gañera, zan Jesus berez ederra: bere arpegian Jaungoikozko argi bat ikusten zan: bere begiak biguñ,

gozo ta zerutarrak: kopeta zabal garbi jakintsuena: bere gorputz dana ondo egiña: bere ibillera diñadi ta magestade andiz betea... añ modutakoa zan Jesus eze ezin zezakion begiratu errespeto andi ta maitagarri bat gabe. Nola bada Maria Santa ordu guzietan, egun guzietan ogeta amairu urtean berarekin bizi izan zanak maitatuko zuan Jesus? Ama guztiak beuren semeak maitatzen baditue nolanaikuak dirala, nola Maria-amak maitatuko zuan ainbeste diñadi gorputz ta ariman zaukazan semea?

* * *

Eta gañera, aditzalleak, Mariak maitatzen zuan Jesus bere Jaungoikua bezela. Bere begiak goaldietan jira-biraka dabillen arranoaren gisan, bere birtute ta aberastasun goienekoetatik, beti zeuden begira Eguski Jaungoikozkoari, ainbesteraño eze bere bizitza gustiko zeregiñetan, beñ ere etzuan galdu maitasunezko begiratzean. Ondo zekian Mariak bere sorrera garbian zerutik artu zituan jakituriakgatik, zala bera ez bakarrik gizon baten ama, baita ere gizon Jaungoikoaren ama. Ondo zekian Jesus zala lege zarreko irudi guztien akabera, ainbeste Igarlak esandako Mesias munduari agindua, ainbeste gisaldian desiatu izandakua, Pakezko erregia, Zeruaren jagolea, Jaungoiko Altsua. Ondo zekian gizontasunaren aldetik zala Jesus gizonik santuena ta Jaungoikotasunaren aldetik Irutasun Santuaren bigarren Persona, Aita eta Espirituarekin berdiña, Aita eta Espiritu Santuarekin bat bakarra. Nola bada esagaturik onela zein zan Jesus, nola maitatuko zuan Maria santak bere seme Jaungoikoa? Orregatik zeguan Maria maitasun neurri gabe onen sutan erretzen, orregatik ziran bere zusprioak, nai zualako gizon guziak maitatzia Jaun añ maitagarria.

* * *

Eta oraiñ, aditzalleak, maitasunarekin berdiña bada samintasuna, nolakua izango da Mariarena orain bakardadean pentsatzen degunean galdu duala bere seme Jesus? Nolakoa izango da Mariaren samiña, oraiñ, bakartadean gogoratzen zaizkonian Jesusen umetasuneko kontuak? Nolakoa izango da Mariaren samiña oraiñ, bakartadea gogoratzen zaionean il dala bere seme lastan ederra, il dala bere Maisu jakintsu, il dala bere gidari zuzena, il dala Jaungoiko illezkorra?

Eta nolakoa izango da Mariaren samiña oroitzen danean nolako eriotzarekin il duen bere semea? Zergatik Mariak dana daki eztalako beste munduko amak bezela. Munduan, ama bati bere semearen ill berria ema-



ten diuenean esaten diue piskaka piskaka eta modurik onenean, baña Mariak dana daki batera. Daki Jesus saldu duala bere ikasle batek, lotuta eraman duela, Pedrok ukatu duala, bost milla sartada ta geiago artu dituala, arantzasko koroï batek itxusitu duala Jesusen arpegia, iltze gogorrakin josi kurutzian ta ill duela gaizkille baten gisan, lapur biren erdian.

Dana daki Mariak! Zer diot daki? Mariak berak ikusi badu bere semearen eriotza! Maria ezta beste emakumiak bezela ez jaiotzan, ez eriotzan, ez atsegiñetan, ez naigabietan; danian da andia, danian da goitarra. Urkamendira eramaten dituenen amak, ez bakarrik eztira joaten, semia iltzen duen tokira, ezpada ze iges egiten due erritik ere beuren belarrietara eldu etzedin jentien zaratarik, tanbor otzik edo il kanpaïen durundirik.— Baña Maria zuerak indartua sartu da jente aldra ta borrreru guzien artetik, ikusi du semea, jarraitu dio semearen odol tanto preskoak erakusten zïuen bideari ta eldu da Kalbarioko mendi tontorrera. An ikusi du kendu diuela seme lastanari bere soñekua, berriztatzen ziozkala eritasun izugarriak; ikusi du jaso duela kurutzian egur igarra balitz bezela bat ere errukirik gabe; ikusi du jaso duela kurutzian ta andik bere seme laztan ia illak *Sitio* esan duala, egarri izugarri bat daukat: orduan bere biotza urtu nai izan du Mariak egarri ura kentzeko, baña ezin zan; ikusi du Jesusek etzeukala nun deskantzatu bere buru arantzaz josia... eta...

O zuek, ama zeratenok, dakizuenok zer dan galtzea zuen erraiyetan sortu zenduen semea, zuen magalian irribarrez euki zenduen semea, zuen bularraren kontra ainbeste bider estutu zenduen semea, zuen poz ta atsegiña zan semea, esan zadazue zer zan ama onen naigabea ikusirik seme-rik onena, semerik ederrena, semerik maitagarriena, ilda, larru gorrian, lapur biren erdian mundu guziaren farre eta burlen artian. Maitatzen zuen Mariak Jesus Anak Tobias, Rakelek Benjamin eta Betsabek Salomon baño geiago, ama guztiak beuren seme danak baño geiago, O! Dabiden arpa naikua ezpada naigabe au esateko, nola zuek, emakumiak, esango dirazue? Esagutzen dezue beste naigabe bat naigabe au bezelakorik?

* * *

Eta ilda ikusi duanian ere ezta Maria Jesusegandik aldendu: an geratu da, Kalbarioko mendi tontorrean, bertan jaio dan arbola bat balitz bezela, lerdena ta gogortua, bakar-bakarrik, karidadiaren zai bere semia kurutzetikan jetxitzeko; artu du bere besuetan, estutu du ta laztandu du milla aldiz, bertan ilko ezpazan, kendu diue begien aurretik Jesusen gorputza, sartu due illoian, eta, nolabait! aldendu due Maria leku artatik.

Maria jetxi da bakartadera, mendira eraman dituan lengo bideetatik. Menturaz bere oñetakoak eta jantzi barrenak odoldu ditu bidean bere semearen odoletan: isiltasuna billatu du bidean, isiltasuna kaleetan, isiltasuna etxean; bada norbait iltzen danian toki guziak gelditzen dira itsaltsu ta errespetagarri, borrreruak beurak tristetzen dira gizona ill ondorean... eta gaur il dana, Jaungoikoa da!

Isiltasun onek indar geiago ematen dio Mariaren irudisleari... eta oroitzen da berriz biziroago edo Jesusek kurutzetik eman zion begiratzearekin, edo Jesusen gorputzeko eritasunekin edo borrreruen arpegi itxusiekin... eta oroitze onek dakazki malko berriak, estutasun berriak. O naigabea! eztago iñor Mariaren arima poztuko duanikan, eta arrazoi andi batekin dio: *idcirco ego plorans, quia longe factus est a me consolator*. Negar egin det, nigandik urruti dagolako nere poz ta atsegiña.

Eztauka naikoa arrazoi negar egiteko? Esagutzen dezue beste naigabe bat au bezelakorik?

Mariarentzat mundua utzik gelditu da, bada beretzat dana zan Jesus, ta Jesus bakarrik. Jesus falta da, ezta Jesus ikusten, ezta ilda bada ere, eta eztago ezertxo ere bere biotza beteko duanikan. *Non est qui consoletur eam ex omnibus caris ejus*. Etzaio iñori onelako negargarririk gertatu. Negarrez gelditu zan Jakob bere seme Jose galdu zualako, baña an gelditu zitzaïyon Benjamin bat bere malkoak legortzeko. Israeltarrak negar egin zuen Moises il zanean; baña bazeuken Josue bat Moisesen ordeazko. Mariak eztauka onelako konsuelorik: galdu du seme bat, seme bakarra, seme kutuna, seme laztana, seme Jaungoikoa... eta eztauka geiago pozik. Egia da, bere Jesusek S. Juan eman dio semetzat, baña S. Juanek ezin lezake bete Jesusen tokia. Oh! Eguzkia betiko itzaliko balitz, nola zeru urdiñeko izartxo batek argi egingo lioke munduari gau illunean? Ah! Egiaz, eztago iñor bere animako utsunea beteko duanikan: *non est qui consoletur eam ex omnibus charis ejus*.

Zeñek sakonduko du bear bezela Mariaren biotza? S. Anselmok, bere jakituri guziakin, konsiderazio onen gañean, gauza bat bakarrik daki esaten, au da: Mariaren samiña martiri guzien tormentuak baño andiagua izan zala. S. Bernardinok berriz esan zuan: Mariak sufritu zuan naigabea zatituko baleu jente guzien artian, jente danak ilko litzakezala miñaren miñez. Sto Tomasek dio: Mariaren samiña izan zala munduan sufritu leitekanean saminik andiena. Azkenez, Ebanjelistak beurak Kalbarioko mendian izan zan negargarria esatean itz bat bakarra dauke Mariaren naigabea esateko: *Stabat*: An zegoan.



N. a.: eztet itz bat geiago esango Mariaren naigabien gañean. Badira gauza batzuek gure adiñak entenditzen dituanak eta gure biotzak sentitzen dituanak, baña iztunik ederrenak beñere ondo esango ez dituanak. Bakarrik esango det: «Zabala dala...».

N. a. m.: etorri zerate Mariari bere naigabietan laguntzeko asmoan errukiz beterikan, ondo egin dezue, bada iñoren naigabeak merezi badu errukia, merezi du Mariarenak; baña errukia alperrikakoa izan eztedin eta Mariari konsueloa eramateko, gauza bearra da Jesus bere semea maitatzea gauza guzien gañetik; gauza bearra da Jesus maitatzen degulako apartatzea bera ofenditzeko okasiotik, apartatzea pekatutik, bada pekatua da Jesus kurutzian il duana, pekatua da Mariaren naigabe guzien iturria, onela bakarrik eztira izango alperrikakoak gure errukia ta malkoak.

O gure ama maite ta errukarria! Esagaturik gure pekatuakgatik galdu dezula zure seme Jesus, zugana gatoz oso damutuak zure bakartadean laguntzeko asmoetan. Pekatu egin degu, ama!, ta zuk bizitza guztian negar egingo dezun bezela Jesus galdu dezulako, nai degu guk ere negar egin gure pekatuakgatik. O ama errukitsua! Gure eriotzako ordu estu ta larrian, zure Seme Jesusen irudia gure esku argaletan ezin eukirik iñork gure españetan lastantzeko ipintzen digunian, denok, Ama maitea! denok naiko degu zure eta seme Jesusen laguntasuna. Orregatik nai degu orain negar egin zurekin batera, gero poz ta atsegiña izan daigun betikotasun neurrigabian. Amen.

SAN PEDRO

(Zumaya)

1893

Ecce pono in Sion lapidem sumum, electum, probatum, pretiosum.
(Isaiasen itzak bere liburueta 28garren kapitulan.—
eta S. Pedorenak bere kartetako II kapitulan.

N. a. m: Plinio jakintsuak eta beste munduko jakinduriaren billa ibilli diran gizon askok erakusten digue, arranoak egiten duala bere kabia berak esagutzen duan arri mueta aparteko batean. Orain kantatu dan ebangeliua ere, aditu dezue, kristauak, nola zeru goietatikan jetxi zan arrano eder jakintsu miragarriak egin zuan munduan bere kabia, au da, sortu zuan Eliza Santa, arri sendo ta apartekotzat arturikan bere ikasle ta gaur zuen patroï dan Pedro santua, zeñi esan ziozkan sarri askotan entzun dituzuen itz abek: *Tu es Petrus et super hanc petram aedificabo Ecclesiam meam.* Zu zera arria eta arri onen gañean jasoko det nere Eleiza.

Arri onegatik, n. a., esan geinske Isaias Igarleak lenagoko denporetan eta gero S. Pedrok berberak eskribitutako itsak: *Ecce pono in Sion lapidem sumum, electum, probatum, pretiosum; et qui crediderit in eum non confundetur.* Itz abek señalatzen due lenengo Jesu Kristo gure Jauna zimenduko arri-rik sendo ta gogorrena; gero Pedro, Jesu Kristok bere ordeazkotzat utzitzen zuana; eta azkenez, Pedoren oñetik gaur arteraño emeretzi gisaldian izan diran aita Santuak. Eta ondo berdindu nai izan det, irudi baten bitartez, arranoaren kabiko arria Eleiza santa jaio zan kabiko erriarekiñ: bada Pliniok erakusten badu arranoaren kabiaren barruan beste arri bat dagola estaldua, nik esaten dizuet gaur Aita Santu bakoitzean ere dagola beste Aita santu bat jaiotzen dana bestearen eriotzan, añ modutan eze, San Pedrotik asi ta Leon amairugarreneraño ezta amaitu Aita Santuen errezkadako kate beneragarria, eta ezta ere amaituko, bada bizi da gizon bat Leon amairugarrena iltzen danean Aita Santua izendatuko dana. Illkorrak gera mundutar denok eta ilko da Leon XIII garrena, baña ez Aita Santua: erromatarrak, S. Pedroko plazan inguraturikan, entzungo due oraindik Batikanoko balkoietatik ainbeste bidar infernutarrai dardara eragin dien diadarra: *habemus Papam.*

Bañan ez nadin sartu aurreregi gaur goizean pulpitu onetara dakardazan asmoetatik kanpora. Natorkizue, aditzalleak, agertzera *San Pedrok*



euki zuan eta bere ondorengiak dauken aginpidearen andiizate ta maitagarritasuna. Au da nere gaia. Baña bear bezela agertzeko eskatu daiogun grazia, Espiritu Santu Jaunari, esanaz guziok, oitura dan bezela Maria Santa Jesu Kristoren ama maiteari: Abe Maria.

Ecce pono in Sion etc.

N. a. m.: Itsaldi onetarako ipiñi dedan aipamen edo gaia bear bezela probatzeko jarraitu bear diogu aitaturtako Isaías eta S. Pedroren esanari; ikusirikan ondo itz bakoitzean: *Ecce pono in Sion lapidem sumum* esaten due: ara emen, Siongo mendian arri bat aginpide bat goian goienekoa. Eta benetan: Pedro eta bere ondorengo *aginpidea* da goien goienekoa, bada Jaungoiko altsuak emana da Jesu Kristok Pedrori esan zionean: *Tu es Petrus* eta bere mendekoak dira beste kristandadeko aginpide guziak. Eztago lurtean Aita Santua baño gauza andiagorik. Orregatik Kalzedoniako batzar santuak deitzen dio Erromako eleizari *caput omnium ecclesiarum* eleiza guzien burua, Nizeako lenengo batzarrak erakusten du gañera Erromako eleiza eleiza guzien buru ta naguzi dan bezela, Erromako Artzai edo Obispoa dala mundu guziko kristauzai edo Obispoa, Sazerdoterik andiena, Eleiza guziko gurasoa; *universalis episcopus, sumus Pontifex, Ecclesiae pater*; eta Justiniano enperadoriak dio: *eztala iñortxo ere dudarik daukani kan Erroma dala sazerdoterik Nagusienaren egolekua: nemo est qui dubitet Summi Pontificatus apicem apud Roman esse*. Orregatik ere Eleiza Santuko batzar guzietan Erromako Aita Santua izan da aurrenengo buru ta nagusi; orregatik dauka eskubidea *Obispo* berriak donekida edo konsagratzeko, fedea ukatzen duenak eleizatik kanpora ateratzeko; orregatik S. Atanasio, S. Pedro Alejandrino, S. Marzelo, S. Krisostomo, Teodoreto eta beste lenengo gisaldietako Obispoetatik asi ta gaur arterañoak beti jua izan dira Erromako Aita Santua gaña argi eske eta beuren artaldietako edo eleizetako berriak ematera. *Ecce pono in Sion lapidem sumum*. Au dago Sion mendiko arririk nagusiena.

Nagusitasun au, n. a., denpora guzietan eta mundu guziak esagutu duana da; jauregi panparroietan urrez ta apainduriz beterik bizi diran erregetatik asi ta gizonik argal, umill ta pobretxuetaño. Juan Aita Santua Konstantinoplara jua zanean erten zion bidera Justino enperadoreak uri guziko jentearekin, auspestu zan Aita Santuaren aurrean, kendu zituan bere agintaritzako jantzi ederrak eta eskatu zion Aita Santuari jantzi zaiozkala berriro bere eskuakin aginpide egiaskoaren señaletan. Eleizako kondairetan irakurten degu Justiniano enperadoriak mundu giziaren aurrian mun egin ziola oñetan Konstantino aita Santuari, Franziaiko Karlos andiak Adrianori, Pipinok Estebani orrela eta beste asko eta askok, era-

kusten zuela munduaren aurrean Pedroren ondorengoari sor zitzaion eta gordetzen ziuuen begirune andia. Orduko denporetatik oneraño beti egunetatik au bera gertatu izan da eta gaur dan egunian bertan, denpora txarretan bizi bagera ere, irakurri izan dituzue munduaren alderdi guzietatik zeinbat eskeintza aberats eldu diran Erromara Leon XIII garrenaren urrezko eztaietarako: neuk nere begiakin ikusi ditut ez gutxi errege eta prinzipienak famili pobretxukoenen ondoan: neuk nere begiakin ikusi ditut gañera millaka ta millaka Dierri edo Nazio askotako langilleak, nekazariak, gizon aberats ta argitsuak, lege jakiñak, abadiak ta Obispoak auspesten zirala errespetoz beterik Pedroren ondorengoaren aurrian, ta arpegi askotik bera malko gozo ugariak erortzen zirala samurturikan Leon amairugarrenaren oña mun egitean. *Ecce pono in Sion lapidem sumum*, eztago beste izate bat Aita Santuaren andi izatearekin berdintzerakorik.

2. *Ecce pono in Sion lapidem sumum... electum* jarraitzen du Isaías igarileak. *Electum*, ezta bakarrik andiena, da gañera *esleidia lenengo bere umiltasunagatik*, gero bere *santutasunagatik*, bada umiltasunetik santutasunera bide gutxi dago. Umiltasuna, n. a., gauza bearra da, baña agintzen duenen artean gutxiak gordetzen due birtute eder au, eta ikusiko dituzue agintari asko umiltasuna zer dan ere ezakienak, bada goialdietako aizeak gizonen buruak txoratzeko indar andiak ditue, eta zenbat eta gorago dagoan gizona ainbat eta arruago ikusi oi da geienetan. Aita Santu berri bat izendatzen danean bere aurrean erretzen zaio mullo edo estopa satitxo bat, esanaz: *Pater sancte, sic transit gloria mundi*. Aita santua, su au bereala amaitzen dan bezela, amaitzen da mundu onetako andi izatea; eta Letrango eleizara eramaten duenian au esaten zaio: *suscitans de pulvere egenum; et de stercore erigens pauperem*: autsetik dator pobretxoa, simaur piskabatetik jaiotzenda. Eta onela umiltasunian simendua ondo arturik, esagaturikan gizona berez ezkala ezertxo ere, igotzen du bere *tronura*, ez bere buruari arrokeriz begiratzeko, ezpada ze kristandadiaren onerako, Jesusen ebanjelio osasungarria lurraren kabuetaraño salbatzeko, mundu guziari guraso baten maitasunarekin begiratzeko, eta ezkribu guzietan Aitasantuak deitzen diue bere buruari: *servus servorum Dei* Jaungoikoaren serbitzari diranen serbitzaria.

Zimendu orretatikan etorri dira ainbeste ondasun munduarentzat, ainbeste eritegi, ainbeste eskola, ainbeste jakituriako iturri aita santuak sortu dituenak, ainbeste limosna egiñak. Kondairetan irakurriko dituzue, n. a., zenbat eskola sortu dituan Erromako Aita Santuak, nola deitu zaien askori *pater pauperum*, pobrien gurasuak.

Gañera, beste señaletan bat daukagu Pedroren ondorengiak Jaungoikoak autatu edo eskogituak dirala igarteko: santutasuna. Badakizue, n. a.



m. zenbat martiri izan diran Pedroren oñekoak? Irurogeita amabi Aita santuk eman due beuren bizitza fedeagatik, eta martiri izan eztiran beste asko bedekintzen ditugu altaretan. Esagutzen dezue beste estadu bat ainbeste santu eman dituanikan? Arrasoiarekin esan giñaike bada: *Ecce in Sion lapidem electum*. Ara Siongo mendian arri bat Jaungoikoak autatu edo esko-gitua.

3. *Ecce in Sion lapidem sumum electum, ... probatum* diardu Isaiasek: *¡Probatum!* nork esan leikez Pedroren jarrileku ta eskubideak izan dituan prueba ta eramankizunak? An daude Erroman *katakunba* edo lurratzpiko bide eta bizileku tristeak, beuren iskuntz isillarekin naikua asko esaten duela; an dago Pedroren presondegia eta bera lotuta euki zuen kateak, an dago Koliseoko plaza biribill zabala ainbeste martiriren odolekin busti izan zana; bizi dira kondairetan, madarikatzeko bada ere, Kaligula, Neron, Domiziano, Marko Aurelio, Septimino Sebero, Maximiano ta Dioklezianoren izenak; jakiña da Simon Magotik asita Montanotarrak, Manikeotarrak, Domatistak, Arriotarrak, Pelagio, Nestorio ta Eutikio-tarrak eta beste millak gezurzaiek Protestantieraño zenbat estutu duen Pedroren jarrilekua; baña baita ere da jakiña Arriotar erregietatik asita Ingalaterrako Enrique VIII garrenari, ta ordutik gaur arteko agintari daneri, presondegi ta katetartean bezela itz bigun t'eztitsuen artean, esaten diola Aita santuak gezurraren aurrean beti berdinkiro: *¡non possumus!* ezin geinkez gezurrarekin konpondu: gezurra beti da gezur, orain milla urte bezela gaur ere; gaur bezela emendik milla urtera ere; egia naiz, zerutarra naiz, ezin neike jira-biratu: *¡non possumus!*

Ezin neike esate onek gerra andiak ekarten diozka eleizari, naigabe asko ematen diozka, estutzen du sarriro baña eztue garaituko eleiza, *non praevalerunt*. Ez, eleizaren etsaiak, jaso zazue *Satanasen* gezurrezko bandera beltza zuen alizate guziarekin, baña zuen alizatea gizon zirzillarena da, eta zein da gizona Jaungoikoaren aurrean? Emeretzi eunkida dira jasota dagola Erroman beste bandera bat, bandera zuri, eder, garbi, egiazko, zerutarra: bandera onen ondoan inguratutik bizi gera katolikoak, banderra onekin estaldurik gerran gezurraren kontra nai degu ill esanaz gure Aitarekin batean: *non possumus*.

4. *Ecce in Sion lapidem sumum, electum, probatum, ... pretiosum* dio oraindik Isaiasek S. Pedrokekin batera.— *Pretiosum*, au da, txit eder ta maitagarria, balio andikoa ta Jaungoikoak maitatua. Zer gauza ederragorik egia baño? Zer gauza maitagarriagorik? Asieran esan det gizon guztiak maitatzen duela, baño nola ez Jaungoikoak berak maitatzen ba du? Jaungoikoak maitatzen duala Erromako katedra santua esagutzen degu berak irauten

duan urteetatik. Izan dira beste Patriarka batzuen katedrak baña Erromakoaren menditikan erten zuenetik laster ondatu ziran, ereje geienak eta tronorik sendoenak ondatu ziran bezela, kunpliturikan onela Jesu Kristoren esana: *Qui non est mecum contra me est, et qui non colligit mecum spargit*. Nerekin eztagona nere kontra da, eta nerekin batzen eztuanak desegiten du. Nola maitatuko eztu, nola indartuko eztu Pedroren katedra zerutik lurrera gizona salbatziagatik jetxizan Jaungoikoak, Pedroren katedra bada berak sortu zuan kabia gizona salbatzeko bere doktriña santua *gordetzen duan kutxa* maitagarria?

Ta nola izango ezta balio andikoa zeruetako doktrina eder t'egiazkoa gorde ta erakusten duana?

Eta emen ipiñi zazue, n. a, atenzio piska bat Eleizaren erakuste modu onetan. Erakusten due maisuak beuren jakituri apurra mundu zabalean diran eskola nagusi danetan, baña sarri askotan erakusten ditue begitanzio batzuek bakarrik, jakituriko bideetan dauden illun ta lauso tartean ondo ikusten eztuelako, gizonaren indarrak indar laburrak diralako, bañan beste aldetik erakusten ditu Eleizak zeruko doktriña ta egirik miragarrienak ta erakusten ditu garbiro beñere uts egin gabe, bein ere *ekibokatu gabe*. Zergatik? Zergatik erakusten duan Jaungoikoaren doktriña, Jaungoikoaren esana ta Jaungoikoa ezta beñere *ekibokatzen*. Berak dauka orretarako eskubidea. Eta Pedroren ondorenguak bakarrik erakutzi lezake onela. Pedrori esan zion Jesusek, eta Pedrori bakarrik: *Pasce agnos meos, pasce oves meas*. Pedrori esan zion Jesusek eta Pedrori bakarrik: *ego autem rogavi pro te ut non deficiat fides tua*, Pedrori esan zion: *ego dico tibi quia tu es Patrus et super banc Petram aedificabo ecclesiam meam*. Orregatik Eleizak erakutzi izandu beti eta da fedeko gauza Batikanoko batzar santua izan zan eskero, Aita santuak itz egiten duanean bere jarrileku edo katedratik fedeko gauzen edo oituren gañean dala utsezgarria.

Ecce... lapidem pretiosum. Gauza abek onela izanik iñork ezin lezake, bada, ukatu Erromako katedra santua dala baliorik andienekoa, gauzarik andiena, autatuena eta maitagarriena, Jaungoikoak geien probatu duana dan bezela. *Ecce in Sion lapidem sumum, electum, probatum, pretiosum*.

Onenbesterekin, n. a., uste det agertu dedala Isaias ta S. Pedroren itsak zer esan nai duen ta bertatikan esagutzen dezuela S. Pedrok euki zuan eta bere ondorengoak dauken eskubidearen andiizate ta maitagarritasuna.

Baña Aita Santua bada lurreko izaterik goienekoa, aukeratuena, geien sufritzen duana, geien balio duana ta maitagarriena ere, bere buru gañean iru koroï daukazan gizona bada ere, Aita Santua beartsu bizi da eta eztauka beste ondasunik bere seme onen borondateak ematen diona



baño Orregatikan agintzen du Obispo Jaunak urteoro gaurko egunean esketxobat egiteko Aita Santuaren alde, eta orregatikan dakidalako kristau onak zeratela ez naiz lotsatzen eskatzen zueri ere limosnatxo bat gure Aita Erromakuaarentzat; Zumaiatar maiteak; limosna bat Aita santuaren-tzat! Badakit borondatia euki arren denok ezingo dezuena, baña diruzko limosna ezin duenak egin dezeela oraziozko limosna, erresatu dezeela *aita guriatxo* bat bada ere eleizaren garaierarako.

O, nere kristauak, ez gaitezen kabitik urrutira egatu, zer zoriona guria eta zer posarekin esaten dizuet! Kabi baten jaioak gera gu, denok Eleizaren doktriña santuarekin janaritu gera, ez gaitezen janari on gabe gozeak iltzeko zorian gelditu Eleizaren Sakramentu santuetan indartzen gera, Eleiza onetako sakramentu santu ta bedeinkazioekin naiko degu Guraso on bat daukagu, guraso jakintsu bat daukagu, guraso zar bat bene-ragarria daukagu denok: maita dezagun, lagundu daijogun gure limosna ta erresuekin, erregutu dezagun bizi-ero eleizaren garaiyagatik, bizi gaitezan famili on bateko jenteak bezela guraso onen agindupean. Eta iñoiz, seme galdua bezela, etxetikan alde egin badegu pekatuko bideetatik, atozte kabira berriz, nere aditzalleak, atozte Jaungoikoak egindako kabira.

O, Aita San Pedro, zeruetan gloriaz beterik zaudena! Zu ta zure ondorengoak bakarrik esagutzen ditugu maisutzat. Eman zaiguzu fede bizi bat zure fedea bezelakoa, lagundu zaiguzu munduan; lagundu zaiezu batez ere, zu izan ziñan bezela arrantzale diran gizonai; erri onetan aiñ egokiera onean onoratzen zaituenak milla aldiz itxasoko ekaitz gogorren artean eriotza arpegiz arpegi ikusten duen mariñel oiek, zaitu itzatzu, ezteitzala eriotzak bere besu otzetan eztutu itxasoaren erdian: izan deze-la denpora Sakramentu santuak artuta pake santuan utzitzeko beuren anima Jaungoikoaren eskuetan.

Aita San Pedro Eleizaren burua. Izan zaite gure guraso, salba gai-tzatzu, bizi gaitezan egun batean, zurekin dontsu ta zorioneko, guziori opa dizuedan bezela. Amen.

DOLORES

Aizarna — 1893

Attendite et videte, si est dolor sicut dolor meus.

Jeremias Igarlearen eskribuetan, I buru eta 12 garren bersuan.

Gelditu zaitezte bidetan zabiltzatenak eta begiratu zazue ete dan beste naigabe bat nere naigabea bezelakorik.

N. a. m.: Emakume bat, emakume guzien artian santa ta garbiena; ama bat, ama guzietatik samur ta errukiorrena; Maria santa, lenengoa ta andiena gizonetatik jaio diran alaben artian, Jaungoikoaren ama, Zerueta-ko erregiña, daukagu negarrez gure aurrian, esaten digula: «Kristauak, gel-ditu zaitezte apur batean, eta begiratu zazue ete dan mundu guzian beste naigabe bat nere naigabea bezelakorik».

N. a. Samintasun ta naigabeak berez du misteriozko aparteko indar bat biotzik gogorrena biguntzeko, gizonik otzena samurtzeko, bururik arroena makurtzeko. Desgrazi ta naigabearen ondoan eztago biotz gogo-rrik, eztago gizon otzik, eztago buru arrorik, eztago etsairik ere. Eta zen-bat urragokoa dan desgrazia, ainbat andiagoo da samiña, zenbat andia-go da naigabea, ainbat geiagokoa besteen ariman sortzen duan errukia. Eta Manaren zorigaitza ezin leiteke izan urragokoa, ezin leite izan andiagoo.

Kristauak, edozein *desgraziaren* aurrean samurtzen zeraten kristauak, ara emen gauzarik negargarriena; oroitu zaitezte zuen bizitza guzian ikusi dituzuen desgraziarik andienekin, zuen bizitza guzian irakurri dituzuen naigaberik mingarrienekin; zuen seme bat, alaba bat, senarra edo emastea galtzean senti zenduen samiñarekin, eta jakin zazue gero ikusi dituzuen, irakurri dituzuen eta sentitu dituzuen naigabeak eztirala ezertxo ere Ama santa onenarekin berdintzeko.

Zabal ta gazia da itxasoa; beltza ta bildurgarria zerua ekaitz denbo-rako gaberdian aize indartsuaren soñu triste eta trumoi gogorrenen burrunbadean artean, ordu larria da eriotzako ordua; baña, ama onen gazi-tasunaren aldemenean ezta gazia itxasoa, ezta illuna ekaitz denporako gaba, ezta larria eriotzako ordua bera.

Attendite, jarri zazue zuen entendimentu eta borondatearen indar guzia gaur goizeko konsiderazio onetan, *et videte* eta ikusi zazue ongi ama



onen samin neurrigabea eta esango dezue gero badago naigaberikan ama onen naigabea bezelakorik, *si est dolor sicut dolor meus*.

Daukat asmoa, n. a., agertzeko zuen aurrean Maria Santaren naigabea izan zala munduko gizonen artean izan diran naigabeak baño ezin esan ala askozaz andiagoa. Onetarako esaguturik amodiua dala *Ama* onen naigabien iturria, erakutziko det 1.º Mariak Jesusi zion amodio garbi ta sutsua, 2.en Mariak gizonentzako zeukan maitasun egiazkoa.

O ama doekabe ta errukarria! Eman zadazu nik sentitzea zure samintasunaren apur bat, zer diot apur bat! eman zadazu nik sakontzea zure biotzaren erdiraño, esaguturik zure naigabea negar egin daidan zurekin batera; erakutzi daidan, nolabait bada ere, zure altara inguratzen duen Aizarnatar aditzalle maiteen artean zuri zor dizuen maitasuna eta zuri zor dizuen errukia. Mesede au eskatzen dizut nere biotz guztiarekin esanaz, geiago mugitzeko Aingeruak esan zizun salbea. *Abe Maria*.

Attendite etc

Arreta piska batekin begiratzen badegu maitasunaren asiera, ikusiko degu dala, batzuetan, sentierarik bigun ta gozoeen iturria, eta beste batzuetan gazitasunik andienen itxasoa.

Eta egiaz, zer da maitasun benetakoaren eginkizuna? Maitasun benetakoaren eginkizuna da *arima* birekin bat egitea lokarri ondo estutuen bitartez bezela: borondate birekin bat egitea.— Esagutzen dituzue egiaz maite diran *persona* bi? bada ikusiko dezue egia dan edo ez nere esana: begiratu zaiozue ondo eta esagutuko dezue laster batareri naigabe ta estuasunak, estutasunak eta naigabeak dirala bestearentzat; bataren pozgarri ta alaitasunak, alaitasun ta pozgarriak dirala bestearentzat ere. Orrela da egiazko maitasunaren izatea.

Eta orrela zan Maria Santak Jesusentzat gordetzen zuan maitasuna. Baña ez munduko maitasun naskagarrien gisan, ezpada ze garbia, zerutarra, Jaungoikozkoa. Onelako maitasun santu, garbi ta sutsuarekin, zeru ederraren goien goienean jartzen diran Aingeruena baño askozaz garbigoa eta sutsuagorekin bete bete eta gañezka zegoan Mariaren biotza. Bai, a., Mariak maitatzen zuan Jesus eta maitatzen zituan gizonak ere: maitatzen zuan Jesus, ez bakarrik bere erraietako semea zalako, baita ere geiago bere Jaun eta Jaungoikoa zalako: maitatzen zituan gizonak, ez bakarrik bere anaiak ziralako, baita ere geiago ziralako bere seme Jesusek kuru-tzearen oñetan eman ziozkan semeak.

Gauza abek onela izan eskero, begira dezagun, zer *sentimentuak* izango zituan Mariaren biotzak pentsatsean Jesus maite maitearen umillera ta eraman biar negargarriak eta gizon maite maiteen eskergabetasun eta gal-

dumendiko bideak. Sartu gaitezen, al badegu, samintasun neurrigabe one-tako itxasoa.

Esaten da, eta egia da, eztagola jaiotakoen artean maitasun bat, amak semiai dien maitasuna bezelakorik. Ama on batek, nola begiratzen du bere semeen osasun ta ondo izateagatik! Zer oarpilla ta nekeak geroko semeen ona billatzeagatik! Eta, seme bakarra bada, eta semea berez bada maitagarria, nork esan seme onentzat amak dituan amodio ta samurtasunak? Eta, zer pena ama onena bere semearen zorigaitzetan! Eztezue ikusi ama bat bere seme bakarra ia illian dagon oiaren aurrean? O! Nola sentitzen ditu bere erraien erdi erdian semiaren miñak! Nola zaintzen ditu bere borondatea, bere mugimenturik txikiak! Nola daguan dindilizka berak esango dituan itzetatik! Nola eztutzen duan bere biotzaren kontra bere espiritu, bizitza ta indarra eman nai balio bezela indar espiritu ta bizitza galtzen dijoan semeari!

Baña zer dauke zer ikusirik amarik maitetsuenen amodio guziak bat eginda Mariak Jesusi zion maitasunarekin? Berak ikusi zuan bere seme Jesus, mirariz sortua mirariz jaiotzen, aingeru zerutarren soñurik gozoe-nen artean; berak ikusi zuan adoratzen zuela artzaia eta erregeak esaguturik munduko Salbatzalletzat; berak ikusi zuan asten bere aldamenean jakintsu eder ta zoragarria; berak ikusi zuan, oraindik amabi urte zituala, gizonik jakintsuenak mututurik utzitzen bere jakituri Jaungoikozkoarekin; eta gerora doktriñarik eder ta santuena predikatzen, milla mirari izugarriak egiten zituala askoren malkuak legortzeko eta erriak eramaten zuela triunfalaria *hosanna!* deiezka. Zenbat geiago eta geiago pistuko zan oraindik bere Ama Mariak Jesusi zion egiazko ezin esan dan besterañoko maitasuna!

Eta oraiñ pentsatu zazue galdera au: maitasunaren berdiñean bada samiña, norañoko naigabeak izango etzituan Mariak bere seme laztanaren naigabeakin? Begiratu bat eman daiogun aida batean Jesusen bizitzari. Lenengo samintasuna sentitu zuan Mariak bere biotzaren erdian, Simeon santuak agertu ziozkanean Jesusen gañera etorri bear ziran gizon gaitzen ta infernutarren persekuzio ta amorruek, O, n. aditzalleak! Nork pentsatu leike agerkeria onek Mariaren biotzean ein zuan eritasuna? Jaungoikoak egiten diguzan mesedeetatik andiyenetako bat da ez agertzea igaroko diran gertaera negargarri asko. Gure artean Jaungoikoak daki zenbat gauza errukarri, zenbat desgrazia izango diran: ilko zakuz gurasoak, anaiak, aideak; izango dira milla deskalabru gure familietan; baña eztakigu nola, nun ta noiz, eta eztakigun artean beintzat pozik, paketsu eta zorioneko bizi gera. Aditu zazue kristauak, batez ere zuek guraso zerate-



nok: esango balizuteke orain Jaungoikoak, zuen seme edo alaba maiteena ilko duela biar edo etzi eta ilko duela urkamendi batean, nolako larritasun ta naigabea sentituko zenduteke? Bada ori berori agertu bazion Simeonek Jerusalengo Tenploan Maria Santari, agertu bazion zuen guzioen maitasuna bat eginda, baño askozas amodio geiagorekin maite zuan seme bakarra, milla barre ta burla egin da gero ilko zinela gaizkille baten gisan lapur biren erdian, nork esan, nork *entenditu* ama onen samiñ ta naigabea?

Beste samintasun andi bat sentitu zuan Mariak, Herodesen biatzetatik bere semea libratzeko iges egin zuanean Egiptora zeruko mandatariak Joseri agindu zion moduan; eta andia zan samintasun au ere, oroitzen ziolako Simeon Santuaren esana, eta erakusten ziolako añ laster asten zirala gizon gaizto ta inpernutarrak bere seme laztan kutunaren kontra. Gero izan zuan beste naigabe andi bat Jerusalengo Tenploan galduta iru egun oso osoan ibilli zanean, penaz ta naigabez ia txoraturik, bere semearen billa, galdezka alderdi guzietan iñork ikusi ote zuan bere arimak maite zuan laztana. Azkenez, urratu zan Mariaren biotz samurra oso-osoan, Kalbario mendiko bidean bere semea billatu zuanean, eta mendi tontor artan jaso zan arbola santuaren azpian ikusi zituanian bere semeari egin ziozkaten injuria edo iraintasunak, eta bere semearen eriotza. Eta emen egin bear degu atsedean bat. Eztaukat aurrera pasatzeko asmorikan.

Mariak, martiri guzien erregiña onek, askenengo tontorrerañoi nai izan zituan iruntzi samintasunezko beastunak. Urkamendian iltzen diranen gurasoak ez bakarrik eztira juaten semea iltzen duen tokira, ezpada ze iges egiten due erritik ere, eldu eztedin beuren belarrietara tanbor otsik, jentien zarata edo il kanpaien durundirik. Baña etzan Maria beste emakumiak bezelako emakumea. Sartzen da bildurgabea jente aldra ta borrreru guzien artetik bere semea ikustera; jarraitzen dio bere semearen odol tanto preskoak erakusten diuen bideari; ikusten du nola kentzen diuen Jesusi bere jantzia berriztatzen zaizkola eriotasun bildurgarriak; ikusten du nola borrreru gogor aiek josten dituen kurutzian, zeruak eta lurra egin zituen eskuak eta mesediak egiteko baizik mugitu etziran oñak; ikusten du jasotzen duela kurutzean eta andikan diola semeak: *sitio*, egarri izugarria daukat, nai luke orduan urtu bere biotza Jesusen egarria kentzeko, baña ezin leike; ikusten du bere semeak eztaukala agonian nun deskantzatu arantzaz josirik daukan burua...

O zuek, ama izan zaretenok, dakizuenok zer dan galtzea zuen erraie-tan sortu zenduen semea, zuen bularrian ainbeste bidar estutu zenduen semea, zuen magalian irribarrez ainbeste bidar euki zenduen semea, zuen pozt ta atsegiña zan semea, esan zadazue ama onen pena ikusirikan seme-

rik ederrena, semerik maiteena larru gorrian, lapurren gisara iltzen dago-la etsai gaiztoz inguraturikan? Maitatzen zuan Mariak Jesus, Anak Tobias, Bethsabek Salomon eta Rakelek Benjamin baño geiago, ama guztiak beuren seme danak baño geiago. Zer pena izango zan bada ama onena bere semea modu artan iltzen ikusi zuanean? Dabiden arpa ezta naikua pena au esateko, eta nola, zuek, emakumiak esango dirazue?

* * *

Eta oraindak, n. a., Mariak dauka beste amodio bat amatasunarena baño andiagoa: Da Jaungoikotasunarentzat daukana. Bere begiak, goialdian jira-biraka dabillen arranoaren gisan, beti zeuden begira Justiziako Eguski-Jaungoiko santuari, eta ikusten zituan Jaunaren onizate ta Espirituko aberastasun miragarriak; añ modutan eze bizi izan zan artean euki zituan zeregiñetan etzuan bein ere galdu bere maitasunezko Jaungoikoagana begiratzea. Bada onela eri ta erretzen bazegoan beti Jaungoikoaren maitasunean, zergatik izango ziran Mariaren biotz santuko suspirioak, ezpada nai zualako jaiotako jente guziak erretzea amodio santu onetan? O, Jauna! Zer samiña, zer estutasun ilkorra izango zan arima bedeinkatu onena, ikusi zuanean gizon eskergabeak añ gaisto tratatzen zuela bere maite maitea, gizonak salbatzera etorri zan Jaungoikoa. O Samintasunaren ama! Zer sentitzen zenduan ikusi zenduanean, pentsamentuko begiakin, lotuta eta azoteak artzen Zerueta eta lurreko jabea, errege guzien guraso ta aita? Zer pasatzen zan zure biotzean ikusirik txorotzat artzen zuela jakituria guzien iturria, ikusirik zulatuta eskurik altsu, babil ta indartsuenak zeruak eta lurra egin zituen eskuak, eta borrreruen ostikopean odol santu ura, zeñen tanto bat naikua zan milla mundu salbatzeko?

Ah! Zeruak eta lurra ikaratzen dira sekula ikusi eztan eta ikusiko eztan oben onen aurrian; negarrez daude zeruetako aingeruak, dardara egiten due munduaren zimenduak, illuntzen da eguzkia eta infernua bera bildurtzen da. Eta Mariak esagutzen basuan iñork baño obeto iltzen zana-ren diñadia, eta maite basuan aingeruak guziak eta gizon danak baño geiago, nolakua eta zan bere naigabea?

Bat egin daiguzan oraiñ Jaungoikoaren amaren naigabea eta Jaungoikoaren alabarik maiteenaren naigabea, eta esan geinke S. Anselmorekin martiri santu guzien penak eztirala penak Mariaren naigabien aurrian, esan giñaike S. Bernardorekin, mirari bat dala mirari andia Maria ez iltzea penas bere semea iltzen kurutzearen oñean.



* * *

Begiratu degu nolabait bada ere Mariaren pena Jesusi zion amodiua-gatik: begiratu dezagun orain Mariaren naigabea gizonari zien amodiua-gatik.

Jaungoikoari biar diogun maitasuna dago bat egiñik projimoari sor diogun maitasunarekin, añ modutan ze esan giñaikeala Jaungoikoa maitatzen eztuanak eztuala maitatzen projimoa, eta projimoa maitatzen eztuanak eztuala maitatzen Jaungoikoa bear bezela. Izan da iñor ez zeruan ez lurreen Jaungoikoa maitatu duanik Mariak maitatu duan bezela? Ez. Bada orduan ezta ere izan jaiotakoen artian Mariak bezela projimoa maitatu duanikan.

Eta egiaz ainbesteraño eldu zan Mariagan gizonarentzat izan zuan maitasuna eze, Aita Zerukoaren irudira, eskeñi zuan Mariak bere erraiek-tako semearen eriotza munduaren salbaziorako borondate guziarekin. Eta izanik ainbesterañokoa Mariaren maitasuna gizonentzako, zeñ errukituko zan gizonen miseriekin Maria bezela? Ara bada emen beste arrazoa Mariaren naigabea geitzeko oraindik.

Gizonen doakabe edo miseriak entenditzeko bear ditugu sakondu Jesus kurutzetik dindilizka daguanaren biotzeko naigabeak. Ez, eztira bere gorputzean sentitzen dituan miñak, borraruen gogortadeagatik, geien Jesus samintzen duenak dira ainbeste arima kondenatuko diranak bere odolarekin aprobeixatu gabe. Jesusi oroitzeta edo memorian gogoratzen zaizka ainbeste mesede sorterriari egiñak, ainbeste ondasun arimarako emanak, ainbeste amodio, mesede, ondasun ta amodio kurutzeko eriotza ematen diuenak; bere adiñ edo entendimentuan esagutzen du alperrik dala askorentzat pekatua kentzeko iltzia, zergatik pekatuak jarraituko duan eta infernuko atiak eztiran itxiko; bere Aita zeruko ofendituko duela pekatariak berriz ere, infernuak iruntziko dituala ezin kontatu ala anima. Bere borondatiak sentitzen du honorea galtzen zaiola lapur ta gaizkilleen eriotza artzean, eta baldin norbaitzuk sinistatuko duelako berak, Jesus santuak, merezi izango zuala eriotza. Sufritzen du apostoluakgatik, Judasen anima galtzen dalako, Jerusalemagatik eta judeuakgati-kan, bada itxutasun aundian erori bear duen, sufritzen du gizon guziagatik.

Mariak berriz Jesusen animako sufrimentuak ondo dakizki, bada semearen pensamentuak argiro irakurtzen ditu. Ondo daki mundu zaba-lean izango dirala gero ere gizon fedegabetuak, biziko diranak oso zere-ginduta lurreko gauzetan beti lurreen bizi bear baluteke bezela, beuren

animen kontu gabe. Badaki gisaldi luzeen egunetan ostuko dirala gizonak fedean; badaki edozein zorigaitzen aurrean errukitzen diranak eztirala errukituko Jesusekiñ ta Mariarekiñ. Nork esan bada ama onen samiñak? Zabal ta gazia da itxasoa; beltza ta bildurgarria zerua ekaitza dan gaber-dian; ordu larria da eriotzako ordua; baña onen gazitasunen onduan ezta gazia itxasoa; ezta illuna ekaitz denporako gaba, ezta larria eriotzako ordua bera. O Maria santa! Aita Betikoak bakar bakarrik dakizki zure bio-tzean dabilatzazen olatu ikaragarriak.

* * *

Baña eztet nai geiago luzatu, ta itz bitan esatera nua gaurko sermoi onen mamia. Mariaren maitasuna da bere pena guzien iturria. Alde bate-tik maitatzen zuan Jesus bere seme laztana zalako, semezik eder, jakintsu ta maitagarriena. Maitatzen du gañera Jesus maitasunik santuenarekin, zalako Jesus Jaun ta Egille on maitagarria. Eta Mariak bere begien aurrian dauka Jesus urkamendian ilda lapur biren erdian. Beste aldetik Mariak maitatzen du gizona bere anaia bezela eta gañera Jesusek eman diolako semetzat. Eta, O eskergabetasun lotsagarria! gizon au da Jesus Jaungoi-koaren borrarua.

Alde bi abetatik ainbesteraño sufritzen du Mariak eze dio S. Bernar-diko Senakoak: Mariaren naigabea zatituko balitz munduko jente guzien artean denak ilko lirakela miñaren miñez. Ondo esan det ba... ias... *Atten-dite et videte...* naigabe bat Mariaren bezelakorik.

Eta naigabe onen aurrean, ikusirikan guri zigun amodiua-gatik dala, nor errukituko ezta biotzikian badauka beintzat?... Baña ezta naikua erru-kitzea, eztira Mariaren samiñak amaituko errukiaren bakarrik: amaituko dira Mariaren samiñak ikusten duanean, guk, bere semeak, eramaten degula bere irudira Jaungoikoak bakoitzari ematen digun kurutzeta; ikus-ten duanean maitatzen degula Jesus, bere irudira; eta maitatzen degulako apartatzen gerala Jesusi sentimentua ematen diuen gauzetatik. Itz batean, amaituko dira Mariaren penak, apartatzen geranean pekatutik, bada peka-tua da berriz Jesus kurutzetan josiko lukeana: Onela gure errukia izango da frutuduna, onela legortuko ditugu Mariaren malkoak, zergatik orduan izango da errukia Maria eta Jesusentzat euki biar ditugun maitasunaren iturrikoa.

Ea bada ama, maitasunezko eta errukisko gure ama, zugana gatoz konfianzaz beterik zure semeak, eman daiguzun maitasun ori, errukiaren eta santutasunaren asiera. Arenalak gera ta ezerezak zeruko laguntasun



gabe, lagundu zaiguzu zeruan daukazun aginpide orrekin. O, gure erio-
tzako ordu larri artan, zure seme Jesusen irudi santua gure eskuetan ezin
eukirik, iñork gure españetan ipintzen digun orduan, naiko degu, ama
maitea! zure seme Jesusen eta zure laguntasuna, eta orretarako orain guk
laguntzen dizugu zure naigabea. Ama, ama maitea, damutasunez negar
egin daigula orain danok zurekin batera, gero poztu gaitezen betikotasun
amai gabea. Ala izan dedilla.

PECADO

Ondárroa 1894

Qui faciunt peccatum hostes sunt animae suae.

Pekatu egiten dabenak bere arimiaren arerijuak dira.

(Tobiasen libururuan XII garren buru eta 10 garren bertsuan.)

Neure entzule bijotzekuak: Laburrak, guztiz laburrak dira nire egu-
nak. Gaur banaz, bijar ez nas izango. Gaur pulpitu santu onetara igoten
dot zueri zerbait esateko asmuetan; bijar, etsi, une batzuk barru geijenez,
beti laster zergaitik munduko egun guztiak beti lasterrak diran, nire gor-
putza lurperatua egondo da or nunbaiteko basterren batian, eta munduan
nire gomutarik izango ezta.

¿Quid est homo? Zer da gizona? Zer dira gizonaren egunik luzienak
betikotasun neurribagakuaren albuari ipinten baditugu? Egundak labur bate-
ko orduen antzera, iñoiz entzun dozuen izen baten gisara, aisiaren soñua
legez; gurma bat, lanbrua, kereixia, utza. *Pulvus, cinis, nihil.* Au nas ni, au
zare zuek, n. e. m., eta au dira mundu guztiko gizonak.

Urte batzuetarako bizitzia daukagu geijenez, eta bizitza au inok
emonda. Iñok egin genduzan, Jaungoiko gauza guztien Egilliak; jaijo
giñan eta baguaz askar askuan munduko eremu legorretik ziar eriotzako
portura, bein bere gelditu baga, bein bere atsedean piska bat egiteko esku-
biderik eztaukagula. Ez gara izer gorputzaren aldetik, *Pulvus, cinis, nihil.*

Eta gauza au olan dala, esan egidazue n. e. m., badauka gizonak nun-
dik arma izan? badauka gizonak nundik panparroitu? O n. e. m., esetz
esan geinke bildur baga; baña ikusten dogu sarri askotan gizona astuten
dala zeñ utsa dan, zeñek egiña dan, zetarako jaijua dan; pustuten dala Jau-
nak egundak batzuetarako emon deutzan ondasun piska bategaz, argitasun
edo jakituri piska bategaz, gorputzeko indar piska bategaz; arrotzen dala
ondasuna, jakituri ja edo indarra beriak balitu lege; jausten dala itsutasun
andi batian; jagiten dala bere Jaungoikuaren kontra, eta esaten deutzala
arpegiz arpegi bere Egillari: *non serviam*; etzaitut serbiduko, ez nas zure
mendian egongo, zu beste banas ni, *non serviam*. Au da pekatu egiten dabe-
nian gizonak Jaungoikuari esaten deutzana.

Majatzeko ill eder loratsuan mundu zabaleko kristiñau guztiak ingu-
ratzen dabe Mariaren altara santua, euren Ama maite oni egunian lora *eder*



bat emoteko asmuetan; eta zuek bere orretara etorri zare gaur Elixara; baña zer lora da gaur Mariari emon biar deutzazuena?

Nire iritxiz Mariari eskintzeko lorarik ederrena da pekatuaren gorrotua, bada pekatua da gure Ama Santiari eta bere seme Jesusi samiñik geijen emoten deuten gauzia.

Gauko sermoituaren geitzat pekatuaren gañian berba egitia emon jatan eskero bada, gure biotzetan pekatuaganako gorrotua sortuteko, ikusi biar dogu pekatua dala deserrasoirik andijena, sorakeririk andijena, eskerbagatasunik itzalena.

Eskatzen deutzuet guztiori arreta piska bat, eta Espiritu Santuari biar dodan grazija gure Ama maitiaren bitartez, zeñi esango deutzagun oitura dan *Abe Mania*.

Qui faciunt peccatum hostes sunt animae suae. Pekatu egiten dabenak bere arimariaren arerijuak dira (Tobiasen liburuan, etc.)

1. N. a. m. Gaur artsaldeko berbalditxu onetan itxiko dot alde bate-ra jatorrizko pekatua, bada au kentzen da batijo santuaren bitartez; ezteutzedas argituko mundu onetan jatorrizko pekatua kenduta gero gizonak egin leikezan pekatu mueta guztiak bere: bakar bakarrik ikusiko dogu, gizonak bere erruz da bere gogoz egiten daben pekatu illkor, pekatu arima illtzalle edo pekatu mortalaren astuntasuna, bada onek urratzen dau Jaungoikuaren legia, kentzen deuskulako etc.

Zer da pekatu arima illtzallia? Zer da pekatu mortala? Itandueria oni beste Elixako gurasu askok erantzuten deutenari begiratu baga ezgauza gejegitan sartziagaitik, ikusi daigun S. Agustiñek diñuana: *Dictum vel factum contra legem Dei in materia gravi*, da esatia edo egitia gauza astunenbat Jaungoikuaren legiaren kontra.

2. N. e. m.: Lege bat ipiñi deutze Jaun.k gauza guztiai, eta orretarako eskubidia dauka. Jaungoiko Altsuak sortu ditu, utzetik da berba bategaz, zeru ederrak, zorioneko toki maitagarri gozotasunezkuak gizon on guztien deskantzurako; Jaungoiko Altsuak sortu ditu, utzetik da berba bategaz, lurrian ikusten ditugun gauza guztiak; Jaungoiko Altsuak emon deutze Eguskijari eta izarrai dauken argija; Jaungoiko Altsuak sortu zituan infernuak aingeru ta gizon gaizkillien kastigurako; Jaungoiko Altsuak sortu dau gizona izereztik bere Egillia maitetu eta bedeinkatu daijan. Eztau bada eukiko Jaungoikuak eskubidia lege bat ipinteko zeruari ta infernuari, munduari eta gizon guztiai? Ezta bera eskubide guztien Iturburuba? Bai, n. kristiñauak: gauza baten gañian aginpidia eukiteko eztago bide oberik gauza ori egitia baño; eta gure Jaun eta Jaungoikuak egin gaitu gu, ez gizonak bere gauzak egiten dituan gisara, ol zati batzuekaz txalopa

bat edo arri, mortero ta olakaz etxia, ezpadaze, entzun egizue ondo, izerezetik. Orregitik gara gorputz da arima Jaungoikuarenak, eta Jaungoikuaren borondatiaren kontra ezin geinke mugimenturik egin, zentzun bategaz bere.

3. Gañera gugaz daukan aginpiderako badauka Jaungoikuak beste bide bat: eta da, gure bizitzari iraun eragitia. Irauten dabe zeruak egin ziranetik gaur arteraño Jaungoikuak nai dabelako; irauten dabe mendijak Jaungoikuak nai dabelako, irauten dabe gizonak Jaungoikuak nai dabelako, Jaungoikuak instante guztietan zeruen, mendijen edo gizonen izatia emoten deutzelako. Agertuko deutzuet obeto irudi bategaz. Begiratu eijozue altara aurrian dagon lanpara bati: ezegita dago, lurretik gora jasua dago, soka batek aidian daukalako; soka ori ebagiko bagenduke, lanpara orrek berialase joko leuke beia. Zergaitik? Zerren lanpara orrek eztaukan berez aidian egoteko indarrik: aidian badago urtietan, da soka orren indarrik beñi bere falta бага aidian daukalako. Alan bada, n. e. m., mendijak mendi badira urtietan, gisaldijetan; itxasuak itxaso badira, gizonak gizon badira, da Jaungoikuak mendi, itxaso, edo gizon izateko indarra emoten deutzelako: Jaungoikuak unetxu batian, geldituko baleu bere indar emotia, gauza guztiak birrinduko litzatekez beriala, txarto esan dot, utzera biurtuko litzatekez.

4. Esagutzen dozue orain, n. e. m., zenbaterañoeko eskubidia daukan Jaungoikuak guri lege bat ipinteko? Esagutzen dozue Jaunak badaukala eskubidia edozeñ lege, legerik gogorrrena gure gañian ipinteko? Bada eskubide onen bidez ipiñi euskun lege bat, legerik bigun, pozgarri eta gozuen, esanaz: «Maitetuko dozu gauza guztien gañian zure Jaun Egillia». O zer gauza erreza! Zer lege egoki eta bidezkoa!

Ete dago nire entzulen artian iñor zeñentzat eztan lege au bidezkoa? Bada orri esango deutzat burua galdu dabela. Zuek, e. b., egiten badozue gauza bat zuen eskuakaz, eztozue esaten zuena dala gauza ori eta nai dozuena egingo dozuela gauza orregaz? Eta zuek daukazuen eskubidia zuena osuan eztan gauza bategaz, molda piskat bakarrik emon deutzazuen gauza bategaz, eztau eukiko Jaungoikuak berak, izerezetik atera eta izerezero biurtu leikian gauziagaz? Zuek al deikezuena ezingo dau Jaungoikuak? Baietz esan leike; baietz diñue zeruetako aingeruak, baietz eguzki ta izarrak, baietz lurak, baietz itxasuak, baietz Elixako guraso guztiak, baietz gizon jakintsuak, baietz kristiñau on guztiak, baietz gure adiñ edo entendimentuak: bakar bakarrik diñue ezetz diabruak eta pekatarijak; bijak alkarturik eskergabetasunik itzalenagaz esaten dabe Jaungoikuaren gorrotuan: *non serviam*, niri ez deust agintzen Jaungoikuak; eztot maitetu-



ko, eztoz bere legerik beteko, *non serviam*. Esagutzen dozue deserraso andijagorik Jaungoiko Santuaren lege bigun da erresa modu onetan urratzia baño? Esagutzen dozue pekatuaren astuntasun bildurgarria?

5. Baña astuntasun au esagutzeko badaukaguz beste bide batzuk bere. Ikusi daiguzan aida baitian.

Pekatu egiten dogunian galtzen dogu Batijo santuan artu genduan zeruetako jantzi ederra; eta gerora Jaungoikuak emon deuskuzan arimako apainduri ta aberastasunak. *¡Si scirent donum Dei! ¡A!* balekije pekatarijak zer dan pekatuagaz galtzen daben arimako apaindurija, beti ibilliko litza-tekez bere atzetik jarraika, edertasunik andijena dalako! *¡Si scirent Donum Dei!* Modu bitakua da arimako grazija au. Bat da une batzuetan gure adiña argitzeko edo biotza samurtzeko Jaungoikuak bijaltzen deuskun laguntasuna; esan giñake dala Jaungoikuak arimiari egite deutzan ixil-mandatua, zeñ baga pausu bat bakarria ezin geinkian egin zerurako bidian: bestia da Jaungoikuak arimiari emoten deutzan *doe zerutar bat, pekatuak eztagon bitarte guztian ariman gelditzen dana, arima au Jaungoikuaren alaba egiñaz*; doe bat añ ederra, añ aberatza, ait miragarrija eze, ezta gelditzen zeruetan bertan gauza ederragorik doe au berau eta Jaungoikua bera ezipadira. Uste badozue, n. e. m., geijegi esaten dodala, jakiñ egizue doe au dala *Jaungoiko andijak daukan bere berezko izatiaren zerbait*; Jaun Santuak daukan izatiaren izpi bat legez. Eta zer dago gauza edarragorik, gauza aberatzagorik, gauza miratsuagorik, ez zeruan, ez lurrian eta gutxiago infernuetan?

Ondo esan eban bada Job Santuak gizonak esekijala zenbat balijo eban arimiaren aldetik. *Nescit homo pretium ejus*. Jaungoikuaren grazijan dagan gizonak daukan edertasuna jakiteko biar genduke jakin Jaungoikuaren edertasuna bera, eta Jaungoikuaren edertasuna inok ez daki zenbaterañokua dan. Zeruko grazijagaz apainduta dagan arimia añ ederra gelditzen dalako Jaungoikuak berak, maitasunez urturik esaten deutza. O zeñ ederra zaran, nere arimia, zen ederra zaran! *Quam pulcra es, anima mea, quam pulcra es!*

Zer dira edertasun onen onduan gorputzeko edertasunak? Munduan ikusten dituzuen egun batzuetako edertasunak asalekuak dira, danak asalekuak eta arimakua bakarrik bene benetako eta bere berezko edertasuna. Iruditu egizue munduan danik personarik ederrena, kendu egizue azala burutik biatzetarañ (irudimenagaz bada bere) eta gero esan egidazue zertan gelditzen dan persona orren edertasuna. Zer? Esango deustazue azala kendu eskero ezin leijokela begiratu bere. Zer da bada asal piska batian dagon edertasun ori? Zer da? Eta beste aldetik norañokua da beti betiko arima Jaungoikozkuaren edertasuna? Norañokua da Jaungoikuak

berak maitatzen daben edertasuna? Norañokua da edertasun au, zeñ ez galtziagaitik eremutarrak añbeste penitentzija egin zituen basamortuetan? Norañokua da edertasun au, zeñ ez galtziagaitik martiri santuak emoten eben euren bizitzia pozarren oñazerik andijen erdijan?

Nescit homo pretium ejus. Eztaki gizonak zenbat balijo daben arimiaren aldetik. Eztaki, batez bere, gizon pekatarijak zenbat balio daben. Pekatarijak itxutuak dagoz eta ez dabe ikusten; galdu dabe euren burua eta ez dakije zer dan gauza ona eta txarra ume batek baño geijago. Ume bati eskeintzen badeutzazue esku batian altiste edo perlarik ederrena, milloiak balijo dituan perla bat, eta beste eskuan edozer gauza (edozer zikinker biar bada) gozo piska bategaz estaldurik, gozua deritxon gauzia artuko dau eta ez milloiak balio dituan perla ederra. Ori berori egiten dabe pekatarijak bere: Jaungoikuak eskeintzen deutze arimako aberastasun miragarrija, diabruak gozo itxurako pekatu zikin bat, eta pekatari guztiak diabruak egiten deuten eskeintzariaren atzetik duaz ume ezjakiñaren gisan. *¡Si scirent Donum Dei!* Balekije instante artan galtzen dabela arimako perlarik ederrena! Balekije instante atan galtzen dabela zeruan sartzeko daukan arau edo deretxua! *Si scirent donum Dei!* Esagutzen dozue, n. k., zorotasun andijagorik pekatarijarena baño?

6. Eta arimako perla eder ori galtziaz batera galtzen dabe Jaungoikuaren adiskidetasuna. Gure arimia adiskidetasunaren zalia da. Gure arimia, n. e. m., gurari neurrigabekoz betia dago, eta jaijo zan eskerotik dabil espirituko gozotasunaren billa, biotzeko gozotasunaren gosian da egarrijan. Modu askotara nai izaten da bete gose-egarri au, baña batez bere adiskidetasun ta maitetasunaren bidetik, bada gizonaren gozotasunik andijenetako bat da maitetutia eta maitetua izatia. Ondo esagutzen eban Jaungoikuak berak biotzian ipiñi euskun gurari au, eta okertu ezedin, ipini euskun legetzat guk bera maitetutia gauza guztien gañian, eta erakutzi euskun bere aldetik gudanako eukan maitetasun andija gure gurari gustiak ziatz beteteko. O zer mirarija ikustia guztia al daben Jaungoikua maitetuten bere eskuakaz egin eban gizon erkin ta izereza! Eta zer agergerri ederak emon euskuzan!

Ikusi eban gizona diabruaren mendian, eta gizona galdu ezedin jatzi zan zeruetatik lurrerañ, jantzi zan lurrez gizon maitagaz bere burua bat egitiarren; ebangelijo osasungarrija zabaldu eban munduan, au da, zeruko egija eder betikuak erakutzi eutzazan gizonari jakin eijan dotriña egijazkua ta *salbau* zedin; egin zituan mirari asko, batzuen malkuak legortzeko, gaisuak osatzeko, ildakuak poz ta alaitasunez beterik euren familijetara biurtezko. Eta askenian, amodijoz zoratu balitz legez, erabagi eban gizonak



diabruagaz eukan ausija beragan artu, gizonak Aita zerukuaren aurrian eukan sorra ziaro ta gejjogaz *pagau*, eta zeruetako atiak zabal zabalik ipinitia, gizonak daukan gozotasunezko egarrija ase zedin beiñ oso osuan. Zelan egiten dan mirari au? zelan? Gizon gaizkille bat balitz legez bere bizitzia urkamendi baten, lapur biren erdijan emonda. *Cum dilexisset suos qui erant in mundo in finem dilexit eos*. Zer nai dogu agergarri oberik?

Ñior badago zuen artian, Jaungoikuak deutzan adiskidetasunaren dudarik daukanik, begiratu deijola irudimenagaz zelan dagan kurutzetik dindilizka, arantzaz koroitua, odoluztua, ilda; irakurri daizala mundu onetako kontaera edo historiia guztiak, eta esan daijala gero beste olako ejemplu bat billatzen badan. Adiskidetasunaren billa zabiltzen jentia, maitetasunaren billa zabiltzen jentia, zer nai dozue adiskidetasun da maitetasun gejjago? Mundu guztiari eskiñika bijotza eskuan darabilzuen jentia, zergaitik eskeintzen ezteutzazue Jaungoikuari?

Baña zer egiten dau pekatarijak ainbeste amodijoren erantzueran? Pekatarijak urratzen dau Jaungoiko santuaren adiskidetasun gozua, galtzen dau zerurako daukagun arau de deretxua, egiten da Jaungoikuaren arerijo, billatzen dau diabru gaizkiñaren adiskidetasuna, eta esaten deutza Jaungoikuari: eztot nai zerurik, eztot nai Jaungoikorik; emen, munduan, nai dot poz artu neure gisara; diabruaren adiskidia nas; nik eta diabruak esango deutzaguz batera Jaungoikuari: *non serviam*. Esagutzen dozue, n. e. b., eskergabetasun itzalagorik?

7. Baña, uste dozu, pekatari errukarrija, atsegiñetan biziko zaria la pekatu egiñ eskero? Atsegiñaren billa bazabiltz, alde egizu pekatutik, bada eziñ zeinke billatu pekatuan atsegiñik. Pekatu egiñ ondorian, arimako apaindurija ta Jaungoikuaren adiskidetasuna galdu dituzuenian, or, zure biotzaren erdijan, zure *konzienziako* sokuan iruntzi biar dozu biastun samiña, or euki biar dozu larritasun andi bat toki gustietara jarraituko deutza, Jaungoikuak bere eskuetatik betiko itxi ezpazaitu beintzat. *Peccatum meum contra me est semper*, autortu eban Dabid erregiak. Nai ta nai ez zuk bere izan biar dozu pekatuaren arra. *Peccatum tuum contra te est semper*. Alperrik ardurabagetu nai dabe pekatarijak, eztabe beiñ bere bakarrik billatuko; itxasuan eta ligorrian, errija ta kanpua beti eukiko dabe arimako utsune andi bat. Zergaitik? Zerren pekatarijaren bijotza bere tokitik kanpora dagan. *Fecisti nos, Domine, ad te, et inquietum est cor nostrum donec requiescat in te*, diño S. Agustiñek. Zuretzat egiñak gara, Jauna, eta gure biotza beti egongo da bakegabia zueganik kanpora badabill.

Eta geroko denporetara begiratzen badau, begiratzen badau mundu onetako egunak amaitutakuan gañera jatorkon betikotasun illunera? Zeñek esan orduan pekatarijak eukiko daben estutasun larrija!

Eta begiratu biarko dau; begiratzen ezpadau ainbat gaistuago bereztat. Jaijo garan guztiok neurtuak daukaguz gure pausuak, ondo neurtuak; gaur bagara, bijar ezkara isango: gure atzetik dabill beti jarraika pausurik pausu, egunez ta gabaz, toki guztietan, arerijo gogor bat, izertara bere kendu ezin geinkiana: erijotzia! Pekatarijaren etxian sartzen danian astirik emoten badeutza zerbait pensetako, zeintzuk izango dira pekatarijaren pensamentuak! Orduan bai gogoratuko jakozala garbi munduan erabili dituan pausu danga guztiak! Orduan bai esagutuko dabela zeñ dongia izan zan munduko ta zeruko beste gauza guztiak gordeten eben Jaungoikuaren lege santua gorde nai ez ebanian! Orduan bai esagutuko dabela zeñ zatar da bildurgarrija gelditu zan bere arima gaisua Jaungoikuak emondako jantzi ederra galdu ebanian! Orduan bai igarriko dabela zeñ sorua izan zan galdu ebanian Jaungoikuaren adiskidetasun maitagarrija! Orduan juango jakoz begijetako lausuak, eta ikusiko ditu ondo bere eskergabetasuna, bere Juezaren aserria eta aurrian daukan betikotasun ikaragarrikua!

8. O n. e. bijotzekuak! Esagutzen dozue oraiñ zer deserrasoia, zer sorakerija, zer bildurgarrija dan pekatua Jaungoikuaren legia urratzen dabelako, arimako grazija kentzen dabelako, Jaungoikuaren adiskidetasuna, biotzeko bakia ta zeruaren esperantza kentzen deuskulako?

Bai, Jauna, esango deustazue, bai Jauna, esango dau biotz errugabekoren batek; esagutzen dogu pekatua dala gauzarik txarrena; baña pekatu asko egiten dira munduan? eztira gejjago izango Jaungoikua maitetuten daben jentia? Modu onetan berba egiten daben kristiñauak eztaki mundua zelan dagan. N. e. m., samiñ andi bategaz esaten dot, baña egija da eta esan biar dot; mundu guztia pekatuarena da. Gizonak eztauka bere biotzian Jaungoikuarentzat lekurik, bete beterik, gañezka daukalako biotza bere buruaren maitasunez. Ikuskizun negargarrija ez maitatutia Jaungoikua norbere burua bidebaga maitatutiarren! Eta zeñ zabala dan! Begiratu egizue alderdi guztietara, zer diñot?, begiratu egizu bakoitzak zuen biotzera, eta ikusiko dozue egia esaten dodala. Ojala guzurra balitz! Eztuaz urtiak alperrik: egunero, egunero, lurreko gauzak obeto esagutzen nua, eta badakit egija aundi bat esaten dodala.

Baña ez egizuela pentsau neure barruan billatzen eztodala Jaungoikuaganako eskergabetasunik. Ah, orrela balitz! Eskergabetasun itzalak billatzen ditut neure biotzian Jaungoikuaganako, eta, nok daki! izan leite-



ke nik esatia gizonak eskerbagiak dirala neure eskergabetasunak ikusten ditudalako.

9. O, n. e. biot.: Astija daukagun artian, guazen guztiok Jaungoikua-gana parka eskatzera. Sortu dedilla gure biotzetan pekatuaganako gorro-to andi bat, eta eskiñi daijogun gure Ama Mariari pekatuaren gorrotuagaz egiten dogun loria. Pekatuan egon bagara esan daigun danok ebanjelijoko seme galduak esan ebana: *Surgam eta ibo ad patrem meum*. Jagiko nas peka-tutik eta juango nas neure Aitagana. Pekatarijak gara? Bera da Magdalena bati pekatuak parkatu eutzazana, Itsutuak gagoz? Bera da Jerikoko bidian itsuari argija emon eutzana. Atsegiñetako jaijo gara, baña Aitaren etxetik kanpora eztago atsegiñik, estago deskantsurik: gure bijotzak gurari andi-jak daukaz, baña ezin leikez ase lurrian: Zerurako jaijo gara, jaso daiguzan bijotzak lurretik zeruetaraño. *Surgam et ibo ad Patrem meum*. Jagi gaitezen eta guazen gure Aitagana.

Eta gure orain arteko eskerbagetasunak bildurtzen bagaitu, badau-kagu bitarteko on bat, gure Ama Maria, Amarik errukiorrena, gure deija-ren zaiñ dagon Ama maitia. *Refugium peccatorum ora pro nobis*. Pekatarijen Ama errukiorra, erregutu egizu gugaitik. Egunero esaten deusugu, epel-tasunian bada bere, eta gaur nai deutzugu esan iñoiz baño berotasun san-tuaguan: Santa Marija, Jaungoikuaren Ama, erregutu egizu gu pekatarijok gaitik oraiñ eta gure erijotzako ordu larrijan. Amen.

LENENGOA

Ipsum audite (Aditu zaiozute.)

(S. Mateo apostoluaren itzak, bere ebangeluaren
17 garren buru ta 5 garren bersotik artuak.)

Zure baimenarekin S. txit Santua: N. a. m: Munduan egia falta da, mundua egi bearrean dago. Zeñ bearra dan lurean egia jakiteko, eztau-kagu ikustea baño gizon guziak maitatzen duela egia (itxuran beintzat), gizon guziak esaten duela berena dala egia. Deserrazoirik andienen alde dabillenak; gauzarik okerreña defenditzen duenak; bere biotza bidegabe-ko maitasunez gañezka daukaten gizonak; norbere iritziarekin ateratzea-gatik justizi guziaren kontra jokutzen duen gizonak; lenengo gezur ondo asmatu gabea esaten duan ume koskorretik asi ta eskola nagusietan pan-parroikeriz beterik beren dotriña gaistoak erakusten dituen maisuetaraño; istun-eder diranak, gizon jakintzuak, ausilariak, eskribatzalliak, goikoak ta bekuak, denak esango dizue arrotasunik andienenan: «au da egia, nik esa-ten det egia, nerea da egia». Ah! Esagutzen due esango baluteke, bere bio-tzetan sentitzen duen gisa menturaz: «nik esaten det gezurra, nerea da gezurra», beren auzia instante artan galduko litzatekeala.

Bada orduan, esan giñaike, gizon guziak egia-aren aldekoak badira, gizon guziak egia badiote, dena da egia munduan? Ah! ez, a. Munduan gezur asko da, txit asko: gezurrak umien artian, gezurrak ezjakiñen artian, gezurrak jakintzuen artean ere. Gizonak askotan ezta erakusten bere barruko pensamentua; gizonak askotan bere biotzeko sentimentuak estalduak agertzen ditu beste gizonen artian: bañan borondaterik onena-ekin jokutzen duanian ere gizonak, berez, indar gutxi dauka beti egia billatzeko. Borondaterik onenarekiñ mundu onetako jakiturien billa dabi-llenean, jakituri oietako bide illunetatik barrura juateko, bakar bakarrik dauka laguntzat Jaungoikuak emandako argi errañoitxo bat, arrasoi argala, eta orregatik, batek bakarrik, lureko jakituri guziak beñere akitzen ez ditu, bere bizitza guzian lanian badago ere; eta bere arrotasun galgarri jus-tuan, Jaungoikoaren dotrina santuko misterioak ikasi ta neurtu nai baditu berriz, ah! orduan sakontasun aien aldemenean, bere arrasoi argalaren argiak lagunduko dio bere izereza ta miseria esagutzeko bakarrik.

Orregatik ainbeste bidar begitandu zaizka gizonari ez-tiran gauzak; orregatik mundu onetan maisutzat egon diran jente askok erakutzi ditue gezurrak egi ederraren jaskerarekiñ; orregatik mundua zegoan argi on



baten bearrekoa, Jesus gure Jauna, argi guzien argia, *lumen de lumine* lurrea etorri zanean entendimentu guziak argitzera; orregatik sentitzen zan egia zuzen baten bearra, Jesus maitagarria etorri zanean esanaz: *ego sum veritas*; orregatik bear zan dotriña egiazkoa erakutziko zuan maisu utzegarri bat Jesus jakintsua *Tabor* zeritzaion mendi gañean agertu zanean eguzkia bera baño ederragoa, ta entzun zanean zeru goi gozoetatik erten zuan deadar bat esanaz: *Hic est filius meus dilectus in quo mihi bene complacui: ipsum audite*.

Natorkizue, bada, a., gaurko egunean zueri erakutzi naian «denok esagutu bear degula Jesus Maisu bakarria bezela eta gorde bere dotriñak egia bakarria bezela». Bañan nere borondatea andia bada ere, esagutzen det nere adimenaren argaltasuna, eta eskatzen diot argia argi guzien iturburuba dan Jaungoikoari; eskatzen diot egia nere mingañarentzat Egi utza dan Jaungoikoari; ni, gaur, maisu bezela jarririk pulpito santu onetan, eskatzen diot laguntasuna Maisu utzegarri ta santuari; zeñen dotrina santua zintzo zintzoro erakutzi nai dedan; ta eskatzen diot laguntasun au, zuekin batean, zeruetako erregin amaren bitartez, zeñi esango diogun *Abe Maria* bana.

Ipsum audite (S. Mateoren ebangelioan esandako buru ta bersotik artutako itzak.)

Zure b. Sakramentu tx. S.: N. a. m.: J. gure Jaunagan billatzen ditugu egiazko maisuak bear dituan egokitasunak, zeintzuk diran: lenengo, gaizenda edo titulo (egiazkoa); bigarren, dotrina jakintsuak; ta irugarren aginde bigunak.

Lenengo esan degu bear dala egiazko tituloa, ta Jesusek badauka. Jaungoiko santuaren jakituri neurrigabea oroimendu gabe ere, billatzen degu Jesusen maisutasuneko tituloa, bera Jaungoiko gauza guzien Egillea izatean. Zeñek, n. a., esagutuko du gauza bat ezerezetik atera zuanak baño obeto? Bada denok dakigun egia bat izanik Jaunak sortu zituala guk ikusten ditugun gauza guziak, zeñ da lurrean, gizonik jakintsuena ta panparroiena bada ere, Jaungoikoari maisutasuneko gaizenda ukatuko diona? Gizon batek gauza bat egiten duanean, ez utzetik, zergatik orretarako eskubiderik eztauka, gauza bat moldatzen duanean edo mundu berriren bat asmatzen duanentan, lo asko galduta bear bada, esaten badu, arrasoia-ekin, iñork eztuala gauza ura esagutzen berak bezela, iñork ezin lezakea-la berak bezela azaldu ta erabaki, eta ukatzen ezpadiogu gizon orri bere arrasoia, nola ukatu genezake Jaungoiko gauza guziak ezerezetik egin dituanak gauza guzien berri emateko daukan eskubidea?

Gañera, Irutasun santuko lenengo *Personak*, Aita Betikoak, berez erakusteko ta mundu guziari legeak emateko eskubidea daukanak, Sinai altuko mendian Moisesi amar aginduetako legea eman zion Jaungoikoak berak, Moises ta Elias-en aurrian, lege zarreko sazerdoteak bezela, ta S. Pedro, S. Juan ta Santiago-ren aurrian, lege berriko eleiz-gizonak bezela, ipiñi zion Jesusen maisutasunari bere sigillua, esanaz *Tabor* gañean nere sermoiaren gaitzat artu ditudan itzak: *hic est filius meus dilectus: ipsum audite*.

Eta maisutasun au esagutu zuen bereala gizon guziak, fededunak ta fede gabeak, Jesusen adiskideak ta Jesusen etsaiak, eta dago izkribatua eskritura santuetan irurogei bidar baño geiagotan; eta maisutasun au (esan biar degu gure arimaren poztasunerako) da utzegarria, Jaungoikua bera utzegarria dan bezela; añ modutan eze, S. Pablo apostoluak dion bezela, zeruko aingeru bat jetxiko balitzateke Jesusen erakutzien kontrako dotriña erakustera, aingeruaren dotriña ez litzateke siñistu bearko, ezpada izan biar luke kondenatua. Zeñ da beste maisu bat onelako gaizenda edo titulua daukana? Eztezue iñor esagutzen?

Bada orduan, legezko Maisu bakarria da Jesus, ta beragandik kanpora eztira Igarle falsuak, maisu falsuak ta jakintsu falsuak baño, ta maisu falsu aben dotriña jarraitzen duen erriak ta genteak ekarriko due beren buruen gañera zorigaitza ta ondamedija.

Gizona izan leiteke beste gizonen maisu? Ai, ez! Esagutzen degu gure adimenaren argaltasuna, añ erraz okerbideetik juaten dana eta añ gogor defenditzen duana norbere aldeko gezurra; esagutzean gure borondate ustelak daukala araua edo erreglatzat norberari konbeni zaiona bakarrik, aitortu bear degu gizonak ezin lezakeala erakutzi gizonari Jaungoikoagandik datorren dotriña, ezpada ta Jaungoikoak lagundua. Munduan federik izango bada, sentimentu onik izango bada, aginde onik izango bada, naita nai ez bear da gizonen gañetiko aginde jakintsu ta on bat; eta orregatik Lurreko erri guziak esagutu due beti lege guzien jatorri bat, Jaunaren legia, ta Maisu guztien Maisu bat, Jaungoikua bera.

2. Bañan Ebangelio santuan añbeste bidar eskribatuta ezpalegoke ere J.K. gure Jaunaren maisutza, mereziko zuan titulo au berak itzez ta obraz erakutzi zituan dotriña goitandi eder ta maitagarriakgatik. Txit sakona ta berria da Jesu Kristok erakusten duan dotriña, zeru ta lurraren jabea izanik estalpe pobretxo baten, ume bat egiñik jaiotzen danean; jakintsua da Jesu Kristoren dotriña, amabi urte zituala, mututurik utzi zituanian lege jakintsu zirañ gizonak; txit goitandia da J.K.ren dotriña Jaungoikoaren misterio sakonen berri ematen asten darian eleizgizon apaizak (sazerdotiak) ya egunero erresatzen degun bezela S. Juanen Eban-



gelian. *In principio erat Verbum, et Verbum erat apud Deum, et Deus erat Verbum*; eta oso itz gutxierekin erakusten duanian gizonaren ezereztasun ta miseria, esanaz: *Deus nemo vidit unquam*; ez, Jaungoikoa inork ez zu ikusi bere andiizate neurrigabearekin; ezta Moisesek ere, ezta Lege zarreko Igarle ta Patriarka guzietatik batek ere, *nemo vidit unquam*; oso utza da gizona ainbeste anditasun entenditzeko: bakarrik entenditzen du Jaungoikoa Aita Betikoaren Seme Bakarrik, bere izate santuaren erditik sortu zanak, iguskitik argi erraia sortzen dan bezela; Seme Bakarrik ikusi ditu Aita Betikoaren izatean Jaungoikotasunaren aberastasun guziak; eta ikusi ditu ta esagutu ditu, Semea ere, Aita bezela, Jaungoikua dalako.

Desegokia izango litzateke toki onetarako agertu nai izatea, banaka banaka, Jesusen dotriñak Irutasun Santuaren gañean, bere sortuera maitagarriaren gañean, batez ere S. Juanen Ebanjelioan irakurtzen ditugun bezela; gauza luzia izango litzateke emen banan-banan aitatzia Jesusen eman zizkigun konseju ta aginde bigun maiteak, Lege berriko liburuetan ikasten diran bezela; baña utzi bear dirazue gelditzen, apur batean bada ere, S. Mateoren Ebanjelioko 5-garren buru edo kapitulua ikusten, bada emen dauzkagu zortzi zoriontasunak.

3. Zoriontasun abek eztaude estaliak itz-jaskera apainduekin, eta eztira ere, eskola nagusietan erakusten diran dotriña batzuek bezela, erriko jente langille ta nekazariak ezin entenditu dituen dotrinak, ez; *senzilloak* dira egia bezela, bada egia berez da gauza eder ta andia ta ez zu batere kanpoko apainduri bearrik; *senzilloak* dira, bañan esan zadazue, n. a., zuen bizitzan irakurri dituzuen liburuetan, munduan milloika diran liburu guzietan ikusi badituzue pensamentu sakonagorik, pensamentu ederragorik, pensamentu gozoagorik gizonarentzat zortzi zoriontasun abek baño.

Zorionekoak espiritzu pobre diranak, dio Jesusen, zergatik berena dan zeruetako erreina. Au da, zorionekoak beren pobretasunian umill bizi diranak, biotzez ta borondatez pobre diranak, Jaunaren aurrian umilltzen diranak esaguturik beren ezereztasuna, Jaunagan beren esperanza duenak ta bildur santu batekin bere itz santuak aditzen dituztenak. Sakona da zoriontasun onen dotriña; bañan sakonagua J. Kristok bere ejenpluarekin ematen digun erakutzia. Ikusi zazue munduan egiten duan sarrera: pobre jaiotzen da ta umill Belengo Portaltxoan; pobre ta umill bizi izan zan Egipton da Nazareten; eta mundu onetatik jun bear zuanian ere, pobre, txit pobre, umill, txit umill, dauka oetzat da burkotzat ol zati bat bakarrik, laguntzat lapur bi ta borrreru asko; eta oraindik zerura igo ta gero ere, guk bere eleiz gizon sazerdotiok bere itza zabaltzen degun bitartian, or dago Jesus Altarako S. Santuan, predikatzen bere ejenplu ederrarekin, pobre,

txit pobre, ogi puska baten irudiarekin jantzia; umill, txit umill, gizonak-gandik astua sarri Sagrario Santuan. O Jauna, ze dotriña, ta zer ejenplua!

Zorionekoak *malsoak*, jarraitzen du erakusten mendiko sermoian, zergatik izango diran lurraren jabeak. Au da, zorionekoak munduko persekuzio bidegabeak pazientzia santu baten eramaten dituztenak; zorionekoak gorrotorik eztuenak; zorionekoak beren biotzeko gozotasun santuagatik Jaungoikoarekin bat eginik bizi diranak. Sakona da dotrina au ere, baña sakonagua Jesusen ejenpluaren erakutzia. Oroitu zazue Jesusen Pasio santuko gau illun bildurgarria; bada orduan gizonik maltoena bezela utzi zuan preso artu zezatela, lotu zezatela, madarikaziozko gizona deitu zezaitela; jo zezala bere arpegi eder magestadez betean serbitzari zirzill batek; arpegi gozo ura, zeruko apaindura ta aingeruen alaitasuna zan arpegia txistu zikiñakin loitu zezatela; berak sortu zuan gizon argal miseriaz beteak josi zezala kurutze batean; eta oroi zaitezte berriz ere kurutzen arren gañetik deadar egin zuala: *Pater, dimitte illis!* O nere Aita, parkatu zaiezute! O Jauna, Jauna, ze dotriña ta ze ejenplua gizonentzat.

Zorionekoak negar egiten duenak, jarraitzen du Jesusen, mendiko sermoi miragarrian; zorionekoak justiziaren gosean ta egarrian bizi diranak; zorionekoak justiziaren gosean ta egarrian bizi diranak; zorionekoak errukiorrak; ta *sentenzi* eder abek esaten zituanak, bere bizitzarekin, bere ejenpluarekin indartu zuan bere itza ta dotriña ta negar egin zuan sarri askotan (eta ez zu esaten Ebanjelio Santuak beñere farrerik egin zuanik) eta igaro zuan bere bizitza guzia gizona justu egingo zuen gauza guzien gosean ta egarrian.

Gaurko nere plakatxoa geiegi luzatu gabe ezin neizke zoriontasun guziak esan, n. a. m.; baña nik eskatzen dizuet zuen animaren onagatik pensatu ditzazutela sarritxo, bada zoriontasun oietan dago kristauen bizitzako obetande guzia. A sarri pensatuko balituzkete negar egiten duen guziak, justiziko gose-egarrian bizi ezpadira ere! A sarri pensatuko balituzkete munduan bere burua jakintsutzat dauken guztiak; bada or bertan ikusiko luteke Jesukristo dala Jaungoikua ta Maisu guzien Maisuai.

4. Esagutu biar degu gañera J.K.ren erakutzietan bere aginduen biguntasuna ta erraztasuna. *Jugum meum suave est*, dio, *et onus meum leve*. Nere uztarria txit da biguna, nere agindua txit da erraza. Eta egiaz, eziñ leiteke izan gauza bigun ta errazagorik Jesusen agindua baño, bada agindu guztiak dira beti maitasunezkoak, eta ondo dakizue zeñ erreza dan maitasuna gizonarentzat, lenago esan oi detan bezela. Galdetu zioten Jesusi: «Maisua, ze da legearen agindurik andiena?» Ta Jesusen erantzun zuan: «maitatuko dezu zure Jaun eta Jaungoikua, biotz guztitik, arima



guziarekiñ, ta indar guztiakiñ. Ori da lenengo ta andiena dan agindua, ta bigarrena orren irudikua da: maitatuko dezu zure lagun *projimoa* zure burua bezela». Esan zadazue ori, n. a. m., gizonak berez maitatzen badu edertasun guztia, maitatzen badu ontasun guztia, maitatzen baditu gurasoak, anaiarrebak, aideak, lagunak, adiskideak, mesede bat egin diotenak; ezta gauza berezkua ta erraza maitatzia gauza guzien gañetik gure Jaun-goikua, edertasunik andiena, ontasunik onena, zeñi sor diogun gu geran guztia eta goguan eztauzkagun milla gauza geiago? Ezta gauza biguna ta erraza maitatzea gure lagun *projimoa*, gure Aitaren semea, gure anaia, gu bezela munduko bide legorretatik ziar zeruratko bidean dijoana?

Oraiñ bada, a., Jesus gure *maisua* bada titulo egoki bat dualako, Jesus gure *maisua* bada dotriña miragarriak erakutzi dizkigulako ta aginde bigunak eman dizkigulako; eta Jesus bera, bere eskola A. S. Santuan irikia daukala, or badago erakusten egia, munduak falta duan egia utzezgarria, nai ta nai ez aditu biar ditugu guk bere erakutzi santuak, nai badegu jadtixi betiko zoriontasuna. Nai ta nai ez entzun biar degu, eta sarri, pulpito santu onetatik Jesusen izenean erakusten dan dotriña; eta baita ere Jesussek berak ostia santu ori adoratzean, edo komunio santuan gure anime-tan sartzen danean, itz gozo-samurrekiñ biotz askori egiten dien isilmandatua. *Ipsum audite*. Kristauak, aditu zazue Jesusen dotriña, bada bera da bakarrik egiazkua, ta bere kontrako dotriña guztiak gezurrezko dotriñak dira, galdumendiko dotriñak.

Bai, n. a. m.: (Jesus etorri zan lurrera munduaren Maisutzat, gizona-ri egia erakusteagatik, gizona salbazioko bideetatik zuzen eramateagatik. Bere dotriña miragarriak argi egin zion munduari ta desegin zituan lege zarreko irudi guziak goizian goiz jaikitzen dan eguskiak gabeko illuntasun danak kentzen dituan gisara; ta) Jesus or dago oraindik erakusten. Nik uste det Tabor zeritzaion mendi gañean entzun zan itz ura: *ipsum audite*, arri erantzuten diola oiarzun bat bezela Sagrario Santuan Jesusek, guri esanaz: *Discite a me*. Ikasi zazue nigandik, bada ni naiz zuen Maisua, ikasi nigandik, bada ni naiz zuen modelena.

Bai, Jesus maitia, zu zera gure Maisu ta modelena, ta zure ikasle guzien eginbearra da zure irudira bizi izatea, zergatik zure dotriña dan, ez bakarrik jakin biarrekua, baita ere eginkizunezkua, eta orregatik ez gera salbatuko dakigulako Jesusen dotrina, ezpada egin degulako Jesusen dotriñak *agintzen* duana.

O Jesusen Biotz Santua, Maisu on ta maitasunez betia! Eman eigu-zu indarra naikua zure erakutzi santuak jarraitzeko, ta beti izateko malsoak ta biotzetik umillak. Zure eskolakuak gera, ta badakigu zugandik apar-

tatzen dana apartatzen dala egiagandik ta gezurrezko bidean galtzen dala. O Jesusen Biotz maitasunez betea! Ez gaitezela gu galdu. Jarrai dezagula zure atzetik, bada aurrean zuaz ejenplu ona emanaz, jarrai dezagula salbaziorako Porturaño, an goza dezagun betiko zoriona, Amen.



(BIGARRENA)

Cum dilexisset suos qui erant in mundo in finem dilexissent eos.
Maitaturikan bere munduko semeak maitatu zituan asken askeneraño.
(S. Juan Ebangelistaren itzak bere ebangeluaren
XIII garren buru ta I go bersotik artuak.)

Z. b. S. tx. S.: N. a. m.: Atzo goizean esan nizuen mundua egia bea-
rrean zegoala, eta gaur esan biar dizuet munduko gizon ta emakume
guziak maitasunaren bearrean arkitzen dirala.

Gizonak dauka Jaunak emandako adimen edo entendimentua gau-
sak entenditzeko ta orregatik da egizalea; baña baita ere dauka biotza sen-
titzeko ta orregatik da sentikorra ta maitalea. Jaungoikuak gure biotzaren
erdi erdian ipiñi digun ansi edo nai izate bat da maitasuna, eta gauzarik
bear bearrena balitz bezela, beti gabiltza jaio geran guziok bere atzetik,
askotan zer egiten degun eztakigula bada ere. Maitatzen du amak semea,
nai ta nai ez bezela, baña amodiorik zoragarrienarekiñ, eta ainbeste atse-
giñez betetzen du amodio onek eze, berarekiñ astutzen ditu mundu one-
tako naigabe, samintasun ta negar malku guziak. Maitatzen due semeak
bere ama estutasunetan geienez ere agertzen dan *amodiurekin*. Maitatzen
due anaia-arrebak bata bestea; maitatzen dira adiskideak, lagunak, esagu-
nak, erritarrak, geiago edo gutxiago, askotan beren maitasuna gordetzen
badue ere gogakida, kariño, laguntasun edo izen batzuen estalpean.

IRU GARRENA

*Et erit in templo abominatio desolationis et usque
ad consumationem et finem perserveravit desolatio.*
Eta izango da tenploan nazkatasun galgarri bat,
eta denporen askenetaraño iraungo du galdumendijak
(Daniel Igarleak, 9 garren buru ta 27 garren bersuan.)

Zure b. S. txit S.: N. A. M.: Eskritura santuak gordetzen duen egia
billatzea txit da gauza bat zalla, baño baita ere txit ongarri ta irabazi andi-
koa. Bere irudi bizi batzuen atzetik agertzen da misterio andien sakonta-
suna, bere ipui-esakera batzuen aspian ikusten da ostargian bezela espiri-
tuko egia, pintatzalle baten pensamentua bere *kuadro* baten ikusten dan
bezela, gorputzaren zati guzietan odola, gizonaren izatean anima bezela.
Mira profunditas eloquiorum tuorum, dio S. Agustiñek, *mira profunditas Deus
meus*. Dira Jaungoiko santuaren itzak errazak eta senzilloak ikuste batean,
itxas olatu gabearen ur urdiñ malsoak bezela, bañan gordetzen ditue
beren barruan iñork ikusi ez dituan leize zulo askengabeak.

Iriki dezagun gaur gabeen Eskritura santuetako liburu ori ta begira
dezagun an billatzen degun gertaera bildurgarri batera, irakurri dezagun
gure Salbatzalleak nola pintatzen duan uri baten azken gaistoa, Jerusalem-
go azkena; Jerusalem, Igarleak ta erregiak maitatu zuen uria, Jerusalem,
tenplorik ederrenaren jabea, birtuterik andienen ta gaistakeririk gogorre-
nen jaiotokia, Jerusalem, Jaungoikoaren tronua, ta Jaungoikoaren urka-
mendiko lekua! Bañan, ezkuaz gaur ikustera Jaunaren zigorra erori
zitzaion erri onen azken tristea, histori edo kontaera onetako gertaera
danak jakiteagatik. Jaunak gizonari dion errukitasun neurrigabeak nai du
zerbait ikasi dezagula kontaera onetan gure animaren onerako, Jerusale-
nen galduera izan dedilla osasungarria guretzat; bada, Jerusalem iriki nai
ezik bere begiak egiazko argira, Jerusalem entzun nai ezik Jesusen dotriña
ta gezurraren aldekoa, Jerusalem Jesus maitearen illtzallea da egia gabe ta
maitasun gabe bizi dan arimaren irudia, da Jaungoiko gabe bizi dan ani-
maren irudia, bada atzo ta erañegun ikusi degu Jesus dala egia, Jesus dala
maitasuna. Au da nere gaurko sermoiarene gaia, gai andia, gai tristea, eta
eztakit nola erakutziko dizuetan.

Ah! Nik entzun izan banu Jesusek Samaritana bati, Jakob-en putzu
inguruan zegoalarik, egin zion dei biguna, esanaz: *¡Si scires donum Dei!*
Bazenki, anima gaixoa, zer galtzen dezun Jaungoikoa galtzean! Nik



orduan ikasiko nuan nere Jaungoikoarentzat animak irabasteko jakinde zerutarra. Ah! Nik baneuzka amodiozko mintzoerak Jesusek arrendatzaleari apostulatzara deitu zionean zeuskan bezelakoak! Nik orduan, o zer poza neretzat! egingo nuke zuen biotzak, ososuan, eman *zaiozkutela* Jesusi, eta, nere aditzalleen artean pekataririk badago, pekatori ori, gaurdandik aurrera, izan deitela, ez Jerusalem errukarriaren irudia, ezpada Jaungoikoaren Uri Santua eta Jesusentzako Apostolu berri bat.

Eskatu zaiogun Jaungoikuari bear dedan laguntasuna nolabaitean nere eginkizuna betetzeko, ta eska zaiogun beti bezela Maria Santaren bitartez, zeñi esango diogun *Abe Maria* bana.

Et erit... etc. (Daniel Igarlearen itzak len esandako buru ta bersotik artuak.)

Z. b. S. TX. S.: N. a. m., San Mateo Ebangelistak esaten digunez, bein batean erten zuan Jesusek Jerusalemgo Tenplotik, ta bazijoan bere bidean, inguratu zitzaiozkanean bere ikasle batzuk Tenploaren edertasunak erakusteko; baña Jesusek esan zien: «Egi-egiaz esaten dizuet, ezta emen arri bat beste arri baten gañean geldituko arrasatu gabe».

Benetan, n. k., txit zan eder ta ikusgarria Jerusalemgo Tenploa edo lege zarreko Eleiz nagusia; bada zillar ta urrez betea zegoan; baña zer dauka ze ikusi gizonen edertasunaren ondoan? Gizonak dauzka bost zentzun apaiñak, zillar ta urre guztiak baño geiago balio duenak: begiak ikusteko, belarriak aditzeko; aua, gauzai gustua artzeko; sudurra, usai egiteko; eta eskuak ta gorputz guzia gauza guztiai ikutzeko; eta zentzun aben bitartez ikusten ditu ta esagutzen ditu mundu zabalean diran gauza guztiak; gizona dago gañera aberastua adimen edo entendimentuarekiñ, nun daukan indarra munduko gauzak entenditzeko; eta orregatik, ikustean mundu onetan gauza guztiak amaitzen dirala, billatzen du beñere amaituko eztan gauza bat, betikotasuna. Txit da bizikorra berez, ta gorrotatzen du eriotza; sentitzen du bere biotzaren erdian *desio* neurrigabeko bat, bizi naia, zergatik eztuan entenditzen utza ta ezereza, ta ikustean bere alde-menean dena iltzen dala, orduan billatzen du Jaungoikoa, beñere illko eztan Jaungoikoa. Orregatik, n. a., gizona beñere ezta gorago jaso, bere ezereza esaguturik, belauniko jarrita, *Aita gurea, zeruetan zaudena*, esaten duanean baño.

Bai, n. a. m., gure anima Tenplo bizi bat da, Jaunak egiña, espirituko apainduri askorekin aberastua; baña ainbeste aberastasunen erdian askotan ikusten degu koloka ta balantzatan dabilhela, ta azkenez erortzen dala beberaño, zergatik Danielek esagutu zuan *esfinge* edo abere gezurrezkoak bezela, zimendu lurrezkoak dauzkan. Gizona eri dago pekatu jatorrizko-

tik, ta bere barruan jagitzen zaizko griña gaistoak, soberbia, andi-izanaia, gorrotoa ta gezurra bere miseri ta lotsagabekeri guziekiñ. Eta deabrua, griña gaistoen bandera beltz bildurgarriarekiñ gizonagan sartzen danean, gezurra lapurretara animan sartzen danean eta arrapatzen duanian animaren fedea, anima gelditzen da desegina ta galdua, uri eder misteriosko onetan ezta arri bat beste arri baten gañean gelditzen.

(Zer da gizona egia gabe? Bere entendimentuan argirik ezuala, bizi leike ta biziko da itxu baten gisan, betiko illuntasunian, zuzen bidetik dijoalakuan leiza zuloan bera bere burua botatzeko zorian, bañan etorriko zaio denbora triste ta bildurgarriko bat, noiz esagutuko duan bere itxumen galgarria, baña berandu. Eta bizi dan artean zer gertatuko zaio? Ara zer dion Jesusek.)

2. *Eta izango da*, jarraitzen du, izango da *gozea ta izurritea, ta lurrikarak sentiko dira errietan*. Bai, n. a. m., egia galtzen duan animak lenengo sentitzen duan gauza da gosea, espirituzko gosea adimenan ta biotzean. Fedea aldentzean utzitzen du utsune andi bat ezerekin betetzen eztana: federik eztaukan gizonarentzat eztago zerurik, eztago Jaungoikorik; dana da berezko gauza, ta berezko gauza desaraude bat da, desordena bat. Eta gizona zer da federik eztaukanarentzat? Gizona? Berez sortu dan gauza bat, beste gustiak baño errukarrijagua, bada aberiak eztue esagutzen zeñ miseriaz beteak diran ta gizonak bai. O gizon fedegabea! Zure pentsamentua, zure adimena, zure arrasoia ezta beste beste gauzarik, zure obi gañean piska baten aidatuko dan fosforo argi bat baño! O gizon fedegabea! Ez begiratu zerura zure naigabietan! Zeru eder izartsu ori ezta zuretzat egiña, ezta iñorentzat egiña, da utza, da gauza utzaren anditasuna. O kristauak, kristauak! Eztu gizonak *sentituko* egiaren gosia gezurrezko dotriña añ bildurgarrien aurrian!

Mingarria da esaten ere, baña onetara jotzen due gaur erakusten dirañ dotrinak. Gaur gizona da gauza guzien iturburua, gizonak egiten ditu legeak Jaungoikoaren legien kontra; gizona da maisua ta gizonak erakusten ditu Jaunaren kontrako dotriñak: gaur gizona da Jaungoikoa. Gizonak bere arrasoi argalarekiñ esagutzen duana, ori da egia; gizonak ikusten eztuana dudan jarri biar da; eta nola Jaungoikoa ikusten eztan bere andi izate gustiarekiñ, Jaungoikua egongo da bere txandaren zai gizonak esamiñatu dezan arte, ia Jaungoiko dan edo eztan. O zer ikusgarria! Itxuak argitasun guzien iturburuba esamiñatu naian! Ikusi dezue, k. arrotasun andiagorik, soberbi andiagorik, txorotasun andiagorik? Nik eztet esango gizon arro guztiak, beren buruarekiñ gauza danak *esplikatu* nai dituen guziak txoruak dirala, bañan oroitu bear dizuet gizon jakintsu



baten oarkera bat, eta da: txoro guztiak arruak dirala, panparroiak dirala, eztuela egiten beurai deizkioten gauza baño besterik, eta eztuela siñistatzen beurak entenditzen duena baizik, eta denok dakigu nola dagon aien burua.

Bai. h., egiairen gosia sentitzen du gizonaren adimenak, txoratua ezpadago, eta maitasunaren gosea gizonaren biotzak. Gizon fedegabearen biotzak bide asko dauzka irekiak griñarik gaistoen ta naskagarrienak asetzeko, bada Jaunaren kontrako dotriñak dionez, gauza bat da ona gizonari gustatzen bazaio eta txarra gustatzen ezpazaio; baña bide oieta-tik barrura juaten danak laster senti bear du egiazko maitasun gozoaren gosea ta egarria eta griña guziak aseta ere, ezta aseko gure biotza, ezta aseko mundu guziko gozotasun guziekiñ ere, beti eskatuko du geiago, ezta aseko Jaungoiko gabe. *Fecisti nos Domine ad te*, S. Agustiñek dio, *et inquietum est cor nostrum donec requiescat in te*. Munduak begien aurrian jartzen diskigun gauzak txit kolore ederrekuak dira, daukate gañ paketsu gustagarri bat, baña gauza oien barruan sartu danak badaki zeñ minkaitzak diran barrutik, zenbat naigabe ta animako ikara ekartzen duen, beren ondorean eztauke pakerik ta deskantzurik iñon ere ta sentitzen due maitasun garbi ta santuago aren gosea.

Eta jaikiko dira jente batzuk bestien kontra eta erriak errien kontra, jarraitzen du Igarle santuak. Eta au ezta esan degunaren ondorengo primiazkoa baño. Griña gaistoak ta gezurra beñere eztira paketsuak izan; bakar bakarrik fedea ta esperanza santua dira pakean ta *soseguz* bizi diranak. Egia ta birtutea kendu nai diranean ezta egiten gerra gabe: nai ta naiez bear da gerra gezurrak gure konzienziako arra ito nai duanean. Erri Jaungoiko iltzalleak bezela gizon pekatariak deadar egiten du: «Kendu Jaunaren lege ori, kendu oitura zar ori, kendu nere griña guzien kontra gerran dabillen relijio gogor ori, beti eriotzaren gañean ta infernuaren gañean itz egiten duan relijio ori kendu». Baña jaikitzen da, jaikitzen gure konzienzia esanaz: «bai, baña nik nai ezpadet ere eriotzako ordua etorriko da, eta zer izango da orduan nerekin? Nik nai ezpadet ere betiko kastigu bat an dago nere zai, ta, zergatik, zerurako jaiua izan ezker, betiko kondenatua izan bear det?» Eta orduan sentitzen du gizonak gerra izugarri bat bere konzienzia ta bere griña gaistoen artian, *eta geienetan* griña gaistoak irabasten due gerra, eta bide zuzena jarraitzen duenak, gizon gaistoen farreak ta burlak eraman biar izaten ditue, Jaunak emandako kurutze bat bezela. Oraindik ezta denbora asko, eta ez urrutietan, emendik Zumaiaaraño bidian, mutill gaste bat zijoan mesa nagusitara eta bide onduan jolaserako prest zeguan beste mutill pillla batek, farre ta burla egiñaz, esan zion mesa-

tara zijoanari: «fralle edo jesuita jun biar al dek?» Zer deitzazue, a.? Zeñ denporetara etorri geran! Zer? Frailleak ta jesuitak izan bear dira kristua onak? Frailleak ta jesuitak salbatu bear dira?

Baña guazen igarrera edo profezi onen askenera. Irutogeita amar urte igaro ziran gure salbatzalleak len aitatu ditudan itzak esan zituanetik, Israelgo erriak galdu zituanian zeruko bedeinkaera guziak ta Juda-ko zetrua, eta Jerusalemgo Tenplua an zeguan, isiltasunian, bere puskaera ta desegintzaren orduaren zai. Alperrik da jaikitzea garaitzallearen kontra: Israelgo ejerzituaren aurretik eztijua oraiñ Jehoba santuko aingerua. Egun batean agertu ziran Jerusalem ondoko mendi gañetan Bespezianoren bandera bildurgarriak, eta gerra gogor baten ondorean, pausu bakoitzean israeltarrekiñ purrukutzen zala, eldu zan irugarrenko murruraño; eta andik, gerraren zarata, diadarra ta madarikazioa isiltzen zanean, entzutzen zan, Jerusalemgo emakumeak beren janaritzat beren errailetako ume-txoak erretzean, zurtan aragiak ateratzen zuan txingar ots ta zartada; eta andik, etxe ondatu ta gizon ildakoen artetik, ikusten zan nola zaramazkiten ildako asko, orazio gabe ta malkorik gabe, lenagoko denporetan, Dabid erregearen berso ederrak kantatuaz, kutxa santua eramaten zan kalietatik ziar. Eman zan azkenengo asaltoa, sartu ziran erromatarrak Jerusalem, erre zuten Tenploa, ill zituen jenteak, bizirik gelditu ziranak artu zituen garaitzalleen serbitzari, eta Erromarontz lotuta zaramazkitela betiko agur triste bat egin zioten jaioterriari: An gelditzen zan Jerusalem, etxe errietatik erretzen zuan azkenengo ke tartean: etzeguan arri bat beste arri baten gañean.

O Jerusalem! Zure kondaira da munduaren baster bat genastu zuan gertaera bat, baña da kondaira bat egunoro gizon pekatariarekiñ gertatzen dana. Judeatarren itxumen gogor ta arma da pekatarien itxumen ta arrotasuna berbera. Judea-tarrak etzuen aditu nai izan Jesusen dotriña zerutarra, Jerusalem-tarrak ill zuen Jesus gaizkille bat bezela; gizon pekatariak ere eztu ikusten egia, eztu entzuten Jesusen dei biguna, illtzen du Jesus berri-ro pekatu illkor edo mortal bakoitzean. Baña Jerusalem bere itxumenagatik ta Jesusi eman zion eriotza ikaragarriagatik ondatua izan zan bezela, zeruko egia gabe bizi dan gizona, Jesusen maitasun gabe bizi dan gizona, gizon pekataria, fruturik ematen eztuan arbola bat bezela, Jesusen malkuak ta Jesusen odolak narotu eztuan arbola igarra bezela, izango da eba-kia ta betiko surtara eramana.

Et usque ad consumationem et finem perseverabit desolatio. Eta Jerusalemgo ondamendija betiko izango dan bezela, mundua mundu dan artean Jaungoikoagandik urruti bizi dan gizonaren galduera bere animako aberasta-



sun guziak ondatu dituan gizonaren galduera betikotasun amaigabekoa izango da, sasoian entzuten ezpadu beti parkaziorako prest dagan Jaungoikoaren deia. Jerusalem gerta zitzaiona gertatuko zaio biotz gogordunari: beretzat alperrik izango dira predikazio, sermoi ta ejenplu on guziak; begiak badauzka, baña eztu ikusten; belarriak baditu, baña eztu aditzen. Jaungoikoak esango du beragatik Jerusalemegatik esan zuana: *¡Jerusalem, Jerusalem, quoties volui congregare filios tuos quomodo gallina congregat pullos suos sub allas et noluiti.* O pekataria! zenbat bidar nere biotz amodioz betiak deitu dizu, eta zuk eztezu nai izan entzun nere deia; zenbat bidar begiratu dizut maitasunez beterik, eta zuk iges egin dezu nere begien aurretik; zenbat bidar eldu da zure belarrietarañone ere egia gozua eta zuk eztezu nai izan aditu! Oroi zaite, gizon edo emakume pekataria, S. Pedro bat damutasunezko malkuak ixurtzen zegoala, Judas bat soka batetik izekita askenengo arnasa estuan zegoan bitartian, bear bada bere arpegian Jesusen laztana sentitzen zuala oraindik. Batak ikusi zuan Jaunaren begirune gozoa, bestia itxua ta gorra zegoan.

N. a. m.: Utzi ditzagun alde batera arrotasun bidegabeko ta galgarriak, ta esagutu dezagun egia Jaungoiko Jesusengan bakarrik dagola; esagutu dezagun beñere amaitzen eztan maitasun egiazkoa Jesusengan daukagula; ta maita dezagun gure anima guziarekin. Ez gaitezen izan biotz dollorrekuak; ez gaitezen ase mundu onetan irabaziko degunarekin; geiago biar degu gure biotza betetzeko; jaso dezagun biotza zerurañone, Jaungoikuagañone. Zenbat denporan biziko gera munduan? Larogei urtian? A ez! Larogei urtian millatik bat edo beste bizitzen dira; baña edozertara ere zer dira larogei une betikotasunaren onduan? Zer irabaziko degu munduan? Dirua? Onorea? Gozotasuna? Ein zagun kontu baietz, eta, zer daukagu oiekin betiko zoriona galtzen badegu?

O n. k. m.! Izan dezagula gaur denok indarra, jaiki lurreko gauzetatik ta Jaunagana biurtzeko: ezteilla bat bakarra gelditu n. aditzalleen artean Jesusi biotz osua emango eztionik. Inor badago emen, batez ere gasteren bat, bildur dana bere lagunak esango duenak-gatik, ori kobarde bat izango da, deabruak lotuta daukan kobarde andi bat, bada eztauka indarririk lagun txarretatik apartatzeko, eztauka indarrak deabruaren lokarria puskatzeko; eta edozeñek edonundik eramango du umetxo bat bezela.

Aditzalle biotzekoak: Jarri det zuen aurrian Jerusalem errukariaren ta egi gabeko ta maitasun gabeko animaren irudi bat, zuentzat ta neretzat osasungarritzko pentzakizun bat bezela. Ikasi dezagun ta egin dezagun zerbait gure animaren onerako. Eztedilla gure animetako deseigoen

gañean negarrik egin bearrik izan Jeremiasek Jerusalemen gañean negar egin zuan bezela *¡Quomodo sedet sola civitas!* esaten zuan, A! Nola dagon bakartadean jarririk lenago jentez betea zegoan uria! Lenago dierrri askoren artean lenengo zana orain alargun bat bezela gelditu da! Probinzi askoren jabe zana orain bestien zerbitzari dago! A! ez, k. nereak: lenengoak gera zeruan, eta eztezagula saldu gure burua Luzifer madarikatuaren azpirako. Eztedilla izan gura anima etxe erre ondatu ta erori baten gisan pisti zikiñen bizilekua, ezpada zeruko graziaren kabi ederra, Jaungoikoaren uri bizi ta bedeinkatua.

Nere Jesus laztana, ainbesterañone gure animak maitatzen dituzuna, zu gordetzeko jauregiak izan nai degu; bañan jauregi betikoak; nai degu egia gure adimenarentzat, ta zugana gatoz egi guztien iturburuba bezela; nai degu maitasuna gure biotzentzat, ta zugana gatoz maitatzellerik onena ta zintzoena zeralako; eztegu nai geiago gorra izan zure dei bigunerako; zu zera bizitza egiazkua ta zurekin bizi nai degu beti, emen, esperantzetan, ta gero zeruan zure Biotz Santuko eztitasun guziak gozatzen beti, Amen.



ASUNCIÓN

Aiz(arna) — 1894 Placencia — 1896

*Beatam me dicent omnes generationes
quia fecit mihi magna qui potens est.*

Bedeinkatua deitzen die gisaldi danak,
Jaungoiko altsuak gauza andiak nigan egin ditualako.
S. Lukasek, lenengo kapituluak, 48 eta 49 garen bersuan.

N. a. m.: Emeretzi gisaldi, emeretzi eunkida igaro dira, Judeako mendi tontor batean, bere sañetan Dabid erregearen odola zeukan emakume batek esan zituala itz abek: Zorionekoa deitzen die gisaldi danak, Jaungoiko altsuak gauza andiak nigan egin ditualako. *Beatam me dicent*, etc.

Emakume au zan Maria Santa, zeñ agertzen zaigun esakera onetan profeta edo igarle andi bat bezela; bada Manaren igarrera miraritsu au izan da oso betea antziñako denpora aietatik gaur arteraño, sasoi, leku ta denpora guzi guzietan. Eztago nazio edo dierrri bat, eztago uri bat bakarra, eztago baserri eskutu bat Maria txit santaren izena goratzeko ta bedeinkatzeko zerbait egin eztuanikan: ondo esaten digue mundu guzian Manaren izenean jaso diran Eleiza ederrak; esaten digue Mariaren izenean egin diran ta egiten diran altare ikusgarriak; esaten digue toki guzietan etxe ta gela barruan añ ugari billatzen ditugun irudi maitagarriak, alderdi guzietatik zeruruntz igotzen diran orazio santuak, Mariaren izenean mundu guzian egiten diran festa ederrak. Gaurko egunean bertan, mundu zabalean, zenbat pulpilotik ta zenbat iskuntzetan esango dira gure ama maite maitearen doaiak!

Eta egiaz ondo merezi ditu, zergatikan Maria agertu zan andia, legearen gañekoa bere sortuera garbian, menderatzen zuala deabruaren arrotasun madarikatua; zergatik agertu zan berdingabea bere jaiotzan, etorri zalako mundu onetako argi ta esperanza bezela Adanen ondorenguentzat; zergatik agertu zan miragarria zeruko aingeruak deitu zionean graziaz betea ta Jaungoikoaren ama; zergatik agertu zan besterik ez bezelakoa bere munduko bizitzan Jaungoikoaren semea bere mendean zeukanen, Jaungoikoaren semeak legortzen ziozkanean bere malkoak; eta, azkenez, agertu zalako iñoiz baño andiagoa, guziz zerutarra, bere zerura igoera gloriak betean.

O zer jaia gaurko jaia, n. a! Zer ikusgarri ederrekoea! Aditu zazue nola dirauskun S. Jaun Damaszenok: «Gaur, dio, gaur da poz, gozotasun ta atsegiñezko egun doetsua, gaur da Jaungoikoaren Ama gloriak betea, Jerusalem zerukoa, Maria txit santa zeruetan sartzen dan eguna. Gaur igaro ditu zeruko ateak Eba berriak, pekatuaren orban edo mantxaren kereisak ikutu gabeko emakumiak. Iltzen da Maria, eriotzari pagatzen dio jaiotako guziok daukagun sorra, baño Mariaren gorputza, beste munduko gorputzak bezela ezta lurrarentzat: zeruan dauka gertatua bere deskantsurako tokia, eta odei guzien artetik gora, izarrik izar ta eguzkirik eguski aingeru maitagarri inguraturik sartzen da betiko zorionean».

N. a., gaur goizeko itsaldi onetan nai nikizue agertu *Mariaren gloria ta Mariak gaurdandik daukan alizatea zeruan beste sortutako guzien gañetikakoa dala*. Onetarako bear det Espiritu Santuaren grazia. Badakit n. a. urteoro gaurko festa ospatzean, entzuten dituzuela itzaldi onak ao jakintsuetatik, eta nik esagutzen dedalako nere ezerestasuna, eskatzen dizuet lagundu zadazuela zerutik jaristen bear dedan grazia, esanaz denok gure ama samurrari *Abe Maria*.

Beatam me dicent omnes generationes etc.

1. N. a. b.: Sariyak izan bear badu merezimentuarekin berdiña, zerue-tako gloria ematen bada birtuteak diran añ, izanik Maria Santaren merezimentu ta birtuteak santu guzienak baño askozaz geiago, gizonak asma-tu ezin lezakezanak, santu guzien gañekoa, gizonak ezin esan lezakeana da bere sari ta gloriya zeruetan. Bada Maria ezta Jaungoikoa beste, baño Maria baño geiago Jaungoikoa bakarrik da, zergatik Maria dan Jaungoi-koaren Ama, Jaungoikoaren alaba, Jaungoikoaren emaste; Aitarene alaba, Semearen ama, Espiritu Santuaren emastea.

Badakit! Ezingo det asmatu nola esan Mariak zeruetan daukan gloria. Oh! Irekiko balira Siongo urrezko ateak unetxo baten, instante baten bada ere, an ikusiko genduzke millaka eta millaka aingeruak hosanna! kantatzen duela Jaungoiko Santuaren aurrean; an lege zarreko gurasoak, igar-leak eta justoak, an apostoluak, martiriyak, fedea autortu zuenak, emaku-me garbiak; eta abek dauken gloriatikan esagutuko genduke zerbait Mariaren gloria; baño iñork ikusi ezpadu, entzun ezpadu, pensatu ere ezpadu zeruetan zorionekoentzat dagon gloria, nork pensatu leike Maria txit Santarena?

Bañan konsideratu ditzagun Mariaren gloriarako dauden arrasoi batzuk. Mariak, bere amatasun Jaungoikozkoagatik, dauzka: Aita zeruko-aren aginpidea, Seme Jaungoikoaren santutasuna eta Espiritu Santuaren doaiak; bera da, S. Eutikiok dionez, Irutasun santuaren akabera ta osan-



dea, *totius Trinitatis complementum*, zer izango zan bada, galdetzen det, oraiñ emakume oni, beste santu guzien gañetik zeruetan gertatu zitzaion jarri-lekua?

Aingeruak ta zerutar denak begiratzten diote Jaungoikoaren eskueta-tik ertendako gauzarik astun arrigarri ta ederrena bezela; betikotasunetik beren erregiñatzat aukeratua bezela, zeki-elako Maria zegoala Irutasun santuaren pensamentuan, mendiak ta itxasoak, odeiak ta izarrak sortu ziran baño lenago. Eta benetan, ikusten zan betikotasunetik asita gizal-dien illuntasuneko lanbro tartean, Jaungoikoaren jarrilekuaren ondoan emakume bat urre-zidarrez ta espirituko argiz apaindua: *Astetik regina á dextris tuis circumdata varietate*.

Gañeratu dezagun ontzuko iskribitzalle baten pensamentu sakon bat: Jaungoikoak jaio bear bazuan jaio bear zuan emakume garbi baten-gandik, eta emakume garbi batek sortu bear bazuan bere erraietan sortu bear zuan Jaungoikoa bakarrik. Eta Jaungoikoak gizon egin nai izan zua-nean izanik Maria aukeratua Jaungoikoa sortzeko, zeñek esan lezake ama-tasun onetatik Mariari etorri zitzaion aberastasunak? Zeñek esan bere glo-ria? *¿Generationes ejus quis enarrabit?* S. Pedro Damianorekin batera esan geinke: jaio diran guziak mutututzen dirala eta ez tirala ezertxo ere Maria-ren aurrean.

2. Eta orain, gauza abek jakin eskero, esan geinke bildur gabe Maria santaren zeruko sarrera, bere andi izateari zegokion bezela, izan dala zeruak eta lurak ikusi duen jairik andiena. Irakurri itzazue lege zar eta berriko kondaira edo historiak; irakurri itzazue lenengo egunetatik jaso diran gauzarik ikusgarrienak, ia billatzen dan beste jai bat gaurko jaia bezelakorik.

Guazen pensamentuarekin Dabiden errira eta ikusi dezagun nola dakarren errege onek Israeltarrak gordetzen zuen kutxa santua Obede-donen etxetik Siongo jauregira, nun gertatu zuan toki ikusgarri bat. Dena da andia, aberatsa ta ederra: Jaungoikoari eskiñitako gizonak dakarre kutxa besaburu edo sorbalde gañean, ezin kontatu ala jente dator kutxa santuaren inguruan, musika soñu gozuak jotzen ditue, eleiz gizonen kan-tak, jentien pozezko diadarrak betetzen due alaitasunez erri guzia, Dabid erregia bera bere mendeko guzien artian dantzan dator kutxaren aurrian ezin gorderik bere poza. O Israel, zeñ ederrak diran zure' dendak, zeñ ederrak diran zure festak! Baña, zer da au Mariaren zeruko sarrerarekin berdintzeko? Kereisa, illuntasuna, utza.

Guazen emendik Betuliako urira. Zeukan uri au estututa Holofernes agintari gaistoak. Agintari au Asiriatik etorri zan gerralari askorekin txi-

mista sutsu baten irudira erri guziak erre, puska ta birrintzen, eta berak oña sartzen zuen leku guzietan ezan gelditzen negarra, odola ta onda-mendia beste gauzarik. Ikaratuta zeuden Betuliako semeak eta zer janik gabe gañera. Galdu zirala uste zuenean ara nun ertetzen duan uritik kan-pora Judit alargunak, bere edertasunarekin egiten du modua Holoferne-sen dendarañ sartzeko, eta lo zeguala espata batekin kentzen dio burua agintari oni, ta libratzen du erriko jente guzia eriotza errukarri batetik. Betuliako jentearen eskertasunak Juditen sarrerarako eta gero iru illabe-tian egin zituen jaiyak, nolakuak izan ete ziran? Bada Mariaren zeruko sarrerarekin berdintzeko dena da kereisa, illuntasuna, utsa.

Ikusi geinke oraindik ontzuago Erromako agintariak, gerrak irabazi ta gero, nola igotzen zuen koroetuta *kapitolio* esaten zaion mendira, urrez-ko burdian, eta beren atzetik ainbeste errege menderatuak zituela; baña, zertarako? Mariaren zerura igoerako irudi illun bat ezpada, ezpada Maria-ren zerura igoerarekin berdintzeko Jesusen igoera bera?

Eta iñor badago emen uste duanik geiegi esan dedala askenengo itzetan, nik erantzungo diot S. Pedro Damianorekin batera: «Jaso itzazu, goratu itzazu, kristauba, zure begiak eta ikusi zazu ondo Mariaren sarre-ra zeruetan; eta zuek esango dirazu eztala izan sarrera oberik, ezta J.K.rena ere, Jaungoikotasuna kendu eskero, bada J. Kristok igo zuanean aingeruak bakarrik erten zioten bidera etzegualako besterik zeruetan, baña Mariak igo zuanean erten zioten aingeruak, justuak, Patriarkak, igar-leak, martiriyak, zerutar guziak eta J. Kristok berak». Au da Eleizako gura-soen erakutzia, zeintzuek S. Anselmorekin batera dioten Jesusek igo zuala zerura Mariak baño len, *preparatu* naiyan, bere amari zion maitasunagatik, sarrera bat eta jarrileku bat bere Amaren diñakoa.

3. Jarrileku au ondo gertatua zegoala, Mariak, mundu onetako bizi-tza utzitzeko denpora etorri zitzaionean, entzungo zuan Jesusen dei gozoa, Eskritura Santuetako liburu baten irakurtzen dan bezela. «Jaiki zaite, esango zion Jesusek, jaiki zaite, nere maitia, nere ederra, nere lasta-na; utzi zazu negarrezko leku ori, legortu zazu betiko zure malko mingotza. Juan da negua, uda berrian sartu gera, zelaia usai gozozko lorez jan-tzi dira. *Jam hiems transiit*. Eztozu adituko geiago munduko aise gogor ta bildurgarriaren durundirik, atoz eta izango zera koroetua munduko eta zeruko erregiñatzat. *Veni de Líbano*.

Atoz, eta nere aita emango dizu bere alizatea; atoz, eta nik emango dizut nere jakituria; atoz, eta Espiritu Santuak emango dizu bere maita-suna. *Veni de Líbano*. Atoz, zure birtutien saria artzera eta asetzeraz gozo-tasun amaigabekuetan; naikua malko, naikua sotin ta zizpuru izan dituzu



munduan. Atoz nere ama maitea, nere laztan bedeinkatua. *Veni de Libano, veni coronaberis*».

Eta bere seme biotzekoaren dei au aditzean, jaikiko zan Maria bere obi edo sepulturatik, ta bisturik illezkorra ta argi Jaungoikozkoz betea, igotzen asi zan, bere argiarekin, bere edertasunarekin illuntzen zituala eguskia ta izarrak guztiak. Orduan bedeinkatu zuen Maria odeiak, aisiak eta izarrak; illargia bere oñetan jarri zan; iregi ziran zeruko atiak, belaunikatu ziran bere aurrian aingeru eta santuak, eta soñurik zorogarrienak entzun ziran zeruetan infernua negarrez ta orruaz zegoan bitartean.—Goi eta be, alderdi guzietan, galdaera bat bakarra aditzen zan. Zein da emakume au, añ ederra, an argitsua illuntzen dituana eguski eta izarrak? *¿Quae est ista quae progreditur quasi aurora consurgens?* Zein da emakume au, ertetzen duana mundutik, arantzasko toki legor orretatik, añ garbi, añ aberats, ainbeste apainduriz jantzia? *¿Quae est ista quae ascendit de deserto deliciis affluens?* Ete da Judit Betuliako alaba, Asiriako gerralariak goitu dituan alarguna? Eta da Ester, Asueroren ematea, bere erria atera zuana eriotza errukarritik? Ah! Da emakume guzien artian bedeinkatua, santu santa guzien artian, sortueratik garbia, emakumerik ederrena. Da gure ama maitia, jarri dana zeruetan santu guzien ta aingeru guzien gañetik. Emakume garbi guzien gañetik, zergatik Maria izan dan guziak baño garbiagoa; Eleis gizon guzien gañetik, zergatik Maria izan dan, Jesusek zerura igon eskero, Eleizaren burua; martiri guzien gañetik, zergatik Jesusen eriotzan martiri guziak baño martiriago izan zan; igarle guzien gañetik, zergatik umiltasun andiagokua izan zan; aingeru guzien gañetik, zergatik aingeruak baño santagua izan zan eta maitatu zualako Jaungoikoa ez bakarrik bere Egillea bezela, baita bere semea bezela.

4. Esagutzen dezue orain, nere a., zenbaterañoakoa dan Mariaren gloria, eta sortutakoen artean eztagola beste gloria bat gloria au bezelakorik? Esagutzen dezue emendikan Mariak zeruetan daukan alizate edo eskubidea? Mariaren alizatea! Ezingo naiz gelditu nai dedan beste Mariaren alizatea agertzen, zergatik luzetxo nua, baña itz bitan bada ere esango diskizuet gizonik andienen pensamentuak gauza onen gañean. Ara lenego Suarez eleis-gizon jakintsuak, jesuiten artian izan dan gizonik abilleneta-koak esaten duana, bein gertatuko balitz gertatu ezin leitekean gauza bat, au da: zeruko santu guziak bat eginda gauza bat eskatzea Jaungoikoari eta beste bat Ama Birjiñak eskari arren kontra, Mariaren eskabidea edo erre-gua izango litzakela aditua eta ez santu guziena. Zergatik? Ara emen arrazoa: santu guziak Jaungoikoaren serbitzariak dira bakarrik; baña Maria da

Jaungoikoaren serbitzaria ta Ama, eta Ama batek bere semearen gauzetan asko geiago al daike beste serbitzariak baño.

Orregatik erakusten digu S. Juan Damaszenok Maria dala sortutako gauza guzien jabe, *rerum omnium conditarum dominam*, au bera esaten digu S. Bernardok, S. Anselmok, S. Epifaniok eta S. Atanasiok, eta azkenez, S. Gregorio Nikomediakoak dio: *Nihil resistit tuaepotentiae, nihil repugnat tuis viribus, omnia obediunt tuo imperio, omnia tuae potestati serviunt*, eztago, Maria, gauza bat zuk ezin egin zezakianik, eztago gauza bat obedezitzen ez dizunik, gauza guziak egiten due zure agindua.— N. a.: Jaungoikoa bakarrik da Maria santa baño geiago, Jaungoikoa kendu eskero dena dago mende-
dean, bada sortu danik ezta eldu Mariaren gloriara eta Mariaren alizatera

Arrazoiarekin esan zeinkez, bada, ama maitea, nik gaur sermoi onen gaitzat artu ditudan itzak: *Beatam me dicent omnes generationes quia fecit mihi magna qui potens est*. Bedeinkatua deitzen die gisaldi danak, Jaungoiko altsuak nigan, nerekin gauza andiak egin ditualako.

5. Amaitzera nua. N. a. m.: Poztu zaiteze dendenok; bada zeruetan glori-
az beterik sartu dana; mundu guziko erregiñatzat, zeruetako erregiñatzat koroetu duen emakume ori gure ama da. Amatasun au eman zion J. Kristok kurutzearen oñetan bere eriotzako orduan. Ez dezazuela pen-
satu zerura igo dalako astuko dala negarrezko leku onetan utzi dituan semiakin, oh, ez! Mariak samin asko izan ditu munduan, negar asko egin du, eta ezta astuko neke, samin ta malko tartean gelditzen dirane-
kiñ: Mariaren zeruko sarrera da gure sarrerarako esperantzarik andiena. O gure ama, gure zaintzallea, gure esperanza! Ama errukiorra zera, bedei-
katu zazu zure jaiya ospatzera bato dan jentea ama batek semeak bedei-
katzen dituan samurtasunarekin; zaintzalle zera, gorde gaitzatzu zure mantupean fededun beti euskaldun zarrak fededunak ziran bezela; espe-
ranza zera, zukan itxerotzen degu guziok mundutikan ertetzian, betiko zoria, zein opa dizuedan guziori, A. S. E. S. izenean. Amen.



DOLORES

Zumaya

Attendite et videte si est dolor sicut dolor meus.
(Jeremias Igarlearen eskribuetan I buru eta 12 garren bersuan.)
Gelditu zaitezte, munduko bideetan zabilatzatenak,
eta begiratu zazue ete dan beste naigabe bat
nere naigabea bezelakorik.

N. a. m. Laburrak dira nere egunak. Gaur banaiz, biar ez naiz izango; gaur pulpito santu onetatik itz egitera noa, biar, emendik urte batzue-tara geienez, nere gorputza lurperatua egongo da or, nunbaiteko baste-rren batian, ta munduan nere oroimenik izango ezta. Gauza samiña da gizonarentzat, bizitzari añ eutsia egon, eta bizitzak añ laster igeztu bearra; eta samiña da gañera, gizonaren egunak añ lasterrak izanik, munduko pausurik geienetan arantzak billatu bearra; beti miñez, naigabez ta oñazez inguratua egon bearra. Mundu laburra, ta negarrezko mundua.

Zuek dakizue ondo, n. a. Zenbat urtean bizi zerate munduan? Ez asko; iñortxok ere eztu esango onezkero urte askotan bizi izan dala; bañan denok esango dezue neke asko eraman dezuela.

Ala da. Zuen gaste denpora (irudiz itz egiteagatik) igaro bazenduen, lasterka batean, zelai berde ta loratsuren bat esperanzaz bete bete, aurrez aurre ta beriala billatu dezue eremu zabal ta legor bat, nun igaro dituzuen beste egun guziak gozotasunaren gosean ta egarrin, beñere gozotasunik billatu gabe, eta orduan, orduan bakarrik iduritu zatzuez luzeak mundu onetako egunak. Au da mundua.

Benetan esaten det; kristauak ezipagiña, naikua litzateke, etzi, *gogazi* ta ezbear bat egiteko; baña Jaungoikoaren kupida santuagatik kristauak gera, kristauak benetan; eta iñoiz argaltasun bat izan badegu ere, badaki-gu jasotzen gure begiak Jaungoikoagana, eta gure begiak jasotzean nega-rrez ikusten degu gure aurrean, o pozgarria! kurutzean josita Jaungoikoa, samintasunezko Jaungoikoa, guk baño askozaz samintasun geiago era-man duan Jaungoikoa. Eta ez ori bakarrik: gure negar ta zizpururen bitar-tean, entzuten ditugu diadar triste batzuek esaten duela: *O vos omnes qui transitis per viam: attendite et videte si est dolor sicut dolor meus*. Lurreko pausue-tan negarrez zabilatzaten jenteak: gelditu zaitezte apur batean, eta begira-tu zazue ni ere, Jaungoikoaren Ama izanarren, negarrez nagola; ikusi

zazue ondo nere samiña eta esan zadazue gero ete dan beste samin bat nerea bezelakorik.

Maria gure Amaren santaren diadar triste onetan esagutzen det nai-gabe andi guztiak dauken misteriozko indarra. Naigabe andi baten ondo-an naigabe txikiak sentitzen eztira, edo sentitzen badira, arimako sokoren baten gordetzen ditugu. Orrela zuek ere, zuen samiñak gorderik, etorri zerate gure Amarenak pensatzera. Ondo egin dezue.

Mariaren naigabeak jakitera etorri zeraten eskeroan bada, *Attendite*, jarri zazue zuen adin edo entendimentuko argia ta zuen borondatearen indar guzia gaur goizeko sermoitxo onetan; *et videte* eta ikusi zazue ama onen naigabe neurrigabea, eta esan zazue gero ete dagon naigaberikan ama onena bezelakorik. *Si est dolor sicut dolor Mariae*.

Daukat asmoa, n. a., erakusteko Maria santaren naigabea izan zala munduko gizonen artean izan diranak baño askozas aundiagoa. Onetara-ko, esaguturik amodiua dala Ama onen naigabe guzien iturria, agertuko det 1º Mariak Jesusi zion maitasun garbi ta sutsua, 2º Mariak gizonentza-ko zeukan maitasun egiazkoa.

O nere ama doekabea! Eman zadazu nik esagutzea zure arimako samintasuna; eman zadazu nik sakontzea zure biotzaren erdi-erdiraño, esaguturik bear bezela zure samiña, erakutzi dezadan zure altara ingura-tzen duen aditzalleen aurrean, zuri denak sor dizuen maitasun ta errukia.

Mesede au eskatzen dizut ama maitea, eta geiago mugitzeko denok esango dizugu aingeruak esan zizun salbea. *Abe Maria*.

¡O vos omnes... etc.

N. a. m.: Arreta piska batekin begiratzen badiogu maitasunari, berea-la ikusiko degu maitetasuna dala, batzuetan atsegiñ ta gozotasun guzien iturria, eta beste batzuetan gazitasunik andienen itxasoa. Bada zer da egiasko maitasunaren eginkizuna? Maitasun egiazkoaren eginkizuna da arima birekiñ bat egitea, lokarri batekin lotuko balira bezela, borondate birekiñ bat egitea. Eztituzue esagutzen, or nunbaitean, bene benetan maite diran persona bi? Begiratu zaiezue ondo, eta ikusiko dezue egia dan edo ez nik diodana. Ikusiko dezue batarentzat samintasun ta naigabea diran gauzak samintasun ta naigabea dirala bestearentzat ere, ikusiko dezue batarentzat gozo ta pozgarria dan gauza bestearentzat ere gozo ta pozgarria dala. Orrela da egiazko maitasuna.

Eta orrela zan Maria santak Jesusentzat zeukana ere. Baña ez mun-duko maitasun naskagarrien gisan, ezipada ze garbia, zerutarra, Jaungoi-kozkoa. Zan ama baten maitasuna.



Esaten da, eta egia da, eztagola maitasun bat amak semiai diena bezelakorik. Ama on batek, nolako lanak erabiltzen dituan bere semearen osasunagatik! nolako *oarpillak* semeak apaintzeagatik! nolako nekeak bere semeak gero ondo izan ditezen! Eta semea bada bakarra, eta semea berez bada ona ta maitagarria, nork esan amak seme arrentzat dituan amodio ta samurtasunak? Eta beste aldetik, zer naigabeak amarenak semearen gaixo ta minetan! Eztezue ikusi iñoiz ama bat seme bakarraren gaisoan? Eztezue ikusi ama bat seme bakarra ia ilda dagan oe baten aurrion? O! Nola sentitzen dituan amak biotzaren erdi erdian bere semearen miñak! Nola begirutzen dion! Nola betetzen dituan semearen desiorik txikienak! Nola dagan dindilizka berak esango dituan itzetatik! Nola irakurtzen dituan bere begietan pensamentu guztiak! Nola estutzen duan bere bularraren kontra bere bizitza, bere indarra, bere espiritua, eman nai balio bezela indar, bizitza ta espiritua galtzen dijioan semeari!

Eta n. a., zer dauke ze ikusirik ama guztien maitasunak Mariak Jesusi zion maitasunarekin berdintzerako? Jesus semea, jaiotako gizon guztien ganetik zegoan gisara Maria ama ama guztien gañetik zegoan, ta Mariaren biotza samurragoa zan emakume guztien samurtasunak bat eginda baño.

Samurtasun gozo onekiñ ikusi zuan Mariak bere seme kutuna, mirariz sortua mirariz jaiotzen, zeruko aingeruan soñu pozgarrienen artean; ikusi zuan mendietako artsaiak eta urietako erregeak adoratzten zuela esaguturik munduaren salbatzalletzat; ikusi zuan asten bere aldamenen landararik mardulena bezela, jakintsu eder ta zoragarria; ikusi zuan amabi urte bakarrik zituala mututurik utzitzen gizonik jakintsuenak bere jakiturri Jaungoikozkoarekin; ikusi zuan gero erririk erri ebanjelio osasungarria zabaltzen, ta milla mirari egiten gizon askoren malkoak legortzeko; ikusi zuan azkenez gizon *aldra* andiak, hosamna! hosana! deizka triunfalaria sartu zuela Jerusalemgo urian!

Ama guztiak maitatzen baditue beuren semeak, nolanaikoak dirala, nola Mariak maitatuko zuan gorputz ta ariman ainbeste diñadi zituan semea!

Ogeta amairu urtean bizi izan zan gañera Jesusekiñ batian, etxepe batian, mai baten jaten zuela beuren janari pobrea. Milla bidar euki zuan bere magalian Jesus umea aingeruen lo gozo gozoan; milla bidar Jesus umearen eskutxoak katigatu ziran Mariaren lepoan; milla bidar estuturik elkarrekiñ lastandu ziran samurtasunik aundienean; izarrezko lokarria? Jaungoikozko milla bidar egon zan Maria gozotasunez begira Jesus umearen arpegi zoragarria.

Ta Jesus asi zanean gorputzian bada ariman ta jakiturian gelditu zan Jesus gizonik maitagarriena: bere arpegian argi Jaungoikozko bat ikusten zan; bere begiak ziran bigun, gozo ta zerutarrak; kopeta zabal, garbi jakintsuena; bere gorputz dana ondo egiña; bere ibillera diñadi ta magestade andiz betea... Lurreko amak semien erakusle eta orduan zan Jesus Mariaren maisua, Mariaren gidaria, Mariaren adiskidea, Mariaren zaintzalea; eta Jesusentzat ziran Mariaren pensamentuak, Mariaren borondatia, Mariaren amodio neurrigabeko guzti-guztia.

Ama guztiak beuren semeak maitatzen baditue nolanaikuak dirala, nola Mariak maitatuko zuan Jesus? Iduritzen zerate nolakuak izango ziran Mariak Jesusekin zeuzkan maitasunezko lokarriak? Gañera, n. a; Mariak maitatzen zuan Jesus munduko eta zeruko gauza guztien gañetik, bere Jaungoikoa bezela. Ezta au gauza erraxa entenditzen arimako gauzetara, espiritu bizitzara emana eztagonarentzat. Mariak maitatzen zuan Jesus maitasunezko iturria bezela, bere Egillea bezela, ontasun utsa bezela; zeru ederrean dauden aingeru guziak baño Jaungoikoaganako maitasun garbi ta sutsuagorekiñ gañezka zegoan Mariaren biotza; bere begiak, munduko gauza guztietatik jasoak egoten ziran beti Jaungoikoagana begira. Ondo zekian Mariak, bere sortuera garbian zerutik artu zituan jakituriakgatik, bera zala, ez bakarrik gizon baten ama, baita ere Jaungoikoaren ama. Ondo zekian Jesus zala lege zarreko irudi guztien bukaera, ainbeste Igarlek esandako Mesias, ainbeste gisaldian desiatua; Pakezko erregia, Zerua- ren jabea, Jaungoiko altsua. Ondo zekian gizontasunaren aldetik zala Jesus gizonik santuena ta Jaungoikotasunaren aldetik Irutasun santuaren bigarren Persona, Aita eta Espiritu Santuarekin berdiña, Aita eta Espiritu Santuarekin bat bakarra. Nola bada esaguturik onela zein zan Jesus, nola maitatuko zuan Maria Santak bere semea, bere Jaungoikoa? Esagutzen zualako zein zan Jesus, zeguan Maria maitasun neurrigabeko onen sutan erretzen beti, nai zualako gizon guztiak esagutzea ta maitatzea gizon añ maitagarria.

* * *

Eta orain, n. a. m.; maitasunarekin berdiña bada samintasuna, amodiua dan añan badator naigabea desgrazi batean, nolakoa izango da Mariaren naigabea Jesusen oñazeakiñ?

N. a. Mariak, zuek bezela, laster askoan igaro zituan bere gastetasuneko egun loratsuak eta sartu zan beriala samintasunezko eremu lego-



rrean, baña zuek baño eremu asko legorragoan, zergatik zan samintasunezko Jaungoikoaren amatzat ezleidea?

Bere seme Jesus jaio ta laster jaiotza miraritsu artako eztiya beastunez bete zion Simeon Igarleak Jerusalemgo tenploan. Simeon Igarle santuak agertu zion Jesusen gañera etorri bear zirala gizon gaistoan ta infernutarren persekuzio ta amorruak, eta egun artan gelditu zan eritua Mariaren biotza, orduan sartu zan Maria gazitasunik andienen itxasoan. Nola ez?

Jaungoikoak egiten diguzan mesedietatik andienetako bat bada da igaroko diran gertaera negargarri asko ez agertzea. Gure artean Jaungoikoak daki zenbat gauza errukarri, zenbat desgrazia izango diran; ilko zakuz gurasoak, anaiak, aideak; izango dira milla neke ta desgrazi gure familietan; bañan ezer eztaigun artean, oroitzen ezkeran artean, dena ikusten degu larrosa kolorezkua ta bizitzen gero paketzu alde orretatikan. Aditu zadazue nere kristauak, batez ere zuek gurasoak: esango balizuteke orain Jaungoikoak zuen seme edo alaba maiteena ilko dala biar edo etsi, eta ilko dala urkamendi batean, nolako larritasun ta naigabea sentituko zenduteke? Bada ori berori agertu bazion Simeonek Jerusalemgo Eleizan Maria Santari, agertu bazion zuen guzioen maitasuna bat eginda baño askozaz amodio geiagorekin, maite zuan seme bakarra, milla farre ta burla egin da gero illko ziuela gaizkille baten gizan lapur biren erdian, nork esan, nork entenditu ama onen samin ta naigabea?

Egun artatik aurrera Mariaren bizitza eriotza izan da: bere oroimenetik ezin izan du kendu iñotara ere Jesusen asken errukarria, eta Jesusék ematen ziozkan gozotasunak beastunez beterik billatzen oi zituan, zergatik oroitzen zitzaiozkan Jesus maite maitearen umillera ta eramanbiar negargarriak ta gizon maite maitearen eskergabetasun ta galdumendiko bideak. Egia zan Simeon santuaren esana bai, egia zan: igo ditu Mariak, igo ditu banan banan, samintasunezko tronura dauden zazpi mallak; igo du Kalbarioko mendira ta or goian jarri du bere tronua, goian mundu guziak ikusi dezan; or urratu zaio osoosoan bere biotz samurra; or dago martiri guzien erregiñatzat koroetua, esanaz munduari: *O vos omnes*. etc. Lurreko bidetan negarrez zabiltzatenak: ikusi zazue ote dan beste naigabe bat nere naigabea bezelakorik.

N. a. m.: Iruditu zazue Kalbarioko mendia; jaso zazuez lurretik goruntz, zeruruntz, begiratu zazue mendi orren gañ gañera ta ikusi zazue ondo naigaberaren tronoa. Ezta urre, zillar edo marfillez egina; lurrezkoa da, lur odolduarekiñ egiña; eztago jarrita Maria santa, zergatik bere tronua ezta deskantzuzkoa, nekezkoa baizik; zeru goibelaren azpian iru

arbola agiri dira, iru kurutze, ta erdiko kurutzean besuak zabal zabalik, Mariaren tronua eztaldu nai balu bezela, gauza guzien Egillea, zeru ta lurraren jabea, ni instante onetan sentitzen nauan Jaungoikoa, Mariaren seme laztan bakarra dago, il da!... *O vos, omnes qui transitis per viam, attendite...* etc. Lurrean negarrez zabiltzatenok, zuen neketxoak ezin pazienzian eramanik zabiltzatenok, ikusi zazue zer dan zuen naigabea Mariarenaren aldamenian.

Baña zertara jun da Maria bere semearen urkamendi orretara? Zertara? Askenengo tantoraño samintasunezko beastunak iruntzitza. Eta ondo iruntzi ditu.

Urkamendian iltzen diranen gurasoak, ez bakarrik eztira juten semea iltzen duen tokira, ezpada ze igez egiten due erritik ere eldu etzedin beuren belarrietara tanborraren zarata girogalea edo il kanpaien dei tristea, Zer diot?, geienetan etsaie ematen iltzeko sentenziaren berri, eta gerora, noizbatean, piskaka piskaka ematen zaie il berria. Baña ezta orrela Maria; Mariak dena jakin du batera: jakin du Jesus saldu duala bere ikasle batek; lotuta eraman duela; Pedrok berak ukatu duala; bost milla sartada ta geiagoko artu dituala; arantzasko koro batek itxusitu duala Jesusen arpegia, iltzera daramela; ta jaikitzen da bere bakartadetik; infernutarren garrasi t'uluen artean pasatzen ditu Jerusalemgo kaleak bildur gabe; sartzen da borraru ikaragarri guzien erdian; jarraitzen dio bere semearen odol tantoak erakusten diuen bideari mendi tontorreraño; ikusten du nola kentzen diuen Jesusi bere jantzia berritatzen zaizkola eritasun ikaragarriak; ikusten du, samiñez mututurik, borraru gogor aiek jozten duela Jesus kurutzian egur igarra balitz bezela; ikusten du jasotzen duela kurutzian, eta andikan kurutzian gañetikan, ia illian dagola *Sitio* esaten duala bere semeak, *Sitio*, egarri izugarri bat daukat, agoniako egarria; nai luke orduan urtu bere biotza eta edaten eman bere semeari egarri ura kentzeko, baña ezin leike; ikusten du, bere semeak, agonian, eztaukala nun deskantzatu arantzaz josirik daukan burua... Eta...

O gurasuak, gurasuak: nik eztaikit zer esan, iik estakit zueri galdeetzen baizik zer dan orduko Mariaren samiña: nik sentitzen det biotzean estutasun larri bat, baña uste det zuek esagutu bear dezuela obeto zer dan ikustea, iltzen seme bat laguntasunik eman ezinda!, eta iltzen, santua izanik, urkamendi baten, gaizkillea bezela, lapur biren erdian, larru gorrian, mundu guziaren farre eta burleen artian. Beste iskuntza bat nai nuke nik, aingeruen iskuntza, negarrezko iskuntza, negargarri au aditzen emateko, zergatik gizonaren itzakin ezin esan lezake.



O zabal ta gasia da itxasoa; beltza ta bildurgarria' zerua neguko ekaitz denporako gaberdian, aise indartsuaren soñu tristea ta trumoi gogorraren burrunbada sentitzen danean; bildurgarria da batez ere eriotzako ordua; baña ama onen gazitasunen aldamenian ezta gazia itxasoa; ezta illuna ekaitz denporako gaba; ezta larria eriotzako ordua bera.

Jesus il danian Mariarentzat mundua utzik gelditu da bada beretzat dana zan Jesus ta Jesus bakarrik. Jesus ill ezkeru eztago ezer bere biotza betetzeko *Non est qui consoletur eam ex omnibus caris ejus*. Negarrez gelditu zan Jakob bere seme Jose galdu zitzaiolako, baña an gelditu zitzaion Benjamin bere malkoak legortzeko. Israelarrak negar egin zuan Moises il zanean, baña bazuen Josue bat Moisesen ordeazko. Mariak eztauka one-lako pozik: galdu du seme bat, seme bakarra, seme kutuna, seme lastana, seme Jaungoikoa... eta ez dauka geiago konsuelorik. *Non est qui consoletur eam*. Egia da, bere Jesusen S. Juan eman dio semetzat, baña S. Juanek ezin lezake bete Jesusen lekua. Eguzkia betiko itzaliko balitz, nola zeru urdiñeko izartxo batek bakarrik argi egingo lioke munduari gau illun illunean?

Baña S. Juanekin batera etzaizka or gelditzen gizonak Mariari bere konsuelorako. Ez al ditu maita? Maita? Ojala maitatuko ezpalitu! Obeto izango litzateke Mariarentzat.— Maita ez? Aditu zazuez itz bi bada ere. Jaungoikoari sor diogun maitasuna dago bat egiñik projimoari sor diogun maitasunarekin, añ modutan ze esan giñaike Jaungoikoa maitatzen eztuana eztuala maitatzen projimoa, ta projimoa maitatzen eztuana eztuala maitatzen Jaungoikoa bear bezela. Eta izan da iñor ez zeruan eta ez lurrean Jaungoikoa maitatu duanikan Mariak bezela? Ez? Bada orduan ezta ere izan jaiotakoen artean Mariak bezela projimoa, gizona maitatu duanikan. Maitatu ez? Ainbesterañokoa da Mariak gizonagana daukan amodiua eze, Aita zerukoaren irudira, eskeñi du Mariak bere erraietako semearen eriotza munduaren salbaziorako. Maitasunaren señaile geiago bear da? Gañera kurutzearen oñetan dagola Jesusen españetatik dindilizka, entzun ditu Jesusen kurutzetik esan diozkan itzak: *Mulier, ecce filius tuus*. Emakumea, ara or zure semeak, eta nola Jesusen borondatea zan Mariaren borondatea, nola Jesusen itzak ziran Mariarentzat legeak, instante artan ditu Mariak gizon guztiak bere semetzat, eta Mariak badaki gurasoak semeai sor diuen maitasuna.

Bañan, zer egiten due seme abek bere amaren biotza poztutzeko? Zer? Mariak ikusi ditu bere begiekiñ seme oiek berok nola eraman duen Jesus urkamendira arrastaka, ikusi ditu Jesus lastana kurutzian josten gogortasunik andienarekiñ, ikusi ditu Jesusi, agoniako egarrian, ospiña ta

beastuna ematen, ikusi ditu Jesusen bere semetzat eman diozkan orduan bertan Jesusen odolarekiñ mantxatuak! Jesusen odolarekiñ!

Konsolatuko litzateke iñor semea il diuen gizona semetzat emango baliueke? Eta ezta askozaz gogorragoa; ezta milla bidar negargarriagoa borrreru ori ez gorrotatzea, gizonak egingo luken bezela, ezpada borrreru ori maitatzea?

Zenik sakonduko du bear bezela Mariaren biotza! S. Anselmok bere jakituri guziakin, konsiderazio onen gañean gauza bat bakarrik daki esaten, au da: Mariaren samiña martiri guzien oñazeak baño andiagua izan zala. S. Bernardinok berriz esan zuan: Mariak sufritu zuan naigabea jente guzien artean zatituko balitz, jente danak ilko litzakezala miñaren miñez. Sto. Tomasek dio: Mariaren samiña izan zala munduan sufritu leitekean samiñik andiena. Azkenez, Ebangelistak beurrak, Kalbarioko mendian gertatu zan negargarria esatean, itz bat bakarrik dauke Mariaren naigabea esateko: *Stabat*. An zegoan.

Badira gauza batzuk gure biotzak sentitzen dituanak, baña mingaño ezin esan dituanak: *Stabat* esaten du Ebangelio santuak: or dago. An zegoan. Bai, an zegoan Maria bere maitasunezko iturri biak egin duen samiñezko itxasoaren erdian.

Alde batetik an dauka Jesus, bere semea, bere Jaungoikoa ilda dago. Eta bera da Jesusen Ama; beste aldetik an daude borrreruak, farrez eta burlaz, eta bera da gizon aien ama: il danaren ama; borrreruen ama.

Eta, n. a. m., naigabe onen aurrian, ikusirikan guri zigun amodiua-gatik dala, nor errukituko ezta biotzikan badauka beintzat? Samintasun ta naigabeak berez du misteriozko indarra gizonik otzena berotzeko, biotzik gogorrera biguntzeko, bururik arroenak makurtzeko; añ modutan eze naigabe andi baten aurrean eztago beñere gizon arrorik, eztago bular ta biotz gogorrik, eztago etsairik ere; ta zenbat eta andiagoa naigabea, ainbat eta andiagoa da errukia. Zuek, n. a., dakizue egia dala esaten dedana, zuek egon zerate naigabearen aurrian makurtuak ta negarrez. Nola bada zaudete emen añ otz ta gogorak? Nola zaudete zuen buruak makurtu gabe? Belauniko mundu guztia! Kristauak, belauniko!

O parkatu zadazue gogorreki banago! Nor txoratzen ezta naigabe onen aurrian? Badakit, n. a. m.: zuek etorri zerate Mariari bere naigabietan laguntzeko asmoan errukiz beterian. Ondo egin dezue, bada, iñoren naigabeak merezi badue errukia, merezi due Mariarenak. Baña ezta naikua errukitzea; eztira Mariaren samiñak amaituko errukiarekin bakarrik: inola amaituko dira Mariaren samiñak ikusten duanean guk, bere semeak, eramaten degula bere irudira Jaungoikoak bakoitzari ematen digun kuru-



tzea; ikusten duanean maitatzen degula Jesus, bere irudira; eta maitatzen degulako apartatzen gerala Jesusi sentimentua ematen diuen gauzetatik. Itz batean, amaituko dira Mariaren naigabeak, apartatzen geranian pekatutik, bada pekatua da berriz Jesus kurutzean josten duana. Onela legortuko dira Mariaren malkoak; zergatik izango dan erruki au Maria eta Jesusi sor diogun maitasunaren iturrikoa.

O gure ama maitasunezko ta errukizko ama. Legortu itzazu zure malkoak. Zugana gatoz konfianzaz beterik zure semeak maitasunaren billa, gure pekatuakgatik oso damutuak. Argalak gera ta ezerezak zeruko argitan laguntasun gabe: lagundu zaiguzu zeruan gaur daukazun aginbide orrekin. O! gure eriotzako ordu larri artan, zure seme Jesusen irudi santua gure eskuetan ezin idukirik, iñork gure españetan ipintzen digun orduan, naiko degu, ama maitea! zure seme Jesusen eta zure laguntza. Orregatik laguntzen dizugu orain, orregatik nai degu orain negar egin gure pekatuakgatik, gero poz ta atsegiña izan dezagun betikotasun amagabea. Amen.

ANIMAS

POR

D. de A.

(Urrestilla — 1894 y Zumaya 1896)

Sancta et salubris est cogitatio pro defunctis exorare, ut á peccatis solvantur.

Santua ta osasungarria da il diranak gatik erregutzea
beuren sorretatik libratuak izan ditezen.

(Makabeotarren liburuan, 22 garren buru eta 46 garren bersuan.)

N. a. biotzekoak: Badakizue zer dan kereiza, itzala edo añoa? Bada itzal bat baten edo kereiza baten itzak aditzen zaudete. Ni naiz kereiza bat, nere itzak kereiza edo año baten itzak dira. Ikusten nazue pulpito santu onetan gaur? Bada laster, oso laster, zergatik munduko egun guztiak oso lasterrak diran, nere gorputza lurperatua egongo da or nunbaiteko basterren batean, ta munduan nere oroimenik izango ezta.

¿Quid est homo? Zer dira gizonaren egunik luzeenak betikotasun neurrigabekoaren aldamenian jartzen badira? Egund labur bateko orduak bezela, iñoiz entzun dezuen izen bat bezela, aizearen soñua bezela, kereiza. Laster asko nere azken eguna etorriko da, esagunen artean iltzen banaiz, nire ilberriko kanpaian dilin dolon tristea aditzean, *aita guriaren* batzuek erresatuko dira nere arimagatik; lagun egiazkorik badet, negar malkoren batzuk ixurtzea izan liteke nere eriotzan, bañan askar legortuko dira malkoak, ixilduko dira kanpaiak, nere lagunak jungo dira bakoitza bere lanetara, ta nere gorputza an geldituko da lurpean bakarrik. Nere izena astuko da beriala, eta ondorengo jenteak nere oroimenik eztue izango: kereiza nintzan. *Pulvus, cinis, nihil.*

¿Quid est homo? Zer da gizona?... Ez naiz aspertzen pensamentu abek nere buruan erabiltzen, ta ez naiz ere aspertzen da n. aditzalleai onela itz egiten, zergatik au dan pensamenturik osasungarriena. Bada nerekin gertatuko dana...

Eta nerekin gertatzen dana, o n. a. m.!, nerekin gertatzen dana izango da zuekin ere. Begiratzen det eleiza onetako basterretara, eta ikusten zaituet gizon ta emakume gaste ta osasunez beterik zaudeten asko, baña badakit zuen kontra sententzia gogor bat emana dagola, badakit jarraitzen dizuela beti, pausurik pausu, egunez ta gabaz zuen etsai bildurgarri batek; eriotzak. Badakit ziartu emendik eun urtera, eta zer dira eun urte? zuek



zaudeten tokietan egongo dirala beste jente batzuek, orain bizi eztiranak, zuen oroimenik izango eztutenak; ta nere tokian, orain arteko oitura onak jarraitzen badue beintzat, beste predikatzalle bat, orain bizi eztana. Zuek eta ni ordurako astu giñan.

Bañan, o Jesukristo Jaungoikoaren religio santu ta beneragarria! zuk oroituko gaituzu mundua mundu dan artean, zuk erregutuko dezu gure arimakgatik. Gaur nik esango dizuedan gisara, n. a., gure gizaldia eta beste gizaldi asko pasatutakoan ere, igoko da pulpitu onetara beste egunetako sazerdotea eta esango diyue orduko jentiai gaur nik zueri esaten dizuedana: *sancta et salubris est cogitatio pro defunctis exorare ut á peccatis solvantur*. Oroitu zaitezte il diranekin: santua ta osasungarria da il diranakgatik erregutzea. Eskergabetasuna griña gaisto bat da; oroitu zaitezte kristau guziekin, bada kristauak zerate; oroitu zaitezte batez ere zueri ainbeste mesede egindako erritar, auso, esagun, adiskide, guraso, seme, anai ta beste aidea-kiñ. Il ziran: beren gorputza lurrak jana dago, bañan arima egon leiteke Purgatorio santuan zuen oraziuen zai zeruratzeko.

N. a., zuek mugitzeagatik Arimen errukira esango ditut, itzaldi laburtxo batean, *Arimak Purgatorio edo Garbitokian dauzkaten pena edo samintasun negargarriak, ta zuekgandikan dauken esperanza*.

Bear bezela egi au erakusteko zeruetako grazia bear det, eta grazi au Espiritu Santuagandik jaristeko, esan daiogun guziok gure Ama maiteari *Abe Maria* bana.

Sancta et salubris... etc. (Esan ditudan liburu eta tokiko itzak.)

N. a. m.: Badezue Job santuaren berririk? Zan Job santua lege zarreko gizon bat, oso Jaungoikozkoa, aberastasunez betea, biotz samurrekoa ta oiturarik onenetakoa, maitagarria ta Jaungoikoak maitatzen zuana. Seme askoren aita zan, morroi askoren naguzia, talde ugarien jabea. Atsegin ta gozotasunez inguratua bizi zan semien maitasunarekin ta morroiak errespetorik andienarekin serbitzen zuela.

Egun batean Jaungoikoaren zigorrak ikutu zion bere birtuteak probatzeagatik, eta, bat batera, erori zan bere gozotasunezko jarrilekutik samintasunaren beren berengo sakoneraño. Erre ziozkaten bere aziendak eri bere morroiak, ill bere semeak; gaixotu zan gaixorik naskagarrienarekin, bada bere gorputza legendarrez, zauriz ta arrez bete zitzaion; atera zuen bere etxetik kanpora, adiskiderik andienak erabaki oker bat eman zuen bere kontra, iñazkiñatu zuan bere emasteak ere,... ta azkenez ikusi zuan bere burua bagaztegi batean tella zati baten laguntzarekin bakarrik bere gorputzeko zauri ta arrak zatika kentzeko.

Gizon errukarria! Etzerate, n. a., samurtu gizon orren istori edo kondaira iñoiz aditzean beste askoren neke ta miñak aditzean bezela? Bada gizon orren istori ta naigabeak Purgatorioko arimen neke ta naigabeen iruditxo bat baño eztira. Purgatorio santuan dauden arimak, lurrean bizi ziran artean ere, anima Jaungoikozkoak ziran, Jaungoikoaren adiskideak ziran Job bezela, mundu onetatik batere pekatu ilkor edo mortal gabe jun ziran; baña gizonaren argaltasunak berakiñ daramazkian pekatu benial edo mantxa txikiren batzuk bazituen, ta nola zeruetan ezin leitekean sartu orbanik txikiena duan arima, orregatik daude Garbitokian, beren orban edo mantxa guzietatik oso osoan garbitu arte.

O! Eta nolako miñ, nolako neke, nolako oñazeakiñ! Job santuaren mingaña nai nuke oraiñ, Salomonen jakituria, aingeruen iskuntza, biotzaren erdi erdiko naigaberik negargarriena agertzeko. Bañan ez, eztira naikoa Job santuaren mingaña ta Salomonen jakituria, eta askozas gutxiago izango da nere moteltasuna arimen naigabeak aditzen emateko.

Anima, denok dakizue, Jaungoikuak egiña da ta Jaungoikuak bereztat egiña. Egastiak aidean egan ibiltzeko bezela, itxasoko arraiak itxasotan bizi izateko bezela, goitik bera botatzen dan arria lurrera erortzeko bezela, animak Jaun Egillearen kolkoan erortzeko ta Jaun Egillearen barruan bizi izateko egiñak dira. *Fecisti nos, Dómine, ad te*. Mundu onetan anima gorputz sakarraren barruan dagon bitartean, ezta zentitzen ainbestean Jaungoikoak gu beraganatzeko daukan indarra ta animak Jaunganako daukan *ansia*; bañan megope edo ispiritua libratzen danean gorputz lurrezkoaren presondegitik, an dijoa nai ta nai ez bezela bere Jaungoikagana kaiola irikita billatu duan txoria bere kabia egin zuan mendi aldera igestzen dan baño gozaroago.

Iduritu zaitezte orain Purgatorioko animak gorputz gabeak daudela Jaunaganako ansiarekiñ ta Jaunagana jua eziñik; iruditut zaitezte, beti, lurrean ere Jaungoikua maitatu bazuen, gaur, askozas geiago maitatzen duela, askozas obeto esagutzen duelako; pensatu zazue maitasunez beteak daudela, maitasunez gañezka..., maitasunez iltzen; izate bat gorputz gabea, pensamentu utza (aditu zadazute ondo), pensamentu utza ta pensamentu bakarrekkoa, maitasunezko pensamentua, maitasunezko gogoia; eta jakin zazue gero maitasun orrek ezin duala bete iñortara ere bere maitasunezko egarria, ezin duala bete bere desio bakarra, ezin duala ikusi bere maitea. Aditzen dezue nolabait izate errukarri orren naigabea? Bada orrela daude Garbitokiko arimak. Jaungoikuaganako maitasunez gañezka, maitasunez iltzen; eztauke beste pensamenturikan gorputzaren lokarrie-



tatik desegin ziran eskero; eztauke beste desiorik, eta desio ori ezin bete due beñere.

Geiago oraindik. Naigabe andia da arima gaixuak bere desio bakar ta indartsuena ezin beterik egotea, beti larritasun andi batean, beti zeruruntz begira, beti Jaungoikoagan pensatzen; beti ikusi naian Jaun Egillea, Salbatzallea, gurasorik onena, maixurik jakintsuena, adiskiderik maitena; betiko poza, betiko pakea, biotz biotzeko gozotasuna, arima arimako eztiya; eta ezin ikusirik beti; bañan askozaz naigabe andiagoa da arimentzat, jakitea Jaungoikoak eztiela nai begiratu, Jaungoikuak beragandik apartatzen dituala, arimen maitasunezko diadarrai erantzuten diela bere beso altsuko kastigurik gogorrenarekin. O ze minkaitzasuna Garbitokiko arimentzat!

N. a.: Pentzatu zazue zenbaterenokoa izango dan samintasun au. Maitasunaren gose-egarriz beteta, eta maitetasunagandik gorrotoaren señaileak ikusten dituela beti. Gauza abek eztira beñ adituarekin ondo ikasten diranak; erabilli zazuez or zuen buruetan, nolabait ententitzeko arimen naigabea.

Orrezaz gañera ere badue Purgatorioko arimak beste miñ bat, beste oñaze bat negargarria: Garbitokiko su-garraren kiskaltzea. Bearbada oñaze onek geiago mugituko zaitue, n. a., baña sentimentu andi bat daukat lurreko ejenplu batzuk baño besterik ezingo ditudalako esan; eta munduan miñ ematen duen gauzetatik Purgatorioko miñetara lurretik zerura baño alde geiago dago, ezizatek izatera beste. Entzun zazue zerbait.

Iltzea berez da gauza bildurgarria; eztago iñortxo ere eriotzaren aurrean billurtzen eztanikan. Eta eriotza jenero edo mueta guzien artean, etxekoen ondoan oian iltzea da biguntxoena, berez gogorra bada ere; bada askozas txarragotzat euki oi da kanpoetan laguntasun gabe iltzea, eta txarrenentzat piskaka ta piskaka miñen minez ezin illik egotea. Eta zer izango daugarrik gogorrenen erdian beti iltzen bezela egotia beñere il gabe, ez ordubetian, ez egun batian, ezpada, menturaz urte askoetan? Bada ori berori da Purgatorioan gertatzen dana: an daude arimak miñaren miñez beti iltzen beñere il gabe, beti kiskaltzen beñere kiskaldu gabe.

Ta nolako surtan? Ezin neikizue esan bear bezela, baña begira dezagun lur onetan ikusten degun sua, eta ortik esagutuko degu zerbait nolakoa dan Purgatoriokoa. Lurrean ikusten degun suaren indarrak kiskaltzen ditu landararik ederrenak, arbolarik andienak, mendirik zabalena; suaren indarrak botatzen ditu bera gizonak egindako etxerik ermoenak; suaren indarrak biurtzen ditu arriak kare, ta urtutzen ditu burnirik gogorrenak; lurrean ikusten degun suaren indarrak aidatzen ditu mendiak ta zapaltzen

ditu inguruetako erriak; lur azpian dagoan suagatik, jakintsu batzuek diotenez, izaten dira lur ikarra bildurgarri asko, eta, azkenez, urak berak, baldin sua menderatu naian ikutzen badio, laño biurturik igeztu bear izaten du surtatik. Ainbesterañokoa da lurrean ikusten degun suaren indarra.

Ta orrelakoa da Garbitokiko sua? A, ez!; milla ta milla aldiz gogorragoa, milla ta milla aldiz indartsuagoa. Batu al balitzatekez munduan izan diran su guztien indarrak ta egin su bat naikua itxas guztiak legortu ta mundu guzia kiskaltzeko ere, oraindik ezin giñake esan Purgatorioan arima bakoitzak orrelako sua daukala. Ez, Purgatorioan arima bakoitzak dauka su bat askozaz gogorragoa oraindik. N. a., nork esan lezake arima errukarri aien oñaze ta miña?

Alperrik gizonik jakintsuenak, estuturik beuren adiñ edo ententimentu argiak, nai izan due aditzen eman zenbaterañokoa dan Purgatorioko oñazea; alperrik. Oroitu zaitezte gauzarik bildurgarrienakin: martiri santuak eraman zituen neke guziak, presondegiatako gizon gaizkiñak daramazkitenak, parrilletan erretzeak, zatika, zatika gizona ebakitzeak, berun urtua edaten emateak, biatz ta atzazkalen bitartean orratz gogorra sartzeak; gizonak asmatu leikezan gauzarik ikaragarrienak utzak dira Purgatorioko arimen naigabearen aurrian. *Ille purgatorius ignis durior est quam quidquid in hoc saeculo possit videri*: Onela dio San Agustiñek. Eta S. Zirilo Jerusalemgoak berriz esaten du: «Munduko naigabe, oñaze ta samintasun guziak bat egiñik, berdindu nai badira Purgatorioko nekerik txikienarekin, mundu guziko neke guziak gozotasunak dirala». O negargarria Purgatorioko arimen estadia! Zer da Job santuaren oñazea arimen gaixo aben oñazearekin berdintzeko?

Eta, badakizue, a., zer dan Purgatorioko arima errukarrien esperantza? Arima gaixo aien esperanza da kristandadea dan artean ezjala faltako munduan karidadea, eta karidadeak pagatuko dituala beurak Jaungoikoagan dauzken sorrak orazio ta beste sufrajiuen bitartez. Orregatik natorkizue esatera Eleiza santaren izenean: *Santa et salubris est cogitatio pro defunctis exorare ut a peccatis solvantur*. Santua ta osasungarria da il diranakgatik erregutzea beren pekatuen sorra pagatzeko. Karidadea da, ta karidaderik andiena, Purgatorioko animakgatik erregutzea.

Eta, badakizue gañera egon leitezkelat Purgatorioan zuen adiskideak, zuen lagunak, zuen anaiak, zuen gurasoak, zuen semeak? Orrela izan bada, n. a., zenbat diadar triste egingo zizuen il ziranetik gaur arteraño! *¡Miserémini mei saltem vos amici mei!* Errukitu zaitezte nizaz batez ere zuek nere adiskidiak!



Il ziranean, oroitzen zerate? il ziranean bataren senarra edo bestea-
ren semea; an, zuen etxeko gelatxoan ikusi zenduenean azkenengo arna-
sa ematen; ikusi zenduenean maitxo baten gañean bere gorputza illotzik;
sentitu zenduenean apaiz jaunaren erresu santuekin batera etxetik kanpo-
ra zaramela, zer egingo zenduen instante artan semeari edo senarrari bizi-
tza ta osasuna emateagatik? Zer egingo zenduen? Zergatik bada zuen ora-
zio, limosna, komunio, mesa eta beste sufrajioen bitartez betiko bizitza
eman alizan da, zergatik eman eztiozue?

Nolakuak ziran orduan zuen negarrak? Eztizuet esan nai galde one-
kin gezurrezko negarrak zirala, ez. Gezurrezko naigabeak badira: askotan
neronek ikusi izan det, arpegira begiratuarekin bakarrik, *sentitzen det* esa-
ten ziran personaren batek gezurra esaten zirala; bañan negarra, biotzeko
iskuntza, beñere ezta gezurra; mingañoak esaten ditu gezurrak, ez biotzak.
Esan dezela nai duena, eztu gezurretan negar egiten emasteak senarra il
zaion orduan; eztu beñere gezurretan negar egiten semea edo alaba il
zaion gurasoak. Dago gaitza gizonaren biotza mudakorra izatean, gaur
pena dana biar ez pena izatean.

Orregatik Eleiza santak berriztatzen ditu bere erakutziak, orregatik
eleiza onetan ere urteoro esaten zatzue «oroitu zaitezte Purgatorioko
animekiñ, batez ere erritarrekin, zuen etxeetan il ziranekin, bada, mentu-
raz, zuen bearrean egongo dira». Il ziranean esaten bazenduen etzendue-
la beñere astuko aien oroimena, nola aztu dezue añ laster? Il ziranean
bizitza emateagatik egingo bazenduen edozer gauza, zergatik egingo
bazenduen edozer gauza, zergatik oraiñ egiten etzezue al dezuen guzia
betiko bizitza ta betiko zoriona emateagatik?

Badakit, n. a., biotz onekuak zeratena eta beti prest zaudetena mese-
de bat edozeñi egiteko, nola bada egingo eztiozue mesede andi bat Pur-
gatorioko arima bedeinkatuai? Badakit edozeñi pena ta naigaberen
aurrian errukitzen zeratena, nola bada errukituko etzerate neke, naigabe
ta oñazerik andienen aurrean?

Oroitu zaitezte gañera zuek ere bearrean izango zeratela; gaur beste
batzuekgatik erresatzen badezue, biar zuekgatik erresatu bearko da, bada
ni bezela badakizue zuek ere zer zeraten: kereiza, añoa utza. *Pulvus, cinis,*
nihil.

Eleiza onetatik erten baño lenago, biotz guzietatik erten dedilla ora-
zio bat Jaungoikoagana Purgatorioko arimen alde, O gure Jaun eta Jaun-
goikoa! Betikotasuneko argi ederra zera, argi egin zaiezu Purgatorioko
arima gaizuei. Erregutzen dizugu, Jauna, ez arimak oso gaitzik gabeak
diralako, ezpada zu miserikordiaz betia zeralako. *Quia pius es.* Erregutzen

dizugu, ez arimak oraindik merezi duelako, ezpada santu guzien, zure
Ama maitearen eta altara orretan eskeintzen dan zure odolaren merezi-
mentuakgatik. *Quia pius es.* Jauna, gure gurasoak, gure anaiak, gure aide
guziak, zure biotz miserikordiaz beteagatik, glorian izan ditezela. *Requies-*
cant in pace. Amen.

Nere aditzalle maite zumaiaarrak: Biotzaren erdiko naigabearekiñ
esaten dizuet: «Nere kontra sentenzi gogor bat emana dago: justizi zuzen
r'egiazko batek kastigatzen nau. Banabill or ta emen; kaleetan ziar pasa-
tzen naizenean etzait esagutzen nere barruko naigabea; baña nere gela-
txuan edo eleiz txokorrean gauza onen gañian pensatzen dedan bakoit-
tzean estutasun ta bildur andiak pasatzen ditut. Eta, zer da sentenzia?
Iltzea, eriotza. Eta, noiz beteko da? Biar edo etzi, edo urte bete barruan,
noiz eztakit; baña laster. Ai! Zer dira nere egunak betikotasun neurriga-
bearen aldemenen jartzen baditut? Egun labur bateko orduak bezela;
iñoiz entzun degun izen bat bezela, aizearen soñua bezela; laño bat, kerei-
za, utza. *Pulvus.* Nere gorputza oso laster lurperatua egongo da or nun-
baiteko basterren batian eta munduan nere oroimenik izango ezta. Geie-
nez, nere eriotzako sentenzia betetzen danian, esagunen artean iltzen
banaiz.



INMACULADA

Muy primitivo, muy malo y muy en borrón.

Benedicta tu in mulieribus.
Bedeinkatua zera andre guzien artian
(S. Lukas ebangelistaren itzak,
1 buru ta 28 garren bersotik artuak.

N. a. m: Zeñ eder ta ikusgarria izango zan, n. a., munduaren asiera! Jaungoikoak, bere Altsutasun neurrigabearekiñ, sortu zuan argia, egin zituan zeruak, bete zituan izarrez, apaindu zituan Eguski ta illargiarekiñ, batu zituan itxasuak, atera zituan ezerezetik arraiñ, abere, egasti ta pistija mueta danak, eta azkenez sortu zuan bere irudira gizona egintza guzien erregetzat. Zeñ eder ta ikusgarria izango zan gauza guztien sortuera au!

Gizon erregea jarri zuan baratz alai loretsu batean, antxen bizi izan zediñ paketsu ta gozoro bere Jaun Egillea bedeinkaturikan; baña, eziñ eramane gizonaren ondo izatea, ara nun, antxiñako gaizkiñ deabrua sartzen dan baratza artan poliki, poliki; dijoa emakumiagana, eta biguñ ta estitsu, engañatu nai danian oi dan bezela, esaten dio erakutzirik baratzan zeguan arbola bat: «Zergatikan jaten eztezu arbola onetatik?» Emakuneak erantzuten du: Jaungoikuak galerazi digulako. «Etzaitezte izan txoruak, jarraitzen du gaizkiñak, badakizue zergatikan eztuan nai zuen Egilleak arbola orretatik zuek jatea? Bera beste izan etzaitezten». Eta modu onetan engañaturik lenengo gurasoak, faltatzen due Jaunaren kontra, eta egun alai, gozatsu ta pakez beteak biurtzen dira gau illun, itzaltsu ta izugarrian. Galdu zan gizona, ta bere ondorengo guziak galdu ziran.

Baña Jaungoiko Egilleak bere irudira sortu zuan izaterik maiteena ezin zuan ikusi deabruaren mendean, eta pensatu zuan *Bera gizon egitea* Luzifer engañatzalea menderatzeko; eta egun pozgarri baten, goizaldean mendi gañetatik irtetzen dan eguski erraño argia bezela, agertzen da mundura, Aingerurik ederrena baño ederrago, emakume bat, gizonaren laguntza gabe sortua, garbia, orban edo mantxarrik izpirik gabe, Jaungoikuaren graziaz ta miragarritzko apainduriz betea.

Zan emakume au Maria txit santa Jaungoikuaren amatzat betikotasunetik aukeratua. Ara itz bitan esanda, ainbeste bidar aditu dezuen istoria edo kondaira konsolagarri au.

Eztaukat esan bearrik, n. a. m., Mariaren sortuera garbia erakusteko, arrasoi bat bakarra kristauen artean naiz, fededunen artean itz egiten det, naikua da jakitea fedeko gauza dala, naikua da jakitea izan zala aukeratua betikotasunean Jaungoikuaren amatzat. Nola izan zeikian pekatuan sortua pekatua añbestean gorrotatzen duan Jaungoikuaren Ama? Nola izan zeitekian pekatuan sortua, pekatuaren arrasa mundutik kentzeko jaiotzen Garbitasunaren Ama.

Maria zan garbi ta graziaz betia bere sortueratikan. Gauza onen gañean lenago emen bertan itzegiña naizalako, ta esagututzat emanik, gaur nai nizuteke erakutzi Maria izan zala sortua munduko osasungarritzat, guri erakusteko, beste birtutien artian batez ere garbitasun ta umiltasuna.

Lagundu zadazue, n. k., onetarako biar dedan grazia Jaungoiko gure Jaunagandik jaristen, eta eskatu zaiogun Mariaren bitartez, esanaz *Abe Maria* bana.

Benedicta tu in mulieribus.

1. Beti ta toki guztietan izan dira gizonak bizitza garbi ta onaren zaleak, naiz ta berak izan ez indarririk garbitasunezko bizitza ederrerako. Judeatarak, Egiptoko jenteak, Persiakoak, Indietakoak, Grezia ta Erromatarak gauza onragarritzat zeukaten garbitasuna, Birjiña izatea. Sokrates batek erakutzi zuan birjiña ziranen bizitza orduan Jaungoikotzat zeukaten izate gezurrezkoena beste bazala; Zizeron batek esaten zuan, Jaungoikoa onratzen eleizan bizi biar zutenentzat txit zala gauza egokia biotz eta itz garbiko jenteak izatea; eta Erroman bertan, Jaungoiko gezurrezkoentzat jai andiak egiten ziran denboran, batzen zituen gaste jente garbiak, aien eleiz edo tenploetan kantatzeko, bada *merito* anditzat zeukaten gaste aien garbitasuna. Onela *onratzen* zan garbitasuna, gezurraren mendean gizon guztien adimen edo entendimentuak illundurik zeudenian ere.

2. Baña jente errukarri aiek guztiak etziran garbi itxuran, kanpotik ta azalean baizik etzeukaten garbi izaterako indarririk ta biotza beti loikeriz betia zeukaten. Gañera aien animak lenengo gurasuaren jatorritzko pekatuarekiñ mantxatuak jaiotzen ziran, mantxatuak bizitzen ziran, ta mantxatuak iltzen ziran, bada etzan oraindik munduaren Salbatzalea agertu. Onetarako denborak bete ziranen, Aita Jaungoiko Egiatzko Bakarrak garbitasuna bera dan Jaungoikuak aukeratu zuan emakume guzien artian emakume bat bere Semearen amatzat, sortu zuan garbiro Jaungoiko baten Amari zegokion bezela ta apaindu zuan animako aberastasunik ugariarekiñ. Badakit, a, etzeratela miraritzen mirari onekin. Legea egin duanak kendu lezake legea. Jaungoikuak agindu zion eguskiari nola eman



bere jirabira, torregatik dira neurtuak egunak eta gabak; baña Gabaonen aurrian agindu zion eguskiari gelditi zedilla, ta eguna luzatu zan. Jaungoikoak erabaki zuan gizonak beñ bakarrik iltzea; baña Jesusen dei gozora pistu ziran Lazaro, Naingo alarguna ta Jairo-ren alaba, ta iltziran bi bidar: Jaungoikuak nai izan zuan lenengo gizonak pekatu egin zuan eskero, gustiok pekatuan sortzea; baña libratu bear zuan lege onetatik bere Ama ta libratu zuan. Eztaukagu zer geiago itz egiñ gauza onen gañean.

3. Jaio zan, bada, Maria pekatuaren ispirik gabe, garbi eder ta zerutarra; ta ainbesteraño maitatzen zuan arimako garbitasuna eze, garbitasun au ez galtzeagatik, iru urte bakarrik zituanean, utzirik bere etxea, gurasuak, aideak ta laguntxoak, juan zan Jerusalemgo Tenplora, eskeintzera Jaun Ongillari bere gorputzeko zentzun danak ta arimako almen guziak; juan zan Jerusalemgo Tenplora an bizi izatera Jaunaren maitasunian ta Eleizaren serbitzari bezela.

4. Eta au, esaguturik zeruko argiarekiñ, zeñ ederra zan Jaunaren begietarako arimako garbitasuna eta eman nairik al zuan indar guziekiñ biotzeko esker ona bere Egille Santuari, biotz guztia erretzen zeukala Jaungoikuarentzak maitasun santuarenugarrean, *asmatu zuan*, Jaunaren maitasuna onratzeagatik, ez beñ ere gizonen maitasunik esagutzea; asmatu zuan, bere gorputzaren beti betiko garbitasuna; emakumea ezpalitz bezela, arima ta gorputz, aingeru baten gisara bizi izatea: obeto aditu dezazuten *Birjiña* izatea, jaio zan bezela, bere bizitza guztian.

O n. k.! Ikusi zazue ondotoxo asmo eder onen pintasuna. Maria Santa Israelen jaio ta bizi zan, eta nola Israelgo jentia Mesias etorri biar zuanaren zai zegoan, orregatik erri artan zan gauzarik errukarri ta gorrotozkotena Ama ez izatea. Ondo zekian Mariak bere erritarren pensamentua, ondo zekian munduak errukituko zuela, bere erriko jenteak gorrotatuko zutela, baña baita ere Jaungoikoaren aurrian ondo begiratua izango zala bere asmoa ta eskeintza, eta munduari edo Jaungoikoari gusto eman biar zaionian Mariak estauka dudarik: eztauka munduaren ajolarik; Jaungoiko maitiarentzat dena da gutxi ta urrija, O k. m! Etzan orduraño Jaungoiko Egiatzkoaren Altara aurrean onelako eskeintza ederrik ikusi, etzan orduraño garbitasunaren birtuterik ondo esagutu: Mariari *tokatzen* zitzaion zerurako bide berri au erakustea, eta gerora Mariaren ondoren, juan dira bide berri aingerutar orretatik, jente asko zeruraño, eta an daude Maria garbiaren kortejari garbi ta santu egiñik. *Adducentur virgines post eam*. Mariak altxatu zuan lenengo munduko loikeri guzien artian batere bildur-tu gabe, garbitasuneko birtute ederraren bandera zuria, eta bandera one-

gana, maitasunez beterik, inguratu dira gero mundu guztitik millaka eta millaka, ainbeste donzella garbi. *Adducentur virgines post eam*.

Bai, n. a. Maria da lenengo munduan garbitasuna erakutzi zuana. Beste birtuteak ikasi zitezkean aurrerago emakumiakgandik, baña ez garbitasuna. Zaragandik ikasi zeikean Relijioaganako amodiua, Rebekagandik karidadea, Ester-egandik biotzeko biguntasuna; bañan es kastidadea. Maria da munduan garbitasunaren asiera ta iturburua.

5. Eta noraño eraman zuan Mariak garbitasunaganako amodiua, erakutziko dizue zuek ondo dakizuen ta nik gaur berriz oroituko dizuedan gertaera onek: Amasei urte bakarrik zeuzkanian, eta bere Nazaretiko etxetxoan Jaunari erregutzen zegoala, sartzen da bera zeguan tokira zeruko mandatar zetorren aingeru eder bat, eta esaten dio: «Graziaz bete zera zu, Maria, eta bedeinkatua emakume guztien artian. Sortuko dezu zure erraietan, eta zugandik jaioko da Jaungoikoaren Semia». *Ecce concipies in utero et paries filium, et vocabitur Altissimi Filius*. Maria gelditzen da bildurtasunez mututurikan eta ezto itz bat erantzuten: mututurik bildurrez, ez bakarrik Jaungoikoaren Ama izatearen anditasunagatik, baita era askozaz geiago pentsatzen zualako galdu biar zuala bere begiak baño maiteago zuan garbitasun ederra. Ah! Jarri itzatzue beste lurreko emakumiak Mariaren lekuan, esan zaiezue errege baten gurasuak izango dirala, eta emakumerik geienak utziko due beren donzellatasuna. Geitu zaiezue errege ori mundu guztia eta zeruen egillea dala, eta bere guraso dan emakumea izango dala, moduren baten, mundu, zeru ta infernuaren jabea; zeruan dauden Patriarka, Igarle, Justu, Martiri eta donzella guztien erregiña; zeruan dauden aingerurik ederrenak izango dirala bere serbitzari; zeru, lur, ta infernuetan Jaungoikua bakarrik izango dala bera baño geiago, eta ezta geratuko emakume bat bere garbitasunari begiratuko dionik. Bakarrik Maria Santa, ta orregatik berak bakarrik merezi izan zuan Jaungoikuaren Ama izatea.— Ikasi zazue emendik, n. a, zenbateraño koka zan Mariak garbitasunarentzat zeukan amodiua.

6. *¿Quomodo flet istud quoniam virum non cognosco?* esaten dio askenez Mariak aingeruari. Nola izan leiteke gauza ori gizonik esaguten ezpadet, gorputz ta anima Jaungoikuari eskenita banago? *Spiritus Sanctus superveniet in te et virtus Altissimi obumbrabit tibi* erantzuten du aingeruak. Eztezu zure garbitasuna galdu biarrik, kontrara, zure garbitasunagatik begiratzen dizu Jaungoikoak amodio neurrigabearekiñ; Espiritu Santua etorriko da zuga-na eta bere egintza izango da zure erraietan sortu biar duan frutua.

Eta aingeruaren erantsuera aditzian, orduan bakarrik juaten da Mariaren bildurra, orduan gelditzen da pakean ta deskantzuz bere biotza.



Mariaren alabak, ikasi zazutela zuen Amagandik. Ezta naikua zuen izenak batzar Santu bateko liburuan ipintzea: alaba onak Amaren gisa-kuak izan biar due. Izan zaitezte, bada, garbiak Mariaren antzera eta orrela ekarriko dituzue zuen gañera zeruko grazi ta laguntasunak. Emakume garbiak bere arpegi ta izate guztian darama beti anima garbiaren ispillua: garbiak dira egiten dituan begiradak; garbiak ta neurtuak esaten dituan itzak; garbiak bere pausu guztiak, ta bere garbitasun orregatik da zeruarentzat bedeinkagarria, ta baita ere munduarentzat txit onra andiko gauza. (Eztizuet esan nai onekiñ beti Birjiña izan zaitezte edo moja sartu zaitezte: a ez!; bide orretatik sartu biar du Jaunak artarako deitzen dionak bakarrik, dei egiazkua dan edo ez ondo ikusita gero, zer egitera dijuan ondo pensatuta gero: esan nai det, Jaunaren lege santua, pensamentuz, itzez ta obraz garbi izateko agintzen duan mandamentua bete biar dezue-la ongi, txit izateko.)

7. Eta guazen orain zeruetako erregiña onek erakutzi zigun bigarrego ejenplu ederra ikustera, instante batean bada ere. Maria, zeruko mandatariak graziaz betea deitu zionian, ta bedeinkatua andre guztien artian; Maria, jakintsuanian Jaungoikuak berak aukeratua zeukala bere Seme Bakarraren Amatzat, etzan batere arrotu: kontrara, umiltasunik andienarekiñ, umiltasunik sakonenarekiñ, erantzuten dio zeruko mandatariari: *Ecce ancilla Dómini, fiat mihi secundum verbum tuum*. Ara emen Jaunaren serbitzaria, egin bedi nigan bere borondate santua. N. a: Mariaren umiltasun neurrigabeko au obeto esagutzeko pensatu zazue zein dan mandataria ta zer esaten dion; mandataria ezta lurreko errege batek bialtzen duana; bialtzen du zeru ta lurraren jabiak, errege guztien errege andi ta Altsuak; Jaungoiko santuak; ta Mariari esaten diona ezin leiteke gauza andi ta obeagua izan. Esaten dio graziaz betea dagola, Jaungoiko santua berarekin dagola, bedeinkatua dala bera izan diran ta izango diran emakume guztien artian, Jaungoiko Santuak aukeratu duala jaio diran ta jaioko diran andre guztien artian Jaungoikuaren amatzat: ezta au naikua umiltasunik andiena aspiratzeko, burutik umillena arrotzeko? A ez, entzun ta ikasi ta gorde zuen biotzetan Mariaren erantsuera: *Ecce ancilla Dómini...* Ara emen...

8. Baña Jaungoikoaren mandatariak bere aurretik alde egiten duanian, eztu ertengo Mariak kalerik kale, burua jaso ta lerdendurik, eztu esango zeñ dan bera, ezte eskatuko jentiai sor dioten onorea? Ai ez, Maria an geldituko da bakarrik bere etxetxoan, errequetan, Jaunari esker ematen! Bañan, umilla bada eta kaleetan ziar juan nai ezpadu ere, ezta jungo aterik ate bere adiskidien etxeetara eta ezte esango zer gertatzen

zaion pozez beterik? A, ezta ere! Berak bakarrik gordeko du ixill ixilleen gertatzen zaion miraria; eztu nai munduko lora ta intzentzurik; eztio esango itz bat bakarra iñortxori, ez aideai, ez adiskideai, ta ezta ere bere senar maite S. Joseri. O k. zer ejenplua guretzat, ta zenbat ikasi genezakean ejenplu onetatik!

Eztet oraindik dana esan. Badaki Mariak laster igarri biar zitzaiola ama izango zana, eta orduan bere onore guztia galdu, munduko urruñaren azpian jarri, ta bere gañera ekarri leikeala legearen kastigu gogorra. Eztu orduan itz bat esango bere burua onoretutzeko? Ezta orduan ere; bere onorea Jaunaren eskuetan utzitzen du: bere aldetik naiago du umiltasuna ta mespreziua, naiago du legearen kastigua bera mundu onetako onoreak baño. Esagutzen dezue oraiñ Mariaren umiltasun sakon ta zabal?

9. Bañan Jaungoiko santuak Ama onoretsua biar zuan, ta Aita zerukoak agertu zion S. Joseri, aingeruaren bitartez, zer mirari gertatzen zan Mariagan, ta aditzen eman zion Mariaren lengusu Isabel-i Maria zala Jaungoikuaren Ama. Eta egun batean, Maria bere lengusua ikustera juan zanean, ertetzen dio onek bidera, eta esaten dio Mariani arpegiz arpegi: *¿Unde hoc mihi, ut veniat mater Domini mei ad me?* Nola onoretzen nazu Maria? Nola dator nigana nere Jaungoikuaren Ama? Alperrik gorde du Mariak gerta zitzaion miraria, jakin diote bere ixil mandatu, bota diote arpegira, eta oraintxe bai Mariak agertu biarko duala aingeruak esan ziona, oraintxen bai *alabatu* ta doanditu biarko duala bere burua. Ara, asten da Maria itz egiten: zer esaten du? *Magnificat anima mea Dóminum*. Nere animak doanditzen du ta alabatzen du Jaungoikoa. Egia da, Isabel, nere lengusua, Jaungoikuak gauza miragarritzko bat egin duala nerekiñ, *fecit mihi magna qui potens est*; egia da nere atzetik datozen guztiak bedeinkatua deituko diratela; baña badakizu zergatik? *quia respexit umillitatem ancillae suae*, ikusi zualako bere serbitzariaren umiltasun ta ezereza.

10. Ara or, a, Mariak bigarrego erakusten digun birtute osasungarria, umiltasuna, munduan geien geien falta dan birtutia. Jarraituko bagenduke pausurik pausu Mariaren bizitza, ikusiko ginduzke umiltasunaren agergarri geiago ta esan ditudanak baño ederraguak Jesusen predikazioko denpora ta Jesusen eriotzan batez ere; baña gaur ezin neike dana esan, ta beste aldetik naikua da esan dana ikasi nai bada. Gaurko egunean asko entzuten da, baña gutxi ikasi, gutxi egiñ eta ikastea ta batez ere egitea dago J.K. ipiñi zigun legearen mamiya: beste dana azala ta koskola besterik ezta. Danok dakigu (au, bai, dandanok) gizonak eztaukala zerekiñ arrotu askorik: gaur jaio, biar ill ta etzi lurpean zapalduak gelditzen



dirala gizon danak, erregetik asi ta azkenengo morroiraño; bañan, ala ere, ikusten degun gauza da arruak dirala umiak beren laguntxuekiñ itz egiten duenian; arruak mutill gastiak beren ibillera ta jolasetan; arruak gizonak beren eginkizun geienetan; arruak batez ere emakume gastiak beren jantzi berri askotan geiegi apainduekiñ kaleetara edo plazaren erdira ertetzen diranian, aizez ta txorakeriz beren burua bete betea daukatela; beñere oroitu gabe, zerbait badira, Jaungoikuari sor diotela dan dana. Mariak, graziaz betea izanik, *ecce ancilla Dómini*, erantzuten dio zeruko aingemari; bere munduko alabak, gaste baten itz biguñ gezurrezkoak aditzean, txoratzten dira eta or ibilli oi dira txororik, Jaungoikoarekiñ astuta.

SAN JOSÉ

Aizarna 1895

Cestona 1896

Vir fidelis multo laudabitur, et qui custos est Dómini sui glorificabitur.

(Gizon leiala oso bedeinkatua izango da
eta Jaungoikuaren aurrian dabillena gloriáz betea.

Proverbios deritzaion liburuan

28 garren irakurburu ta 27 garren bersotik.)

N. a. m.: Gaurgo ebangelio santuak dion bezela, leñargitasun edo nobleza birekiñ apaindua agertzen da Jose santua: bere sañetan zaraman erregien odolarekiñ alde batetik, ta bestetik bere birtuteak ematen zioten nobletasunarekiñ. Birtutearen nobletasunarekiñ, justua zalako, S. Mateok esaten duan bezela: *Joseph autem cum esset justus*: odolak ematen dion nobletasunarekiñ Dabiden jatorrikua zalako, aingeruak deitu zioten bezela, *Joseph Filius David*.

Nobletasun biak dira gauza onak; baña, zeñ da ohea, n. a.? Eztago zer esanik: lenengo mallan jarri biar degu birtutiaren nobletasuna, bigarrengoan odol garbiarena. Askozaz geiago balio duana da birtutiarena, zergatik bera dan betikoa, eta odolarena kristau ez tiran jentia ere badue. Egi au mundu guztiak dakian gauza da; bañan egiak astu egiten dira, eta astukorrak diran jentientzat ondo etorri oi da gogorazio berri bat, bada egi, zuzen bidetik ibiltzeko, gauza bearra da.

Eta nola dan Eleiza egiaren gordelaria eta egiaren erakustzalleak eleiz gizon Jaunaren *ministreak*, ara ni emen egi eder ori gogoratzeko asmoetan.

Eztitut indartuko nere arrazoiak Eleizaren gurasoak erakusten dituen esakerakiñ. S. Jeronimo batek dio: *Summa apud Deum nobilitas est clarum esse virtutibus*. Jaungoikoaren aurrian noblezarik andiena dala birtuteakiñ andia izatea. S. Gregorio Nazianzokoak esaten digu: *Nobilitas bera est divinae imaginis conservatio atque archetipi imitatio*: nobletasun egiatzkoa dala Jaungoikoaren irudia gure biotzean garbiro gordetzea da Jaunaren birtuteak imitatzea.

Baña gaur, Eleiz gurasoen esanak alde batera utzirik beste bide batetik erakutzi nai nuke egi au bera.



Pensatzen nagon gauza da, egokia ete dan nik aukeratu dedan gaia, eta ezteitzot desegoki; bada denok dakigun gauza da famili nobletik jaiolak diranak, odol garbikoak diranak beren burua besteak baño zerbait geiagotzat euki oi izaten duela, eta nola euskaldunok odol garbikoak geran eta arrosko samarrak gure odol garbiarekiñ; nola gu ere agindu nai-koak ta aberastasun zaleak geran, ni natorkizue gaur agertzera, San Jose-ren ejempluarekin, «gizon odol garbikoa, agintaria ta aberatza baño askozaz andiagoa dala gizon birtutetsu ta ona».

Ez nuke nai iñori miñik eman nere esanakiñ ta euskaldunai gutxiago: eztet nik oraindik igo pulpito santura iñori miñ emateko asmoetan, Jaungoikoari eskerrak; baño bai igotzen naiz beti egiak mundu guziari esateko asmoetan, nere *obligaziua* dan bezela; iñork miñik artzen badu, bada, eztiot nik miñik emango; egiak emango dio miñ. Nik nai dedan gauza da gu denok salbatzea, eta badakit ondotoxo «ni odol garbikoa naiz», «ni euskalduna naiz» esanda bakarrik iñor eztala salbatuko, eta badakit birtutetsuak izanda denok salbatuko gerala.

Esan det itsaldiaren gaia. Gai onen gañean bear dan bezela itz egiteko nai nuke Espiritu Santu Jaunaren grazia, zeñ eskatuko degun Maria santaren bitartez, esanaz Ama bedeinkatu oni *Abe Maria* bana.

Texto, etc.

N. a. m.: Iñork ezingo du ukatu jatorri anditik datozenak beti izaten dirala askatuagoak, lasaiagoak, bildur gutxiagokoak gizonen artian. Eta ezta onetarako oso bearra gizon andia izatea: naikoa da besteak baño zerbait geiago izatea, baserri obe edo etxejauntzako semea izatea. Ikusiko dituzue onelako gizon ta mutillak toki guzietan aurrenengo eta txikitxoai goitik bera begiraka, berak gauza guztien jaun ta jabe balira bezela. Menturaz, zuek, n. a., egon zerate onelako gizonen baten *inbiriz*, oroitu gabe zuek ere izan zeitezkeala gizon oiek baño askozaz askatuagoak ta andiagoak birtutetsuak izanda bakarrik, bada birtutearen soñeko apainduarekiñ jantzita dagonak ezta bildurrik ta lotsarik iñoren aurrian: konzienziako ar gabe ta kopeta garbiarekiñ agertzen da, txikien aurrian umill, bere gisakoen aurrian umill ta gizon andien aurrean umill; baña umilltasun onekiñ menderatzen dituala gizonik arroenak. Gizon birtutetsua Jaunaren graziarekiñ jantzia dago beti ta beñere ezta izango *bentzutua*. Izan leiteke iñoiz *sufritu* bearrean, ori bai, baña bere biotzaren erdi erdian ikusten du beti esperantza santuaren argi gozoa, eta argi onekiñ indarturik, badijoa betiko zorioneko bidetik aurrera, beti zeruruntz begira munduaren ta munduko gizon gaiztoen ajola gabe ta Jaungoiko Santuaren bildurrean.

Ara zer gertatu zitzaion Jose Santuari: Jose santua, Jose ona, Jose justua, odol garbiko gizona zan, Israelgo erregerik andienen jatorrikoa, baño etzuan iñon ere erakutzi bere jatorri noblea ta bizi zan oso eskutuan, asturik ta pobrea, iñon ere bururik agertzen eztuala, gizon langille bat egiñik, beste edozeñ langille bezela, gizonen ajola gabe ta Jaungoiko Santuaren bildurrean.

Bitartean Maria Santa, Maria garbi ta umilla etorri zan estadu artzeko sasoir, eta Jerusalem Eleiz gizon naguzienak eman zuan ordena deitzeko Dabiden odoletik zetozen gizaseme guztiai Mariaren senar izan nai bazuen jakiteko, Israelgo legeak agintzen zuan bezela. Eta nola Mariaren edertasuna eta birtuteak izen andikoak ziran Israelen ordurako, ara nun agertzen diran Dabiden ondorengo *principe* asko gasteak, ederrak ta aberatsak Mariaren eskuaren billa. Eleiz gizon nagusiak esaten die, Jaunaren aginduz, almendra arbolaren makilla igar bat ekarri bear duela ta makilla aietatik ezetu ta loratuko dala bat, zeñen jabea izango dan Maria Santaren senartzat aukeratua. Ekartzen ditue makillak, jartzen ditue tabernakulo santuan, ta bitartean prinzipie gaste aiek, an daude amesetan, pensatzen zuala bakoitzak berea izango zala Maria, bada bakoitzak bere burua uste zuten gauzarik andiena zala; baña irikitzen da tabernakuloko atia, ateratzen dira makillak eta, agur amesak! makilla guziak igarrak zeuden. A! Jerusalemgo tenploan batu ziran prinzipie guziak arruak ziran ta panparroiak, odol garbikoak ziran denak noskiro baña etziran biotz garbikuak ta Jaungoikoak umilltzen ditu erri guztien aurrian.

Zeñ falta da? galdetzen due sazerdoteak. Zen? Iñortxo ere ez, Jose arotz pobrea ezpada. Bada datorrela Jose: ematen da ordena berri bat esanaz iñortxo ere ez dedilla gelditu etorri gabe: badator Jose legea kunplizteagatik, badator Jose bere makillatxoarekiñ, oso umildurik eta erdi lotsatua; pensatzen du eztala bera diña prinzipie eder aberatzen ondoan Mariaren eskua eskatzeko: sartzen dira berriz makilla guziak tabernakulotan ta ateratzen diranean, o zer eraspea! ikusten da Joseren makilla datorrela ezea ta lora txuri ederrez apaindua, ta beste guzien makillak igarrak len bezela. A! bai, Joseren anima umilla zegoan Jaunaren aurrean ezea, bizia ta loratsua; ta menturaz bestien anima guziak igarrak eta illak beren panparroitasunean. Jose, gizonik umillena, gizonik garbiena ta santuena aukeratu zuan Jaungoikoak emakumerik umillena, garbiena ta santuena zanaren senartzat; eta aukeratu zuan batez ere bere birtuteak gatik.

Esagutzen dezue oraiñ birtuteak geiago balio duala Jaunaren aurrean odol garbiak ta nobletasunak baño?



2. Alaz guziaz ere, esango dirazue, mundu onetan ikusten degun gauza da etxe andietako jenteak izaten dirala onoretuak, eta onoreak ta ongiotorriak guztioi gustatzen zaizku. Zuen esate oni erantzun biar diot iru modutan: Lenengo: gizon andi ta asko ikasi duenak ta agintari diranak merezi duela beti errespetoa, Jose santuak berak bere ejenpluarekin erakusten digun bezela; bada errespetorik andienarekin begiratzan zuan legea, errespetorik andienarekin eleizgizona ta errespetorik andienarekin begiratzan zien Mariaren esku billa juan ziran prinzipelai, bera baño andia-gotzat esaguturik.

Bigarren erantzun biar det onorea ta ongiotorria gustagarriak badira ere, ezteguila ibilli bear beren atzetik gauzarik onenak balira bezela, bada laster galtzen dan gauza da munduan onorea: egin bear deguna da, Jaunaren borondatearekin erakidaro edo *konforme* egon, ta artu datorrena datorren bezela, onorea badator onorea, Josek egin zuan bezela; baño ez geiegi arrotu onore orrekin.

Irugarren erantzun biar det onorerik ta nobletasunik andiena dala birtutetsua izatea, ez bakarrik zeruetako koroï ederra jasten duelako birtutetsuak, baita ere mundu onetan aientzat diralako azkenean onrarik andienak. Zeñek dauzka Santuak baño onore geiago munduan bertan? Erregiak? Gerralarik abillak? Gizon jakintsuak? Iñork ere ez: Santuak daude lenengo mallan. Egia da, gizon andien izenak aotan erabiltzen dira, ta eskribitzen dira beren izenak liburuetan; baña astutzen dira laster, zergatik gizonen aotan erabiltzen dira ta munduko liburuetan izkribatzen dira izen oiek, ta munduko gizon, liburu ta gauza guztiak, laster bukatzen diran gauzak dira; baña Santuen oroimena ezta bukatzen beñere, zergatik zeru goietako liburu betikoetan urregorrian izkribatua dagon beren izena. Orregatik urteoro oroitzen zatzue santuen izena ta bizitza, orregatik nator ni S. Jose-ren izena gogoratzerá, ta ni illtzen naizanian ere, etorriko da pulpitu onetara beste egunetako sazerdotea San Jose-ren alabantzak esatera.

Bai, n. k., mundua andiki zalea da ta birtutearen ta umiltasunaren etsaia; baño munduak berak esagutu bear izaten du birtutearen anditasuna; munduak berak onoretutzen du gizon birtutetsua. Eta au ezta gaurko gauza. Antziñako denboretan Faraon errege arrokeriz beteak onoretu zuan presondegian zegoan Jose ebreotarra; Asuero erregeak jaso zuan bere jauregian tokirik andiena emateraño Mardoqueo pobrea; ta Babilonia-ko erregeak Daniel igarle justua. Eta geroagoko denboretan, Ingalterra, Franzia, España ta beste nazioetako erregien aurrian izan dira errespetorik andienarekin artuak pralle pobretxo asko, egia mingarriak esatera juaten ziranian ere. Gaur bertan esagutzen ditut konde, markes ta dukeak,

esaten duanak arrotasun andian: «onelako santu edo santa gure aidea zan». Zergatik ori? Zergatik esagutzen duen nobletasunik andiena santua izatea dala.

3. Baño guazen berriz Josegana. Mundu onetan ikusten ditugu gizon asko, txikiak diran bitartean, eskutuan ta esagutu gabeak dauden bitartean umill ta txintxo bizi diranak; baño gero, beren onkai edo merezimendua esaguturik, illunetik argira ateratzen baditue, pustutzen dira, arrotzen dira, eta askotan gizonik panparroienak izaten dira. Onela ote zan Jose Santua? Arrotu ote zan Jose, Jaungoikoak beste gizon guzien artean bera aukeratu zualako Jaunaren famili santuaren zaintzalletzat? A, ez! Josegatik esan genezake Eleizak beste santu batzuekgatik esaten duana: *Fidelis servus et prudens quem constituit Deus super familiam suam*. Jose zan serbitzari leial ta zintzotasunez betea, gizon bat Jaungoikoak bere familiaren gañean jarri zuana. *Fidelis*, au da, leiala beti: etzan batere pustu Jaungoikoak agintza andia eman ziolako; etzuan pensatu jatorri andikoa zalako eman ziola; bazekian andi ta txikiak berdiñak zirala Jaungoikuarentzat; etzan beñere arrotu Jaun Egillearen aurrian, *fidelis*, leial gelditu zan. Eta ez bakarrik leial: San Jose, bere eskubide guziakiñ, umill ta serbitzari gelditu zan, *fidelis servus*; ta ez bakarrik Jaungoikoaren aurrean, baita ere bere famili santuaren aurrean, añ modutan eze etxade ejenplagarri artan etzan esagutzen zeñi zan agintzalle ta zeñi serbitzari: Maria ta Jesus Joserren mendean zeuden ta Joseri obedeitzen zioten, ta Jose Jesus ta Manaren serbitzaria zan.

A, n. k.! Zer ejenplua gure famili ta errietarako! Zer ejenplu osasungarri ta ederra! A munduko agintariak ikasiko baluteke Jose Santuaren aginte bigun ta gozoa! Zenbat obeto berentzat, zenbat obeto errientzat, zenbat obeto mundurako, zenbat obeto Jaunaren aurrerako!

Eta etzan Jose Santua serbitzari leiala bakarrik izan, baita ere egokitasunez ta zintzotasunez apaindua. Ara emen; nere irtiziz, gaur munduan geien falta dan birtutea. Esagutzen ditut gizon asko beren lanetarako naikua argi ta esagupide duenak; baita ere esagutzen ditut borondate oneko jenteak; bañan beti erara, egokitasunean, modu onian, zintzotasunean jokatzen duenik, gutxi, oso gutxi esagutzen ditut, eta *prudenzia* falta andiak egiten ditu munduan.

San Josek bazuan birtute eder au ere ta orregatik jaso zuan Jaungoikoak munduan bere familiaren zaintzalle izateraño, *constituit eum Dominus super familiam suam*; ta orregatik ipiñi du Eleizak bere Patroi ta zuzendaritzat. Eta an dago San Jose *quasi còlumen ecclesiae*, an dago bere Seme maite Jesusen aldamenen jarriarik, gozotasunik andien erdian, Jesusen aotik aditzen duala: *Pete, Pater*, eskatu zazu nere lurreko Aitordea, eskatu zazu



eta etzatzu ezer ere faltatuko. Zer nai dezue nobletasun andiagorik bere birtuteakgatik Jose santuak atxitu duan eskubide ta onore ori baño?

4. Baña egon leiteke zuen artean norbait bere barruan esaten duana: Neri eztit ajola leñargia, odol garbikoa izan edo ez; eztit ajola agintari izan edo mendeko izan; eztit ajola gizon andien artean bizi edo ez; nik nai det aberatsa izatea, ori bai, aberatza, bada aberastasuna da noblea, aberastasuna agintaria, aberastasuna danen nagusi, gizon aberatza ezta iñoren bildur. Zer, aberastasunagatik itz egiten dezu orrela, n. k.? Arimakoak gatik ala munduko diruak gatik? Mundukoak gatik diozu? Aseko ete ziñake, nere gizontxua edo nere emakumea, munduko aberastasun guziekin ere? Baietz diozu? Bada nik ikusten dedana da iñortxo ere eztala asetzen: Ogei dauzkanak berrogei nai ditu, berrogei dauzkanak eun edo milla, milla dauzkanak milloiak ta milloiak dauzkanak aberastasunen egarrían bizi dira batere eztaukenak bezela. Nik dakidana da, munduan izandanik gizonik aberatzenak ta jakintzuenak bere aberastasunen erdian esaten zigula: *vanitas vanitatum et omnia vanitas*: munduko ondasun guzia da aizea, kereiza ta utza. Nik dakidana da munduko aberastasun guziak emen utzi bear dirala eriotzako orduan. Nik dakidana da Tobias Patriarka zarrak esaten ziola bere semeari: *Noli timere, fui mi: pauperem vitam gerimus, sed multa habebimus si timuerimus Deum*. Ez bildurtu, nere semea: bizitza pobrea daukagu, baña ondasun andiak izango ditugu Jaunaren bildurrekoak bagera, birtutetsuak bagera. Nik dakidana da Jesus, zeru ta lurraren jabea pobre bizi izan zala lurrean, Maria, zeruetako erregiña pobrea zala ta pobrea, txit pobrea zala San Jose, irabasten duala bere janaria ta familirik andienaren janaria bere kopetako izerdi garbiarekin. Nik dakidana da jente aberatzak, munduan iñoren bildur ezpadira, izan biar duela Jaunaren bildur, ta eroriko dirala Jaunaren eskuetan. Nik, azkenez, ondo dakidan gauza da, iñortxo ere eztala salbatuko eriotzako orduan «ni aberatza naiz» esanda bakarrik eta kontrara birtutetsu guziak salbatuko dirala, bere birtutien aberastasunakgatik, bada birtutea da aberastasunik andiena... azieran esan detan bezela.

O. n. k.! Eskatu zaiozue Jaungoikuari egonoroko ogia, ta ez geiago. Zuen gañera ondasun andiak badatoz, artu itzatzue, gozatu itzatzue bear dan neurrian ta arrotasun gabe, zatitu itzatzue pobrien artian bear dan bezela; eta eztezazutela euki nai izan biotza diruari geiegi lotua. Dirua lurtarra da, eta lurtarra izango da zuen biotza, ez zerutarra.

Uste det, n. a. m., esagutuko zendutela onenbesterekin gizon odol garbikoa ta aberatza baño askozaz andiagoa dala birtutetsua Jaunaren aurrian, ta baita munduaren aurrian ere; uste det esagutuko zendutela andia bazan Jose Santua Dabiden jatorrikoa zalako andiagoa zala bere bir-

tuteakgatik. Orregatik esaten dizuet, zuen animaren onerako, maita zazuela odol garbikoak izatea, baña maita zazutela geiago gizon on ta justoak izatea. Zer balio du Jaunaren aurrean euskaldun garbiak izateak gizon gaistoak bagera? Zeinbat eta odol garbiagokoak izan, ainbat eta gizon obiak izan biar degu: ori da bide zuzena.

5. Orain gerta leike zuetakoren batek pensatzea: Bai, jauna; bedorrek esaten dituan kontuak gauza onak dira; guk ere badakigu birtutetsuak izanda salbatuko gerala; baña nola izan birtutetsu? nola izan santu? Txit erraz, n. a., txit erraz. Zer egin zuan San Josek? Isill isillik bizi, panparroikeri gabe lanean ta bere familia zaintzen, ta Jaunaren legea zintzo zintzoro gordetzen. Etzuan, gizonen aurrian, gauza andi itxurakorik egin beñ ere. Etzan errien gidari izan, etzuan liburu bat izkribatu, etzuan mirari bat egin, ezertxo ere ez besterik isill isillean bere obligazioak betetzen bizi izatea baño; erakusten zigula zerura juateko etzala jakituri asko eta eskubide andirik biar.

Nork ezin leike egin beste orrenbeste? Nork? Nai eztuanak, eta nai eztuen asko dira, borondate epeleko asko dira ta orregatik kondenatzen dira ainbeste.

Nai dezute zuek, n. a., nai dezute benetan salbatu? Bada bizi zaitezte umill: kanpora bide gabeko arrotasunak. Zer gauza egokiagorik, zeruaren azpian gure ezereztasuna ikusita umillak izatea baño? Nai dezute salbatu? Bada errespeta zazue birtutea ta izan zaitezte birtutetsuak. Izan zaitezte gizon ta emakume onrauak, bete zazue Jaunaren lege santua, kunplitu ditzagun bakoitzak gure obligaziuak. Eztezue jakitunak izan bearrik; eztezue penitencia andirik egin bearrik; eztezue libururik izkribatu bearrik; eztezue miraririk egin bearrik. S. Josek bizi zan artean, etzituan egin. Ezta erraza esaten dizuedana?

Bai, n. a., esagutu zazue erraza dana ta nai badezute salbatuko zera-tena. Artu zagun denok San Jose gure modelentzat; bizi gaitezen umill ta Jaungoikoaren adiskide Jose gloriáz betia bezela, beti zerura begira, beti zerurako poztazunarekin.

O Jose Santu beneragarria! O zeñ altu zauden zeru ederrean! Gu ere zerurako jaioak gera baña, Atxituko ote degu zeru eder ori? Salbatuko gera eleiza onetan gauden guztiok? Ai eztatik! Eta esagutzen det salbatzen ez bagera, gure kulpaz izango dala ez salbatzea. O santu andia! Eman eiguzu guri birtutetsuak izateko asmo sendoa, asmo benetakoa, zure irudira izan gaitezen mundu onetan umill ta onak ta gero zeruetara jasoak betiko zorionera, Amen.



(SAN MIGEL)

(Artadi)

¿Quis sicut Deus?
Zein da Jaungoiko santua beste?
(Apokalipsis deitzen zaion liburuan
XII garrengo bururtik artutako itzak.)

N. a. m: Gure Jaun eta Jaungoiko altsu ta andiak etzuan ezeren bearririk beti doez ta gloriar betea izateko. Etzuan bear zerurik beti izateko zorionekoa, etzioten faltarik egiten aingeruak eta gizonak bere serbizio santurako ta berari onra emateko: zan eta izango zan beti gloriar betea bere Izate santuarekin bakarrik. Bañan, o Jaungoiko santuaren ontasun neurrigabea! etzuan nai berak bakarrik zorioneko izan: bere borondatea zan bere gozotasuna zabaltzea beste izate batzuen artean. Baña, nola, bera bakarrik bazan? ezpazan beste gauzarik? Maitasunak asmo andiak ditu, eta Jaungoikoaren maitasunak, maitasunik andienak, asmatu zuan sortutzea beste izate batzuek aiei gozatasuna emateagatik.

Onetarako egin zuan zeru eder bat bere tronu ta jarrilekutzat, nora eramango zituan bere eskuetatik ertetzen zuen izate guziak, beraganako leialtasunian irauten bazuen. Ta zerua egin ondorean sortu zituan gorputz gabeko izate batzuk, aingeruen izenarekin esagutzen ditugunak, beren Jaungoiko Egillea maitatu, bedeinkatu ta doanditu zezaten betikotasun guzian.

Ezerezetik ateriak ziran bada aingeruak, ta Jaungoikoak bere borondate on ta maitasunagatik, doez, gloriar ta animako apainduriz jantziak.

Nork esango zukean, n. a., ah argitasun andiko izate doetsuak itsutuko zirala? Zeñek siñistu mesede añ miragarriak artu zituen aingeruak etziotela erantzungo esker onarekiñ beren Egilleari? A, n. a! Ainbeste mesedez apaindurik zeuden aingeruen artean etziran danak leialak ta esker onekoak izan beren Egille Santuarentzat. Arrokeri madarikatuak, andiago izan naiak itxutu zituan asko eta asko, beren edertasunarekiñ arroturikan jaiki ziran beren Jaungoikoaren aurrez aurre, eta ondatu ziran betiko, infernuko sugarretan kiskaltzera. Bat jaiki zan lenengo Jaungoikoaren kontra, burua makurtu nai ezik bere Egillearen aurrian, Luzifer arrua, zeñek, ejemplo gaiztoaren bidez, eraman zituan beste asko bere aldera; baña, beste bat jaiki zan ere Jaungoikoaren alde, S. Migel zuen

Patroi andia, ta onek gorde zituan leial beste aingeru asko bere Jaungoikoaganako. S. Migelek jaso zuan lenengo bandera zuri eder Jaungoikotarra, esanaz maitasunezko su bizi batean pisturik: *¿Quis sicut Deus?* Zein da emen Jaungoikoa beste? Zein da emen Jaungoiko altsuari sor dion obedienzi ta onorea emango eztiona? Zein da Jaungoikoaren agindu santura burua makurtu nai eztuana? Zer dira zeruko aingeru guztiak Jaungoikoaren kontra? *¿Quis sicut Deus?*

N. a. m. Bidezko gauza deritzot eta egokia gaur zueri erakustea San Migelek, esan dedan gertaera onetan, eman zigula leialtasunezko, maitasunezko ta umiltasunezko erakuste osasungarria. Baña onetarako bear det Espiritu Santuaren grazia, zeñi eskatuko diogun laguntasuna Maria txit Santaren bitartez; esanaz gure Ama oni *Abe Maria* bana.

¿Quis sicut Deus? etc.

1. N. a. m: Zeruetan Jaungoikoak sortu zituan aingeruak txit eder ta egoki egiñak ziran: añ ederrak eze, mundu onetako edertasun guziak edertasunaren irudi pobre ta eskelak dira aingeruen edertasunaren aurrean. Txit jakintsuak ziran: añ jakintsuak eze lur onetako gauza guziak oso egoki ta sustraian esagutzea utza da berentzat. Eskubide andikoak ziran: ainbesteraño eze asko litzateke zeruan dagon aingeru bat edo infernuko deabru bat, Jaungoikoak onetarako baimena eman eskero, mundua ta munduko gauza guziak instante baten ezerezero biurtzeko. Aingeru guzi abek zorioneko ziran, ta batez ere beren artian andienetako ta nagusi bezela zan Luzifer Jaunaren aldemenen gozotasunen erdian zegoana. Bañan, egun batean erori zan Jaungoikoaren aserrean, ta Luzifer ederra, bere laguntzalle guziekiñ batean zeru altu zorionekoetatik ondatua izan zan, beltz ta itxusi, infernuko ondarretaraño, an, betikotasun neurri gabea iltzen bizi izatera. Zeñ, n. a., ikaratzen ezta gertaera bildurgarri au jakitean? *Si Deus angelis peccantibus non pepercit, ¿quid nobis videtur?* Jaungoikoak bere aingeruei parkatu ezpazien pekatu egiña, zer izango da gurekiñ? Zein da, jakiñik errege batek eztiotela parkatzen bere aldemeneko ministro aberats ta jakintsuak; zeñ da errege ori ofendituko duana? *Ulula abies, dio Zakarias Igarleak, quia cecidit cedrus.* Bildur zaitezte

negar egin zazue txiki ta argal zeratenak, bada arbolarik sendoenak ta lerdenenak erori dira goitik beberaño. Zer gera gu aingeruen ondoan? Jaungoikoaren aldemenen dagon lenengo tokia Jaunaren aserretik seguru izan ezpada, zer izango da Jaunagandik añ urruti bizi geraneikiñ. O kristauak! Luzifer, aingeruen artean lenengoa erori zan; Saul, hebreotarren artean lenengoa erori zan; S. Pedro Apostoluen artean lenengoa erori



zan. Zer egin geinke guk ez erortzeko? Zer? Jarri gaitezen denok S. Mige-
len onduan, ta bizi gaitezen leialkiro gure Jaunaren alde.

2. Ikusi zaigun zer erakusten digun gure maisu jakintsu S. Migelek. Erakusten digu lenengo umiltasuna. S. Migelek bazekian nolakoan zan bere edertasun ikusgarria, bere jakituri guztia, bere eskubide andienetakoa, bere doe ta apainduri guziak; baña bazekian dendena Jaungoikoak emana zala, berez etzuala ezertxo ere, berez utza zala Jaungoiko gabe. Orregatik jaiki zanian Luzifer pustua Jaunaren kontra esanaz: *¿quis sicut ego?* zein da emen ni bezelako bat?, etzitzaion bururatu S. Migeli esatea «zu beste banaiz ni ere» ezpada, asturik oso osuan bere izate ederrarekiñ, oroitzen zaio Egille Santuaren anditasuna bakarrik, eta esaten du: *¿quis sicut Deus?* Zein da Jaungoikoa beste? Zeñ arro pustu da bere inoz limosnaz eman-dako edertasunari begiratzan diona Jaunaren edertasunen aurrian? Ara emen, k., S. Migelek ematen digun lenengo ejemplo osasungarria. Umiltasuna, n. a. m., da beste birtute guzien zimendua, da arimako ondasun askoren sustraia, da onduen jatorkigun jantziya, da Jaungoikoak gugandik eskatzen duan birtutea, da J.K. gure jauna itzez ta obraz erakutzi ziguna, da azkenez gu goien goienetara jasoko gaituan birtutea, bada esana dago: *qui se exaltat humiliabitur; qui se humiliat exaltabitur*, arro bizi diranak makurtuak izango dirala eta humill bizi diranak izango dirala jasoak. Eta esake-ra au bete zan Luzifertarrekin ta S. Migel umillari jarraitu ziotenekiñ: batzuek, lenengoak, an daude infernukougarrean ondo makurtuak, bestiak an daude zeruetan lenengoan baño zoriontasun andiagoan.

3. Bigarren S. Migelek ematen digun ejemploa da esker onezko ta leialtasunezkoa, Luzifer ta bere lagunak astu ziran bere Jaungoikoarekiñ, astu ziran dena sor ziotela bere Jaungoikoari, ta bera serbitzen, bedeinkatzen ta doanditzen bizi bearrian jaiki ziran eskergabetasun lotsagarrienarekin beren Egillearen kontra. Baña San Migel esker onez betea zegoan Jaunak eman zizkon apainduriakgatik, eta ikusi zuanean Luzifertarren okerbide ta dollorkeria, jaiki zan Jaunaren alde, nobletasunik ederrenean beste aingeruai esanaz: «zeruko aingeruak, etzaitezte izan dollor ta esker-gabeak; eztezazutela desonoretu zuen burua: Jaunaren alde zeraten guztiok, atozte nere ondora, ta gure nobletasunak agintzen digun bezela defendi zaigun bere bandera, purrukatu ditzagun gure Jaunaren etsaiak». Eta orduan izan zan zeruetan espirituen gerra bildurgarri bat: alde bate-tik jokatu zuen Jaungoikoaren aldekoak S. Migel buru zuela, bestetik eskergaiztoko aingeru galduak. Ta zeñek irabazi zuan gerra? Zeñek? An zegoan Egille Altsua bere onorea ta gloria zaintzeko, an zegoan Jehoba santuko Jaungoikoa, nork irabazi zezakean gerra bat bere kontra? *¿Quis*

sicut Deus? Gerra onetan S. Migel ta berarekin batera Jaunaren alde erten zutenak gauza bi batera irabazi zituen: betiko zeruban gelditzia, eta gero-ra zeruan sartzen ziranen aurrian onra andi bat izatia; bada S. Migel ta bere lagunak geratu ziran sendaturik Jaunaren grazian ta bere adiskideta-sunean betiko atsegiñak gozatzen ta espiritu bati dagokion onrarik andie-nean. Eta besteak? Besteak an daude infernuko presondegi ikaragarrian: beti zerutik kanpora, beti Jaunaren aserrean.

4. N. a. Pensatu dezue iñoiz Jaunaren aserrea zer dan? O! Jaungoikoak eskergabearentzat duan aserrea añ andia da eze zenbaterañoakoa dan iñortxok ere ezta; baño nolabait aditzen ematen digu oraiñ esan dedan zeruko gertaera onek. Begira zazue Luziferren alde jarri diran aingeruetatik bati bakarrik parkatzen eztiola: asko ziran, txit asko, ezin kontatu ala, itxasoko ondar aleak aria bear bada, eta bati bakarrik parkatzen eztiola, denak izan ziran kondenatuak eta denak betiko: *¿Quis novit potestatem irae tuae?* dio Dabid Igarle santuak. Zeñek, Jauna, esagutzen du zure aserrearen indarra? Munduko erregeak, beren kontra gerraren bat altxatzen danean, kastigatzen ditue agintariak bakarrik, edo, geienez, iltzen ditue amarretik bat, bañan ezta onela gure Jaungoikua: *anima quaepeccaverit ipsa morietur*. Jaunaren kontra jasotzen dan anima izango da illa ta kondenatua betiko. Eta kontuan iduki zazue, n. a., Jaungoikoak etziotela ezertarako astirik eman aingeru gaistoai, ez damurik artzeko, ta ezta ere bitartekoren bat bialtzeko Egillearen aurrera. Pekatu egin zuen ondorean bertan jaiki zan S. Migel leiala eta instante artan bertan purrukatu zituan Luzifertarrak Jaunaren aserrezko ezpada sorrotz ta gogorrarekiñ. Zergatik añ laster? Zergatik, jakintsu batzuk diotenez, aingeruen pekatua malizizko pekatua ta borondate guziarekiñ egiña zan. Kontuz, bada, kristauak, maliziz ta borondate guziarekin egiten dituzuen pekatuekiñ, zerren gerta leike orrelako pekatu bat egin ondorean ez izatea zuentzat Jaunagana biurtzeko grazia ta astirik. Ikasi zazue S. Migelgandik, bada emen ematen digu iru-garren lesiua; eta da maitasunezkoa.

Maitasuna esker onaren anaia da. Mesede asko artu dituan gizonak, biotz onekoa bada, an, biotzaren sokuan sentituko du esker ona, mese-deak egin naia ta maitasuna. Eta maitasuna dagon tokian ezta malizizko pekatu-rik: maitasuna da berez bigun ta estitsua, ta eztu nai urruindu, ezpada ze gozatu, onoretu, apaindu, samurtu, loratu baizik. Iñork ofendit-zen bazaitu, a., zer egiten duan ondo dakiala, ez siñistu persona arien maitasuna, maitasun ori gezurrezkoa da. Egiatzkoa zan Migel Santuarena Jaunarentzat, bizia zan ta samurra, ta ezin zuan eraman Jaunaren kontra iñor altxatzea. Orregatik jaiki zan añ laster, orregatik gerratu zuan, Jaun



maitagarria gozatzeagatik, onoretzeagatik, loratzeagatik. Ikasi zazute, kristauak.

N. a. m., beste gauza asko alde batera utzirik, eta gure arimaren probetxurako zerbait atera dezagun, nai nuke oroitu zaitezteela Luziferren eta lagunen pekatu añ gogor kastigatua izan zala pensamentuzko pekatu bat bakarrik: edo beren indarrez nai zuelako jadtixi betiko zoriona; edo betiko zoriona despreziaturik beren izateak, aingeru izateak ematen ziona bakarrik nai zuelako; edo beste aingeruei agintzea nai zualako, Jaunaren mende izan gabe; edo, beste batzuek diotenez, J.K. gure jauna gizon egingo zalako; dana dala pensamentuzko pekatu bat zan, soberbizko edo arrotasunezko pekatua. Zeiñ ikaratuko ezta au jakitean? O zenbat pena, zenbat naigabe, zenbat negar, zenbat itz amorratu, zenbat madarikazio ekarri dituan pensamentuzko pekatu batek. Zeruetan jaio ziran aingeruak galdu ziran, ta galdu ziran betiko pensamentu gaizto bategatik. Saul erregeak agindu zien bere gerralariei, eriotzaren azpian, etzezatela ezertxo ere jan edo edan onelako sasoiara arte. Agindu oni faltatu zion Jonatasek, gauza uts batean: ara zer zan: eskuan zaraman zigor punta bat sartu zuan esne ta eztitan, eta eraman zuan zigor punta ura aora, eta falta onegatik Saulek kondenatu zuan Jonatas iltzera. Orduan zion Jonatasek: *gustans gustavi paululum melis et ecce ego morior*, ezti pitin bat eraman det nere mingañera, eta ara emen zergatik ill biar dedan. Au berau deritzat Luzifer ta lagunak deadar egiten duela infernuan: *gustans gustavi paululum melis*: arrotasunezko pensamentu bat izan nuan, ta galdu nintzan betiko; ezta neretzat salbaziorik: *in inferno nulla est redemptio*. Kristauak! Eztira txarrak S. Migelek ematen diskigun ejemploak; baña ezta ere, deabruak berak, nai ta nai ez, infernutik ematen digun lesiua. Ikasi zaigun, k., ikasi zaigun.

Eta etzaitezteela astu bakar bakarrik salbatu zirala ta bizi dirala gaur zorioneko S. Migelen bandera zuri ederrari jarraitu ziotenak, umillak izan ziralak, esker onekoak izan ziralak ta maitaleak izan ziralak: aiek ere bazekiten ederrak zirala ta jakintsuak, baña bazekiten ere dena zala Jaungoikoak emana: etziran arrotu ta etziran kondenatu.

Baña, esango dirazue: ete dago gizonen bat Luzifer bezela Jaunaren kontra jaikitzen dana pensamentuz bada ere? Entenditzen degu Aingeru bat ikusirik bere burua añ ederra, añ aberatza, añ jakintsua, añ apaindua, añbeste eskubidez betea, txoraturik bere doe guziekiñ, astu zala bere Egillearekiñ, ta pekatu egin zuala; baña gizonak, badauka nundik arma izan? Badauka gizonak nondik panparroitu? Urte batzuetarako bizitza daukagu geienez, eta bizitza au iñork emana. Iñork egin genduzan, Jaungoiko gauza guzien Egilleak; jaio giñan ta baguaz askar asko munduko eremu

legorretik ziar eriotzako portura, beñ ere gelditu gabe, beñ ere atsedean piska bat egiteko eskubiderik eztaukagula. Ez gera ezertxo ere gorputzaren aldetik, kereiza, aizea, utza. *Pulvis, cinis, nihil*. Esan giñaike, bada, bildur gabe eztaukala gizonak nundik arma izan; bañan ikusten degu sarri askotan gizona astutzen dala zeñ utza dan, zertarako jaiua dan; pustutzen dala Jaunak egun batzuetarako eman dien ondasun apur batekiñ, jakituri piska batekiñ; gorputzeko indar piska batekiñ; arrotzen dala ondasuna, jakituria edo indarra beriak balitu bezela; erortzen dala itxutasun andi batean; jaikitzen dala bere Egillearen kontra, eta esaten diola, arpegiz arpegi, bere Egille Santuari Luziferren gisara: *non serviam*, etzaitut nai zerbitu, eztet nai zure mendian egon; ni ere banaiz zu bestekoa: *non serviam*.

Irakurri daiguzan munduko erri ta gizonen kondaira edo istoriak. Ikusten degu Babilonia bat, munduaren jabe ta erregiña bezela, esaten duala arrotasun andian: *Ego sum et praeter me non est alterus*; ikusten degu Nabukodonosor bat bera bizi zala, bere irudi edo talluntza bat adoratzeari izan zuana; ikusten degu Diokleziano bat bere burua eguski ta illargiaren anaitzat idukitzea nai izan zuana; ikusten degu Eliogabalo bat bera beste eguski eder argitsu bat bezela tratatzia nai izan zuana; ikusten degu Kaligula bat bere burua Jaungoikotzat zaukana; ikusten degu Persiako errege bat, zeñi, bere panparroikerian, urregorritzko burdian zaramela, burupetu zitzaion trumoiak eta tximistak bota biar zituala Jaungoikoa balitz bezela. Orretaraño eltzen da gizonen txorotasuna. Eta etziran, n. a., lengo gizonak bakarrik orrelakuak, ezpada eze gaurko gizonak ere bai. A! gaurko gizonena oraindik geiagora eltzen da. Zuek, n. a., gaurko munduan bizi zerate ta badakizue mundu orretan zer pasatzen dan: ni ere gaurko munduan bizi naiz ta badakit zerbait mundu onen berri. Or, nunbaiten, edonun, ikusiko dituzue itz jario bizardunen batzuk, txori buru pusturen batzuk, bere Jaun Egillearekiñ asturik bizi diranak, errestasunik andianean edozer gauza esaten duenak Relijio santuaren kontra, Eleizaren kontra, Jaungoikuaren kontra; or, nunbaiten edonun ikusiko dituzue Luziferren gizan, Luziferrekiñ batean jaikitzen diranak Jaunaren aurrean esanaz Egilleari: *non serviam*; etzaitut serbituko, nik neregañ bizi nai det, or konpon zure gauzekiñ. Zer esan det? *¿Non serviam* esaten duela? Gaurko egunetarako gauza utza da ori. A. aditzalleak, gaur iñoiz baño gorago dago jasota Luziferren bandera, ta badira jenteak deabrua baño amorratuagoak Jaunaren kontra esaten duenak infernuak asmatu al leikianik gauzarik txarrena, erdal errietako presondegieta asmatutako iskuntza bildurgarri bat, gizon iltzallian iskuntza amorratua. *Non serviam*, bai, eztet nai serbitu Jaungoikoa, Jaungoikoa baño geiago naiz: *non serviam*, eta gañera



Mek.... ai! ez: eztitut nai nere españak mantxatu. O, euskalerria, euskalerria, galdu ziñan!

Zuek, a, esango dirazue, bear bada, etzeratela zuek, eztirala Artadiko jentia modu orretan itz egiten duenak; zuek ere, iskuntza infernutar ori aditzean, bildurrez, ikaraz, ta lotzaz gelditzen zeratela. Ordu onian izan dedilla, n. Artaditar m., onela bada; bañan eztirazue ukatuko iskuntza madarikatu ori aditzen dala zuek zabiltzan bideetan, zuek zabiltzan lantegietan. Bai, or dabill mundua, deabruaren bandera inguraturik, beti mundu onetan bizi biar bagendu bezela, gorputzarentzat ajola geiegian, arimarentzat ajola gabe; or dabil gizona, itxutua, arrokeriz betea, munduan bere gozotasun danak billatu nairik.

O. n. k.! Betiko galduak izan nai ezpadezue Luzifertarrak bezela, oroi zaitezte etziñatela jaio beti emen bizi izateko eta ezta ere gaur bai ta biar ez diran ondasunen billa arrastaka ibiltzeko; ez n. k. Jaio zerate, aingeruak bezela Jauna maitatu, bedeinkatu, onoretu ta serbitzeko, eta gero bere arpegi ederra ikusten bizi izateko zeruetan. O Migel Santua! Zeruko Prinzipe andia, erruki zaite guzaz; egin gaitzatzu zu bezela umillak, eskeronekoak, leialak ta Jaunaren maitaleak emen, gero zurekiñ batean bizi gaitazan betikotasun zorionekoan, Amen.

(MAIATZA)

Corrupti sunt, et abominabiles facti sunt in studiis suis.

Ustedu ziran, ta naskagarriak zeuden beren esakeretan.

(Dabid erregearen itzak 13 garren Salmo ta 2 garren bersoan)

Gizonaren biotzak beti maitatzen du ta maitatuko du gauza ona; beti izango da gizonaren biotza gauza eder, andi ta aberatzen zalia. Gauza onak berez du misteriozko indar bat bezela gizon guzien biotzak beragatatzeke; gauza eder batek arriturik bezela idukitzen ditu gizonak bere aurrian, ta zenbat eta geiago esagutu edertasuna, ainbat eta geiago maitatzen due; jente aberatsai egiten zaiete salbe, menende edo maitasunaren señaleara, gezurrezkoa bada ere; gizon andiak izaten ditue inguruan beren argitasun ta jakituriaren onratzalleak; agintariak beregan izaten due beste gizonen errespeto edo bildurra; eta, azkenez, erregien jauregi apainduetan batzen dira aberatz, andiki ta agintariak erregiari onra emanaz, beren buruen onra billatzeko asmoetan.

Orregatik kristau katolikoen erlijioak, erlijiorik onenak, erlijiorik ederrenak, erlijiorik santuen ta andienak, bera bakarrik andi ta bera bakarrik santu dan erlijio egiazkoak, izango ditu noiz nai ta edozein tokitan maitatzalle benetakoak. Orregatik batu zerate zuek ere, n. a., Maiatzeko ill ederrean, eleiza santu onetan, gabero gabero zuen Ama maite Mariarekiñ batzar edo tertuli santu bat egitera, onela esan al baneike, Maria txit santa zeruetako erregiñaren birtute ugariak ikastera; Ama santa oni maitasunezko kanta gozoak kantatzera, esagutu duzelako bere ontasuna, bere edertsuna, bere animako aberastasuna, bere andi izate neurrigabea.

Txit ederki egin dezue, eta gaur billera edo batzar santu abetako azkenengo jaia dalako ondo erabaki dezue Maria Amaren irudi beneragarriarekin kalerik kale ertetzia, zuen maitasunaren señaleara edo ageragarri on bat emanaz.

Orregatik nator ni gaur zueri erakustera «txit bearra, ona ta osasungarria dala barrenen gordetzen degun siñismen Jaungoikozkoa kanpora gure egitada guzietan agertzea».

Ara emen nere sermoitxoaren gaia. Zeruetako erregiñak lagundu daidala bear dan bezela erakusten.

Corrupti sunt, etc.

1. N. a. m. Gauza bearra da mundu onetako semiok gure Jaun eta Jaungoikoari sor diogun errespeto, betuste ta onorea erakustea, ta baita



ere Jaungoikoaren adiskiderik andienai, bada eziñ geinke Jaungoikoa bear bezela onratu ta serbizatu bere adiskide ta santuak onoretu gabe.

Onore au eman biar diegu batez ere barranean, biotzean, zintzo zintzoro, *adorabis Deum in spiritu et veritate*, zergatik kanpoko onore ematea bakarrik gezurrezko onore ematea izango litzake, injuri andi bat Jaungoikoari ta Santuak ematea; bañan baita ere animatik kanpora agertu bear da, zergatik gorputza ere, anima bezela Jaungoikoak egiña da, ta gorputzak ere, animak bezela sor dio Jaungoikoari menende ta onorea.

2. Izan dira gizon gaizto batzuek, fede ukatzalle galduak, Eleiza Ama Santari malko asko isuri eragin dioten jente errukarriak, esan duenak aua betian eztuala Jaungoikoak arimatik kanpora errespetoaren señalerik biar. Gaur gizon oien kontra naiz, ikusiko dezue gero zergatik.

Nun ikasi ote zuen galdumendiko dotriña gezurrezko ori bere alperkeri ta borondate txarrean ezpada? Ez beintzat lege zarreko liburuetan, bada aietan irakurtzen degu *Kain eta Abel* lenengo gizonaren semeak ematen ziotela Jaungoikoari, ez bakarrik arimako onorea, baita ere animako errespetoaren agergarriya, ezkeintzen ziotela Aita Zerukoari beren lurreko ondasunen parte edo zati bat. Ez liburu zarretan, bada Job Santuaren liburu antziñakoan irakurtzen degu zenbat penitentzia, zenbat eskeintza, zenbat errege egiten zituen orduko gizonak beren pekatuen zorra pagatzeagatik, eta beste Israelgo Patriarka askoren liburuetan aitatzen dira txit sarri Jaungoikoaren onorean egindako Eleizak, altareak, festak, erreguak ta kantu samurrak. Milla ta milla gauza dira eta aste bat osoa bearko nuke danak esateko: aitatzea naikua degu jakitzeko. Eztuela Eleizaren etsaiak liburu sarretan ikasi eztegula eman bear Jaungoikoaganako maitasun ta errespetoaren señalerik.

Ikasi ote du jente gaisto orrek dotriña ori J.K. gure Jaunaren lege berriko liburuetan? Ezta ere anbat gutxiago. J.K. gure Jaunak berak ipiñi zizkun zazpi Sakramentuak señaile agirikoetan; berak ipiñi zigun Altarako Sakramentu Santu miragarritzko ori adoratu genezan; berak esan zigun bere izenean oraziora batzen giñanean an egongo zala Berbera gurekiñ batean; berak erakutzi zigun *Aita gurea*, oraziorik ederrena; berak eman zigun oraziorako ejenploa sarri askotan, batez ere Jetsemako baratzen auspesturik esan zionean Aita Zerukoari: *Pater, si possibile est, transeat a me calix iste*. Aita, al baldin bada, pasa dedilla nigandik kaliza samin au.

4. Dotriña au berau erakutzi digue Eleiza Santako gurasoak, señetatik ikusi genezake S. Agustin jakintsuak ta S. Juan Krisostomok esaten digutena. S. Agustiñek dio: *religio guztiak bear dituela biotzeko sentimentuen agergarriak, sakramentuak ta oraziuak*, orazio gabe, Sakramentu gabe bio-

tzean dauden sentimentuak kanpora agertu gabe ezin leitekeala bizi religioa. S. Juan Krisostomok esaten digu: *conspicuum esse non posse fieri ut sine precibus vita cum virtute detegatur* gauza jakiña dala, eziñ leitekeala iñor bizi birtutetsu orazio edo errege gabe.— Dotrina au berau erakutsi due gizon jakitsu askok, zeñetatik bat bakarrik aitatuko det, eleizaren adiskide ona izan etsana bera, Julio Simon Franziakua. Jakintsu onek dio: J. Kristoren eleizak esagutu duala inork baño obeto gizonaren biotza, ta orregatik ipiñi dizkola alderdi guzietan eleizak, alderdi guzietan kanpaiak, alderdi guzietan kurutzeak, alderdi guzietan Santuen irudiak, oroitu dediñ gizona Jaungoikoarekiñ ta erregutu dezan sarri biziakgatik ta illakgatik. Azkenez, erakusten nagon egia, fedekoa da, Trentoko batzar Santuak erakutzi zigun bezela, eta au esan eskero eztago kristautentzat geiago esan biarrik.

5. Nundik bada atera ote due eleizaren etsaiak galdumendiko dotriña gezurrezko au? Gizonaren adiñ edo arrasoiaren kontrakua ote da gure dotriña? A, ez! Gure arrasoiak esaten digu begietatik sartzen zaizkola gizonari gauza asko, eta gizonak ikasiko baditu, begiak ikusteko moduan egin biar dirala gauza oiek. Askorentzat milla bidar ganora bat itzez erakustea baño beiñ bakarrik ikusi eragitea geiago izan oi da. Orregatikan itxuak ez dakite eta eztue ikasiko beñere zer dan gauza gorria, gauza urdiña edo berdia: ikusten eztuelako.

Oso gauza zalla izango litzateke bada gizonen biotzean Jaungoikoarentzat amodiozko edo errespetozko sentimentuak sortzea, batez ere argi gutxiko gizonen biotzetan, ikusiko ezpaluteke beste gizonak Jaungoikoari ematen dizkaten amodiozko ta errespetozko señaileak: bada ikusten dana ikasten da, bai gauza txarrean ta baita ere onean.

6. Baña, itz egokiekiñ aditzen emanda ikasiko bagenduke ere, laster astuko genduke Jaunaganako amodiua, ikusiko ezipagenduke beste gizonak ere baduela amodio ori; guk, gure bizi moduan emango ezipaginduzke amodio orren señaileak; egunero *Aita gurea* deituaz erregutuko ezipagenduke; egunero bere aurrean belaunikaturik gure pekatuen parkaziua eskatuko ezipagenduke, Jesus maitearen irudi bedeinkatuari *mun* gozo bat egiñaz. Ikusten eztana edo egiten eztana, jakin da ere, astu egiten da. Au gauza argi ta garbiya da, bañan garbiago oraindik ikusiko dezue ejenplu batzuekin, Zer gertatzen zatzue zueri, Mariaren alabak, zuen Ama maitearen onran funzio edo eleiz festa on bat egiten dezuenean, sermoi on bat aditzen dezuenean, kanta gozoak kantatzen jardun izan dezuenean? Zer? Berotzen da zuen biotza; pistutzen da zuen anima Mariaganako maitasunean ta egiten dituzue zuen erregutxoak iñoiz baño obeto, ta artzen dezue gogoa Mariaren deboziozkoak beti izateko ta egunero berari zer-



bait erresatzeko. Bañan etzaiztela etorri eleiz-festetara illabetian edo bijan.. ta zuen errekuak epeltzen dira lenengo, astutzen dituzue gero, eta eleizara etorri baño or nunbaiteko erromeri edo jolasetarako gogo geiago izaten dezue. Zer gertatzen da gizon askorekiñ, biotz oneko kristauak izan arren? Konfesio on bat egiñ ondorean kristaurik onenetakua izaten dira, baña gero, eleizako funzioetatik iges egiten asten diranean, otzitzen zaie biotza, jaietan entzuten due mesatxo bat, laburrena al bada, konfesiotaik igez egiten due, ta azkenian etxekoen jardunaren jardunak, sakaka ta bultzaka ezpada, ekartzen ditu konfesiota urtian beiñ. Zer gertatzen da trozoetako lanera edo Amerikatara juaten diran askorekiñ? Lenengoetan entzuten ditue jaiko mesatxuak, laburrenak bada ere, egiten ditue kristauen eginkizunak nolabait... baña gero, toki oietan erraz eztatuko edo ejenplu txar asko ikusten dituelako, utzitzen ditue lenengo erresuak, gero mesak, gero konfesiua... eta gero? jaungoikuak bakarrik daki gero nola bizitzen diran! Bizi? Bai, bizitzen dira mundurako, beren gorputza bizi da, bañan anima gaixoa illa egon oi da sarri askotan. Bai, n. a., ah argalak gera, añ utzak gera eze, Jaunaren laguntasun gabe, ejenplu on gabe gauza on bat egiten eztatigu. Ziartu nago Eleiz-funziotik ikusiko ezipalitzateke beñere, gure fedea illa geldituko litzatekeala oso laster. O n. k.! Fedea galdu nai ezipadezue, bada, Jaunaren laguntasuna nai badezue, ejenplu ona ikusi nai badezue, biotza indartu nai badezue zerurako bidean, o n. k.! atozte eleizetara, atozte.

7. Gañera ezingo du iñork ukatu eleizak dirala denok alkarganatze-ko tokirik egokienak. Eleizatik kanpora denok sakabanatuta bizi zerate, bakoitza bere etxean, etxe pobretxoan pobreak, etxe aberatzetan aberatzak, bata bestien kontra jardun berrikerietan bear bada, karidadearen kontra pekatu egiten dezuela. Baña eleizan denok etxe batean zaudete, oroitzen zatzuela Aita baten semeak zeratela guztiok; denok janari bat jaten dezue, Altarako Sakramentu santuan dagon janari miragarritzak; denok orazio bat egiten dezue, askotan zuen artzaia gidatzen zaituela; denok bat egiten zerate karidadean bata bestiari parkatuaz, bada guziok esaten diozue Aita zerukoari; «parkatu gure sorrak guk gure sordunai parkatzen diegun bezela». Zer lokarri ederragorik denok alkarganatze-ko karidadea baño?

8. N. a.: Badakit nik ere, gizon gaistoak esan duen bezela, biotzeko maitasuna, barreneko errespetoa, animako onorea dala onena, biotzeko maitasun ori dala debozioaren mamiya S. Buenabenturen itzetan, eta kanpoko señaileak azala edo koskola bezela; *bañan* azala ere azal gabe mami-

ya ezta biziko, ezta iraungo: edo lizunduko da edo ustelduko da, eta mamiñ ustel asko dago munduan.

O n. k.: gaurko munduan bizi zerate ta badakizue zer gertatzen dan bertan; ni ere gaurko munduan bizi naiz ta badakit zerbait munduaren berri. Badakit persona askok, emakume askok (bai, emakumeak ere bai) ikusten dituzuenean eleizara dijoazela sarritxo beste batzuek, eziñ eramanik bestien ona., esaten duela; «sarri eleizara juaten diran oiek, sarri konfesatzen diran oiek, gu baño gaistoagoak dira». Bai? Ala ote da? Denak ote dira gaistoagoak? Zuek beintzat laster erabaki dezue: au txarra, ni ona. Jakin zazue Jaungoikoa dala guztien jueza ta berak erabakiko duala zein dan ona ta zein txarra: etzaioztela eskurik artu Jaungoikuari. O. n. k.: orrela itz egiten duen jenteak, beren buruak ontzat badauzke ere, badue la uste det zerbait aidetasuna Eleizari negar eragin dioten gizon gaistokiñ: eztue berak deboziotik eta eztue nai bestiak izan desaten ere: eztauke maitasunaren azalik, eztauke koskolik, eztue nai sarri juan eleizara Jaunari, Maria Santari ta Santuai maitasunaren señailek ematera; bañan eztauke mamiñ ere, eztauke Jaungoikoaganako maitasunaren ispirik ere: esan det len, koskol gabeko mamiya lizundua edo usteldua dago. Nun ikasi due galdumendiko dotriña ori? Nun? Beren alperkerian, beren nagitasunian, beren Jaungoikoaganako borondate txarrean.

9. O. n. a. m.! Eleiz onetan batu zeratenok badakit orrela izango etzeratena: zuek etorri zerate Amarik maiteenari maitasunezko señailek ederrenak ematera: zuek nai diozkatzue maitasun egiazkoaren agergarriak eman Mariari etxean, eleizan, kalean, toki guztietan ta al dezuen guztian. Gaur bedeikatu dezue eleizan ta orain erten zazue kalerik kale bere irudi beneragarriarekiñ. Or, kale kantoietan, eleiz barruan bezela ikusia ta bedeinkatua izan dedilla gure amaren irudi gozoa, bedeinkatua bere izena. Begietatik sartzen badira gauza onak, begiak ikusi dezela gure erregiña, gauzarik onena. Belarrietatik sartzen badira, aditu dezela belarriak Mariari egiten diogun erregua: «Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, erregutu zazu gu pekatariokgatik».

O, bai, Ama, erregutu zazu gugatik. Bigundu itzatzu biotz legorak, sortu zazu biotz guztietan eleizarako gogoia, izan gaitezen gero zugandik onoretuak zeruetan betikotasun zorionekoan, Amen.



PRESENTACIÓN

(Zumaya)
1895

Audi, filia, et vide et inclina aurem tuam.

(Ps. 44, 12.) Aditu zazu, alaba, ikusi ta entzun zazu ondo.
(Berrogetalagarren salmo ta amabigarren bersotik artutako itzak)

N. a. m.: Zer festa eder ta mesedezkoa gaur ospatzen degun festa gozoa! Erten degu gure kapillatxotik prozeziuan, ta kaleetatik ziar etorri gera parroki santura errosariua kantatuaz Mariaren irudi txikitxo bat erdian dakargula. Aurretik, ekarri ditugu, beste prozeziuetan ikusten eztan bezela, beren pausoa ezin ondo bota duen umetxoak; bigarrengo mallan etorri dira amar amabi urtekuak, argi geiago daukaten neskak, eta askenerontz gaste jente asitxuena. Zertarako da festa au? Denak oroi dezaten, lurrean lenengo pausuak ematen dituenetatik asi ta mundu orren erdian laster sartu biar duteneraño, denak oroi dezaten gaurko egunean Maria Santak ematen digun ejenploa.— Txit da gozoa umien lenengo iskuntza Mariaganako oraziua izatea; txit da ederra umetxoai erakustea Maria zeruetako erregiñ bedekinkatuak bere lenengo pausuak eleiz bidean eman zituala; txit da osasungarria, neskatxoak, arrasoiaren argia beren buruetan sartzen dan orduan, gauza guztiak esagutzen asten diranean, jakin deza-tela, sasoi orretarako Maria, emakumerik argiena, Tenploan bizi zala; txit gauza ona da, asitxuenak, munduan sartu biar duen egunetan, jakin deza-tela munduak gastetasunarentzat dauzkan perilletatik iges egin zuala Maria Santak.

Gure irudimena lenengo jotzen duan gertaera, pausu ta pensamentuak an gelditzen dira betiko eta egiten due gero biotzaren erdian kabi bat: lenengo gertaera, pausu ta pensamentuak okerrak izaten badira, kabi orretatik okerkeri askok ertengo du gero bizitza guztian gure arimaren ondamen diralako: lenengo gertaera, pausu ta pensamentuak onak izan badira, kabi orretatik gauza on askok erten biar du gure animaren osasunerako. *A juventute tua excipe doctrinam et usque ad canos invenies.* Ikasi zazu gastetan gauza ona eta oroituko dezu sartzan ere, dio E. Santuak.

Orregatik esan det dala eder ta mesedezkoa gure gaurko festa, bada festa au da bizitza gustirako oroimengarri on bat.— Ume abek eztira beti ume izango; asiko dira ta biziko dira munduan; gordeko due biotzaren

erdian gaurko festaren oroimena; menturaz abetatik asko guraso izango dira; erakutziko diote beren ondorenguai berak ikasi duten jarraibidia, ta apainduko ditue beren alabatxoak berak ainbeste pozez beterik festa onetarako apaintzen ziran bezela. Gaur ikasi ta biar erakutzi: kate andi bat egiñ biar degu Relijio santua pistu ta indartuko duen gauza guztiekiñ; kate lodi bat beñere puskatuko eztana; kate luze bat gu ilda gero ere iraungo duana animen onerako.

Gaurko festa kristauen eskoletatik kanpora illunian ta astuta bezela pasatzen da; bañan jakiñ zazute, a., eztala badaezpadako festa. Gogoratzan zaigu egun onetan, Maria, gure Ama txit santa, iru urte bakarrik zituanian, utzirik etxea, gurasuak, aideak ta laguntxo guziak, juan zala Jerusalengo Tenplora eskeintzera bere jaungoikuari bere biotz ta izate guztia, eta an bizi izatera Jaunaren maitasunian ta Eleiza santuaren serbitzari bezela.

Ikusi dezagun, n. a., zeñ eskeintzari andia dan Mariarena ta *ikasi* dezagun guk ere Mariaren ejenpluarekiñ zerbait eskeintzen gure Jaunari.

Lagundu zadazue, n. k., onetarako biar dedan grazia Jaungoiko gure Jaunagandik jaristen, eta eskatu zaiogun Mariaren bitartez esanaz *Abe Maria* bana.

Audi etc.

1. N. a. m.: Maria gure Ama santak, iru urte bakarrik zituala Jerusalem Tenplora juan zanian an erten gabe gelditzeko, egin zion Aita Jaungoikuari gorputz ta arimaren eskeintzari eder bat. Gorputzaren aldetik bere bost sentzunak eman zizkon Jaun Egilleari, bada Tenploan sartu zanetik aurrera Mariaren begiak ziran Jaungoikozko gauzak ikusteko bakarrik; bere belarriak' zeruko dotriña maitagarria ikasteko; bere min-gaña' Jaungoiko santua bedekinkatzeko; bere sudurra' Eleizako intzentsuaren usai gozoa aditzeko; bere oñak' Eleiz barruan erabilteko; ta bere eskuak' Altara Santurako biar ziran gauzak garbitu, josi ta apaintzeko. Animaren aldetik' almen guziak Jaungoikuagan zeuzkan. Bere adimen argitsua gozatzen zan Jaunaren andi izate, aberastasun, ontasun ta gizonarentzat zuan errukitasun neurrigabea pensatzen; bere oroimenarekiñ gogoratzen zituan Jaungoikuak gizonari egin biar zizkon mesediak; bere borondateak, borondate andi, zintzo ta beñere okertu etzanak, opa zuan Jaunarekiñ beti egotea, Jaungoikoa beti maitatzea oso osuan ta biotz guziarekiñ, beñere opa gabe beste munduko gozamenik.

Ara nolakua dan, n. k., Mariak Egilleari egiñ dion eskeintza ederra, gorputzeko sentzun guziena, arimako oroimen, entendimentu ta borondate osoarena. Berak daki ondotox begirada gaisto bat izan leitekiala ani-



maren galgarria, eta orregatik gordeko ditu ondo bere begiak: *oculos semper defixos tenuit, nisi dum oraret*; berak daki ondotoxo aditzen dan esakera gaizto batek *benenotu* lezakeala anima, eta orregatik, S. Lukasek esaten duanez, etzan sartzen Maria espirituko jardunetan ezpada, eta jardun oietan ikasten zuana gordetzen zuan bere biotzean betiko, *conservabat omnia haec in corde suo*; berak daki ondotoxo, mingaña geiegi erabiltean, karidade santuaren kontra pekatu asko egiten dirala, eta orregatik bizi izan zan isiltasun andi ta ejenplugarritzko batean, *et vox penitus non audiebatur*; itz batean esateko, berak daki Jaungoikuak pausu guztiak ikusten dituala, anima ere gorputza bezela berdiñ ikusten duala, ta orregatik ematen ditu pausu ondo neurtuak; orregatik dijoa Tenplora ta orregatik darabill anima ah garbi Jaungoiko maiteari gusto emateagatik. *Tota pulcra...*

Baña nola daki Mariak orrenbeste iru urte bakarrik dituala? Guk, n. a., nola jaio geran gure lenengo gurasuaren jatorritzko pekatuan, nola jaio geran argi gutxi buruan degula ta borondate okerra biotzean, eztegu esagutuko biar bezela Mariak, añ gastetatikan, Jaungoikuaganako zeukan borondate ona. Baña bai, esagutuko degu, oroitzen bagera Mariak etzuala jatorritzko pekatuak, Maria Santa sortua izan zala ta jaiua txit garbi ta zeruko graziaz ta aberastasunez apaiñdua; Maria zala santu guziak baño, Adan lenengo gurasua baño geiago, bada Adan gizonen guraso bada, Maria da Jaungoikuaren amatzat aukeratua, ta baita ere gizonen ama Jesusek kurutze gañetik titulo ori eman zion eskeroan.

2. Bai, n. a., Maria txit santa jaio zan zeruko apainduriz betea; ume-txoa zala jua zan Jerusalengo Tenplora apainduri abek gorde ta geitzia-gatik; gaste gastetatikan lurreko gauzai begiratu gabe igo zan zerurontz birtute eder askoren ego txuriak zabaldurik... eta gu, alegiñ guztiak egiñ da ere, ezgera iñoiz goi artaraño jasoko; baña (eta emen euki kontu) guk ere zerbait egiñ genezake animako ondasunak akitzeko, eta akiatu eske-ro ez galtzeko; guk ere jaso genezake biotza lurretik gora, bada Jaungoikuak onetarako laguntzen digu; Jaungoikuak emandako gorputzaren sentzunak gastatu giñazke Jaunaren onran; gure pensamentua erabilli giñai-ke Jaungoikuaren andiizate, aberastasun ta guretzat duan errukia pentsa-tzen; gure irudimena Jaunak egin dizkigun mesedeak gogoratzen; gure borondate, lurrean arrastaka erabilli gabe, piska bat gorago jaso, ta gure betiko bizileku dan zerua ta Jaungoiko Santu maitagarria indar guziekiñ maitatzen.

Eta orretara dijuaz mojatxo aben lanbide, jardun ta arrastaka guz-tiak. Beren mende ta eskubidearen azpian utzitzen dituen umetxoai' era-kusten diete zeñek eta zertarako eman zitzen gorputzaren sentzunak ta

arimaren almenak; zer ikusi biar duen ta zer ez; zer aditu biar duen ta zer aditu biar eztan; nundik da nora ibilli bear duen; zer pensatu, zer oroitu ta zer desiatu biar duen Jaungoikua ez ofenditzeko. Maria bere boronda-tez Tenplora bezela, gurasuen borondateak ekarri ditu gaste abek Zumaiko ikaslekura (ikastegira) eta emen? ikasten ditue milla kontu osa-sungarrizko. Ah! Ta zer gauza ona dan jakitea gure lenengo urtietatik zeñi sor diogun daukagun guztia geiegi arrotu eskaitezen; batez ere emaku-mientzat, zer gauza ona dan jakitea, beren gorputzak ederki apainduta, or ziar beren buruak botatzen dituenan, ibilli ez deitezen ekaitz tartean itxa-soaren erdian belak eta lema galdu dituan ontziya bezela! A! Zeñ ona dan gasterik ikastea gure irudimen, entendimendu ta borondateak zertarako emanak diran, erabilli eztaiguzan gero nundik ta noranai gure anima guz-tia pekatu matasa zarrez josi josia ipintzeraño!

3. Bañan utzi ditzagun kontu abek ta ikusi dezagun obeto Mariaren eskeintza ta borondate ona. Eman zizkon Jaunari gorputzeko sentiduak ta arimako almenak; eman zion biotz guztia; bañan ainbesteraño maita-tzen zuan Mariak bere Egillea eze, etzan betetzen Jaunari eman zionakiñ, eziñ zan ase biotzaren erdian zeukan maitasunezko gose-egarria, ta geia-go eman nai zion Jaungoikuari. Baña, zer geiago emango zion bere izate guztia baño? O! Maitasunak asmo ugariak ditu, ta Mariaren maitasunak asmatu zuan orduraño munduan aditu etzan gauza bat, orduko munduak geien gorrotatzen zuan gauza: *asmatu zuan* Jaunaren maitasuna onratzea-gatik ez beñere gizonen maitasunik esagutzea; asmatu zuan bere gorpu-tzaren beti-betiko garbitasuna; emakumea ezpalitz bezela arima ta gor-putz aingeru baten gisara bizi izatea: obeto aditu dezazuten, *Birjiña* izatea bere bizitza guztian. O, kristauak, ordurarte etzan onelako eskeintzarik ikusi Jaunaren Altara aurrean; orduraño gizon ta emakumeak gizon ta emakume onak izatearekiñ asetzen ziran; baña egun orretatik' aurrera Mariak ireki zuan bide berri aingerutar onetatik asko jun dira zeruraño, eta an daude Maria garbiaren kortejari garbi ta santu egiñik.

(Mariak Jaunaren maitasunagatik asmatu zuan estadu berri au ezta danentzakua; bakarrik sartu biar du bide orretatikan Jaungoikuak artara-ko deitzen dionak, dei egiazkoa dan edo ez ondo ikusita gero, zer egitera dijuan ondo pensatu ta gero; bañan danentzakua da, bakoitzak bere esta-duan gorde biar duan garbitasuna, danentzako da ez pensamentuz, ez itzez ta ez obraz Jauna beñere ofenditzeko esaten duan legea: ez astu, k.)

4. Maria bizi izan zan Jerusalengo Templo santuan beste estadu bat artu bear zuan artean; beti Jaungoiko maitiaren isilmandatuak entzuten, beti umilltasunian, beti biotzetik erregutzen, beti maitasunezko sugarre-



tan erretzen; eta gure Jaungoiko gauza uts batzuekgatik zerua ematen digunak, aberastu zuan Mariaren anima geiago ta geiago oraindik, ezin esan besteraño, oso neurrigabea; eta Tenplo artatik erten zanean, legeak etziolako utzitzen denpora geiagoan egoten, erten zan, ez munduaren erdira, ezpada Nazaretko etxetxora, eta an jarraitu zion Tenploan ikasi zuan bizitzari, an izan zan, Tenploan bezela, isilkorra ta umilla, bakartade ta orazio zalea: etzituan utzi bere birtuteak Eleizan, Tenplotik kanpora berarekin batera eraman zituan beti beti biotzaren erdian gordetzeko.

Berarekin batean! Bai, n. k., birtuteak eztira onelako ta orrelako tokian bakarrik billatzen diranak, bakoitzarentzat dira eta denok billatu giñazke edozeñ tokitan ta edozeñ estadutan, benetan nai izan eskero. Ara emen zer falta dan: nai izatea. Egia da, guk, gurez bakarrik, ezin giñaike ezer egin Jaunaren laguntasun ta grazia gabe; bañan Jaunak denori laguntzen digu bere graziarekiñ. Jaungoikuaren grazia da eguskiaren argi errañoa bezela: eguskiak argi egiten du Franzian ta Españian berdiñ: eguskiak argi egiten dio itxasoan dijuan mariñelari ta mendian dabillen artsaia-ri: eguskiaren errañoa sartzen da Eleizan, konbentuan, Erregien jauregie-tan ta zuen etxietan. Orrela da Jaunaren grazia ere, Jaunaren grazia toki guztietan daukagu: gertzatzen dana da batzuek eztirala oroitzen grazia orrekiñ, ta beste batzuek abegi on bat egiñik beren animetan gordetzen duela.

Onela gorde zuan Mariak Eleizan ta kanpoan, onela geitu zuan geia-go ta geiago, ainbesteraño eze merezi izan zuan Jaungoikoaren mandata-riak deitu zezaiola *graziaz betia*, zein dan munduan esan diran alabanzarik andiena. Dabid bati esan zion Jaungoikuak bere biotzaren gisako gizona zala, *vir secundum cor Dei*; Magdalena bati esan zion asko maitatzen zuala-ko pekatuak parkatzen zizkola, *remituntur tibi peccata tua quia dilexisti mul-tum*; S. Juan Bautista bati esan zion «gizon jaio ziranen artian andiena zala»; baña Dabidek pekatu egin zuan, Magdalena Jerusalemgo eskandalua izan zan, S. Juan B.ta gauza utsa zan Mariaren onduan; eta zerutik lurre-ra jetxi zan aingeru mandatariak, emakume miragarritzko onen aurrian, asten du bere mandatua esanaz: *Abe Maria, graziaz betia*. Atera zazue eme-tik kontu zenbat balio duan Jaunaren graziak ta nola saritu zion Jaunak Mariak berari Eleizan egin zion eskeintza ederra.

5. Eta oraiñ Maria graziaz betia bazegoan, bada, zeruko aingeruak esan zionez, etzeukan geiago grazia bearrik, graziaz aseta egongo zan ta etzuan geiago ezertxo ere egingo grazia geiago akitzeko? A! ez; Mariak eztu instante bat bakarra galduko bere bizitza luzian, egingo du alegiña arimako aberastasunak geitatzeko, Jaunarekiñ adiskidetasun andia geiago

estutzeko; irurogeita amaika urtean biziko da, baña zazpi milla urtean biziko balitz ere, berdiñ berdiñean egingo luke lana anima graziaz geiago aberastzeko.

A zer ejenplua guretzat, n. a! Maria grazian ta apainduri ugarietan jaio zana; zeruak graziaz betia deitu diona, *gratia plena*; M., lurreko santu guztiak ta zeruko aingeru danak baño milla bidar aberatsagoa... beti ani-mako aberastasunen billa, eta *gu*, pekatuan jaiuak, pekatuan bizi izan gera-nak, animaren ajolarik gabe, gorputzaren ajola geiegian! Ez gera lotsatzen, a., ez gera bildurtzen sentzuegabereri onekiñ? Beñere pekaturik eziñ egiñ bageinke bezela, arimako etsairik ezipagenduke bezela, gabiltza nunnai ta edozeñ sasotan begiak ta belarriak ondo irikiak ditugula, ta mingaño luzeak esaten duana beñere neurtu gabe... Ez gera lotsatzen, ez gera bil-durtzen sentzuegabereri onekiñ? Gastetasuna alperrik galdu dezuen kris-tauak, oroi zaitezte denporaz, eriotz bildurgarriren atsaparretan erori baño len!

6. Eta zuk, gure eskola barruan bizi zeran gaste jentea, etzazula den-porarik galdu, ikasi zazu Mariaren ejenploarekiñ; ta zuen erri ta etxeetara juaten zeratenian eraman zazue zuekiñ batean birtutezko bizitza ona Mariak Tenplotik kanpora eraman zuan bezela: ez emen utzi bizimodu ona ta Jaunaren grazia, bada falta andia egingo dizue lurrean igaro biar dituzuen egunetan. Jaungoikoak ta M. S. gorde zaitzela mundu orretan billatuko dituzuen arimako etsai tartean.

Zuek, berriz, erri onetako neskatxoak, kanpai soñua aditzean esko-lara juaten zeratenak, egin zazue egunoro eskolara juateko *sakrifizioa*, M. Tenploan egin zuana bezela; bada zuek eskolan egongo zerate onduen, eskolan ikasiko dituzue gero falta egingo dizuen gauzatxo asko. Eta esko-la barruan *audite filiae*, entzun ikasteko gogo onarekiñ zuen erakusleak esa-ten dizuen: *et videte*, ikusi ondo ta ikasi biar diran gauza on gustiak, eta gero egin bizitza guztian oraiñ ikasi dezuena.

Aditzen zaudeten gurasuak, milla bidar esaten dezuenak zuen den-poran aña beste gauza on erakutzi balitz mesede andiak izango zinduztela, munduan bizi izateko argi geiago izango zinduela, etziñatela aña motzak izango, zuen alabatxoan onagatik egin zazue zuek ere eskeñtza bat Jauna-ri, *sakrifizio* txiki bat, eta eskolako orduetan lan geitxuago izango badezue ere, bialdu itzazue egunoro zuen alabatxuak eskolara, egunoro, zerren buruan argitasuna ta biotzean jaunaren maitaera sartzeko astija biar da ta denpora; eta ala ere, askotan ezta atxitzen nai dan gustia. Eztizue dote oberik emango edukazio on bat ikasi eragitea baño. Eztezue nai zuen umeak argiak izan ditezen ta biotz onekuak? Bañan nola orretarako



bidean ipintzen ezpadituzue? Erantzungo dirazue eskoletara juaten diranak ere naikua motz ta naikua lotzagabe dirala? Bai, arrasoia dezue, askotan berez bear da doaia; esan det eskoletan ere eztala nai dan guztia atxizten umiakgandik; baña obiak ta argiaguak dira kalebasterretan edozeñ zabarkeritan dabilzanak beñere itz on bat aditu gabe? Ai, ez, esagun izaten da zeñ dijuan egunero eskolara, zeñ dijuan noizian beñ, ta zeñ batere juaten eztan. Esagun kalia, esagun etxian, esagun Eleizan (konfesonariuan), esagun orain, ta geruago ta esagunago. Kristau gurasuak, zuen umien onagatik, Jaunaren izenian, Jaunaren aurrian kontu eman biar gutxiago izan dezazuen, egunoro umiak eskolara.

Azkenez, zuek, aingeruen arpegidun umetxo laztanak, munduko ekaitz galgarriak jo etzaituen lore bigunak, konzienzia txuri-garbi-ederreko ume bedeinkatuak, alkarganatu itzatzue zuen eskutxuak ta erregutu Ama Santari gorde zaitezela beti aingeru, orain, gero ta eriotzako orduan. Erregutu gugatik ere denok salba gaitezen.

Bai, Ama maitea, salba gaitezela denok: ume abek ta ume eztiranak aprobeitza dezatela eskolako denpora, jarrai dezatela gero gaur ikasten duena, bizi ditezela kristau onen gisara, bizitza au amaitzian erori dizezen zure besuen erdian betiko zorionerako, Amen.

SANTA ENGRACIA

Aizarna — 1896

*Iustorum animae in manu Dei sunt,
et non tanget illos tormentum mortis.*

Justuen animak Jaungoikoaren eskuetan daude,
ta eriotzaren oñazeak ez tie ikutuko.

(Jakituriako liburuan 3-garren bersotik artutako itzak.)

N. a. m.: Munduan egia falta da, munduan egia bearrean dago. Egia zeñ bearra dan lurrean jakiteko, eztaukagu ikustea baño gizon guztiak maitatzen duela (itxuran beintzat), gizon guztiak esaten duela beti berena dala egia. Deserrazoirik andienaren alde dabillenak; gauzarik okerreana defenditzen duenak; norbere iritziarekiñ ateratziagatik justizi guziaren kontra jotzen duen gizonak; lenengo gezur ondo asmatugabea esaten duan ume koskorretik asi ta eskola naguzietan panparroikeriz beterik beren dotrina gaistoak erakusten dituen maisuetaraño; istun eder diranak; gizon jakintsuak; ausilariak, eskribatzalleak; goikuak ta bekuak denak esango dizue arrotasunik andienean: «au da egia, nik esaten det egia, nerea da egia». Al! Esagutzen due, esango baluteke, bere biotzaren erdian sentitzen duen gisan: «nik esaten det gezurra, nerea da gezurra», beren ausia instante artan galduko litzatekeala.

Bada orduan, esan giñaike: gizon guziak egiaren alde badira, gizon guziak egia badiote, dena da egia munduan? Al! ez, a., munduan gezur asko da, txit asko; gezurrak umien artian, gezurrak ezjakiñen artian, gezurrak jakintzuen artian ere. Gizonak askotan ezta erakusten bere barruko pensamentua; gizonak askotan bere biotzeko sentimentuak estalduak erakusten ditu; baño, borondaterik onenarekiñ jotzen duanian ere, oso indar gutxi du egia billatzeko.

Orregatik ainbeste bidar begitandu zaizka gizonari eztiran gauzak; orregatik mundu onetan maisutzat egon diran jente askok erakutzi ditue gezurrak egi ederraren jaskerarekiñ. Zer da bada egia? Egia da Jaungoikoa, bada Jesusek esan zuan *ego sum ventas*, ta egizaleak dira Jesusen dotriña zarrari betiko bidetik jarraitzen diotenak, bañan ez mingañez, ezpada egi-tez, bene benetan.



Nator gaur erakustera zuek añ poliki apaindu dezuen ermita oneta-ko Santa, Santa Engrazia izan zala egizale benetakoa ta egia defenditzea-gatik iltzala, guri ejenplu osasungarri bat emanaz.

Eztakit nola erakutziko detan gai au. Zuek, Aizarnatar aditzalleak, txit egoki aukeratua zendukaten sermoi onetarako gizon abill, jakintsu on ta egizale bat, bañan gizon ori gaisotu dalako nik artu det asken orduan sermoi au egiteko arturapena. Esagutuko dezue, bada, iñoiz baño geiago bear detala gaur Jaunaren laguntasuna, ta laguntasun au eskatzeko auspeztu zaitezte nerekiñ gaur bedeinkatutako altara berri onen aurrian, ta esan daigun Zeruetako gure ama onari *Abe Maria* bana.

Iustorum... etc.

N. a. m. Ebro ibai z ibalaren aldamenen jasotzen da uri andi ta eder bat Zaragoza izenekoa; Zaragoza, Ama Birjiña metarri edo Pilare santukoaren agertokia; Zaragoza, ainbeste martini santuk beren odolararekiñ bustitako erri bedeinkatua, Zaragoza, oroimengarritsu ta izen andikoa, España guztiari onorea emateko diña dan Zaragoza.

Erri onetan martiri santuen odol beroak narotua, jaio zan landara berri ta eder bat, Sta. Engrazia, Jesus bakarrik zala *egia* esagutzen zuan emakume argitsu eta egia onen alde ill arteraño burrukatzeko prest zegoan emakume indartsua.

Laster etorri zitzaion burruka onetarako bidea. Denbora artan zegoan Zaragozako agintari Daziano zeritzaion gizon biotz gogorreko bat, Jaungoiko gezurrezkoen alde lan andietan zebillena, ta kristauen izena lurretik betiko kendu nai zuana. Egun batean artu zituan preso emezortzi gizon familiarik andienetakoak, eta esan zien Jesukristoren legea utzi nai ezipazuen alde batera bein betiko, kenduko ziotela bizitza.

Uste dezue, a., bildurtuko zirala gizon aiek, ta utziko zutela Jesusen legea, gaurko gizon bildurti argalak menturaz egingo luteken bezela? Ez, aditzalleak. Zaragozako gizon santu ta egizale aiek bazekiten Dazianok kenduko ziela gorputzaren bizitza, baño ez animarena, ta animaren betiko bizitza gozoa nai zuten gorde; bazekiten etzietela illko anima, Jaungoikoaren eskuetan zegoalako ta ez gizonaren eskuetan: *iustorum animae in manu Dei sunt, et non tanget illos tormentum mortis*. Orregatik etzuten egia saldu, eta eman zuten beren bizitza Jesusegatik.

Gizon aiek beren bizitza egiagatik ematen zeudenean, an zegoan beren ondoan Engrazia emakume gaste ta ona; ez isill ta bildurturik, ezipada martiri santuak animatzen, gizon aien animak pistutzen fedean ta zeruko gozotasunen esperantza santuan. Eta an juntzan bera, batere bildur gabe, fedearen su-garrean pisturik, Daziano gogorrari esatera: «Zer-

gatik zuk, juez galdua, mespreziatzen dezu guk adoratzen degun Jaungoiko ta Jaun egiazkua? Zergatik zuk ta Erromako Enperadoriak ain gaizki tratatzen dituzue kristauak mundu guzian? Zergatik zerate Jaungoiko gezurrezkoen aldekoak? Zergatik esamiñatzen eztezue Jesus Jaungoiko egiazko bakarren dotrina santua?».

O Engrazia, Engrazia, Españañatar noblea! Eztezazula orrenbeste-rañoko bidean eraman egia santuarentzat daukazu maitasuna! Pentzatu zazu erromatar gaisto orrek eztuala begiratuko emakumea zerala, gastea zerala, ederra zerala, noblea zerala: zure bizitza perillean daukazu ta galdu zeinkeala sasoirik ederrenean.

«Nere bizitza perillean. Zer bizitza? Gorputzekoa ala arimakoa? Arimako bizitza Jaunaren eskuetan dago eta ezit lurreko gizonen kenduko: *iustorum animae in manu Dei sunt*, geienez bada kenduko die gorputzaren bizitza; ta zer dit neri gorputza illagatik betiko zorion pozgarria irabazten badet ondorean? Gastea banaiz, gasteagoa joango naiz zeru gozora, eder ta noblea banaiz, nere edertasun ta nobletasuna egiaen alde gastatu nai ditut?». Erantzuera ederra, munduko gizon kristau guziak pekatuaren aurrean eman biar luteken erantzuera. O, n. a. m.! Deabru gaizkiñ beltzak zuek gezurrera eraman naian tentatzen zaituztenean esanaz: gasteak zera-tela, ederrak zeratela, senduak zeratela, aberatzak zeratela, jakintsuak zeratela; erantzun zaiozute: eta zuk eman al dirazu nere gastetasuna, nere edertasuna, nere aberastasuna, nere jakituri apurra? Bada, nola orduan eskatzen dirazu zuk Jaunaren eskuetatik artu detan doaia? O ez, datorre-la datorrena nere gañera, etzaitut serbituko zu, nere etsai gezurtia: betor nere gañera nekea ta oñazea; betor eriotza berbera, baña beti izango naiz egiaen alde.

Onela gerta zitzaion Santa Engraziari: etorri zitzaion neke ta oñazea lenengo, ta eriotza gogor bat gero. Amorratu zan Daziano emakume argal arren fede sendoa ikusi zuanean, ta agindu zuan sartadarik gogorrenak emateko lenengo, eta gero, loturik saldi baten atzean, erabilli zezatela arrastaka Zaragoza guztiko kaleetan.

Lenagoko batean esaten nizuten bezela, n. a., gaitzaren indarra ezte-gu esagutzen ondo gugana eltzen eztan artean; gaitz batek, oñazeak ta eriotzak ezkaitu bildurtzen ainbeste gure aurrean ikusten degun artean; bañan bai bildurtzen gaitu ta ikaratzen gaitu gure gañean ikusten degun orduan. Onela gertatu ete zitzaion Engrazia santuari? Ikaratu ote zan borraru gaistoak sartadaka ta kolpeka asi zitzaizkonean edo bere gorputz gastea zaldiari lotzen ari ziranean? Ezta batere: pake santu batekiñ sufri-tu zituan Engraziak oñaze danak, eta sufritu ondorean, iñoiz baño liber-



tade santu ta andiagoarekiñ esaten zion Dazionari: «ez nazu bildurtzen zure gogortasune kiñ. Oroi zaite, juez errukarria, Jaunak emandako esku-bide apur bat daukazula denpora apur baterako; baño laster zuk ere Jaun ta Juez santu orren aurrian kontu eztua eman biarko dezula. Ez naiz ni zure bildur, zeruko Juezaren bildur naiz, izan zaite zu ere Jaunaren bildur».

Orduan Dazianok, aserre ta gorrotorik andienarekiñ, agindu zuan berriz asmatu al ziran gauzarik txarrenarekiñ mindu zezatela Engraziaren bizitza eta borrreru aiek, otzo amorratuak bezela, urratu zioten gorputza burnizko kako batzuekiñ, ebaki zioten eskerreko bularra, biotza ikusteraño, eta atera zioten gibelaren zati bat ere, S. Prudenzio testigu zanak esaten duanez. Eta zer egiten zuan Engraziak oñaze bildurgarri abek sufritzen zituan bitartean? Arpegi pozez ta alaitasunez betetakoarekiñ eskerrak eman Jaungoikoari bere edertasuna egiaren alde gatatzen zualako, Jaungoikoa bedeinkatu ta esan jente guziaz Jesus zala egia, eta beste gauza guztiak gezur utzak. Alperrik Dazianok odol-egarri ase-naian agintzen du azkenez, kopeta paketsu, eder ta zerutar artatik sartzeko Engraziari iltze gogor bat: alperrik: iltze ura sartzean ta geroago ere Engraziak bedeinkatzen du Jaungoikoa ta esaten du Jesus bakarrik dala egia, ta Erromatarak adoratzen zituen gauza dendanak gezurrezko Jaungoikoak.

Jaungoikuak ala naita etzan Engrazia borrreruen atzaparretan ill; bizi izan zan oraindik egun batzuetan mirariz bezela, egia maitatzen, ta egia erakusten Aita Zerukoak bere beso bigunetara deitu zion artean.

Ara emen itz gutxitan esanda Santa Engrazia Zaragozatar gaste noble ta egizalearen bizitza. Gezurraren kontra gerran bizi izan zan eta gezurraren kontra gerran iltzan. Eta bear bada orregatik, beste gerralari on Jaungoikozko batzuk, Tenplarios esaten zioten gerralariak jaso zuten ermita santu au Santa Engraziari, zuen aitona zarrak jaso zioten, orduan oitura santua zan bezela.

Ikusiko dituzue gure Euskal-erri maiteko mendi gallurretan Ama Mariari ta Santuai gure aitonak jasotako eleizatxoak, euskaldunak zuten fedearen agergarri bezela. Eleiza oiek esan nai diote erbestekoai, emen, beste gauza guztien gañetik fedea daukagula banderatzat. Baña eleiza abek jaso ziranetik gaur arteraño euskaldunak berak jira-bira andiak egin ditue, eta gaur, mendietan, ezta eleiza berririk jasotzen. Pena andi batekiñ esaten det, eztala gaur euskal errietako bideetan len beste kurutze eder ikusten; sentimentu andi batekiñ ikusten det mendi gallurretako eleiza-txoak erortzen daudela toki askotan, eta kurutzeak eta eleizak erortzen diranean, erortzen da fedea, eta galdu da dana. Baña, Jaungoikoari milla

esker, eztira denak eroriko, Aizarnatarak bezela badira beste euskaldunak. Zuek, n. a., aitona zarren oitura garbiak gorde nai dituzuen jentiak, ematen diozue gaur ejenplu eder bat Euskal-erri guztia. Zuek, gogortu dezue, edertu dezue, ta apaindu dezue antxiñako gizonak egin zuten eleizatxo au, erakutzi nai dezuelako lengo bidetik zuatzela aurrera beti, bide zarretik batere okertu gabe. Bedeinkatuak izan zaitezte Jaungoikuagandik, eta badakit bedeinkatuak izango zeratela zuen gurasuekandik ere. Nik ematen diskizuet eskerrak Jaunaren izenean: lenengo, erri onetako artzai birtutetsu ta prestuari, berak mugitu dualako erria obra on au egitera; bigarren, beste apaiz jaun ta erritar beren limosnarekiñ lagundu duenai; irugarren Aizarnatar guztiai, bada eztet uste Aizarna guztian bat bakarra gelditu danik bere alegiña egiñ eztuanik obra onetarako.

Ta nai nuke oraiñ boz bat indartsu ta garbia, entzungo litzatekeana emendik ogei leguaraño; boz bat juango litzatekeana oiarzunetan, mendirik mendi ta zelairik zelai askenengo erri txokoetaraño; bada orduan diadar egingo nuke esanaz: «Euskaldunak, ikusi zazute Aizarnatarak ematen dizuten ejenploa; jaso itsatsue zuen gallurretako eleizak, fede santuaren agergarri diran ermitak: ez utzi ermitak erortzen, bada ermitak eroriak badaude, fedia erori dan señaleara da».

Ta zuek, n. a. m., izan zaitezte beti egi zaleak. Oroi zaitezte egia bat bakarra dala eta egi ederraren jaskerarekiñ gezur asko dabiltzala munduan; oroi zaitezte egia antxiñakoa dala ta kontuan ibilli bear dezuela dotriña ta izen berriekiñ; izan biar dezuela zuen gurasuak ziran gisakoak, eta erakutzi zuen ondorengoai ere egi zaleak izaten. Kate bat egin biar degu dotriña eder ta oitura on guziekiñ: kate bat beñere urratuko eztana, kate bat munduaren askeñeraño iraungo duana. Bizi gaitezen egiagatik burrukatzen beti, egiagatik eman dezagun gure bizitza, bear bada Santa Engraziaren gisara izan gaitezan bera bezela, Jaungoiko santuak saritu gaitezan betiko zorionarekin guziori opa dizuetan bezela. Amen.



DOLORES

Aizarna 1896

(Falta parte del sermón)

Stabat juxta crucem Jesu Mater ejus.

Jesusen kurutzearen ondoan zegoan bere ama.

(S. Juan Ebanjelistaren liburuan 19 garren ta 25 garren bersotik.)

N. a. m. Nik badakit izen bat, izen eder gozatzu ta maitagarria. Nik badakit izen bat txiki txikia nintzanian ikasia, eta gero nere bizitza guzian milla bidar bedeinkazioz bete dedana. Izan ori zuek ere milla bidar esan dezue, denok; eta ondo jaioak bazerate, biotz onekuak bazerate, maitasunik andienean esaten dezute izen ori. Bañan izen ori zer da? Izan ori da *Ama*. Jaio ziñanetik laster ikasi zenduten itza, zuen estutasun guzietan berez erten dizuen itza, geien geien maita zaituzten emakumearen izena.

Nork maitatu zaitue geiago ama batek baño? Zuen esagunak? Zuen adiskideak? Zuen anai-arrebak? Zuen semeak? Zuen senarrak? Zuen emasteak? Inortxok ere ez, amak geien, ta amak maitasunik eder ta garbienarekiñ. Orregatik amaren izena da ezta bera baño gozatzuagoa.

Zeñek egin du gugatik ama batek egin duana? Beragandik jaio giñak; berak asi gaitu, Jaungoikuak badaki zenbat lan ta estutasunekin; berak jantzi ta erantzi gaitu; berak eman digu jaten ta edaten; berak erakutzi digu dotriña santua ta eleizarako bidea; berak lastandu genduzan lastanik maitetsuenarekiñ. Orregatik da amaren izena ezta bera baño gozatzuagoa.

O milla bidar bedeinkatua izan dedilla izen eder ori!

Zorigaistoan, zuen artean askok eztu oneskero amarik izango; beste batzuek laster galtzeko bildurrian egongo zerate; norbaitzuk esagutue etzenduten egingo. Bañan etzaitezte estutu. Mundu onetan amarik ezpadezue, zeruan daukazue denok ama bat lureko ama gustiak baño askozaz geiago maitatu zaituena, munduko amarik samurrena baño askozaz samurrago ta ohea. Ara or nun daukazuen bere irudi pobre bat; emakume orrek deitzen *gaitu bere semeak*, bada berak sortu genduzan grazian, berak artu genduzan semetzat kalbarioko mendian.

Zuetakoren batek ezpadaki Maria santak guri *bere semeak* deitzeko daukan eskubide edo *deretxua* entzun dezala ondo gaurko sermoia ta jakingo du «zenbat kostatako semiak geran Mariarentzat».

Esan det gaia. Bear dan bezela agertzeko zeruaren laguntasuna bear det. Onetarako guazen denok Ama Mariagana ta eskatu ditzagun bear ditugun graziak, zuek ondo aitzeko nere sermoia, nik bear bezela itz egi-teko. Esan zaiogun, bada *Abe Maria* bana.

Stabat. etc.

Bazuan Mariak bere erraietan sortutako seme bat, mirariz sortutako semea, seme bakarra, semerik ederrena, semerik onena, semerik santuena. Maita zuan Mariak bere begietako niniak baño geiago.

Seme eder au ogeta amairu urtean bizi izan zan bere Ama Mariarekin etxepe batian mai baten jaten zuela beren janari pobrea. Zenbat aldiz euki zuan Mariak bere magalian Jesus umea aingeruen lo gozo gozoan! Zenbat aldiz Jesus umearen eskutxoak katigatu ziran Mariaren lepo garbian! Zenbat aldiz estuturik elkarrekiñ lastandu ziran maitasunik andienan! Zenbat aldiz egon zan Maria poztazunez begira bere semearen arpegi zoragarria!

Asi zan Jesus, ta gelditu zan izaterik maitagarriena: bere arpegian argi Jaungoikozko bat ikusten zan; bere begiak ziran bigun, gozo ta zerutarak; kopeta garbi, zabal, jakintsuena; bere gorputza ondo egiña zan; ta ibillera diñadi ta magestade andiz betea... eta orduan zan Jesus Mariaren maisua, Mariaren zaintzalea, Mariaren gidaria; eta Jesusentzat ziran Mariaren pensamentuak, Mariaren borondatia, Mariaren maitasun neurrigabeko guztia.

Bañan Jesus maitia etzan etorri mundura gizona salbatzeko baizik, ta erabakia zegoan gizona salbatzeko ill zedilla Jesus kurutze batean. Bazekian Mariak ondoto: zertarako jaio zan zekiala berak asi zuan Jesus bere bular santu ta garbiarekin kurutzean il zediñ bere semea; berak samintasunez beterik bere besoetan eskiñi zion Aita Betikoari Jerusalengo tenploan; berak marduldu zuan Egipton ta Nazareten eriotzarako; berak lagundu zion kalbarioko bidean mendi tontorreraño, eta an berak ikusi zuan borreru gogor aiek kurutzean josten zuela Jesus kutuna egur igar bat balitz bezela.

Bai, n. a., Jesusegandik ta Mariagandik jaio giñan graziara ta salbaziora, baño zenbat kosta zitzaion Mariari gure Amatasuna! Esan det bazekiala zertarako jaio zan Jesus, baño jakitetik ikustera gertaera bat bide luzea dago. Guk ere denok dakigu ill biar deguna, baño eskera estutzen ainbesteraño eriotza gure aurrian ikusten degun arte. Ikusten degunian eliz gizona askenengo laguntasunak ematen dagola gure ama, aita, anaia edo arreba baten aurrian; ikusten dezuenian zuen senar edo emaste, seme edo alaba bat askenengo arnasetan dagola; ikusten dezuenean beren gor-



putza mai baten gañean luzatua eta illotzik; sentitzen dezuenian badaramatela Eleizaren erregu ta kantu santuakin; orduan sentitzen dezue ostasun bildurgarri bat biotzean; orduan esagutzen dezue zeñ ikaragarria dan eriotza.

Onela gerta zitzaion Mariari ere. Bazekian nola ill biar zuan Jesusek; baño ikusi zuanian lapur biren erdian bere seme lastana, semerik onena ta santuena; ikusi zuanean Jesus gizonaren itxurarik gabe, bere arpegi ederra mallatua zeukala, bere begi gozoak malkoz erreta; bere burua arantzaz josia ta nun deskantzaturik etzeukala bere agonian, *urratu zan* Mariaren biotz samurra, samindu zan bere anima ezin esan dan añako samintasunarekin.

Iruditu zaitezte, n. k., an dagola Maria kurutzearen oñean zutik ikusten zer gertatzen dan eta aditzen zer esaten dan. Ikusten du mendia odoldua, aditzen ditu kurutzia inguratzen duen gizon gaistuen farre ta burlak; aditzen ditu kurutze gañetik Jesusek esaten dituan azkenengo itzak, Zeruko maisuak ematen dituan azkenengo lesiuak. Badakizute zer dan oiarzuna? Gizon batek diadar egiten duanean mendi gai' batean edo erreka txuluren batean, oiarzunik badago inguruetan, adituko du erantzuten diola oiarzunak gizonari gizonak itz egin duan gisan. Bada onela erantzuten zion Mariak ere Jesusen esanari; Mariaren ta Jesusen biotza sentiera batekuak ziran, dotriña batekuak ta Jesusek esaten zuana ura zan Mariarena ere: Maria zan Jesusen oiarzuna. Jesusek esaten zuan kurutzearen gañetik: *Pater, dimitte illis quia nesciunt quid faciunt*, ta Mariak erantzuten zuan bere biotzean: *dimitte illis quia nesciunt quid faciunt*; bai, Aita zerukoa, parkatu zaiozu gizonari, bada eztaki zer egiten duan: baleki zeñ dan kurutzian josi duana, baleki bera sabatziagatik etorri dala lurrera, baleki Jesus illtzean bere betiko zorigaistotasuna firmatzen duana, ez luke egingo: itxua dago gizona, parkatu zaiozu, Jauna: *pater dimitte illis*. Jesusek esaten dio kurutziazen gañetik lapur onari: *Hodie mecum eris in paradiso*: gaur nerekiñ izango zera paradisoan, ta Mariak erantzuten du bere biotzean: bai, Jesusekiñ paradisoan, ori da nik nai dedana, gizonak paradisoan zorioneko izatea; gizonak lapur orrek bezela esagutzea beren errua, beren pekatua, damutzea sasoian salbatuak izan ditezen denak. Nere semiak eta nik sufritu degu asko gure bizitzan, sufritzen degu asko *instante* onetan: eztedilla alpe-rikakua izan guk daramagun samintasuna.

Jesusek ikusten du bere Ama kurutzearen oñean zutik, errukitzen da bere Amarekiñ, poztu nai du nolabait, eta Mariaren postasunerako eta mundu guziak jakin dezan, kurutziazen gañetik Jesus Jaungoikuak esaten du: *Mulier ecce filius tuus*. Emakumea ara or zure semea. Eta Mariaren bio-

tzak erantzuten du: bai, ara emen gizona, nere semea: gizona salbatziagatik asi zaitut, nere Jesus lastana, gizona salbatziagatik eskeñia izan ziñan Jerusalemgo tenploan, gizona salbatziagatik lagundu dizut mendi onetara, gizona da gaurdandik aurrera nere semea. Bañan orretarako galdu biar det Jesus. Zenbat kostatzen zait amatasun berri au! Emen gelditzen zait gizona, baña galtzen zaitut zu, nere erraetan sortutako Jesus; galtzen det Jaungoikoa ta gelditzen zait serbitzaria; galtzen det izaterik santuena ta gelditzen zait pekataria; galtzen det jakituria ta gelditzen zait ezjakiña; galtzen det argitasuna ta gelditzen zait illun itzala; galtzen det gozotasuna ta gelditzen zait samiñ negargarria. O gizona! Ni naiz zure ama, baño zenbat mingostasunez betetzen dan nere biotza zu nigandik jaiotzen zeran ordu onetan!

Ala ere egin bedi Aita Betikoaren borondate santua: *ecce filius meus*: ara gaurtik aurrera Jesusen ordeazko semea. Beastunez beterik esaten dizut nere Jesus lastana: ill zaite zu, ill nedilla ni naigabez, baño bizi dedilla gizona, salbatu dedilla gizona: *ecce filius meus*. O. k.! Esagutu zazue zenbat kostatako semiak geran gu Mariarentzat eta errukitu zazue Ama bedeinkatu au, maitatu zazue zuen indar guziekiñ.

Jesusek Mariaren amatasuna erakutzi ondorian, isiltasun bildurgarri baten dago Kalbarioko mendia Zeru goibelaren azpian. Eguskiak gorde du bere argia; illuntasunak bere ego beltzak zabaldu ditu lurraren gañera. Isiltasun onen erdian entzuten du Jesusen diadarra esaten duala: *Deus meus, Deus meus, ¿ut quid dereliquisti me?* Nere Jaungoikoa, nere Jaungoikoa, zergatik utzi nazu ni? Eta Mariaren biotzak erantzuten du: zergatik utzi dezu bakarrik nere semea? Baña esagutzen det zergatik dan. Da ikusten dezulako Jesusen gañean gizonaren pekatua, da pekatuari diozun gorrotoagatik. «O nere Jesus lastana! Iru ordu daramaskizu kurutzian josirik; eskuak urratzen zaizkitzu gorputzaren astuntasunarekiñ; oñak ezin due euki gorputzaren pisua; ill biar dezu laster. Zergatik utzi zaituan zeruak diozu? Gizona betiko utzia ta *abandonatua* izan eztedin. Nai al dezu gizona betiko sorigaistokoa ikusi? Ez, eztezu nai zuk, eztu nai zeruak, eztet nai nik. Il zaite bada zu, Jesus; salba dedilla gizona».

Entenditzen dezue nolakua izango zan Mariaren samiña onela pensatu bear zuanean gizonaren maitasunagatik?

Sitio, jarraitzen du esaten Jesusek kurutzetikan, izugarrizko egarri andi bat dauka: gorputzeko egarria, bada nere estarri ta miñgaña oso legortuak dauzkat; agoniako egarria, zergatik urrian dagoan nere eriotza; baña espirituko egarri andiago bat, animak salbatzeko daukadan egarria: animak, animak neretzat, berdingabeko egarri au kentzeko. Eta Jesusen



esakera oni erantzuten dio Mariaren oiarzunak. Bai, egarri zera, nere Jesus kutuna, eta nik egarri ori asetziagatik urtuko nuke nere biotza eta emango nizuke gustora edaten egarri ori asetziagatik, bañan eziñ neike. *Sitio*; bai, egarri zera ta egarri naiz ni ere: animen egarri andi bat daukat ta egingo det alegiñ guztia animak irabasteko. Bizi biar badet biziko naiz: Zu, nere Jesus iltzen zeranian, indartuko ditut zure fedean zure ikasle edo apostoluak, ni izango naiz beren ama ta gidaria, ta egingo det alegiña zuretzat animak irabasteko.

Consummatum est, dio azkenean Jesusek: Nere eginkizun dena amaitu det. Gizonaren maitasunagatik artu ditut nere gañean gizonak merezi zituan kastiguak eta sorrak eta den denak pagatu ditut; zeruak bete ditu bere aginduak. Illun eta argiaren artian ainbeste denboran izan dan gerra askendu da, akabatu da; amaitu dira Jaungoiko gezurrezkoak, erori dira bere eleizak. Nik zapaldu det Satanak; libratu det gizona etsaiaren biatzetatik; kendu det kondenzazioko legea; zerua eta lurra, Jaungoikoa ta gizona paketu ditut; Ebak egin zuan gaiztakeria osatu det; Ebaren orde ez eman diot munduari ama on bat, nere ama maitia; eztaukat geiago zer egiñik: *Consummatum est*. — *Consummatum est* erantzuten du Mariak bere biotzian. Jesusek eta nik munduagatik egin biar genduana eta geiago egin degu: nik eman det nere semea, nere begiak baño geiago maita nuan semea: nere seme Jaungoikoak erakutzi du zeruko dotrina eta ematen du bere bizitza. Zer egin leike geiago? Orain falta da gizonak erantzutia Jaungoikoaren maitasunari.

N. a. m.: Ezin neioke pausutik pausura ta itzetik itzera jarraitu Kalbarioko gertaera negargarri oni, gaurko sermoia geiegi luzatu gabe; baño bai nai nuke zuek konsideratzia nolakoa izango zan Mariaren naigabea gertaera arren onduan, esagutu dezazuten zenbat kosta zitzaion gure ama izatea. Eztezue ondo sentituko Mariaren naigabea zuen biotzaren urrian dagon gauza bati begiratu gabe. Orregaitik nai nuke iruditu zaitezela ipui edo ames bat. Zeñ seme dezue maitien zuen etxean, gurasoak? Zeñ anaia dezue maitien aditzalle gazteak? Bada irudi zaitezte biar urkatu bear duela zuen seme edo anaia ori, gaizkillerik andiena balitz bezela; urkatu biar duela ez berak erru edo kulparik dualako, ezpada bestien erru edo kulpak pagatziagatik. Zer esango zenduteke orduan? Zer sentituko zenduteke zuen biotzean? — Bada pentsatu zazue semerik onena, inozentia ta santuena zala Jesus, pentza zazue ama guztien maitasunak bat eginda baño askozaz geiago ta geiago maitatzen zuala Mariak, eta atera zazue kontu Mariak biotzaren erdian izango zuan beastuna zer izango zan, zeñ neurrrigabea izango zan Mariaren naigabea. Eztago munduan ama bat,

amarik santuena bada ere, bere semea urkamendi batera eramango duan bestiak salbatziagatik; baño bai Maria, Mariak eman zuan bere Jesus munduko beste semeak salbatziagatik; Mariak esan zuan bere biotzian: «Ill dedilla Jesus, baño salbatu dedilla gizona».

Zenbat kostako zitzaion emate au? Zenbat kosta zitzaion gure ama izatea? Nolakua zan Mariaren samiña? Nork daki? S. Anselmok dio: Mariaren oñazea martiri guzien oñazeak bat eginda baño andiagoa zala. S. Bernardinok esaten digu: Mariaren naigabea zatitu balitz mundu guziko jentien artian mundu guziko jenteak ilko zirala. Eta nik esango dizuet itxaso zabalaran gasitasun guztiak gozotasunak dirala Mariak biotzean zeuzkan gazitasunen onduan.

Esagutzen dezute oraiñ zenbat kosta zitzaion Mariari gure graziarako jaiotza?

Guazen orain beste gauza batera. Esan detan gertaera au munduan izan zanetik onera egun asko jua dira. Ordutik onera, astu erasi ote diozkagu Mariari Kalbario mendiko saminak, seme on maitagarriak izan ote gera Mariarentzat? Ai, ez! Beste ama guztiak, semien jaiotzan miñez izaten badira ere, jaiotza ta gero izaten due seme ura beren magalian gozatu ta lastantzeko poza; bañan ez, Mariak ezto izan postasun au. Bere seme gizonak ezto nai izan Mariaren magalian egon, eztue nai izan Mariaren lastanik. Izan zan Rebeka izeneko emakume bat, bere erraetan senti zituanian Esau ta Jakob seme bikiak burruka, esaten zuana: Zer mesede daukat nik nere erraetan semeak sortuarekiñ? Beste onenbeste esan lezake Mariak: Maitasun bi nituan nere biotzian, Jesusentzako maitasuna ta gizonarentzako: maitasun bi abek burruka ibilli ziran nere barruan Kalbarioko mendian; baño, zertarako ainbeste miel ta naigabe neretzako, gizonak aiñ eskergabeak erten badit? Zer aurreratu det nik nere oñazeakiñ, fedea, esperantza ta karidadea aiñ epelak badira gizon askogan, ainbeste konzienzia ta ainbeste biotz erreko badira griña gaistoen sugarrean? Zer aurreratu det nik kristau asko biziko badira batio santuko jantzi ederra galdurik, pekatuko loikeriakiñ jantzita infernarako estadian? *¿Quid neces*

se fuit mihi concipere?

Eta egiaz, n. k., J.K. ainbeste kristau kondenatzen dirala ikustia gauza negar



EUSKERAZ

De la Virgen (Aizarna)

Dominus possedit me in initio viarum suarum.
Jaungoikoak gorde nituan nere lenengo egunetarik.
(Proverb. s 8.)

N. a. m. Eztaukat batere denbora alperrik galtzeko gogorik, eta ala ere bildur naiz artsalde onetan denbora alperrik galduko ote detan edo ez.

Zer da eleiz (esta geienetako sermoiakiñ gertatzen dana? Aditzen dirala belarri batetik ta ertetzen dirala bestetik; eleizatik ertetzean etzeratela gogoratzen zer aditu dezuena, edo geienez, geienez esaten diozutela alkarri: «Sermoi ederra egin du, gizon egokia da edo ezta, motela da edo argia da, epela edo gatz gabekua zan, garratza edo gogorregija; santu andia zan onelako santu edo onelako santa»... eta ezertxo ere ez geiago. Eta ori da denbora alperrik galtzea predikatzaileak eta denbora alperrik galtzea aditzaileak ere.

Zer da, bada, aditzaileak egin biar duena sermoi batean? Aditu gogoz, ikasi borondatez, eta jarraitu ikasi dan gauza ona; ori da egin biar dezuena. Eztet nai zuekiñ aserratu, Aizarnatar maiteak: azpalditxoan esagutzen zaituet eta aspalditxoan maita; eta maite zaituetalako egiak garbiro esan biar ditut, bada egiak esatea da maitasuna benetakoa erakustea. Badakizue nik itz egiten detala anima ta biotz guztiarekiñ, eta orregatik nai det anima ta biotz guztiarekiñ aditza ta ikastea: borondate onari borondate onarekiñ erantzun biar zaio.

Gaurko artsalde onetan nik eta zuek denbora alperrik galduko ezpadegu, denok ikasi biar degu zerbait Mariaren sortuerako festa ederrean. Eta zer da gaur ikasi biar deguna? Ikasi biar ditugu birtute bi, munduan faltarik geien egiten duen birtuteak; garbitasunezko birtutea eta umiltasunezkoa. Garbirtasunezko birtutea da dio S. G. beste birtute guztien gañetik mendi gallurrean zeruruntz begira bizi dana, *altissimus virtutum culmine vivit*; bera da aingeruen birtutia eta mundu onetan santu guziak geien maitatu duena; bera da zeruetan Jaungoikoarekiñ bizi izateko daukagun jantzi ederra: *posita est virginitas vivens in caelo cum Deo potius quam hominibus in terra*. Eta umiltasuna? Umiltasuna da berriz beste birtute guztien zimen-dua, zein gabe ezin leitekian jaso birtutien jauregi maitagarria...

Orregatik, utzirik gaur alde batera Maria gure Ama maitearen sortuerako kondaira edo historia, pensatu det ikusi biar ditugula Mariak garbitasunarentzat zeukan maitasuna eta bere umiltasun andia. Maria garbi sortua izan zala erakusteko arrasoi bat bakarra eztaukat emen, euskaldunen artean, Aizarna fedetsuan. Naikua da jakitea fedeko gauza dala, naikua da jakitea Maria izan zala aukeratua betikotasunetik Jaungoikoaren Amatzat. Nola izan zeitekian pekatuan sortua pekatua ainbeste gorrotatzen zuan Jaungoikuaren Ama? Nola izan zeitekian pekatuan sortua pekatuaren arrasa mundutik kentzeko jaiotzan zan emakumea?

Maria zan garbi ta graziaz betia bere sortueratikan. Gauza onen gañean lenago emen bertan itzegiña naizalako, eta esagututzat emanik, ara emen gaurko sermoiaren gaia: «Gure Ama Maria izan zala sortua munduaren osasungarritzat, *guri erakusteko batez ere garbitasun eta umiltasuna*».

Lagundu zadazue, n. k., onetarako biar detan grazia zerutik jaristen, eta eskatu zaiogun Jaungoikuari Ama bedeinkatu onen bitartez esanaz *Abe Maria*.

Dominus possedit me, etc.



MISA NUEVA

(Cestona)

Unus et Mediator Dei et hominum.

Jaungoikoaren ta gizonen bitartekoa

(S. Pablok Timoteori egin zion eskutitzean II garrengo
irakurburu ta 5 garren bersotik artutako itzak.)

N. a. m: Gure Jaun eta Jaungoiko santuak bere errukitasun andi sakon ta neurrigabea, gauza bi sortu ta utzi zituan lur onetan munduaren onerako: liburu bat eta gizon bat. Liburua da Jesus Jaungoikoaren istori edo kondaira samurra, zerurako bidearen ikasbide zuzena, jakituria- ren asiera, egia guztien kutxa, edertasun guztien jatorria, animako ond- asun guzien gordelekua, itxaropen edo esperantza danen iturburu garbia. Zein da gizona? Denok esagutzen dezue, bada toki guztietan dago, toki guztietan zabaltzen du zeruetako egia, eguskiak bere argi alaia toki guz- tietara eramaten duan bezela: gizon ori da eleizgizon edo apaiza. Bera bear da jaiotzan, bera bear da eriotzan, bera bear da beti seaskatik asi ta azkenengo obian zartzen gaituen orduraño. Bakar ta ixiltasunean bizi oi da geienetan, baiña beragana dijoaz sarri gizon ta emakumeak biotzaren erdian gorderik dauzkaten gauzarik eskutuenak esatera, poztasunik txo- roenak eta malkorik samiñenak berari agertzero. Naiz ta etxe beartsu edo *pobretxoan* jaioa izan, gizon andien jauregietan sartzen da, mendigizon(...?) artzaian baserri ta txaboletan bezela berdiñ. Aberatzen ta eskalien artean bera izan oi da bitarteko, ta batzuk eta besteak Aita deitzen diote. Ta goi- koak eta bekoak sarri jotzen due apaiz-etxeke atea. Etzaio igartzen andia edo txikia dan, bada bere apaltasunagatik txikia dirudi; baiña bere jakituri ta ontasunagatik beti da andiena edo andienetakoa. Egi andiak esaten ditu aberatzentzat, egi andiak beartsu edo pobrientsat, beti dabil' gezur ta gais- takeriarekin burruka bizian, eta gezurra ta gaistakeria dagoan tokian, an dago beti apaizaren etsaia.

Eta nola izango eztu gezurra, deabruaren semea, apaizaren kontra, apaiza bada Jaungoikoaren ordeazkoa, kristauak zerurako bidean eraman bear dituan gizona, Jaungoikoaren eta gizonen bitartekoa, *mediator Dei et hominum*P.

N. a. m: Eleizgizon berri baten lenengo mesa santua entzutera batu geran ezkerokoa, ikusi bear degu gaur *nola dan apaiza Jaungoikoaren ta gizo-*

nen bitarteko, ikuste ontatik ikasi dezagun denok apaizaren diñadi ta izate andia, ta berari zor diogun begirune ta maitetasun egiazkoa. Au da goiz onetako itzaldi laburtxoaren gaia.

Lagun zaduzate denok zerutik jarizten lanbide onetarako bear detan argia, gure Ama Maria txit santari, oitura dan bezela *Agur Maria* esanaz.

Mediator Dei et hominum, etc.

N. a. m.: Andia izan zan Moises Israelko legegillearen eskubidea, eskuetan zaraman egur makilla bat jasoarekiñ bakarrik alde batera ta bes- tera itxas gorriko urak banatu zituanean; andia izan zan Josue baten egite arrigarria, eguskiari gelditu zedilla esanaz bakarrik eguskia gelditu zanean edo lurra eguskiaren jiran; andia izan zan lurrean Alejandro baten agintea ia lurbira guztia bere mendean zeukan egunetan; andia, Demostenesena baiño txit andiagoa, S. Pedro baten jardunaren indarra, bere itzaldi bate- kiñ bost milla anima Jesusentzat irabazi zituanean, edo bere esanarekiñ bakarrik gaixo ta eriai osasuna ta ildakoi bizitza ematen zienean. Baiña anditasun oiek eta beste asko, lurrean ikusten ditugun anditasun ta aginte guztiak utsak dira, ezerez batzuk dira apaiz jaun baten aginte, eskubide ta alizatearen ondoan jarri ezker. Begiratu zaiozute apaizari eder jantzirik altarako arri santuan, ta ikusiko dezue J. Kristok gure Jaunak Golgotako mendi gaiñean Aita zerukoari gizonagatik egin zion eskeintza berbera, berristatzen duala bere itzaren eskubidez, ta Jesusen odolik batere ixuri gabe. Apaiza, altarean, Jaungoikotu egiten da, dio Dionisio Santuak, zer- gatik, bere alizatearen indarrarekiñ, sortutzen du Jesus Berbera, Gorputz ta Anima, egundaiño iñork izan estuan aginte miragarritzkoaren bitartez.

Ikusgarria izango zan, n. a., munduaren asiera; bene-benetan izango zan ikusgarria eguski, illargi ta izarren sortuera zeru goietan, ta itxasoaren ta lurraren egintza bere edertasun ta apainduria guziekiñ; baiña etzan izango altarako arri santuan egiten dan miraria baiño andi ta ikusgarria- goa. Gauza guztien Egille Altsuak, guk lur onetan ikusten ditugun izateak ezerezetik sortu nai izan zituanean, etzuan beste bearrik izan itz egitea baizik: *egin bedi*, esan zuan, eta bereala, atera ziran ezerezetik lurra ta arkai- tzak; belar, landare ta arbolak; txori, egasti ta abereak; itxasoaren erdian asi ziran arraiak igarian, ta zeru goi urdiñetik biraldu zituan eguskiak bere argi errañu pozgarritzkoak. Eta era berean, Aita Jaungoikoaren Seme Jesu- sek, betikotasunetik bere gogamenean zarabillen miraria egin nai izan zuan orduan, artu zuan bere eskuetan ogi puska bat, begiratu zuen zeru- ra, itz egin zuan, eta ogi puska ura, bere Gorputz biurtu zan!; artu zuan ardo apur bat, itz egin zuan, eta, ardoa biurtu zan Jesusen odol! O mira-



ririk andiena! O Jaungoikoaren jakituri, alizate ta maitasun neurrigabea erakusten digun mirari santua! Ta

Arritu zaitezte, n. a.; au bera egiten du apaizak mesa santuan! Itz egiten du, eta zeruak irekitzen dira, urratzen dira odeiak, auspeztzen dira ikaraz aingeruak, dardaratzen da infernua bera, eta sortzen altarean Jesus Jaungoiko ta Gizon egiazkoa. Eta orduan, belaunikatzen da apaiza bere Jaungoikoaren aurrean, jasotzen du bere eskuetan Jesusen Gorputza erriak ikusi ta gurtu dezan; eta Aita Betikoari esaten dio: «artu dezala eskintzari ura lenagoko gizaldietan Abel, Abraan ta Melkisedekena bezela lurreko gaistakerien barkaziorako»; eta Jaungoikoak sarri txit sarri ikustean apaizak lurretik eskeintzen diola bere Semearen Gorputz ta odola, atzeratzen du bere *pekatuaganako* aserrea, paketzen zaio bere gorrotoa ta jetxitzen du gizonaren kontra altxaturik zeukan esku indartsua. Ara or, a., nola dan apaiza altarean izan al ditekian eskubiderik andieneko gizona, Jaungoikoaren ta gizonen bitartekoa, *mediator Dei et hominum*.

2. Gaiñera, begiratzeko badiozute apaizari gizonen animak lotu ta askatzeko Jesusek eman zion eskubidean, zer besterik ikusiko dezue zeruetarako bear degun bitarteko on ta paketsu bat baiño, gizona Jaungoikoarekin katigatzen duan lokarri bigun bat baizik, mundu itxuari zeruko bidean argi egiten dion izate zuzen bat besterik? A zein maitagarria agertzen zaigun eleizgizona gure utsegite danak entzun ta Jaungoikoaren izenean parkatzen dizkigunean, gure gaistakeri guztiak egundaino ta inortara ere desegingo ezta ixiltasunean gordetzen dituala!

Aditu zazue nola ta nondik datorkion alizate au apaizari. Lurbira guztiko erriak gezurraren laino azpian estaldurik zeudenean, gizonaren jakituri labor baiño arrotasunez betea zuzentasuneko bidetatik ertenda zatarkeriaren erdian galdurik zebilela, agertu zan lurrean Jesus Jaungoikoa, *zeru ta lurraren egillea*, gizon ta aingeruen jabea, ta Jaungoikotasunak ematen zion eskubidearekin bere ikasle edo apostolui esan zien: *accipite Spiritum Sanctum: quorum remisistis peccata, remittuntur eis, et quorum retinueritis, retenta sunt*. Artu zazute zuen gaikan Espiritu edo Megope Santua. Gaurdandik aurrera, zuek lurrean parkatzen dituzuen pekatuak, askatuak eta parkatuak geldituko dira; zuek lotutzen dezuena berriz, loturik geldituko da. Ara or apaizen eskubide edo alizate onek daukan asiera; ara or zeruetako aingeruak eta Jaungoikoaren Amak berak eztaukan eskubidea nondik datorren: Jaungoikoagandik. Jaungoikoak bakarrik parkatu daike pekatua, ta Jaungoikoaren izenean bere ordeazko ta bitarteko diradenak: apaizak. Apaizak edertu desakete deabrua baiño beltzago dagoan anima zeruko aingerua bezela. Orregatik esaten zuan Asisko A. San Franziskok:

«Nik billatuko banituzke aingeru bat eta apaiz bat batera, apaizaren aurrean belaunikatuko nintzake aingeruaren aurrean baiño lenago». (Mejorar)

Alperrik gure gizaldi oker onetako fedegaistoko gizon batzuk ukatu naiko dute eskubide onen indar ta iatorri ona. Esan bezate, nai badue, ezta eskubide au Zeruak emana, esan bezate, nai badute, gizonak asma-tua dala beste gizon batzuk beren aurrean auspez ikusteagatik. Zer da oien esana iya emeretzi eunkidako siñistearen kontra? Zer da oien esana S. Irineo, Tertuliano, Origenes, S. Zipriano, S. Atanasio, S. Ilario, S. Ambrosio, S. Jeronimo, S. Agustin, S. Leon ta beste ainbeste Eleizaren guraso ta jakitunen kontra? Ezin nindezke gauza onen gainean txit liburu ederretan izkribatu diran gauza guztiak esan; baiña aitatu bear dizuet Eleizaren etsai bik diotena. Etsai abetatik bata da Lutero, Eleizaren kontrako *protestante* izenekoen buru ta nagusia. Lutero au Erromako Aita Santuaren kontra zebillen *jo ta ausi*, ezin zuan begien aurrean ikusi A. Santua, ta ala ere berak esaten du «naiago zukeala A. Santuaren mendea egon, aitorrer- edo *konfesio* santua kentzea baiño». *Bestea* da Voltaire, azkenengo gizal-dian Franzian bizi izan zan izkribatzalle gaisto bat, eta onek dio: «Lurbi-ra guztiaren onerako ezin zezakeala sortu inork autorrrera edo konfesioa baiño gauza obeagorik. Konfesioa zala lurreko legeak betetzeko eta bakoitzak dauzkan eginkisunak ondo egiteko inork asmatu al zezakean lokarrik onena». Onela itz egin zuen Eleizaren etsairik andienak; eta alper-alperrik gaur esango ditue esanalak konfesio santuaren kontra or dabiltzan jardun zale burugabeko gizon pusturen batzuek: aitorrrera san-tuak iraungo du beti, Eleiza bizi dan artean, mundua mundu dan artean, zergatikan dan Jaungoikoaren egintza, ta Jaungoikoaren egintzak eztira bukatzen gizonarenak bukatzen diran bezela. Jarraituko due apaizak aito-rrera santuaren bitartez lurra zeruarekin paketzen, bada apaiza da Jaun-goikoaren ta gizonen bitartekoa. *Mediator Dei et hominum*. (Bergier.)

Gainera, beste eginkisun andi bat dauka apaizak lurrean zeru ta lurraren bitarteko bezela: au da, egia zaintzea, egia erakustea, egia lurbira guztian zabaltzea. Gizon guztiak diote egizaleak diradela, baiña gezurra dabil' lurreko agintari, goian ta bean, andien ta txikien artean; egia gozo-aren arraño garbi garbiak gezur beltzaren lañopean estalirik daude, ta egia ezta inondik agiri, eleizetan ezpada. Kristok bakarrik esan dezake *Ego sum ventas*, Ni naiz egia, Ni, lenago ta orain, atzo ta gaur, biar ta beti, beti bat naizen Kristo, Ni naiz egia, *Ego sum ventas*. Eta Kristok esan die eleizgizo-nai: «erakutzi zazute Ni zein naizen, beti-betiko Jaungoikoa, *gauza guztien Egillea*, *docete omnes gentes*, erakutzi zazute nere legea, nere *dotriña*, nere



ebanjelio egiazko bakarra. Ta orretarako mundu gezurtiaren aurrean jarri bear badezute gogorrean etzaitezte bildurtu, bada nik aspiratu det mundua, *Ego vici mundum*, nere laguntasuna daramazute alderdi guztietara, bada Nere ta lurraren artean bitarteko zerate». Orregatik, ikusiko dezue apaiza gaistakeriaren kontra beti, egi ta onbidearen alde. Ikusiko dezue leku guztietan ardi galduen billa; Jesusen odolarekin erositako animak pekatutik atera eziñik, kristau guztiak bide zuzen ta garbietara ekarri nairik. Ikusiko dezue andikien jauregietan, beren biotzak beartsuen onerako samurtzen, ta beartsuen etxietan maitasunezko itzik gozoenak espainian dituala. Ikusiko dezue toki santu onetan, egia zerutarrak erakusten, ezjakiñari adimentua argitzen, ta jakitunari deiezka jakituri guztien iturburu ta asiera Jaungoikoaren bildur santua dala. Beti ta edonun ikusiko dezue bitarteko zintzo bat bezela gizonak Jaungoikoaganuntz eraman ezinda. *Mediator...* (125, 126).

A, n. k.! Zenbat esker zor diozuen eleizgizon edo apaizari! Jesusen lenengo ikasle edo Apostoluetatik asi ta gaur arteraiño ezta egundo gel-ditu apaiza bere lan santuan. Eleizetan, gaixotegietan, katigutegietan; errian, mendian, basoan; udan ta neguan, gabaz ta egunaz; Euskalerrian, Espainian, European, Afrikan, Asian, Ameriketara ta Ozeaniako tokirik eskutuenetan, apaizak laguntzen dio gizonari jaiotzatikan asi ta eriotzaraiño! Ta Eriotzan batez ere! Zergatik, zein da, bere lurreko bizitza nola-baitean igaro badu ere, zein da azken larrian Eleizako otoitzaren murmurra bere belarrondoan aitu nai eztuan gizona? Zein da orduan bere aurrean apaiz baten kereiza ikusi nai eztuana, zein da azkenengo arnasarekin batera apaizaren bedeinkaera santua artu nai ez lukean gizona? Ai! Orduan denok aitortzen dezue apaiza dala lagunik onena, Jaungoikoaganako bitarteko bakarra. *Mediator...*

Apaiz berria: Itz gutxitan bada ere, agertu det zure Jaungoikoaganako bitartekotasuna, ta zure gaiñean artu dezun ajola andiko lanbidea. Ondo dakizu zein eskubide andiarekin apaindu zaituan zeruak gizonen onerako, ta baita ere inoiz baiño okerrago dagoala mundua, Eleizaren etsaiak inoiz baiño gogorrago, erriak inoiz baiño eskergaistokoago. Orregatik, naita ere, arrozazko etorkisunaren berri onak ezingo dizkitzut eman. Ez, dena kontrara: gure Euskalerrri bedeinkatu onetan ezpada ere, emendik kanpora, leku guztietan izango dituzu etsaiak. Badakizu zergatik? Zure gaiñean jantzi beltz ori daramazulako, egia zabaltzen dezulako, Eleizgizona zeralako. Non lan egin asko izango dezu; baiño zure lanen erdian zaudenean, kristauen gaiñera zeruko parkazioa jetxi dediñ zure eskuak luzatzen dituzunean, zeruetako *dotriña* erakusteko zure aua ireki-

tzen dezunean, nor daki saritzat emango badizue parrea ta burla, edo katigutegiren batean sartuko bazaitue?

Baño, zer digu? Jaungoikoagatik gabiltza gure lanean, zeruagatik eta zeruko laguntasunarekin gabiltza ta jarraituko diogu gure lanbideari, bate-re ikaratu gabe, gure bizitza guztian, Zeruaren jabeak bere aldamenara deitzen digun arteraiño.

Amaitu det, apaiz berri ta orain igo zazu altara santuko arri malla ori, ta eskeñi zaiozu Jaungoikoari Bere Semearen Gorputz ta odola, ta erre-gutu zaiozu Lurbira guztiko kristauagatik Erregutu zaiozu Aita Santuagatik, Euskalerrigatik

zure erri Zestuagatik, zure anai-arrebakgatik, eta batez ere zure gurasoagatik. A! Nolako poztasunarekin ikusiko duen zure gurasoak ostiarik santu ta bedeinkagarriena beren animen onerako eskeiñtzen diozula gaur Jaungoikoari. A zenbat maite zaituen! A zenbat ames gozo egin dituen zurekin! A nola egon diran egun pozgarri onen zai! Bete dira amesak Eldu da eguna, beren bizitzako egunik andi ta ederrena, ta zu bataiatu ziñan eleizan bertan ikusten zaitue apaiz egiñik, beste apaiz askoz inguratua. Badakite zure esku oietan egongo dala gaur Jaungoikoa Bera, badakite esku oietan musu emango dizutela gaur apaiz jaunak, Zestuako erri guztiak, eta musu eman bear dizutela berak ere zuri, beren errailetako seme maite orri. Ai! Ez bakarrik eskuan, biotzean ematen dizue musu egun zoragarri onetan! Erregutu zazu berakgatik, bada ongi merezi dute, ta, azkenez, nere lagun maitea, erregutu zazu nigatik ere, lur onetan izan dezadan nere eginkizunetarako bear detan indarra, ta munduak ukatzen digun saria zeruetan izan dezagun guztiok, Amen.



PRESENTACIÓN

Zumaya — 1896

Bonum est virum cum portaverit jugum ab adolescentia sua.

Gauza ona da gizonarentzat bere umetasunetik lokarri onak erabiltzea.

(Jeremiasen itzak bere dolamenetako

III garren buru ta 27 garren bersotik artuak.)

Nere kristau maiteak: Gizona, Jaungoikoak lurtean egin dituan gauza guztien artean gauzarik andi ta onena izanik ere, bere lenengo egunetan, beste gauza guztiak baño laguntasun geiagoren bearrean izaten da. Artzen badezue zuen eskuetan asi bat, lore baten asiya; artzen badezue ale bat, arto edo gari alea, eta botatzen badiuzue lurtean, asi ta ale ori, lurrak, euriak ta eguskiak paraturik egingo dira lore edo landara eta asiko dira bear dan añan, beste geiagoko gauza gabe. Jaiotzen danielan abere edo animala bat, izan dedilla urtarra edo lurtarra, izan dedilla andia edo txikia, berealaxen dakizki, iñork erakutzi gabe, bere bizitzarako bear dituan malizi ta bideak, eta izaten badira zeinbaitzuk, lenengo egunetan, gurasuen kontua biar duenak, egun gutxitako gauza da nortara ere, bada laster ikasten due beren munduko bizitza iñork erakutzi gabe. Erleari eztio iñork esan zeñ loretatik atera lezakean ezta eta zeñ lore dauden puzoi edo benenoz beterik; txintxurritxoari eztio iñork erakutzi denbora ona dagon bitartean bete biar dituela janariz beren etxetxoak. Gizona da bakarrik bere lenengo egunetan, bere lenengo urteetan, ezertxo ere ezta kiana, eta bear duana besteen laguntasuna gauza guztietarako, jateko, edateko, jasteko, erasteko, ibiltzeko, ikusteko eta ikasteko. Berez, gauza bat bakarra daki, eta da lo egitea. ume jaio berri bat utziko balitz lurtean, laster ilko luke otzak eta goseak; eta orregatik eman bear zaio bear duan epeltasuna, jana eta jantzia.

Alde onetatik ezte billatzen zer esanikan: guraso guztiak dira alegiñean jokatzeko duenak beren umeak janaritzeko eta jasteko, (eta askotan geiegi apaintzeko ere bai); baña kontuan euki biar dan gauza da umetxoa estali ta janaritu biar dala bi modutan: gorputzaren aldetik ta arimaren aldetik. Anima lo daguan bitartean, lenengo illetan naikua da umearen gorputzari begiratzea, bañan laster, anima esnatzen asten danean, estaldu ta janaritu biar da anima maitasun ta ajola andi batekin. Zer da lenengo estalpea? Norbere etxea ta amaren begi zaintzalea. Zer da lenengo jana-

ria? Gurasoak eman biar duen ejenplu ta erakutzi ona. Baña gurasuak ezin gindezke egon beti umeai begira, esango dirazue; naikua lan ta neke daukagu biar degun janaria billatzen eta gañera askotan ezta kigu zer ta nola erakutzi. Bada orduan ara nun daukazuen bigarren estalpea, eskolan, nun emango zaien zuen umetxoai Eleizak ondo aukeraturik daukan erakutzi zuzena.

Gaurko egunez Eleiza santak oroitzen digu urteoro, Maria santak bere umetasunean eman zuan ejenplu ederra. Iru urteko umea zan, txit erakutzi ederrak bere famili santuaren erdian artu zituan umea, eta ala ere, geiago ta geiago gauza onak ikasteagatik, badijoa bere borondatez Jerusalemgo Tenplora, Jaungoikoarentzat egindako etxera, an, Jaungoikoari eskeñitako gauzak eta bera estalpe batean bizi izateko asmoetan. Eta nola utzi zioten Mariari bere gurasuak, añ gastea zala, eleizara juaten, bere familiakuen laguntasun gabe bizi izatera? Ez altzuen maita? Maita ez? Oro i zaitezte Maria alaba bakarra zala, alabarik ederrena, alabarik argiena, alabarik onena, santaena eta atara zazue kontu maitatuko ote zuen beren guraso S. Joakin ta Santa Anak. Maitatzen zuen, bene benetan maita, ta orregatik nai zuen egunian baño egunian argiagua ta ohea izan zedilla, egunian baño egunian Jaungoikuak geiago maitatu zezala...

Gertaera onetatik atera biar ditugu lezio bi, aditzalleak, bata gurasuentzat, bestea alabentzat, eta ara onetarako ipintzen detan itzaldi-gaia: «Gurasoak daukatela etxeetan ejenplu onak eman bearra eta umeak eskolara bialtzeko premia: alabak daukatela etxean ta eskolan erakusten diran lezio onak ikasi bearra».

Lagundu zadazue, n. k. onetarako biar detan grazia Jaungoiko gure Jaunagandik jaristen, eta eskatu zaiogun denok Mariaren bitartez esanaz denok batera ama bedeinkatu oni. *Abe Maria* bana.

Bonum est virum. etc.

Ezta egia, n. a. gurasuak, denok jaio garela, Jaungoikua maitatzeko eta serbitzeko mundu onetan gero gozatu dezagun betiko zoriontasunean? Ezta ere egia zuek *estadu* artu zenduenean esan zitzatzuela, zuen seme alabak zerurako asi biar zinduztela? Bada orduan, astu ezpadezue zuen eginbearra, astu ezpazerate zertarako jaiok zeraten, ejenplu ona emango dezue zuen etxeetan, eta zuekandik ikasiko due zuen seme alabak oitura on ta bizimodu zuzena, zergatik gurasuen ejenplu ona baño erakutzi obarik eztago. Nolakua dan gurasua, *geienetan* ala izan oi da bere semea edo alaba. Gurasoak badaki, goizero, oetik jaikitzen danean, biotza jasotzen Jaungoikuagana ta eskeintzen egunoroko lantxuak zeruaren laguntasuna eskatuaz bere pausu guztietarako, umeak, batere igarri gabe, berez



bezela, ikasiko due goizeko errekuak egiten Aita Zerukoari: gurasua bada sarritxo konfesatzen dana, umeak sarri konfesatzeko esan biar andirik ez izango; gurasua bada langillea, zintsua, leiala ta ona, geienetan umea langillea, zintzua, ona ta leiala izan oi da.

Geienetan esan det, ez beti. Seneka jakintsuak dio gaistakeriak ikasi biarrik ezuala, berez sartzen dala gizonaren biotzean, bañan gauza ona sarritan erakutzi biar zaiola gizonari. Orregatik, gurasoak, erakutzi biar diote gañera umeari, anima esnatzen asten danean bereala, *Kurutze Santuaren* señaleara, kristauen señaleara santu gordoztaria egiten; erakutzi biar diote *Aita gurea*, jakin dezaten nun daukaten beren aita, betiko ta zerutarak dirala lurtarrak baño geiago; erakutzi biar diote *Credoa*, jakin dezaten zer siñistu bearrean dagon kristaua anima esnatzen zaionean. Au da, janaritu, bada, umien animak, fedearentzat ilda gelditu ez ditezen.

Ejenplu ona ematea eta gauza abek erakustea gurasuarentzat bearbearrekoa da bere umeak zuzenbiderik izango badu; eta ala ta guztiz ere okertzen bazaio umea bere biotzean, berez, ar gaistoa sortu zaiolako, orduan dauka gurasoak beste egin biar bat, eta da kentzea ar gaisto ura biotzetik, zuzentzea okertzen asi dan landara. Oroitu bear due gurasoak berak erantzun bearko duela Jaungoikoaren aurrian beren nagitasunagatik galtzen badira seme alabak. *Erit anima tua pro anima ejus* irakurtzen da Erregien liburuan. Zuen animak erantzun biarko du umien animakgatik. Orregatik, bada, begira biar dezue nundik nora ta zeñekin dabilzan zuen umeak, eta etzaldur ondo eta laster, ejenplu gaistoren baten aise otz mada-rikatuak il da utzi ez ditzan beren animak.

Mariaren famili santuan dauzkatzue, aditzalle gurasuak, onetarako ejenplu eder ikasi biarrekuak. Egia da, etzuen S. Joakin ta Santa Anak lanbide andirik izan Mariari erakusten, zergatik alabatxo bedeinkatu au berez zan ona, berez zan argia, berez zan gauza on guztietara emana, Jaungoiko Santuak bere Semearen Amatzat aukeratutako emakume miragarria zalako. Bañan, ala ere, etzioten S. Joakin ta Sta. Anak beren eginbiar edo obligazioari utzi. Etziran beñere astu, batetik Jaungoikoa maitatzeko ta serbitzeko jaiok zirala, ta Jaungoikoa txit ongi maitatzen ta serbitzen bizi izan ziran, eta bestetik Maria umetxoari ejenplu ona emateko obligazuan zaudela, eta orregatik indartzen zuen Mariaren ontasuna, erakutziar erre-gua, ostartzeta ta Jaunaganako maitasuna, eta idukiaz etxe basterrean gor-dea gauzarik maitagarriena bezela.

Eta au ezta beti kristauen familietan gertatzen. Umetxo askok esaten ditue ta egiten ditue gaistakeriak etxean bertan aditu ta ikasi dituelako, edo etxetik kanpora nun nai, edozeñekiñ ta edozeñ ordutan ibiltzeko astija ta

libertades izan duelako. Zer? Pensatzen dezue eztituela aitzen zuen umeak etxean esaten dituzuen bear ez tiran gisako iskuntzak? Gorra al dirala uste al dezue? Zer? Pensatzen dezue eztituela ikusten zuen umetxoak zuen ibillera ta egikera modu gabekuak? Itxuak dirala uste al dezue? Zer? Pensatzen dezue etxetik kanpora edozeñ ordutan dabilatzazanean zuen umeak, santuen bizitza esaten ai dirala beti lagunen artean? Astuta al zaudete gaistakerira okertuak gaudela denok, gaistakerirako bidea txit erraza dala eta bide artara deiezka dauzkagula beti deabrua eta mundua? Ai! Zenbat gurasok izango du erantzun biar andija Jaunaren aurrean! Zenbat seme alabak esango du: «Jauna, egia da, gaistua izan naiz; baña gurasoak-gandik ikasi nuan gaistakeria; gaistua izan naiz, baña da gurasoak bide txarretatik atzeratu ez nituelako». Eta zuek erantzun biarko dezue orduan, bada Origenes eleizako gurasuak dio: *Omnia, quae deliquerint filii, a parentibus exequiruntur, quos non erudierint neque corripuerint*.

Baña egin dezagun kontu onak zeratela guraso guztio, ta saiatzen zeratela zuen umei bide zuzena erakusten. Ala ta guztiz ere, utzune andiak billatzen dira familietan umien erakutzirako. Nola gu, Jauna, egongo gera beti umiei begira? Nola guk emango diegu biar dan argibidia, borondaterik onena, izanda ere, orretarako astija izanda ere, guk ezpada-kigu ezertxo ere erakusteko, guk lana ta lana baño beste gauzarik ikasi ezpagenduan? Ara zer erantzuten detan: lana ta lana gauza ona da; baña zuen umeak lanerako indarririk izan baño lenago, badue astija (ta zuek ere batzuek izango zenduen noski) eskolara jun, eta an ikasteko zuek erakusten eztaizuen argibidia. Eleiza Santa guraso on bat da, eta esagutzen du-lako famili askotan eztagola astirik eta modurik biar dan ahan anima esna-tzen jarduteko, ara or nun dauden eskolak gurasoen laguntasunerako Elei-zak jarri; gurasoak, ordu batzuetan bada ere, deskantzuan egon ditezan zuen umeak. Eskolan diran bitartean badakizue estalpe onean ta gauza onak ikasten daudena, bada an argitzen zaie beren burua ta samurtzen zaie beren biotza; an erakusten zaie Jaungoikuari erregutzen, an erakus-ten zaie dotriña santua, an erakusten zaie eskuko lana, an erakusten zaie gurasuari sor dioten obedientzia eta errespetoa, eta beste gauza on asko. Zuen aldetik etzatzue eskatzen beste gauzarik ajola piskat artzea baño, goizean, jaiki ondorean, zerbait Jaungoikoari erregutu, arpegiak ederki garbitu ta eskolara umeak bialtzeko. Asko eskatzea da? Geiago da eskole-tan egiten dana. Ai! Eztaizue oraindik, n. k. zeñ mesede andia dan erri batentzat eskola onak eukitzea; eztaizue zenbat mesede egiten dizuen mundu onetako bizitzarako eta Jaungoikuaren aurrerako zuen umeak argitzen da zuzentzen lan egiten duen moja gaixoak! Mundu onetarako,



zergatik zuen alabak onak eta argiak badira, mesedia ta honra zuentzat ta zuen alabentzat izango da; Jaungoikuaren aurrerako, zergatik zuen alabak onak badira, keska gabe jungo zerate alde orretatik Jaunaren aurrera; eta eskolan egiten da alegiña zuen umeak onak ta argiak izan ditezten.

Ikasi zazue, erritar gurasuak, S. Joakin ta Sta. Anagandik zuen alabak eskolara eramaten. Zergatik eraman zuen S. Joakin ta Sta. Anak Maria alaba Tenplo santura? Zergatik bazekiten an egongo zala ondo ta an ikasiko zituala gauza on ta mesedegarritzko asko. Ara emen gañera beste ejenplu bat berria. Ara emen kanpo-errietatik beren gurasuak Zumaiaiko mojen eskolara ekarritako neskatzak. Zergatik ekarri ditue eskola onetara neskatzak abek? Zergatik dakijen emen erakutziko zatela argiak ta onak izaten; zergatik nai duen beren gurasuak neskatzak abek izan ditezela beren etxearen pozgarri ta beren errien osasun, bada erriak mesede andiak izaten ditue emakume onakgandik. Errien osasuna, askotan, emakumeen eskuetan dago. Egia da, gizonak egiten ditue errientzat legeak; baña emakumeak errien oiturak, eta emakumeak onak badira onak izango dira errien oiturak ere.

Bañan, ezta gaurko sermoi dana gurasuentzat. Badaukat zueri ere zerbait esan bearra, gastetxoak, bada zueri ere ejenplo ona ematen dizue Maria Santak gaurko egun onetan, ta badaukazue zerbait ikasi bearra. Lenengo *maitatu* biar dituzue Mariak bereak bezela zuen gurasuak, zergatik zor diozkatzuen mesede asko: berakgandik jaio zerate, berak ematen dizue jaten da edaten jaio ziñanetik gaur arteraño, berak jantzi zaitue beti, eta gaur soñean dauzkatzuen jantziak ere berak emanak dira: zuen gurasuak zaintu ezpazinduzte, goseak, egarriak eta otzak illko zinduezan aspaldijetan. Gañera berak maite zaituzte beste iñork maitatzen etzaituen bezela, eta egia bada, maitasuna maitasunarekiñ pagatzen dala, arraizko gauza da zuek, Jaungoikua kendu eskero, beste gauza guztien gañetik zuen gurasuak maitatzia. Maitasun *ori* agintzen dizue Jaungoikuak bere lege santuan eta zuen biotzak berak, eskertasunaren izpi bat bakarra gelditzen bazatzue. *Bigarren*, onoretu biar dituzue zuen gurasuak. Zuen gurasuak, aditzen zaudeten gasteak, dira zuentzat Jaungoikoaren irudi ta ordeazko. Jaungoikoak berak eman die aginpidea zuen gañean, eta orregatik dio E. Santuak: *qui timet Dominum honorat parentes*, Jaungoikuaren bildur danak onoratzen dituala bere gurasuak. Eta, nola onoretu biar dira? Liburu santuak berak erantzuten digu: *in toto corde honora patrem tuum*: biotz guztitik onoretu biar dala: *in opere et sermone et omni patientia onora patrem tuum*: itzez ta egitez onoretu biar dala. Itzez. Bere gurasua benetan maitatzen duan alabak, erantzungo dio beti umilki ta gozoro, eta beñerez

garratz eta lotsabagakerian. Bere gurasuaren aurrian itza goregitxo jasozten duanak astuta dauka gurasua maitatu biar dala, astuta dauka gurasua Jaunaren ordeazko dagona, astuta dauka laugarrengo *mandamentu* santua. Eta onetan, gastetxoak, eztakit nola portatzen zeraten, arroxko samarrak ote zeraten nago, eta bildur naz Jaunaren aurrean umiltasun andiren bat, kastigu gogorren bat izango ez ote dezuen, bada zerueta ezta sartzen jente arrorik, eta ezta ere Jaunaren legeak astuta bizi danik.

Irugarren sor diozue gurasuari *obediencia*. Denok obedezi biar diogu Jaungoikoari, eta Jaungoikoaren izenean agintzen diguenari, eta nola zueri agintzen dizuen gurasuak Jaungoikoaren izenean, ara or zuek gurasuari obedezi bearra. Eztet geiegi luzatu nai, eta gauza onen gañean esango dizuet bakarrik gurasuak aginduko dizuela beti zueri konbeni zatzuen edo zuen etxeari konbeni zaion gauzaren bat, eta zueri tokatzen zatzuela beti burua makurtzea ta agindua egitea. Eta ala, agintzen dizuenian eskolara juteko, juan zaitezte poz pozik, bada eskola zuen mesederako ipiñita dagon estalpea da. Onetarako, jakiñ biar dezue lenengo, etzeratela beti ume izango, eta anditxoak zeratenian, gauza askoren biarrian izango zera-tela, eta ikasi alak ikasita ere, beñere eztezuela naikua jakingo. Gogoratu biar dezue, bigarren, oraintxe daukazuela astija ta sasoa zerbait ikasteko, eta eztezuela mugaldi oberik izango, bada etxeko zeregiñetan edo kanpo-ko lanetan gastatu biarko dituzue laster zuen denbora ta gorputzeko indarrak. Esagutu biar dezue, gañera, jakitea ta ona izatea dala edozeñentzat apainduri ta doterik onena; eztuela balio ezertxo ere jakituriaren onduan, jantzi ederrak eukitziak eta ezta ere aberastasun andien jabe izateak; eztagola gauza oberik emakume batentzat jakitea ta ona izatea baño.

Orregatik, eskolara zuaztenian, aditu ondo ta gogoz zuen *maestruk* erakusten dizuena denbora alperrik galdu gabe; *errespetatu* biar dan bezela zuen erakustzalea guraso bat bezela; eta maitatu biotzez, bere jardun ta lan guziak zuen onerako egiten ditualako. Onela portatzen bazerate, zuen gañeara etorriko dira Jaungoikoaren bedeinkazioak, eta eskolatik ertetzen dezuenean eramango dituzue zuen etxeetara adimenean argija ta biotzean borondate ona, eta badakit etzeratela damutuko zuek eskolara juna, eta zuen gurasuak eztira damutuko zuek eskolara eramana.

Jerusalengo Tenploan ikasi zuan gure Ama bedeinkatuak bere birtute andi ta ugariak geiago ta geiago indartzen; Jerusalengo Tenplotik atera zuan alaba on bat, emaste on bat, eta martiri andi bat izateko indarra, bada zeruak aukeratua zeukan martiri guztien erregiñatzat. Ai! Nork daki, zuek ere, familiaren erdian martiri bezela bizi biarko badezue? Nork daki etorkizunaren berri? Zuek ames egiten dituzuen egunak esperantzaz



beteak egon arren, zuek ames egiten dituzuen gertaldiak alai ta pozgarritzkoak izan arren, ai! amesak beti oi dira ames!; eta eztakigu nola izango dan gertaldi egiazkoa! Nik dakitana da kristandade guztian kurutze asko daudela zabalduak, eta zuek ere, andia edo txikia, kurutzeren bat eramian biarko dezuela. Orregatik, ordu ori datorrenerako nik nai nuke ikasi dezazutela pazienza santuan eramaten eskolara jua biarrak eta familiako errietak, ikasi dezazutela gastetatik indartzen zuen anima geroko kurutzea ondo eramateko; ikasi dezazutela bene benetan onak izaten.

Jakiña dago, n. k., eskolara datozen ume guzti-guztiak eztirala argiak eta onak izango. Baña badakit ere eskoletatik erten dirala famili askori izen andi ta onoretsua eman dioten seme edo alabak; eta eskoletan ibilli diranak baño nunnaiko basterretan dabilbazan umeak negar geiago eragin oi diotela gurasuari bere zartza errukarijan.

Oh! Eskola onean ikasijak izan balira gizon guztiak! zenbat gaistakeri gutxiago izango zan munduan! Mundua ondu nai dezu?, galdetzen zuan jakintzu batek. Ondu itzatzu umeak eta mundua ona izango da. Ara emen garbiro esanda gure asmua. Ara emen zuen zeregiña, gurasuak. Ara emen mojen t'abadien» zeregiña. Oh zer poza gurea Jaunaren aurrera guazenean esan al badegu egiaz: «Jauna, zuk, zure odolarekin irabazi zenduan mundu zabala, guk ondu degu!». Edo orren besteraño ezin bada: «Jauna, zuk maita zenduan kristandadeko erri bat osua, guk ondu degu, guk salbatu degu».

O Maria, gure Ama maite bedeinkatua! Bada salbatzea da ikaskizun andiena, ikasi dezagula denok salbaziorako bidea: ume abek ta ume ezti-ranak aprobeitza dezatela eskolako denbora, jarrai dezatela gero gaur ikasten duena, bizi ditezala kristau onen gisara, munduko bizitza amaitzian erori dizezen zure besuen erdian betiko zorionerako, Amen.

JESUSEN NEKALDIKO ITZALDIA

Ambulate in dilectione sicut et Christus

dilexit nos, et tradidit semetipsum pro nobis.

Ibili zaitezte maitasunean, Jesusek, bere bizitza
gugatik eman arteraiño, maitatu genduzan bezela.

(Done Paulok Efesotarra esan zitzen itzak,
bere eskutitzeko 5.en agerraldian, 2.en esakizunean.

Nere aditzaile maiteak: Gaurko egun triste, astun da negargarrian, kristauen aurrean itz egin bear duan apaizak eztu batere jakituri bearrik, eztu itzun ederra izateko premiarik, Jaungoikoarentzat aditzaileen biotzak irabazteko. Naikoa dala uste det Jaungoiko kurutzean josirik dagoanaren istori edo kondaira esatea, biotzik otz da gogorrena berotu ta biguntzeko; ez bakarrik kristauen artean, baita ere siñizte gabeko gizonen artean, egunoro gertatzen dan bezela mundu zabalaren azkenengo mugetaraño Ebanjelio osasungarria zabaltzen dabilzenakiñ.

Baiña, alaz guztiaz ere, kristandadearen erdian ostiral doneko egunean itz egin bear duen eleizgizonai, etorri bear zaiete gogorazio bat, edo neri beintzat badatorkit. Ara emen nere gogorazioa: nere aditzaileak milla bider entzun due Jesusen Nekaldiko kondaira. Zer esan nezake, bada, kondaira donearen gaiñean? Nola itz egingo det, alde batetik, nere aditzaileen artean dauden kristau garbien biotzak eskatzen duan era samurrean? Eta bestetik, Eleiza onetan pekatariarik bada, zer esan nezake pekatarien arrizko biotza biguntzeko aiñan, milla bidar aditu badute, alper-alperrik, Jesusen Eriotzako kondaira, batere bigundu gabe; eta badatoz berriren-berri Eleizara fede edo siniztearen izpirik eztutela, damutasuna zer dan eztakitela, ta bizitza berritzeko asmorik eztutela? Zer esango det oientzat, sartzen badira Eleizetan ikusmitasunagatik bakarrik, edo besteak egiten duena egitearren, egun abetan beren burua nora bota eztakitelako?

Danen aurrean aitortzen det, eta ez umiltasun gezurrezkoarekiñ, ezpada egiaz, aitortzen det, oso laburrak dirala nere adiñean billatzen ditudan argitasunak, indar gabea dala nere boza, benetan motela nere mingaiña, biotz garbikoak naiko duen samurtasunarekiñ itz egiteko ta pekatariak nere itzaren indarrez Jaungoikoarengana biurtzeko. Onetarako Jesusen odolak Kalbarioko mendian ikusi ziran bezelako mirariren bat egin bearko luke.



Eta, nork daki? Gaur errukitasunezko eguna da: nork daki, bada, gure Jaun eta Jaungoiko mirari guzien egille Altsuak, bere errukitasun neurrigabeagatik, nai badu gaur goizeko itzaldi txiro edo pobre onen bitartez asetzea jente on, garbi, bidezko ta donetien biotzak, biguntzea pekatari gaiztoenen bularrik gogorrenak, eta makurtzea gizonik arroenen buru lerdeneziak?

O! Nere aditzaillen artean badago iñor, Jerusalemgo uria bezela, gorra izan dana gaur-arteraiño Jaungoikoaren dei maitasunezkoarentzat; badago iñor emen pekatuko laiñu beltz tartean bizi danikan, zer poza nerea, gaur goizean esango detan kondairaren bitartez entzungo baluke, bere biotzaren erdian, Jesusen maitasunezko deia, ta ikusiko baluke Ebanjelio donearen osasunezko argi ederra! O denok, a.m. ikusiko bazendukete bear bezala Jesusen Pakezko ta Maitasunezko erakuskera ta agergarri donea!

Nolabait betetzeko nere gaiñean artu detan eginkizuna, daukat asmoa, n. a., zuen aurrean esateko, al detanik ongien, baiña batere tolesgabe, batere apainduri gabe, Jesusen Nekaldi edo *Pasioko* kondaira arrigarria, beste oroitzen zaizkidan gogorte batzuekiñ, bakar bakarrik begiratzeten diodala nere Jaungoiko maitearen izen on bedekatuari. Artzen ditut itzaldi onen esakaitzat Done Paulo Jesusen ikasle ta zeruko erakutsien zabaltzailearen itz eder abek: *Ambulate in dilectione sicut et Christus dilexit nos, et tradidit semetipsum pro nobis*: ibilli zaitezte maitasunean, Jesusek bere bizitza gugatik eman arteraiño maitatu genduzan bezela, eta nai nuke Kristo, gure Jaunak bere azkenengo egunetako Nekaldi ta eriotza bildur-garrizkoan ematen dizkigun maitasunaren agergarrietan, guk ikastea berrari zor diogun maitasuna ta gizonak bata besteari iduki bear diogun maitasun benetakoa.

Baiña eztaikit artu detan lanbiderako naikoa indar izango detan. Biotzak gaurko egunean eskatzen digu ixiltasun ta pake osoa gertaera andi onetan gogartzeko, begiak oso erraz malkotzen zaizkit neri, ta asieratik bertatik geiegi samurtua nagoela deritzat.

Non billatuko det, bada, bear detan indarra? Zugan bakarrik, O kurutze done ta adoragarria! zu zera gaur nere laguntasun guztia! zuk piztu bearko dezu nere argaltasuna. *¡O Crux, ave, spes unica!* Zugana nator, zuri deitzen dizut, zugan itxedoten det bear detan indarra ta sendaera. *O Crux, ave, spes unica*. Aita gurea.

Ambulate, etc.

N.a.m. Eleizako guraso jakintsu Done Agustiñek erakusten digu, ez litzatekela izango Jaungoikoa jakintsua ta ona, pekatua kastigatu gabe

utzikio baluke. Orregatik, Jaungoikoa txit zuzen ta donea dalako, beartu zuan gizona egindako pekatuaren zor andiari arpegi ematera, baiña etzan billatzen lur guztian zor onen neurria betetzeko diña zan gauzarikan. Gizonak pekatu egin lezake, ta, zorigaitzean! askotan egiten du pekatu, baiña ezin lezaioke iñortara ere pekatuaren zorrari erantzun. Bada *¿Quid est homo?* Zer da gizona, Job santuak dion bezala, Jaungoikoarekiñ berdindu nai badegu? Autsa, aizea, kereiza, utsa. Lenengo gizonak pekatua egin zuanetik, bada Jaungoikoaren aserrean geunden, zor andi bat geunkan Egillearen aurrean da zeruetako ate zabalak itxita zeuden lurtarrentzat. Orregatik zan gauza bearra norbait billatzea Jaunarenganako zor andi oni erantzungo ziona, zeruetako ateak irikiko baziran gizonarentzat. Etzan iñor mundu ontan, da zeruetatik jetxi zitzaigun Jesus maitea; atsegiñ da gozotasunezko toki santu eder ura utzirikan, etorri zan lurrera ta lurrez jantzi zan, gizonari zion maitasunagatik, Jaungoikoaren Semea Berbera! artu zituan bere gaiñean doekabe ta samintasun guztiak, gizona zeruko doez ta aberastasunez betetzeagatik; makurtu zan zerutik lurreraiño, lurretik zeruraiño gizona jasotzeagatik. Ara emen Jesusek gizonarenganako zeukan maitasunaren lenengo agergarria.

Eldu zanean Jesusentzat, lur doekabe au utzirik, Aita Betikoagana biurtzeko ordua, eman zien gizonai maitasunaren azkenengo beste andi bat, Aldareko Ezkutapen edo Sakramentu txit Donean gizonen janaritzat betiko utzitzean; ta bereala, Aitari eskerrak eman ta gero, ondo zekiala zer gertatu bear zitzazion laster, erten zuan apaltokitik bere ikasleakiñ batera, igaro zan Zedron esaten zaion erreka ujoltsu baten gaiñetik, eta joan zan Jetsemaniko baratza. Ordurako berriz, batzarrean zeuden legezarreko eleizgizonen nagusi ta agintariak, Jesus katigatzeko era on bat erabaki naiean; ordurako Judas salkindari galos da zorigaiztokoak batu zituan gizonik eraille ta okerrenak: bazebiltzan ordurako erri guztia gaintatzen da gezurraren alde autortuko zuen gizonak billatzen; da baita ere baster sokoen batean, gure Gozabetzaile edo salbatzaileak bigaramonean eraman bearko zuan kurutzea josten ariko ziraden noski. Dendena zekian Jesusek, eta ainbat lasterren bere bizitza eman nai bazukean bezela, gauza negargarri abek gogoratzean, azkartzen du, zolitzen du bere pausoa geiago Jetsemaniko baratzarontz.

Baratza onetan sartzen dan bezelaxen lausotzen zaizka begiak, toles-tatzen ditu belaunak, galtzen ditu indarrak eta sartzen zaio arimaraiño samiñ da bildurtasun andi bat. *Cæpit pavere et mæstus esse*. Nolatan da gauza ikaragarri au? Ez naiz geiago arrituko, Jaungoikoa iltzen ikusi ta ere, Jaungoikoa bildurrez ikusirik baiño. Jaungoikoa bildurtu! Nola bildurtzen da



eriotzaren aurrean, ildakoai bizitza ematen dien Jaungoikoak? *Cæpit paveret et mæstus esse*. Zer da au, Jesus nerea? Non da, munduan jaio ziñanetik gaur arteraiño gizonagatik neke ugariak eramateko, iduki dezun gogo sutua? Kristauak, gizonak antziñetatik Jaungoikoaren aurrean daukan zorrari arpegi emateko ordua eldu da; Jesusek artu ditu beregan gizonen pekatu guztiak, *posuit Dominus in eo iniquitatem omnium nostrum*; bere begien aurrean jartzen zaizka orain Jesusi erri guztien pekatuak, dierridanen gaiztakeriak; gizaldi guztietako naskagarritasunak; eta ikustean Jesusek bere arima, arimarik garbi, eder da aberatsena, arima berdiñgabea, arima Jaungoikotarra; ikusirik arima au ainbezte ta ainbezte gaiztakerik loitua bezela, estutzen da Jesus, larritzen da, ta bere Aita zerukoaren aurrean auspezturik, esaten du: *Pater mi, si possibile est, transeat a me calix iste*: Aita nerea, al bada beintzat, igaro dedilla nigandik edakai edo kaliz samin au.

Nola ez estutu? Oroitzen da Jesus, pekatuak kentzeko zerutik etorri ta pekatuak kentzeagatik bere bizitza emanarren, jarraituko duela pekatuak munduan, da askorentzat, eztirala itxiko beiñ ere infernuetako ate beltzak; oroitzen da, gero ta gero ere, pekatariak irainduko duela bere Aita donea, infernuak iretsiko dituela ezin esanala arima; oroitzen zaizko Judas, Jerusalem, da itxutasun andi baten erori diralako galdu bear duen judeatar guztiak. Badauka Jesusek gogoa, gogo sutu ta egiazkoa dauka gizonaren zorra kentzeko; baiña ikusirik ainbezte itsusitasun bere gaiñean, ikusirik beregañ mundu guztiko pekatuen astuntasunak, esaten du berriz ere: *Pater mi, transeat a me calix iste*, baiña gaiñera dio: *verumtamen non sicut ego volo sed sicut tu*: eztedilla izan, ala ere, nere gizontasunaren borondate argala, ezpada zurea, nere Aita. Eta alderdi bi abetako borondate bi abekiñ ainbezteraiño estutzen da Jesus ere, asten da odolezko izerdi ugari batean, odol santu arekiñ baratzako lurra bustitzeraiño. O, kristauak! Ikusi zazute Jaungoiko Altsua bildurtua ta ikaraz pekatuaren aurrean da gogartetu zazute pekatuaren itsusitasun bildurgarria; ikusi zazute Jaungoikoa odolezko izerditan pekatuaren zorrari arpegia ematen asten danerako; ta ala ta guztiz ere gertu dagoela gure zor dana kentzeko, guretzat zuan maitasunagatik; eta esan zadazute maitasunaren agergarri au, naikoa agergarri dan ala eztan.

Goazen aurrera, ta ikusiko ditugu naigabeko mirari andiak. Bukatu zuan Jesusek bere arrena ta erten zuan etsaien bidera. «Jaiki zaitezte ta goazen, esan zien lenago ikasleai, bada emen dator saldu nauan adiskidea». *Surgite, eamus. Ecce qui me tradet, prope est*. Osta esan zituan itz abek Jesusek, sartu zanean baratzan gizon gaizkille aldra andi bat, makilla ta ezpatakiñ, Eleizgizonen izenean Jesus katigatzera. Judas zetorren aurretik!

Emen bear litzateke Jesusen biotzeko sentiera zorrotz, bigun, leiñargi ta samurra ezagutzeko nolabait zeñ biziro mindu zuan bere ikasle onen saltzeak. Zeiñen irain da eskergabetasuna sentitzen dezue geiago zuek ere, aditzaileak, ezagutzen eztezu gizon batena, ala zuen adiskidetzat iduki dezutenarena. Eztago zer-esanik ere: bada, orduan, zeinbat geiago naigabetuko zan Jesus gozua Judasek saltzen zualako, besteak lotzen zuelako baiño! Judas zan gizon bat ainbezte gizonen artean aukeratu ta jaso zuana Kristo bere Maisuak, bere adiskide ta lagun izateraiño; Judas zan mundu guztiko joan-etorrietan Jesusekin batera ibilli zana; Judas, oraindik orduak zirala, umiltasunik andienarekiñ Jesusek oiñak garbitu zitzen ikaslea; Judas, añ ongi zekiana Jesusen zuzentasun da errueza; Judas, milla bider bere Maisua ikusi zuana mirari izugarritzkoak egiten, gizon errukarri askoren malkoak legortzeko; Judas, gau artan bertan Jesusen gorputz da odolarekin janaritua izan zana... eta Judasek saltzen du Jesus laztan bat emanaz!

Laztan bat! Pakezko ta maitasunezko seiñalea, maitasunik gabe ta gerra-soiñuan bere Maisu edo Erakuslea katigatzera datorrenean! Baiña Jesusek ezti erakusten aserrearen izpirik ere: estutzen du saltzailea bere bularraren kontrari, esan nai balio bezela eztiola gorrotorik gordetzen eta bere eskuan daukala bide onera biurtzea, nai baldin badu. Adiskidea, esaten dio, zertara zatotz? Zer da zure begietan irakurtzen dedan lotsa ori? Gizonaren Semea, zure Erakusle zerutarra laztan batekin saltzen dezu?

Eta, ai Jauna, Jauna! Zeinbat Judas dabilzan munduan! Zer, nere kristauak? Zergatik izutzen zerate? Ezkera gu Judas bezelakoak, Jaungoikoari gure pekatuakiñ, ainbezte naigabe ematen diozkagunean? Eztizkigu Jaunak egiñ ainbezte mesede, eztizkigu eman ainbezte arimako ondasun, eztigu erakutsi ainbezte *amodio*; mesede, ondasun da amodio eskergabekeri andienarekiñ eranzun ditugunak? Eztabiltza mundu guztia adiskidetasunaren billa; eztaukagu biotz bat mundu guztia eskeiñika darabilguna, ukatzen diogula Jaungoiko Egilleari bakarrik?...

Badarame Jesus gizonik gaizkille ta amorratuena, Jerusalengo kaleetan zear, lapur baten antzera, gizon iltzaille baten gizara, loturik bulatzaka ta diadarka. Jarraitu daiogun, n.a., bada orain esan leiteke asten dala Jesusen Eranpe andia. Jarraitzen dio Pedrok ere, ta sartzen da Jesusen atzetik Anasen etxeko ataian. Pedro bada Jesusek aukeraturik daukan ikaslea Eleiza Santuaren burutzat, Pedrok ainbezte maita badu bere Erakusle edo Maisua, Pedrok agindu balio eriotzaraiño jarraituko diola — *etiam si oportuerit me mori tecum, non te negabo*— ondo dakian ezkerro Jesukristoren errueza, Pedrok aterako du arpegia Jesusen etsai guztien



aurrean. Ai, ez, kristauak ez! Beste naigabe berri onek ere erori bear zuan Jesusen gaiñera. Pedrok eztu arpegirik ateratzen bere Maisuaren alde: bildurtu da Anasen otseñ edo neskame zirzill batek esan diolako Jesusen ikaslea dala, ta ukatzen du Jesus iru bider, azkenean juramentuarekiñ. *Non novi hominem.*

Egiaz da gaur infernuaren aginpidoko eguna, bada ezta iñoiz munduan onelako gauza negargarrik izan. Epaille, ekadoi edo juezen mendean gelditzen diran gaizkille danak, eraillerik andienak eta gorrotagarrienak izan badira ere, beti daukate beren aldeko gizonen bat aldamenen, jakituna geienetan, iztun-ederra askotan, bere jakituri ta argitasun guztiak eraillaren alde ipiñiko dituna beti. Eta Jesusek, ainbezte mesede sorterriri egin diozkan Jesusek, Zeru ta lurraren jabea danak, eztauka iñortxo ere bere gordoztaritzat, ez lurrekorik, ez zerutarrik. Mundukoak, bildurturik iges egin due, bada mundutarrak, geienetan, ezta kite jarraitzen zerbait irabazi al dutenean baiño; *omnes relicto eo fugerunt* eta zerutarrak, utziten dute laguntasun gabe, infernuaren aginpidoko eguna dalako, gizonen pekatuak Jesusek beregañ dauzkalako. Zer diot utzi dutela? Jaungoiko zuzenak, ikusten ditunean munduko pekatu zikiñak Jesusen gaiñean, pekatuaganako aserrez da gorrotoz beterik, jasotzen du bere ekadoi edo justiziako zigorra ta ematen du biziro ta indartsu zartada gogor bat bere seme maitearen arpegian. (Jaungoikoaren zigorra zan, eraren baten, Anasen morroiak, burnizko eskuarekin Jesusi eman zion zartadatzarra). O pekatariak! Gaur artean ezagutu ezipazenduten ere, ezagutu zazute, gertaera arrigarri onetatik, pekatuaren astuntasun neurrigabea! Ta ezagutu zazute gaiñera Jesusek zigun maitasuna, ikusirik utzitzen duala maillatzen zeruko pozgarria dan arpegi ederra, Jesusek berak sortu zuan esku argal bategandik.

Borreru aien artean igaro zuan gaba Jesusek, bere egoera ixill, malso, paketsu ta Jaungoikotarrekiñ erakuste andiak ematen ziezte. Goizean goizetik ateratzen due ondo lotuta, eramaten due Pilatosen jauregira, andik Erodesenera, ta berriz Pilatosenara, txorotzat arturik. Txorotzat, a, txorotzat jakituri ta argitasun guztien iturburua!

Baiña zer oben edo errugatikan zerabilen onela Jesus? *¿Quam accusationem affertis adversus hominem hunc?* esan zien Pilatosek erriko jendeai. Etzegoan arrazoirikan, o nola! etzegoan arrazoirikan Jesusen kontra; baiña eleizgizon aien eziñ ikusia ta infernutarren amorrua asetzeko alde batetik, eta bestetik Jaungoikoaren pekatuaganako aserre santua kentzeko ta gizonaren zorra estaltzeko, il bear zuan Jesusek. Ala bada, arrazoiaren

tokian zerbait esan bearrik, diote Jesusen etsaiak: «gaizkillea ezipalitz ezkenduke zugana ekarriko».

Pilatosek, errugabea zala Jesus da eziñ ikusiagatik il nai zuela ezaguturik, eta atera naiean gaizkille aien beatzen artetik, oroitu zanean katikutegetian zegoela gizon gaizto Barrabas izenekoa, jente guztien gorrotoko gizona zana, esan zien Jesusen etsaiak: «badakizue Paskuako denbora edo sasoiaren azkatzen degula iltzeko dagoen gizon bat; zeñ azkatuko det aurtan, Jesus ala Barrabas?» Ta jende guztiak oiuegin zuan bat batera: Barrabas, Barrabas!

A, Kristauak! Zeñ laster aztutzen diran jendeak artu dituen mese-deakiñ! Alperrik egingo zinduzten zuek ere milla mesede, alperrik biotza eskuetan zendutela erakutsiko zenduten egiazko maitasuna: gauzarik txikiena naikoako da, edo, bear bada, ezta ezertxore bearko, atzo *hosanna* deitzen zizutenak gaur zuen kontra gorrotoz oiuegiteko: *Crucifige, crucifige eum*. Etzaitezte miraritu: orrela dira gizonak, eta orrela ziran Jesusekiñ ere. Zeñek egin dio erri bati Jesusek Israelgo erriari ta mundu guztiari bezte mesede? Betikotasunetik, zeru goietatikan egin dizkigun mesedeak alde batera utzita ere, zeinbat ontarte ta mesede egin ziozkan munduan Israel sorterriri? Zeruko egia eder betikoak erakusten ibilli zan Judea guztian, gizon eziñekin adin edo *entendimentuak* argitzen ibilli zan, jakin zezaten egia zuzena, galdu etzitezkan ainbeste maitatzen zituan gizonak. Egin zituan mirari asko, or da emen, batzuek estutasunetik ateratzeko, beste malkoak legortzeko, gaisoak osatzeko, ildakoak beren etxadi edo familietara poz da alaitasunez beterik biurtzeko. Orra Jesusek gizonari eman zion maitasunaren agergerri asko. Baiña galdetzen zaientenean israel-tarrai: «Zeñ azkatuko degu, Jesus ala Barrabas gaizkillea?» «Barrabas, Barrabas,» diadar egiten dute judeatarrak. O, gizonen griña gaiztoak dakarren itxutasuna! O, atzotik gaurko egunera dagoan jira-bira!

Pilatos bildurti emeak, jende amorratu aiei naikida pixkat emateagatik, agintzen du zartada bildurgarritzko batzuekiñ arrazatzeko Jesus-Jaungoiko; ta egoitzarik errukarrienean ateratzen du gero kale-aldera, esanaz: *Ecce homo*: ara emen gizona. A, nola dagoen Jesus lastana! Zeru ta lurra egin zituen esku altsuak, indar gabeak eta loturik dauzka; burua, bururik jakintsu, eder da maitagarriena, arantza gogorrezko koro batekin jantzia; bere gorputz donea, ondo estaldugabea soiñeko zar burlagarri bat lepotik bera duala: dana dago eria, dana zauriz ta odolez itsusitua. Uste dezute, a, era negargarri orretan ikusi ezkerko Jesus, bigunduko dirala judeatarren biotzak? Ez, kristauak, gizona itxutzen danean, abereak guztiak baiño okerragoa da, ta Jerusalemgo jenteak itxutuak zeuden, infernuko



odol egarriak amorraturik zerabiltzan: *Crucifige, crucifige* deitzen dute, biriak guztiak bota bearrean.

Gauzarik pozgarriena ikus bear balitz bezela, jotzen dira otsande edo pregoiak Jerusalem kaleetan, batzen dira jenteak arpegi alaietara, inguratzen dute Jesus; da zaldien perra-ots, tronpeta-soiñu, borroruen diadar da oiudolgirodien artean badarama estropozuka, tiraka ta bul-tzaka kalbarioko mendirontz Jesus otsan, umill da malsoa.

Kalbarioko mendira daramela, ertetzen zaio bidera Jesusi negarrez emakume bat. Kristauak! Emakume ura Jesusen Ama zan! Zer esan neike geiago gauza onen gaithean? Semerik laztan da maitegarriena urkamendi-ra daramatela borroero biotz gabeko batzuk, bidean billatu duala, bere Amak! Zer esan neike geiago?

Urkamendi artara nolabait igotzean, jostzen due Jesus kurutzean, iltze gogor batzuek, egur igarra balitz bezela; jasotzen due ajolakabe kurutzea, ta, ara or! Jaungoikoaren odolez bustirik dagoan mendi-gaithean Jaungoikoa, Jesus laztan donea, gizonaren itxurarik gabe. Begiratu ondo, pekatariak, pekatuaren egikera gaiztoa, maitasunaren agergarriak andiena. Jesusen arpegi zerutar berdingabea, loiturik eta maillatua dago; bere begiak, begirik gozoenak, malko minkatxez erreta dakustaz; eztauka indarrik burua zutik idukitzeko, ta kurutzearen ondoan jartzen badu berez, sartzen zaizka barrurago arantza zorrotz ikaragarrikoak, odien gaithean utzitzen badu gorputza, urratzen zaizka geiago lengo eritasunak; eta eskuak ezin due jaso gorputz guztiaren astuntasuna. Ta kurutzearen inguruan borroero biotz gabeak farrez da burlaz dabilta! O Jaun da Jaungoikoa! Noizko dituzu zure aserre santuaren tximista bildurgarriak?

Ixo. *Pater*, dio Jesusek kurutzetik, *Pater, dimitte illis non enim sciunt quid faciunt*. «Nere Aita, parkatu zaiezute, zer egiten duten eztaitelako». Aditu dezute, kristauak? O Kristo Jaungoikoaren erakuste done ta miragarriko! Jaungoiko Altsuak bere eskuek egingako lur zati batek iltzen du kurutzean bere Egillea; ta Jaungoikoak, bere etsai odol-zaleak farre ta ziñu edo burla egiten dioten bitartean, kurutze gaithean parkazioa eskatzen dio Aita zerukoari bere iltzailleentzat. Nere aditzaileak, zuen artean izan badira bata bestearen ezin ikusi ta gorrotoak: zuen artean iduki badi-tuzue alkarri egingako injuri edo irain garratzak, izan ote dira Jesus maitegarriari egingakoak aiant andiak? Eta eztiokatzute biotz biotzetikan parkatu gaur bata besteari? Jesusen irakastegiko edo eskolakoak bagera, nolatan bere erakuste doneari eztiogu jarraituko? Nere a. maite maiteak, pakezko mandataria naiz ni emen da nik esaten dizutet Jaungoikoaren izenean: parkatu dezaiozute alkarri edozein aserre zuen artean izanda-

koa; eta nai ezipadezute parkatu, jakin dezazute beintzat Jesusen erakustia: parkatzen eztuanarentzat, eztagola parkaziorik Jaungoikoaren aurrean. Da nor dago emen Jaungoikoaren parkazioa bear eztuanik, nor da Jaunaren aurrean zorrik eztaukanik?

Gure arrotasun da panparroikeri deabruzkoaren kontra, nolako erakustea Jesus maitearena! Illezkor izanikan illkor eginda, Jaungoikoa izanik gizon eginda Jesus, da gizonen artean azkenengoa. Urkamendira eramaten dituen gaizki ta gizon iltzailleak, azkenengo orduetan, nai duen laguntasun guztia izaten due, ta mundu guztiak errukitzen ditu: Jesusek laguntasun apur bat eztauka, bada, esaten detan bezela, kurutze inguruko borroeroak farre ta ziñu egiten diote: ta bere azkenengo egarrian beastun samia eskeñi diote. Baiña, ai, nere kristauak! etziran judeatarak bakarrik Jesusi beastuna ematen ziotenak eta Jesusen errukirik etzeukatenak, etziran bakarrik. «Eztet errukirikan,» esaten du gaur ere, Jaungoikoaren izen donea madarikatzen duan gizonak; «eztet errukirikan,» izkuntza loietan farrez egoten diran gazteak; «eztet errukirikan,» beren mingaiñ infernuta-rrekiñ lagun anaien izen ona galtzen dutenak; «eztet errukirikan» Eleiza Donearen aginduak bete nai eztituanak; «eztet errukirikan» norbaitek egingako iraina edo okerra parkatu nai eztituanak. Kristauak, Jaunarekiñ errukitzen etzeraten kristauak, billatuko dezute zuek Jaungoikoaren errukia azken-ordu larrian?

Consummatum est, dio: dendena amaitu da. Gizonaren maitasunagatik artu ditut neregaz gizonak eraman bear zituan nekeak eta oiñazeak, eta denari arpegi eman diot. Bai, n.a.: zeruak bete ditu bere agindu guztiak. Illun da argiaren artean luzaroko gizaldietan iraun duan guda okerra azkendu da, bukatu da betiko; amaitu dira Jaungoiko gezurrezkoak, erori bear dute beren eleizak. Zapaldu du Satanak Jesusek, atera du gizona deabruaren beatzetatik, mundua katigurik gabe dago, Jaungoikoa ta gizona pakatu dira, irikiak daude zeruetako ateak, Jesusek amaitu ditu bere lanak: *consummatum est*. Baiña aiant andia da Jesusek gudanako daukan maitasuna, aiant neurrigabea da eze, arraitu zaitezte, al indarrak lagunduko balioke, gugatik geiago eramateko prest daukagu Jesus. «Nere semeak, iruditzen zait esaten digula, asko eraman det zuen maitasunagatik; baiña oraindik ere geiago eramango nuke indar guztiak galduta ezpaneuzkate. Egin det al detana, oiñaze andiak artu ditut nere gaithean bizitza euki detan artean. Bost milla zartada ta geiago eztitut artu ezin nualako; geiago artzeko gogoa baneukan oraindik. Irurogei ta amar arantza dauzkat buruan, eztauzkat geiago, geiagorentzat tokirik eztaukadalak; geiago eukitzeko gogoa badaukat oraindik. Neu josteko kurutzea ekarri det lepoan neuk



bakarrik Jerusalemgo uritikan kanpora, Kalbarioko mendi tontorreraiño eztet ekarri, ezin nualako: borondatea baneukan. Ixuri det nere odol guztiai; tanto bat geiago balego nere zaiñetan, poz-pozik ixuriko nuke zuek gatik. *Consummatum est*. Iru ordu daramazkit eriotzaren ataian, geiago luzatu al banuke nere oiñazea, luzatuko nuke, geiago neketzeagatik. Egin det al detan guztia, eman det euki detan dana: *Consummatum est*. Milla bizitza baneuzka, milla bizitza emango nituzke gizonagatik, bat bakarria daukat eta bera gogorik onenarekin ematen det. Naikoa egin det, nere semeak? Egin daiket geiago? Zerbait geiago al badaiket, esan zadazute, nere semeak, eta gogorik onenarekiñ egingo det». Maitasunaren billa zabiltzaten pekataria; zer nai dezute maitasun geiago? Ta ainbeste maitasunek eztu onkaitu edo merezi gure biotz dana? Eztu merezi gure eskertasuna, gure errukia, gure maitasunik sutsu ta iraunkorrena? Bai, n. a., ondo merezi du Jesusek eta baita ere, Jesusen izenean, gure lagunanaia danak. Orregatik esaten dizutet guztioi berriz ere: *Ambulate in dilectione*, etc. maitatu zazute alkar, Jaungoikoak maitatu genduzan bezela, agergarri onetan ikusten dezuten gizan.

Eziñ leike iraun geiago Jesukristoren bizitzak. Ikaraz beterik eriotza bera, badijoakio kurutzeraño, eskatzen dio baimena Jaungoikoari, ematen dio Jaungoikoak, eta Jesusek esaten du bere azkenengo itza: *Domine, in manus tuas commendo spiritum meum*. Jauna, nere arima zure eskuetan utzitzen det. Eta, ai!... kurutzeak dardara bat egiten du, Jesusen bularra jasotzen da, gelditzen zaio biotza, makurtzen du burua, ta uste det... Jesus! Jesus!... a, kristauak! Jesus il da!... Zeru ta lurraren egille bedeinkagarri, Zeru-lur ta baita ere infernuaren beraren jabea dan Jaungoikoa, izate guztien guraso ta jatorria, ontasun guztien iturburua, edertasun guztien ispillu garbia, gozotasun guztien mamia, maitale utsa, il da, gizonaren maitasunagatik. *Emisit spiritum*. Jerusalem errukarria! Eroriko dira zure gaiñean zeru-goiaren aserreak: zure gaurko farre-algarak negar-malko ugarietan biurtuko dira. Izango dituzu goseak eta egarriak. Agertuko dira Erromatarrak, sartuko dira zure kaleetan zear garaitzaillero, ta eztizue arri bat beste arri baten gaiñean utziko, bada munduan ekadoirik ezipadago ere, Zeruan bizi da Jaungoikoa.

O nere Jesus laztan kurutzean josia! Ara emen gu negarrez, kurutzearen oiñean auspezturik! A, nola utzi zaituan pekatuak! Zer arrazoi andiarekiñ esango dezun: *filios enutrivi et exaltavi, ipsi autem spreverunt me*. Asi nituan semeak, eman nien nere maitasuna, ondasunez bete nituan, ta, ara emen eman diraten ordaiña! Zer egin diet nik semeai mesede baiño beste

gauzarik? *Popule meus ¿quid feci tibi?* Nere erria, nere kristaua, zer egin dizut? *Responde mihi*.

Zer erantzungo det, Jauna! Ezagutzen detala nere errua, damuturik nagola, ta milla bizi nai nituzkela euki danak zugatik emateko. Emen dauzkatzu zure oiñetan seme guztiak, bat batera esaten dizutela: Nere Jesukristo Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, zu zerana zeralako, damu det, damu det biotzetik zure kontra pekatu egiña. Agintzen dizut, arima arimatik agintzen dizut, maitatuko zaitudala gauza guztiak baiño geiago; ta zugatik, zure izenean, maitatuko detala nere etsairik andiena ere: onela zure lege donearen barruan ibilli naizalako, izan dezadan Zeruan mundu onetako neke guztien zaria. Amen.



CAMPANAS

(Aizarnazabal)

*Fratres: Sobrii estote et vigilate, quia adversarius
vester diabolus circuit quaerens quem devoret.*

Nere anaiak, esnatuak zaudete, bada Etsaia
zuen inguruan dabill zein iruntzi billatu naian.
(Apaiz jaunak egunero erresatzen dituen itzak.)

Aizarnazabalko erri kristaua: Gaur ospatzen dezue jai berri bat, orain urtebete ospatzea gogoratu etzatzun jaia. Igandea dalako kristandade guzian zelebratzen da gaur igande guzietan Jaungoikoari zor diogun festa, baña zuek, n. a., ospatzen dezue kristau guzietatik aparteko beste jai bat.— Denok zaudete egun andietako jantziekin apainduak, denok batu zerate zuen eleiza txukun garbian Jaun Altsuari eskerrak emateko asmoan iñoiz ez bezelako atsegiñarekin, ekarri dituzue auso errietako apaiz jaunak ta ots aundia eman nai izan diozue gaurko festari.

Zergatik? Jakiña dago zergatik dan. Zuek, zuen aberastasunarekin baño askozaz geiago zuen borondatearekin eta zuen erritar kanpoan bizi dan gizon argitsu batek lagunduta, jaso dituzue eleiz onen gañera kanpai berri bi, ejenplu eder osasungarria emanaz alboetako erri guztiai, esango bazenduteke bezela orain egin dezuen lan eder onekin: Ara, jenteak, zenbat egin lezakean erri baten borondate onak; Aizarnazabal ezta erri andia, Aizarnazabal ezta aberastasun ugariak dituana, baña Aizarnazabalek dauka fede bizi bat, euskaldun zarren fedea, Aizarnazabalek dauzka seme prestubak, borondatetsuak eta daudenak elkar arturik Jaungoikoaren legeak agintzen duan gisan; daudenak gogo bat, desio bat zeukatelako, ara zer egin duan Aizarnazabalek: ikasi zazute erriak.

Arrasoi askorekin ospatzen dezue, bada, n. a., gaurko jai gozoa; arrasoi askorekiñ batu zerate eleiza onetan barru barruko atsegiñarekin, Jaunari eskerrak ematera amaitu dezuenean zuen lan bedeinkatua. Bidezko gauza da, gauza berez sortzen dana biotz oneko jenteen artean, eskerrak ematea Jaungoikoari onra andi bat zatorkunian, mesede andi bat datorrenean gure gañera; bada zergatik Jaungoikoa da bakarrik onra guzien emalea, borondate guziak mugitzen dituana, mesede guzien iturria. Gloria, bada, egun dontsu onetan gauza guzien Egilleari! Gloria, biotz guzien jabeari! Omena Aita Zerukoari!

N. a., denok jakingo dezue gaur zure erriari onra andi bat ematen diozuela, bañan egon leitezke norbaitzuk zuen artean gogoratzen ez tiranak zenbat mesede egiten duen kanpaiak errietan. Orregatik pentzatu det erakustea: kanpaiak eleiz dorrean jartzea, dala mesede andi bat egitea norbere buruari: Au da gaur goizeko, itzaldi laburtxoaren gaia. Eskatzen dizuet mesedez arreta piska bat.

Fratres: Sobrii estote, etc.

1. Eztago gauza txarragorik errientzat, familientzat ta banan banan gizon guzientzako alperkeria ta nagitasuna baño. Alperkerian bizi diran erriak atzera ta lotzaz gelditzen dira munduak daraman ibillera askarrean; nagitasunean dauden familiak, goi ta nasaitxo bizi izan arren, erortzen dira beberaño laster askoan; nagitasunian bizi diran gizon guziak, naiz dirala nekazariak, naiz eskoletan jakituri billa dabilzanak, naiz aberastasun aundienean daudenak, milla kalte ekartzen ditue beuren buruen gañera, edo sorotako lanak sasoian egin eztiralako, edo bear dan argitasuna liburutetik atera ez talako edo milla griña gaiztoz josi diralako.

Izanik, bada, nagitasuna añ txarra eta gizonak berez nagitasunera emanak, orregatik gurasoak etxean, maisuak eskoletan, apaizak eleizan eta errege onak Dierri edo Erreinoan erakusten ditue nagitasunaren kontrako dotriña ta legeak.

Bañan nagitasuna txarra bada munduko bizitzarako, txarragoa da, o zenbat txarragoa arimarentzat! Asko eztira nagiak, eztira alperrak gorpuzteko, familiko edo etxadiko gauzai begiratu bear zaienean, eta ezta bear ere, bañan, o arima gaixua! zenbat bider gelditzen zeran astuta gizonakgandik.— Arima izanarren ondoen zaintu bear dana geien balio duana dalako... batzuetan, askotan, geinetan! pena andi batekin esaten det, n. a., geienetan bastertua gelditu oi da.

Orregatik Jaungoikoak sortutako Eleiza santak geien geien arimari, betiko zorionari begiratzen diolako, diadar egin du beti nagitasunaren kontra eta ipiñi ditu alizan dituan lege ta arte guziak nagitasunari gerra egiteko eta arte aben artean batez ere kanpaiak.

San Paulino Obispoak asmatu zuan lenengo kanpaia Napolesko Dierri edo erreinoan *Kanpania* zeritzaion toki batean zegoala, ta ortik dator kanpaiaren izena. Au zan bostgarren gizaldiko lenengo urteetan, ta ordutik onera mundu zabaleko eleiza guzi guzietan, Erroman Erroman bezela, Toledon Toledon bezela, Aizarnazabalen Aizarnazabalen bezela, andi ta txiki, millaka ta millaka, millioka obeto esateko, jotzen dira kanpaiak goiz ta artzalde Kristandadeari deiez, kristauak askotan nagitasunetik ateratzearren.



2. Gerralariai turuta jotzen zaien bezela batutzeko lenengo ta gero beuren jira-bira ta mugimentu guzietarako, ala, n. a., kanpaia jotzen zaie kristauai beuren eleizako batzar santuetarako, beuren Jaungoikozko festa seiñaletzat, beuren pena agertzeko erritar bat iltzen danean.

Eta ez dezazutela pensatu gaizki dagola esan dedan gerralarien irudia. Zergatik, n. a., gerran bizi geran beti munduan gauden artean gure arimaren etsaiekiñ; gerran deabru gaizkiñarekiñ, gerran munduarekin, gerran aragiarekiñ. *Mailla est vita hominis super terram.*

Gerralariai goizean *diana* jotzen zaien antzera eta parkatu zadazue itz au bada, zueri ere, Aizarnazabaltar maiteak, deituko dizue dorretxo ortan jarri dituzuen kanpai bedekatuak, goizaldean, mendi gallurrean lenengo eguski errañu pozgarria agertzen dan orduan zuen nagitasuna kendurik salbe egitera Ama maiteari iru *Abe Maria* esanaz, ta eskeintzera Jaunari egun berriko lantxoak. Orrela, kanpaien bitartez, zuen eguna asiko da pensamentu onarekin, orazio egingo diozue Jaungoikoari, zeñen laguntasan gabe ezertxo ere ezin gezakean.

Juango zerate lanera, eta zuen izardiarekin lurra bustitzen ordu batzuek igaro dituzunean, joko du berriz kanpaiak, oroitzen dizuela jun dala egunerdi bat... Pasatuko da artsaldea, ta kanpaiak joko du berriz illunabarrean, eguzkiak bere errañu guziak baturik lurra triste ta misterioz betea gelditzen danean. Orduan kanpai soñuak esan nai dizue zuen egunetatik bat geiago igaro dala, ta *aprobetxatu* dezazutela denbora arimaren alde, azken illuna, eriotza gogorra datorrenerako. *Fratres... vigilate...* Ta zeñ osasungarria dan kanpaiak arimari egiten dion dei biguna ikusi dezan zerbait galdu badu egun artan edo zerbait irabazi badu azken egunerako!—Esagutzen dituzue orain kanpaiak egiten diskitzuen mesedeak?

3. Bañan ori kanpaien eguneroko lana da: kanpaiak beste lan batzuk ere baditue. Esan lezake, moduren baten, izpiritu bat duela kanpaiak, iskuntzen bat daukela. Badator igandea ta kanpaiak jotzen due bestetan baño gogorrago ta luzarago biotzaren erdiraño diadarra sartzen duela. Orduan kanpai soñuak esan nai due: «Kristaua, gaur Jaunaren eguna da, utzi zazu lana alde batera, apaindu zaite, atoz eleizara mesa santua entzuter, atoz arima indartzera Erretore jaunak erakutziko dizun dotrina zerutarrarekin». Eta, erri onetan beñere gertatzen eztana, Jaunari eskerrak, balitz iñor jaiegunari begiratu gabe, oso premia gabe, lanian gelditzen danikan, edo oso gogortua dauka biotza edo an entzungo du lanian dagon tokian bertan malluaren ta atxurraren golpea baño garbiago kanpaien diadarra esaten diola: *gaizki egiten dezu, gaizki egiten dezu, gaizki egiten dezu...* Eta au egingo du kanpaiak egun batean ta bestean, urte batean ta

bestean, zuen bizitza guzi guzian. O! kanpaiak kunplitzen du S. Pabloren konsejua! *Argue, obsecra, increpa:* Etzaiozu pakean utzi beñere pekatuan dagonari, deitu zaiozu beti bide onera.

Beste egun batzuetan, jairik andienetan, dorreko kanpai guziak elkar arturik jira-biratzen dira iñoiz baño soliago, azkarrago, ta alaiago, eramanaz arima arimaraño poztasun andi bat. Orduan kanpai soñuak esan nai dizue: «Kristauak, zuek ondo dakizue zelebratzen zuen jaioteguna, zuen adiskide edo familiakoren batena, edo beste edozer gertaera on. Bada gaur da Ama Mariaren jaioteguna, Jesusen jaioteguna, onelako santu iltzaneke eguna: apaindu denok, eleizara denok zuen arimak garbitzera konfesio on baten bitartez; arimako aberastasunak irabastera, Jaungoikoa bera, o miraria! zuen janarizat artuaz...».

4. Kanpaia, n. a. m., misionista bat bezela da: itzik esan gabe, bere brontzezko oiurekin bakarrik deituko dizue Jaungoikoaren izenean; berak esango dizue egunero: *Sursum corda*, ezta lurra zuen bizilekua, jaso zazuez zuen biotzak zeruetaraño, negarrezko leku onetatik zorioneko tokira: *Sursum corda*: egin zazue lana lurrean zuen buruaren ta zuen familien onerako, baña begiratu zaiozue arimari, eztezue billatuko deskantsu osorik munduan; etzerate aseko beñere; zeruan dago deskantsu, zeruan bakarrik aseko zerate: *Sursum corda*. Kanpaiak dauzka gañera esperantzazko *bozak* gizon justuarentzat, gaiskillearentzat dei bildurgarrikoak; kanpaiak dira erri baten ta eleiza baten onragarriak; kanpaiak alaituko zaitue zuen erriko festa guzietan.

Eta azken ordua urreratzen danean ere, zuen oietan eri ta zirgiñik ezin eginda zaudetenian, ikaraz Jaungoikoari kontu emateko, ta deabru amorratua dabillenean zuen inguruan zelataka, kanpaia izango da zuen laguntasuna, kanpaiak esango du orduan ere: «onelako gaizki dago, Eleizakoak daramazkite, erregutu zazue beragatik».

Eta andik lasterrera, nola kanpaiak dauzkan soñu guziak, atsegiñezkoak bezela naigabezkoak, kanpai oiek berak izango dira eramango due-nak *dilin dolon* tristean, negarrezko iskuntza balitz bezela, mendirik mendi t'etxerik etxe oiarzunetan zuen ill berria esanaz: *consumatum est*, il da, amaitu ziran festak fulanorentzat, amaitu ziran lan guzi guziak eta orduan jasorik adiskide danak beuren biotzak zerurontz egingo due zuekgatik orazio bizia Jaungoikoari.

5. Begira, bada, Aizarnazabaltar maiteak, gauza eder bat egin badezue, mesede andi bat ekarri badiozue zuen buruari kanpai berriak jartzean zuen elizako dorrean. Kanpai oiek zuek baño bizitza luzeagoa izango due, biziko dira zuek il ta gerora zuen izena oroitzeko ta bedekatzeko. Eta,



ah! zuen semeak, zuen illobak, ondorengo danak zenbat dotriña on ikasi-ko duen, zenbat *Aita gurea* geiago erresatuko duen kanpai oiek diralako, zenbat bidar esango duen kristau ononak badira beintzak: «bedeinkatuak gure gurasoak beuren buruentzat ta guretzako milla mesede egin zituela-ko gure dorreko kanpaien bitartez».

N. a.: Bukatutzat ematen det nere itsalditxoa; bañan eztet jetxi nai toki santu onetatik zueri konsejuxo bat eman gabe. Kanpai berriak ez dituzue alperrik ekarri, t'alperrik izango lirakez beuren esana entzungo ezpazenduteke. Entzun, bada, ondo kanpai soñua egunero, goizean, eguardian ta illuntzean, ta egin Salbea lenagoko euskaldun zarretatik ikasi genduan bezela, gure Ama ta laguntzalle Mariani; entzun batez ere jaietan t'etorri mesa santua entzuter a t'erretore jakintsuaren erakutziak aditzera, ta nik esaten dizuet Jaungoikoaren izenenan, orain kanpaien diadarra entzun ta bide zuzena jarraitzen badezue, etzaituela ikaratuko gero Jui-zioko turunt bildurgarriak.

Jaun eta Jaungoiko zerukoa: Aizarnazabaltarrak, beuren mesederako bada ere, zure onran jasotzen ditue gaur kanpai berri bi; bedeinkatu zazu zeru altutik beuren pensamentu ona, saritu zazu beuren karidadea; bedeinkatu zazuz erri onetako erretore ta berari añ ondo lagundu diuen jaunak; bedeinkatu zazu Aizarnazabal guzia, eta, zure izena emen onra-tzen dualako, eman zaiozu gero zeruko gloria, zein guzioi biotz biotzeti-kan opa dizuedan: *Aitare*n etc...

(ASUNCIÓN)

Posuit diadema in capite ejus.

Jantzi zion erregiñaren koroia bere buruan.

Ester liburuko II garren buru eta 17 garren bersuan.

N. a. m.: Ederrak dira Eleiza santak urteoro Mariaren onrian ospa-tzen dituan jai guziak. Alai ta ederra da Mariaren sortuera garbiko jaia oroitzen digulako Zeruetao erregiña onek irabazi zuan garaipena dea-bruaren arrotasun madarikatua menderatzean; eder ta pozgarria da Mariaren jaiotza mirarizkoa; poz ta atsegiña munduan zabaltzen zuana; ederra ta osasungarria da ikustea Mariak, umetxoa zalarik, nola eskiñi zuan bere burua Jaungoikoarentzat urterik bigun ta loratsuenetan; baita ere da zer ikasi andietakoa Nazaretko etxetxoan aingeru zerutarraren aurrean auspezturikan erakusten digun umiltasunezko ejenploa; baña, n. a. m., pozgarri ta alaiak, osasungarri ta erakutzi andikoak badira ere beste urte guziko Maria festak eztauke zer ikusirik gaur ospatzen degun festa-rekin. Errekatxoak itxas zabalean bukatzen diran bezela gaurko festa andian bukatzen dira beste Mariaren festa denak, bada gaur ospatzen degu Mariak zerura igon zuaneko jaia.

Maria gaurko egunean mundu onetako neke, lan, samin, zispiru ta negarrak beti betiko utzirik igotzen da odei guzien artetik zerurik garbie-nera, ta izarrik izar, egusirik eguski aingeru maitagarritz inguraturik zar-tzen da betiko zorionean.

Zer ikusgarri ederrra! Aditu zazue nola dirauskun S. Juan Damasze-nok: «Gaur, dio, gaur da poz, gozotasun ta atsegiñezko egun doetsua, Jerusalem zerukoa, Maria txit Santa zeruetan sartzen dan eguna. Gaur igaro ditu zeruko ateak Eba berriak, pekatuaren orban edo mantxaren kereisak ikutu gabeko emakumeak. Iltzen da Maria, eriotzari pagatzen dio jaio geran guztiok daukagun sorra, baña Mariaren gorputza beste mun-dukoe gorputzak bezela ezta lurrarentzat: zeruan dago gertatua bere deskantsurako tokia eta zerura dijoa».



PULVIS ES

Autsa zara, gizona. Alperrik zagoz gaur diru askoren iaube; alperrik bizi zara etxe andi, eder, arri landuz egiñ da burdiña apainduakaz inguratuetan: etorriko iatzu ordu larri batean, ordurik larrienetan, eriotza baltz atzapar zorrozduna, ta nai ta nai ez itxi bearko dozuz zeure ondasun guztiak, eta gura ta gura ez lurperatuko zaitu, ta auts biurtuko zara.

Obeto esateko, zeugan daukazu austasuna, aragi zati batzukaz da azal mee bategaz estaldurik; eta eriotzeak ikututen deitsunean estalkia kenduko iatzu ta autsak aterako dau bere arpegia, bera dan gizan agertuko da autsa.

Zeu agertuko zara zarean legez, gizona: auts ein da. *Pulvis es.*

Eleizeak gogoratuten deitsu, zeure diruakaz arrotasun geiegi artu eztaikezun, zeure lagun urkoari anaia on bat legez begiratu daiozun. *Pulvis es*, esaten deitsu: autsa zara, aizea, lanbroa, kereiza, ezerez bat, eta biar edo etzi zure gomutarik eztau iñok lurlean izango.

Ta noiz izango da zure lurpera ioatea? Noiz izango danik ezin neikezu esan nik, baiña laster izango dana bai, zeuk usterik gitxien daukazu-nean. *Qua hora non putatis.*

Zeure zabela beteten zagozan bitarteren baten, zeure diruak bata bestien gaiñean pillotuten zagozan eretian, norbaiten itz bigun guzurrezkoak pozik entzuten zagozan orduan bear bada.

Zure diruari esaten deutsezan itz eztitsuak, gizona, ez zuri.

* * *

Baiña burutsua zareala ta ez dirutsua badiñostazu, buruan eztaizula aize geiegi euki dirautsut, bada aizea oraindik lurra baiño bere gitxiagokoa da.

Zure bekoki panparroiaien gaiñean, Elizeak, egia osasungarri bat esanaz, autsezko kurutze bat ipinten deitsu: Kurutzea, Iesus Iaungoiko umillaren ikaslea zareala gomutau daizun; autsezkoa, nondik urten zenduan da nora biurtuko zarean aztu eztakizun.

Eztozu, bada, zeure burua zarean baiño geiagokotzat euki bear, eztozu arrotu bear, da zeure arimako argi ta indarrak, Iaun Egilleak emonak, Iaunaren erakutsiak egiten erabilli bear dituzu.

Orretarako iaioa zara.

Egia da arima bat daukazuna, illezkorra, txalo zalea, gauza andietarako sortua; baiña arimearen bizilekua ezta lurra, bere ianaria ezta gizonen txaloa.

Iaungoikoak txalotuko deitsuzan gauzak egin daikezuz, bada, gizon irakurlea, betikotasunera zeure edergarritzat eroan zeikezan apainduriak.

Eta etzaite beiñ bere aztu Elizeak zer dirautsun garizumako atean: *Pulvis es*: autsa zara.



MAITETASUNA

Cum dilexisset suos qui erant in mundo in finem dilexit eos.
(Ioan., XIII, 1.)

I

Zer gauza gozoa dan maitatzea! Jaungoikoak gure biotz andinaikoa-ren erdian ipiñi digun ansi, gurari edo nai-izate ezinasetakoa da maitetasuna, ta bere atzetik gabiltza beti jaio geran guztiok, gauzarik bear bearena bagendu bezela, askotan zer egiten degun eztakigula bada ere.

Maitatzen du Amak semea, nai ta nai ez bezela, baiña samurtasunik zoragarrienarekiñ, da aiñ poztasun da atsegiñ bigunez betezen du maitetasun eder onek eze, berarekiñ astutzen ditu amak lurbira onetako naigabe, samintasun da negar malko guziak. Maitatzen du semeak Ama, estutasunetan agertzen dakian indar sendoarekiñ; maitatzen dute anai-arrebak bata-beste; maitatzen dira senideak, adiskideak, ezagunak, erritarrak; bakoitza bere maillan, bere neurrian; askotan beren alkarganako maitetasun ori gogakida, ezaguntasun, laguntasun, adiskidetasun edo beste orrelako izenen baten azpian estaltzen badute ere. Maitatzen dira basoetako abere okerrak berez, jaiotzaz, zer egiten duten eztakitela, ta maitetasun au erakusten dute beren umetxoentzat janari billa dabiltzanean, edo aien bizitza etsaien atzaparretatik gorde bear danean. Maitatzen dira txori ta egaztiak, eta ikusiko dituzue oiek ere perill orduetan, beren egoak zabaldurik umetxoak maitagarriro estaldu naian, da aiekgatik beren bizitza emateko prest... Zer geiago? Gizaren baten esan genezakeala uste det lurak berak ematen digula, al lezakean eran, maitetasunaren da gorrotoaren esaugarri bat bezela. Begiratzea baiño eztago nola dagoan lurra, neguko egun beltz laburretan, muker, makal da jantzigabea, egualdi txarri arpegirik eman nai ezpalio bezela, ta nola udaberrian apaintzen dan guzia, ostoz, belarrez da lora ikusgarritzko, eguzki garbiaren erraiñoakiñ pozturik.

Aiñ da zabala ta danentzakoa, aiñ da gauza guzien izatearen erdian dagona maitetasunaren legea!

II

Baiña lege onen indarra gizonagan eltzen da goren goreneraiño ta Jaunaren irudira egindako gizona, jaiotako gauza guzien erregea, ainbeste gogo sutsu neurrigabekorekiñ betea, ezin leiteke bizi maitetu gabe ta maitetua izan gabe.

A! Zeiñ pozgarria dan gizonarentzat maitatzea ta maitetua izatea! Ondo zekian Jesusek. Bere jakituri Jaungoikozkoarekiñ ondo neurtua zeukan gizonaren gogoa, ta guziz, oso ta ziatz nai izan zuan bete. Nola? Jaungoikoak berak zigun maitetasunik andiena agertuarekin.

Egiatzko maitetasuna ezta itzakiñ bakarrik erakusten; baita ere, ta askozaz obeki, biotzezko emate ta egikera onen bitartez. Orregatik Jesukristo gure Jaunak egikera on askorekiñ nai izan zigun erakutsi bere maitetasun azkengabea. Zeru, zorioneko toki gozotasunezkoa utzirik, lurre-ra etorri zitzaigun Jesus, da gizonari zion maitetasunagatik lurrez jantzi zan; Bere gaiñean artu zituan gure doekabe, estutasun da naigabe guziak, arimako aberastasunez da zeruko apainduriz gu betetzeagatik; makurtu zan zerutik lurrera gu lurretik zeruraiño jasotzeagatik, eta denok dakigu estalpe txiro batean jaio zala, abere artean, umetxo baten antzera. *Quasi parvulus natus est nobis.*

Da Jesus aragiz jantziak, gizonarekiñ bere burua obeto bat egiteagatik, gorde zituan Bere aberastasuna, andi-izatea ta Jaungoikotasuna bera, aldi askotan: baiña bere maitetasuna etzuan gorde. Gurasoen mende bezela egoteko urteak igarota gero, sartu zan lurbirako jente ta barailaren erdian. Zertara? Zeruko egia eder betikoak erakustera, gizonen adiñ illunduak argitzera, Jaunaren egia jakiñ zezaten, ainbeste maitazen zituan gizonak zeruko bidetik ibilli zitezten. Bere Jaungoikotasuna erakutsi bear zuanean egin zituan gero mirari asko, or da emen; zertarako? Batzuek estutasunetik ateratzeko, besteen malkoak legortzeko, ildakoak pozez da alaitasunez beterik bere etxadietara biurtzeko. Ta azkenik, maitetasunez zoratu balitz bezela erabaki zuan gizonagatik iltzea, ta ill zan eriotzarik lotsagarrienarekiñ, gaizkille baten irudira, urkamendi batean, lapur biren erdian...

Iñor badago kristauen artean Jesusek digun maitetasuna egiazkoa ete dan siñiztu eziñekorik, begiratu dezaiola Jaungoikoari kurutzetikan dingilizka, arantzaz aroetua, alboa burniz irikia, odolusturik eta ilda, ta esan dezala maitetasunaren agergerri oberik eman al badezake iñork.



III

Benetan da arrigarria Jesusen egikera samur au, iñoiz ere kondairetan irakurri eztegun aiñakoa da, maitasunez beterikako biotzik andi ta umantsuenak egingo ez luketen gizakoa... ta ala ta guziz ere, Jesus, gizonari maitetasunezko agergarriak ematen etzan ase.

Geiago egin zuan. Il bear zuan aurreko egunean, bere ikasleakiñ azkenengo apari bat egiteko ustean, apalategi batean jarri zan. Ze ordu andiak gau artakoak! Guziok dakizue, irakurleak, bukaerako orduetan, azken agurra egin bear danean izan oi dala maitetasunik bizi, zoli ta zakonena; orduan buztitzen dirala iñoiz negarrik egiñ eztuten begiak, orduan biotzeko taupada, naigabe ta larritasuna izaten dala iñoiz baiño garratzagoa: ondo dakizute zuen etxeko bati eriotzako orduan lagundu diozutenak. Orrela, bada, zegoan Jesus gizonari agur egiteko zoria etorri zitzaionean, gizonari eman zizkan maitetasunezko agergarriakiñ ezin aseta zegoan, maitetasunez gaiñezka, maitetasunez iltzen, gizonagandik alde egin bear zualako samiñez beterik; eta orduan, maitetasunaren asmorik goitandi ta ederrenean, agorturik Jaungoiko txit Altsuaren aberastasun ugarria, Jaungoikoaren alizate guzirakoari azkena billaturik, erabaki zuan: Bere burua, betiko, gizon maitearentzat lurrean utzitzea, au da, Altarako Janari Donea sortu zuan.

Zeruetako aingeruen izkuntzarekin ere eziñ lezake iñork mirari onen eztitasun zerutarra erakutsi, irakurleak; baiña gure poztasunerako esan genezake, utzi zigula Jesusek gure Erakuslatzat, gure Laguntzat, gure Aitatzat, gure Janaritzat, Jaungoikoa Berbera, asiera ta amaierarik gabeko Jaungoiko Illezkorra, betiko bizitza ta betiko osasunerako Ogia, zeruak berak baiño milla ta milla aldiz geiago balio duan Izate berdin-gabea. Eman zezakean gizonarentzat geiago Jesusek, Jaungoikoa izanik ere, Jaungoikoa bera baiño? Ai, ez! Jesusek emate onetan garaitu zuan Bere Burua, ta gelditu zan geiago gizonagatik ezin eman zezakeala, ez lurrean da ez zeruan bertan.

Da emate aiñ miragarritzko onek noiz artean iraungo du lurrean? Beti, gizona gizon dan arte guztian: *Usque ad consummationem sæculi*.

* * *

Maitetasunaren billa zabiltzaten gizonak, zer nai dezute maitetasun geiago? Ara emen Jesus, Izaterik maitegarriena: atozte Jesusegana denok, ase zaitezte maitetasunez Jesusegan.



(MAITETASUNA)

Zer da maitetasuna lurrean? Animán sortu oi dan landare alaia, biotz batek besteganako daukan joera gozoa, amesik ederrenaren iturburua, erbesteko gure zori bakarraren kabia, gizon bidastiaren ezti abaska.

Baño arretaz begiratu ezker, laster ikusiko degu maitetasuna, atsegin andien jatorri egiaz bada ere, askotan oi dala gazitazunezko itxaso biurtu. Ai, n. a.! Ezta lurrean, legortuko eztan landararik, aldakor eztan biotzik, agortuko eztan iturririk, garraztu ezin ditekean eztirik.

Ezta lurrean garraztu ezin ditekean eztirik Beñi baño geiagotan irakurri dituzue egiazko maitetasunak liburuetan; bear bada zuen begiz ikusi dituzute benetan maite diraden batzuk, anima biz bat eginda bezela biotzez oso gozoro alkaturik, uste ta iritzi batean, gogo ta ames berdiñetan zintzoro dabiltzala, ta orduan oartu zerate egiazko maitalien artean batarren poz ta zoriona, poz ta zoriona dala bestearentzat; bataren naigabeak ta oñazeak besteari ere samin andia dakarkiola.

Ta erbeste onetan badakizute zorioneko loreak baño naigabearen arantzak askozaz geiago dira maitalien artean; batari edo besteari egunero dario negar malkoa; edonun edonoiz, edozergatik; naikoa zorion beñe-re eztaukatelako, daukaten apurra galtzeko beti bildurrez daudelako. Batez ere maitaleak ere sarri egin oi diote maitaleak beren buruai galdera keskatsu bat: «benetakoa ete da? agortuko ete zait/o? iraungo ete du?». Ta keska ori dute dute beren zori apurra ez gozatzeko. Bai, n. a.: lurreko eztiak berez darama garraztasunaren asia.

Badakit zer esango dirazuten. Gizarteko maitasunen artean badala orratik maitetasun bat garbia, zintzoa, bizitza beñi iraunkorra: amaren maitetasuna. Egia da. Eztago lurrean ama baño maitale oberik. Ezkaitu iñork egundano gure amak bezela maitatu; ez esagunek, ez adiskidek, ez anai-arrebak

Etzaituzte egundano iñor maitatuko, ez semek, ez senarrek, ez emaztek. Iñortxok ere ez; amak geien, amak ondoen, amak maitasunik zintzo ta garbienaz. Amaren izena bera da maitale ta maitagarri, arantzarteko lore, malko guztien legorki, ta orregatik gure negar orduetan, biotzean daukagun amaren izenak berez erteten digu: ama, amatxo! O, zenbat txorakeri esan dizkigu bakoitzari geure amak! Zenbat ames egin dituzten *guzaz*, nolanaikoak giñala, bada gurasoentzat beti gera gu eder, argi ta

jakintsu. Zenbat aldiz gozatu ditugu biotzaren samiñak ama maitearen altsoan!

Baño ama oiek eztira betiko: askori joan zaizkigu Jaungoikoaren arpegia ikustera, uste degunez, ta beste askori oso laster joango zaizkitzute Aurki zerate umesurtz

Orrela zan Mariaren Jesuseganako ...

Etziran egundano zorion betean egon. O, ez! Amaitzen dan gozamina ezta egundano zorion betea, ta eztegu alderdi ortatik ere iñola izango. Etzuten gure amak ere semien ondoan lortu. O, ez! bere bularrean berriz estutu, bere arnasa edan... Baño laztan bat eman gabe...

ezta d'or erukarri

ezta ezer gari

Bizitza berria bear degu asi, gaiztakerietako bidietatik betiko erten; Amaren irudira bakoitzari Jaungoikoak zuzen biraltzen digu gurutzea jaso, Jaungoikoaren legeari jarraitu, lagun urkoari guretzat nai degun oparia opa; Jesus Jaungoikoa biotz biotzez maitatu; gure uste, asmo, gogo ta iritziak Jaunaren mendean jarri; gure ibillera guztiak zeru alderuntz eramán. Orrela izango gera Mariaren seme-alaba onak, orrela poztu daikegu bere biotza.

Ori eskatzen dizuten gaur Mariaren izenean.



IESUS-UMEAREN ESTALKIA

Maria ta Iosek Iesus Umeagaz Belenetik urten ebenetik laugarrengo eguna zan.

Idumea inguruan Hor izeneko mendi tontorrera eldu ziranean, Maria Donea oso nekatua egoan. Iose onak asto gaiñetik bera erasten lagundu eutsan, da, atsedean bat egiteko asmoagaz, atx andi baten ondoan iarri ziran.

Iesus-Umea lotan egoan, da Bere arpegi zerutarrean ikusten iakozan errubagetasun da bake gozoari begira gelditu iakon Ama. Iaungoikozko bakea zan, Lurbira guztia laster bete bear eban bake ona.

Otz egoan, guztiz otz; aizea geroago ta gogorrago etorren; zeru dana odeiz estaldu zan beingoan, da asi zan edurra gogotik. Mariak otzetik eta edurtzatik ezekian zelan Iesus gorde.

Aizearen oztasunak esnatu eban Umea: edegi zituan begiak eta negarrez asi bearrean, irri-barrez asi zan Amaren altzoan...

Zorionekoa Iesus-Umearen irri-barrea ikusten eban Ama!

Baiña edur-matasak, Iesus-Iaungoikoari ikututean, *lanazko* ta *sedazko* matasa biurtuten ziran, da, guztizko egokitasun apainduan alkarturik, oialdu ziran, da Ume-Iaungoikoarentzat estalki bat egin eben.

Da milla eratako matasak larrosa txikiak eta egundoko izartxuak ipinten zituen Iesusen estalki gaiñean.

Da agertu ziran bertan altiste edo *perla* ikusgarriak, arri argitsuak, urre ta zidarrezko ariak; eta oialaren egaletatik bera lurreraiño iatzi ziran.

Zer ederra zan Iesus-Umearen estalkia!

Ta bitartean lotan da irribarrez egoan Umea.

Betorren edurra goitik bera baratz-baratz, ta geroago ta luzeago, geroago ta zabalago egiten zan Iesusen estalkia.

Ta beko ibarretaraiño iatzi zan, da goiko mendietaraiño igo eban.

Da eldu zan Ierusaleneraiño, ta uri orretan egozan lander ta umezurtzak bere azpian sartu ziran, da poztasuna billatu eben.

Da estalkia, itxaso zabalak igarorik, Erromaraiño eldu zan, da Erromako beartsu ta iñoren mendean egozan gizonak estalkiaren ertzari mun egiñ eutsen: bada euren biotzaren erdian orduraiño egundo ezagutu bageko sua ta berotasuna billatuten ei eben, Iesus-Umearen estalkitik urteten eban berotasuna ta sua.

Iaungoikozko estalki ori lurralde ta ugarte guztietara zabaldu zan, da umezurtzak, eskaleak, gizon zarrak, gaixoak eta iaube-bageak milloika beraganatu ziran; da estalki orren toloztura bigunen artean Lurbira guztiak aurkitu eban berotasun barria.

Estalki ori Elizeak toki danetara eroan daben maitetasunezko estalkia da.

Gutziz ondo gordeten dabe Maitetasunaren edo Karidadearen Arrebak; Lander, Txiro edo Beartsuen Arrebatxoak: *Juan de Dios* Donearen Anaiak, Kristoren Ikastetxetako Anaiak eta beste Elizearen erdian sortu diran Alkartegietako gizon da emakume on askok. Orrek dira guraso bageko ume, beartsu ta gaixoen buruan Iesus-Umeari estalkia ipinten deutenak: bada gaixoak, beartsuak eta umeak dira Belengo aska baten lasto-gaiñean iaio zan Iesusen irudi egiazkoak.

Baiña badira otzez da goserik dagozan ume asko; irribarrez bizi bearrean, euren soiñeko zar urratuen gaiñera malko samiñak botaten dituen ume errukarriak, Iesus-Umearen irribarre gozoa ezagutu eztaben ume gizagaixoak. Ezteutse beiñ bere Iaungoikoari deituten, zerren Iaungoikoaren izen donea gurasoen aoan arao ta birao zikiñen artean bakarrik entzun daben; da gurasoen griña gaiztoak baiño beste gauzarik ikusi ta ikasi eztabeelako, or dabilz umeok urien erdian, iateko ogi zati bat eztaukela, euren gorputzentzat berotasun pixkak eta arimentzat maitetasun apur bat billatu eziñik; bada gaurko egunetako gizonak, Ebanjelioaren argi ta berotasuna geitu-bearrean, argi ori amatau naian alegiñak egiten diardue, ta iaube bageko umetxo guztiai arimearen eriotzea eskintzen deutse.

Era orretan il zituan Erodes gogorrek umetxu asko euren gordelekua izan bear eban urian bertan.

O Iesus-Umearen estalki ederra! Ondo zure bearrean dago gure lurra, itxurazkoa, apaiña ta aurreratua dirudi baiña.

(*Erderatik biurtua*).



LENBIZIKO MESA

Primera Misa (Zumaya)

Sicut misit me Pater et ego mitto vos.

Ni nere Aitak biraldu ninduan bezela, orrela nik biraltzen zaituztet.

(Juan Santuaren Ebanjelioko XX garren irakurburu
ta 21 garren bersotik artutako itzak.)

N. a. m.: Gure Jaun eta Jaungoiko santuak, bere errukitasun andi, sakon ta neurrigabean, gauza on bi utzi zituan lur onetan munduaren osasunerako: liburu bat eta gizon bat. Liburua da Jesus Jaungoikoaren istori edo kondaira samurra, zeruko bidearen ikasbide zuzena, jakituriaren asiera, egia guztien kutxa, edertasun guztien jatorria, animako ondasunen gordelekua, itxaropen edo esperanza danen iturburu garbia. Eta zein da gizona? Denok esagutzen dezuten izate on bat, bada toki guztietan bizi oi da, toki guztietan zabalitzen du zeruetako jakituria, eguskiak bere argi alaia alderdi guztietara zabalitzen duan bezela: gizon ori da eleizgizon edo apaiza. Gizon orrek ikasi ditu Ebanjelio santuan gordeta dauden egiak, gizon orrek jantzi du bere biotza liburu santu orretan dauden erruki ta samurtasunarekin, gizon orrek Jesusen agindua dauka bere anai guztiai zerurako bidea erakusteko, ta *orregatik*, lurtarrak zeruratu nai badute, apaiza nai ta naiezkoa da beste gizonen artean. Bera bear da gure jaiotzan, bera bear da gure eriotzan, bera bear da beti, gure seaskatik asi ta azkenengo obian sartzen gaituen orduraño. Askotan bakar ta ixiltasunean egoten bada ere, beragana joaten dira gizon ta emakumeak, biotzaren erdian gorderik dauzkaten gauzarik eskutuenak esatera, poztasunik txoroenak eta malkorik samiñenak berari agertzera. Naiz ta izan etxe beartsu edo pobretxoan jaioa, premiazko egunetan gizon andien jauregietako ateak zabalik billatzen ditu, menditarren baserri ta txaboletakoak bezela. Eskale ta aberatzen artean bera izan oi da bitartekorik onena, batzuk eta besteak gurasotzat daukate, Aita deitzen diote, ta sarritan dabilta apaiz-etxeke atean deiezka. Erruki andiak dauzka biotzean ta Bere errukitasunak darama naigabea dagoan tokietara, ta eritasun edo gaixoa, samiña edo negarra dagoan lekuan an agertzen da beti apaizaren irudia. Egi andiak esaten ditu aberatzentzat, egi andiak beartsu edo pobrientzat, beti dabill burruka bizian

gezur ta gaistakeriarekiñ, ta gezur ta gaistakeria dagoan tokian, an dago beti apaizaren etsaia.

N. a., ikusten dezuten bezela, liburua ta apaiza biak dira nai ta naiezkoak zerurako bidetik ibilli nai duanarentzat, biak bizi dira alkar arturik eta alkarren laguntzan, biakatik esan giñazke gauza on asko; baña gaur, apaiz berri baten lenbiziko mesa entzutera etorri geran eskeroan bere eskubide andia ta beste gai eder batzuek alde batera utzirik, iruditut zait ondo izango dala zueri agertzea «apaiza diradela mundua mundu dan arte guztian liburu orretako egia zuzenak erakusteko ta lurreko doekabetasunak errukitzeko Jaungoikoak aukeratu dituan gizonak».

Zeruak bialdu daidala onetarako bear detan argia. Lagun zadazute zuek ere, n. a., argi au jaristen, gure Ama Maria txit santari, oitura zarra dan bezela, *Agur Maria* esanaz.

Sicut misit...

1. N. a. m.: Badakizute zer dan egia? Egia da zeruko bidea ikusteko Jaungoikoak eman zigun argi eder bat, ta egia gabe eztago lurrean illuntasuna ta ondamendia baño beste gauzarik. Gizona jaio zan egunean bertan jaio zan egia lurrean, Jaungoikoak sortu zuan gizonaren biotzean aukerazko kabi batean bezela; baño gizonak bere eskergabetasunagatik galdu zuan egia ta zerurako bidea, ta gezurraren laño beltz galgarriak eztali zuten mundu guztia. Ta orduan, gure Jaun eta Jaungoiko gauza guztien guraso ta Aitak, argitasun utsa ta betiko egia danak, biraldu zigun lurrera bere seme laztan Jesus zeruko aberastasun guztiakiñ apaindua. Zeru gozoetatik negargarrizko lur onetara etorri zan Jesus erakusteko bear diran egokitasun guztiakiñ jantzia: bada ekarri zuan, Egillea zan aldetik, gauza guztien benetako esaguera (zerren Egilleak baño obeto eztitu iñork sortutako gauzak esagutzen); jakituria bera zan aldetik erakutzirik jakintsuenak; Maitale ta errukiorra zan aldetik, agindu ta legerik bigun ta gozoenak. Zeruko eguski onek kendu zituan munduko gezur laño guztiak; (ibilli zan erririk erri zer zan egia erakusten) eta lurtarrak entzun zuten berriro, Jesusen aotik, zeruko soñu pozgarrikoa. Jaungoikoaren esana, egia bedeinkatua.

Baña bere jakituri neurrigabean esagutu zuan au etzala naikua egia iraunkor egiteko, egia betiko lurrean utzitzeko, ta gogoratu zitzaion ta nai izan zuan jarri zedilla liburu batean Berak esan ta egin zuan guztia, ta bere ikasle batzuek, Jaungoikoaren laguntzarekiñ, egin zuten len esan degun Ebanjelio santua, au da, liburu guztien liburua ta ordutik aurrera Jaungoikoaren itza gizonak bear zuan egi ta benetako jakituria lurrean ta gurekin dago beti. Baña etzan naikua ori ere: etzan naikua Jesusen egia zuzen-



nak erakustea ta egia oiek libumetan jartzea. Eztago lurrean betiko iraungo duan oju edo deadarrik: ojurik andienaren oiarzuna piska batean aidean egoten edo joaten bada ere laster amaitzen da betiko, ta beste alde-tik, liburuak, eztaizki edozeñek irakurtzen, edo irakurtzen dakiten guz-tiak eztaite bertan dagoan jakituriaren muna edo mamia bear bezela ate-ratzen.

Bear zan bada norbait Jaungoikoak emandako egia beti gorabera ta naste gabe zintzoro gordeko zuana; bear zan norbait errian ta basoan, ibar sakonean ta mendi gallurretan Jesusek egindako itzaldi santuak gogo-ratuko zituana. Ta orretarako, Jesusek berak, bere ikasle guztien artetik aukeratu zituan gizon batzuek, eta esan zien: *Sicut misit me Pater, et ego mitto vos. Euntes docete omnes gentes*. Ni zeruko Aitak biraldu ninduan bezela orre-la Nik biraltzen zaituztet: zoazte erririk erri ta erakutzi zazute zeruko egia.

Orduan sortu zan Eleiza, ta ordutik eta ona Kristoren Eleiza orrek, bere seme onen artean, aukeratzen ditu Jaunaren izenean gasterik birtu-tetsuenak, egiten ditu apaiz, batzuk amaitzen diranerako bestea, beñere lurrekoak egiaren erakusle gabe egon ez ditezten, ta esaten die, Jesusek bere lenengo ikasleai bezela: *Ite, docete omnes gentes*, zoazte alderdi guztietat-ik, ta erakutzi zaiezute jenteari zenbat sor dioten beren Egilleari, nola mai-tetu bear duten Jaungoikoa, nola bete bear dituzten bere aginduak; era-kutzi zaiezute aberatsai eta beartsuai, jakintsuai ta ezjakiñai, agintariak ta mendeakoi, erakutzi zaiezute lurreko jente guztiai: *docete omnes gentes*.

2. Ara or nundik datorren apaiz jaunak daukaten erakusteko eskubi-dea, ara zergatik erakusten duten emeretzi eunkida ta geiagoan ta beti gauza bat, ara zergatik itz egiten dizuten jaiero zuen artzai jaunak, ara zer-gatik inguratzen dituzuen gure erakustegi edo pulpitoak, eta zergatik adi-tzen dituzuen pozik gure itzaldiak: denok dakizutelako Jaungoikoaren egia erakusten degula mundua mundu dan artean Eleizak gordetzen duan ta gordeko duan egia erakusten degun apaizak.

Ah! Nik eta ni bezelako beste elizgizonak, *pulpitu* onetan, norbere gogoramenak bakarrik erakutziko bagenduzke, arrazoi andiarekiñ esango zenduteke zuek edo zuen artean batzuk: zeñ zera zu neri ezer erakuste-ko? Noiz ta nun izan zera zu ni baño geiago edo ni beste jakituriako gau-zetan? Baña Jaungoikoaren mandatariak bagera ta zeruko Jaunaren egia bakarrik erakusten badegu, bereala erantzun genezake: «adiskidea, ez eman neri arpegi, ez asi nere kontra; jarri zaite, al badezu, Jaungoikoaren aurrez aurre ta esan zaiozu Bera baño jakintsuago zerala, ta berak baño obeto dakizula zorionerako bidea». Eta munduan gizon arro asko badira ere, eztet uste dagoanik gisa orretan itz egin dezaken gizonik, edo iñor

baldin bada gizon orrek galduta dauka bere burua, ta txoroen bildurrik eztauka Eleizak.

Beraz, emen ikusten danez, gizona ezin leiteke izan, bere buruko argiarekiñ bakarrik, beste gizonen gidari, erakusle edo maisu? Ez, n. a., ez! Gizonak eztauka orretarako eskubiderik; eta gañera, esagutzen degunean gure adimenaren argaltasuna ta indar txikia; ezagutzen degunean zeñ errez joaten dan oker bidetik illunpetik aurrera ta aurrera zuzenbidean eta argitan balijoa bezela; eta beste aldetik ikustean gure borondate gaistoa, norberari ondo datorkion gezurra aiñ gogor eskudatzen duan boronda-tea, aitortu bear degu gizonak eziñ dezakela erakutzi, uts egiteko bildur gabe, Jaungoikogandik datorren egia ezpada, ta ori Jaungoikoak berak eskubidea ta laguntasuna emanda. Munduan siñisterik izango bada, gogo-era onik izango bada, agindu onik izango bada, nai ta naiez bear da gizo-nen gañetiko aginpide jakintsu ta zuzen bat; eta orregatik Lurreko erri guztietan esagutu dute beti lege guztien jatorri bat, Jaungoikoaren legea, ta erakusle guztien erakusle bat, Jaungoikoa bera.

Orregatik Jaungoikoaren izenean erakusten degun apaizak, Jesusen legea erakustean, erakusten degu egia zuzen zuzena.

Eta ori da, apaiz berri lagun maitea, zuk emendik aurrera egingo dituzun gauza andietatik bat. Gaurtik aurrera, Jaungoikotu baziña bezela, S. Dionisioren izkuntzan esateko, egingo dezu altara orretan mirari andi bat, zeruko aingeruak, zeruko erregiñak berak ezin dezakean miraria, gizonaren izkuntzarekiñ eziñ esan dezakegun *miraria*, bada, itz batzuek esanaz bakarrik, ekarriko dezu zure eskuetara zeru-lurren jabe andi, mai-tagarri ta milla bidar santua; artuko dezu janaritzat Jaungoikoa, ta Berak erakutziko dizu egia, gaur dakizun baño ere obeto, Berak emango dizu egia zabaltzeko bear dezun ausardia ta indarra, ta zabalduko dezu gero egia ori zabiltzan toki guztietan, Jaungoikoaren izenean, argitzen dezula ezjakiñaren adimena ta jakintsuari esaten diozula jakituri guztien asiera ta iturburua dala Jaungoikoaren bildur santua.

Eta biarko dezu Jaun zerukoak altara orretan emango dizun ausar-dia ta indarra zure bizitza guztian egia gozoaren bandera zuri ederra jaso-tzeko. Ai! Txit asko dira gaurko egunean gezurraren bandera beltza ingu-ratzen duten gizonak, eta asko izango dira zure etsaiak. Etsaiak billatuko dituzu erri andietako kalietan, ta etsaiak erri txikitxoetan ere; zure kontra ta Jaungoikoaren kontra madarikaziorik naskagarrienak esango dituzten etsaiak; arpegiz arpegi, bear bada, lotsagabekeririk andienak esango diski-tsuenak. Oraindik egun asko ezala, eginkisun batera joan bearrean, sartu nintzan burni bideko suburdi batean, barruan zeudenai egun onak ema-



naz. Iru gizon ziran, erdaldunak, nere egunonari etzioten erantzuerarik eman; baño batek, betosko illun bat ipiñi ta begirada gaisto bat eman da gero, esan zuan, beste aldera jiratuaz: «noiz amaituko ete dira apaiz abek munduan». Ez nuan nik ezertxo erantzun, baña bai nere barruan *pensatu*: «noiz amaituko geran?» Munduan egarik bear eztanean, munduan eleizarik bear eztanean, malkorik izurtzen eztanean, gaixorik eta eriotzarik eztanean, Jaungoikorik eztagoanean. Orduan amaituko dira apaizak: eta au da esatea ez tirala egundano amaituko, naigabeak, negarrak, zotiñak, gaixoak eta eriotzak amaituko ez tiralak, Jaungoikoa amaituko ez tan bezela.

* * *

Baña goazen itzaldi onen bigarren zatira ta ikusi dezagun nola dan apaiza *munduko* doekabetasunen errukitzallea. Jesukristoren ikastegi edo eskolakoa da, ta eskola orretan ikasi du gezurraren alde dabilizan gizon gaistoak errukitzen, gezurra gorrotatzeari utzi gabe. J. K. gure Maisuak, gurutze baten iltzen zegoala, Aita Zerukoari bere iltzalle borru amorratuakgatik erregutu zion, kurutze gañetik esanaz: *Pater, dimitte illis, quia nesciunt quid faciunt*. Eta Jesusen eskolako apaizak egunero erregutzen dio bere etsaiakatik, egunero eskeintzen dio altaran Aita Jaungoikoari Seme Jaungoikoa onela esanaz: «artu zazu, Jauna, eskintzari berdingabeko au, lenagoko gizaldietan Abel, Abraan ta Melkiseken eskintzaria bezela, munduko gaistakeri guztien parkaziorako».

Bai, n. a. m., siñistu zazute: gizon guztiai begirutzen die apaizak Jaungoiko santuaren irudiak bezela, den-denak errukitzen ditu, denak zeruratzea nai du: ori da bere sentiera biguna, ori da bere gogo benetako, ta gogo orren indarrak eramanik, ikusiko dezute apaiza karidadezko batzar guztietan aurrea beti, ikusiko dezute sarri bere españetan maite-tasunezko itzik bigunenak dituala pekatari guztiai artaldera deiezka.

Apaizak len esan detan erakusteko eskubideaz gañera beste eskubide andi, luze ta ongarri bat ere badu, ta eskubide orren birtute, indar ta ontasun guztia gizon pekatariaren alde nai izaten du ipiñi; ta orregatik poz-pozik jartzen da autorleku edo *konfesonarioan* ta an artzen ditu, egiazko errukiarekiñ, aita on batek bere etxadiko semeak bezela, errenka dabilizan ardi guztiak; garbitzen ditu denak zearo, sendatzen ditu ta ematen die animako osasuna ta gaistakeri guztien barkazioa. «Nik barkatzen dizkitzut, esaten die egiazko errukiarekiñ, nik barkatzen dizkitzut zure gaistakeri guztiak Aitaren, Semearen ta Espiritu Santuaren izenean». Eta apaiz jaunak itz abek esatearekin batera, jaikitzen da pekataria bere oñetatik,

biotzaren erdian pake gozo zoragarri bat duala ta birtuteko bideak ondo dakizkiala, jarraitu nai baditu. A, n. a.! Zenbat bidar paketu ta poztu zera-te zuek ere autorleku santuan! Zenbat bidar billatu dezute garbitoki orretan gidari zuzen bat eta guraso errukior bat! Ta nola ez apaiza bada Jaungoiko errukitsua liburuan ikasten duan gizona, arako ardi galdu baten billa, mendirik mendi ta basorik baso ibilli zan Artsai onaren eskolakoa? Bai, n. a., zuek ondo dakizute apaiza gizon errukitsua dana, baño eztakizute zenbat poz, zenbat atsegiñ, zenbat ez tutasun izaten duan gizon orrek bere biotzean Jesusen odolarekin irabazitako ardi galdu bat zuzenbidera ekartzen duan egunean.

Apaiz on batek eztalka gogo sutuagorik Jesusentzat animak irabastea baño, ta gogo bedeinkatu orrek eta gizonaganako errukiak eramaten du *eri edo gaixoaren etxera*, noiz nai, egunez edo gabaz, bear dan orduan, ordurik estuenean, bere itz bigun, parkaera ta laguntasunarekiñ munduari agurka dagoan anima gaixoa itxaropenez betetzera; gizonaganako maitetasun ta errukiak eramaten du edozeñegana, baita ere katigutegian lotuta iltzeko daukaten gizonagana. A n. a. m.! Lenago ere zerbait aditu didazute gai onen gañean, baña iruditu zaitezte gaur berriro zenbateraño koka dan katigutegian eriotzaren zai dagoan gaizkillearen larria. Gela estu ta illun batean dago katez lotuta; gastea da oraindik, gizon gordiña da; baño legeak erabaki du il dedilla gizon ori beste gaizkilleak ajola ta bildurra izan dezaten. Azkenengo orduaren zai dago, eriotza bakarrik gogoratzen zaio, eriotzaren irudia dauka bere buruan sartuta, eriotzaren irudia bere biotzean («eriotza» esaten dio aisearen egoetan urrutietatik etortzen zaizkon erritarren deadarrak, «eriotza» erlojoko eskabillaren alde batera ta besterako joera berdiñak. Gizon orrek, bere estutasunean, begirutzen dio bere sorterriari ta bere sorterrian ta bere esagunen artean gorrotoa baño besterik eztu arkitzen, danak daukate ontzat bere eriotza; begirutzen dio bere etxeari, ta bere etxean negarra ta sotiña daudela esaten dio biotzak, baño baita ere bere etxeak lotzak daudela; bai, lotsatu egiten da bere emastea senarra duala agertzen, lotsatu egingo dira umeak beren aita duela esaten! Biotzeko naigabeak, animako larriak, gizon guztientzako daukan amorruak ito bear du gizon erallea. Argi apur bat nai du, *honore*a nai du, errukia nai du, estitasun apur bat. Ai! Zeñek errukituko du munduko guztiak gorrotatzen duen gizon ori? Zeñek eramango du anima orretara pakea ta poza? Zeñek? Apaizak. Irekitzen da katigutegiko atea, ta agertzen zaio apaiz bat, errukitasunezko Jaungoikoaren mandataria, Jesus kurutzekoaren irudia eskuetan duala, ta apaiz ori gelditzen da katigutegian erallearekiñ bakarrik. Andik piska batera, biak daude negarrez, ta ill bear duanak



esaten du: baña izango da neretzat barkaziorik, jauna? Bai, erantzuten dio apaizak, barkazioa, maitetasuna, zerua, beti betiko poza. Baña, Jauna, nik madarikatu det Jaungoikoa, gorrotatu det eleiz-gizona, gaistakeri andiak egin ditut. Ezta ajola: lurreko agintariak eriotzara biraltzen zaitu, zeru goietako Aitak barkatzen dizkitzu zure pekatuak, eta nik bere izenean: *ego te absolve*. Ai! aita, aita; eztet nik egundano orrelako itz gozorik entzun; zu zera nere poz bakarra, ez nazazula utzi ill arterano.— Ez, dio apaizak, etzaitut utziko, ill artean lagunduko dizut, eta gero ere erregutuko det zure animagatik. Eta esan ta egin, azkenengo arnasa eman artean laguntzen dio, bere argaltasuna indartzen, ta erallea ill ondorean esaten dio Aita zerukoari: *requiam aeternam dona eis, Domine. Et lux perpetua luceat eis*. Aita zerukoa, eman zaiozu betiko atsedean ta zoriona; argi egin dezaiola beti-betiko egiaren argi gozoak.

O, n. a.! Ikusiko bazenduteke orduan apaiz baten anima, esan bear-ko zenduteke, bere maitetasunarekiñ berdintzeko beste maitetasun ta errukirik eztatola lurrean, ta mundu guztiko maitetasun garbiak galduko balirake ere egiakzo maitetasuna billatuko litzatekeala apaiz on baten biotz errukiorrean.

* * *

Esan dezagun orain itz bitan nere itzaldi guztia. Zer da apaiz bat? J. Kristo gure Jaunak aukeratutako gizona, Bere izenean erakutzi dezan egia garbi ta osoa, ta beste anaien errukia izan dezan. Apaiza da errien gidaria, lurtarren maisua, biotzik samurreneko gizona, errege guztiak baño esku-bide geiagokoa, Jesusen ondorengo berria, beste J. Kristo bat, *alter Christus*, Eleizako guraso batek dion bezela.

Orregatik esaten dizutet zueri, n. a. m: ondo begiratu zaiezutela eleizgizonai, berak diralako zuen maisu onak. *Honorificate sacerdotes*, Zumaiaiko aurtxoak, abegi on bat zaiezute apaizai, bada berak dira zuei dotriña ta zeruko bidea erakutziko dizkitsuen gizonak. *Honorificate sacerdotes*, sasoiko gizonetzko ta emakumeak, abegi on bat egin zaiozute apaiz jaunai, bada berak dira gizon zintzo ta emakume leial izaten erakutziko dizuten gizonak: *honorificate sacerdotes*, pekatariak, abegi on bat egin zaiozute apaizai, bada berak dira zuen pekatu ta gaistakeri guztiak barkatuko dizkitsuen gizonak: urtietan sartuak zaudetenak, *honorificate sac*, abegi on bat... bada berak dira, onezkero laster, eriotzako orduan, zuen etxera joango diran laguntzallerik onenak eta errukiorrenak. A! Eriotzako orduan, beti-kotasunaren ate onduan bildurrez jarrita zaudetenean, poz-pozik artzen

gaituzue zuen etxeetan, ate guztiak zabal-zabalik billatzen ditugu; bada nolabait bizi izan danak ere, nai du ikusi bere onduan apaiz baten kerei-za, nai du artu apaizak ematen duen parkazioa, zeruetan sartzeko urrezko giltza bezela. Bada orduan begiratuko diozuten gisan begira zaiezute apaizai bizi zeraten artean.

Eta zuri, apaiz berria, zer esango dizut? Jaungoikoak egin zaizala adu oneko aiñ gauza andietarako aukeratu zaituan esker. Atoz ordu onean beste apaizen artera, artu zazu zure eskuetan Jaungoikoak erakutzitako egiaren bandera zuria ta zaintu zazu ondo ta erakutzi zazu zabiltsan alderdi guztietan; ta egi zaintzalea zeralako zerbait eraman bearra izaten badezu, oroitu zaite eztatola gauza eder ta pozgarriagorik, egia españetan ta egia biotzean daukagula Jaun.tik zerbait eramatea ta bearbada iltzea baño. Ordu ta zoriona opa diet eta ematen diet zure gurasoari, zure anaiai, zure etxeko guztiai, gaur altara orretan ikusten zaituelako. O zenbat maite zaituen, apaiz berria! O zenbat ames egin duten zurekiñ! O nola egon diran ainbeste urtean egun zoragarri onen zai! Bete dira amesak, eldu da eguna, beren bizitzako egunik andi ta ederrena, ta zu bataiatua izan ziñan eleizan bertan ikusten zaitue apaiz egiñik, beste apaiz askoz? inguratua. Jaungoikoak bakarrik daki zenbateraño alaiak izan diran beren belarrietan gaur zure mesa berrira deitu duten kanpaiak! Jaungoikoak bakarrik daki nola-ko gozotasunarekiñ dauden oraiñ, erri guztiaren aurrian, mesa santu au noiz amaituko zai! Badakite zure esku oietan euki bear dezula gaur Jaungoikoa Berbera, badakite zure eskuetan musu emango dizutela beste apaizak, mesatara etorri diran jenteak, eta berak zure etxeko guztiak ere bai. Ai! Ez bakarrik eskuan, biotzaren erdian emango dizute musu egun zoragarri onetan. O! Eztute izan munduan beste egun bat gaurkoa bezelakorik! Eztute izango beste onelako egun bat, zeruan sartzen diranean ezpada!

Adiskide maitea, igon zazu altara santuko arri malla ori ta eskeñi zaiozu zeruko Aitari Seme Jaungoikoaren Gorputz ta Odola zure guraso maite ta bizi diran senide ta aide guztiakgatik, eta iltziranagatik ere bai! Gaur etxeko guztien jaia dezute, ta batzuek emen gozatzen zaudeten bitartean, nok daki besteren batzuk zeruetatik badaude begira, edo Garbitokiko oñazietan badaude zuk altaran egingo dezun errege ta eskintzari orren zai! Erregutu zazu bada danokgatik, bizi diranagatik eta illtziranagatik, aideakgatik, adiskideagatik, Zumaiaiko erriagatik, Eleizagatik: erregutu zazu, batez ere, erri onetako emakume ongille, emakume argi, emakume birtutetsu Doña M^a Fr.a Etx.a zanaren animagatik; eta azkenez, erregutu zazu nigatik ere, eleizgizon on bat izan naitean beti, gaur maita-



tzen detan jantzi beltz au maitetu dezaten ill arteraño; erregutu zazu mundu guztiagatik, bada mundu guztia dago erregu bearrean.

Orrela erakutziko dezu lenengo egunetik apaiz errukitsua zerala; eta izango dezu gero Jaungoikoaren errukia ta betiko zoriona, zuri ta nere aditzalle guztiai opa dietan bezela. Amen.

PRESENTACIÓN

(Zumaya)

*En dilectus meus loquitur mihi: surge, propera,
amica mea, columba mea, formosa mea et veni.*

Nere maiteak esaten dit: jaiki zaite azkar nere adiskidea,
nere usua, nere ederra, ta atoz Nigana.

(Eresi edo kantuen kantaria deritzaion liburutik artutako itzak.)

N. a. m.: Eleizan sartu zareten guztioi, Jaungoikoaren izenean, albis-te on bat ematera nator. Gure Jaungoiko santu, illezkor ta maitalea gure biotzeko atarian deiezka daukagu. Bere buruko illea gabeko intzak busti dio, *caput plenum est rore*, bañan ala ere eztu gure ataritik aldendu nai, ta zai daukagu beti guk erantzun ta ateak ereki artean.

Ta noiztik eta ona daukagu zai ta deiezka gure Jaungoikoa? Gure adimenean arrazoiaren argia sartu zan ezkerotik; luzaroko egunetan oneske-ro, kristau gasteak, luzaroko urtietan, kristau zarrak beñere aterik ereki ezpadiozue.

Ta zer esaten digu Jaungoikoak bere dei gozoan? Esnatu gaitezela gure lozorrotik, jaiki gaitezela lenbaitlen, ereki dezaiogula gure biotzeko atea, aditu dezaiogula, beragana joan gaitezala; *surge, amica mea, columba mea, formosa mea eta veni.*

N. a.: Dei bigun orri bereala erantzutea da gure zorionaren asiera; gure animako epeltasunagatik Jaungoikoa luzaroan deiezka eukitzea izan leiteke gure betiko zoritxarraren jatorria; ta maitetasunezko dei ori ez entzuteagatik belarriak itxitzea berriz izan leiteke galdumendiko leize zuloan gu betiko erortzea; bada, n. k., Jaungoikoak eztu nai iñor Beragana eraman nai ta naiez ta indarrean, maitetasunezko kateak bakoitzaren gogokoak dira, ta bakoitzak bere gogotik joan bear du Jaungoikoagana.

Ala egin zuan Mariak bere lenego egunetatik. Sortu zanerako deitu zion Jaungoikoak, eta Mariaren biotzak bereala erantzun zion Jaungoikoaren deiari; utzi zituan Jaungoikoagatik beste lurreko gauza guztiak eta sartu zan bakartadearen erdira, Jaungoikoaren itza bakarrik entzuteagatik.

Ikusi ditzagun Mariaren lenengo egun abek Jaunaren deiari ondo erantzun ta Bera maitatzen ikasi dezagun.

O aur garbi ta zentzunez bete! Zure bizitzaren ganean itz bi egin bear izan detan guztian nere adimenarekiñ baiño lan geiago egin izan det



biotzarekiñ, bada emakume miragarrikoa zeran aldetik adimenarekiñ etzaitut egundano ondo esagutu ta biotzarekiñ bai nolabaitean, Ama zeran aldetik. Gaurko itzalditxo au ere biotzaren lan apurra izango da. Berotu zadazu, bada, erre zadazu biotza Jaunaren maitetasunean, nik berotu ditzatan, al badet, n. aditzalleen biotzak eta eraman ditzatan zure oñatze. Orrela eskatzen dizugu guztiok, oitura dan bezela *Agur Maria* esanaz.

En dilectus meus, etc.

Egia da ta lenengotik aitortu bear degu, Maria santaren izate argi-tsutik beste lurreko gizon ta emakumietara desbardintasun andia dago. Mariak lenengo egunetatik eta aida batean irabazi zituan jakituriako ta *bir-tutietako* mendi-gaiñ zabalak; eta gizonak berriz, gizonik onenak eta azkarrenak ere, jardunaren-jardunez ta pixkaka-pixkaka eldu oi dira, noizbaiten, toki eder gallur oietaraño.

Bide luzeak daude umeak lenengo esaten dituen gatz-gabeko itz moteletatik jakiturirako jauregira. Umearen gorputz argalean *arrazoiaren* indarra (onela esango degu obeto adierazitzen emateagatik) sartzen danean, badu animak, beragan, aunditasun guztietarako asia, jatorrizko almena; baño asia erne, landaratu ta loretu artean, joan-etorri, gora-bera, lanbide ta neke asko erabilli oi ditu animak. Lenengo egoten da umetasuneko itsumenean estaldurik gabaren erdian balego bezela lotan bezela; gero, zerbait esnatzen danean, ibiltzen da gastetasuneko txorakerietan zear, nora joan ta non gelditu eztakiala; ta azkenean, une luzeak lanean igaro ta gero, zar-itxurak artzen ai danean, eldu oi da geldiro-geldiro ta oso nekaturik gauzen esanpidera ta jakituriko jauregira. Ezta iñor beste bidetatik jauregi orretan sartu.

Ori bera gertatzen da Jaunaren maitetasuneko bidietan ere. Gizonentzat anditasunik andiena, zoriontasunik gorengoena, egiazko jakituria Jaun Egillea ondo esagutzean ta maitatzean dago; baño umea dan bitartean irudimena txit illuna izaten du ta adimena oso lotua: eztu esagutzen zertan dagoan bere zoriona, eztu esagutzen lurra, eztu esagutzen zerua, eztu esagutzen bere burua. Ikusten ditu loreak, ederrak iruditzen zaizka, usai egiten die, baño loreak nork egiten dituan eztaki; ikusten ditu gaba ta eguna, eguskia, illargia ta izarra, baño eztaki zeñek ta nondik darabiltzan beren jira-biretan: gauza dana da umearentzat eskutua, illuna ta ikasgaitza. Gerora erortzen zaio animako lausotasuna, urtien bitartez argitzen zaizko animako begiak: gaur ikasten du gauza bat kolean, biar beste bat eskoletan, ta egunero eramaten du etxera erdizka ikasitako albiste berria: Jaungoikoak egin zuala zerua, Jaungoikoak egin zuala lurra, Jaungoikoak egin

gaituala gu, Jaungoikoari zor diogula geran guztia, Jaungoikoak dauzkala guk nai ditugu ondasun ta zorion danak. Eta orduan, Jaungoikoaren eskubide, edertasun ta maitagarritasuna esagutzean, gizona, biotz onekoa ta eskertsua bada, asten da gure Jaungoikoa maitatzen. Ordura artean ez.

Ta oraindik orduan ere geiago maitatzen du gizonak Jaungoikoa gauza guztien jabea ta emankorra dalako maitagarria ta ona dalako baño. Ezta miraritzeko gauza: jatorrizko pekatu edo gaistakeritik datorkigun argaltasuna da ori: beti ta gauza guztietan billatzen degu geure burua lenengo, beti nai degu geure ona; baño ala ta guztiz ere Jaungoikoari esker-rrak ematen ta laguntasuna eskatzen gaudenean, egiazko maitetasunaren bidean sartuak gaude. Bide orretatik joan ziran santuak zeruraño.

Baña Mariak jatorrizko pekatu edo gaistakeririk etzuan; jatorritik zan anima argi, garbi, eder ta aberatzekoa; jaiotzatik ikasi zituan bereala lurreko ta zeruko gauza guztiak. Beste danok, eiztariak egoa ausi dien egastiak bezela, lurrean ibiltzen gera arrastaka ta zentzun gabe, zerura egatu eziñik; baño Mariak, animako egoak sendo ta indartsuak zeuzkan, ta uso txuri eder onen lenengo egaera Jaungoikoaganañokoa izan zan; an egin zuan bere lenengo atsedena, an egin zuan bere kabia, an ikusi zituan Jaunaren edertasunak, an bete ta ase zan Jaunaren maitasunez, ta ordutik aurrera etzuan nai beste lurreko gauzarik.

Ezingo ete gera gu ere igo toki santu artaraño? Bai, n. a. m. Zergatik ez, nola ez Jaungoikoak berak deitzen badigu? Mariak beste argi ta aberastasun gure animetan euki ezagatik, bera baizen azkar ezipagabiltza ere, igo daiegu gure Jaungoikoaganaño. Zer bear degu orretarako? Gogo, gogo benetakoa, Mariak zuan antzeko gogo indartsua. Ezta gaur illuna Jaunaren legea, oso garbia ta ikasten erraza da ta danok dakigu, betetzen da zalla gogo indartsu bat eztagoanean. «Maitatuko dezu zure Jaungoikoa gauza guztien gañetik». Au da legearen lenengo agindua, au da agindurik andiena, agindu au bete bear da zeruraño egatu nahi badegu. Adu ondo, bear bada, aitarean ta amaren gañetik, *gauza guztien gañetik*.

Denok maitatzen ditugu gure gurasoak, gure biotzetan berez ta txit erraz sortu oi dan maitetasun samurrarekiñ. Maitetasun ori txit ona da, legeak berak agintzen digu laugarrengo agindu santuan, ta beti gorde bear degu jaiotzatik eriotzaraño; baño maitetasun orrek bere neurriak dauzka, eta eztu erten bear neurrietatik kanpora. Ama ta aita ezin leitezke jarri Jaungoikoaren gañetik, ama ta aita baño lenago da Jaungoikoa. *Qui amat patrem aut matrem plus quam me non est me dignus*. Iñork bere aita edo bere ama Ni baño geiago maitatzen badu, ezta nere diña, dio Jesussek. (Neregana etorri nai duanak utzi dezala bere aita esaten du beste toki baten, utzi



dezala bere ama, artu dezala kurutzea, bear bada, ta jarraitu dezala nere atzetik.) Orregatik n. a., gurasoaganako maitetasunak Jaunaganako bideak itxitzen badizkigu maitetasun orren lokarria urratu egin bear da Jaunaganako bideak ideki ta zabaltzeko.

Esango dirazue, bear bada, eztaukagula guk ainbeste kemen biotzetan, ezin genezakegula orrenbesteko maitetasunik izan Jaungoikoarentzat. Ezta ori egia: ara emen nola Mariak erakusten digun Jaunaganako maitetasuna, ara nola Mariak utziten dituan gurasoak Jaungoikoagatik, gero, bere irudira, santu askok utziko dituan bezela. Iru urte bakarrik zituan, oraindik osta-osta zebillen omen gañean, ederren artean zan umerik ederrera, alaba bakarra zan, alaba maitea, alaba kutuna; etxeko poza, etxeko eguskia, etxeko alaitasuna; bere guraso zarren itzik bigunenak beretzat ziran, beretzat lastanak, beretzat palaguak, beretzat gauzarik gozoenak; eta nik uste det sarri askotan egongo zirala Ana ta Joakin aur zoragarrikoaren lo gozoa zaintzen, alkarri esanaz: «ume au ezipageunke, zertarako genduke guk lurreko bizitza?» Au dana ikusten zuan ta bazekian Mariak ondotoxo, ta ala ere egun batean agur egiten die irri-barrez beren gurasoai, ta etxean ezer utziko ezpalu bezela, badijoa poz-pozik Jerusalemgo eleizara. Nolatan da au? esango dezue. Zentzun gabea ote da Maria? Ez, Mariaren biotza Jaungoikozko maitetasunez bezela, bere burua zeruko jakituriz betea dago. Eskergabea ote da? Ez, bada oñez ikasi duanerako Jaunari eskerrak ematera dijoa, Ez ote ditu maita gurasoak? Bai, maita ditu, txit asko maita, eztago lurrean geiago maite duan gauzarik; baña beste izate bat maite du geiago, Jaungoikoa, ta Jaungoikoagatik utzitzen ditu gurasoak.

Siñistu ezin leitekean gauza dirudi, baña siñistu daikegu, n. a. gauza bat maitatzeko zer nolakoa dan jakin bear da lenengo, ta Mariak bazekian zein gozoa zan Jaunaganako maitetasuna. Utzitzen ditu alde batera etxeko gurasoen palagu ta atsegiña, baña eleizako bakartadean arkituko ditu biotzeko palagua ta Jaungoikoaren laztana. Siñistu daikegu, n. kristauak. Etzaituzte iñoiz zuen biotzetan Jaunaganako maitetasunak berotu? Aitorrera edo konfesio on baten bitartez zuen anima garbi ta txukun jarri danean, eztu zuen anima Jaungoikoak beretzat irabazi? Eta orduan, Jaunaren adiskidetasun egiazkoan zeundeten ordu bedeinkatu orretan, etzenduten nai Jaungoikoarekin zuen anima bat egiñ, Beragatik beartsu edo pobre bizi, Beragatik lurreko gauza guztiak alde batera utzi? Ta orretarako indar-bultzada andia eman bear al ziñoten zuen biotzari? Etzijoan bera berekauz Jaungoikoagana, errekek itxasora bezela, oriñ edo basauntz egarritua iturri garbietara bezela? Bada era orretan zegoan beti Maria, beti

garbi, beti Jaungoikoaren adiskide, beti jakintsu, beti maitetasunezko sutan goritua. Bere irudimenean beti zeukan Jaungoikoa, bere gogoan Jaungoikoa, bere buru ta biotzean Jaungoikoa ta Jaungoikoa bakarrik. Orrela esagutuko dezue zein pozik, zein erraz, zein gogoz joango zan Maria Jerusalemgo eleizara; orrela esagutuko dezue zein erraz joan gein-kezan denok Jaungoikoagana, ta zein gogoz joan bear degu, Maria baizen azkar ezin badegu, astirotxoago, iru une genduzanean joan ezipagiñan, gaur, bakoitzak dauzkagun urteakiñ.

Ta zer daukagu guk Jaungoikoagana joanda? Zer billatu zuan Mariak Jaungoikoagan? Ai! Ezin litezke aiñ laster esan Jaungoikoagan animarentzat dauden ondasunak; baña piska bat kemendu ta azkartu zaitezten, ara emen itz bitan Mariak billatu zituan ondasun batzuek.— Billatu zuan lenengo biotzaren pakea. Jaunak beretzako egin duan biotzarentzat eztago pakerik Jaunagandik kanpora. Alperrik ibilliko da lurreko gozotasun guztien zusmoan, alperrik jadtixi edo atxituko ditu lurreko ondasun ta era on guztiak, alperrik izango ditu lurreko ezti danak beretzat; ezta beñere aseko biotza, ezta beñere pakean egongo bere Jaungoikoagana dijoan arte. *Fecisti nos, Domine, ad te, et inquietum est cor nostrum donec requiescat in te.* Billatu zuan, bigarren, ez aldakorra izatea. Gizona aldakorra da, gaur dago batera ta biar bestera, gaur dago alaia ta biar illun edo tristea, gaur da maitale sutsua ta biar gorroto beltzean dago, gaur da zuzena ta okerra biar, gaur egizalea ta biar gezurraren aldekoa; ta Jaungoikoa berriz beti da bat, beti egia, beti ona, beti zuzena, ta orrela izango da Jaungoikoarekin dagoana. Billatu zuan, irugarren, bere burua ondo esagutzea. *Nosce te ipsum* esaten zuan aspaldietako jakintsu batek, esagutu zazu zeure burua, bada ori da jakituriaren asiera. Ta Jauna dagoan toki goietatik ikusten da ondoen lurra ta lurreko gizon erregea, Jaunaren anditasun neurrigabekoaren ondoan esagutzen da ederki gizonaren ezereztasuna. Orregatik izan zan Maria santa aiñ apal ta umilla, Jaunarekin bizi izan zalako. Azkenez, Mariak billatu zuan, Jaungoikoa! ta Jaungoikoarekin gauza on maitagarri guztiak. Zer geiago nai degu gauza on guztien iturburua dan Jaungoikoa Bera baiño?

Eta oraiñ, geiagoko *gabe, egia* bat zueri gogoratuta, amaitzera noa geiegi luzatu ez dezatan. Egia au gurasoentzakoa da ta gurasoak arretaz entzutea nai nuke. Denok dakizue ume gutxi jaiotzen dirala gauza zuzenetarako gogoarekin, eztatorrela lurrera iñor Mariak ekarri zituan apainduriakin jantzirik. Zeñek bada erakutziko die errugabeko animatxoai Jaungoikoaganako ta Relijio santuaganako maitetasuna? Zeñek gorde bear ditu umetxoak gaistakeri gabe bataio santuan eman zitzaien jantzi



txuriarekiñ? Zuek, gurasoak, zuen lenengo, zuen egitekoa da oh. A! Etxe guztietan erakutziko balitz beti Jaungoikoaren bildurra, Jaungoikoaren legea, eleizarako bide zuzena, ez litzateke errietan ainbeste gaistakeri ikusiko, ez litzatezke ainbeste jente infernuko bidetik joango.

Zer diozue? Ezin dezuela etxean erakutzi nai dezuen guztia? Ara or laguntzalleak erriko ikastetxe edo eskoletan: biraldu umeak eskoletara, ta eskoletan erakusten zaietena, gauza ona bada, ontzat eman etxean ere. Ala egiten dezuela? Ala egiten badezue, eztezue Jaungoikoaren aurrean zer erantzunik izango. Baña bildur naiz zeuek ez ote zeraten sarri eskolan erakutzitako *dotrinaren* kontra beste dotriña bat etxean erakusten dezuena. Eskoletan erakusten da ezta ondo geiegizko apainduria, ta etxean, neskatxa zenbat geiago apaindu obeto dala; eskoletan erakusten da txarrak dirala erdalerriko nasteko dantzak, eta etxean, gasteak nolabait jolastu bear duela; eskoletan erakusten da iges egiteko batzar gaistoetatik, eta etxean bear bada gurasoak dira aurrenengo alabak batzarretara bialtzeko. Ori da esan nai nizuen egia, ta esanda gelditzen da.

N. a. Mariak igo zuan mallaraño eztegu iñortara ere igongo zeruan; baña zeruan jarrileku asko daude, batzuk gorago ta berago beste batzuk, eta denok daukagu jarrilekua Jaungoikoa benetan maitatzen badegu.

Ez gaitezen izan, norbaitzuk diran bezela, umetan ume, gastetan txoro ta zartzara lurzale zentzungabeko. Eraman zazue zuen umeak Jaungoikoagana ta zoazte zuek ere, eta aurretik. Jaunak Berak deitzen digu: eztigu danori eskatzen gurasoak utzitzea, baña guztioi eskatzen digu Bera maitatzea, Bere legea betetzea. Deiezka daukagu beti: atozte, esaten dizue guztioi, itz bigun ta eztitsuenarekiñ, atozte Nigana, *venite ad me omnes*. Eztu iñortxo ere indarrean Bereganatuko: zeuen buruen jabe zarete denok, begiratu zazue nora zoazten, begiratu zazue nora daramazkituen zuen alabatxoak, begiratu zazute zer egiten dezuena.

O zeruetako Ama erregiña errukitsua. Begira gaitzatu errukiz zeru goietatik, begira zaiezu batez ere errugabeko umetxo abei, aldendu itzazu gaistakeri guztietatik, lagundu zaiezue beren pausu guztietan, izan zaite danen zaintzallea, itz batean, izan zaite guztien ama. Egin zazu, o Maria bedekatua, izan gaitezela denok lurrean Jaungoikoarenak, egunen batean iritxi dezagun beti-betiko zorion ta poza, guztioi, n. a., opa dizue-tan bezela. Amen.

ZESTUA-KO EUSKAL-FESTETAN ON DOMINGO AGIRRE TA BADIOLA ABADAK GIPUZKOAKO DIPUTAZIO TXIT GOITUAREN AURREAN EGINTAKO SERMOIA 1898-ko Agorraren 18-an

*Senem, adolescentulum et virginem, parvulum
et mulieres interficite usque ad internecionem;
omnem autem super quem videritis than ne occidatis.
(Ezekiel, IX, 6.)*

Gipuzkoako erriaren zaintzalle zeraten gizon aundiak: Nere anai maiteak:

Begi argi, kementsu, distiatzalle batzuek nai nituzke, nere begiradaren almenarekiñ gizaldi luzarokoen lanbro, itzal, laño, illuntasun ta estalki beltz lausotiak desegiñik, illargi gozoaren errañuz argitua bezela, nere asaba zar bedekagarrien bizitza on, irme ta zintzoa ikusteko; animako doe bizi, azkar ta ernaiaren jabe nai nuke izan, nere irudimenaren indarrez antziñetako euskal-guraso guztiak lurpetik atera, ta beren gorputz eder, jazkera egoki, oitura on, izkuntz garbi, erri zaletasun ta leñargizko biotz samur Jaungoikozkoarekiñ emen zuen aurrean denak jartzeko; bada orrela eleiza onetan batu zeraten euskaldun benetako guztiok ikustekorik eder ta erakusgarrienekoa gaur goizean ikusizo zenduteke, ta ikastekorik asko ikasi ere bai, zergatik lenagoko gertaerak, jakintsu batek dionez, etorkizunaren atarian ipiñi bear genduzkean argizuzi batzuek bezela dirade.

Baña, o gizon argalaren al-eziña, ta batez ere nere ezereztasuna zer dan! Nik eztaukat orrenbesterañoko almen ta eskubiderik, eta eziñ neza-ke esan detan laurka gozo, bigun ta zoragarrikoa zuen aurrean jarri.

Ala ta guztiz ere, toki santu onetara etorri baño len aztertu ditut liburu zar batzuek, kondairaren leio zulotik antziñetako egunetara begira egondu naiz, ta ikusi det urruti batean, oso urruti, Erri aundi bat, nere Euskal-erri biotzekoa, Jaungoikoak aukeratutako erri bat bezela, *Thau-ren* aztarna edo señaleara bere kopeta garbian daramala, ikusi det nere erri euskalduna, Lauburu santua bere gañean aideraturik, eztarrian zaldi gudarien irrintzia ta besoan leoi aserratuaren indarra duala, gallurretako arkaitzak eta basoetako txabol maiteak utzirik, kemen ta ausardi aundiarekiñ, mendietatik bera erromatarren kontra erortzen erreka ujoltsu irakiñ pitez



jantziak ekaiz egunetan amiltzen diran gisara; ikusi det euskal-erritarra, Alpes mendi edurtsuetatik zear, Anibalen gudari egotsi, sendo ta bildur-gabekoen aurretik, lurbira guztiari ezurretañoکو bildurra sartzen diola; ikusi det nere sorterri maitea lokarri gabe ta paketsu, gurutzeagatik eta gure mendiak erbestekoentzat dauzkaten aldapa ta laztasunagatik, Ermeriko, Atazio ta Gunderiko odolgirodunak Españian egin zuten sarrera galgarriko egunetan; ikusi det euskalduna Lauburua-ren azpian franko, ta godotarren kontra lenengo, ta gero godotarrakin alkar arturik, mairuen illargi erdia gastelerriko lurrean azpiratzen; ikusi det Altabiskarren Karlo Magno erregearen entzute aundiko izena ondatzen duala; ta badakust, azkenez, ikusten det gaurdan egunean bertan, gurutze santuaren itzalpe gozoan, gurutze santuarekin bat egiñik Gernikako arbola kutuna, euskaldunen bandera garbia, gure lege zarren senadi maitagarrikoa.

Ta jakiñik, dakitan bezela, lazka, naste, matasa aundian daudela gure egunetako erriak; lurbira guztia odolezko ujolde batean itotzeko zoritxarean arkitzen dala; oraingo erresumak daukaten izakera zarra oñetik kendurik, gauza danak goikoz bera jarri, azpikoz goratu ta ondamediko leize-zuloan erortzeko zorian daudela; *sozialista*, *anarkista* ta beste Kristogandik aldenduta dabiltzan izen ta asmo berriko gizonak dierrri guztiak bildurrez ta ikaraz dauzkatela; gogoratu zait lurbira onek bere bizkarrean Jaungoikoaren zigorkada gogorren bat artu bear ote duan, ta oroitu naiz Jaun Egilleak Israelgo erriari, Ezekiel igarlearen bitartez egin zion zema bildurgarritzkoarekiñ, Bere aginduak bete bear zituen serbitzariak onela esanaz: *non parcat oculus vester neque misereamini. Senem, adolescentulum et virginem, parvulum et mulieres interficite risque ad internecionem. Etzazute iñoren errukirik iduki, ill itzatzue denak, denak, zarrak eta gazteak, emakumeak eta umerañoko guztiak, iñortxo ere gelditu eztediñ artean. Omnem autem super quem videritis thau, ne occidatis.* Baña etzazute ill, utzi zaiozute pakean bere kopetan Tau edo gurutzearen aztarna daramanari.

Orregatik, jaunak, pozez beterik gelditu naiz kondaira zarrak irakurtzean, orregatik alaitu naiz, a!, beti bat izan dan nere erri iberotarra eun-kida ta gizaldi guztietan gurutzearen senarekiñ ikusi detalako, gaur gurutzearekiñ dagoan bezela; bada Ezekielen egunetako Jaungoikoa Bera da gaurko Jaungoikoa ta uste det eztuala gurutzedun erririk ondatuko; orregatik etorri naiz Zestuara, gurutze santuaren errira atan ere, emen batu geran guztien poztasunerako adierazi naian: *Euskal-erriak erakusten digula gurutze santuaren azpian bizi dan erria, lurrean al dan añañ, zorionekoa izan oi dala.*

Norbaitek esan dezake ez naizela ni diña gaur bear litzatekean itzaldi egoki ospatsua zuen aurrean esateko. Ezagutzen det nere burua, ta badakit gizon uts, zistor, ezerez bat naizela, jakituri gabea, jardunean geiegiz lotua, nere gauza guztietan naikua moldakaitza. Baña gaur euskal-jaietan gaude, ta etzatozte zuek, n.a., etorrera ugari ta oneko apaiz jakintsu bati itzaldi eder bat entzuteko asmoan; ezpada, batez ere, euskaldun baten aotik Euskal-erriaren izen garbi Jaungoikozkoa al danik goreneraño jasotzen aditzeko uste ta pozean baizik. Ta bada ni euskalduna naiz, lau aldie-tatik euskalduna, euskalduna biotz ta animatik, euskeraren maitetasunean beste bati goragoko mallan jartzen utziko eztiotan euskalduna, gizon jakintsuai entzuteko ustea beste baterako gorderik, utzi zadazute neri euskeraz kantatzen nere Jaungoiko santuari ta nere sorterri maiteari, esandako gaia nolabait agertzen detan bitartean.

Jaungoikoak nai izan dezala nere erezi edo *kantua* izan dedilla, menditarren zortzikoa bezela, gozo, bigun ta biotzen erdiraño sartuko dana. Berak eman dezadala lanbide onetarako bear detan argi ta indarra. O Jauna!, makal guztien sendagarria; lagun zakidaz, argi zadazu, biral zadazu zerutik iñoiz baño geiago gaur bear detan biotzeko garra ta animako azkartasuna. Eleiza onetan batu geran guztiok eskatzen dizugu laguntasun au Zure ta gure Ama Mariaren bitartez, oitura dan bezela.

Agur Maria, esanaz.

*Senem, adolescentulum et virginem, parvulum
et mulieres interficite usque ad internecionem;
omnem autem super quem videritis thau ne occidatis.
(Ezekiel, IX, 6.)*

Gipuzkoako ekautariak:

Nere anai maiteak:

Eztago lurrean gizonarentzat zorion beterik. Etzaiozute, bada, esan lurbira onetan zorionekoa izan ditekeala.

Etzaiozute esan erbestean negarrez ta arrastaka bizi dan lander, beartsu, errukarri bati, sorterriko aberastasun ta anai maitaleakiñ eztedilla oroitu; etzaiozute esan eremu edo basamortuaren erdian izugarritzko egarriarekiñ ito bearrean dagoanari, ur loi tanto batekiñ ase ta poztu dedilla; etzaiozute esan argia ezagutu duan itxuari, eztezala maite izan nai eguzkiaren errañua; etzaiozute esan ondo ta leñargi jaio dan semeari urruindu dezala bere aita ona; etzaiozute esan siñistedun gizonari aztu dezala zerua.



Zeruetan dauka gizonak bere jauregi aberats maitagarritzkoa; zeruetan dauka bere biotzaren egarria kentzeko ur garbi leiarrak; zeruetan adimenerako jakituriaren argia; zeruetan Aita Jaungoikoa; ta, Agustin santuak dionez, gure zoriontasuna Jaungoikoa ikustean, maitatzean ta doanditzean daukagu. *Videbimus, amabimus, laudabimus*. Jaungoikoa da gure ontasunik aundiarena: *Deus est nobis summum bonum*. Berak beteko ditu gure nai izate aundiak, esaten digu Dabid erregeak, Bera da zorion guztia ta bera gabe eztago zeruan bertan animaren gozagarririk. «Eztu begiak ikusi zeruan ikusten dan bezelako zorionik, erakusten digu Paulo santuak; eztu belarriak aditu, etzaio gizonaren biotzari *senti* erazi nolakoak diran Jaungoikoak gizon maitalearentzat dauzkan gozotasunak».

Ori da, n. jaun ta a.m., zeruko zorion betikoa, ta zorion ori lortu naian saiatu bear degu gizonok lurbira onetan bizi geraden arte guztian. Baña zoriontasun ori zerutarra da ta zeruan bakarrik arkitzen dana, ta lurrean ere bear degu zerbait gure neke, samiñ ta garraztasunak nolabait gozatzeko, minkaiztasunak eztatzeke, malkoak legortzeko; bada gizonaren biotz gauza aundi ta gozoetarako jaioa ezin leiteke bizi poz, gozotasun ta animako ezti gabe.

Baña nola billatu genezake zorion au lurrean? Zertan dago zoriontasun ori? Antziñetatik izan da gizonen artean gauza onen gañeko eztabaida luze bat. Batzuek, Zenon Greziatarraren erakutsia jarraitzen zutenak, *Estea* zeritzaion estalpe batean batu oi ziradenak, zoriona onbide edo birtutean zegoala zioten: beste batzuek, Epikuro zerabetarraren ikastegi-koak, lurrean billatu al zitezkean gozamen aragitarretan zegoala erakutsi zuten. Bigarren, erakuste au, al, guziz da narrasa, ta aitatzia baño besterik ezta bear iritzi oker, moldakaitz ta nazkagarritzat idukitzeko. Lenengoari oso gogamen itxurazkoa deitzot, baña etzuan betetzen, ezta ona, egiazkoa eztalako. Siñiste okerreko gizon aiek, nola etzeukaten gerorako itxaropenik, emen lurrean jaditxi ta lortu bear zuten beren zoriona, ta lurrean arkitzen zuten gozotasun bakarra bakoitzak bere animan somatu al zukean ixilleko pake ta txaloe zan. Ta, ai!, au ezta naikua: biotzaren txaloe bakarrik, txit ongarrak izanda ere, gauza utsa da samiñ ordu estuetan izaten ditugun barru-barruko illuntasun garratzak gozatzeko.

Jaungoiko egiazkoaren ezaguera galdu zuten erri gaixoak, egia-aren edertasuna maite izan arren, ezin egirik billatu zuten, itxu-itxuan ta badaezpadan zebiltzaten, ta illoitik arunzko bizitzaren gañean etzekiten ezertxo ere gauza ziurrik. Igarri zuten illezkorrak ziratela, ori bai; baña beren biursariak etzien gauza garbirik esaten geroko bizitzaren gañean, ta ildakoak lurreko bizitzaren ondamuz edo inbidiaz zeudela siñistu oi zuten.

Baña etzan orrelakorik gertatzen Jaungoiko egiazkoaren siñistea ta maitetasuna gordetzen zuten errietan. Bazekiten Jaungoikoak Abraani esan ziola: «Ni izango naiz zure sari txit aundia» ta Job Santuak gisa onetan itz egin zuala: «Nik badakit nere Eroslea bizi dana ta azkenengo egunean, lurbiratik jagi ta nere lurrezko jantzia berriz arturik, nere aragiarekin Jaungoiko nerea ikusiko detana». Bazekiten ere Dabidek gizon zintzoagatik esaten ziola Jaungoikoari: «Zure jauregiko ugaritasunean biziko dira, Zuk sartuko dituzu gozotasunezko erreka garbietan. Zu zera bizitzako iturria, ta Zure argiarekin egingo diguzu argi». Ta, azkenez, bazekiten Jakituriako liburuaren egilleak erakusten duala nola gizon zuzenak biziko diraden beti; Jaungoikoaren semeak izanik, Jaungoikoa Bera saritzat daukatela.

Siñiste au, n. a., lurbira bera beziñ zarra da, Jaungoikoak Berak erakutsia, ta, lenengo aitak galdu zigun onagatik beti negarrez egongo eza-
giñan, txit premia aundiko *siñistea*.

Baña nola zan Kristo zeruetako atea iriki bear zizkigun Jauna, Kristo Bera etorri zan gizonen arteko eztabaida guztiak erabakitzera, Kristok Berak, Jaungoikoa zan bezela erakutsi bear zion ta erakutsi garbiro gizonari betiko zoriontasunaren berri ona. Egokierarik onenarekin aurkeztatu zigun, bada, zorion ori, adierazi zigun gizon zintzo guztiak eguzkiak bezela argi egingo zutela Aitaren erresuma bedeinkatuan; Jaungoikoak bategatik eunekin sarituko genduzala erakutsi zigun, Bere jauregian ezte-
gula izango bildur, neke, eriotza ta malkorik; gure samiñak Berak biurtuko dituala pozean, ta Bere doakuntza edo gloriarekin jantziko ginduzala betiko. Azkenik, gizonen biotzetik bildur guziak kentzeagatik, Bere ikasleak esaten die: «Ni banoa zuentzat tokia egitera»: poztasunezko Espiritu edo Megopea biralduko dizutet, eta zuekin egongo da beti, Ni zuekana natorren artean. Etzaitutet beñere utziko umezurtz.

Ikusi zazute orain, a., Greziatar jakintsuen erakutsietatik Jesukristo gure Jaunarenetara zein desberdintasun aundia dagoan; zein utsa, zein illuna, zein pozgabea, zein ilgarria dan aien esakera dollora, ta zein alai eder ta pozgarritzkoa Kristo Jaungoikoarena.

O! Zoriona billatzeko gurutzaren itzalean bizi bear da, Jaungoiko Egille Altsuaren mendean, bada, Dabid erregeak esan zuan bezela, Jaungoiko Guraso gauza guztien arreta daukanaren eskuetan jartzen danak erraz arkituko du lurreko bizitzan bear duan guztia. Jaungoiko Gurasoak daki, n. a., iñork ez bezela, gure animak daukan gozotasunen gose ta egarria, ta orregatik Berak erakutsi ta ematen digu betiko ta neurrigabeko gozotasunen itxaropena, ta garailari ertetzen degun guztioi agintzen digu. Bere jarrileku goitandi berdingabea jarriko gaituala. *Qui vicerit, dabo ei*



sedere mecum in trono meo. Orregatik, erbeste onetan, gure zoriontasun guztia Jaungoikoa maitatzean dago, Bere onegite dontsuak ezagutzean, Bere mendean gogoz jartzean, Berari poz ematen saiatzean, Aitaren eskuetatik zorion betikoa itxarotean. A! Badakit! Siñisgaiztoko gizonak itxarote au alperrikakoa dala esango dute, gezurrezko ta irudi utsezko itxarotea. Ez nabil gaur zuekiñ, siñistegabeko gizontxoak; baña, ala ere, nere bidetari apur batean utzirik, zueri itztxo bi esateko gogoia datorkit. Zer zerate zuek lurrean? Berez sortutako gauza batzuk, gure basoetako gibelurdiñak bezela, (ta barka zadazute, jaunak, eragabeko esate au, gaizki aukeratua dala badeitozue) baña abereak baño askozaz errukarriago sortuak zerate, bada abereak eztute beren zorigaitza ezagutzen, ta zuek bai, samintasun geiagorako. Zer egin bear dezute zuen estularri ta naigabeko orduetan? Etzazute zerura begiratu. Zertako? Zeru eder izartsu ori ezta zuentzat egiña, ezta iñorentzat egiña, utsa da, zuen iritziz, ezerezaren edertasuna bakarrik da. Egia da erbeste onetan denok egiñ bear degula negar; baña gure negarra, siñistea daukagun gizonen negarra, ezta añ samiña gurutzetik gure Aitak legortzen digulako, ezta añ samiña, betikotasun zorionekoa itxaroten degun ezkeror; ta zuen negarra berriz, itxaropen gabeko negarra, itxasoko ur gazi garratzak baño samiñagoa da, lantegietako burni gori urtua bera baño goriagoa, ekaitz orduetan zerutik erortzen dan tximista ta infernu barruko su-gar ikaragarritzkoa bezin kiskalkorra. Ta kiskaldurik utzitzen ditu zuen animetako egoak, kiskaldurik zuen gogo, ansi, mendu ta gurari guztiak, Jaungoikoaren esku aserreak betikotasuna baño len ikutu balizute bezela. A zer negar negarrietan gelditzen zeraten! A zer mendi murri sollean! A zer basamortu latz idorrean! Lore bat eztezute ikusten, ostro berde bat ez, animako egarria kentzeko errekatxo garbi bat ez: dena billatzen dezute legorra, dena illa, dena lurra ta lurrezkoa; marboillak argirik gabe, etorkizunak beltzez jantziak, eta zeruetako ateak betiko itxita. O! Jaungoikoagatik! Utzi zaiguzue guri gure siñiste santua, utzi zaiguzue siñisten Jaungoikoren itza, itzik egoki, zintzo, jakintsu ta siñisgarriena, ta gelditu zaitezte zuek lurrean, lurrez estaltzeko, ta itxaropenik gabe!

Utsa litzateke, a! —eta banoa orain nere aritik aurrera— Kristoren legea alde batera utzirik, beste bide batzuetatik zorion billa dabilzanak zorion ori arkituko baluteke, edo Kristoren legea jarraitzen dutenak baño pozago ta gozotsuago biziko balitzatezke. Baña ezta ori egundano gertatzen. Eztago orrelakoen arpegira begiratzea baizik, eta bertan irakurtzen zaiete garbiro beren biotzeko illuntasuna, animako naigabea, nabarmenkeria, argi-naia, barruko nekea, biderik billatu eziña, ta noizean bein estu-

larri ta ito bear gaistoa; ta Jaungoikoaren legea jarraitzen dutenetan berriz ikusi oi da sarri barruko poza, benetako alaitasuna, biotzaren pakea, patxara ona, txit erraz ertetzen duan farra gozoa, animako pakearen agergarria.

Ta pake ori idukitzeko ezta bear, n. a., aberastasun aundirik. Aberastasunak eztue betetzen gure biotz aundia, aberastasunak galkorrek dira, ta eztakite animako samiñik kentzen, ta gorputzekorik ere ez askotan. Etziran aberatsak gure aitonak, geiago ziran beartsuak aberatsak baño, bada Estrabon kondairaleak izkribatu zuan euskal-mendian oso gaizki bizi izaten zala, *ibi pessime degitur*; baña emen bizi oi ziraden galaniki, beren lurrari begira ta beren mendiak zaiñtzen, erbestekoen ondamu gabe: eztira aberatsak gaurko baserritarrak, eta gure baserritarren arpegian irakurri det nik askotan len esandako pake ta patxara on guztia. Animako pakea idukitzeko kristau ona izatea bear da, gurutzaren itzalean bizitzea, ta orrela ziran lenagoko euskaldunak, eta orrela bizi dira gaurko gure baserritarrak. Maitetasun aundi bi dituzte gizon azkar oiek: Jaungoikoaganako maitetasuna, ta gure Lege zarraganako maitetasuna, biak gurutzepekoak. Maitetasun oientzat da beren bizitza guztia, maitetasun oietan billatzen dute beren eginkizun guztietarako bear duten kemen ta argi ona. Bataren gañean itz egingo det, bada gaur eztator añ ongi bestearen gañean ezer esatea.

Jaungoikoa maite dutelako betetzen dute Bere lege santua, pozarren ta gogoz, nekeari begiratu gabe. Denok dakizute nola dauden gure baserriak, uri edo erri batuetatik kanpora, txuri ta garbi, egokitasun ta era ederrean zabaldurik, batzuek mendi gallurretan, beste batzuek zelaiaeren erdian, errekonduan bat edo beste, denak lanerako soro ta alorrek inguruan dauzkatela ta zugaztiren bat aldamenen. Euskaletxe oietan bizi dirade gaurko euskaldunik euskaldunenak, bada erri batuetan erdalkeri asko sartu da; ta etxe oietatik dakarzki eleizara Jaungoikoaren legea bete naiak, bide luzean, jaiero-jaiero, errekonduetatik gora, mendi gallurretatik bera ta zelaiaetatik zear, naiz euri naiz ateri dala, edurtzetan bezela eguzki bero galdatan; beti zuri, garbi ta txukun; beti irme, sendo, galant ta osasuntsuak. Zer egin bear dute eleizan? Zer? Beren Jaungoikoari, Zeru ta lurraren Egille Altsuari, izenik bigun ta gozonenarekiñ *Aita gurea* deitu, zerurako jaoak dirala oroituarekiñ biotza sendotu, astean igaro dituan nekeak Aitari esan, il diran guraso ta aideakgatik erregutu, meza santua entzun, noizean bein animak garbitu, Jaungoikoarekiñ adiskidetasun aundiagoan jarri; antziñako siñiste onean anima indartu, urtean bein Thau-ren sena maitagarri *Erramu* egunean eleizan bedeinkatua etxera eraman, beren



gurasoak egiten zuten bezela, ta gañean gurutzea duan usai gozozko zugatz adar bedekatu ori, etxeko atean ta beren izerdiarekin busti dituen soroen erdian jarri munduari agertu erazteko Euskal-erriko etxe ta soro guztien Jaun, Jabe ta Zaiñtzalle Jaungoikoa bakarrik dala.

Ta beren Jaungoikoaganako egitekoak amaitu ondorean, anima pakean ta pozarren daukatelako, ikusi oi dira jolasetan aurrenak, gazteak batez ere, lasterka ta pelotan, *bola* tokian edo euskal aurreku garbi gaitz gabekoetan, beren azkartasun bizi, zoli ta urduria erakutsiaz, illuntzetako orduetaraño. A, zenbat aldiz, jai egunetako illunabarrean, eguzkia azkenengo erraño bigun indargabeakiñ lurrari agurka dagoan orduetan, zenbat aldiz aditu izan det urruti aldetik, lotara dijoan izakiaren ixiltasuna urratzen duan oiua, euskaldun ezarriak bakarrik egiten dakian oiuz luze, alai, zoroa, ta nere artean esan det: euskaldun oiek lurrean al deitekean bezela zorionekoak ezpadira, eztago lurrean zorionaren izpirik!

Ta iñoiz edo berriz illetaren batzuk joagatik, erbeste onetan gauden guztiak jotzen ditugun bezela, edo euri geiegi dalako, edo legorte luzeak lur guztiak ondatu bear ditualako; edo aizeak, arriak, zamorroak, gorriñak, oloak, añoak edo beste gaitzen batek beren soroak alperrik galdu bear dieztelako; ala ere, gure mendi-gizonak eztira beñere ogi edo artoaren gosean egoten, ta berberak aitortzen dute beren bizitza on, don-tsua ta ezin obea, Elizanburu euskal-frantzesaren aotik txit ederkiro onela esanaz:

«Ikusten duzu goizean,
argia asten denean,
menditxo baten gainean,
etxe txikitxo aitzin txuri bat
lau aitz andiren artean,
iturriño bat aldean,
txakur txuri bat atean?
An bizi naiz ni pakean».

Bai, or bizi zerate zuek, Aitorren seme zintzoak, mendietako aize osasuntsuen erdian, or bizi zerate paketsu, iñoren ondamu gabe, Jaungoikoaren itxaropenean, ta be aldeko urietan dauden siñiste gabeko gizon-txoak beñere ezagutu eztuen zoriontasunarekiñ.

Baña, nola billatu dezateke zoriona Kristoren legetik kanpora bizi diraden oiek, aberastasunaren erdian dagoala uste badute, geienak beintzat? Nola, aberastasunak betikoak ezpadira, beñere ezin bagaituzte ase,

bada asko daukanak geiago nai du; nola, lurbira onetako aberastasun guztiak gizonaren biotz aundia betetzeko gauza uts batzuek badira?

Esan genezake gure menditarrak, antziñetako jakintsuen libururik ikusi gabe, berez asmatu ta igarri dituztela aien liburu ospatsuetan irakurtzen diran erakuskerak on batzuek. Ara nik, jaunak, ara, a. m., Kristoren fedea ezagutu etzuten gizon aundi batzuen liburuetatik, nere gaiaren alde ta zueri eskeintzeko atera detan lora sortatxo bat. Aristoteles egokitsuak esaten du: «Onbideak dabillen gizona, bere lenagoko bizitzari begira dagonean, soñu egokiak jo ta soñu oiek bakartadean pozik ta gozoro aditzen dagoan *musikalari* baten antzera dala». Diogenes ziñutiak izkribatu zuan: «gizon on batentzat egun guztiak alai ta atsegingarriak ziradela». Epikurok berak dio: «etzala beartsua ezer eztaukan gizona, ezpada asko eukita ere geiago bear zuana baizik». Menandrok onela itz egiten zuan: «nik uste nuan lenago gizon beartsuak bakarrik egiten zutela lo neketsua, baña gaur badakit zorionekotzat iduki zaituztenok etzeratela gu baño geiagoan». Plutarkoren esana da: «gizon batzuek ardoaren astuntasuna orditu gabe jaso ezin duten bezela, orrela beste batzuek ezin dutela aberastasuna jaso, orditu gabe». Ta azkenez Tito Libiok esaten du: «ondasun geiegiak berekiñ daramatela nazka edo gogait eragitea».

Baña ez, Aitorren semeak, lurreko ondasunak zeñ utsak ziraden jakiteko, etzuten erbesteko jakintsuen erakuste bearrik. Nik eztakit euskaldunak Kristo lurrera etorri baño lenago ta beti Jaungoiko bakarraren siñiste ta legekoak izandu baziran edo ez, bada gai onetan eztabaida aundia darabilgu, ta azkenengo itza ezta oraindik esan: baña danok dakigu, asieran esan detan bezela, euskaldunak oso antziñetatik gurutze zaleak eta gurutzearen alde jokutzen zutenak ziradela ta beti Lauburuaren azpikoak, Kristautasuna emen sartu zanetik eta ona kristaurik onenetakoak, bakoitzak bere etxean ikasi zutela gure aitonak Kristoren legeko ibilpide ona, ta guk ere ume umetatik ikasi degula, aitona zarren izakera Jaungoikozkoa; eleizan ikasi dituela beti euskaldunak egiazko jakituriaren iturritik datozen erakutsi eder zindoak. Eleizan ta amargarrengo aginduan erakutsi zaigu eztala iñoren bidegabeko ondasunik nai izan bear; eleizan ikasi genduzan beste gauza on asko, ta eleizako liburuetatik ateratzen det, or ta emen ikutuaz, saill bakoitzetik lore bat artuaz, zueri eskeintzen dizuetan beste sortatxo bat. «Ikusi nuan eguzkiaren azpian egiten zan guztia, ta dana zan uskeria ta animako estutasuna». «Nere biotzean esan nuan nik: joango naiz, ta gozotasun ugariak idukiko ditut, eta asartuko ditut ondasunak. Eta ikusi nuan au ere uskeria zala». «Gizon zikoitz edo zekena ezta beñere diruz aseko, ta diruak maite dituanak eztu beretandik *fruta* alort



edo emate onik aterako, ta au ere uskeria da». «Gozoa da langillearen loa, naiz gutxi jan naiz asko, baña aberatsari geiegizko janak lorik egiten ezto utziten». «Beste gaitz oso txar bat dago, eguzkiaren azpian ikusi detana: jabearen gaitzerako gordetzendan aberastasuna». «Bota zazu zure ogia bidean dijoazen uren gañean, bada eretiren batean billatuko dez». «Eman zaiezu zazpiti ta zortziri ere zergatik eztakizun zer gaitz etorriko dan lurraren gañean». «Jaungoikoaren bildur izan zaite ta gorde itzatzu bere aginduk, bada ori da gizon guztia».

Baña lore sorta bi aben erdian beste lore bat jarri bear degu, lorerik usai gozozkoena. Lore ori gurutzea da, gure betiko bandera ederra. Gurutze orretan dago Gizon-Jaungoikoa, Izaterik andi ta altsuena, Jakituriaren jatorria, Jakituria bera, berez ta iñorgandik artu gabe gizon guztiai erakusteko eskubidea daukan izate berdingabea. Zabalik dauzka Bere besoak, batarekiñ siñistegabeko guztiai deitu nai baliote bezela, ta bestearekiñ Bere legea jarraitzen duten danak bigunkiro estaldu nairik. Jaungoiko-Gizon orrek, Bere ao eder zerutarra idikitzen du ta lurreko guztiai esaten die: «Atozte Nigana nekaturik eta arnasarik artu eziñik zabilatzaten guztiok, eta Nik emango dizutet arnasa ta desneke ona». Ta ezaguturik, oso garbiro, eztagola lurrean beartsua baño izate nekatuagorik, errukariaren poztasunerako beste itz gozo abek esaten ditu: «Zorionekoak animaz beartsu diradenak, zergatik berentzako dan zeruetako erresuma nerea».

Ezta egundano, n. a., itz gutxiagotan gogamen aundi, sakon ta ederragorik esan, eztira beñere iñoren itzak izan añ garbiak, añ biguñak eta añ esankorak. Kristo da zoriontasunaren jabea, Kristo bakarrik da zoriontasunaren goarpe ta ixilikako ipuiñ guztiak dakizkiana, ta Kristok dio «beartsuak dirala zorionekoak». Baña nolatan? Ezin ulertu dezake gure adimenak, gizonaren buruan ezin sartu da beartsu dagoan izate bat nola izan ditekean zorionekoak. Zerbait bear badu, nola egongo da ondo ta pozean, bear duan gauza ori gabe? Aditzalleak, Jaungoiko Santu guzialdun zoriontasunaren jabeak, edonoiz zoriundu lezake neketan dagoan anima, neketasunaren erraetan bertan eman lezaioke edozeñi zorion betea ta biotzeko eztaia, Paulo santu lege onaren zabaltzalleari ta beste santu askori eman zien bezela; baña Jaungoikoaren eskubideak egin dezakeana alde batera utzirik, ikusi dezagun Kristok Berak gure galdeari ematen dion erantzuerak: «Zorionekoak dira beartsuak, esaten du, zergatik berentzat dan zeruetako erresuma». Nondikan ikusten degun zeruetako erresumaren jabe izatean dagola gure zoriona, ta eztala lurrean zorionekorik iñortxo ere, ez aberatsik eta ez landerrik, ez erregerik eta ez morroi-rik; denak diradela emen berdiñak zoriontasun ori billatze orretan, denak

dirala beartsuak, zergatik, Salomonek esango lukean bezela, «dena da emen uskeria ta uskeria bakarrik». Gorutz jaso bear degu, bada, gure gogo, gorutz jaso bear degu gure biotza, jaio zanetik eta ona zoriontasunaren eske deadarka daukagun biotz artega ta eskalea: zeruaren itxaropena bear degu emen, nolabait zorionekoak izango bagera.

Ikusten dezute, bada, n. a. euskaldunak: zoriontasuna billatzeko zuek artu dezutena baño beste biderik eztago. Nai ta naiezkoa da gurutzearen itzalean bizi izatea, au da, Jaungoikoaren lege santua gordetzea, gaur zeraten bezela, n. a., beti euskaldun kristauak izatea. Eztet esaten denok berdiñak zeratela ta denok onak, eztet esaten utsegiterik eztezetela, eztet esaten etsai gaizkiñaren zirikadaren bat zuen biotzetan eztezetela izango, ta, bear bada, baita ere leiza edo gogo gaistoren bat, noizean bein anima loitzen duan gogo, zeru garbi urdiña, trumoi egunean, odei matasa beltzak loitzen duan bezela; baña ezta beti zuen gogamenean daukazuten odei matasa, ezta betiko gogo txarra, ezta zuen ibillera ta eginkizun guztietarako asiera ta iturburua... Nik ikusi zaituztet sarri, n. a. euskaldun maiteak, nik ikusi zaituztet oso mendaroturik zuen lan neketsuetan, Jaungoikozko gizonak bezela. Batzuek, itxasgizonak, goizeko ordue-tarako, edo gaberdia baño len bear bada, ol koskor baten gañean jarrita, sartzen zerate, ekaitz ta bagaen tartetik askotan, itxasoaren erdira, erio-tzaren kolkotik zerbait atera naian, zuen umetxoak ogi zati bat jan deza-ten; baña zuen zorigaitza ezagutuagatik, etzerate sartzen itxas barrura arao ta biraoka, siñiste gabeko gizonak bezela; ezpada Jaungoiko Egillea bedeinkatuaz. Iziarko ta Aranzazuko Amari edo Lezoko Gurutze santuari egiten diozkatzuen otoitz ta erreguen murmurada gozoa itxas goitan-diaren orroatzarrakiñ bat egiñaz; otoitz biak, itxasoarena ta gizonarena, elkar arturik, igo ditezen Jaungoiko santuaren jarleku gorengorano. Nik ikusi zaituztet beste batzuk, nekazaritzatik bizi zeraten gizonak, saiatzen zeratela arkaitz tarteko lurrik idor ta nekagarritzkoenean, zuen etxadikoak bear duen janaria lurrari kendu nairik; ta ori eranpe ta alaitasun aundiare-kin, batere inkes, arrenkura ta irauntasun gabe, neke guztien azkenengo arian, bere esku zerutarra gorutz jasorik, betiko zoriona erakusten dago-an itxaropen gozoa ikusten dezutelako. Nik badakit batzuk eta besteak oso erraz ematen diozutela zuek baño beartsuago dagoan bati etxeoen aorako bear zenduteken ogi zatia, ta aterik ate dabillen eskale gaixoa zuen maipuruan jartzen dakizutela; nik badakit denok egiten dezutela anima pakean daukaten gizonak egin oi duten kezkgabeko loa, len aitatu detan gogamen gaistoa batere gogoratu gabe.



Egiazko jakituriaren iturrian edan dezute zuek animako egarria kentzeko bear dan otsaroa, eta iñoiz aberastasunaren ondamu apurren batek biotzean ikutuagatik, lurreko ondasunekiñ gizonaren biotza ezin ase dala ikasi zendutelako, bene-benetan animaz ta biotzez zerate lander edo beartsuak, eta zeruetako sari atsegingarri iraunkorraren itxaropenean bizi zerate, neke artean bertan pozik, euskaldun dirutsu asko, Jaungoikozko gizonak, beren biotza diruan ipiñi gabe Zerura begira bizi diraden bezela.

Baña badira lur zabalean beste gizon illun errukarri batzuek; beartsuak dira oiek ere, bañan ez gogoz, ez biotzez. Odei beltz astunaren azpian bizi dirade beti, beñere zeruko argirik ikusi gabe. Beren biotzak gozotasuna eskatzen die, ta gozotasunik ezin dute billatu; aberastasuna nai luteke gauza guztien gañetik, eta, bear bada odolgiroko nagusien azpian daude, nai duen aria ogirik jan ezinda. Ta gerorako zorionik eztaukatela siñisturikan ta lurrean ere ezin lortu duela ikusten dutenean, oraingo egunetan negarra ta zorigaitza ta gerokoetan ezereza ta illuntasun illgarria begiratzean, beren odol guziak irakiten jartzen zaizkate, ta or dabil-tza gizagaixoak aundikien kontra ta Jaungoikoaren kontra, gauza guztiak goikoaz-bera itzuli nairik batzuek, eta beste batzuek, otso amorratuen iru-dira, gizon guztiak beren biatz ta agiñartean zatitzeko uste ta gogoarekiñ. Errukarri oiek eztute, zuek bezela, jakituriaren iturriko ur garbirik edan, betiko zoriontasunaren itxaropenik eztaukate, eztira gurutzepekoak, eta gurutzepean bakarrik dago lurrean arkitu al ditekean zoriona.

Gurutzeagandik urruti bata-besteaganako gorrotoa arkitu oi dan bezela, gurutzearen itzalpean billatzen det maitetasuna, zoriontasunaren adiskide aundia; bada gurutzeko Jaunak erakusten digu denok geradela Bere semeak, denok zerurako jaioak. Orregatik gurutzepeko Euskal-erri onetan ezkera Eklesiastiko deritzaion liburuak esaten duanaz aztu: «etzaiozu beartsuari zor zaion onesgume ta laguntasuna kendu, ta etzazuz beartsuagandik aldendu zure begiak»; «etzazu urruindu edo arakatu gose danaren anima, ta premian dagoan gizonari etzaiozu aserrerazi» «laguntasun gabe dagoanaren biotza etzazu atsekabetu, ta larriturik dagoan gizona ez iduki zerbait eman gabe». Ta gogoan daukagu Jesus-ek Bere Ebanjelio santuan esaten duana: «Zuekin besteak egitea nai dezutena, ori bera egin zazute zuek aiekiñ». «Izan zaitezte errukitsuak zuen aita errukitsua dan bezela». «Zuek bestientzat daukazuten neurriarekiñ izango zerate neurtuak». «Eman zaiozute bata besteari ostatua gaizkiesaka gabe». Orregatik euskaldunak begiratzen diote begi onez ta leguntzen diote al duen añañ, ez bakarrik aterik ate dabillen eskaleari, bai ta ere, (ta au da askotan

gauzarik gaitzena) auzoetako lagunai; edo gaixo bat daukatelako, edo etxealdian gizon gutxi diradelako, edo beste ezbearren bat gertatu zaietelako, soroetako lanak atzeratuta dauzkaten egunetan. Denok dakizute auzolana zer dan, askok jardun dezute sarri auzolanean, poz-pozik, anai, ezagun, adiskide edo erritar bati laguntzen, berak ere, beste garai batean, al duan añañ lagunduko dizutelako uste onean. Gauza txit pozgarria da, n. a., gizon ta emakume pilla sendo ta indartsuak auzoko erri edo beartsu bati laguntzen ikustea atxur edo laietako lan gogorrean, aloger gabe, izerdi patsetan ta pozik, auzokoen biotzera desneke pixkabat eramateagatik. Ori da, n. a. m., ori da bata-besteaganako anaitasuna idukitzea, ori da lagun urkoari zor zaion maitetasuna biotzez ematea, ori da Jesusen legea ongi betetzea, gurutzepean bizi izatea, euskaldun egiazkoa izatea.

Ta alkarrenganako emen arkitzen dan laguntasun onagatik, Euskal-erriko lurra ondo zatituak daudelako, eta gure errizaiñtzalle gaixo, eri ta beartsuen onean aukerazko etxeak egiñaz ta ondo zaiñtuaz artu dituen burubide egokiakgatik, eztira Euskal-errian erbestean aria eskale ta beartsu ikusten. Ikusten ditugu eskaleak, ori bai, bada toki guztietan ta beti izango dira gure jaialdi guztietarako eskale asko inguratzen zaizkigu, baña euskaldunak gutxi, oso gutxi, ogeirako bat edo gutxiago, zergatik, denok dakizuten bezela, itxu, besamotx, erren ta soñujotzalle geinak, ia danak, euskalduna biotz onekoa dala jakinda gaztelerritik agertzen zaizkigun kristau doakabe gizagaixoak izaten dira. Ta orregatik, gurutzepekoak eta Jaungoikozko gizonak izan geralako, aspaldiko gizaldietatik ia gure egunetaraño ta gure egunetan ere bai toki batzuetan, euskal-mendi mardul, emankor agirietan ikusi, izan oi dira ta ikusten dira beor, motxal, zaldi, txekor, bei ta idiak batere zaiñtzalle gabe, zergatik euskal-erritar guziak zekiten begi zoliarekiñ beti begira zegoan zaiñtzalle bat zeukatela, Jaungoikoa; orregatik gure katigutegi edo presondegietan añañ eralle gutxi egon izandu dira; orregatik etxe guztietako ateak zabal-zabalik utzi oi zituzten gure aitonak, gau ta egun, beren barrundean maitetasuneko ostatu on bat edonoiz ta edozeñi eskeñika baleude bezela, ta lurbira guztiari agertueraziaz euskaldunak etzirala Jaungoikoaren baño besteren bildur; orregatik, azkenez, Euskal-errian atietako kisket, maratilla, morrollu ta burnisareak alperrikakoak ziraden, zergatik Jaungoikoaren legea zan gure ataietako gilitza.

Eztet iñola ere ukatu nai, gure lege zarrak ondoren abetarako asko lagundu digutela. Gure lege zarrak asten ziran, Arabakoa bezela, bata bestea maitatu bear genduala esanaz; edo aginzen zuten, Bizkaikoak bezela, aitari edo amari eskua jartzen zioten seme gaistoak, bere eskergabetasu-



nagatik, aiekgandik artu zuten ondasuna galdu zezatela, edo esaten zuten, Gipuzkoakoak bezela, batzarrera zijoazen gizon guztiak egin zezaiotela zin edo *juramentu* Jaungoikari, *gurutzeari* ta Ebanjelio santuaren itz egiazkoai, Gipuzkoaren onari begiratuko ziotela, zuzen ta griña gaisto gabe, Jaungoikoari ta Erregeari zor zitzaizen menekio ta aurpenaren kalte gabe.

Gure lege zarrak lagundu digute bada, ainbeste urtean etxadi on ta paketsuak idukitzen, semeak gurasoari zor dion mendetasuna gorderazitzen, ta euskaldun guziak onbide zuzenetatik erabiltzen. Baña nondik dator lege oien ontasuna? Nondik sortu dira lege oiek? Nun daukate beren sustraia? Kristoren legean, gurutzean daukate aitasuna ta sortue-ra; bada beren jatorriari begiratu ezkerro, zer dirade gure legeak Jaungoikoaren legea baño beste gauzarik?

Ikusi degu, n. a., zer dan ta zertan dagoan zorion betea; ikusi degu zeruetan arkitzen dala, ta ezuala lurrean iñork billatu osorik eta biotzak eskatzen duan aña, ta bestek baño gutxiago gurutzetik urruti bizi diraden gizon errukarriak; eta lurrean al dan bezela gurutzepeko gizon ta erriak iduki oi dutela. Egia eder au argitaratu dizutet siñiste gabeko gizon jakintsuen esane kiñ, Eleizaren liburu jakituriz beterikakoe kiñ, Jaungoiko santuaren itz ziur siñisgarrienare kiñ, gure adimeneko argi apurre kiñ ta egunero geuk ikusten ditugun gauzak anima barrura esaten digutenare kiñ. Ta batez ere, onezkerro ezagutuko zendutela uste det gure Euskalerrri mai-teak erakusten diola lurbira guztiari gurutze santuaren azpian bizi dan erria zorionekoa dala, lurrean al dan bestean.

Ezta bada miraritzeko gauza, n. a. m., erbeste aldetik gure mendietara norbaitzuek ondamuz begiratzea, askotan begiratu duten bezela; zergatik, dollorren artean, beti ikusi oi da begi txarrarekin auzokoen zorion ta pakea; ta ezta ere, gugandik urruti jaio diran izkribalari zintzo askok. Euskalerrriko izakera ezagutu dutenean, euskaldunaren alde esan dituzten gauzak irakurtzea. Astirik banuke, geiegi luzatzeko bildurak lotuko ezpandinu, emen esango nituzke orain gizon arrotz askok Euskalerrriko bizi-tzagatik egin dituzten egiazko gora jasotzeak, doanditzeak; baña besterik esango ezpadet ere, eztet utzi nai isillik Le Play jaun jakintsuak bere liburu batean, oraindik aspaldi eztala gugatik esaten zuana: «Euskaldunak, esaten du, Españako erregearen mendean egonagatik, berezkorrak dira ta uztarri gabe ta askatuak daude Suizatarak bezela. Aien irudira, lokarri gabe bizi izatea beren *Jaungoikozko siñiste onari sor diote*, beren oitura zarrai ta errietako fueroak gordetzeko beti izan duten ausardi eziezkorriari».

Bai, n. a. m., txit egoki esan zuan Le Play jaunak: gurutzeagatik izan gera gu gurezkorrak, gurutzeagatik bizi izandu gera uztarri ta kate gabe,

bada gunatzea etorri zitzaigun zeruetatik gure animetako kateak urratze-ra; gurutzeagatik izan da euskalduna Aitzgorriko aizea bezela lokarriga-bea; gurutzeagatik izan da Izarraiz ta Ernioko arkaitzak baizen irme, gogor ta sendoa atzerritar gudalarien aurrean, bigun, samur ta biotz aundikoa gizon apal ta beartsuen ondoan; gurutzeagatik izan ziran aundi, duin, azkar ta umantkorrak Ugarte ta Lope Diaz Bizkaiko Jauna, Elkano ta Gaztañeta; Urbietia, Idiakez ta Errenteriako Martin, Okendo ta Lezo, Urdaneta, Legazpi ta Txurruka, Loiolako Iñazio aundia ta gure egunetako Balentin Berrio-Otxoa; gurutzeagatik, Jaungoikozko gizon duiñak giñalako, abegi on bat egiñ oi ziguten beti euskaldunai lurbirako erri guztietan; Jaungoikozkoak giñalako, oraindik geure gizaldian, frantzes jakintsuen Parisko batzar batean Euskalerrriko bizitza jarri zuten mundu guztirako erakusgarririk onenentzat.

Eta gurutzea ta euskalduna, gurutzea ta gure izkuntz garbia oso alkarturik bizi izan diradelako, gurutzearen ikasle ta erakusleak, eleiz gizonak izan dira gurutzearen onbideak eta euskeraren apainduriak zabaltzen beste edozeiñ baño geiago saiatu diraden euskaldunak; bada denok dakizuten bezela, eleiz gizonak ziran Larramendi, Astarloa, Mogel, Mendiburu, Kardaberaz, Añibarro, Zabala, Uriarte, Lardizabal, Arana ta beste asko; ta euskara gozo maitagarriaren alde aspaldiko urte abetan lanean dabiltzan euskaldun desnagi samurrak, eleiz-gizonak izan ezagatik, Euskal-erriak gurutzeari zordiona dakitelako, Jaungoikozko gauzak esan bear dituztenean, eztitan bustitzen dituzte beren lumak; beren izkribu, mol-daera ta antolamendu guztietan sorterriari ta Jaungoikori zor dioten maitetasuna erakusten dute; ta ezta oraindik agertu euskaraz, nik dakitela beintzat, Eleizaren, Jaungoikoaren, gurutzearen edo oitura onen kontrako gauza bat bakarra. Eztedilla ere iñoiz gertatu, bada euskara garbia ezta orretarako jaioa. A! Beste izkuntz askore kiñ bezela euskararekin Jaungoiko Guraso santua madarikatuko balitzateke, Jesusek eman zizkigun ibil-pide zuzenen kontrako gauzak euskaraz esango balitzatezke, euskaraz jardungo balitz gurutzeako erakusbide santuen kontra; miñ aundi bat artuko nuke biotzaren erdian, beaztun minkaitzak iruntzi bearko nituzke ta malko samiñak ixuri, zergatik, neretzat euskara, egaztiarentzat aizea bezela da, gizonarentzat arnasa bezela; baña ni izango nitzake aurrenengoa deadar egiteko: «madarikatua izan dedilla euskara, milla bider madarikatua». Euskalduna naizela esan det asieran, ta egia da, baño lenago naiz kristaua, ta kristaua ez izatekotan ez nuke nai izan euskaldun.

Baña ez, euskalduna ta gurutzea beti bat egiñik bizi izan dira, Gernikako arbola ta gurutzea alkarturik daude, ta bata besteagandik eziñ



ditezke alden du, ainbeste gizaldiko lokarriak eziñ ditezke urratu, ta eztira urratuko, ta euskaldunen izkuntza beti izango da gurutzearen *kantaria*.

Bai, nere adiskide euskarazale ta biursari egokiak, ereztu edo *kanta* zaiozute Jaungoikoari, bada zuen *kantua*rentzat gai oberik eztezute billatuko. Bere izen aundia, siñisgaistokoentzat ezkutapenez estalirik dagoan izena, siñistedun gizonak eguzki alaiaren arpegi argitsuan ikusten du, illargiaren errañu bigunetan, goizaldeko mendi gañetik datorren argi pozgarritzkoan, itxas gañ zabal bare ta urdiñean, gure basoetako saroi ostoz apainduetan, intzez beterikako belardi loratsuan, gizon erregearen kopeta leñargian. Bere eskubide altsua ekaitzaren egoetan agiri da, tximista gorriaren ibilketa azkarrean, Sodomako erri gaistoaren ondamendian, lurreko errege ta agintari guztien eriotzan, zeru goietako izarren jira-bira neurtuetan. Azkenez, bere ontasun neurrigabea Golgotako tontor illunean dakusgu, Kristo gure Jauna gurutzean josirik, gugatik bizitza ematen ta Bere Aita Jaungoikoari gizon errukarriagatik parka eske dagoanean.

Euskaldunak, nere erritarrak, Jaungoiko santu goitandi orren mendean bizi diraden erriak eztira beñere illko, Jaungoikoaren mendetik igeska dabilzanak galduak daude. Non dirade gaur arrotasunez beterik gure kontra etorri ziran Kartagotar ta erromatarrak? Zer egin zuten euskalduna bere mendean jarri nai zuten godotar apainduri zaleak? Il ziran betiko, gizaldi nastuen erdian ondatu ziran, beren arrotasunak lurpean sarturik daude, aztu zan beren izkuntza, izena bakarrik gelditu zaiete kondairako liburutetan. Ta Euskal-erria bizi da, bizi da bere izkuntza zarra, bizi dira bere oitura garbi gordegarriak, zergatik gurekiñ bizi dan gurutze santua.

Euskaldunak, nere erritarrak, *Tau-ren* aztarna gure kopetan badaramaigu, gure aitonen Lauburuarekiñ aztutzen ezipagera, gurutzepeetik ertetzen ezipadegu, izen berriko okerkeri gaistoak estanda eginda lurbira guztia ondatzen danean, entzungo degu gure mendietatik gurutzegabeko erresuma guztiak goitik bera jotzean aterako duen burrunbada ikaragarria; baña ezta guganaño elduko Jaungoikoaren zigorra, zergatik Berberak esan duan: *omnem autem super quem videritis thau ne occidatis*, bere kopetan gurutzearen aztarna daramanari etzaiozute ikuturik egiñ, utzi zaiozute pakean. Ta nork daki Jaungoikoak ala nai dualako, Jaungoikoak bere legean agintzen dualako, illak lurpean sartzeko asmoan mendietatik bera jaisten geranean, nork daki gu izango bagera, lenagoko israeltarrak bezela, erri berri aundi baten sustrai ta asiera?

Ekautariak, Gipuzkoako ondasun ta fuero apurren zaintzalleak, Jaungoikozko gizonak zeratelako, gurutzepekoak zeratelako, barru ta esku garbieneko gizonen entzute aundi bat daukazute errian ta erbestean,

entzute ona, entzute ospetsua, entzute onoregarria. Etzazute, bada, gurutzepeetik egundaño erten, gorde zazute entzute eder ori gauzarik maitegarriena bezela; ia noiz edo noiz, gaur ezipada bigar, ekaitzaren ondoren eguzki garbiak ertetzen duan egunean, zuek gandik ikasten duten erbesteokoak nola zaiñtzen diran errien ondasunak. Jarrai zazute beti bide zuzenetik, egin zazute orain bezela gero ere al dezuten guztia nekazariaren, oitura zarren ta euskara bedeinkatuaren alde, bada orrela begiratzten diozute Gipuzkoaren onari.

Ta azkenik, nere erritar euskaldun maiteak, bizi gaitezen denok gurutzearen itzalpe gozoan, erabilli dezagun beti gurutzearen aztarna gure kopetan ta gure biotzean, Jaungoikoak Beragana deitzen digun orduan, zorion jutezko jauregi ataian esan dezaiozun poz-pozik gure Egille santuari: «Jauna, kristau egiazkoak gera, gurutzetarrak gera, euskaldunak gera!».

Amen. Ala izan dedilla.



PRESENTACIÓN

1898

Sanctifica mihi omne primogenitum... mea sunt enim omnia.
(Emaidazute zuekandik ertetzen duan lenengo izatea,
bada nereak dira gauza guztiak.
Exodo deritzaion liburuko XIII garren buru
ta 2 garren bersotik artutako itzak.)

N. a. m: Jaungoiko santuaren beso luze ta emankorrek gauza askotan ta beti lagundu izan zien israeltarrai, baña batez ere Ejiptoko erbestetasunean egon ziran bitartean, Faraonen mendeko erriak gaitzete andi bildurgarrien azpian estutuaz*, ta azkenean, Faraon erregearen aginpedetik beñ israeltar guziak ateratzeko, Ejiptoko etxadi guztietan lenengo jaio ziran ume guztiai, gau ikaragarritzko batean, eriotza emanaz. Ta laguntasun andi oni esker onarekin erantzun zezaioten, Jaungoikoak Berak agindu zion Moises legegileari, andik aurrera Israelgo etxadietan lenengo jaiotzen ziran ume danak eskeñi zezaiatzatela Berari, zergatik Bera zan gauza guztien Egille ta Jabea. *Sanctifica mihi omne primogenitum... mea sunt enim omnia.*

Jaungoiko santuaren beso luze ta emankorrek guri ere gauza askotan ta egunero laguntzen digu erbeste onetan, ta batez ere lagundu zigun Faraon baño milla bidar okerragoa dan deabru gaizkiñaren mendetik ertetzen, zeruetatik bere Seme Bakar Jaungoikoa gure alde ta deabrua aspiratzera biralduaz. Esker onekoak bagiñake, bada, ezkenduke, kristau jaio geranok beintzat, iñoren agindurik bear, gugandik sortzen diran lenengo gauza guztiak Jaungoikoari emateko, biotz ta anima gure buruak Jaungoikoari eskeintzeko, borondaterik onenarekin gure izatea Jaunaren mendean jartzeko. J. Kristok berak eskatzen digu biotza, *praebi mihi cor tuum mihi*, baña eskari ori gabe, berez jua bear luke gure biotzak gure Egille ta Erosle santuari eskerrak ematera. Naikua litzateke onetarako, esagutzea zeñi zor diogun gure jaiotza ta gure bizitza, zeñek eman lekegun beti betiko zorion betea.

Orrela egin zuan, Eleizak gaur oroitzen digun bezela, Nazaretko alabatxo maite bedekagarriak, orrela egin zuan Maria gure Ama Santak: berez joan zan, iru urteko umetxoa zalarik, Jerusalemgo Eleizara; bere bio-

tzaren gogo bizi ta sendoak eraman zuan Jaungoikoari eskerrak ematera, Jaungoikoarekin bat egiñik bizi izatera.

Orrela egin bear genduke guk denok ere, txiki ta andi; baño nola umetxoak eztaukaten beren buruan, Mariak bezela, orretarako bear dan aria argirik, zuek, gurasoak, erakutzi bear diozute, Jaun Egilleari zor dioten eskerra ta mendetasuna, zuek erakutzi bear diozute eleizara bidea gastetxoak diraden artean, begiak argitara zabaldu ta bereala jakiñ dezaten nondik eta nola ibilli, ta baita ere lurrean izango dituen estualdietan laguntasuna zeñi eskatu.

Orregatik, bada, ara emen zer dan gaurko itzaldirako aukeratu detan gaia: «jaio geran guztiok gure biotza Jaungoikoari eskeñi bearra daukagula, ta guraso zeratenok eskeñi bear diozkatzuela zuen umeak Jaungoikoari».

Lagundu daidala Ama Maria Santak egia eder au n. aditzalleai erakusten, eleiza onetan batu geran guztien onerako. Eskatu zaiogun berari laguntasun au, bestetan oi degun bezela *Agur Maria* esanaz.

Sanctifica mihi omne primogenitum... mea sunt, enim, omnia. Emaidazue zuekandik lenengo ertetzen duan izatea, bada neriak dira gauza danak.

N. a. m: Nazaretan, mirariz ta garbi, Anagandik jaio zan Mariak erakusten digu gaur zenbaterañoakoa dan gure ganorarik esa, alperkeria ta itxutasuna, luzaroko urtietan Jaungoikoari biotza beñere eskeñi gabe munduaren erdian bizi geraldako.

Maria umetxoa dala dijoa Jerusalemgo Eleizara, pozik eta azkar, etxea ta etxeko aide, adiskide ta gurasoak alde batera utzirik, Jaungoikoa gauza guztiak baño lenago dalako Jaungoikoaren mendean jartzera; ta gure egunetako gizon ta emakume asko or dabiltza gastetan eta zartzan lurreko gauzen billa, Jaungoikoarekin zereginik ezpalue bezela, Jaungoikoak berekin aginpiderik ezpaleukate bezela, edo Jaungoikoaren menpetasunean egotea gauza astun, samiñ ta lotsagarritzkoa balitz gisara.

Ta, ai! n. a. m.: Jaungoikoarekin guk, Mariaren irudira, eginkizun andiak dauzkagu, gure eginkizunik andienak, animaren betikotasun onerako edo betikotasun txarrerako eginkizunak; Jaungoikoak gure gañ aginpiderik zuzen ta egokiena dauka; Jaunaren mendean egotea ezta gauza astuna, ezta samiña, ta gutxiago lotsagarritzkoa.

Baño zergatik dauka gure gañeko aginpide ori? Zergatik berak sortu gaituan, joan diran egunetan *misionista* santu baten aotik aditu dezuten bezela. *Mea sunt omnia*, esaten du Jaungoikoak, neriak dira gauza guztiak. Nik sortu ditut zeruak ezerezetik eta itz bat bakarra esanda, gizon zintzo guztien poztasunerako; nik sortu ditut infernuak gizon arro ta gaizkille



guztien zorigaitzerako; nik atera ditut itz batekiñ ta ezerezetik lurreen ikusten diran gauza guztiak; nik ematen diot eguskiari argia, gabari illuntasuna, aizeari ta olatuari indarra; neria da osasuna, neria da bizitza, neria da eriotza, neria da gizona; izan diran ta izango diran gauza guztiak neriak dira: *mea sunt omnia*. Nola, bada, eukiko eztu Jaungoikoak gauza guztien gañeko aginpidea, gizonaren gañeko aginpidea, gizona Berak sortu badu?

Bai, n. a. m.: gauza baten gañean aginpidea izateko gauza ori egitea baño bide oberik eztago, ta gure Jaun ta Jaungoikoak egin gaitu gu, ez gizonak bere gauzak egiten dituan bezela, ol zati batekiñ aulki edo mai bat, edo arri, kare, burni ta egurrarekin etxea, ezpada ezerezetik. Orregatik gera gorputz ta anima Jaungoikoarenak, orregatik egon bear degu bere mendean, orregatik, dena berari zor diogun eskero, eman diogu gogoz ta egiaz gure *biotza*.

Gañera, gurekiñ daukan aginpiderako badu Jaungoikoak beste bide bat ere, eta da gu bizirik eukitzea, gure bizitzari iraun eragitea. Irauten due zeruak egin ziranetik gaur arteraño, Jaungoikoak ala nai dualako; irauten dute mendiak, Jaungoikoak ala nai dualako; irauten dute gizonak Jaungoikoak ala nai dualako; Jaungoikoak beti beñere eten gabeko gogo ta alizatearekiñ, zeruen, mendien ta gizonen izatea ematen dielako.— Irudi baten bitartez agertuko dizuet garbieroago. Begiratu zaiozute altara aurrean dagoan argimutill andi orri; *araña* esango diogu erderazko izenarekiñ: ezekita dago, lurretik gora jasoa dago, soka batek aidean daukalako; soka ori ebakiko bagenduke *araña* orrek berealaxe joko luke beia. Zergatik? Zergatik *araña* orrek eztaukan berez aidean egoteko indarrik. **Aidean** badago urteetan, da soka orren indarrak beñere utzi gabe aidean daukalako. Orrela, bada, n. a. m: mendiak mendi badira luzaroko gizaldietan, itxasoak itxaso badira, gizonak gizon badira, da Jaungoikoak mendi, itxaso edo gizon izateko indarra ematen dielako: Jaungoikoak instante batean bakarrik bere indar emateari utziko balioke, gauza guztiak desegino litzatezke bereala, gaiski esan det, utzera biurtuko litzatezke.

Ikusten...

Oraindik ere Jaungoikoak aginpiderako badauka beste bide bat: asieran aitatu det, eta eztet oraiñ ixillik utzi nai: Gizona lenengo pekatua egin da, deabruaren mendean erori zanean, Jaungoikuak atera zuan deabruaren mendetik: zeruak utzirik etorri zan lurrera, lurrez jantzirik ibilli zan gizonen artean, gizonagatik il zan, eta Berberak Bere odolarekiñ erosi zuan gizonaren zoriona. Zuek, a., gauza bat erosten dezuenean, zuena dala esaten dezue ongi ta egiaz, ta izerdi asko bota badezue gauza ori erosteko, egia andiagoarekiñ ta beroago esango dezue zuena dala, ta zuen

bizitzarekiñ, zuen odol guztia emanaz erosi badezue, ezta iñortxo izango, soro gaistoren bat ezpada gauza ori ondo erositia dagoala autortuko eztaunik.

Eta bada gu Jaungoikoak erosi genduzan bere odolarekin, edo autor-tu bear degu Jaungoikoarenak gerala, edo soraturik gaude, ta etzaio gure esanari ezertarako begiratu bear.

2. Ara nola dan, n. a., Jaungoiko Santua gure ondasun guztien iturria ta gauza guztien Jabea; ara zenbat bidetatik daukan Jaungoikoak eskubide andia gizonaren gañean; ara zergatik gizonak zor dion mendetasun egiazkoa bere Egille, Gordetzaille ta Erosle santuari.

Eta ala ere, gizon asko eztira Jaungoikoaren mendean bizi, gizon askok eztute Jaungoikoa maita. Nolatan ez? Ezta nai-ta-naiezko gauza Jaungoikoa maitatzea? Ez, Jaungoikoak eztu nai nai-ta-naiezko maitetasunik, gogozkoa nai du. Gizonari argi bat eman zion bere Egillea ikusi ta esagutu zezan: ipiñi zuan gero bide biren aurrean, bata okerrera bidea, bestea zuzen zuen Beragana eramango duana; esan zion aukeratu zezala nai zuan bidea ta jarraitu zezaiola; baño jakiñ zezala, bataren azkenen billatuko zuala betiko zorigaitza, ta bestea amaitzean betiko ta neurrigabeko zoriona... Eta okerbideetik dijoaz asko eta asko. Batzuek beragañ ta jabetasun gabe bizitzea nai due, iru edo lau urtean bada ere; beste batzuek, arrotasunez apaindurik, Luzifer bezela, Jaungoikoaren aurrez-aurre jartzen dira.

Ta zergatik? Jaunaren legea astuna edo samiña dalako? Ez, Jaunaren agintea ezta astuna, ezta samiña, bada Berberak esaten digu: Nere agintea txit da erraz ta biguna: *jugum meum suave est et onus meum leve*; ta gañera zuek ikusi dezue: gurasoa maitatzea beñere ezta astuna ondo jaio dan semearentzat. Jaunaren azpian egotea lotsagarria dalako?

Ezta ere. Bear bada entzungo zenduten zuek ere, n. a., eztala ondo bestien mendean egotea; bear bada zueri ere gogoratuko zitzatzuen ohea dala bakoitza bere buruaren jabe izatea. Ta zuen gogamen ori izan leiteke egiazkoa edo gezurrezkoa: nolatan dan. Zuen umeak ume txikiak bere buruen jabe balitzatezke, berak nai duen gisara nai duena egiñaz bizi balirake, zer izango litzateke zuen etxea? Gauza onik ez. Bada gu denok ume-txo batzuk gera ta Jaungoikoa da gure guraso gidaria. Ezta ondo, n. a., gaistakerirako edozeñ gizon gaistoren loturik azpian egotea; ezta ondo munduaren edo deabruaren mendean egotea; baño Jaungoiko guraso, maitagarri, gozo ta gauza guztien jabearen azpian egotea txit da gauza ona ta onoretsua; bada ikatzak belztu ta iriñak txuritzen gaituan bezela, gizo-



nak gizondu egiten gaitu, deabruak deabrutu, ta Jaungoikoak berriz anditu, edertu, Jaungoikotu, ta Jaungoikoa izatea baño gauza oberik eztago.

Zergatik da, bada, Jaunagana ez joatea? Gizon asko itxuturik daudelako. Okerbidetik zear iges eginda Jaungoikoagandik urruti bizi diran gizon oiek ez diote beñere Mariak gaurko egunean ematen digun erakuskizun ederrari begiratu: lurreko gauzen billa dabilztan lurtarrak dira, Jaungoiko gabe bizi dira, lege gabe bizi dira, itxutasunean daude, eztue nai Jaungoikoaren mendeko izan, ta sarritan erortzen dira gizagaixoak gizonen mendean, ta askozas txarrago dana, deabruaren mendean ere bai.

3. Baño Jaungoikoa gure Jaun, Jabe ta Gurasotzat esagutzen degunok, zer eskeñi bear diogu Jaungoikoari? Eman bear diogu batez ere gure lenengo gauza, geien maitatzen degun gauza, lenengo gogamena, lenengo itza, lenengo eginkisuna, lenengo umetxoa: *omne primogenitum*; ta ez edonortara, Jaungoikoa santua dalako eman bear zaio santuturik, berak dion bezela *sanctifica mihi*; bada lenengo gauza santuturik badijoa, erraz jarraituko due ondorengoak lenengoaren bidetik.— Jakintsu batek dio gure lenengo gauza ta gauzarik onena biotza dala, ta orregatik J. Kristok Berberak esaten digu: *Praebe mihi cor tuum mihi*. Emaidazu gizona zure biotza, bada zure biotza nai det.

Ta noiztik asi bear degu Jaungoikoari biotza ematen? Jaiotzen geranetik laster, gure lenengo egunetarik, Jaungoikoa zeñ dan esagutzen degunetik bereala. Noiz ez gera gu Jaungoikoarenak? Noiz ezkaude bere eskuetatik dingilizka? Bada beti Jaungoikoarenak bagera, beti ta gogoz eskeñi bear diogu gure biotza, bizitzaren asieratik eriotzaren eskuetan erortzen geran arteraño.— Mariak ematen digu onetarako erakuskizun eder bat, bada ume-umetatik eskeñi zion Egille Santuari *bere* izate guztia; baño gure eskergabetasunak eztio Mariaren biderei jarraitu nai. Eztegu esagutzen, edo eztegu gogoratzen Jaunaren eskuetatik artu degun onegitea; baño ala ere Jaunak guri egindako onegite edo mesedeak gurekiñ ibiliko dira beti ta lagunduko digue, edo betiko zorionera joaten, edo gure anima eskergabea betiko zorigaitzera eramaten.

N. a. Guk ere Jaungoikoarenak izatea nai degu, ori badakit. Baña noiz? Gero, beti gero. Umeak geran bitartean ez, zergatik umeak ume diran, ta eztakite ongi zer egin bear duen ta zenbat zor diuen Jaungoikoari. Gasteak geran bitartean ez, zergatik aize asko izaten degun gure buruan, ta aizearen ots edo zaratak eztigun utzitzen Jaungoikoaren dei gozoa aditzen. Sasoikoak geraden bitartean ez, zergatik etxealdean gauza askori begiratu bearra izaten degun (lana egin bearra, umeak asi bearra, janaria lortu eziña, ta beste onelako gauza asko). Zarrak geranean ere ez,

zergatik nekatuak eta erdi illak gauden, ta geure burua zaintzen naikoa lan daukagun. Ta orrela dijoaz egunak, illak eta urteak, orrela dijoa bizitza, ta beñere eskera Jaungoikoarenak bene-benetan ta egiaz, Jaungoiko gabe bizi gera, geure gogoz edo geure alperkeriz, ta Jaungoiko gabe iltzen gera asko, uste degun baño askozaz geiago.

Egia da, ta pozik autortzen det: badira lurrean gorputz ta anima Jaungoikoarenak diraden animak, baño gutxi, oso gutxi; bada Jaungoikozkoak diradela uste degun asko eztira Jaungoikozkoak kanpotik eta itxuran baik: erdizka ematen diote beren biotza Jaungoikoari, ta Jaungoikoak eztu erdizkako gauzarik nai, edo oso-osorik edo bateretz. Oso-osorik eman zion Mariak, osoosorik eman bear diogu guk, nai baldin badegu zeruetan sartu.

4. A. Erakutzi zaiozute zuen umetxoai gaste-gastetatik, egiaz ta osorik Jaunari beren biotza ematen. Mundua, Jaunagandik aldendu dalako, galdua dagola esaten degu guztiok, eta egia da, eguskia baño argiagoko egia. Nai badegu, bada, mundua zuzentzea, goazen guztiok Jaungoikoagana, ta eraman ditzagun umetxoen biotz garbiak. Onezkero ezte uste gizon zarrak gauza onik egingo duenik lurraren alde, zergatik maña txarretan bizi izan diranak maña txarretan amaitu oi dira. Gasteak zuzendu bearko dute lurra, iñork zuzenduko badu.

A. gurasoak: deadarka daukazue Jaungoikoa, *sanctifica mihi omne primogenitum, mea sunt enim omnia*, santutu zazue neretzat zuen erratietatik lenengo ertetzen duan izatea, bada nereak dira gauza guztiak; eraman itzatzue erri onetan dauskatzuen ikastetxe egokietara, etxe oietan ikasi ditzaten bear bada zuek ezin erakutzi diozkatzen gauza on asko.

Ta zuek, n. a. gastetxoak, (Zumaiako eskoletan gauza on asko ikasten dituzuenak,) jakin zazue Jaungoikoak eta Ama Mariak zuekandik gauza on asko itxaroten dituela. Zuen eskuetan ta zuek bezelako beste gaste guztien eskuetan dago *munduaren* etorkizun guztia, Zer izango da mundua emendik urte batzuetara? Zuek nai dezuena: ona edo txarra, Jaungoikoarena edo deabruarena. Zeñen alde jarriko dezue mundua? Gaur al danik onduen erakusten zatzue Jaungoikoaren legea; gaur, bide onak erakutzi nairik, Mariaren irudiarekin erakarri zaituztegu eleizara. Biar edo etzi, zuen buruen jabe zeratenean, etorriko zerate eleizara pozpozik eta gogoz zuen biotzak Jaungoikoari eskeintzera? Edo etorriko zerate eleizetara gorputzarekiñ bakarrik, besteak datozelako, ta utziko dituzue zuen animak *ataietako atean*, eleizatik kanpora, Jaungoikoagana ekarri gabe? Biar edo etzi, astuko dezue zuek ere Jaungoikoaren legea? Eztezute naiko bizi Jaungoikoaren mendean? Eztituzue alegiñ guztiak



egingo, zeraten lekuan zeratela, jaio geran guztiok Jaungoikoa maitetu dezagun, mundu guztia Jaungoikoarena izan dediñ? Ezin det siñistatu, n. gastetxoak, zuek ere, Jaungoikoaren legeari lepoa emango diozuela, okerbidezik joango zeratela deabruaren bandera beltza jasoaz; ezin det siñiste añ eskergabekoak izango zeratela; eztet siñiztu nai alperrikakoak izango dirala zuen animaren onagatik egiten ditugun gaurko gure lan guztiak.

O nere Ama maite Maria! Zer eskeñi giñaikezu gaur gure maitetasunaren agergarritzat? Zer nai zenduke gugandik? Biotza? Nerearen jabe naiz, nerearen jabe bakarrik, eta nerea eskeiñtzen dizut zure seme Jesusentzat. Eta bestien biotzak? Ai, eztakit!... Zer egin bear dezute gaur, n. a. m. zuen biotzarekiñ? Ukatuko diozute Jaungoikoari, aterako dezute kale-
ra, kalearen erdian edozeñi eskeintzeko? Ez, Ama Maria, gaur zure Semearenak dira emen batu garanen biotz guztiak. Gastetxoak eskeñi zizuen lengo egun batean, gaur eskeintzen dizue beste guztiak. Ai, gaur bezela balirake beti Jesusentzat! Biarko naiz bildur, ta biarko eskatzen dizut begira zaiguzula errukiz, gure Ama errukiorra; lagundu zaiguzula lur onetako gure pausu ta ibillera guztietan, egin gaitzatzula eskertsuak emen, gero zurekin ta zure Seme Jesus Jaungoikoarekiñ betiko zorionekoak izan gaitezen, Amen.

CONVERTIMINI

I

Txit ona da Jaungoikoa.

Txit ona izan ezpalitz, aspaldiko urtietan ondatuak egongo giñan betiko, bada gaiztakeri andiak egin ditugu.

Gizonik geienak galdu dute siñiztea, beren biotzetatik Jaunaren bildurrak iges egin du, arrotasunaren erdian ipiñi du bakoitzak bere jarrilekua ta bakoitzak bere buruari esaten dio: «ni naiz nere Jaungoiko».

Txit errukitsua da Jaungoikoa.

Txit errukitsua izan ezpalitz, okerkerirako bakarrik gendukan bizitza kenduko zigun antziña, gure andinaiko gogamen guztien aria etengo zigun, bidegabeko Jaungoikotasunaren amesetatik aterako genduzan, illko giñan, garbiro esateko, ta onezkero inpernuko leize zuloan geunden, ondo esna.

Txit ona ta errukitsua da Jaungoikoa. Eztu nai gure betiko eriotza, ta gu galdu ezkaitezen, azken orduan zorionerako bide gozoa artu dezagun, deadarka daukagu, guraso samur bat bere umeai bezela: «*Convertimini ad me, in toto corde vestro*»: Atozte nigana biotz ta anima, bada ni naiz zuen Aita, ni naiz zuen Jaungoikoa, ta nik bakarrik eman dezakezutet egiazko Jaungoikotasuna.

II

Baiña Jaungoikoaren ontasun andiak biguntzen ezpagaitu, begiratu dezagun gure ezereztasun ta uskeria.

Ikusi ditzagun gauzak diran bezela, ez gaitezen amesetan bizi. Neurtuak daude gure egunak, gure orduak oso laburrak dira.

Zer zeran jakin nai dezu, gizona? Iñun gelditu eziñik mendian bera datorren errekatxoa, aizeak bira-biraka darabillen zugatz-ostoa, aidean bereala desegiten duan kea, eguzkiaren argiak kentzen duan goizaldeko laiñoa, itxura utsezko gauza bat bezela, oraiñ eder bazera laister itxusi izango zeran gauza, gaur lore ta bear zimaurre izateko jaioa.

Orregatik ipintzen digu Eleizak autsa gure kopetaren erdian.



Auts ori zugatz berdea izan zan, mendi gaiñean arro bizi izandako zugatz bizia; baiño illzan, erre zuten, ta oraiñ autsa da.

Zu ere, gizona, zugatz berdea izanarren, illko zera laister, ta zure ondorengoak auts-artean ikusiko dute zure autsa.

Ta eztue zure autsa zein dan ezagutuko, zergatik auts guztiak berdiñak diran.

III

Nai badezute, kristauak, benetan ta betiko andiak izatea, zoazte Jaungoikoagana; bada Jaungoikoak bakarrik jasoko zaituzte autsetik zeruraiño, Berak ezetuko du berriz zuen izate igartua, Berak emango dizute, illda gero, bigarrengo bizitza iraunkorra.

Kristauak, Jaunaren ontasun neurrigabeak bear bezela biguntzen ezipazaituzte, zuen betiko zorientasunagatik bada ere, zoazte Jaun Egille Altsuagana.

Etzaitezte itxutuak egon, etzaitezte oker bidetik *Convertimini*.

JUXTA CRUCEM

I

Ama! Ze izen bigun, gozo ta samurra dan Amaren izena! Zeiñ gogoz, zein erraz, zein berez urteten deuskun izen eder onek gure aotik!

Ama! deituten dau umetxu bildurriak bere estualdi guztietan; Ama! gazteak bere poztasuneko ordu dontsuetan; Ama! gizonak eta emakumeak, nai legorreko nekean, nai itxasoko бага ta arrisku artean dabiltzala; Ama! iaioztatik laster, Ama! eriotzako ordu larrian, sortu garean adimendun guztiok, Ama! beti.

Zegaitik? Zerren gizon danok, inok erakutsi бага, iatorriz dakigulako Ama dala izaterik on, samur da errukitsuena.

Amaren biotzean ipiñi dauz Jaungoikoak biguntasunik andienak, gozotasunik eztenak, samurtasunik samurrenak eta amaibageko errukitasunik pozgarritzkoenak.

Ama guztiak dira, bada, negarrezko ibar onetan larritasunen erdian dabiltzan gizon gizagaixoai errubagako atsegin onak emoteko iaio direan izateak.

Errukarria Amarik eztaukan gizona.

Baiña emakume danen ganetik bardinbagako emakume bat dakusku, errukitasunaren iturrian bertan mirariz sortua. Ama guztien Ama izateko Iaunak aukeratua, gizon danentzat bear diren atsegintasun ugariak biotzean daukazana, gizondurik eta neketan dagoan Jaungoikoarentzat bear dan aiña samurtasunegaz aberasturiko Ama.

Ama ori Maria da, Jaungoikoaren Ama ta gurea bere bai.

II

Ama batentzat, ze naibagea da bere semea ilten ikustea?

Ai! Esan al-leikeanik naibagerik andiena. Ta seme ori bada berez ona, zintzoa, iakintsua, maitagarri kutuna, seme bakarra?

Ai! Orduan seme orren eriotza, amarentzat, samiñik astun, zoli ta gogorrena da.



Ta seme ori bada seme ta Guraso, Esondari ta Erakusle, Argitasun da Bizitza, Gizon da Iaungoikoa?

Ai! Orduan Amaren miñ da zoritxarrak ertz, azken da neurririk eztauka.

Ta seme ori gaizkile baten irudira il badautse, lapur biren erdian, Ama beraren aurrean, bere biotza urturik emongo leuskion Ama orrek laguntasun apur bat emon ezin deusala?

Ai! Orduan Amaren negargarritasun itzala agertzeko gizonen artean miin da izkuntzarik eztago.

Bada Mariari ill dautse semea kurutzean, seme on, kutun, iakintsu, maitagarri, bakarra: Seme-Guraso, Seme-Iaungoiko, Erakusle argi zuzena; ta Maria kurutzearen oiñetan dago malkoz beterik Seme illari begira. *Juxta Crucem lacrymosa.*

Ai! Ikaragarritzko gau illun baltzak lausotu dautsaz Mariari zeru ta lurrean argi egiteko emon iakozan begi ederrak, puzoiz beterikako sube okerrak ainka egin dautsa biotz eztitsuan, pekatu dongearen olatu garra-tzak bere besoetan amaitu gura izan dau Mariaren bizitza done ta bedein-kagarria; baiña Maria ezta

lurrean gelditu iakozan semeai begiratzearen dago bizirik, negarrez, sotiñez, beastun mingotxak iruntziaz, samurtasunezko iarrilekuaren ondoan zutiñik. *Iuxta Crucem lacrymosa.*

Kristiñauak: naibage andiak beragaz dau ixil da eskutuko indarra gizonik otzena berotzeko, biotzik gogorrena biguntzeko, bururik arroe-nak makurtzeko. Naigabe sakon baten aurrean eztago gizon arrorik, bular gogorrik eztago, eztago areriorik bere; ta zeinbat eta naibage andiagoa izan, ainbat eta andiagoa da errukia.

Samiñ andi baten ondoan arro, gogor da arerio legez dagozanak, eztauke biotzik.

Kristiñauak: goazen danok kurutze donearen kerizpera, *juxta crucem*, belaunikotu gaitzen gure Amaren ondoan, errukitu daigun errukitasuna.

III

Zabal da gazia da itxasoa; Zerua bildurgarria da, aize indartsuaren soiñua ta trumoe gogorraren burrunbada entzuten dan ekatx eretiko gaberdian; ikaragarria da eriotzako ordua: baiña Mariaren illun larri ta

gazitasunen aldamenean, ezta gazia itxasoa, ezta illuna ekatx eretiko gaba, ezta larria eriotzako ordua bera.

Alan da guztiz bere; ain andi, sakon da mingarria izan da bere. Mariaren samiña baizen errukarria dakust beste samiñ bat: siñiste bageko gizonena.

Mariaren naibageak badaroa beragaz batean gozotasun apurren bat, bada naibage orregaz bere lurreko semeak zerurako irabazten ditu, ta Ama batek, semeen zorionagaitik, pozarren eroan oi ditu nekerik andie-nak; baiña siniste bagako gizonak ezin daike gerorako ezti apur bat idoro. Andi ta sakona da Mariaren oiñazea: neurri ta mugarik eztauka; baiña era berean da andi ta sakona siñisgaiztokoan illuntasun minberea, zerren dan beti-betiko illuntasun negargarria; ta betikotasunaren mugarik egundo eztau iñok billatu.

Egin daigun arren errukarri orregaitik. Eztira kurutze ondora joan-go.

Eztira Mariaren aurrean belaunikatuko.

Eztauke biotzik.

Eztauke Amarik!



SAN PEDRO

Asteasu — 99

*Ecce pono in Sion lapidem summum,
electum, probatum, pretiosum.*

(Isaias Igarlearen itzak bere liburuetako 28 garren irakurburuan,
eta A. S. Pedoren eskutizetako II garrengoan.)

N. a. m.: Munduan egia falta da, mundua egi bearrean dago. Egia zer gauza bearrekoa dan jakiteko, eztaukagu ikustea baño gizon guztiak maitatzen duela (itxura beintzat), gizon guztiak esaten duela berena dala egia. Gaistakeririk andienaren alde lan gogorrean dabiltzan gizonak, gauzarik okerrenaren alde itz egiten dutenak, beren biotza bidegabeko maitasunez ta zikinkeriz betea daukatenak, norbere gogo, uste ta iritziarekiñ aurrera ateratzeagatik egia garbiaren kontra jokutzen dutenak; lenengo gezur ondo asmatu gabea esaten duan ume koskorretik asi ta erri andietako eskola nagusietan arrotasunez beterik erakustekorik gaistoena erakusten dituzten maisuetaraño; istun eder diradenak mingañ moteldunak egundo ezer ikasi eztutenak, gizon jakintsuak, ausilariak, izkribatzalleak, goikoak eta bekoak, denak esango dizute arrotasunik andienarekiñ: «au da egia, nik esaten det egia, nerea da egia». A! Esagutzen dute denak ere, esango baluteke zuzen, beren biotzetan sentitzen duten bezela, bear bada, «au da gezurra, nerea da gezurra» ordu artan bertan galdua geldituko litzateke la beren ausia.

Bada orduan, esan genezake guk oraiñ, gizon guziak egiaren aldekoak badira, gizon guziak egia badiote, dena izango da egia lurrean? A! Ez, a. Lurrean gezur asko dabill, txit asko: gezurrak umien artean, gezurrak gizon zarren artean, gezurrak ezjakiñen artean, gezurrak jakintsuen artean ere. Gizonak, askotan, bere barruko gogamen edo pensamentua eztu dan bezela erakusten; gizonak, askotan, bere biotzeko gogo ta sentierak estaldurik agertzen ditu beste gizonen aurrean: bañan, gogorik onenarekiñ jokutzen duanean ere, gizonak berez, oso indar gutxi dauka egia billatzeko. Gogorik onenarekiñ lurbira onetako jakiturien billa dabillenean, jakituri oietako bide illunetatik zear barrura joateko, laguntasun bat bakarrik dauka, Jaungoikoak emandako argi erraño txo bat, adimen argala; ta orregatik, gizon bat bakarrik, beñere ezta lurreko jakituri guzien jabe izan, bere bizitza guzian lanean egon bada ere; ta bere arrotasun galgarri pus-

tuan Jaungoikoaren jakituria ikusi ta neurtu nai izan badu berriz, a! orduan, gizonak buruan daukan argi errañoak bere argaltasun ta ezereztasuna esagutzen lagunduko dio.

Egia zerutarra da, n. a. m., eta zeruetatik jetxi zan, ta arranoak beren kabia arkaitz gogorrean egiten duten bezela, Jaungoikoak arri gogor batean ipiñi zuan egiaren kabia. *Ecce pono*, esan zuan Berberak, Isaias Igarlaren aotik, *in Sion lapidem summum, electum, probatum, pretiosum, et qui crediderit in eum non confundetur*. Ara Nik nola ipintzen detan Siongo mendi gañean arri bat, arririk onena, neuk aukeratutako arri ederra: arri onen gañean egongo da beti egia ta beragan siñistatzen duana ezta egundaño gezurtatua izango.

Asteasutarrak: zuen *Patroi* andi S. Pedro izan zan lenengo arria, ta bere ondorengo A. Santu guztiak gero. Ikusi ditzagun gaur arri eder onen apainduri ta eskubideak, bertatik esagutu dezagun zeñ aundi ta maitagarria izan zan zuen *Patroi* A. S. Pedro, ta zeñ andi ta maitagarriak diran bere ondorengoak. Au da nere gaurko itzaldiaren gaia.

Lagun zadazute denok lanbide onetarako bear detan argia zerutik jaristen, gure Ama Maria txit santari, oitura dan bezela *Agur Maria* esanaz.

Ecce pono in Sion, etc.

Egi-arriaren lenengo apainduria da, n. a. m., gauzarik andiena izatea: *Ecce pono in Sion lapidem summum*, ara emen nola ipintzen detan Siongo mendi gañean arririk andiena, dio I. Igarleak. Eta benetan, zein da lurrean Aita Santua beste? Iñortxo ere ez. Andiak dira lurreko erregeak, eztegu nai ukatu, eskubide luzeak dauzkate: beren izenean egiten dira errezumetako legeak, beren eskuetan dauzkate katigutegietako giltzak, beren eskuetan egon oi da gizon askoren ondasuna, ta baita ere, askotan gizonen bizitza bera; baño milla aldiz andiagoak dira A. Santuaren eskubideak: berak erakusten dute zer ta nolatan dan Jaungoikoaren egiazko legea, bere eskuetan dauzka zeruetako ate zabal pozgarrietako giltzak, bere eskuetan dauka gizonen animako ondasuna, gizonen betiko zoriona, ta baita ere gizonen betiko zoritxar negargarria. Munduko erregeak lurreko gauzai, gau illunean, argi apur bat ematen dioten illargia bezela dira; ta A. Santua Jaungoikoaren irudira sortutako animai zerurako bidean argi egiten dioten eguskia bezela. Eskubide guztiak Jaungoikoarenak dira, ta Jesus Jaungoikoak eman zizkan S. Pedro lenengo A. Santuari erregeai baño askozas andiagoak, Jesusen esan zion *Tu es Petrus* milla bidar entzun dezuten bezela, «zu zera arria ta zure gañean egingo det Nik nere Eleiza egiazkoa»; ta orregatik A. Santuaren mendekoak dira gaur beste kristandadeko aginpi-de guziak. Orregatik Kalzedoniako Batzar santuak Erromako Eleizari



deitzen dio *caput omnium ecclesiarum*, munduko eleiza guztien burua; Nizea-ko lenengo Batzarrak erakusten du, gañera, Erromako Eleiza eleiza guzien buru ta nagusi dan bezela, Erromako A. Santua dala mundu guziko Artzai edo Obispoa, Apaizik andiena, Eleiza gustiko gurasoa, *universalis episcopus sumus Pontifex, Ecclesiae pater*; eta Justiniano errege nagusiak esan zuan: ezta inortxo ere lurrean eleizgizon nagusiaren egolekua Erroma dala esagutzen eztuanik: *nemo est qui dubitet Summi Pontificatus apicem apud Roman esse*. Orregatik ere Eleiza Santuko batzar guztien Erromako Aita Santua izan da aurrenengo buru bezela jarri dana ta nagusi; ta berak dauka Artzai berriak egiteko ta sinistea ukatzen duenak edo okertu nai duenak eleizatik kanpora ateratzeko eskubidea; orregatik S. Atanasio, S. Pedro Alejandrino, S. Marzelo, S. Krisostomo, Teodoreto eta beste lenengo eunkidetako Artzai, Apespiko edo Obispoetatik asi ta gaur arteraño-koak beti joan izan dira Erromako A. Santuagana argi eske ta beren artaldietako berriak ematera, bada an Erroman dago Pedoren ondorengo, Sion mendiko arririk nagusiena. *Ecce pono in Sion lapidem summum*.

Ta eztezazutela uste izan gaurkoa dala nagusitasun au: gizaldi guztien edonork esagutu duana da, jauregi aberatsetan urte-zillarrez jantzirik bizi diraden erregetatik asi ta gizonik argal umill ta beartsuenetaraño. Juan Aita Santua Konstantinopla deritzaion urira joan zanean, Justino Goierregeak erri guztiko gizartearekiñ erten zion bidera, auspestu zan umilki-ro A. Santuaren aurrean, utzi zuan alde batera bere urrezko erregezigo-rra, kendu zituan bere agintaritzako jantzi ederrak, ta A.

Santuari erregutu zion jantzi zaiozkala berriro bere eskuekiñ, bada orrela izango zala bene benetako agintari ta errege. Eleizako istori edo kondairetan irakurtzen degu gañera Justiniano Goierregeak erri guztien aurrean muñ egin ziola oñetan Konstantino A. Santuari, Franziko Karlos andiak Adrianori, Pipinok Estebani, eta orrela beste asko eta askok, munduaren aurrean erakusten zuela denak Pedoren ondorengoai zor zitzaion eta gordetzen zioten begirune andia. Ta orduko egunetatik gaurkoetaraño au bera gertatu izan da beti; eta gaur danean bertan, egun txarretan bizi bagera ere, irakurri edo entzun dituzue lurraren alderdi guztietatik zein ezkeintza ederrak eraman diran Erromara Leon XIII garrenaren urrezko eztaietan: neuk nere begiakin ikusi ditut ez gutxi, errege ta lenendariak emanak batzuek, beste batzuek gizon beartzuen gogo edo borondate onak eskeñiak: neuk nere begiakiñ ikusi ditut millaka ta millaka gañera, Erresuma, Dierri edo *Nazio* askotako langilleak nekazariak, gizon aberats ta argitsuak, lege jakiñak, apaizak eta Apespikoak Pedoren ondorengoaren oñetan auspeztzen zirala, ta arpegi askotatik bera malko

ugariak erortzen ziradela Leon XIII garrenaren oña mun egitean oso samurturik. *Ecce pono in Sion lapidem summum* esan zuan Jaungoikoak, ezta go lurrean egia-ria baño gauza andiagorik, Pedro izan zan lenengo ta bere ondorengoak dira gero agintaritzat andi ta maitagarrieneko gizonak.

2. *Ecce pono in Sion lapidem summum... electum*, jarraitzen du Isaias Igarleak. *Electum*, a., ezta bakarrik arririk andiena, da gañera arri aukeratua. Jaungoikoak aukeratu zuan Pedro Eleizaren arritzat bere siñiste sendo ta egiazko maitetasun sutsuagatik. Iru bidarrez galdetu zion Jesussek Pedrori: *¿Amas me plus quam istos?* Beste zure lagunak baño geiago maitatzen nazu? Ta Pedrok, «bai Jauna, erantzun zion, Zuk dakizu ondo maitatzen zaitutana, bada ikusten dezu nere anima, ikusten dezu nere biotz maitalea». *Tu scis quia amo te*. Ta orduan Kristok eman zion Pedrori animak zaintzeko bear dan eskubide ta jakituria; ta jakituri orrekin irabazi zituan Pedrok, bere lenengo itzaldian, bost milla anima Jesusentzat; jakituri orrekiñ eraman zuan zuzenbidetik zeruetako ataira Kristoren artalde bedeinkatua; jakituri orrekiñ argi egiten dute Lurbira guztian Pedoren ondorengoak; jakituri ori esagutzen dute Kristoren etsaiak berak ere, ta beren eztabaida larrietan Erromara joan oi dira erabaki on baten billa, oraindik urte gutxi dala guk denok ikusi degun bezela. Jaungoikoak aukeratu zuan gañera Pedro bere apaltasunagatik, eta bere santutasunagatik. Apaltasuna, n.a., bear bearreko birtutea da; baña agintzen dutenen artean, onbide edo birtute eder ori oso gutsik gordetzen dute, ta kontrara agintari asko ikusiko dituzue arrotasunez jantzirik, bada goialdietako aizeak gizonen buruak txoratzeko indar andiak dituzte, ta zenbat eta gorago dagoan gizona aibat eta arroago ikusi oida geienetan. Orregatik, Aita santu berri bat izendatzen danean, bere aurrean erretzen zaio mullo edo estopa zatitxo bat, onela esanaz: *Pater sancte, sic transit gloria mundi*: Aita Santua, emen egiten degun su au bereala amaitzen dan bezela, bereala amaitzen da lur onetako andi izatea; eta Letrango eleiza ederrera eramaten duenenan, berriz esaten zaio: *suscitant de pulvere egenum; et de stercore érigens pauperem*; autsetik dator gizona, zima-ur piska batetik jaiotzen da. Eta onela, apaltasuna ondo ikasita gero, gizona berez ezertxo ere ezta ikasita gero, igotzen da bere jarrilekura, ez bere buruari arrokeriz begiratzeko, ezpada kristandadearen onerako, Jesusen ebangelio santua lurraren azkenengo mugetaraño zabalatzeko, gizon guztiai guraso baten maitetasun samurrearekiñ begiratzeko; eta orregatik, berak egiten dituan izkira guztietan, A Santua deitzen da *servus servorum Dei*, Jaungoiko santuak dauzkan Serbitzarien Serbitzaria.

Umiltasun orregatik izan da A. Santua umillen adiskide, apaltasun ortatik sortu dira lurrean ainbeste ondasun, ainbeste eritegi, ainbeste ikas-



tetxe, A. Santuan eregi dituan ainbeste jakituriko iturri, eta ala A. Santuari deitu izan zaio kondairetan *pater pauperum*, beartsuen Aita.

Gañera, beste bide bat ere badaukagu A. S. Pedro ta bere ondoren-goak Jaungoikoak aukeratutako gizonak dirala esagutzeko, eta da beren santutasuna. Badakizute, n. a. m., zenbat martiri izan diran Pedroren oñekoetan? Irurogeta amabi, irurogeta amabi A. Santuk eman due bere bizitza fedeagatik, eta fedetsaien eskuetan ill eztiran beste asko dauzkagu gure eleizetako altaretan. Esagutzen dezute ainbeste Santu eman dituen beste izate gisa bat? Bada egia andiarekiñ deadar egin genezake: *Ecce in Sion lapidem electum*: ara Sion mendi gañean Jaungoikoak aukeratutako arri egiazkoa.

3. *Ecce in Sion lapidem sumum, electum... probatum* jarraitzen du Isaiasek. *Probatum!* Nork esan lezakez ondo ta garbi Pedroren jarrileku ta eskubideak izan dituan samiñ, naigabe ta eramankisunak? An daude Erroman *katakunba* edo lurraspiko bide ta bizileku illun tristeak beren iskuntz ixillarekiñ naikua asko ta naikoa garbi itz egiten dutela; an daude Pedroren katigutegia ta bera lotuta iduki zuan kateak; an dago Koliseoko enparantzaz biribill zabala, ainbeste santuren odolarekin busti izan zan enparantza oroikarria; bizi dira kondairetako liburuetan izen batzuk, madarikatzeko bada ere bizi dire Kaligula, Neron, Domiziano, Marko Aurelio, Septimino Sebero, Maximiano ta Dioklezianoren izenak; jakiña da Simon Magotik asita gerora Montanotarrak, Manikeotarrak, Donatistak; Arriotarrak, Pelajo, Nestorio ta Eutiokioren jarraitzalleak, eta gaurko Protestantieta-raño beste milla gezurzalek zenbat estutu ta larritu duen Pedroren jarrilekua; baiña baita ere jakiña da Arriotar erregietatik asi ta Inglaterrako Enrique VIII garreneraiño, ta ordutik gaur arteko agintari guztiai ere bai, kateakiñ lotutzen duenean bezela bigun ta eztitsu itz egiten diotenean, Erromako A. Santuak gezurraren aurrean beti berdinkiro esaten duala: *non possumus!* ezin geinkez gezurrarekiñ *konpondu*: gezurra beti da gezur, oraiñ milla urte bezela gaur ere, gaur bezela emendik milla urtera ere: egia naiz, zerutarra naiz, ezin neike jira-biratu: *non possumus*.

Ezin *neinke* esate onek samiñ andiak ekartzen *diozka* eleizari, naigabe asko ematen dizka, estutzen du ta larritzen du sarriro; baina beren etsai guztiak bat eginda eztute garaituko eleiza, *non praevalerunt*. Ez, Eleizaren etsaiak, jaso zazute Satanasen gezurrezko bandera beltza zuen alizate guztiarekiñ; baña zuen alizatea gizon zirzillarena da, eta zein da gizona Jaungoikoaren aurrean? Emeretzi eunkida igaro dira Erromako arri gañean jasota dagola beste bandera bat, bandera zuri, eder, garbi, egiazko, zerutarra: bandera onen ondoan inguratutik bizi gera egiazko kristauak, ban-

dera onekiñ estaldurik, gezurraren kontra gerran nai degu gure A. Santuarekin batera esanaz: *non possumus*.

4. *Ecce in Sion lapidem summum, electum, probatum... praetiosum*, dio oraindik Isaiasek A. S. Pedrorekin batera. *Pretiosum*, au da, txit eder ta maitagarria. Zer dago gauza ederragorik egia baño? Zer gauza maitagarriagorik? Asieran esan det gizon guztiak maitatzen dutela ta geiago esango dizuet orain: Jaungoikoak Berak maitatzen duala. Erromako arri santuan dago egia, ta egi utza dan Jaungoikoak maitatatzen du ta indar ematen dio. Orregatik bizi da aiñ luzaroko urtietan, orregatik biziko da beti; bada Jaungoiko laguntzallea ezta beñere illko. Bizi izan ziran nolabaitean beste eleiza batzuk ere Erromakoaren mendetik ertendakoak; baño laster ondatu ziran guztiak Jaungoikoaren maitetasun ta laguntasunik etzutelako. Ta nola maitatuko eztu, nola indartuko eztu Pedroren jarrilekua zerutik lurrera gizona salbatzeagatik jetxi zan Jaungoikoak, Pedroren jarrilekua bada J. Berak egiarentzat egin zuan kabi gozoa, Bere egia zerutarra lurrean gordetzeko kutxa ederra. Ta nola izango ezta maitagarria zeruetako *dotrina* garbi zuzen Jaungoikozkoa gorde ta erakusten duan izatea?

Ipiñi zazute, n. a., arreta piskatxo bat Eleizak daukan erakuste añ era oneko au esagutzeko Erakusten due lurreko maisuak ere beren jakituri apurra, mundu zabalean dauden eskola nagusietan; baño sarritan izan oi da erakusten duten guzia beren buruko irudipen bat bakarrik, jakituriako bidietan dauden illuntasun ta lauso tartean ondo ikusten eztutelako, gizonaren adimeneko indarrak oso laburrak diralako, edo baita ere askotan norbere aldeko gezurra indartu nai izaten dalako, ta beste aldetik erakusten ditu Eleizak, ez gizonen usteak, iritziak, ezpada zeruetako dotriña ta egirik miragarritzkoenak, beti garbiro ta zuzen, bere erakutzietan beñere utzik egin gabe. Zergatik orrela? Zergatik Jaungoikoaren esana erakusten duan, ta Jaungoikoa beti da egia. Ta erakuste au nai ta naiezkoa da. Lurrean siñisterik izango bada, sentiera onik izango bada, agente onik izango bada, nai ta naiez bear da gizonen gañetiko agente jakintsu zuzen bat, Jaungoikoarena. Ta Jaungoikoaren izenean erakusten dute Pedroren ondorengoak, bada Pedrori eman zion Jesusek eskubide ori. Pedrori bakarrik esan zion Jesusek: *Pasce agnos meos, pasce oves meas*. Pedrori bakarrik esan zion Jesusek: *ego autem rogavi pro te ut non deficiat fides tua*. Pedrori bakarrik esan zion: *ego dico tibi quia tu es Petrus et super banc Petram aedificabo ecclesiam meam*. Egiaren kabi bat egin nai det lurrean, eleiza bat jaso nai det, eta nik, Jaungoikoak, egiten zaitu Eleiza onen arri. Orregatik Eleizak erakutzi izan du beti egia, ta fedeko gauza da gaur, Aita Santuak bere jarrile-



ku santutik gure siñiste edo oituren gañean itz egiten duanean egia zuze-na erakusten duala beti. *Ecce pono in Sion lapidem praetiosum.*

Ikusi degu, bada, n. a., nolatan dan Pedroren jarrilekua arririk andie-na, Jaupak aukeratua, naigabez betea ta oso maitagarria. (Relacionar esto con la proposición) (Baña... (si se quiere)...

Baña A. Santua lurreko izaterik andiena ta maitagarriena bada ere, bere buru gaiñean iru *koroe* dauzkan gizona bada ere, A. Santua beartsu bizi da ta eztauka bere semien borondateak ematen diotena baño beste ondasunik. Orregatik *Euskal-Erriko* Artzai jaunak agintzen du urteoro, gaurko egunean A. Santuaren alde egiteko eske bat, ta dakitalako seme onak zeratela ez naiz lotzatzen zueri ere eskari ori egiten: Asteasutar mai-teak, *limosnatxo* bat A. Santuarentzat. Badakit, gogoa euki arren, ezingo dezutena denok dirurik eman; baiña denok eman dezakezute zerbait, eta dirua eman ezin duanak esan dezala *Aita gurea* bat eleizaren alde!

Orañ bada, n. a. m., munduan egia falta bada, mundua egi bearrean badago, goazen denok Pedroren jarrilekura egiaren billa, Pedroren ondo-rengoak ematen dituan erakutziak entzun ta ikasi ditzagun. Bene benetan bagera egizaleak, gezur beltzaren mendean nai ezpadegu bizi; siñistatu ditzagun Eleizaren esanak, bada orrela biziko gera egi argitan, ta ezkera Jaungoikoaren aurrean gezurtatuak izango. *Qui credierit in eum non confun-detur.*

O n. kristauak! Kabi baten jaioak gera denok, Jaungoikoak Pedro arritzat arturik egin zuan kabian: ez gaitezen kabi ortatik urrutira egatu, bada bertatik kanpora illuntasun galgarria ta gezurra besterik eztabill. Eleizaren egia santuarekiñ janaritu izan gera beti: ez gaitezen, bada, jana-ri au gabe anima goseak iltzeko zorian gelditu. Eleizaren Sakramentu san-tuekiñ indartu izan gera beti; Eleiza onetako Sakramentu santu ta bedein-kaera gozoak artuaz il bear degu. Guraso on bat daukagu, guraso jakintsu bat, guraso zar beneragarri bat daukagu denok: maita dezagun, lagundu zaiogun al degun bezela, erregutu dezagun biziro Eleizak garaitu ditzan bere etsai guztiak, bizi gaitezen etxadi on bateko semeak bezela gurasoa-ren agindupean. Eta iñoiz, seme galduaren irudira, norbaitek gaistakeria-ko bidetatik zear etxetik alde egin badu, datorrela berriz bere kabira, bada besoak zabalik artuko du gurasoak. Atozte, n. a., atozte Jaungoikoak egindako kabi gozora, eta etzaitezte egundaño geiago bertatik erten.

O A. S. Pedro, zeruetan gloriáz beterik zaudena! Zu ta zure ondo-rengoak bakarrik esagutzen ditugu egiaren erakusletzat. Zure kontra dabilzan guztiak gezurretan dabiltz, Zu beraganatu nai zaituan gaistake-ria itxuturik dago, bada eztu ikusten gezurra ta egia ezin litezkeala kabi

batean bizi. Eman eiguzu, Jauna, siñiste bizi bat, zure siñistea bezelakoa, lagundu zaiguzu gure lurreko pausu guztietan; egin zazu ezkaitzala erio-tzak bere beso otzetan eztutu gezurraren edo gaistakeriaren mendean gaudela, egin zazu gure azken orduan utzi dezagula gure anima Jaungoi-koaren beso bigunetan. A. S. P. Eleizaren egiazko arri santu, andi, eder ta maitagarria. Izan zaite gure guraso, eraman gaitzatzu zeruetako jarrile-kuetara, zurekiñ bizi gaitezen, beti doatsu ta zorioneko, guziori opa dizue-tan bezela. Amen.



MISA NUEVA

(Zarautz)

Sicut misit me Pater, et ego mitto vos.

Ni nire Aitak biraldu ninduan bezela biraltzen zaituztet nik.

(San Joanen ebanjelioko XX buru

ta 21 garren bersotik artutako itzak)

N. a. m.: Mundu zabalean egia falta da, mundu errukarria egia bearran dago. Jakiñ nai badezute zeñ bearra dan lurlean egia ederra, eztaukazute ikustea baño gizon guztiak maitatzen duela, itxuran beintzat, gizon guztiak esaten dutela berena dala egia. Deserrazoirik andien alde dabilenak, gauzarik okerrera *defenditzen* dutenak; bere biotza bide gabeko maitasunez gañezka daukan gizonak; nor bere iritziarekin ateratziagatik egi guztiaren kontra jokutzen duan gizonak; lenengo gezur ondo asmatu gabea esaten duan ume koskorretik asi, ta eskola nagusietan panparroike-riz beterik beren dotriña gaistoak erakusten dituen maisuetaraño; istun-eder diranak, gizon jakintsuak, auslariak, eskribatzalleak; goikoak eta bekuak, denak esango dizute arrotasunik andienan: «au da egia, nik esan det egia, nerea da egia». A! Esagutzen dute, esango baluteke, bere biotzetan sentitzen duten gisa menturaz: «nik esaten det gezurra, nerea da gezurra», beren ausia berialasen galduta geldituko litzatekeala.

Bada orduan esan genezake gizon guztiak egiaren aldekoak badira, gizon guztiak egia badiote, dena izango da egia munduan? A!, ez, a. Munduan gezur asko da, txit asko: gezurrak dira umien artian, gezurrak ezjakiñen artean, gezurrak jakintsuen artean ere. Gizonak, askotan, eztu erakusten dan bezela bere adimeneko pensakizuna: gizonak, askotan, bere biotzeko sentierak estalduak agertzen ditu beste lagun ta esagunen artean; baño borondaterik onenarekiñ jokutzen duanian ere, berez, indar gutxi dauka beti egia akiatzeko (billatzeko). Borondaterik onenarekiñ mundu onetako jakiturien billa dabillenean, jakituri oietako bide illunetatik barrura juateko, bakar bakarrik dauka laguntzat Jaungoikoak emandako argi errañotxo bat, arrazoi argala; eta orregatik batek bakarrik, lurreko jakituri guztiak beñere akiatzen ez ditu, bere bizitza guztian lanian badago ere; eta bere arrotasun galgarri justuan Jaungoikoaren doktrina santuko barrunde, eskutapen edo *misterioak* ikusi nai baditu berriz; a! orduan

sakontasun aien aldemenean bere arrazoi argalaren argiak lagunduko dio gizonari bere zirziltasun ta izereza esagutzeko bakarrik.

Orregatik ainbeste bidar begitandu zaizka gizonari eztiran gauzak; orregatik mundu onetan erakusle edo maisutzat egon diran jente askok erakutzi dituzte gezurrak egi eder maitagarriaren jaskerarekiñ apainduta; orregatik izaten dira askotan errukarri lurreko jenteak.

Baña ez orregatik bakarrik, egia osua esateko. Baita ere dira doaikabeak griñas josia daukatelako beren anima egia jakin da ere, erresegi juaten diralako okerreko bidera, eta negarrezko lekuan bizi geralako guztioak lurlean gauden bitartean. Eta emen esan gentzake egia bearran bezela erruki bearran dagola gizona. Nun billatuko du, bada, lurtarrak egia benetakoa? Jaungoikoagan, bera dalako egia, egia utza, egia bakarra. Nork erakutziko dio gizonari egia zuzen zuzena? Eleiz gizonak, Jaungoikoak orretarako aukeratu duan apaizak. Eta nork errukituko du bere argaltasunetan, nork legortuko ditu bere malkoak? Eleizgizonak, Jaungoikoak orretarako aukeratu duan apaizak.

Ara emen agerturik nere gaurko itzaldiaren gaia. Lenago itz egiña naiz, erri onetan bertan, *apaizen* andi-izatearen gañean, eta gañera, oraindik denbora asko eztala izan dituzuen mesa berrietan adituko zinduzten eleiz gizonak dauzkaten eskubide berdingabeak, nik esanezakean baño milla bidar obeto. Orregatik billatu nai izan det gai berri bat, eta au da zueri agertzea «apaizak bakarrik dirala Jaunak aukeratuak egia zuzena erakusteko eta munduko doaikabetasunak errukitzeko».

Lagun zadazue guztiok zeruetatik jaristen onetarako bear detan grazia, esanaz dendenok zeruetako erregiñ bedeinkatu ta gure ama maiteari, oitura dan bezela, *Abe Maria* bana.

Sicut misit, etc.

Munduaren asierako lenengo egunetatik bazan egia lurlean, Jaun Egilleak gizonaren biotzean aukerazko kabi baten bezela sortu zuana; baño gizonak bere eskergabetasunagatik galdu zuan egia ta zerurako bidea, ta gezurraren laño beltz galgarriak estali zuan mundu guztia.— Eta orduan, gure Jaun eta Jaungoiko gauza danen guraso ta Aitak, argitasun utsa ta egia betikoa danak, biraldu zigun lurrera bere seme laztan Jesus, gau illunaren ondorean eguski garbi ta alaia biraltzen digun bezela. Etorri zitzaigun Jesus zeru gozoetatik lur negargarritzko onetaraño, erakusteko bear diran egokitasun guztiekiñ jantzia: bada ekarri zuan, Egillea zan alde-tik, gauza guztien esaguera benetakua (zerren Egilleak baño obeto ez ditu iñork sortutako gauzak esagutzen); jakituria bera zan aldetik, erakutzirik jakintsuenak; Maitale ta errukior zan aldetik, agindu edo mandamenturik



bigun ta samurrenak. Zeruko eguski onek munduko gezur laño guztiak kendu zituan: ibilli zan erririk erri zer zan egia erakusten; eta lurtarrak entzun zuen berriro Jesusen aotik zeruko soñu pozgarrien oiarzun eder bat bezela Jaungoikoaren erakutzia ta egia bedeinkatua.

Eta bere jakituri neurrigabea esaguturik au etzala asko egia iraunkor egiteko, agindu zuan jarri zedilla egia ori liburu batean; ta bere ikasle batzuek, Jaunaren laguntasunarekin, egin zuten liburu bat, nun billatzen degun guztiok zeruko dotriña, jakituri guztien asiera, egia guztien kutxa, edertasun guztien jatorria, animako ondasun guztien gordelekua, esperantza guztien iturburua. Liburu orri deitzen diote *Ebangelia*. Ara or dagoen egiazko liburuaren jatorria.

Baña etzan naikua Jesusek egiak erakustea ta liburuetan jartzea egia oiek. Eztago munduan diadar edo oi bat beti iraungo duanik: oiurik andienaren oiarzuna piskaka piskaka amaitzen da betiko, eta liburuak berriz eztaizki edozeñek irakurtzen, edo irakurtzen dituen guztiak ezta-kite beren pensamentu sakon ta mamia aukeratzen bear bezela.

Bear zan bada norbait lurrean gordeko zuana zintzoro Jaunak eman-dako egia, esnatuko zituana, errian ta basoan, ibar zakonean ta mendi ton-torraren gañean Jesusek pekatariak egindako diadar santuen oiarzun gozoak; eta orretarako aukeratu zituan gizon batzuk eta esan zien: *sicut misit me Pater, et ego mitto vos: euntes ...* Ni zeruko Aitak biraldu ninduan bezela... zoazte erririk erri ta erakutzi zazute egia. Orduan sortu Eleiza santa.

Ta Eleiza onek bere txandan aukeratzen ditu gasten birtutetsuaren artean gizonik onenak, batzuk amaitzen diranerako bestea, zabaltzen ditu munduaren alderdi guztietara, ta esaten die Jesusek bere lenengo ikasleak bezela: *Ite, docete omnes gentes*: zoazte bakoitza toki batera ta erakutzi zazute an zenbat sor dioten jenteak beren Egilleari, nola maitatu bear duten Jaungoikoa, nola bete bear dituzten bere agindu santuak: erakutzi zaiezute egia aberatsai ta pobriak, jakintsuak ta ezjakiñak, agintariak ta mendekoak, toki orretan bizi diran jente guztiak: *docete omnes gentes*.

Ara or nundik datorren apaiz jaunak daukaten erakusteko eskubidea, ara zergatik erakusten duen emeretzi eunkida onetan munduaren alderdi guztietan, ara zergatik erakusten dioten dotriña umetxoak, ara zergatik itz egiten dizuten jaiero zuen artsak jaunak; ara zergatik inguratzen dituzuen gure erakustokiak, gure *pulpitoak*, ara zergatik aditzen dituzuten poz-pozik gure itzaldia: Denok dakizute gure erakutzia eztala gurea, ezpada Jaungoiko Santu zeru ta lurraren Egillearena, munduaren osasunerako zerue-tatik ekarria: denok dakizute eskerala gu beste gauzarik Jesusen egia-entzat aukeratutako zabalbide batzuk baño; beste gauzarik Eleizak eman

digun egia aotik aora erakusten degun gizon batzuek mundua mundu dan artean Eleizak gordetzen duan ta gordeko duan egia erakutziko deguna

A! Nik eta ni bezelako beste eleiz gizon batzuk erakutziko bagin-duzke pulpitoetan norbere gogoramenak bakarrik, arrazoi andiarekin esango zenduteke, aditzalleak: Zeñ zera zu neri ezer erakusteko? Noiz ta nun izan zera zu ni baño geiago edo ni beste jakituriako gauzetan? Baña Jaungoikoaren mandataria bagera ta Jaun zerukoaren egia bakarrik erakusten badegu, erantzun genezake bereala: «ez eman neri arpegi, adiski-dea; ez asi nere kontra; jarri zaite, al badezu, Jaungoiko santuaren aurrez aurre ta esan zaiozu bera baño jakintsuago zerala ta berak baño obeto dakizkizula zeruko bideak». Eta munduan gizon arro asko ta asko badira ere, eztet uste orrenbeste panparroikeriakin itz egin lezakean gizonik dagoanik; edo iñor baldin bada, galduta dauka bere burua, eta txoroen bil-durrik eztauka Eleizak.

Beraz emendik ikusten danez gizona ezin leiteke izan, berez bere argiarekin bakarrik, beste gizonen gidari, erakusle edo maisu? Ai, ez, n. a. ez! Gizonak eztauka orretarako eskubiderik; eta gañera, esagutzen degu-nian gure adimenaren argaltasuna, esagutzen degunean añ erraz juaten dana okerbideetik aurrera ta aurrera, egiazko bidetik balioa bezelaxen; ta beste aldetik ikustean gure borondate gaistoa, añ gogor eskudatzen duan borondatea norberari ondo datorkion gezurra; aitortu bear degu gizonak eziñ dezakela erakutzi uts egiteko bildur gabe Jaungoikoagandik datorren erakutzia ezpada, ta ori Jaungoikoak berak eskubidea ta laguntasuna emanda. Munduan siñisterik izango bada, gogoera onik izango bada, agindu onik izango bada, nai ta nai ez biar da gizonen gañetiko aginde jakintsu ta on bat; eta orregatik Lurreko erri guztietan esagutu due beti lege guztien jatorri bat, Jaungoikoaren legia, ta erakusle guztien erakusle bat, Jaungoikua berbera.

Orregatik Jaungoikoaren izenian itz egiten degun apaizak, Jesusen dotriña erakustean, erakusten degu egia zuzen-zuzena.

Eta ori da, apaiz berri lagun maitea, zuk emedik aurrera egingo dituzun gauza andietatik bat. Gaurtik aurrera, Jaungoikotu baziña bezela, S. Dionisioren izkuntzan esateko, egingo dezu altara orretan mirari andi bat, zeruko aingeruak, zeruko erregiñak berak eziñ dezakean miraria, munduko izkuntzarekin eziñ esan dezakegun izugarrizko miraria; bada, itz batzuek esanaz bakarrik, ekarriko dezu zure eskuetara zeru-lurren jabe andi, maitagarri ta milla bidar santua; artuko dezu gero janarizat Jaungoikoa bera: ta berak indartuko zaitu, berak erakutziko dizu egia gaur dakizun baño ere obeto, gaur maitatzen dezun baño ere geiago maitetu



dezazun; ta egia zabalduko dezu gero zabiltzan toki guztietan Jaungoiko egiazkoaren izenean, ezjakiñaren adimentua argitzen dezula ta jakintsuari esaten diozula jakituri guztien asiera dala Jaungoikoaren bildur santua.

Eta biarko dezu Jaun zerukoak altara orretan emango dizun indarra zure bizitza guztian egia gozoaren bandera zuri ederra jasotzeko, Ai! Asko dira gaur dan egunian gezurraren bandera beltza inguratzen dutenak, eta asko izango dira zure etsaiak. Etsaiak billatuko dituzu erri andietako kalietan, ta etsaiak erri txikitxoetan ere; zure kontra ta Jaungoikoaren kontra madarikaziorik naskagarrienak esango dituzten etsaiak; arpegiz arpegi, bear bada, lotsagabekeririk andienak esango dizkitsuenak. Oraindik denbora asko ezjala, eginkizun batera jua biarran, sartu nintzan burni bide bateko burdi edo kotxean, barruan zeudenai egun onak emanaz. Iru gizon ziran, erdaldunak, eta etzuten erantzuerarik izan nere egun onarentzat; baña batek, betosko illuna ipiñita, begirada gaisto bat eman da gero, esan zuan beste aldera jiratuz: «noiz amaituko ete dira apaiz abek munduan»? Ez nuan nik ezertxo ere erantzun, baña bai nere barruan pensatu: noiz amaituko geran? Munduan egirik biar eztan egunian, munduan eleizarik bear eztanean, munduan pobrerik eztagoanean, malkorik eztanean, gai-xorik eta eriotzarik eztanean. Orduan amaituko dira apaizak (abadeak); eta au da esatea beste eztirala egundaino amaituko, negarrak, sotiñak, mal-koak, pobriak, gaisoak, eriotzak eta gezurrak beñere amaituko eztiralako.

Baña guazen itzaldi onen bigarren zatira: ikusi dezagun nola dan apaiza munduko doekabetasunen errukitzallea. Jesukristoren eskolakua da, ta eskola orretan ikasi du gezurraren alde dabilzan gizon gaistoak errukitzen, gezurra gorrotetzeari utzi gabe. Jesukristo gure maisuak, kurutze baten iltzen zegoala, Aita zerukoari bere iltzalle borrero amorrotuagatik erregutu zion, kurutze gañetik esanaz: *Pater, dimitte illis quia nesciunt quid faciunt*. Eta Jesusen eskolako apaizak Jesusen emandako eskubidearen bitartez gizonaren onerako egunero erregutzen du bere etsaiakgatik, eskeintzen dio altaran, egunero Aita Jaungoikori bere Seme Jaungoikoak onela esaten diola: «artu zazu, Jauna, eskeintza berdingabeko au, lenagoko gisaldietan Abel, Abraan ta Melkisedekena bezela, munduko gaistakeri guztien parkaziorako».

Bai, n. a. Gizon guztiai begiratzan die apaizak Jaungoikoaren irudiak bezela, danak errukitzen ditu ta danak zeruratzea nai du: ori da bere sentiera biguna, ori da bere gogo benetakua, ta gogo orren indarrak eramanda ikusiko dezute apaiza karidadezko batzar guztietan aurrena, ikusiko dezute, laguntzen gizon kristauari jaiotzatik eriotzako orduraino, ikusiko dezute sarri bere espāñetan maitasunezko itzik bigunenak dituala, Jesu-

kristorekiñ batera esaten: «zorionekoak dirala pobriak, zergatik berentzako dan zeruetako gozotasuna».

Eta nola daukan Jaunak gizonaren onerako emanda, eskubide andi ta ongarri bat, lurreko pekatu ta gaistakeri guztiak parkatzeko, nai du apaizak eskubide onen birtute ta gozotasun guztia gizon pekatariaren alde ipiñi, ta jartzen da autortoki edo konfesonarioan, ta an artzen ditu egiazko errukiarekiñ, aita on batek bere etxadiko semiak bezela, errenka dabilzan ardi guztiak, garbitzen ditu denak, sendatzen ditu, ta ematen die animako osasuna ta pekatu guztien parkazioa. «Nik barkatzen dizkitzut, esaten die egiazko errukitasunarekin, nik barkatzen dizkitzut zure gaistakeri guztiak Aitarean, Semiaren ta Espiritu Santuaren izenean». Eta apaiz jaunak itz abek esatearekiñ batera jaikitzen da pekataria biotzaren erdian pake gozo bat duala ta birtuteko bideak dakizkiala, jarraitu 'nai baditu. Zuek dakizute ondo egia esaten detala, n. a. m. A! Zenbat bidar paketu ta poztu zerate zuek autortokian! Zenbat bidar billatu dezute garbitoki santu orretan gidari zuzen bat eta guraso errukior bat! Ta nola ez apaiza bada Jaungoiko errukitsuaren liburuan ikasten duan gizona, arako ardi galdu baten billa, mendirik mendi, txararik txara, ta basorik baso ebilli zan artsai onaren eskolakua? (Bai, zuek ondo dakizue apaiz jauna errukitsua dana, baña ez dakizuten gauza da zenbat poz, zenbat atsegiñ, zenbat estitasun izaten duan gizon orrek bere biotzean Jesusen odolarekiñ irabazitako ardi galdu bat zuzen bidera ekartzen duanian!)

Eztauka apaiz on batek gogo sutsuagorik Jesusentzat animak irabastea baño, ta gogo bedeinkatu orrek eta gizonaganako errukiak eramaten du eri edo gaixoaren etxera, noiz nai, egunez edo gabaz, biar dan orduan, ordurik estuenean bere itz bigun, parkamen gozo ta laguntasun onarekin munduari agur egin biar dion gaisoa itxaropen edo esperantzaz betetzen duala; gizonaganako maitetasun ta errukiak eramaten du edozeñegana, baita ere kate artian iltzeko daukaten gizona gaizkilleagana.

An dago (egoten da) katez lotuta gela estu ta illun batean eriotzako erabaki edo sententzia irakurri dioten gizon erallia, azkenengo orduaren zai. Gastea da oraindik, askotan edo sasoikoa, edo gizon gordiña: urte askoko bizia zeukala esan zeitekean, baña legeak erabaki du ill dedilla beste gaizkilleak ajola ta bildurra izan dezaten. Orduaren zai dago, ta entzuten dituan ots, zarata ta oi guztiak itz bat bakarra esaten diote: *eriotza*. «Eriotza» esaten diote urrutietatik aizearen egoetan datozen murmur ixillak; «eriotza» eleiz dorreko kanpai soñuak; «eriotza» erlojoko eskabillaren alde batera ta besterako joera berdiñak. Biotzeko estutasunak, animako larriak, gizon guztientzako daukan amorruak ito bear du gizon erallea.



Ai! Zeñek errukituko du mundu guziak gorrotatzen duan gizon ori? Zeñek eramango du anima orretara pakea ta poza! Zeñek? Apaizak. Erekitzen da katigutegiko atea ta agertzen zaio apaiz bat, errukitasunezko Jaungoikoaren mandataria, Jesus kurutzekoaren irudia eskuetan duala ta apaiz ori gelditzen da katigutegian erallearekin bakarrik. Andik piska batera negarrez daude biak, eta ill biar duanak dio: baña izango da neretzat parkaziorik, jauna? Bai, erantzuten du apaizak, parkaziua, maitasuna, zerua, beti betiko poza. Baña, jauna, nik madarikatu det Jaungoikoa, gorrotatu det eleiz gizona, gaistakeri andiak egin ditut. Ezta ajola: lurreko agintariak eriotzara bialtzen zaitu, zeru goietako aita parkatzen dizkitsu zure pekatuak eta nik bere izenean: *ego te absolvo*. Ai! aita, aita, ezet nik egundako orrelako itz gozorik entzun: zu zera nere poz bakarra, ez nazazula utzi ill arteraño. Ez, dio apaizak, etzaitut utziko ill artean, lagunduko dizut, eta gero ere nik erregutuko det zure animagatik. Eta esan da egin, laguntzen dio azkenengo arnasa eman artean, bere argaltasunak indartzen, ta erallea ill ondorean Aita Zerukoari esaten dio: *requiem aeternam dona ei, Domine. El lux perpetua luceat ei*. Aita zerukoa, eman zaiozu betiko atsedeen edo deskansua ta argi dezaiola beti betiko argi gozoak. O n. a.! Ikusiko bazenduteke orduan apaiz baten anima, esan bearke zenduteke eztagola lurrean beste maitasun ta erruki bat maitasun onekin berdintze-korik, eta mundu guztiko maitasun garbiak galduko baliake ere egiazko maitetasuna billatuko litzatezkeala apaiz on baten biotz errukiorrean.

* * *

Esan dezagun orain itz bitan nere itzaldi guztia. Zer da apaiz bat? Jesukristo gure Jaunak Berak aukeratutako gizona, Bere izenean erakutzi dezan egia garbi ta osoa ta izan dezan beste anaien errukia. Apaiza da errien gidaria, lurtarren maisua, biotzik samurreneko gizona, errege guztiak baño eskubide geiagokoa, Jesusen ondorengo berria beste Jesukristo bat, *alter Christus*, eleizako guraso batek dion bezela.

Orregatik esaten dizuet zueri, n. a. m.: ondo begiratu zaiezutela eleiz gizonari, berak diralako zuen maisu onak: *honorifica sacerdotes*, aurtxoak, abegi on bat egiñ zaiezute apaizai, bada berak dira zueri dotriña ta zerurako bidea erakusten dizkitsuen gizonak: *Honorificate sacerdotes*, sasoiko emakume ta gizonezkuak, abegi on bat zaiezue apaiz jaunai, bada berak dira gizon zintzo eta emakume leialak izaten erakutziko dizuten gizonak: *Honorificate sacerdotes*, pekatariak, almenu ditzatzutela, apaizak, berak diralako zuen pekatu ta gaistakeri guztiak parkatzen dizkitzuen gizonak: urtietan

ondo sartuak zaudetenak, *honorificate sacerdotes*, abegi ona egin zaiozute apaizai, begirune on batekin begiratu dezaiozutela apaizai, berak diralako, oneskero laster zuen etxera etorriko dan eriotzako orduan zuen pozgarri ta laguntzalle ta errukior izango diran gizonak. A! Eriotzako orduan, betikotasunaren ate onduan bildurrez jarrita zaudetenian, poz-pozik artzen gaituzue zuen etxeetan, ate guztiak zabal-zabalik billatzen ditugu; bada nolabaitean bizi izan danak ere, apaizen etsai izan danak ere, nai du ikusi bere aldemenean apaiz baten kereiza, nai du artu apaizak ematen duan parkazioa, zeruetan sartzeko urrezko giltza bezela. Bada orduan begiratu diozuten gisan begira zaiezute apaizai bizi zeraten artean.

Eta zu, apaiz berria, Jaungoikoak egin zaizula adu oneko, ain gauza andietarako aukeratu zaituen eskero. Atoz ordu onean beste apaizen artea, artu zazu eskuan egiaen bandera zuria eta eskudatu zazu zure bizitza guztian; ta zerbait eraman bearra izaten badezu egizalea zeralako, oroitu zaite eztagola gauza ederragorik egia aoan ta egia biotzean daukagula, iltzea baño. Ordu ta zoriona, zure gurasuari, zure anaiari, zure etxeko guztiai gaur altara orretan ikusten zaituelako, beste lagun jakintzuz inguratua, ainbeste bidar ames egin duen bezela. Jaungoikoak bakarrik daki zenbateraño maitatzen zaituen zu zure amak eta aita; Jaungoikoak bakarrik daki zenbateraño goi ta andi ikusi nai izan zaituen; Jaungoikuak bakarrik daki zenbateraño alaiak izan diran beren belarrietan gaur zure mesa berrira deitu duten kanpaiak; Jaungoikuak bakarrik daki nolako gozotasunarekiñ dauden orain, erri guztiaren aurrian zuri eskuan mun egiteko orduaren zai. O! Eztue izan munduan beste egun bat gaur bezelakorik! Eztue izango beste onelako egun bat, zeruan sartzen diranean ezpada!

Igo zazu, adiskide maitea, altara santuko eskallera malla ta eskeñi zaiozu Aita Jaungoikoari Seme Jaungoikoaren Gorputz ta odola, zure guraso maite ta bizi diran senide ta alde guztiakgatik, eta iltziranak gatik ere bai! Gaur etxadi edo famili guztiaren jaia dezute, ta batzuek emen gozatzeten zaudeten bitartean, nok daki bestiak badaude zeruetatik begira, edo Garbitokiko oñazietan zure altarako erregu ta eskeintza orren esperantzetan! Erregu zazu, bada, danokgatik, bizi diranagatik eta ill diranagatik, aideakgatik, adiskideakgatik, Zarauzko erriagatik, Españiagatik, Eleizagatik: erregutu zazu nigatik ere, eleiz gizon on bat izan naitean beti, gaur maitatzen detan sotana maita dezatan ill arteraño; erregutu zazu mundu guztiakgatik, bada mundua guztia dago bearrean.

Orrela erakutziko dezu lenengo egunetik, apaiz errukitsua zerala; eta izango dezu gero Jaungoikoaren errukia ta betiko zoriona, zuri ta nere aditazalle guztiai opa dietan bezela, Amen.



(PRESENTACIÓN)

(Zumaya)

Inspice et fac secundum exemplar quod tibi monstratum est.
 Begiratu zazu ongi ta egizazu gero erakusten zatzuna.
 (Exodo deritzaion liburuko 25 garren irakurburu
 ta 40-garren bertsoetik artutako itzak)

N. a. m: Lurreko jaietatik J. K.n Eleiza santuko jaietara beti billatu izan det desberdintasun andi bat. Gizonen artean zerbait irabastea bada; etxe bat, ontzi bat edo burni bide bat ondo amaitutea bada; aberastasunean malla batzuk gorago igotzea bada, bataio bat bada, eskontza bat bada, beti ikusi oi da ondorean jolas-jai, jan-edan jai, askotan alperrikako jai edo animarako kaltean datorren jai. Baña J. Kristoren Eleiza santuan eztago alperrikako gauzarik, bat bakarra ere. Eleizaren jai guztiak denak dira animaren onean egiten diran jaiak, erakuste andiko jaiak. Naiz dala bere odola Jesusegatik eman zuan santu baten eguna; naiz dala, bere griña gaistoak lotu naian basamortu batean bizi izan zan santu baten eguna; naiz dala emakume bat moja-etxe batean sartzen danean egiten dan jai; naiz dala Garbitoki edo Purgatorioan dauden animentzat egiten dan bederatzurrena, eleiz-jai beti da erakuste oneko jai-andia.

Eta nola dan Maria gure Ama, Kristoren eleiza bedeinkatuko erregiña samurra, Mariaren jaiak dira gure Ama-erregiñaren jaiak, jairik samurrenak, erakusterik andieneko jaiak. Gizonaren egitada guztiak daukate gure biotzari deitzeko ixill indar andi bat: egitada txarrak badira okerreko bidera deitzen digute, egitada onak badira zuzeneko bideitara; eta zenbat eta andiagoa dan gizon edo emakumea, ainbat eta andiagoa da beren dea-darra. Orregatik, Maria emakume guztien artean andiena dalako, berak zeruko bidera egiten digun deia da deirik oroimengarriena, deirik indartsuena.

Gaurko jaiari umien jai deitzen diote askok. Eztizuet ezetzik esango. Baña, ikasi dezute ondo zer dan ume bat? Badakizute zer dan emakume bat? Badakizute zenbat gauza on edo zenbat gauza txar egin dezakean bere lurreko bizitzan? Bear bada eztakizute galdaera abei garbiro erantzuteko añan, ta orregatik denori agertzera nua «gaurko jaiak erakusten digula Mariak, umeak beren onerako ta errien *mesederako* Jaunaren bildurrean ta Kristoren legetik atera gabe asi bear ditugula».

Ara emen artzalde onetako itzaldiaren gaia. Lagun zadazute, beste-tan bezela, gai au erakusteko bear detan argia zerutik jaristen, denok nere-kiñ ta Goiaingeruarekiñ batera

Agur Maria esanaz:

1. N. a. m.: Kristandadetik kanpora, kristau eztiran errietako jentien artean, zer da emakumea? Ikusi dezagun begirada batean, bada geiagorako astirik eztegu izango, ikusi dezagun ondo kondairako liburuen bitartez. Txina deritzaion lurralde zabalean, gizonaren mendean egon bear duan gauza desegoki bat bezela begiratu izan zaio, gizonaren griñai atsegiñ emateko jaioa dan izate desberdiñ bat bezela. Lurralde artan emakume bat etxean jaiotzea, gauza doekabe ta zorigaistokoa bezela begiratu izan oi da, ta eder jaiotzen etziran emakumeak gurasoak berak eskuartean itotzen zituzten. Ejiptotarren artean ere, emakumea gizonaren agindupeko gauza bezela begiratu izan zan ta lotsagarritzko lanetan erabiltzen zuten. Greziatarren artean, jakintsuen errian bertan, apainduriatzko gauza bat bezela zeukaten, gizonari loturik egon bear zuan neskametzkoa bezela. Eta orrela Espartan, orrela Korinton, orrela Mahomatarren artean; eta Ozeania deritzaion lurraldean berriz, astomandoen irudira bizkarrean gauzak eramateko, lanik gogorrenetarako abere bat bezela. J. K.n Ebanjelioko argia sartu eztan lurralde guztietan izan da emakumea *izate* naigabetsu ta errukarri bat.

Baño J. K. gure Jaunaren lege santuak atera du emakumea naigabe azpitik, J.K. J.n lege santuan erakutzi zaio emakumeari eztala gizonaren griñai atsegiñ emateko sortua, eztala gizonaren neskamea, eztala gizona baño gutxiago, Jaungoikoak, gizona bezela berdin, Bere irudira egiña dala, Aingeruen erdian zeruetan Jaungoikoa bedeinkatzeko jaioa. Iñork baño lenago Mariak esagutu zuan egia pozgarri au eta gero Mariaren ondoren joan diran emakume guztiak. Emakumeak, Jesusen legea esagutu zuanen, jaso zuan lurretik bere izate errukarria, jaiki loikeriaren oetik, garbitu zuan bere anima, begiratu zuan zeru aldera, sartu zitzaion biotzaren erdian zeruko argi gozo bat eta esagutu zuan zenbat sor zion J. K.ren legeari. Emakumea bereala jarri zan Jesusen alde, bereala egin zan kristau, kristaurik onena, kristaurik zintzoena, beroena; berak Apostoluai eta ondorengoai lagundu zien Jesukristoren legea zabaltzen, berak eman zuan sarri bere sañetako odol guztia Jesusen legeagatik: Maria Jerusalengo eleizara joan zan bezela, millaka ta millaka joan ziran emakume argalak leoi en aurrera ta borerreruen eskuetara batere ikara gabe beren biotza, beren anima, beren bizitza ta izate guztia Jaungoikoari eskeñiaz —iltzera—. Orrela erantzun zioten emakumeak Jesusen legeak egin zien mesedeari.



O n. umetxoak! Etzazute zuei orrenbeste gauza eskatzen! Naikua da gaur eleizako altara aurrean zuen biotzak eskeintzea, zuen animako gogo zintzoa erakustea, Mariaren pausuetatik jarraituko dezutela esatea, gaisterietatik urruti ibiltzea, birtuteko bide zuzenak ondo saiatzea. Ori dezute naikua gaur: biar Jaungoikoak daki zenbat indar ta laguntasun bearko dezuten zeruetako atarira eldu artean, ta Jaungoikoak Berak lagunduko dizute.

2. Baño guazen geure aritik aurrera, ta esan dezagun nai ta naiezko gauza dala, emakumea gaste-gastetatik Jaungoikoaren bildurrean ondo astea, *lurreko bizitzan bertan oso doekabetsua izango ezpada*. Emakumearen zorionerako, gauza bearra da, beragan ikusi dezala gizonak gorputzaren edertasuna baño zerbait geiago, bada aragiaganako maitetasuna aldakorra izaten da, ta gorputzaren edertasunari, baratzako loreari bezela, eguzkiak ikutzen dionetik laster etortzen zaio zimeltzeko ta simurtzeko ordua. Eta ala, emakumeak animako edertasunen bitartez irabasten ezpadu gizonaren biotza, bere birtutien lokarriarekin loturik ezpadauka, berealakoan galduko du gizonaren maitetasuna, eta gogo gabe, eraman bear dan kurutzea baño gauza astunagorik eztago. Bai, n. a. m. Gogoak eta maitetasunak arintzen ditu gure kurutzeak: gogoak erabiltzen gaitu buruausterik andienetan batere nekatu gabe; gogoak lanik gogorrean izardia boteaz, ezertxo ere esan gabe; gogoak ematen dizute, gastetxoak, zuen ikasbidietan bear dezuten argi ta egokitasuna: gogo gabe eztago buruaustietan sartzerik, eztago ezer ondo ikasterik, eztago lanik ondo egiterik, eztago kurutzea ondo eramaterik.

Eta, ai! Nai ta naiez eraman bear da kurutzea! Or dago gure lan gais-toa! Askotan esan det, Jaungoikoak Ebaren ondorengoak madarikatu zituan eskero, denok negar egin bear degu lurreko bizitzan; baño emakumeak geiago. Ta emakume onak bere sinistean billatu bear du kurutzea eramateko bear duan sendotasuna ta malkoak legortzeko bear duan zapi garbi ta biguna. Gaizki asia dan emakumeak, siniste otzekoak, naigaberen baten azpian dagoanean, garratzegi daki esaten: «eztitu gauza guztiak ondo egiten Jaungoikoak berak ere». Baño Jaunaren bildurrean ondo asi danak, siniste berokoak, naiz ta miñ andia izan biotzaren erdian, gogoratzten du umetan ikasi zuan *Aita gurea*, ta esaten dio Jaungoikoari: *egin bedi beti zure borondatea*, edo, geienez, Lazaroren arrebak Jesusi esan zioten bezela: Jauna, Jauna, Zuk nai izan ezpazendu, Zuk lagundu baziguzun, zu gurekin egon baziña, etzan illko nere Aita, etzan ilko nere ama, anaia. *Si fuisset hic frater meus non fuisset mortuus*. N. a. m., asko ikasi dezakegu Eleizako santa guztien bizitzan, baño batez ere Mariaren bizitzan. Maria

lenengo urtietatik joan zan Jerusalemgo eleizara, etorkizunaren berri zekialako, Kalbarioko mendian iruntzi bear zuan beastuna iruntziteko (siniste onaren estiarekin) gertatzera, bere Seme maitearen eriotza inoren kontra itz bat esan gabe ikusteko anima indartzera. Ai! Errukarriak nai ta naiez Kalbarioko mendira joan bearrean daudenak, Eleizako sinite onarekin beren biotzak indartu gabe!

3. N. a. m. gurasoak: Zuen umeak Jaungoikoaren bildurrean asi bear dituzutela ikasteko esan ditudan gauzak asko ezpada, beste era batean itz egin bear dizuet. Nik uste, zuentzat, arraisoirik andiena dala zuen ume-txoan onari begiratzea, baño zuen umien onari begiratu gertatzeko ezpadiotze, begiratu zaiozute munduaren onari; zuen umeakgatik egin nai ezpadezute, egin zazute munduaren onagatik. Maria joan zan Jerusalemgo eleizara eginkizun ta eramankisun andi baterako gertatzeko asmoetan ta era berean gertatu bear dute beste emakumeak ere, bada denak, geiago edo gutxiago, izango ditue lurrean eginkisunak eta eramankisunak. Emakumea, gauza argala izanik, bera da errien zoriona edo zorigaistoa egin dezakean izatea. Errietan ezker a gizonetakoak bakarrik bizi: gizon ta emakumeak, denak bear dira ta orregatik, emakumien kontra egiten dana, errien kontra dijoa; emakumeak ondo asteagatik egiten dana, errien alde ta errien onerako egiten da. Gizonari eman dizka Jaungoikoak, buruko argia, gogamen edo pensamentu sakonak, jakituriarako erreztasuna, legeak egiteko eskubidea? ta besoetako indarra: ta beste aldetik Jaungoikoak eman dizka emakumeari, biotz bigun ta aberatza, errukizko iturri ugaria, samurtasun andia. Gizonak, batez ere, landu bear ditu soroak; gizonak egin bear ditu azoketako artu-eman ta salduerosketak, gizonak egin bear ditu etxeak eta burni-bideak, gizonak egin bear ditu gerrak eta erabaki bear ditu gizarteko eztabaidak; baño emakumeak maneatu bear ditu etxe-barruko gauzak, emakumeak izan bear du etxeko aingeru alaiak; eta emakumearen eskuetan dago sarri etxeak ondatsea edo aberastasunak irabastea. Gizonak egin bear du lan gogorra, ta erakarri bear du etxera emaste ta umei jaten emateko dirua; baño emakumeak egin bear ditu txanpon batekin bi, berak asi bear ditu aurtxoak, berak bigundu bear die biotza. Itz batean, emakumeak egin bear du gizona gizon, eta askotan emakumeak eukitzen du bere belauñ gañean, edo bere besoetan errien agintaria, gerrarien burua, errien apaiza, edo errien maisua, errien etorkisun ona edo etorkisun txarra. Begira bada andia dan edo ez emakumien lanbidea, eginkisuna.

4. Ikusten dezute, n. a. m.: gizonak emakumeak baño buru ohea duala ta emakumeak gizonak baño biotz ohea. Ta orain esaten dizutet



burua alperrik galtzea baño askozaz erresagoa dala biotza alperrik galtzea, ta orregatik ere emakumea ondo asten ajola geiago izan bear degula gizona asten baño ere. Argi gutxiago dauka, baño maitetasun geiago: orregatik egin du Jaungoikoak eleizkoia, siñiste onak eta birtuteak zuzenbidetik erabilli dezaten; bada arrasoi argalaren laguntzarako birtuterik ezpaleuka, griña gaisto guztiak ertengo luteke bere erretenetik kanpora eta gaistakeriaren ujolde loian itoko litzateke emakumearen anima. Txarra da gizon gaistoa, baño askozaz txarragoa emakume gaistoa. Orregatik esan du Espiritu Santuak emakumearen gaistotasuna gaistotasunik andiena dala: *Nequitia mulieris omnis malitict*. Ondo jakiña da zer gertatu zan Franzialdean emezortzigarren eunkidan: siñisterik esak eta gizonaren itsumenak (ateismo) zatitu zituan eleizetako altareak, erririk ederrenetako kaleak, errekek odolez buzti ziran, ta Franzia guztia, alargun bat bezela, beltzez jantzirik gelditu zan. Badakizute zeintzuk izan ziran ainbeste negargarriren iturburuak, orduko gizon gaistoen zirikariak? Emakumeak, erregetxean ta andikien jauregietan batzarra egiten zuten emakumeak beren burua edertzat, beren burua anditzat, beren buruak jakintsutzat zeuzkaten emakumeak. Orrelako emakumeak (miña) sugaeren eztena bera baño zoliago, zitalago ta zorrotzagoa dauka, ta berakgatik esan genezake E. S. diona: *inveni amariorem morte, mulierem*, eriotza baño gauza samiñago bat billatu det eta da emakumea.

Eta beste aldetik oster, emakume ona Jaungoikoaren doe bat da gizonarentzat eta lurrarentzat. Espiritu Santu berak dio: *gratia super gratiam mulier sancta et pudorosa*. Emakumea birtutetsua dan etxean, lenago edo geroago, izango da etxeko jauna ere, izango dira etxeko semeak ere, ta baita ere etxeko morroi-neskameak. Etxeko amak, etxeko andreak erakutziko die birtuteko bidea, berak irabaziko ditu Jaungoikoarentzat. Maka-beotarren ama, Konstantinoren ama, Klodobeoren ematea; Santa Jenobeba, Santa Monika, Santa Rosa, Santa Katalina; San Luisen ama, San Fernandoren ama, Españiako Isabel andia, Santa Teresa; ainbeste *martiri*, ainbeste umant datorzkit burura, ta danak esaten dirate zenbat egin dezaketan emakumeak ondo asiak eta birtutetsuak badira. N. a. m., onezkero ezta beste Jaungoikoaren amarik izango, baño zergatik etzerate izango Jaungoikoaren alaba onak? Onezkero ezta izango mundu guztia irabasten Jaungoikoari lagunduko dion emakumerik, baño, zergatik lagunduko eztiowitz biotz bat edo beste irabasten?

5. Begira zaiozute Mariari Jerusalemgo eleizan. Au gertatzen du bere anima lurrean gero erabilli bear duan lanbide ederrera. Begira zaiozute ongi: lenengo Mariak sendatzen du bere sortuerako garbitasun garbia.

Ara, nere umetxoak, zuek ere lenbizi egin bear dezuten gauza: Kontu egin bataio santuko jantzi garbiari, eleizako kereiza edo erramu azpian bizi, animaren perill guztietatik iges egiñaz. Bigarren, Mariak bere *gurasoen agindua* egiten du Jerusalemgo eleizara joatean; eta ori bera egin bear dezute zuek, gurasoen agindua ta batez ere Jaungoikoaren agindua, Jaungoikoa dalako guraso guztien gurasoa. Irugarren, Mariak, eleizan egon zan bitartean guztian, Jaungoikoaren gauzak ondo ikasten jardun zuan, ta ori bera egin bear dezute zuek ere, dotrina santua kristauaren ikasbidea ta ibilbidea ondo ikasi ta egundano ez erten bide orretatik. Laugarren, Mariak eleizatik ertetzearan lenengo egin zuan gauza da bere lengusu Santa Isabel ikustera joatea maitasunaren agergarri bat emanaz, Isabelen etxea bedein-kazioz beteaz, ta onek esan nai du zuek ere bata-bestearen maitaleak izan bear dezutela, bada alkar ondo maitatzea da Jesusen legeko muña ta mamia. Nun nai ta noiz nai, umetatik asita zartzaraño, eriotzaraño, Mariaren irudira egin bear dezute zuen bizitza. Mariak izan bear du beti zuen erakusleak, Mariak zuen gidariak. Munduan, O n. umetxoak, munduan perill andiak daukatzute zai, gogortu zaitezte orain perill oiek garaitzeko. Ikusiko dituzue laster lorez beterik dauden zelai ta baratzak, baña lore tartean egongo dira zuen animako edertasuna arrapatzeko lakio ta zareak. Ai! Zenbat ikuskisun izan bear dezuten zuen bizitzan! Ai, gaixoak! Zenbat malko ixuri bear dituzuten! Munduak ertengo dizute bidera, lenagoko zugeak bezela, esanaz: *etzerate iliko; jan zazute arbola onen alorta, jan zazute fruta eder au; itxumenean euki nai zaituzte, eztu nai Jaungoikoak berak beste jakin dezazuten, eztizute apaizak egia erakusten*, baño erortzen bazerate, erekiko dituzute zuen begiak, ori bai, baña izango da zuen lotsaria ikusteko, zuen animako itxusitasuna ikusteko, zuen bataioko jantzi txuria galdu dezutela ikusteko, zerua galdu dezutela ikusteko. Ez naiz ni jakituriaren kontra, egiazko jakituria bada, ez naiz ni edertasunen kontra, egiazko edertasuna bada; baña jakin zazute egiazko jakituria dala Jaungoikoaren bildurra, ta egiazko edertasuna, animako apainduria.

N. arreba Karmengo alabak: Jesusek lurbira guztian dauzka bere odolarekin erositako animak, eta lurralde guztietan bear ditu anima oiek zaintzeko laguntzalleak. Zuek, Jesusi diozuten maitetasunagatik, utzi zinduzten zuen etxean betiko batzuk or ta besteak emen, eta Jesusen animak zaintzen zaudete. Ara emen eman zatzen artaldetxoa. Zaintu zazute ondo, erakutzi zaiezute gaste abei Jesusenganako maitetasuna, irabazi zazuez beren biotzak Jaungoikoarentzat, salbatu zazuz, zuek ere erresago ta irabazi geiagokiñ salbatu zaitezten.



Eta zuk, Ama Maria bedeinkatua, lagundu zaiezute zure alabai bere lan ederrean, lagundu zaiezute buruak argitzen, biotzak samurtzen; egin zazu ume abek gorde dezatela beti gaur ikasten duten Jesusen legea, lege orren bitartez, lurrean kristau egiazkoak izanda, gero dendenok zurekiñ batean izan gaitezen beti-betiko zorionean. Amen.

GABONA TA EGUNONA

I

Beti da gaba illun da bildurgarria. Ill iantziakaz legez soiñekoturik etorri oi da, ta beragaz batean oidakaz beti damorrigarritzko gogamen larriak, eta askotan gizon ausarditsuenaren biotza emeturik itxi daroen bildurra ta artegatasuna.

Beti da gaba guzurrez da eskutapenez betea. Berak estaldu oi ditu gure begiakaz sortitz edo izakearen erdian egunez ikusten ditugun gauza danak, eta eregiten ditu, irudimenarentzat, lur lau zabalak, irudimen orrek gura daben eran sortu daizan gogoak eskatzen dautsazan izate guztiak, gauza bakotxari nai dan itxura, margo ta neurria emonaz.

Baiña, bear bada, ezta egundo izan gaba, gure Eroslearen Ama gozoa ta beren senar done Iose, Israelgo erregeen ondorengoak izanaren, Belengo ateetan alperrik deituta gero, nun nai ortik eta ona dabillen etxadiaren gisan, korta batean aterpetu zireanean baizen illuna: etzan iñoiz bein bere izango gaba, Iesus askatxu batean iaio ta Zeruko Aingeruak Iaungoikoaren goraldia goietan da gogo oneko gizonentzat bakea lurrean izan zedilla deitu ebanean baiño.

Irudituten iat niri orduko gaba otza, gizon berekorraren biotza lege: baltza, guzurraren erdian ondaturik dagoan arimearen itxuran; izugarritzkoa, gertaera andien aurreko uneak direan antzera. Izaki guztiak arriturik egongo litzatekez baldiñ. Aginduriko Mesiasen agerrerea aurretiaz iakin baleu lege. Gure bizileku onetako zugatzak, garau ta orririk бага, euren adarrak, gorutz iasorik eukezala, zeruari argi, bizi ta berotasun eske egozan besoen irudia izango eben, lurraren beso argal azurtsuen irudia; lurbirako itxasoak, ekaitz orduetako indarra ta sendotasuna zingo barruan eskutaurik, oi ezeben bake ta isilltasunean egongo zirean, olatuen orroe altsua baiño otsandikoago ta gurgarriago zan Aingeruaren deadarra entzutearren; da bestetan aiñ eder agertzen dan goialdea, illargiaren da izarren argi makala estaldu nairik, odeiz iantzia ikusiko zan; bada etzan orduan Egia baiño beste argirik bear, da Egia, Iaungoikoa izanik, Ume baten iazkereagaz etorren orduko gaba *Gabon* egitera.



II

O ze gauza bearra zan guretzat iñoiz guzurtauko eztan da iñok guzurtauko eztaben egia eder onen etorrerea! O ze bearra dan gaur dan egunean bertan! Gaur dan egunean, Iesus iaio zanean legez, egia maite dabela diño gizonak, egia gordeta daukala; baina Iaungoiko бага dagoanean, gauza ziurra da eztala gizona egiaren iaube.

«Neurea da egia» esaten dau asmorik nastauenaren aldeko gizon urten azartuak: «neurea da egia» astakeriarik andiena nagusitzat iarri gura leukeanak: «neurea da egia» gogamen da itz guztiak beren buruari dautsan geiegizko guraritik dakazan gizonak. Ondo estaldu bagako guzurra diñoan umetik asi ta izenik andieneko ikaslekuetan euren erakusmen galgarriak zabaldu oi dituen gizon entzutetsuetaraiño, iardunlariak eta liburgilleak, gizon iakintsuak eta errizaintzailleak, gauza guztien asterrena ta izate danen sustraia idoro nai dabenak, danak esaten deuskue erabatean, arrotasunezko itz soiñutsuakaz: «neurea da egia, neuk diñodana da egia».

Baiña, alan da guztiz bere, beren indarrean siñistea daukan gizon arroak egia beragana erakarteko oso dauka kemen gitxi. Uste ta gogorik onenagaz lan egiten dabenean bere, iakituriaren bide neketsu latzetatik ioan bear dabenak, Iaungoikoak bere iakituriko aberastasun neurrigabee-tatik emon dautsan argi apur edo izki bat bakarrik dauka laguntzat, eta argi orregaz alegiñak egiñarren, eztitu iñok lurreko ikaskizun guztiak egundo ikasiko. `T'a Iaungoikoagan dagozan ikaskizunen gaiñean barriz eztago zer esanik, bada gure argaltasun da ezereztasunentzat goregi dagoz Iaungoikoaren gauzak.

Eta guztiz da ziurra, gaiñera, Iaungoikoa alde batera itxirik ibiltan direala gizonak askotan, da beste askotan uste ta gogo txarragaz diardua-la izketan da lanean, beren griña gaiztoetan oker esondetuten dalako.

Ortik iatorkoz sarri okerreko eritxiak, ortik etorri dira ezin esanala guzur erakusteak, ortik ainbeste arkuntzatan zuzentasunaren kontra ta alkarren maitetasunari zor dautsagunaren kontra emon direan erabagiak.

III

Iaungoiko ta bere erakusmen bagako bizia, guzurra ta nastea ugari daukazan gaba da.

Zuzenbidetik dabiltzan gizonak sarri oker dabiltzanen azpian euki daroazan gaba.

Iñoiz oker dabiltzanen mendean azpiraturik egoten bagara gu, azkortu gaitezana Iesus Bera, lurbira guztia erakusmen zerutarragaz argitu ebanetik laster, eriotzara bialdu eben okerreri ta guzuraren aldekoak.

Eta Iesus izango da gure erabagitzaillea adimeneko gogamenak eta biotzeko abian izan ditugun gurariak erakutsi bearko doguzan ordu estuan.

O Ume Iaungoikoa! O neure Iesus! Ze pozgarria dan gure erabagitzaillea Zu izatea, ta ez gizonak! Zuk eztaukazu illuntasunik, Zuk eztaukazu gaurik, Zuk griñarik eztaukazu. Lurbireari argi egitera etorri ziñan argia zara, Eguna zara, Egia zara.

Ta naibagez beterik daroagun bizitzako gaba igaro daigunean, Zuk emongo deuskuzu beti betiko Egun ona.



SAN MARTIN

En Beasain 1900

*Justorum animae in manu Dei sunt,
et non tanget illos tormentum mortis.*

Gizon zuzenen animak Jaungoikoaren eskuetan daude,
ta eriotzaren oñazeak ez tie ikuturik egingo.
(Jakituriaren liburuan III garren irakurburu
ta lenengo bersotik artutako itzak.)

N. a. m: Gizonaren adimenarentzat lurbira onetan gauza bat falta da, egia: mundu zabal galgarritzkoa egia bearrean dago. Zeiñ bearra dan egia jakiñ nai badezute, eztaukazute begiratzea baizik gizon guztiak maitatzen dutela egia (itxuran beintzat), gizon guztiak dabiltzala egiaren atzetik, gizon guztiak diotela beti berena dala egia.

Okerkeririk andienaren alde dabillanak; bide gabeko gauza txar guztiak indartzen dituanak; norbere eritzi gaistoarekin aurrera ertetzeagatik zuzentasun guztien kontra jokatzeko duan gizonak; lenengo ondo asmatu gabeko gezurra esaten duan ume koskorretan asi ta izen andiko eskola nagusietan arrokeriz beterik beren erakusketa gaistoak zabaltzen dituzten maisuetaraño; istun-eder diradenak, gizon jakintsuak, errien zaintzalleak; ausilariak, izkiratzalleak, gauza guztien asiera ta sustraia billatu nai duenak; andiak eta txikiak, goikoak eta bekoak, erdaldunak eta euskalerrikoak; denak esango dizute arrotasunik andienarekiñ: «nik dakit egia, nik esaten det egia, nerea da egia». A! Esagutzen dute, esango baluteke, bere biotzaren erdian sentitzen duten gisa bear bada, «nik esaten det gezurra, nerea da gezurra», beren ausia une artan bertan galduko litzatekeala.

Bada orduan, esan genezake; gizon guztiak egiaren aldekoak badira, gizon guztiak egia badiote, dena izango da egia munduan? A! Ez, a., munduan gezur asko da, txit asko; gezurrak umien artean, gezurrak zarren artean, gezurrak ezjakiñen artean, gezurrak jakintsuen artean ere. Gizonak, askotan, eztu erakusten garbiro bere barruko gogamena, bere *pensamentua*; gizonak, askotan, bere biotzeko sentierak estaldurik erakusten ditu, iñork esagutu ez ditzan; baño gogorik zuzenenarekiñ saiatzen danean ere, egia billatzeko oso argi gutxiren jabe arkitzen da, ta eztitu egundaño lurreko jakituri ta gertaera danak ikasiko, ta Jaungoikoaren gauzetan sartzen bada, Jaungoikoaren sakontasuna ikusi nai badu berriz, adimeneko argi apurrak lagunduko dio gizonari bere ezereztasuna esagutzen.

Orregatik ainbeste aldiz iruditu zaizka gizonari eztiran gauza asko; orregatik mundu onetan maisutzat egon diran jenteak erakutzi ditue gezurrak egia eder maitagarriaren jaskerarekiñ.

Non dago bada egia? Non egongo da? Bere iturburu garbian. Zer da bada egia? Egia, bere mami, asiera ta sustrai au artu nai badegu, egia da Jaungoikoa; bada Jesusek bakarrik esan zezakean, ta Jesusek bakarrik esan du *Ego sum ventas*, ez nik *dakit*, *nik diot* egia, ezpada Ni *naiz* egia. Ta zeintzuk dira egizaleak? Jesusen erakusbide zuzenari jarraitzen diotenak; baño ez mingañez, ezpada izatez, egitez, bene-benetan: oiek dira, S. Juanek dion bezela, betiko argitasunera dijoazenak, *qui facit ventatem venit ad lucem*.

N. a. Jaungoikoaren legea ikasi ta gorde duen guztiak, santu danak izan dira egizaleak, eta oien artean erri onetako santu Loinazko Martin egizalerik andienetakoa. Goren-gorenetakoa malletan jarriarik ikusten det, eta nai nizuteke gaur agertu, zuentzat eta Gipuzkoatar guztientzat erakuskera osasungarri bat izan dediñ «S. Martin izan zala egiaren benetakoa maitalea, egiagatik eta egiaren alde bere bizitza eman arteraño. Au da nere itzaldiaren gaia, ta gai au erakusteko A. Martiñen bizitza zueri gogoratzea baño beste lanbiderik eztet artuko.

Ala ta guztiz ere, esaguturik zeñ urri ta neurtuak diran nere adimeneko indarrak, nik eskatzen diot nere adimenarentzat argia argiaren Egile Santuari ta nere mingañerako egia egia *bera* dari Jaungoikoari. Gaur, maisutzat bezela toki santu onetan jarri naizen ezkerro, gauza guztien esagupide sakona daukan Maisuari eskatzen diot laguntasuna, zuekiñ batera ta Ama Mariaren bitartez, oitura dan bezela *Agur Maria* esanaz.

Justorum animae etc.

1. N. a. m.: Murumendiren egalean jarrita dagoan erri polit onetan, Amunabarro zeritzaion baserritxoan, Euskalerrri maitearen erdian ereki zituan bere begiak eguskiaren argitara gure santu Loinazko Martiñek. Denok dakizuten bezela bere gurasoak ziran Juan Garzia Loinaz ta Mari Martin Amunabarro, euskaldun zarrak, biotz garbikoak, Jaungoikoaren maitale onak. Oso errez erakutzi zioten Jaunaganako bildurra ta eleizarako bidea, zergatik berez zan Martin gauza on guztien zalea. Bere lenengo urtietatik sartu zitzaion animan zeruetako argia, esagutu zuan gure Jaun ta Jaungoikoa, au da, esagutu zuan egia; sutu zitzaion bere biotz samurra egiaren maitasunean, ta egia obeto ikasi ta egiaren alde lan egiteko gogoa sortu zitzaion.

Latiña ikasi ta laster, bere animaren erdian euskaldun gurasoak ipiñi zioten onbide edo birtute asia ondo gorderik zaramala, erten zuan jakituriaren billa euskalerrriko mendi eder ostrotsu abetatik Alcala deritzaion erdalerrriko ikastegi ospatsura, ta angio adiskideak ikusi zuten ongi zenba-



teraño zan burutsua Martin ta zeñ biotz onekoa. Gasteak beti ta edonun izan oi dira gaste, ta beste adiskide askorekiñ batean etxetik urruti bada-biltza, gasteago, ariñago ta aisetsuagoak oraindik. Baño etzan Martin orrelakoa izan. «Egia ikasi ta egia maitetu»; au zan Martiñen gogo bakarra, ta batere arrotasunik gabe, Jaungoikoaren aurrean burua makurturik, Jaungoikoari laguntasuna eskatuaz, egia ikasten ta egia maitatzen saiatu zan Amunabarroko seme argia. «Ez naiz ni etorri Alcalara —uste det nik esango zuala bere artean— nere adimenaren indarrak lotan edo buruko argiak itzalarik eukitzeko ustean, ez naiz etorri nere biotza alperrik galtzera; Beasainen bezela euskaldun izango naiz Alcalan, kristau izango naiz, egizalea izango naiz, ta al badet, egia santua dalako santu izango naiz». A! Gaurko egunetan erdalerriko eskoletara dijoazen euskaldun gasteak orrela itz egingo baluteke! Askori esaten die bere gurasoak, negarrez, etxetik erteeran: «Seme, ona izan zaitezela; etzaitezela Jaungoikoarekiñ astu; seme, asko ikasi dezazula»; ta «bai, erantzuten die semeak, bai, asko ikasiko det, ama edo aita, ona izango naiz, ez naiz Jaungoikoarekiñ astuko»; baña, o mingarria! gurasoari emandako itzak laster aizeak eramaten ditu, laster asko loitzen due euskaldunaren ta kristauaren izena, ta gaistakerien erdian anima ondaturik utzi ere bai.

Baña gauza samingarri abek alde batera utzita jarraitu daiogun Martiñen bizitzari. Urte gutxitan txit asko ikasi zuan Beasaintar argitsu onek: lurreko jakiturieta ta zerukoetan oso bide luzeak egin zituan; ta zenbat eta geiago ikasi ainbat eta geiago maitatzen zuan jakituriaren sustraia, jakituria bera, Jaungoikoa. Jaungoikoa santua zalako, santu izateko gogo aundia zeukan Martiñek, eta egiazko gogo daukana santu izaten da. Onetarako etzegoan ondo bere anima Alcalako gasteriaren erdian; bakartadea nai zukean, ixiltasuna ta pakea, geiago ikasteko ta anima obeto zaintzeko toki eskutua, ta ala, ondo gogamenduta gero, bere animako gidaaren baimenarekiñ, erabaki zuan, Auñongo errian, A. S. Franzizkoren semien artean sartzea.

Martiñen biotzean orduan zer igaro zan ondo eztakigu, baña iruditzen zait zer gertatuko zitzaion ta nolako agurrak egingo zizkon bere sorterriri: Bere sorterritik kanpora bizi dan gaste batek, batez ere lenbiziko ertetan bada, berez bada maitakorra ta samurra, bere sorterrira berriz ikusteko ta gurasoarekiñ laztantzeko gogo andiak izaten ditu. Orregatik nago ni ziur, Martiñ samurra, Martiñ maitalea, bere sorterrira biurtzeko egunak kontatzen egongo zala sarri Alcalan; baña A. S. Franzizkoren seme izatea erabaki zuanean, dena utzi zuan alde batera. «Ez, esango zuan, ez naiz geiago nere jaioterrira joango, nere lurrari eutsia gelditu ez nadiñ. Jaunak daki ondo: askotan ames egin det nere sorterriarekiñ; maite ditut gure

mendi berdeak, maite det Beasain, maite det nere baserritxoa, asko maitatzen ditut nere guraso kutunak; baña geiago maitatzen det egia, geiago maitatzen det Jaungoikoa; Jaungoikoagatik bakarrik utzi litezke ta Jaungoikoagatik utzitzen ditut». O ze maitetasun Martiñek Jaungoikoarentzat!

2. Auñongo bakartadean bere gozotasunik andiena ikastea izandu zan, bere gorputza neke azpian erabiltzea, Jaunaren aurrean belaunikaturik gau ta egun erregutzen egotea. Orduak osoak oi zituan igaro zerura begira, zirkiñik egiñ gabe, olezko edo arrizko irudi baten antzera; ta Jaungoiko gurasoak zerutik laguntzen ziolako, oso laster apaindu zan jakituriz ta birtutez, bere beste bakartegiko anaiak baño askozaz geiagoan. Joan zitzaiozkan urte batzuek bere anima aukeratua zeruko aberastasunez ugaritzen, ta ikasikizun guztiak txit egoki amaitu ondorean, ogetabost edo ogetasei urte zituala, apaiz izatera eldu zan. Orduan, Egiazko Jaungoiko santu gauza guztien egille altsua bere eskuetan artu zuanean, asi zitzaion berriz ta geiago bere biotza Jaunaganako maitetasunean erretzen, maitetasunean kiskaltzen. Maitetasuna ikusten zitzaion Martiñi bere izkera bigunetan, maitetasuna bere begi gozoetan, maitetasuna bere ibilleran, maitetasuna arrenez belauniko zegoanean, maitetasun andia Meza Santua ematean. Jesusen maitegarritasun berdingabea mundu guztiak esagutzea nai zukean, ta jakiñik bazirala oraindik lurrean gezur beltzaren illunpean bizi ziraden jente asko, bazirala lur zabalean Jaungoiko egiazkoa esagutzen etzuten toki errukarriak, Jesusen ebanjelio Santua zabaltzera joateko asmo bizi sendo bat artu zuan, baldiñ bere gogo nagusien borondatearen kontrakoa ezpazan. Ain zuzen ere egun aietan etorri zan Filipinasetik A. Pedro Ortiz, ta nagusien baimena arturik, beste batzuekiñ batean, ertzen zuan A. Martiñek Ugarte aietara 1593-ko ilbeltzaren 15-ean. Etzan joan bereala nai zuan tokira: Jaungoikoak zerbait geiago naigabetu nai zuan noski gure umanta, geiago irabazi zezan; ta ala, gaixo bat igaro ondorean, Txiribuskon gelditu zuen maisutzat eta gero Manilan; bada ordurako A. Martin Loinaz oso jakintsua zan ta urrutietako erri aietaraño eldu zan bere jakituriaren izen andia.

Baño, nolatan Martiñek, aiñ gastea izanik, nolatan jaditxi zituan bere animarentzat ainbeste jakituri? Bere adimenaren indarrean baño Jesus Maisuaren erakuskera bigun ta egokian itxaropen andiagoa izanaz, Jaungoikoari laguntasuna eskatuaz; Jaunak lagundu ziolako, siñiste santuaren egoakin egatu zalako zan iakintsu. Lurreko gizon guztiak nai dute jakituria, baña beren indarrarekin ikasitako jakituria bakarrik: eztute nai Jaungoikoaren erakutzirik, eztute nai siñistearen laguntasunik, eta, ai! siñisteak ematen dituan egoak eztauzkan gizona ezta egundaño egiazko jakituriaren jauregira elduko. Esan det asieran: gizonak argi gutxi du bere adime-



nean, baña arroa da berez, ta askotan Jaungoikoagandik argia eskatu bearean, gizonak bere argiarekiñ ikusi ta neurtu nai du Jaungoikoa bera, (au da lasta zuzi batekiñ eguskia argitu nai izatea bezela); ta ortik dator sarri gizonaren itxutasuna, bada eztago Eguski Jaungoikoari begiak zabaldua arpegiz-arpegi ta arrotasunez begiratuko dion gizon kaskarrik. Orregatik falta da lurrean egia.

Amunabarroko semeari, azkenean ere, bere gogoa betetzeko era on bat etorri zitzaion. Japon deritzaion dierrri edo erresuman Jesusen ebanjelio zabaltzalle gutxi zeuden, ta zeudenetatik bi galdu ziran, ta orduan, galdu ziran aien tokia betetzeko gure A. Martin ta bere lagun A. Franzizko Blanco bialdu zituen. A! Nork esan orduko Aita bi aben ta batez ere Martiñen poz ta alaitasuna? Iñoiz gauza bat ames egin badezute zuen zorionik andiena bezela; iñoiz egon bazerate luzaroko urtietan ordu on baten zai negarrez ta sotiñez, ordu ori noiz etorriko dan beti gogoratzen; ta egun baten jadtixi badezue ainbeste urtean itxaron dezuten ordua, igarriko dezute nolabait zeinbaterañoakoa zan Martiñen poza. Bere amesak bete zitzaizkion, gozotasunen erdian zegoan, eztitan zarabillen bere biotza. Egia zabaldu, gezurraren mendean zeuden gizagajoai egia jakiñ erazi, Kristo bere maitearen maitetasun neurrigabea erakutzi: etzuan nai gauza oberik munduan Martiñek.

3. A. S. Franzizkoren semeak Osaka izeneko erri batean egin zuten misionistentzat egoera berri bat, eta Martin egoera orretako buru ta nagusi; ta ordutik aurrera, gau ta egun, erririk erri, etxerik etxe, janik eta lorik gabe, gaixoak ikusten, naigabeturik zeuden malkoak legortzen, zorionerako bidea erakusten, etzan gelditu ordu batean bakarrik. Sendo ta osasuntsua zegoan ta bere osasun guztia Jaungoikoaren onorean nai zukean urtu ta eman. A! Zenbati ereki zizkon A. M. Loinaz santuak zeruetako ate pozgarriak bere lan eder ta ugariaren bitartez! Zenbatek bedeinkatu zuten zerutik bere ibillera ta izerdia!

Ezin zezakean lan oietan luzaro jarraitu. Jaungoiko gezurrezkoen eleizgizonak begi txarrekiñ ikusten zuten Martiñen lana. Zenbat eta berak Jesusentzat anima geiago irabazi, ainbat eta bere kontra gorroto andiagotan jartzen ziran. Japontarren agintaria zan urte aietan Taikosama, siñistegaistoko gizona, arroa ta biotz gogorraren jabea. Etzien lenbizi abegi txarrik egiñ A. S. Franzizkoren semeai, bigunkiro itz egin zien, adiskide bezela artu zituan; baña gerora, edo eleizgizonak zirikatu ta su eman ziotelako, edo berez, Jesusen legeko aginduak latsak irudituz zitzaizkolako, kristauen gorrotoan jarri zan, ta agindu zuan Japonen zeuden Kristoren legeko guztiak illak izan zitezela. Orratikan ere, ori geiegizkoa izango zala aditzen eman ziotenean, kristau guztien eriotzak erakarri zezakean ondoren-

goen bildurrez, bigundu zuan zerbait bere agintea, ta kristau batzuek etziran eriotzara bialduak izan.

Eriotzarako izentatuen artean zegoan gure A. Martin. Abenduaren 8 garreneko gaberdian inguratu zioten etxea, ta barruan zeuden guztiai aditzen eman zieten, erriko agintarien izenean katigatuak gelditzen zirala denak. Mesede asko egin dituen gizonak oi duten bezela Martiñek bazituan lagun batzuek, eta abek esan zioten iges egin zezala. Igese! Ori esaten ziotenak etzuten ondo esagutzen Beasaingo seme argidotarra.

Ez igesik: iges egin bearean ausardi andiarekiñ eriotzari bidera ertengo zion, ongi etorria eman ta lagun on bat izan balitz bezela bere besoetan poz-pozik jarri; bada gauza anditatz zeukan egia zabaltzea, baña egiagatik iltzea askozaz andiago ta obetatz. Bazekian Taikosama itxutuak gorputzaren bizitza kenduko ziola, baño ez animarena ta animaren betiko bizitza bakarrik nai zuan gorde; bazekian anima etzietola ilko, zergatik animak Jakituriako liburuak dion bezela, Jaungoikoaren eskuetan dauden: *Iustorum animae in manu Dei sunt, et non tanget eos tormentum mortis*: gizon zuzenen animak Jaungoikoaren eskuetan daude, ta eriotzaren oñazeak ezte ikuturik egingo. Orregatik albisterik onena bezela artu zuan Taikosamak eman zuan agintearen berria, bada beretzat iltzea zan arpegiz-arpegi egia sakona ikustea, beti-betiko zorionean sartzea.

Abenduaren 30-ean etxean zeuden laurak sokaz lotu ta beste iru A. S. Iñazoren semerekiñ batera Meako esaten zitzaion errira eraman zituzten. Jaungoikoak daki zenbat neke ta naigaberen azpian ibilli bear izan zuten bidean, baña gizon Jaungoikozko aiek irribarrez ta Jaunari eskerrak emanaz eldu ziran Meakora. Erri artako katigutegietan billatu zituzten beste bost fraille ta amabi kristau geiago; ta danak batera, ilbeltzaren 3-garren egunean enparantza edo plazaren erdira eramanak izan ziran, ta eskerreko belarria mostu zien guztiai. Ala ere etzan bat bakarra ikaratu: kontrara, beren artean zeuden iru mutil koskorretatik batek, belarriaren zatia lurretik jaso, ta onela esan zien borrarui: «au baño ez tirazue ebakitzten? ebaki zazute geiago, nai badezute, ta ase zaitzete kristauen odollez...». Erabilli zituzten kalerik-kale, jenteak farre ta ziñu egin zezaioten, ta urrengo egunean eraman zituzten Osaka ta beste erri batzuetara, zaldi gañetan batzuk, besteak burdieten, bidean al zuan guztia oñazetu eraziaz, fedezale gizagaixoak oso auldu ziraden artean.

Baña Martiñ, nekearen izpirik agertu gabe, oñez beti, azkar, alai ta zoriontsu jai gozagarria bazijoan bezela, alderdi guztietan Jesusen ebanjelio santua erakutzia zijoan. Animak irabasteko gose ta egarri andia zeukan, azkenengo egunetan zebillen lurrean, ta, ai! zerutik etzan geiago etorriko Jesusentzat animak irabastera...



4. Zezeillaren 4-an sartu ziran Sononki zeritzaion errian ta urrego eguneko beratziterdian Nagasakiñ. An zegoan jentea alkarren gañean kristauen eriotza ikaragarria ikusteko orduaren zai, ta an zeuden lurreen ogetasei kurutze, bada ordurako ogetaseira eldu ziran iltzera zijoazenak. Begiratu zieten kurutzeai samurtasunik andienarekiñ, belaunikatu ziran kurutze aien aurrean, aurreratu ziran borrareruak, eta santuen agerreran jentek atera zuen murmurada ta zarata guztiak bat-batera ixildu ziran. Ai! Eriotzak berezko indarra du gizonen gorroto ta amorro guztiak ixiltzeko... Jaiki zan A. Praille bat: itzegitera zijoan. Zein zan? Gizon ederra zan, gastea zan, leñargia zan, Amunabarron jaioa, A. Martiñ. Ta ixiltasunik andienaren erdian, urrutietako lur... aietan entzun zan euskaldunaren deadar bigun, garbi ta zintzoa, biotzaren erdiraño sartu ta biotzari dardara eragiten zion deadarra: «N. anaiak —esango zuan Martiñek— eldu da ordua, ordurik andiena, ordurik onena, ordurik atsegingarriena. Jaio geran denok ill bear degu: emen gure inguruan daudenak ill bear dute, eztakite noiz, eztakite nun, nola eztakite: errukarriak oiek egia esagutu ta maitetu gabe iltzen badira. Guk badakigu nun illko geran: ementxe bertan; badakigu noiz, oraintxen bereala; badakigu nola, Jaungoikoa bera bezela kurutzean josirik; egizaleak geralako, egiagatik, egiaren alde, *mors in testimonium veritatis*. N. anaiak: amaitu dira gure lanak, amaitu dira gure nekeak, betiko zorionaren atarian gaude. Ara or goian zeru ederra, guretzat egin du Jaungoikoak, guretzat dauka añ apaindua, gure nekeak saritzeko Jaungoikoa bera daukagu zai.

O! Aita zerukoa, o Aita ona, eskerrik asko, laster gera zurekiñ.— Atoz, eriotza, n. adiskidea, ez nazu ikaratzen: *non est amara memoria tua*, ezta samiña zure oroimena; gozoa da, estitsua da; atoz, laztandu zazazu; atoz, ta eraman nazazu Jaunaren besoetara. Japontarrak, Kristo da Jaungoiko egiazko bakarra. N. anaiak: il gaitezen Jaunaren zorionean».

Onela esanda iltzan A. Martiñ Loinaz. Baño ez, gaizki esan det, etzan betiko bizitzara sartu zan. *Iustorum animae in manu Dei sunt et non tanget eos tormentum mortis*: gizon zuzenen animak Jaungoikoaren eskuetan daude, ta ez tie ikuturik egiten eriotzaren oñazeak.

5. O Beasain! *nequaquam minima est tui*, egun ortatik aurrera etzara zu txikienetakoa Gipuzkoako errien artean. Murumendi azpian gordea bazaude ere, zure izena zabaldurik dago lurbira guztian; zure izena jakin da Japonen, jakin da Erroman, jakin da zeruetan bertan; zure izena gizon andi askok erabilli du aotan A. Santuaren aurrean, ta S. Martiñek berak Jaungoikoaren aurrean. Zorionekoa zu izen andiaren jabe zeran bezela izakera oneko erria bazera.

* * *

N. a. m.: esan det itz gutxitan A. Martin Loinazen bizitza santua: benetakoa egizalea izan zan, gezurraren lañoak kentzen lan andiak egin zituan, Jesusegatik iltzan. Amaitu det, bada, nere lana. Baño eztet nai jetxi beste itz bi geiago esan gabe. Eztet nik nai, eleizatik ertetzean, S. Martin andia, illezkorra, egizalea, umanta zala esan da beste gabe gelditu zaitezten. Ori gauza utsa da, ta orrenbestean gelditzen bazerate, zuek eta nik alperrik galdu degu denbora. Ezta ori gaur nik egin bear nuan lan bakarra: ez naiz orretara bakarrik etorri. Nere barreneko gogoa izan da S. Martiñ nolakoa izan zan zueri erakustea, al dezuten añan bera ibilli zan bideetatik ibilli zaitezten. Biotz guztitik gorrotatzen ditut, eta geroago ta geiago, ebanjelio santuaren ezetasuna ta anima eztaukaten itzaldi legorrak; eta nonai itz egin bear detanean, nere esakera motel ta motsa, nere buruko argi apurra, nere biotz guztia Kristo gure Jaunaren alde lanean erabilli nai ditut, Kristo gure Jaunaren legea erakusten. O nik baneuka animak Jaungoikoaren artaldera erakartzeko batzuek izan duen jakituria! O nik baneuka Martiñen argi, arnasa ta mintsoera, alderdi guztietan gezurraren lañoak desegitiñ ta Jesusen siñiste santua zabaltzeko. A! orduan nik erakutziko niteke gizonai egiaren edertasuna, egia maitetu dezaten, Jaungoikoa maitetu dezaten, animak zeruratu ditezen.— Baña gauza ori nere eskuetan eztaoan ezkerro, Beasaintarrak, nik esaten dizutet, biotza eskuetan detala esaten dizutet, S. Martiñen izenean! bera gaur lurreen bizi balitz berberak esango lizuteken bezela, begiratu zaiozutela ondo zuen animari, ikasi zazutela ondo bizi izaten, ta obeto ondo iltzen. N. a. beasaintar m., eztezazutela lotsatu zeruan zuen seme illezkor ta santua: izan zaitezteela, bera bezela, egizaleak beti, Jaungoikoaren legea maitetu ta gordetzen dezuek, kristau benetakoa, egunen batean ikasi dezazuten zeruan zuen erri-tarraren argitasuna ta Jaungoikoaren arpegi zoragarria, *Amen*. Ala izan dedilla.



(PRESENTACIÓN)

(Zumaya)

Melior est fructus meus auro et lapide pretioso.

Urrea ta arri argitsua baño ohea da nere alorta.

Proverbios deritzaion liburuko 8 garren irakurburutik artutako itzak.

N. a. m.: Betikotasun onaren jauregian sartzeko, zeru eder gozoetan gure animak zuzen eramateko bide bi baño besterik ez tira arkitzen, bata umetxo abek daramaten bidea, errugabeko bizitza; bestea, beñ gaistakerietan erori eskero nai ta nai ez eraman bear degun bidea, negarrezko bizitza. Gure Ama Maria bedeinkatua, sortueratik añ garbi, añ aberats ta añ apaiñdua izan zan emakume miragarria txit umea zala sartu zan Jerusalemgo eliza santura, gastea zalarik erten zuan Nazaretiko bakartadera, errugabeko bidietatik ibilli zan beti, gaistakerietatik oso urrutian bizi izan zan, orbanaren kerezak berak egundano ikutu etzion; baño ala ta guztiz ere badaki negarrezko bidearen berri, bada bere seme Jesus maitea, errugabea izanarren, gizonen pekatu (gaistakeri) guztiak bere gañean arturik, bide neketsu orretatik joan zitzaion, eta orduan Mariak, Ama on batek bezela, negarrez jarraitu zion bere Seme laztanari Kalbarioko mendiraño. Orregatik dakizki zerurako bide biak, orregatik izan liteke Maria gure gidaririk onena bide bi oietan.

Zuek ere, eleiza onetan zaudeten gurasoak, bide bi oietatik batean ibilli bear dezute zeruetan sartzea nai badezute beintzat, bide bi oietatik batean erabilli bear dituzute zuen umetxoak zeruetan gero zuekiñ batean idukitzea nai badezute: lenengo errugabeko bide zuzen ta garbian, eta gero, berentzat zorigaistokoa izango dan egunen baten bide ortatik ertetzen badue, negarrezko bidean, berekin batean negar egiñaz.

Badakit nik zuen ume maiteai esaten diozkatzuela asmatu al dituzuen izenik bigun, gozo, ezti ta samurrenak; badakit, zuen iritziz, zuen umeak baño eder, galant ta argiagorik eztala izaten besterik inor; bañan askotan zuen amatasunak itxutu egiten zaituzte ta eztezute egia ikusten ta eztezute egia esaten. Badakizue nola izango diran zuen umeak egiaz onak, zintzoak, argitsuak eta ederrak Jaungoikoaren aurrean? Zerurako bide oietatik batean erabiltzen badituzute, orrela izango dira zuen errailetan sortu diran umetxo abek, urrea ta arri argitsua baño askoz alort obeak, orrela esango diozute egunen batean Jaungoikoari: *melior est fructus meus*

auro et lapide pretioso. Au da, n. a., artzalde onetako nere itzaldi laburraren gaia. Lagundu zadazute Jaungoikoagandik jaristen lanbide onetarako bear detan argia, Ama Mariani, oitura dan bezela, *Agur Maria* esanaz.

Melior... etc.

N. a. m.:

1. Antziñetako egunetan gure Jaun ta Jaungoiko andiak israeltar danak Faraonen mendetik atera zituan eta Ejiptotik Kanaango lurraldera seireun milla gizonen erten zuen, seireun milla, ume eta emakumeak kontatu gabe, Jaungoikoak berak lagundu zien bidean, Jaungoikoak mirari asko egin zituan aien alde; itxasoak legortu ziran israeltarren aurrean, odei batek gorde zituan etsaien begietatik, mirariz zerutik biraldutako janariak ase zituan; ta ala ere, badakizute zenbat gizon eldu ziran Kanaango lurrean? Bi gizon bakarrik, seireun millatik bi, Josue ta Kaleb; beste danak bidean ondatuta il ziran. Ta zer daukagu guk gertaera orrekiñ zer ikusi? Ai! Askok, n. a., txit asko. *Haec in figura sunt*, dio Paulo santuak, gertaera beltz ori kristauen artean gertatzen danaren irudi bat baño ezta. Itxasoa, jakintsu batek esaten digunez, bataio santuan ematen zaigun uraren irudia da, orduko israeltarrak bezela gera batio santua artu degun guztiok, Jaungoikoak zerutik biraldutako janariarekiñ indartzen gera gu ere, A. S. S.n, eta Josue ta Kaleb Kanaango lurrean sartu ziran gizon biak esan nai dute kristauen artean ere gutxi sartzen dirala zeruetako gozotasunean.

Ai! Negarrez esan bear gendukean gauza da. Bataiatu ta laster edo umetasuneko lenengo urtietan iltzen diranak kendu eskero, oso gutxi dira errugabeko bide zuzenetik zerura dijoazenak. Arrazoiaren argia gure animetan sartzen dan egunean bertan, ertetzen digue bidera griña gaistoak, munduko arrokeriak eta animaren etsaiak, eta askorentzat arrazoiaren argia datorkion eguna izan oi da gaistakeri gabeko azkenengo eguna. Esan zaidazute neri, zar zamarrak zeraten aditzalleak, non dira gaur gure gaistakeri gabeko egun doetsu garbiak? Ai! Aspaldian egin ziguten agur, oso urrutietan ikusten ditugu, zuek eta nik negarrezko bide neketsutik ibilli bearko degu, Jaungoikoaren errukiari eldu bearko diogu zeruetan sartuko bagera.

2. Baño egun eder oietan daude oraindik emen dauzkagun umetxoak, eta oiei lagundu bearrean gaude bide ortatik zeruratu ditezten. Umeak geienetan, errugabeko bidetik gaistakerirako bidera ertetzen dira, edo bide zuzena nondik dagoan erakutzi etzaiztelako, edo norbaitek okerbidera atara dituelako. Bidezko batzuek bezela dira umetxoak, eta erbestean dabilzan bidezkoak galdetzen duten bezela «nondik eta nola joango naiz onelako lekura?, galdezka dabilta umeak ere, nondik joango naiz ni zeru-



ra, nola joango naiz? Badakite zer bear duen, beren animak eskatzen dien gozotasuna, zorion betea, baño eztakite ongi nondik eta nora dabilizan, ta beren bidean billatzen dituenai galdetzen diote ondo ete dijoazen, batzuetan mingaïarekiñ itzez; askotan begiak, besteak nondik dijoazen begiratuaz. Ta nola beren bidean lenengo billatzen dituen gurasoak izan oi diran, gurasoak erakusten diotena edo geiago gurasoetan ikusten dutena ori da umeak jarraitzen duten bidea.

Mariari ume-umetatik erakutzi zien beren gurasoak gaistakeri gabe-ko bizitza, Jaungoikoaren bildur santua, eleizako bidea; eta berez ona, garbia, umilla ta birtetsua izan da ere, bere ama Ana ta bere aita Joakiñen ontasuna, umiltasuna ta birtutea ikustean, geiago ta geiago indartuko zan bere ontasunean, bere buruari onela esanaz: «ondo nua nere guraso mai-teak dijoazen bidetik. Maite nau ni nere amak, badakit ondo, maite nau nire aitak; neuk ere maite ditut lurrean beste iñor ez bezela. Berak ekarri naute Jerusalemgo eleizara Jaungoikoa dala nere jabea, Jaungoikoa dala izaterik maitegarriena erakutziaz, ta Jaungoikoa maitetuko det gauza guztien gañetik; au da zoriontasunerako bidea; ondo nua».

Eta zuek, gurasoak, zer erakutzi diozute umeai, zer ikasi dute zuekandik? Jaungoikoak egiñak dira, bere irudira egiñak dira, bere odolarekiñ zerurako irabaziaz, eta Berak eman dizkitzue zueri beretzat asteko, batez ere animari ondo begiratuaz; eta, bear bada, zuek, beren gorputza jantzi dezue oso apain; bañan animari eztiowitzue eman birtutearen jantzirik; animaren ajolarik gabe bidearen erdian utzi dituzue zuen umeak bakarrik, iñoren laguntasun gabe, zuen begiak ikusten eztituen tokian, eta orduan anima lapurretan dabillen deabru gaiskilleak berak zorionduko dituala esanaz eraman ditu okerbideetik aurrera infernuko atariraño ta Jaungoikoaren errukiagaitik eztaude gaur infernuan. Bear bada janaritu ta ase dituzue beren gorputzak, bañan animak goseak dauskatzue, ta goseak dagoanak ezta indarririk ta indarririk eztuana edozeiñ etsaik aspiratuko du. Ere-muaren erdian bakarrik eta goseak egon zanean Jesus, deabrua joan zitzaion Jaungoikoaren seme indartsua bera aspiratzeko asmoetan, *vidit hostis famen et speravit victoriam*, eta nola joango etzaio goseak dagoan ume argalari?

3. Jakob guraso zarrari azkenengo ordua etorri zitzaionean, oso larritu zan gisagaixoa oroimendurik beñ batean bakarrik biraldu zuala bere seme laztan Jose mendian zeuden anaiakgana, ta bakarrik biraltze orretatik Joseri kalteak etorri zitzaizkolako eta bere anaiak pekatu egin zutelako. Zenbat larritasun eztiute izango guraso askok eriotzako orduan beren umeak perill andiko bakartadean utzi dituelako, edozeñ ordutan, edozeñ

tokitan, edozeñekiñ, egunaz ta gabaz? Eta ajola gabe egoteak bakarrik ainbeste kalte badakar, zenbat geiago ekarriko du gaistakeriako bidea erakustek? Badira guraso batzuek (gutxi erri onetan, baño badira) beren seme-alabai egundaño gauza on bat erakutzi eztiotenak: ez gurutze santuaren señaile bat egiten, ez jaikieran edo oerakoan *Aita gureatxo* bat edo beste erresatzen, ez errosario santu bat esaten, ez il ondorean gurekiñ zer izango dan, ez zerurik dagoan, ez infernura joango ete diran, ezertxo ere ez; ta ori asko eztala, beren umetxoan aurrean edozer gauza esaten ta egiten dute, edozer loikeri, edozer birao, edozer madarikazio, edozer errieta. Zer ikasi bear dute ume oiek? Erdaldunen artean dabillanak erderaz ikasten badu eta frantzezen artean dabillanak frantzezez, gaistoan etxean bizi danak nai ta naiez gaistakeria ikasi bear.

4. O n. a. gurasoak! Zuen seme alabakiñ orrelakorik gertatu bada, zuek atera badituzue errugabeko bizitzatik okerreko bizitzara, saiatu zaitetzte gaurtik aurrerantzean negarrezko bidetik zuen umeak zeruko atearaño eramaten. Negarrezko bide au garratz ta neketsua dala esan dizuet asieran, ta ala da egiaz, oso da neketsua. Eleizako guraso Anbrosio santuak gauza onen gañean oso bildurgarriro itz egiten digu: *Felicius invenitur qui innocentiam servaverint quam qui congrue penitentiam egerint*, errezagot arkitzen dira lenengo garbitasuna galdu ez dutenak, gero negarrezko bidetik zuzen dijoazenak baño. Bildurgarritzko gauza da Anbrosio santuaren esakera au, baño baita ere egia andia. Lenengo pekatua izan oi da egiten gaitzena, bada bein bat egin ezkerot oso errezagot besteak bere atzetik errezkada luzean. Bein pekatu bat egiñ ezkerot, ateak, zabalik daude beste guztientzat, lotsa santuak igez egiten du, griña gaistoak deiezka dabilta, deabrua beti dago anima zirikatzen ta anima gaisoa len baño askoz argalagoa Or, gure basarrietan urak lubaki zati bat botatzen badu, berialaxen ondatuko dira lubaki guztiak. Orregatik egin bear dira alegiñak lenengo ur-sartzeak tokirik izan ez dezan, orregatik egin bear da alegiña lenengo pekatua egiñ eztediñ.

Oso gutxi dirala dio Anbrosio santuak, pekatuakgatik bear bezela negar egiten dutenak *qui congrue penitentiam egerint*, eta ala da. Eliza santaren lenengo gisaldietan, gaistakeri andi bat egiten zutenak joaten ziran elizara garisumako lenengo egunean, beltzez jantzirik, eta an, eliz-artzai nagusiak ipintzen zioten buruan surtako autza ta ateratzen zituan elizatik kanpora ta itzitzen zituan bereala eleizako ateak. Pekatari oiek, beren etxean, bakartadean, erregetan ta badaur egiñaz igarotzen zituzten astegun guztiak eta jaia zetorreanean joaten ziran berriro elizatarira, baño etziran barrura sartzen. Geroago ematen zitzaion eliz barrura sartzeko bai-



mena itzaldiak aditzeko bakarrik, edo oso auspezturik, arpegia lurrean zuela arren egiteko, baña etziran egoten elizan Meza bitartean. Egun asko, aste asko igaro ta gero ematen zitzairen parkazioa. Gaur eztauka eleizak orrelako gogortaderik, bear bada bere semealabetan lengo fede sutsurik arkitzen ezualako. Gaur oso errez parkatzen zaizka pekatuak edozeñi. Eleizak esaten dio kristauari, Jaungoikoaren izenean bigun-bigunkiro bigunago ezin dan bezela egiten dituan gauza on guztiak izan ditzala pekatuen zorra ordaintzeko *quidquid boni feceris...*; baña Jaungoikoaren samurtasunari ondo ta leñargitsu erantzun bearrean, pekatuaren sorra ordaintzeko gauza on asko egiñaz, berriz ta berriz lengo pekatuakiñ edo andiagoakin joan oi dira kristauak autortokira. Orregatik dio egia andia Anbrosio santuak, au da, gutxi joaten dirala zerura negarrezko bidetik beste bidetik baño ere gutxiago.

Bide onetatik egiaz joatea da animaren erdian gaizki egiña min iza-tea, biotz-biotzetik pekatua gorrotatzea, geiago gaistakerian ez erortzeko asmo sendo sendo bat beti idukitzea: *animae dolor et detestatio de peccato comis-so cum proposito non peccandi de coetero*. Bide orretatik egiaz joateko bene-benetako damua bear da, bene-benetako negarra, S. Pedro batek egiñ zuan bezelako negarra, Magdalenarena bezelakoa, beti beti iraungo duan negar ta damua. Egun bateko damu ta negarra ezta ezertarako: egun bateko damua euki duen asko daude infernuetan, ta beste askoren artean Kain da Judas bera.

Jesus Jaungoikaren negarra kendu ezkerro, Mariaren negarrak izan dira lurrean negarrik samiñenak, negarrik andienak, negarrik luzienak. Belenen Jesus jaio zanetik asi ta Kalbarioko mendiraño etzituan Mariak bere malkoak beñere legortu: Ejiptoko bidean igesi zijoala, Jerusalemgo eleizan ta Jesus iltzen ikustean, etxeko bakartadean ta jente guztien aurrean negar soliak egiten zituan Mariak; eta ez bere gaistakeriakgatik negar egin bearrean zegoalako, ezpada gizonen itxumen ta eskergabeke-riagatik, ondo ikusten zualako geien-geien negar egin bear zutenak farre algetan ibilliko zirala lurreko bizitzan.

N. a. m.: Zerura sartzea nai badezute, bide bi oietatik batean ibilli bear dezute nai ta nai ez, bide bi oietatik batean erabilli bear dituzue zuen umeak. Lenengoa da ohea, bigarrena besterik ezezkoa. Ernai bizi zaitez-te, lan egin zazue zuen umeak pekatu bat bakarra egundaño egiñ ez deza-ten, zuen bizitzan pekatutako biderik ikusi ez dezaten. Zuen alegiñ arekiñ semealabak zeruratzen badituzue, zorion andia izango dezue zeruetan, ta ah eder ta apainduak Jaunaren aurrean zuen umeak ikusten dituzuenean, egiaz esango dezute: *Melior est fructus meus auro et lapide pretioso*: ara or,

Jauna, nere alabatxoa, ederragoa da urre gorria ta arri argitsua bera baño. Baña zuen arduragabetasunagatik zuen umeak galtzen badira, orduan bai sartuko zeratela nai ta nai ezko negarrean, egundaño amaituko eztan amorrutako negarrean.

Baita zuek ere, ikastetxeko nere arreba onak, zuek ere zorionduak izango zerate zeruan ta lurbira onetan darabiltzuen lanbide orregatik umeren batzuk zerura eramatean esan dezakezute: *Melior...* Badakizute zenbat balio duan anima batek; badakizute zenbat odol eder ixuri zuan Jesusek eta zenbat malko Ama Mariak anima oiek irabasteko; badakizute gañera guraso askoren arduragabetasuna; ta orregatik jarri zarete ume-txoen bide-erakusle, ume oiek Jaunaren arpegia ikustera eraman naian. Badaki Jaungoikoak zer lan ederrean zabiltzaten ta Berak sarituko zaituz-te ongi, lur onetan sari ta eskerrik billatu ez arren.

Zuek, n. umetxo maiteak, izan zaitezte beti onak, beti garbiak, Ama Mariaren antzera, eztezazutela alperrik galdu bataio santuan artutako jan-tzi txuri ederra; baiñan iñoiz argaltasunez, gaistakeriren baten erortzen bazerate, ez egon pekatuan egun batean ere, ez egundo lotara joan peka-tuan zaudela, garbitu animak laster, ta sartu leialkiro, iraunkor ta gogorik onenarekiñ negarrezko bidean.

Eta zuk, zerurako bide biak ongi dakizkizun Ama Maria, erakutzi egiguzu zerurako bidea, lagundu zaiguzu gure itz, gogo ta pausu (oinka-da) guztietan, emen Jesusen legea beteaz' bizi izan geralako gero betiko zorion ta gozotasunera iritxi dezagun. Amen.



Coronación a la V. de Begoña

(1900)
(Bilbao)

*Quomodo si cui mater blandiatur, ita ego
consolabor vos, et in Jerusalem consolabimini.*
Ama batek bere umea gozatuten daben gisara
neuk gozatuko zaituet, eta zeruetan
izango zarie betiko zorionduak.
(Isaias Igarlearen liburuko 66 garren irakurburu
ta 13 garren bersotik artutako itzak.)

Neure biotzaren erdiko anai maiteak: (Bederatzi urrenaren azkenen-
go eguneraño eldu gara). Bederatziurrien onetan Begoñako Ama Mariaren
arpegi ederra ikustera alderdi askotako gizon da emakume aldrak etorri
zarie, batzuk oñez da mendirik mendi, antziñetako euskaldunen gisara,
gabaren erdian bide luzeak ibilliaz; beste batzuk *errenkada* luzean bata bes-
tearen atzean dabilztan suburdietan, azkarrago etortearren lurraren azpi-
tik eta ibar berde narotsuen ziar, baso ta solo guztiak erdierditik ebagiaz;
askok igon dozue Bilbo barrutik, ez Ama Maria gutxien maite dozuena;
eta danok ikusi zaituet, etxepe batekoak legez, *siñiste* onaren da egiazko
maitetasunaren lokarri bigunakaz ederto alkarturik.

Gaur goizean etorri zarienok, nire euskerazko itzaldi edo jarduna
entzuteko asmoan geldituta zagozen ezker, badakit guztiok zariela neure
anai maiteak, J. Kristoren lege-zale zintsoak, Euskalerri bedeinkatu one-
tan sortuak, odol garbiko gizonak. Poz-pozik eta gogorik onenagaz esa-
ten deusuet guztioi ondo etorriak izan zaitezala. (Biotza samurturik dau-
kazuela uste dot, ez nik esango deusuedana gaitik, ezpada Andre Maria-
ren aurrean zagoezalako baiño. Bere arpegi ederra ikusteak bakarrik
bigundu zaitue. Ama da, bear bada etzenduen aspaldian ikusiko, ta aspal-
dian ikusi eztan ama baten ondoan dagozan seme-alabak beti egon oi dira
samurturik.)

Baña, zerk ekarri zaitue zuen errietatik Begoñaraño bederatziurrien
onetan? Zertara etorri zarie Ama Mariaren elizmai edo altara aurrera?
Zuen lurrak eta zuen ondasunak zeruetatik gorde daizala esateko ustean?
Zuen etxeak bedeinkatu daizala? Zuen aita edo ama, anaia edo arreba,
alaba edo semeren bati osasuna emon daiola? Edo bakotxaren premiña ta
bearrak alde batera itxirik, etorri zarie gaur gure Euskalerri maiteak aspal-

dian daukan sotiña bein kendu naian, bere begietako malko samiña ligor-
tuteko gurari onagaz, Begoñako Amari esatera Bera izan dedilla Bizkaia-
ren zuzendari ta zaintzalle, Beragandik itxaroten dozuela laguntasuna,
Bere eskuetan isten dozuela Bizkaiaaren ausia? Ori alan bada zeruak argi
egin deusue, ta alan dala deritxot. Erri andietako agintarien etxe-aurrera
aldraka, oioaka, deadarrez joaten dira gizonak zerbait bear dabenean, da
emoten deuse agintariari paper bat edo geienetan batek egiten dau berba,
batek esaten deutzaz agintariari guztien premiñak. Bizkaiko erri guztietat-
tik etorri zarie zuek bederatziurrien onetan gure lurreko Ama Nagusi ta
agintzalle andienaren etxera, bere bearrean gagozala ta gure erri maite
onek daukazan naigabeak gozatu daizala esateko asmoan.

Egin daigun, bada, geure arena, egin daigun eskabidea; baña ez
paperez, aoz, zerren aozko esana askozaz beroago da ta obeto entzuna
izaten da. N. a. m.: neuk egingo dot eskabide ori zuen izenean.

Baña onetarako, itxaropenez beterik berba egin daiogun, ondo izan-
go da aida batean ikustea Mariak bere eskuetan daukazala gauza guztiak
eta guztizko biotz samur da ta maitalearen jabe dala. Au da nire itz edo
berbaldi laburraren geia.

Begoñako neure Ama, neure Ama zerutarra: ara emen euskaldunak.
Euren izenean berba egitera natorkizu. Nire argaltasunarentzat ames
andiegia zan, da eztot egundo zure aurrean berba egiteko usterik euki;
baña ni baño andiagoen aginduz onetara jarri nazan ezker, lagundu egi-
dazu zeuk, Zeruetako erregiña donea, emoidazu argia, indartu naizu bear
dan era ta egokitasun onean egin daidan neure jarduna. Au eskatuten deu-
tsugu danok, ekandua dan legez goi angeruagaz batera *Agur Maria* esanaz.

Texto.

N. e. b: Argala da gizona, urri ta neurtuak dira bere argi ta indarrak,
guztiz laburra bere amore ta alizatea.

Jaiotzatik illarteraño beti ta gauza guztietan egon oi da laguntasuna-
ren bearrean. Umea dan bitartean ezertarako ezta, bere gerriaren gañean
ezin jaso dan untza dirudi; bada untza orma zarrari edo zugats gogorrari
eutsita goratuten dan legez, gizonak bere gurasoen sendotasunari eutsirik
asi bear izaten dau; ta ondo asi ta gero bere, sendoa dala ta goietan dabi-
llela uste izanarren, beti ta edozetarako arkituten da norbaiten bearrean.
Jakituriako bide illunetan oinkada bat edo beste ibilliko bagara, gauza eder
da apaingarrietan zerbait aurreratuko badogu, lantegirik edo burdinbide-
rik izango bada, beste errietako gizadiakaz saldu-erosterik euki nai bado-
gu, orko ta emengo, goiko ta bekoakaz egin oi daroagu alkartasuna. Iño-
ren laguntasun бага eztau gizonak gauza on bat egin: eztau jauregi edo



eliza eder bat gizon batek bakarrik asmau ta jaso; eztau liburu jakintsu bat bestiakandik zerbait ikasi baga argitaratu; eztau burdinbide laburtxu bat egin, urriñeko uretara joango dan ontzi andi bat eztau amaitu. Argal askok alkar arturik lurreko gauzetan zerbait egin daroagu, ekiñaren eki-nez, jardunaren jardunez, baña beti gabiltz geiago naian da beti daukagu gañean gure arrotasunak aspiratuko dituan argaltasuna, adorerik eza, indargetasun apalgarria. Gurari andiak daukaguz biotzean, gogo sutsuak erneten jakuz arimearen barruan, baña geienak eziñaren ur andietan itota geldituten jakuz. Askotan ito jataz niri beintzat neure biotzeko gurariak, askotan esan bear izan dot: «ezin neike». Au da, nire iritxiz, gizonaren aoan ondoen datorren esatea.

N. e. biotzekoak: goietan dagoz alizateak, zeruetan dago Jaungoikoa. Berak sortu zituan, ezerezetik eta itz bat bakarra esanaz, zeruak eta lurra, aingeruak eta gizona, mendiak eta itxasoa, uretan da legorrean dakusguzan apainduri guztiak; berak egin ditu neguko edurra ta udabarriko loreak; berak emoten dautsa argi ta berotasuna eguskiari ta gabari illuntasunaren estalki baltza; berak daukaz aidean goi eder urdiñ izartsuak; bere besoa-ren indarrak botaten dau odeietatik tximista gori kiskalkorra; berak emoten dautsa aise ta olatuari arnasa andiko orrua bildurgarrizkoa; berak ondatu daikez une batean gizonaren egitarik sendoenak; berak birrindu daike lurbira guztia ta bere gurariagaz lurbira barriak sortu.

Orregaitik, siñistedun gizonak, lurrekoen laguntasunik eztauken orduetan, edo adiskide ta erritar guztiak ezer ezin daikiela esagututen dabenean, zerurutz jasoten dabe euren biotza, zerurutz euren eskaria; orregaitik preminetan dagozan guztiak billatuten dabe Mariaren bitartekotasuna, bada Ama Maria da zeruetako erregiña, Jaungoiko donearen eskumako aldean jarrita dago, ta izate done orren aginpide guztiak bere eskuetan daukaz.

Baña, zelan da Maria ainbeste anditasun da eskubideren jaube? Jaungoikoari bakarrik dagokiona zelan dago gaur Mariaren eskuetan? Berba bat bakarragaz adierazoten emongo deusuet. Maria, Jaungoiko gauza guztien Egille orren Ama da. Egun dontsu baten, berez da betikotasunetik illezkor da altsua dan Jaungoikoak zorientasunaren jauregitik lurrera etortea erabagi eban, gizona lurretik zeruraño jasoteko asmo ederragaz. Da Lurbiaren asieran *faciamus hominem ad imaginem et similitudinem nostram* esaezan gisara, «egin daidan, diño, ama bat neuretzat neure irudira: sortu bedi garbi; neure garbitasunari dagokion legez, gizonen jatorrizko gaistokeri bage; eztaiola orbanaren kereisiak ikutu; iñok izan ez dituan da izan-go ez dituan edertasunakaz jantzia izan dedilla, arimako aberastasunez

neurribage apaindua, neure eskuetatik urten daben izaterik aberatzena». Ta sortu zan Maria infernuaren sakontasun baltzari dardara eragiñaz, zerua ta lurbira guztia atsegiñez beteaz, garbien artean garbiena, ederren artean ederrena, maitagarrien artean maitagarriena. Ta Mariagandik jaio zan lurrean Jaungoikoa, Jesusen izena artuaz, Mariak zaindu eban Jesus-Umearen lo gozo-gozua zeruko aingeruak baiño milla bidar obeto, Mariak asi eban Jesus bere bular garbietan; Mariak lagundu eutsan Jesusi erbeste onetako ibilpide neketsuan, Belenetik Egiptoraño ta Jerusalengo uri barrutik Kalbarioko mendi tontorrera. Dana, oso-osorik izan zan Maria Jesusentzat: *(ta Jesus Mariarentzat (gerorako) Jesusentzat izan ziran Mariaren gogamenak, Jesusentzat bere itz bigun eztitsua, Jesusentzat bere begiak, Jesusentzat bere espanak, Jesusentzat bere arnasea, Jesusentzat bere izate guztia; Jesusi emon eutsazan bere biotzeko samurtasunak (eta Jesusek Mariari), Jesusegaitik agortu zituan bere malkoen iturri garbi ta ugariak. Eta izanik Jesus bakotxari bere saria emoten deusan Jaungoiko zuzen esker andikoa, zelan sarituko ezaban Andre Mariaren ardura ta lan gogotsua? Izanik Jesus lapur bati azken orduan egindako arrena entzuten dautsan Jaungoikoa, zelan entzungo ez ditu bere Amaren arrenak? Izanik Jesus bere ikasleak Israelgo erriaren erabagitzalle jarri zituan Jaungoikoa, zelan ezaban ipiñiko bere Ama lurbira guztiko ansien erabagitzalletzat? Egia andiagaz esaezan Nikomediako Gregorio doneak Mariaren mende ta agindupean itxi zituala Jaungoikoak sortutako gauza danak, eta eztagola Mariak ezin daiketan gauzarik: *nihil resistit tuae potentiae, nihil resistit tuis viribus; omnia obediunt tuo imperio, omnia tuae potestati serviunt*.*

N. e. m.: Elizako beste guraso askok Mariak daukan eskubidearen gañean diñozkuena ezteusuet esango, geiegi luzatu ez nadiñ. Ezta premiñazkoa. Lurbira guztiak daki Mariaren aginpidea zenbaterañoakoa dan: emen bertan, eliza onetan bertan erakutzi dau iñun baizen ondo gizon gaistoak zuzenbidera ekarriaz, errenari oñak zuzenduaz, sugarren erditik eta ujolen indarretik erre edo itz barik gizonak atareaz; itsuai argia emonaz, mututuari miña, gaixoai osasuna, etxadi askori ondasuna, zoriona ta bakea. Irakurri egizue neure erakusle on Etxebarria jaunaren liburua, Begoñako Andre Mariaren kondaira, ta an ikusiko dituzue Andre Mariak Begoñan egin dituan mirari asko, beste asko, geienak argitaratu barik geldituarren. Baña zer diñot nik eta zetan nabill? Guk zer daukagu iñun da ezer irakurri bearrik? Zeñek eztaki Bizkaian Begoñako Amak zeru ta lurrean daukan eskubidea? Zeñek ezteutsa emen, larri ta estu izan dan orduren baten Begoñako Andre Mariari arren egiñ? Zeñek eztau esagutu zenbaterañoakoa dan Maria guztiz donearen aginpide luzea? Esan daiela



euren lurrak legorturik egon diran eretian euri eske etorri jakozan erriak; esan daiela olatuen artean besoak zabalik bere laguntasuna eskatu dautsen itxasgisonak; esan daiela izurri urte bildurgarrietan bere aurrera negarrez etorri diran gizadiak; esan daiela eliza onetako ormetan esegita dagozan *pintura* gomutagarriak. Nik eztaukat geiago esan bearrik.

N. e. b.: Itxi daigun gauza esagututzat Mariaren aginpide andia (ta goazen bere erruki ta maitetasuna ikustera) Maria Jaungoikoak bere amatzat betikotasunetik aukeratua dala esan dogu, ta zelan Jaungoikoak bako-txari bere izakera ta bizikieran bear daben argi, era on da egokitasuna emoten deutasn, jakiña da Mariari emongo eutsala Jaungoiko santu, errukior da maitekorarren Amak bear eban ontasun, erruki ta maitetasuna. Etzan naikua Mariarentzat beste edozeñ done edo santuk daukan ontasuna: Jaungoikoaren ontasun da errukia santu guztien gañetik dagoan antze-ra Mariaren ontasun da errukiak beste sortutako izate guztien gañ-gañetik egon bear eban, da jaio zan egunetik bertatik Maria milla bidar onagoa zan, erruki ta maitetasun geiago eukan bere anaientzat beste done ta ain-geru guztiak batera baño. Ta, zeñek neurtuko dau gero Jesusegaz bizi izan zanean ikasi eban erruki ta maitetasuna? Neurtu egizuez itxasoetako urak, neurtu egizuez zeruak, neurtu egizue Jaungoikoa, ta orduan jakingo dozue zenbaterañoakoa dan Mariak gizonentzat daukan maitetasuna. Errekorra dana eziñ leiteke erre бага suaren erdian egon; usaiñ gozozko loreakaz dabillena usai? gozoz beterik gelditu oi da; ta Maria maitetasunezko surik andienaren erdian bizi izantzan, zeruko lorarik ederrenaren jaube izan zan, Jesusen jaube; beragaz etsepe batean bizi izan zan ogeta-mairu urtean; bere altxo ta besoetan euki eban milla aldiz; bere arpegi ederrari musuka, bere begi zerutarrai begira, bere ule kiskurrak igortzika egongo jakon sarri askotan. Zelango usaiñ gozoak esarriko iakozan bada Mariari, zenbat samurtasun ikasiko zituan Jesusegandik, zenbat ontasun artuko zituan ontasunaren asiera, sustrai ta iturburutik? Joane donea (santua) bein bere burua Jesusen bularrean euki ebalako ezta baño gozoagoa izan zan, da bere bizitza guztian maitetasuna erakusten jardun eban. Da Mariak bere erraietan euki badau Jesus, ainbeste aldiz euki badau bere bularraren ondoan (kontra), Jesusen Biotz santuko taupada neurtuak Mariaren biotzagaz batera ibilli badira, nok esan daike zenbaterañoakoa dan Jesusen Biotzetik Mariagana sartuko zan maitetasunaren ibai zabala? N. e. Maitetasuna da Jaungoikoa. Maitetasunagaitik etorri zan Jesus lurre-ra, alderdi guztietan ondo egiten igaro zituan emengo bizitzako egunak, *transiit beneficiando*; maitetasunagaitik itxi euskun gure elizmaietan bere gorputza, bere odola, bere Jaungoikotasuna; maitetasunez soraturik legez

iltzan kurutze batean gizonagaitik. Ez euskun beste legerik ipiñi, maitetasunezko lege guztiz erreza baño: «maitetuko dozu gauza guztien gañetik Jaungoikoa, ta zeure lagun urkoa gero zeure burua maite dozun antzera», esaeuskun, da lege orren erroak Berak zabaldu zituan alderdi guztietan da sartu zituan batez bere Ama Mariaren erraietan, gizonaren biotzean. Ordutik aurrera berez doakio gizonari biotza maitetasunaren billa, itsua badago oker bidetik, ezer eztan gauza bat maitegarria dalakoan (Jaungoikoa baño maitegarriagoa); zeruko argiak lagun egiten badautsa Jaungoikoa lenengo maitetuaz, da gero, beren mallatan, bere eskuetako egintza ederrak. Maitetasuna nai-ta-naiezkoa da Jaunaren irudira egindakoentzat eta eztago iñor norbait maitetu eztabenik. Ara: elizgizona nas ni, begir-tuten dautsat soñean daroatan jantzi baltzari, baño ez nas lotsatuko esaten, neuk bere badakit zer dan maitetasuna, maitetasunaren ezti apur bati ikutu izan deusat. Neure gelatxoan daukat neure maitearen irudia, ta an, bakartadeko ixilltasunean askotan esan deusadaz asmau ditudan gauzarik bigun da gozoenak, an egon natxako sarri laztan da laztan aspertu eziñik. Badakizue zeñena dan irudia, n. a.? Begoñako Andre Mariarena da, bera da neure Ama ta bera bakarrik dot maite gaur. Orain lau illabete beste ama bat baneukan; gaur umesurts nago, neure biotzaren naigabeak nori esanik eztaukadala. Ta nire irudira beste asko negarrezko leku onetan...

Orregaitik erakutzi deusku Jesusek *Aitagurea*, arimea zeruetara jaso daigun arnasa ta poztasun apur baten billa; orregaitik Berak ipiñitako legea Berak ondoen bete gura izaeban, orregaitik Kalbarioko mendian iltzan gugaitik, bere eriotzeagaz esaten euskula: «neuk maite zaituet iñok baño geiago»; orregaitik, kurutzean ilten egoala, Amaren biotza zala maitakorrena gogoraturik, Ama bat emoeuskun, da ez edozeiñ ama, Jaungoikoak beretzat aukeratu, aberastu ta zeruko apainduriz jantzi eban Ama, Amarik onena, gozoena ta samurrena. Bere ondoan, Jauna kendu ezker, izaterik onenak ezтира onak, samurrenak eztauke samurtasunik, maitegarrienak ezтира maitegarri. Ta poztu zaiteze, n. e. b., Ama santu ori, zerue-tan dagozan erruki guztiakaz egun dontsu zorioneko batean Bizkaiko lurrera etorri jakun, gaberdian urtetan daben illargia legez, Jaungoikoak zerutik Bizkaia biraldu eutsan, irribarria legez Begoñan agertu jakun (goizeko izarra baño askozaz ederragoa) bere Amatasun samurra erakus-teko asmoetan: da ordutik aurrera Begoñatik Bizkai guztira zabaldu ditu bere emote on ugari ta pozgarritzkoak. Eztago bada ezdabaidarik, Maria ezta bakarrik on ta errukitsua, Mariak maite gaitu ta maitetasunak ekarri eban bere bizkaitarrakana.



Orrezaz ostein, guztiok dakizue maitetasuna, erantzura txarra daukanean ilda gelditu oi dan legez, erantzura ona daukanean asko geiago asi ta isiotuten dala; ta Bizkaiak Mariaren maitetasunari guztiz ederto erantzun dautsa beti. Bizkaiak egin dautsaz Mariari guztiz antxinatik base-liza egokiak bere mendi, saroi ta gallurretan; Bizkaiak eskiñi deutzaz Begoñako Amari, bere oletan egin daben burdiñea ta itxasoko arraiñakaz atara daben dirua; Bizkaiak emon deutzaz Indietatik ekarritako urrea ta zidarra Bizkaiak ipiñi dau Mariaren irudia bere ontzi azkarren aurrean, erri andietako kalietan da erritar bakotxaren etxe barruan; Bizkaiak jaso dau bere banderetan Mariaren irudia arrotzen kontra jasartu bear izan dabenean; Bizkaiak dauka Maria, Kalbarioko mendian kurutzearen oñean egon zan legez, Gernikako zugatzaren ondoan, geure batzar etxean, geure antxinetako gomuta zar guztien zaintzalletzat Bai; Bizkaiak maite dau Maria, ta emen zagoze zuek danok maitasunaren agergerri on bat emoten, orain ogei urte beste bat emon zenduen legez. «Begoñara», esan deutzue, ta Begoñaren izena entzun orduko danok asi zarie bidean Ama Mariaren arpegia ikusteko pozagaz, ta Berari zuen eskariak egiteko asmoz. Orregaitik uste dot Mariak gudanako daukan maitetasuna gure erantzura onagaz asko geiago asi jakola, zeruetako erregin altsua guri laguntzeko prest daukagula, Ama batek bere umeak gozatu oi dituan legez Mariak gozatzuko dituala gure naigabeak. *Quomodo sicut mater blandiatur ita ego consolabor vos.*

Min dot geiago esan ez bearra, baña eztago astirik, eta onenbestagaz esagututzat itxi bearko dot alde batetik Mariak eskubide andiak daukatzala ta bestetik bere biotz samur da errukitsuaren jaubea dala.

Orain bada, n. e. b., esan ditudan gauza guztiak egiak diran ezkeror, ustekidarik andienagaz esan geinkeoz Mariani Bizkaiak eta Euskalerri guztiak daukazan premiñak, itxaropenik onenagaz ipiñi geinke bere eskuetan euskaldun *guztien* eskaria. Egin daigun arren, edo egin daiodan neuk danen izenean. `Begoñako Andre Maria: emen gaukazuz zure eleizmairen aurrean gure samintasun andiak zuri esatera etorri garean euskaldunak. Ai Ama! Euskalerri errukarria, oraindik une asko eztala, berezkorra zan, bustarri бага egoan, zorioneko bizi zan iñoren ondamu barik bere lege zarraren egalpean; da oraiñ gure naigabezko egun illunetan, bere lege zarren liburua eskuetatik kendu ta urratu dautse, bere batzar-jauregi-ko ateak itxi ditue (zure irudia, iñoren arren бага, barruan gelditzen dala), Gernikako zugatz maite maitearen azpian ixiltasun ilgarria dago, bada bere kerizpe osasungarrian eztira jarten Bizkaiko gizonak, kurutzegaz batean dagoan zugatz bedeinkatu ori basterturik dago (kurutzegaz bate-

ra), iltzat daukagu askok; da euskaldunak, lenago kurutzearen alde, erbesteko errietan ainbeste izerdi ta odol emon genduan euskaldunak, lenago Bizkaiari begiratu bear jakonean añ azkar, arduratsu ta ausardi andikoak giñanak, gaur moteldurik gagoz, nagitasunak loturik gaukaz, eztakigu bear dan añ egiten kurutzearen alde, euskeraren alde, antxiñetako ekan-duen alde, (lege zarraren alde?); eztaukagu indarririk, estaukagu kemenik, eztaukagu adorerik, eta, ai! auxe da txarren-txarrena: ardura andirik bere ez askok. Egia da, negar egiten badakigu emakume argalen gisara, ta ori bere ez danok.

Badira esan norbaitzuk, Euskalerrian jaioak, miñez euskaldun garbiak dirala emenarren, sorterriaren onari baño euren etxeari ta buruari geiago begiraturen dautsenak, euren gurasoak zer izan ziran asturik bizi diranak. Olangoen euskaldun odola izosturik dago, ta ez litzateke berotuko, ez litzateke epelduko gure erriko arerioak Gernikako zugatz igarragaz egindako su andi baten ondoan bere.

Orregaitik, Begoñako Ama, gu argalak bagara, guk ezin badogu ezer egin, zuk guztia daikezu, ta zure eskuetan ipinten dogu Bizkaiaren ausia. Garbiro esango deutzugu geure gogamena: ez genduke gura ezertan bere geiegizkoak izan; ez genduke gura griña gaistoen lañoak gure adiña lausotu daian; zure Semeak aginduten daben legez lagun urkoari zor deutzagun maitetasuna gorde gura genduke; ezta bear da eztaukagu biotzetan iñorentzako gorrototik. Bakar-bakarrik eskatuten dogu emon daiguela guri geure legea, bada erbestean egindako lege gaisto barriakaz ezkabiltz ondo, ta gu okertuagaz iñor ezta zuzendu; itxi daiguela guri bakean geure gisara, bakotxak dakialako onduen bere etxearen barri; itxi daiguela il barik geure euskerea, ez bakarrik mendian da baserrietan, baita bere uri ederretako kalien erdian da elizarik andienen barruan, bada toki guztietan bizi izateko da Mogel da Astarloaren izkuntzea. Eztauela euskerea ikaste-txietatik kanpora bota, gauza danga ta barregarria legez; eztauela emengo umien miña lotu *Aita gurea* ta *Agur Maria* euren gurasoak erakutzi dautseen gisara esan eztaien. Ontzat daukaguz bestien izkuntzak, baña geurea daukagu obetzat geurea dalako, zarrena dalako, onena ta ederrena dalako gure iritsiz. Azkenez, gure arerioak bakotxari berea emoten zaleak badira, alderdi guztietan erderaz *¡viva la libertad* deiezka badabiltza, itxi daiguela guri geure gañ, itxi daiguela euskaldun da kristiñau isaten da izan daitezela eurak gura daben guztia.

Orixe nai dogu ta besterik ez, Begoñako Ama. Gomutau zaitte, Bernardo doneak esango leuskizun legez, eztala egundo iñor zugana etorri, negarrez ta zotiñez bere etxera biurtuteko. Ezkaizuz, bada gu geure nai-



bageakaz atzera bialdu. O Jesus errukiorraren Ama errukiora! Eztaukagu gizonakan itxaropenik, Zu zara gure itxaropen bakarra. Entzun eiguzuz, bada, geure biotzaren erdiko arren beroak..., eta, guk deritxogunez, zuzenbidetik badator eskatu deusuguna, egizu zeuk guztia al daitezun erregiña altsu orrek, jadtisi daigula gure gurariak eskatu deusuna, biurtu gaitzala gaur daroaguzan baño egun obietara, lañu bageko zeru garbitik eguski alaiaren errañuak argi egin daiguela».

Neure anai euskaldunak, agur. Bederatziurren onetan euskalerriaren alde egin zeinkienik gauzarik onena egin dozue, Ama ta bitartekorik onenaren eskuetan ipiñiko dozue zeuen arren da guraria, joan zeintez zeuen errietara atsegintasunez beterik. Agur, bada, guztioi. Emen geldituko da Maria, baña bere begirada bigunak lagunduko deusue zeuen bidietan. Maite danari, agur eginda gero bere, alkarregandik aldenduta bere, atzetik begira egoten gaiakoz, da Begoñako Amak maite gaitu. Berak bedeinkatuko ditu zuen gurasoak, zuen seme alabak, zuen anai-arrebak, zuen etxeak, zuen arlo ta zeregiñak; berak lagunduko deusue oraiñ da eriotzako ordu larrian, da, euskaldun egiazkoak legez, bere Seme Jesusen lege ona beteten badozue, berak sartuko zaitue beti-betiko zorionera, ta zeruetan ikusi daigula alkar guztiok. Alan izan dedilla.

(INMACULADA)

De qua natus est Jesus, qui vocatur Christus.
Beragandik jaio zan Jesus, Kristo deritzaiona.
(Mateo Santuaren Ebanjelioko 5 garren
irakurburutik artutako itzak.)

N. a. m.: Andia da Jaungoikoak gizonarentzat daukan errukia. Erruki orrek jantzi eragin zion gizonaren jaskera argala, erruki orregatik negar egin zuan lurrean, beti negarrez dabillen gizonarekiñ batera, erruki orregatik egin zuan Jesusek bere burua umeakiñ ume, gizonakiñ gizon, langilleakiñ langille, arrantzaleakiñ arrantzale, beartsuakiñ beartsu; erruki orregatik izan zan Jaungoikoa gaixuen artean sendatzalle, ezjakiñen artean erakusle, jakintsuen artean jakintsu, zeruko jakituria erakusteko; erruki orregatik artu zuan bere gañean gizonak egundaño ordaindu ezin zezakean sorra; erruki orregatik illtzan ta ereki zizkon gizonari zoriontasuneko ate pozgarriak.

Andia da bada Jaunaren errukia, ta era berean da andia Jaungoiko santu orren eskubidea. Berak sortu zituan ezerezetik eta itz bat bakarra esanaz, zeruak eta lurra, aingeruak eta gizona, mendiak eta itxasoa, uretan ta legorrean ikusten ditugun edertasun guztiak; berak egin ditu neguko edurra ta udaberriko lore apainduak; berak ematen dio argi ta berotasuna eguskiari eta gabari illuntasunaren estalki beltza; (berak dauzka aidean goi eder, urdiñ ta izartsuak;) bere besoaren indarrak botatzen du odeietatik *tximista gori* kiskalkorra; berak ematen dio ais eta olatuari arnasa andiko orrua bildurgarritzkoa; berak ondatu lezakez umetso batean gizonaren egitadarik sendoenak; berak ondatu lezake lurbira guztia ta bere nai izatearekiñ bakarrik lurbira, eguski ta izar berriak sortu.

Egun doetsu batean, berez ta betikotasunetik añ errukior ta eskubidetsua dan Jaungoiko ori errukitu zan gizonarekiñ ta zoriontasunaren jau-regitik gizonen artera etortzea erabaki zuan deabruaren mendetiko gizona ateratzeko. Ta lurbiraren asieran *faciamus hominem ad imaginem et similitudinem nostram* esantzuen bezela, *faciamus Matrem*, esaten du, *ad imaginem et similitudinem nostram*; egin dezatan Ama bat neretzat eta nere irudira; sortu bedi garbia, nere garbitasunari dagokion antzera, gizonen jatorritzko gaisakeri gabe; eztezaiola orbanaren kereizak ere ikutu; iñok izan ez dituan ta izango ez dituan edertasunik andieneki jantzia izan dedilla, animako aberastasunez neurrigabe apaindua, nere eskuetatik erten duan izaterik abe-



ratzena. Ta orduan, egun argia datorrenean gabak igez egiten duan bezela, jatorrizko gaistakeriak igez egin zuan infernuko leize zuloetaraiño, ta sortu zan Maria, zeru ta lurra atsegiñez beteaz, garbien artean garbiena, ederren artean ederrena, maitagarrien artean maitagarriena.

Au da, n. a., gaurko egunean Eleiza santak gogoratzen digun jai ederra. Baiña eztezala inork esan Mariarentzat bakarrik dala Jaungoikoa emalle ugari ta ona, ta ez beste Adanen ondorengoentzat. Egia da Mariari Jaungoikoak, bere Amari zegokion bezela beste Adanen ondorengo guztiai baiño animako aberastasun ugariagoak eman ziozkala, baiña baita ere egia da ta gaurko jaian gogoratu bear degu jaio ta laster asko, kristau guztioak garbitu genduzala bataio santuan, danok apaindu genduzala zerurako bear dan jaskera garbiarekiñ, danok artu genduzala bere besoetan seme alaba maiteak bezela; egia da animako ondasunetan desberdintasun andia dagola Mariagandik gugana, baiña baita ere Mariak eraman zuan bizitzatik guk daramagun bizitzara. Jaungoikoaren ontasunak guztioi eman digu bere irudira sortu duan anima, guztioi begiratu digu errukiz, ta guztientzat jarri du bere Amarentzat etzuan sakramentu bat, autorrera edo konfesioko sakramentua, bein, bi aldiz, amar aldiz, milla aldiz gure animak garbitu *ditzagun*. Geu gera animako garbitasuna loitzen dogunak, geu gera animako aberastasunak edozeñen oiñetatara botatzen ditugunak; geu gera gure animaren ondatzailleak.

Eta gure egite gaisto orretatik aldendu gaitezen, nai nikizue artzalde onetan erakutzi guere anima ederra, garbi erabiltzetik datorzkigun mese-deak eta gaistakeri edo pekatutik geuk geure buruari ekartzen diozkagun kalteak. Ara emen, nere itzaldiaren gaia.

Auspeztu gaitezen lenengo Mariaren oiñetan, ta eskatu zaiogun denok bere bitartez Aita Jaungoikoari lanbide onetarako bear detan argi ta laguntasuna, oitura dan bezela zeruetako erregiña oni *Agur Maria* esanaz.

De qua natus, etc.

N. a. m: Antziñetatik esaten dan gogamen batek dio, eztuala iñork ematen eztaukan gauzarik, eta denok dakigun egia andi, zuzen ta ziurra bada Jaungoikoak egin, eman ta zabaldu dituala zeru, lur ta gizonen arteko edertasun danak, egiaz esango degu Jaungoikoa dala edertasun danak, egiaz esango degu Jaungoikoa dala edertasun guztien asiera ta iturburua; Jaungoikoa dala guk ames egin genezakean izaterik ederrena baiño askozaz ederragoa; edertasuna bera. Gogoratu zaitezte oraiñ Jaungoikoak egiñ genduzala gu bere irudira, *faciamus hominem ad imaginem et similitudinem nostram*, guk bakoitzak daukagula anima bat Jaungoiko santu orren antzera

sortua, bataio santuan garbi ta apain ta zeruko argiz beterik jarri zitzaiguna; ta esan zadazute anima garbia baiño gauza ederragorik ote dan lurrean.

Ez, n. a. m. eztago gauza ederragorik: eta orregatik Santa Katalina batek esaten zuan, anima garbia aiñ zala ederra eze, bein ikusiko bagenu pozik emango gendukeala gorputzaren bizitza, animakoa ez galtzeagatik. Aiñ da ederra eze, zeruko aingeruak lurrera begiratzean eztue beste gauza onik lurrean billatzen anima garbiak baizik, eta emen jaiotzen diran ume-txoakatik askotan esaten dana, esango dute: bere Aita ederraren itxura du, Aita Jaungoikoaren itxura. Aiñ da ederra eze deabruak infernutik lurrera begiratzean ondamuz edo inbidiaz anima garbia ikusten du gauzarik onena bezela ta gorrotozko itzakiñ esaten du: bai, bere Aitaren itxurakoa da, baiña nik galduko det, al badet, nik kenduko diot bere Aitaren itxura ederra. Aitaren kontra ezin daiket ezer, alabaren kontra saiatuko naiz. Eta saiatzen da ta askotan, txit askotan, kentzen dizka animari bere edertasun guztiak, eta alperrik galtzen du Jaungoikoaren irudia. *Sicut fluit cera a facie ignis*, esaten digu Dabidek, *sic pereunt peccatores*: argizariz egindako irudi bat sutan urtutzen dan bezela orrela urtutzen da griña gaistoen sutan Jaungoikoaren irudia; ta len aiñ eder zana gelditzen da gauzarik itsusi ta nas-kagarriena bezela: *corruptio optimi pessima*. Ori da lenengo pekatuan dakarren kaltea.

N. a. gasteak: Nik badakit oso apainduri zaleak, oso ederzaleak zera-tela, eta askok eder izateagatik edozer gauza egingo zendukezutela. Baiña jakin zazute: gorputzeko edertasuna eztala ezer, azaleko edertasuna baiño besterik eztala, bada emakumerik ederrenari arpegiko azala kentzen badiozute, berialasen geldituko da oso itxusi. Egiazko ederzaleak bazera-te bada, maitatu zazute gauzarik ederrena, maitatu zazute zuen anima, zaintu zazute zuen anima ta erabilli zazute garbi. Orrela egin zuan Ama Mariak: ederra zan gorputzez ere, zuek baiño milla aldiz ederragoa; baiña animako edertasuna zuan maite ta edertasun ori zaintu zuan egiazko edertasuna zalako, betikotasun guztian iraungo zion edertasuna zalako, jaun maitearen irudiko edertasuna zalako.

2. Guazen aurrera, ta esan dezagun eztuela ezertxo ere Jaungoikoaren aurrean balio pekatuan dagoanak egiten dituan gauza on guztiak; eta kontrara, txit asko *balio* dutela anima garbiarekin dagoanaren egintzak. Errez ulertu dezakegun gogamena da au. Etxeko seme on maite baten itza, naizta motela izan, bere ibillera, bere arrena, bere irribarria, dana izaten da ona Aitarentzat; baiña Aitaren agindurik bete nai ezipadu, bere burua kanpokotzat egiten badu, bere Aitaren irudia ezereztzat euki ta



saldu badu, Aitak emandako ondasun guztiak Aitaren etsaiari eman badiozka, seme orren egitadeak ezin litezke izan Aitaren gogokoak. Gure Jaun Santuak hebreotarra eman zien lege bat, esanaz, iñork, aien artean oitura zan bezela, morroiren bat erosten bazuan, zazpi urte morroitzan egin da gero, askatu zezatela morroia; baiño morroitzako urtietan jaio zitzaizkon umeak, nagusiarentzat izan zitezala. *Liberi ejus erunt Domini sui, psi vero exhibunt cum vestibus suis*; eta au da anima galduarekiñ gertatzen danaren irudi egoki bat; bada anima galduak bere burua deabruari saltzen dio, uskeri bategatik, jolas gaisto bategatik, dantza zikiñ bategatik, eta gelditzen da deabruaren mendean, S. Joane dion bezela, *qui facit peccatum servus est peccati*; ta deabruaren mendean dagoala egiten dituen errege, badaur ta beste gauza onak eztira ezer Jaungoikoarentzat, gaizki jaioak dira denak, denak jaiotzen dira ilda: Asia galdua badago, alperrik da lurpean sartzea; arbola bat txarra bada, txarra izango da bere alort edo frutua, aita gaixorik badago, gaixorik ertengo du bere semeak; eta pekataria asi galdua da, arbola txarra gaixorik dagoan aita. Baiño beste aldetik Jaungoikoaren adiskidetasunean dagoan anima garbiak egiten dituan gauza onak, guztiak izaten dira zindoak, guztiak Jaunaren gogokoak, gustiak osasungarriak, guztiak anima geiago ta geiago aberastutzen diotenak. Onelakoak izan ziran Ama Maria txit Garbiaren egintzak, eta orregaitik geitu zuan ainbesteraño bere animako aberastasuna: asko eman zion Jaungoikoak bere sorreran, asko irabazi zuan bere bizitzan.

3. Baita ere da kaltegarria pekatua, anima Jaungoikoagandik oso aldentzen dualako. Gure lenengo guraso Adanek bere pekatua egin zuanean, Jaungoikoaren bildurrez igesi baso batean eskutatu zuan bere burua. Ta orduan Jaun Egille Santua itz soiñurik bigun, gozo, ta eztienerekiñ asi zitzaion deadarka: *Adan, ubi es?* Adan, nun zaude? Bazekian ondo Jaungoikoak nun zegoan Adan errukarria, baiño nai zuan adierazi gaistakeriak eraman zuala beragandik urruti, ta au zan bere galdearekiñ esan nai ziona: Ai! Adan, lenago zeruaren urrian bizi ziñan, gaur infernuaren ondoan; lenago nere begietako ninia bezela ziñan, gaur gauza naskagarri bat egiñik ikusten zaitut; lenago nere biotzaren barruan zeunden, gaur bere aurretik iges egiten dirazu. Beti Jaunaren kontra pekatu egiten duen animak Ebanjelioko seme galduak bezela urrutiera iges egiten due, *in regionem longinquam*; ta ala ta guziz ere aiñ da ona Jaungoikoa, ain da errukitsua eze, etxeko atarian gelditzen da guri deiezka, besoak zabalik gelditzen da, urrutiko errietan gosetea billazen dutenean, animako goseak etxera ekarriko ditualakoan.

Baiña, ai! ezta beti zai egoten. Betetzen zaizka errukiaren neurriak, eta bat batera sartzen da izugarrizko aserrean. Etortzen da egun bat, denori etorriko zaigun egun larria usterik gutxien danean *qua hora non putatis*, eta orduan deitzen digu Jaungoikoak, ez Aita bezela ezpada gauza guztien Jabe ta Jaun eskubidetsua bezela, ta orduan jua bear izaten degu Beragana nai ta nai ez. Mateo Santuak erakusten digu amar emakume, amar neska gasteri gertatu zitzaiena. Bost ziran zintzo ta argiak eta beste bostak erokerietan bizi ziran. Etorri zitzaien Jaunaren deia, ta bost emakume zintzoak sartu ziran Jaunaren atzetik betiko zorionera. Erokerian bizi ziran bostak illunpean zeuden animako argi gabe, ta asi ziran argiak pistu naian; baiño etzan izan astirik: argiak pistu orduko Jaunak atek itxi zituan. Alperrik deadar egin zioten esanaz: *Domine, Domine, aperi nobis*. Jauna, Jauna, ereki zaiguzu. Badakizute Jaunaren erantzuer? *Nescio vos*: etzaituztet esagutzen. Baña Jauna, eztituzu esagutzen zeuk zure irudira sortutako animak? Ez, eztaukazue nere irudirik: argia naiz ni, *ego sum lux*, eta nereak argitan bizi dira; zuek illunpean zeundeten, nere etsaia bezela; zuek urrutian bizi izan zerate nerekiñ astuta, ta ni ere astu egiñ naiz, *nescio vos*. Eztet uste, n. a., gauza arrigarriagorik dagonik Jaungoikoak gu bere seme-alabatatzat ez esagutzea baño, ta gerta leikeala bene-benetan siñistatuko bagendu, naikua litzateke gure buruko ille guztiak beriala zuritzeko.

Etzaie orrelakorik gertatzen Jaunaren adiskidetasunean bizi diran anima garbiai. Maiteak maitearekin egon nai izaten du, ta Jaungoikoa maite dutelako eztira aldentzen egundaño Jaungoikoagandik, eta ezta ere Jaungoikoa bere seme alaba onakgandik. Anima garbi ta ona da illegope Santuaren bizilekua, Irutasun Santuaren Eliza, Jaungoikotasunaren jauregia; ta orrela izan zan batez ere Maria gure Ama. Maria izan da jaiotakoen artean Jaunaren maitalerik andiena, ta orregatik ere, Jaungoikoak lurrea etorri bear zuanean Mariaren erraia garbietan nai izan zuan sortu, eta Maria bere lurreko bizitzan ere Jesusekiñ bat egiñik bizi izan zan eta gaur Jesusekin dago betikotasun gozoetan.

4. Azkenengo, n. a. m., gaistakeriak bere atzetik dakarren kaltea da beti-betiko zorigaitza. Gauza andia da Jaungoikoak eman dizkigun animako apainduri guztiak eta Jaun santuaren irudia bera griña gaistoan sutan erretzea, txit da mingarria deabruaren mendean morroikintzan bizi bearra ta bitartean egiten ditugun gauza on guztiak alperrik galtzea; oso da txarra Aitaren etxetik urrutian bizi, ta gure etxera biurtu nai degunean gure Aita onak gu ez esagutzea; baiña oraindik ere askozaz da txarrago azkenengo zorigaitza. Ordurarte itxaropen edo esperantza apur bat badago: nere Aita ona da ta parkatu egingo dit, uste izaten da, deabruaren



mendetik erten egingo det, eriotzako illuntasuna baiño lenago joango naiz etxera, ta nere Aitak esagutuko nau ta bere besoetan estutuko nau, zerura zuzen joaten ezpanaiz, Garbitokian egonaldi bat egin da ere, sartuko naiz zorionean. Orrelako amesak egiten dituzte lurreko legearen azpian katigatu dauden gizon iltzalleak ere: ba daki, esaten due, nere urkamendia eskatzen duela, nere senide ta lagunak lan andiak egingo ditue nere **alde**, parkatuko dit bizitza erregek edo erregeñak edo danadalakoak eta katigutegian egon bearra izanarren ez naute urkatuko. Baiño askotan urkamendira joatea gertatzen da, oraintsu Azpeitian gertatu zan bezela, ta orduan dira negarrak, zotiñak, naigabe beltzak eta biotzaren erdiko oñazeak. Ai! Nik eztaikit, katigutegitik eriotzarako gizon bat ateratzen due-nean, ikusten duanean gizon orrek ol batzuen gañean egur bat, bera itozeko jarri duen egurra, inguruan gizadi talde andia berari errukiz begira zerura begiratu dezala esaten, joaten zaionean gizon orri bera ito bear duan borerrerua, parkatu daiola esaten, nik eztaikit gizon orren biotzean zer gertatuko dan ondo esaten: «Ai, eriotzatik ezin iges egin. Ni beste era bateko gizona izan banintz, ai egin nuana egin ezpanuan! Ez nuen gaur nere burua onela ikusiko!». Baiño eztaikit ondo esaten. Ta ori esaten ezpadakit gutxiago jakingo det, Jaungoikoak bere erabaki zuzena eman ondo-rean, infernuko urkamendira dijoanaren biotzean zer gertatuko dan. Lurreko urkamendira dijoanak Jaungoikoaren parkazioa izaten du geienetan, infernukora dijoanak eztauka Jaungoikoaren parkaziorik egundaño; lurreko urkamendira dijoanari, farre deabru borerreruak; lurreko urkamendira dijoanari danak izaten diote erruki; baiña infernura dijoanarentzat eztauka errukirik iñork, ez Jaungoikok, ez aingeruk, ez gizonek, ez deabruk; lurreko urkamendira dijoanak badaki bereala amaituko zaiola bere eriotzako oñazea; infernuko urkamendira dijoanak badaki beti bizi-koda iltzen; orduan asten dala egundaño amaituko eztan eriotza.

Ori da animako ondasunak galdu dituanaren azkenengo zorigaitza. Ta beste aldetik, Jaunaren pakean iltzen diranak, eriotzako ordua dator-kiotenean poz-pozik eta pake pakean onela itz egiten dute: «eldu zait nere ordua, ordurik andiena, ordurik onena, ordurik atsegingarriena. Amaitu dira nere Ianak, amaitu dira nere nekeak, betiko zorionaren atarian nago. Ara or goian zeru ederra, neretzat egin du Jaungoikoak, neretzat dauka añ apaindua, nere nekeak zaritzeko Jaungoikoa bera daukat zai. O! Aita zeruko-a, laizter naiz zurekiñ betiko zorionean. Atoz zu, eriotza, n. adiskidea; ez nazu ikaratzean: *non est amara memoria tua*, ezta samiña zure oroimena, gozoa da, pozgarria da: atoz, laztandu nazazu; atoz, ta eraman nazazu nere Aitaren besoetara». Onela iltzan gure Ama Maria, eriotzarik zoraga-

rrienarekin ta eguzkitan egiten duan zillar leundua baiño argiagoa, bere anima garbiaren errañuakiñ odei guztiak argitzen zituala, izarririk izar ta eguskirik eguski, igo zan zeruetaraño; ta aingeru ta zerutar guztien ongietorriak artuaz, jarri zan bere Seme Jaungoikoaren onduan zeru ta lurreko erregiña bezela.

Ikusten dezute orain, zenbat ondasun eman dizuten zueri ere Jaungoikoak? Ikusten dezute, n. a. m, zer ondasun andia dan animako apaindura bataio santuan ta konfesatzen zeratenean ematen zatzuen jantzi garbia ta zenbat kalte dakarren jantzi ori galtzeak? Ikasi dezute, gaistakeria pekatu dala, gaitzik andiena, ta animako apaindura aberastasunik eta edertasunik onena? Ta ori jakinda gero ere, lengo bidetatik ibilliko zerate, zuen animaren ajola gabe? Naiago dezute zuen kolkoan deabruaren irudia erabilli Aita Egille maitearena baiño? Naiagoko dezute Jaunak emandako aberastasunak galdu geiago ta geiago irabastea baiño? Naiago dezute Aitaren etxetik urruti bere gorrotoan bizi; bere etxean ta bere adiskidetasunean baiño? Naiago dezute infernurako egur igarrak izan zerurako landara loratsuak baiño? Zeñek itxutu zaituzte orrela? Deabruak, munduak, aragiak? Ta zer emango dizute deabruak betikotasunean? Nola lagunduko dizute munduak Jaunaren aserreko egunean? Zer balio du aragiak iru edo lau urte barru lurpean usteldu bear badu? Mariaren alabak zeratela esango dezute, ta bear bada zuen animak gaistakeriz jantzita dauskatzuela ipiñiko dezue bularraren gañean Maria Garbiaren irudia. A! Ez, etzazute orrelakorik egiñ, etzazute zuen Ama lotsatu; etzaitzete Jaungoikoaren ta zeruko erregeñaren gauzakiñ jolastu. Joan zaitezte nai dezuen tokira, ibilli zaitezte nai dezuen gisara: elizak eta Jaungoikoak eztue ezer galduko; zuek galduko dezute. Baiña bildur izan, eriotzako ordua datorkizunean, Jaungoikoak esango ote dizuen Ebanjelioko neska eroai bezela: *nescio vos*, etzaituet esagutzen. Elizara etorri bear badezue, etorri Samariako emakumea bezela: J. Kristok gure Jaunak eman zion emakume orri animako egarri ta loikeriak kentzeko ura, ta gero Jesus billatu zuan toki artara joaten zan egunero Jaungoikoak eman zion animako ondasunagatik eskerrak ematera. Zuek *ponte* orretan, bataio santuan artu zenduen ondasunik andiena, lurreko urre guztiak baiño askozaz geiago dan ondasuna, ta orregatik etorri bear dezue Eleizara Jaungoikoari eskerrak ematera. Egin zazue S. Bizentek berarekiñ konfesatzen ziranei esaten ziotena; urrezko lumarekiñ jarri: «onelako egunetan eman ziran Jaungoikoak bataio santuko jantzi garbia» edo «onelako egunetan konfesatu nintzan ondo, ta geiago ez naiz deabruaren mendean erori». Begira zaiozute zuen Ama Mariari; begiratu dezaiozun denok. Garbia sortu zan,



ta ainbesteraño maitetu zuan garbitasuna eze, garbitasun ori galtzea baño naiago izan zuan Jaungoikoaren Ama ez izatea; garbia sortu zan, ta bere bizitza guztian gorde zuan garbitasun ori; diru zalerik itxutuenak bere diruak gordetzen dituan baño askozaz obeto, gure betazalak begiko ninia gordetzen duen baño ere obeto. Eskatu daiogun berari animako garbitasuna.

O Maria, Jesus errukiorraren Ama errukior ta eskubidetsua! *rota pulchra es et macula non est in te*. Dana zera ederra ta orbanik eztago zuregan. Zu zera garbitasunaren ispillua, ta zuri begiratzean loiturik billatzen ditugu gure animak: loiturik gure gogamena, loiturik gure biotza; ta guk badakigu eztala gauza loirik zeruetan sartzen. Begira gaitzatzu zure begi errukizko oriekiñ, biraldu zaiguzu zeru goietatik argi errañu gozo bat, garbitu gaitzatzu, edertu gaitzatzu animan, eman zaiguzu garbitasuna maitatzeko gogo sendo bat, zuk bidean utzitako arrastoari jarraiturik iritzi dezagun betiko zoriona. Amen.

PEREGRINACIÓN A IZIAR

Qui me invenerit inveniet vitam et hauriet salutem á Domino.

Ni billazen nauanak egiazko bizitza arkituko du,
ta Jaunak emango dio animako osasuna
(Proverbios deritzaion liburuiko 8 garren irakurburu
ta 35 garren *versotik* artutako itzak.)

N. a. m. biotzekoak: Maitagarria da bizitza. Gauza on, gozo, estitsu ta maitagarri guztiak maitatzen ditu gizonaren biotzak; baña beste gauza guztien gañetik, gauzarik onena, andiena, gozoena, estitsuen, maitagarriena bezela gizon bakoitzak maitatzen du norbere bizitza.— Bizitzari begiratu bear diogunean beste gauza danak, oso maiteak izanagatik, ezezez batzuk bezela, alde batera utzitzen ditugu. Bizitzagatik utzitzen dituzte jakitsuak bere liburuak, eskribitzalleak bere lumak, aberatzak beren diruak, soiñuzaleak beren soiñuak, jatunak beren janak, edaleak bere edanak, jolasetan dabiltzanak beren jolasak, griñadun gizonak bere griñak; bizitzagatik utzitzen ditu maitaleak bere maite kutuna, semeak ama ta amak bere semea: itz batean, danok dana, bada eztago bizitza baño geiago maite degun gauzarik.

Orregatik maite degun bati gauzarik andiena bezela, «maite zaitut» ezaten zaio, «nere bizitza beste maite zaitut» esaten diogu; orregatik begi onez begiratzen diogun bati, gora jaso nai degun gizonari; gure pozaldirik andienetan *biba onelako!* esaten diogu erderaz edo euskeraz, *bizi bedi*; orregatik gure erritarrai, gure esagunai, kristau guztiai, pakean bizi ganean, alkarrentzat gorrotorik eztakagunean, bizitza opa izaten diegu, ta latinerrikoak *ave*, bizi zaite, alkarri esaten zioten bezela, guk *Agur* edo *Adios* esaten diogu: au da, joan zaite Jaungoikoagana edo Jaungoikoarekiñ, bada Jaungoikoa da bizitza ematen diguna, Jaungoikoa da bizitza bera.

Bi eratako bizitzak esagutzen ditugu, n. a. m.: bata urte batsuetarako bizitza, guk gaur daukaguna, lurreko bizitza; bestea animaren bizitza, neurrigabeko betikotasunean iraungo duan bizitza pozgarritzkoa.

Bi bizitza abetatik gizon gizagaixo errukarri batzuk gorputzarenari bakarrik begiratzen diote. Gizon oiek lurrean daukate beren Jaungoikoa (ta askotan lurpean), lurra ematen duanarekiñ asetzen dira, lurra ematen duana da bakarrik beren ondasuna; ta or dabilta beti, jo ona ta je) orra, nondik sortuko edo lortuko, nondik une batzuek obeto igaroko; beti



lurrera begira, betikotasunera beñere begirik eta biotzik jaso gabe. Ia lur-bira edo munduko alderdi guztiak astertu dituzte, baster guztietaraño sartu dira; ta ikusiko dituzu gure Euskalerrian ere, lenago artzaien oiua edo aberien zinzerria baño beste otsik entzuten etzan tokietan, errekon-dorik errekon-do, basorik baso, mendirik mendi, gallurrik gallur, beti ta edozeñi galdezka: non dago gure Jaungoikoa? Au da, non dago erreka-uren indarra, non dago emen ikatza, non dago arrobia, non dago beruna, non da burnia, non da zillarra? Gizon oiek burni zati batzuk izateagatik edozeñen aurrean belaunikatuko litzatezke. Ta bear bada mendietan gurutze bat billatzean edo Mariaren eleizatxo bat, ez dute agur bat egin-go, ez dute txapelik ere jasoko. Lurtarrak dira gizagaixoak eta eztaukate zeruko gauzen oroimenik.

Baño badira beste gisatako gizonak ere, zertarako jaio diran astu gabe bizi diranak, (lurreko gauzak ikusteari utzi gabe, bada ori ere bear da), zeru aldera begiratzen dakitenak, biotz andikoak, lurreko gauzakiñ asetzen ez tiranak, animako ondasunen billa dabilztanak, animako bizitza, betiko bizitza nai dutenak.— Bai, badira, Jaunari eskerrak; eta gaur artean jakiñ ezipanuan ere, gaur zuek n. a. emen ikustean ikasiko nuan egia eder ori.— A. S. Franzizkoren semeak, Franzia mugatik eta beste Gipuzko-ako errietatik etorri zeraten kristau onak, Bizkai aldetik Iziarko mendi-raño igo dezutenak, ongi etorriak izan zaitezela guztiok, eta adi zadazu-te, bada zueri albiste on bat emateko asmoa daukat. Zenbat urteko bizi-tza nai dezute zuentzat? Ogei, berrogei, eun urtekoa? Bada nik esaten dizutet Jaunaren izenean, Mariaren billa etorri bazerate ta Maria bene-benetan arkitzen badezute, beti-betiko bizitza izango dezute zuentzat.

Au da, n. a., nere gaurko itzaldiaren gaia. Bear bezela agertzeko lagun zadazute Jaunaren argitasunak jaristen, gure bitarteko Ama Mariari oitura dan bezela

Agur Maria esanaz.

Qui mi invenerit etc...

1. N. a. m.: Izar eder argi ta garbiak zeru urdiñean zabalduz dauden bezela, orrela lurrean ere daude zabalduz zeruko erregiñaren irudi poz-garrizkoak; eta goietako izarren jira-bira, neurria ta argitasuna ikasten dabilztan gizon jakintsuak Sirio ta Marte, Jupiter ta Saturno non dauden ondo dakiten bezela, orrela ere zerurako bideak ikasi ta jarraitu nairik gabiltzanok, oso ederki jakiten degu Mariaren irudi entzutetsuenak non dauden.

Denok daukagu Zaragozako Andre Maria Metarrigañekoaren berri edo albistea, denok dakigu Lurdeskoaren istori edo kondaira, denok daki-

gu non dagoan Monserratkoa, ta geure lur barruan dauden batzuek baka-rrik esateko, ondo esagutzen ditugu Begoñakoa, Antiguakoa, Guadalupe-koa, Arantzazukoa ta Iziarkoa. Toki abetan batez ere ipiñi ditu zeruetako Erregiñak bere jarrileko osasungarrizkoak, toki abetan batez ere zabaldu ditu eskuak betean animentzako ondasun ugariak, eta orregatik jakiñ izan dira toki aben izenak, orregatik jakin dezute zuek ere Iziarko erriarena. Bai, Iziar, Gipuzkoako lur bastera, Anduz mendi azpian jaiotako alaba; Arma, Mendaro ta Debaren ama, *nequaquam minima es tu*, etzera gaur Gipuzkoako errien artean txikiena; zure izena zabaldua dago Naparroan, Araban, Bizkaian, ta Gipuzkoa guztian, zure izena badakite Franzian ber-tan, zure izena zabaldua dago alderdi guztietan, zure lurreko arantza beltz batera zeruetako izarrik ederrena jetxi zalako.

2. Baña guazen gu gure bidetik barrena, guazen geure arian, ta gal-detu dezagun. Zertara etortzen dira gizataldeak entzute andiko Mariaren eleizetara? Zertara zatote zuek, n. a. m.? Bizitzaren billa, uste det esaten dirazutela, bizi naiak gakarzki, animari janaria eman naiak. Egarri dan oreña edo basauntza, barruan sortzen zaion berezko indarrak iturri gar-bietara daraman bezela, *Quaemadmoda desiderat cervus ad fontes aquarum...*, orrela zuek ere bizibearrak zakarzkite animako bizitzaren iturrira, bada Mariagan dago bizitza ta Maria billatzen duanak animako bizitza ta osa-suna billatzen du. *Qui me invenerit inveniet vitam et hauriet salutem á Domino.*

Guziok dakigun gauza da Jaungoikoa dala bizitza guztiaren sustraia, jatorria, asiera ta iturburua, Jaungoikoa dala bizitza bera.

J.K. gure J. esan zuan egiaz: *ego sum vita*, Ni naiz bizitza, ta Beragan-dik kanpora illuntasuna ta eriotza baño beste gauzarik eztago. Eztezute ikusten nola eguskiak biraltzen duan alderdi guztietara bere argi alaia, lur guztiari berotasuna ta bizitza emanaz? Bada era berean, ez, askozaz obeto, biraltzen du ere Jaungoikoak, eta Jaungoikoagatik bizi da gizona, Jaun-goikoagatik bizi dira txori, egasti ta abereak, Jaungoikoagatik ernetzen da zuek lurrean botatzen dezuten alea, Jaungoikoagatik ematen dute arbolak beren alort edo frutua; Jaungoikoagatik da eguskia eguski, Jaungoikoaga-tik dira zeru, lur ta itxasoak; Jaungoikoa dago gauza guztiai izatea ta bizi-tza ematen; ta Jaungoikoa kendu al balitz, kenduko bagenduke, gauza guztiak ill ta ezerezero biurtuko litzatezke berealako batean.

Orain bada, Maria izanik ez bakarrik Jaungoiko altsuak animako apainduriz oso aberastu zuan emakumea, baita ere Jaungoikoak berak, lurrean jaio izan nai zuanean, beretzat aukeratu zuan Ama, (au da) Maria izanik Jesus Jaungoikoaren Ama, txit ondo esango degu Maria dala egiaz-



ko bizitsaren kabi santua ta bera billatzen duanak arkituko duala animako bizitza. Esan dezakegu, bada Mariaren izenean: *Qui me invenerit...*

Gizona anima illezkorren jabea da ta, bere anima illezkorrean, bizi izateko gogo sendo bat sentitzen du; eztaki ondo zer dan eriotza, ta eztu eriotzarik nai ezertara ere, al duan indar guztiakñ eriotzagandik iges egin du, beti-betikoa nai du izan. Bere biotza beti deadarka dauka: «bizi nai det, zoriona nai det, gozotasuna nai det, amaituko eztan atsegiña nai det»; eta badaki gaur neke artean daukagun bizitza, noizian bein ezti tantoren bat edo beste izan arren, zotiñez ta naigabez, beastunez ta malkoz beterik darabilgun bizitza, gaixo baten bildurrean dagoan bizitza, eriotzaren bildurrean dagoan bizitza, eztala ori biotzak nai duana. Biotzak nai du neke gabeko bizitza, bildur gabeko bizitza, eriotza gabeko bizitza, bizitza dan bizitza, zeruko bizitza, Jaungoikoaren bizitza.

Baño nondik eta nola etorriko zaigu bizitza ori? Jaungoikoagandik, n. a. m., eta Mariaren bitartez. Jesusek berak esan zigun bere gorputza jan eta bere odola edan gabe etzegoala bizitzarik, *nisi manducaveritis carnem Filii hominis, et biberitis ejus sanguinem non habebitis vitam in vobis*; Jesusek Berak ezan zigun Bere gorputza jaten zuanarentzat zala guk nai degun betiko bizitza, *si qui manducaverit ex hoc pane vivet in aeternum*; eta Jesus, gizona dan aldetik Mariarena da, Jesusen gorputza Mariaren gorputzetik artua dago, Jesusen odola Mariaren odola da, Mariak bere bular garbietan asi zuan Jesus maitea, gero bere gorputza Sakramentu orretan utzi zezan, gero bere odol guztia Kalbarioko mendian gugatik eman zezan. Mariaren bitartez jaio zitzaigun Jaungoikoa, Mariaren bitartez etorri zitzaigun bizitza.

4. Orregatik Eleiza santak esan erasten dio Mariari: «Siongo mendian indartu naiz, ta Jerusalemgo urian daukat nere agintea. Neregan dago bizitzaren ontasuna ta egia, neregan betiko bizitzarako bidea. (Maite nazutena, atozte nigana, bada ezta baño gozoagoa naiz.) Nere itza aditzen dutenak eztira illunpetan ibilliko, ta nere izen onari begiratzen diotenak betiko bizitza izango dute: *qui elucidant me vitam aeternam habebunt*».

Orregatik Eleizak berak deitzen dio *Felix coeli porta*, zeruetako ate zorionekoa, orregatik *vita, dulcedo et spes nostra*, gure bizitza, gure gozotasuna, gure itxaropen edo esperanza; bada beragatik bizi gera, berak estitzen ditu gure animak negarrezko leku onetan, beragatik bere errukiagatik itxaroten degu zorioneko jauregian sartzea.

5. Nai dezute orain jakin Mariagatik zer dioten eleizako guraso santuak? Adi zadazute, bada. Sto Tomas jakintsuak erakusten digu, itxasgizonak artizarraren bitartez zuzen zuzen beren portuetara etortzen diran

bezela, orrela kristauak dijoazela zerura, au da, betikobizitzara, Mariaren bitartez, *ita christiani per Mariam diriguntur ad gloriam*. San Ireneok esaten digu, Maria dala gizon guztien zorioneko iturburua, *universo generi humano causa salutis effecta est*. San Bernardok dio: Mariagandik aldentzen dana nai ta nai ez galduko dan bezela, Mariagana datorrena inortara ere eztala galduko, *ita ad te conversus necesse est ut salvetur*. San Jermanek esan zuan etzizaiola inori gauza on bat ematen Mariaren bitartez ezpada, *nemo est cui donum concedatur nisi per te* ta azkenez A. S. Agustin andiak deitzen dio, Eleizak bezela, betiko bizitzako jauregian dagoan ate zabal pozgarritzakoa.

6. Ta beste aldetik, egia onen agergarritzat M.k betiko bizitzara ekarri nai gaituala erakusteko, zenbat mirari egin ditu Mariak berak edonun, baño batez ere bere jarrilekuak dauzkan tokietan? Zenbat andre ta gizon etorri dira Mariaren eleizetara gorputzeko ta animako gaixoarekiñ, ta Mariaren bitartez arkitu dute gorputzeko ta animako osasuna? Zenbat gizon ta emakume gaistakeriko lo sorruan anima ilda zeukatenak, Mariaren bitartez bizitza berrira jaio dira? Toki onetan bertan, baserriko neskatxo bateri agertu zitzaionetik gaur artean, zenbati lagundu diete Iziarko Amak gorputzeko ta animako estualdietan? O! Jaungoikoak bakarrik daki! Beste millaren artean, ta zerbait esateagatik ara Iziarko Amaren bitartez egindako mirari bi.

Aldazabal jaunaren liburuan irakurri ditut, eta eztet berentzat eskatzen gizonaren esanak merezi duan baño siñiste geiago; baño nik egiaztat daukat. Jose Zigarane A. Jesus M.^a Arakistaiñen aurrean autortu zuan berak entzuna zala esango ditudan gizon biyai: España siñisgaistoko mairuakiñ burruka bizi ta gogorrean zebillen gizaldietan, beste asko bezela, mairuen eskuetan erori ziran euskaldun bi; bata Debarra ta Aizkoitikoa bestea, ta ondo lotuta gero sartu zituen dorre illun sendo batean. Gaizki zeuden gizonak dorre artan, oso gaizki, katez lotuta, gorputzarentzat jan gutxiarekiñ, animarako batere janari gabe. Egun batean atsekabez beterik, Euskalerriko gauzetan ames egiñaz alkarri begira zeudela, oroitu zitzaion Debarrari Iziarko Ama, pistu zitzaion siñistea, berotu zitzaion biotza, ta anima animatik deitu zion Mariari esanaz: «Iziarko Ama maitea, ez ote nazu ni katigutegi ontatik askatuko?» Eta, o miraria! gizon arrek, itz oiek esanaz batean bere burua askaturik eta kategabe ikusi zuan. Izugarritzko gertaera onekiñ itxaropenez bete ziran lagun biak, eta askatua gelditu zanak erregutu zion besteari lagundu zezaiola an goian zegoan leio bateara igotzen, andik kanpora saltatu (jetxi, bere burua bota) zediñ. Besteak beldurrez, gauza ura arrisku andikoa zala erantzun zion, baño ainbeste erregutu zion Debarrak Azkoitiarrari, ainbeste aldiz esan zion Iziarko



Amak lagunduko ziela eze, bigundu zan Azkoitiarra, lagundu zioten bataak besteari, *saltatu* ziran amilketa sakon bildurgarritzko batera, ezertan ere miñik artu gabe, Ama Mariaren laguntasuna oso argiro esagutzen zutela billatu zuten kristauen lurrera etortzeko bidea, ta Euskalerrira eldu ziran nean eleiza onetara etorri ziran lenbizi, zeruetako Erregiña bigun ta errukiorrari esker ugari ta biotzekoak emanaz beren animak garbitzera.

Miraritsuagoa da oraindik bigarren go gertaera. Iziarko beste gizon bat Afrikatarren artean *preso* zegoan, burniz oso gogor lotuta, naigabez beterik, oso gaixo ta ia iltzeko zorian. «Ai, zion bere artean gizontxoak, ill bear det, eta gaizki ill bear det, bakar-bakarrik, nere etxeokak non nagoan ezta kitela, siñis gaistokoen artean, apaiz gabe, animarako laguntasun gabe». Andre Mariaren jai aurreko eguna zan, ta oroitu zitzaion Iziarren urrengo egunean egingo zuten eliz-jai ederra, ta erregutu zion Andre Mariari, bere gogoaren kontrakoa ezipazan beintzat, ekarri zezala nolabait kristauen lurrera, eriotza on bat iduki zezan. Erregu au eginda bereala gure gizona gelditu zan lotan, ta esnatu zanean, nondik eta nola etzekiala, Iziarko eleiza onen atarian arkitu zuan bere burua. Gizon doetsu ori, esan detan miraria gertatu ta irugarren egunean iltzan, ta bere anima, ondo garbitua ta pozez beterik, pake santu opagarri batean Jaunaren eskuetan utzi zuan.

7. N. a. m.: Beste onelako gertaera asko esango nituzke, baño ezta-go geiagoren bearrik, bada denok daukazute onezkero gauza ziurra bezela Maria billatzen duanak arkitzen duala lurrean bere laguntasuna ta betibetiko bizitza. *Qui me invenerit inveniet vitam et hauriet salutem á Dómino.*

Orregatik, egia ori ondo zekitelako, lenagoko euskaldunak urteoro etortzen ziran Iziarrera Franziatik eta Bizkai guztiko portuetatik Ama Mariari esker onak emateko asmoan, beren gurasoak oitura ori bera zutelako, 1448 garrenge urtean Gastelako Errege Juan II garrenari esaten zioten bezela. Orregatik Iziartarrak, urteoro, eliz aurreko zelaixoan ipintzen zuten lorez apaindutako arbola bat, eta itxasgizonak erosten zuten pozik eun errial zillarrezkotan, arbola ori zerabillen ontzia zorioneko izaten zala siñistatuaz. Orregatik ikusi ditut Iziarko Amaren billera edo kofradiko liburu zar batean Gipuzkoa, Bizkaia, Araba ta Naparroako jente askoren izenak.

Baño ez dezazutela uste izan lenagoko euskaldunak bakarrik etortzen ziralta Iziarrera, ez. Oraindik ez naiz ni ain zarra; ta zenbat aldiz neronek ikusi ditut, euskaldun garbien usaia zekarren giza taldeak bideak betean Iziar alderontz datozala, jaietako jantziekiñ txukun apainduta, kan-delatxoa eskuan ta biotzaren erdian zeruko siñiste bizia zutela noski;

Amaganako maitetasuna erakustera, ta Amaren eskutik siñiste ta maitetasunaren saritzat animaren sendotasuna ta bizitza berria artzeko ustean.— Oraindik iru bat une dala alboerrietako jente asko etorri giñan; ta 1885 garren urtean zortzimillaren bat anima inguratu ziran emen, beren apaiz artzaiak aurretik zituela, nekeari gañ eginda oñez geienak, gabeko ta goizaldeko orduetan beren etxetik ertenda, Ama Mariaren irudi bedeinkatua lepotik bera jantzita, sedazko ta urrezko bandera ederrak aideratuaz, euskerazko kantu gozoakiñ mendietako oiarzunak esnatzen zituztela.

8.

«Amaganako amodiuk

Isioturik garuaz»

zioten orduan bizkaitarrak Gipuzkoako mugarrietatik barrura zetozenean. Ori berori esan dezakezute zuek ere A. S. Franzizkoren semeak, gaur etorri zeraten kristau on, zintzo ta leialak, Amaganako maitetasunak pisturik ekarri gaitu, bada gure Amagan daukagu bizitza ta bizitza maitatzen degu beste lurreko gauza guztiak baño geiago. Ongi etorriak izan zaitetzela denok, milla bidar ongi etorriak.

9. Baña, n. a. m., egia da maitatzen dezutela bizitza? Adi zadazute ongi. Egia da maitatzen dezutela ez bakarrik gorputzaren bizitza, baita ere askozaz geiago animaren bizitza, geiago balio dualako? Bada gorputzaren bizitza zaintzen dezuten bezela zaintu zazute animarena, gorputzaren bizitza kentzera datorrenari arpegi ematen diozuten bezela, arpegi eman zaiozute animakoa kentzera datorrenari. Anima iltzalle asko dago, txit asko; baño eztaukagu zergatik iges egiñ beren aurrean, bada berak baño geiago gera; eta zenbat eta berak animaren kontra, Jn kontra ausardi andiagoarekiñ jarri, ainbat eta guk ausardi andiagoarekiñ egon bear degu animaren alde. Beste errietan kurutzeak lurrera botatzen badituzte, orduak guk jaso bear ditugu kurutzeak gure mendietan, Ernion daukagun bezela Arnon, Arnon bezela Gorbean ta Aralarren. Gure mendiak izan dira ta izan bear dute kurutzearen oñak, eta guk izan bear degu gurutzearen oñetan gauden gurutzearen zaiñtzalleak (bada orrela zaintuko degu gure animako bizitza).

O mendiak, gure mendi ederrak! Maite zaituztet, ez zuen barruan ikatza edo burnia daukazutelako, ez zuen erreketan bera ur garbi indartsuak datoztelako, ezipada kurutzearen oñak zeratelako, Maria txit Santaren jarrilekuak zeratelako.— Etzarete zuek aldakorrak: Jaungoikoak sortu zenduezanetik gaur arteraño beti daukazute jaskera bat, negu illunean lañuzko txapela edo elurrezko estalki txuria, uda berri alaian ostro berdez ta usai gozozko lorez apaindutakoa. Goizean goiz jaikitzen dan eguskiak



beti toki batean billatzen zaituzte, eta zuentzat izaten da bere lenbiziko argi gozoa, zuentzat lotara dijoanean egiten duan azkenengo agurra. Beti aize osasuntsuen erdian bizi zarete, beti zuentzat izaten dira erretxiñol kantariaren soñurik bigunenak; beti, Jaungoikoak zerutik begiratzean, ikusten zaituzte berdiñ, lerden, sendo, euskaldun, beti-bat. O mendiak, gure mendi ederrak, maite zaituztet!...

10. N. a. euskaldun biotzekoak: Mendi abek bezela izan bear degu guk ere, beti bat, beti gogor, beti irme, beti siñistetsu, beti kristau, beti Jaungoikoaren maitale; beti ibilli bear degu animako bizitzaren billa, beti zerura begira, beti errugabearen animako jantzi txuriarekiñ... anima garbiaren barruan aize osasuntsuak izan daiguzan, biotzaren erdian itxaropen edo esperantzaren soñu gozoak entzun daiguzan, Jaunaren argi maitagarriak zerutik argi egin daigun.

Bizi nai degu, ta geiegizko bizi naiak asko garamazki betiko eriotzara. Eztet esan nai bakoitzak bere bizi bideari eztiola jarraitu bear, ez, ori ez; baña lenbizikoa da lenbizi, ta animaren bizitza da lenbiziko gauza. Eztezute lurreko gauzetarik animaren bizitzarik aterako. Ildako gauzetatik eztator bizitzarik, ta urrea, zillarra ta lurreko ondasun guztiak denak gauza illak dira.— Jaungoikoa billatu bear degu gauza guztien gañetik, Maria gure Ama billatu bear degu, bada egia da bera billatzen duan arentzat dala betiko bizitza. *Qui me invenerit invenit vitam.*

O Iziarko Ama Maria txit santua! *Pita, dulcedo et spes nostra, salve.* Gure bizitza, gure gozotasuna, gure itxaropen bakarra zeran Ama, Jaungoikoak gorde zaizala. Erbeste onetan bizi geran Ebaren umeak ara emen nola gauden zuri deiezka. Erruki zaite guzaz, O Ama errukiorra!, indartu gaitzatzu gure onbidean, egin gaitzatzu animako bizitzaren zaleak, egin gaitzatzu (zerura egatu nairik lurtean gabiltzan anima zeruzaleak), eta eraman gaitzatzu gero denok beti betiko bizitzara. *Amen.*

PRESENTACIÓN

(sin predicar)
Predicado en 1903.

- I. Oración cuotidiana.
- II. Comienzo de nuestras obras.
- III. Id. de la vida.
- IV. Los mejores hijos.
- V. Debemos ponerlos en manos de buenos maestros.

Jaio, asi, bizi ta ill.

Nola jaio? Etxe andi eder-aberatzetan edo beartsu... Erri andi edo txiki... Kristau erri edo siñiste gaistoko lurretan... Arrotasuna etxe andikoak, arrotasuna erri andietakoak...

Arrotasuna ona balitz kristau jaio geralako bakarrik.

Nola asi? Guraso batzuen arduragabekeria... Siñiste gabeko errietan... Erri andietan...

Nola bizi? Asi ziran bezela... Gaizki...

Nola ill? Bizi izan ziran bezela. Gaizki...

Ara emen ondo asteko bidea...

Maria asi izan zan antzera, irudira...

*Omne masculinum adaperiens
vulvam sanctum Domino vocabitur.
Emakumetik datorren lenengo aurra
Jaungoikuarentzat sortua da. (Lu. II.)*

N. a. m: Gure Jaun eta Jaungoiko Egilla santuak, sortutako gauza guztiai eman diete eginkizun edo lanbide jakiñ bat.— Eguskia eguski izango bada, narotu bear ditu lurreko landarak eta gizonari argi egin bear dio; suak, egiazko sua bada, bere mendean artzen dituan gauza guztiak erre ta kiskaldu bear ditu; izotzak, izotza bada, gauza guztiak otzitu, eta urak, ura bada, gauza guztiak busti bear ditu. Eta ez bakarrik bizitza ta sentzugabeko izateak, bizitza ta sentsua duten guztiak daukate beren zeregiña. Abere danak jaiotzen dira zerbaiteko; eta aidean agiri eztan eltxo ezerez batetik asita goialdietan egoak zabaltzen dituan arrano erregeraño; edonun sortzen diran txindurri bizi askarretatik eremu baten erdian, basa-



mortuko jaun da jabe bezela, patxada onean bizi dan elefanteraño, danak daukate beren eginkisuna eta guztiak, itxu itxuan, ezakiñean ta beren gizara bada ere, jaso ta bedeinkatzen dute Jaungoiko Egillearen izen santua.

Baña, batez ere, gizona da Jaungoikoak onetarako sortu zuan izate andia. Berak eman zizkan gizonari begi bi abek lurraren ta zeruaren edertasuna ikusi zezan; Berak eman zion biotz samur bat gauza guztien gañetik Jaungoiko maitegarria maitetu zezan; Berak eman zizkan mingaña ta izkera Jaunaren izen andi ta ona bedeinkatu zezan. *In gloriam meam creavi eum*, dio Jaungoikoak gizonagatik: bai, gauza guztiak dira nereak, neuk sortu ditut nere alizatearekiñ; baña batez ere gizona da n. seme maitea, gizona n. seme kutuna, gizonak bakarrik deituko dit Aita; gizonak bakarrik bizi bear du lurrean, jaiotzatik illarteraño, erregerik andienaren semea bezela bere guraso Jaungoikoaren izena bedeinkatzen, ta berari bakarrik emango diot n. zeruko jauregietan betiko zorion, pake ta gozotasuna.

Orregatik g. Ama W. bedeinkatuak, zeru ta lurraren edertasunak ikusi zituanerako, bere Jaungoiko gurasoa esagutu zuanerako, maitetu zuan Jaungoikoa biotz ta anima gauza guztien gañetik, ta Beragana joan zan Jerusalengo eleizara, Berarekiñ ta Bere legeak agintzen zuan bezela bizi ta illtzeko asmoetan.

Erakusaldi eder onetatik ikasi bear degu gaur, n. a., «gauza guztiak, Jaungoikoarenak diralako, beren sustrai ta asieratik eskeñi bear diozkagula Jaungoikoari ta batez ere gure bizitzaren asiera ona». Ara emen n. itzal-di laburraren gaia.

Eskatu zaiogun onetarako bear detan argia argi guztien Iturburua dan Jaunari Berari, Ama Manaren bitartez. Lagun zadazu, Ama maite biguna n. aditzalleai gai eder au bear bezela adierazten, bada laguntasun ori jarizteko esaten dizugu denok Goiaingeruakiñ batean, Agur Maria bana.

Omne masculinum etc.

N. a. m.: Exodo deritzaion liburu santuan irakurri det nola Moises legegilleak agintzen zion Aaron eleiz gizon nagusiari, Jaunaren izenean, eskeñi zezaiola Jeoba Santuari goizean goizetik usairik gozoneneko eskeintzari bat urregorritzko elizmai edo altarearen gañean; eta Beda jakintsuak dio, gañera, Lege Zarreko eskeintza orrek eta guk altarean erretzen digun intsentsuak kristauok Jaunari egin bear diogun goizeko arren, otoitz edo eskaria aditzen ematen duala. I. Ara emen nondik esagutu bear gendukean, beste biderik ezpageunka ere, kristauen eguneroko zeregiñak izan

bear duala, Jaungoikoaren aurrean belauniko jarri goizean, ta lenbiziko gogamen ta eskariak beragana bialtzea, geure biotzaren erdian Eleizaren irudira esanaz: *Dirigatur Domino oratio mea sicut incensum in conspectu tuo*, bada goizean da Jaunaren laguntasun ta doaiak iristeko ordurik onena, *maná* zeritzaion janaria Israeltarrai goizean goiz ematen zitzaizen bezela.

Orregatik Jakob gurasoak egun sentian eskatu zion bere bedeinkazioa zeruko aingeruari; orregatik esaten du Dabid Erregeak bere bostgarrengo antolamendu ederrean: *Mane exaudies vocem meam*, «goizetik adituko dirazu, Jauna, Zugana bialtzen detan itza»; eta irurogeta bigarrengoan: *Deus Deus meus, ad te de luce vigilo*, «O n. Jaungoikoa! Ernai nago ni beti argia datorrenerako»; eta orregatik, azkenez, gure Ama ta erakusle Maria santak, bere buruan adimeneko argia sartu zitzaionerako, goizean goizero egiten zion Aita Zerukoari lurrean egin dan otoitzik samur ta egokiena.

Baña Jaungoikoari arren egiteko, zergatik dauka gizonak añ goizetik ibilli bearra? Zergatik? Jaun Krisostomo santuak erantzungo digu: «errege baten aurrera, dio santu onek, gizonik andienak joaten dira lenbizi, eta berak itz egiten dute besteak baño lenago. Ara or zergatik gizonak, beste lurreko izate guztiak baño lenago joan bear duan Jaungoiko Erregearen aurrera». Edo ez al da gizona, n. a., sortutako gauza guztien artean izaterik andiena? Edo ez al da bera Jaungoikoaren izena bedeinkatzeko jaioa? Nola bada utzi dezake bera baño lenago Jaunaren aurrera joan dedin sortaldetik egunero datorren eguskia? Nola bada utzi dezake, berak otoitz egin baño lenago, biraldu dezaten zerura, zugastietako txori kantariak beren kantua ta zelai ta baratzetako loreak beren usai gozoa? Ez, gizona da lenbizi, gizona da gauza guztien erregea, eta gizonak lurrean *pausu* bat ematen asi baño lenago, belaunikatu bear du Jaungoikoaren aurrean; bere eskuak, lanean asi baño lenago, batu bear dute, eskaria egiten danean batutzen diran antzera; bere begiak jaso bear dute zeruraño, Aitaren jarri-lekuraño, bere biotzak esan bear dio A. Zerukoari: «maite zaitut, gauza guztien gañetik maite»; eta bere mingañak esan bear du: «bedeinkatzen zaitut gauza guztien artean bedeinkagarria zeralako». Au da Mariak ume-umetatik egiten zuana, ta au gizonak egin bear duana; bada onela ematen dio egunari asiera on bat. Noruntz asten geran aruntz joan oi gera geietan: asi gaitezen bada goizean Jaungoikoanuntz, bere aurrean ta zeru bidean irago dezagun egun guztia.

II. Bigarren, eskeñi biar diozkagu Jaungoikoari gure eginkisun guztien asierak, eginkisun oietarako berari laguntasuna eskatuaz. *Omnis actio ab oratione inchoanda nobis est*, dio Dionisio santuak, gure gauza guztiak eskari batekiñ asi bear ditugu; ta orrela asi zuan Judit ausarditsuak bere



eginkisun astuna, Holofernesen dendara sartzean Jaungoikoari esanaz: *Respice in bac hora ad opera manuum mearum*, begiratu zaiozu, Jauna, ordu onetan nere eskuaren egintza oni. Orrela asi zuan bere erregetza Justino, Erromako Goierregeak ere. Goierrege au, bere aginte aundia eman ziotenean, errege jantzia bere soñean ipiñi baño lenago, sartu zan Eleiza batean ta eskatu zion Jaungoikoari lagundu zezaiola bere lanbide ardurasuan; eta gero, bere jauregian erregeren jarrilekuan jarri baño lenago, lenbizi egin zuan gauza izan zan kurutzearen *señalea* bere gorputzaren gañean.

Era berean, bada, guk ere, n. a. m., asi bear ditugu gure lanbide ta zeregin guztiak, kurutze santuarekiñ eta Jaungoikoari biotzeko erregru beroak egiñaz, batez ere gure griña gaisto ta animako etsaien kontra gogor ta bizirosotasun jasartu bear degunean. *Respice in bac hora*, esan bear diogu Jaungoikoari, *ad opera manuum mearum*, indartu zazu, Jauna, ordu onetan nere besoa, indartu n. biotza, indartu n. anima. Denok dakigu eginkisun andi ta astun bat daukagula guztiok, egun auetan A. Ibargurenen aotik entzun dezuten bezela: gure animak betiko zorionera eramatea. Ta zorionerako bidea Jaungoikoak daki ondoen, ta Berak argi egin bear digu, berak lagundu bear digu bide orretan gidari bezela. Orregatik esaten zuan Dabidek: *Dias tuas, Domine, demonstra mihi, gressus meos dirige*, erakutzi zadazuz, Jauna, zure bideak, zuzendu zadazuz nere pausoak. (Kasiano santuak esaten du, gure eginkisunak asi baño lenago, denok eta beti esan bear gendukiala, Eleizak bere erregruen aurretik esaten duana: *Deus in adiutorium meum intende, Domine ad adjuvandum me festina*: «Jauna, ereki zadazuz zeuk n. españak eta nere auak bedeinkatuko du zure izena».

Orrela, n. a. m., bizi izan ziran Jaunaren izena bedeinkatzen, bere itxaropen ta bildurrean ta bere aginte zuzenaren azpian Lege Zarreko Abraam, Jakob, Jose, Moises, Judas Makabeo ta beste asko, eta Lege berriko santu guztiak Maria gure Ama beren buru zutela; orregatik amaitu zuen beren eginkisunik andiena añ ederk; orregatik zeruratu ziran, ta an daude gaur beti-betiko asetasun, zorion ta pakean.

III. Irugarren, eskeñi bear diogu Jaungoikoari bizitzaren asiera, gure buruan adimenaren argia sartzen dan orduan bertan.

Ai! Gure lenengo egunak Jaungoikoarentzat ezipadira; bizitzaren asieran gauza okerren bat zartzen bazaigu buruan edo griña gaistoren bat biotzean, nekez ertengo du burutik eta batez ere biotzetik, oso nekez ekarriko degu gizona zeruko bide zuzenetara. Indar andia bear da, oso aundia, biotzaren erdian gordeta daukagun gaistakeria sustraitik ateratzeko! Geure lenengo egunetan bada, a. m, geure lenengo urtietan iduki bear

degu arretarik aundiena, orduan bota bear da biotzean zeruko erakutzien asi ona, orduan egin bear da alegiña Jaungoikoari zenbat zor diogun ikasten da erakusten (eta lan eder ta sarigarria dan au!) orduan eskeñi bear diogu Jaungoikoari gure biotza ta gure anima guztia; bada era orretan bakarrik iduki dezakegu, zartzara ere, Jaungoikoarenak izango geran itxaropen edo esperantza, zugatz edo arbola baten lorea *alort* edo frutuaren esperantza dan bezela. *Adolescens juxta viam suam etiam cum senuerit, non recedet ab ea*, dio E.S., gastetatik dijoan bidean joango da gizona zartzako urtietan ere.

Israelgo emakume gurasoak, jaiotza berri bat izaten zanean, eramaten zuten eleizara, Lebitiko deritzaion liburuak agintzen zuan bezela, usakumetxo bat edo urte barruko arkume bat, aditzen emanaz, Jaungoikoari eskeñi bear zitzaioala gauza ona, gauza garbia, gastetasuna, bizitzaren lenengo zatirik ederrena: au da, jakintsu batek dion bezela esateko, begi argia, belarri ernaia, biotz samurra, esku ta oñ azkar ta zoliak; bada ezta ah gogokoa Jaungoikoarentzat askok ematen dion bizitzaren azkenalde zarra, begi lausoa, belarri zor ta gorra, biotz loia, gaistakerian nekatutako esku ta oñak. Gizona gauza on, bigun da ederzalea bada, azkozaz geiago da edertasuna bera dan Jaungoikoa: ta Berari eman bear diozkagu gure bizitzaren edertasun guztiak, Berak eta Beretzat sortu ditualako. Orregatik eman zizkon Mariak gorputz eta animako edertasun danak, eta orregatik saritu zuan Jaungoikoak beste iñor saritu eztuan bezela.

4. Laugarren, eskeñi bear zaizka Jaungoikoari gizonaren semerik onenak, berak eskatzen baditu; esan nai det, iñork, *familiren* batean, eleiz biderik artu nai badu, *moja*, praille edo apaiz izan nai badu, bere borondatea betetzen, gurasoak al duten añan ta poz-pozik lagundu bear diotela.— Gauza onen gaiñean badira Jaunaren borondatearen kontra bere borondatea ipintzen duten guraso batzuek, Jaunarentzat jaio diran ume onak edozeñ gizonen eskuetan ipintzen dituen guraso itxuak. Lurreko errege batek deituko baliote beren jauregira, pozik emango zinduzkete zuen semeak lurreko erregeari, eta arrokeriz beterik esango zenduteke guraso askok: «nere semeari, nere alabari erregek edo erregeiñak deitu dio». Baño zeruko erregeak deitzen diotenean izaten dira aitzaki ta naigabeak: «alabarik onena da, etxerako aukeratua daukat, nere sartzan norbaitek lagundu bear dit».

Abrahan batek Jaungoikoak agindu ziolako, bere seme Isaak eriotzara eraman zuan; eta guraso askok eztatue eman nai beren seme alabak betiko bizitzarako, eztatue nai zerurako; lurrerako nai ditue, eriotzarako, pekatutako bear bada. Jakin zazute, gurasoak, jakin zazute, Jaungoikoak



eskatzen dizutena berari ukatzea, ausardi andiko gauza oker ta gaistoa dala, ta ukatze orren erantzueria Jaungoikoaren aserrearen aurrean eman barko dezutela. Baña Jauna, esango du norbaitek, nere alaba bakarra da, oso asko maite det, ezin esan dan beste det maite, ta bera gabe ezingo naiz bizi.

Bakarra zan Maria, erantzuten det, maite zuten bere gurasoak, beste edozeñ gurasoak beren alabak maitatuko dituen bezela edo geiago, ta ala ere esagutu zutenean Jaungoikoaren borondatea zala Maria Jerusalemgo eleizara joatea, ez bakarrik utzi zioten joaten, baita ere berak lagundu ta Jaunari biotzez ta pozik eskeñi.

O jauna, esango die berriz, bear bada, berori ezta gurasoa ta ez daki ondo zer esaten duan. Baña gurasoak ziran Ana ta Joakiñ, ta Jaungoikoak badaki zer eskatzen duan, ta badaki gañera gurasoetatik gurasoetara dagoen desberdintasuna.

5. Azkenez, n. a., lenago inoiz esan dizutedan bezela, zuek ezpadaukazue zuen seme alabak Jaunaren bildurrean asteko astirik, beta onik, jakituririk edo gogorik, erakarri bear dituzue ume-umetatik Jaunaren bildurreko erakustzalleakana; baña erakarri bear dituzue, berai orretarako bear dituen eskubideak emanda. Len esan detan Erromako Goierrege Teodosiok eraman zion bere semea Arsenio maisuari, onela esanaz: *Post hoc tu magis pater es, quam ego*, emendik aurrera zu zera guraso ni baño geiago. Ori egin bear dezue, bada bestela erakustzallerik onenak ezin dezakete zuen umeakiñ gauza onik egiñ. Lengo egun batean esaten ziran jaun batek egia andi bat: «alperrik da *mojak* lan egitea gurasoak laguntzen ezpadiote». Eta ala da, n. a., ala da.

Nik badakit guraso askok, erakustzalleai lagundu bearrean, beren umeai lagun dietela, beren umeak diralako beste gabe; nik badakit beren umien alde itz egiten dutela, beren griñak indartzen dituztela, nik badakit ori, eta askotan esan diet gure ikastetxearen barruan bizi diran gasteai: emendik ertetzen dezuten baizen laster, guk egiten degun lan guztia desegiten saiatuko dira zuen lagunak, zuen aideak, zuen gurasoak berak, ona ta orra, biar eztan tokietara eramanaz, zuen aurrean biar eztiran bezelako izkuntzak esanaz, *mojetan* (ikastetxean) ikasitako gauza on asko txorakeriak dirala erakutzi. Orrela galtzen dituzte beren umeak alperrik, orrela ateratzen dituzte zeruko bidetik munduko bide zabaletara, ta nok daki infernuko bidean ipintzen badituzte.

N. a. gurasoak: etziran orrelakoak Ana ta Joakin. Maria berez zan ona, berez txit garbia, berez txit santa; baña gurasoak ere beren aldetik

lagundu zioten Jerusalemgo elizara eramanaz ta elizgizonen mendean ipiñiaz animarako onena zan bidea erakutzi zezaioten.

Asko da gaurko. Ikusi degu gure Jaun eta Jaungoikoari asieratik eskeñi bear diogula eguna, goizean goiz otoitz edo arren egiñaz; asieratik eskeñi bear diozkagula gure eginkisun astunak, laguntasuna eskatuaz; asieratik eskeñi bear diogula gure bizitza osoa; eman bear diotela gurasoak beren semea edo alaba, Jaunak beretzat eskatzen badiote, ta azkenez, seme ta alabak beti Jaungoikoarenak izan ditezen jarri bear dirala zerurako bidea erakutziko diotenen eskuetan, erakustzalleai orretarako bear dituen eskubide guztiak emanda.

Zuek, n. a. maiteak, orretarako erakartzen dituzue zuen umetxoak gure ikastetxera, ta emen lurrerako bear diran gauza on askozaz ganera, erakusten zaiote zerura begiratzen beren betiko errira bezela, Jaungoiko gurasoa esagutzen, Bere izena bedeinkatzen, bere izate maitagarria maitatzen.

Bizitzaren asieran daude geienak, loratan daude, ta lora sorta eder ikusgarria bezela, ara nola ekarri ditugun gaur Jaunari eskeintzera Maria Santa eskiñi zitzaion irudira. Zer gauza eder ta pozgarria diraden loreak! Udaberri alaian, gure zugatz edo arbolak añ egoki apaintzen dituztenean, pozez zoratzen ikusten ditugu loreak, eta «aurten, esan oi degu, aurten frutu asko izango da». Baña onik onenean, sartzen da ustegabeko ekaitz gogorren bat, kentzen ditu arbolatik ta eramaten ditu aidean lorerik geienak, botatzen ditu soro edo bide basterren baten, ta edozeñek zapaltzen ditu bere oñazpian eta, ai!, loreak basa biurtzen dira! Eta ori bera gertatzen da sarritxo ume lora eder askorekin ere. Artzen ditu ekaitzak bere indarrean, jasotzen ditu gora-gorago apur baten, arrotzen ditu denak; baña laster erortzen dira pekatuaren loikeri beltzean, eta laster asko ikusi oi ditugu basa biurturik.

N. a. gurasoak: Erregutu zazute zuen umeakiñ orrelakorik gertatu eztediñ, erregutu dezagun denok. Eman dezatela lore abek beren frutua, bete dezatela kristauen legea, maita dezatela beren Jaungoikoa, bedeinka dezatela beti lurrean eta zeruan.

O Maria, gure Ama maitea! Ikusten dituzu zeñ garbiak dauden zure ume abek? Ikusten dezu nola dagon beren biotzetan zure seme Jesus, bere etxean bezela pozik? Nola bada biotz orretan bertan sartu ta jarriko da gure etsai deabrua, biotz oiek berak eta beretzat sortu balitu bezela? Arren, bai, arren eskatzen dizugu, O gure Ama ona, gorde itzatzula umen auen biotz garbietako atea, eta eztedilla egundaño biotz oietan lurbira onetako loikeri gaistorik sartu, ez ditezala munduko gauzetara geiegi zale-



tu, ez ditezela iñortara ere lurrerako izan ezpada zeruetako jauregi gozorrako.

Bai, n. alabak, bai n. umetxo maiteak: jarrai zaiozute gaur daramazuen bide zuzenari: zeruruntz zoazte. An daukazute Aita on bat, an Amari-rik bedeinkatuena. An izango zerate egiazko aingeru. Ama orren oñetan, an izango gera denok zorioneko, zuek, zuen gurasoak, aditzalle guztiak eta ni. Ala uste det, ala nai nuke, ala izan dedilla. Amen.

LAÑOA TA GRIÑA

Gure Jaungoikoak gizona egin zuan egunetan ez omen zan batere lañorik Lurrean.

Zeruak argi ta eder, itxasoak bare ta urdiñ, erreka-astoak txukun ta pozkor, zelai-mendiak alai, naro ta loretsu, Izaki guztia agiri omen zan oso bikaña, bere margo, neurri ta gaitasunak garbi-erakutzi-az.

Baño, gizonaren biotzean arrokeria irakiten asi zanean, gizonak Egi-llerean agindua urratu zuan une gaiztoan, zeruak jantzi omen ziran odeiz ta bereala agertu omen zan lañoa, ibaian, itxasoan, zelaian ta mendian, arrokeriaren lurruna bezela.

Ordutik griña txarra, ordutik lañoa, biak alkarren alde.

Ala ezpada, ala dirudi.

Askotan dakust lañoa gure mendietan, maiz ikusi det gizonaren adimen-ean griña gandua.

Anboton edo Izarraitzen, naiz egi buruan naiz egal gerrian, gaur bel-teran ta biar urdinka, goizean trinko ta arratsaldean arro, noizbaiten matasa lodia- ren antzera ta beiñgoan amuko zatiaren itxuretan, oraiñ beru- na bezela lo astunean ta gero, keiaren irudira, me, lasai ta ibilkor... beti da lañoa inguru- etako argi kentzaille ta itxas, baso, mendi, soro ta bidien estal- ki.

Era berean griña gaiztoa. Goitar andikien buruan edo betar txikien erraie- tan; bataren zioz, bestien erruz, zerbaiten alde, norbaiten etsai; auzoa dala ta erria dala, arrentzat piper ta onentzat gozo, aistian zuri ta aistian gordiñ, laster palaguz ta aurki aserre; latz edo leun, gaiz edo geza, zital edo ezti, zikoitz edo eskuzabal, gogoa ta iritzia aldatzen zaion beze- la... beti dabill griña adimeneko argia illuntzen, ondo egiñak astu erazi- tzen, egia maitagarriak estaltzen, okerrari zuzen itxurak ematen, gauzarik itxusienak edertu naian.

Griñaren kolkotik ertetzen dute, labe zulotik garrak ertetzen duan gisara, satorkeriak, azpi jateak, gaizki esateak, zearka ibiltzeak; nasteak eta korapilloak, auziak eta maratillak, maxiak eta gezur- rak ugari, oso ugari.

Bildur izan, irakurle, lañotan galtzen bazera; nun zabiltzan eztezu jakingo.

Bildur izan, griñaz beterik iñori edo zenbaiti begira bazaude: eztezu ezer ondo ikusiko.



Ez, griñadun gizonak eztu ezer ondo ikusten, ta bakoitzari berea ematen eztaki. Nola baña, lausotua badago ta gauza guztien neurriak galdu bazaizka? Allega, beroa ta txit berekoa, ezer entzuteko ta ulertzeko asti gabea, usteren bat sortzen zaionean, itxuturik dijoa, naitasunak eskatzen dion tokira, edonortara dijoa, edozein bidetik, aurrean dauzkan eragoketa denak ausi, ebaki ta zapalduaz, esiak, esanak, aginteak eta legeak, Jaungoikoarena geien ta lenbizi.

Griñadunak bere gogoa du lege, bere adiña du argi.

Argi pitiña, argi laburra, errañurik zabaltzen eztuan argi motela.

Argi orren aldemenean, bere burua bakarrik agertzen zaio. Ara zergatik darabillen bere izena mingañean: ni andi, ni

azkar, ni gañeko, ni trebe, ni zintzo, ni jakintzu, ni...». Ni bakarrik?

Geienez ere, griñadunari norbait badagokio edo adiskideren bat urrean sumatzen badu, baliteke adiskideari esatea: «bai, zu ere bai, zu nere urrengo; ainbestekoa zera, naikua egin dezu, poliki samar, erosotxo; zu ta ni añakorik ezta».

Zu ta ni, edo bakoitza bere mallan, *ni* ta *zu*.

Ta *bestea*?

Bestea ezta iñor, ezta ezer.

Irakurle, lañotan ote gabiltz?

Bada ezpada, begiratu zeru aldera, begiratu sarritxo. Antxen daukaugu artizarra, diz-diz, bein odei tartean, bein ozkarbi urdiñean.

Zerura begira dabillena ezta galduko.

FEST. SEPTEM DOLORUM MARIAREN OÑAZEAN

Attendite et videte si est dolor sicut dolor meus.

(Thren, I, 12).

Nere aditzalle maiteak:

Nik badakit izen eder bat, izenik gozo, egoki, bigun ta maitagarriena. Aurtxoa nintzala erakutzi ziraten; arrezkero, nere bizitza luzean, milla bidar maitero esan det; nere biotz barruan gordea daukat; eztia bera baño gozoagoa deritzot. Baña ez nik bakarrik, aditzalleak; zuek ere izen ori nik bezela dakizute, nik bezela maitatzen dezute, bada izen ori *Ama* da. Zergatik baña iruditzen zaigu aín eder gure amaren izena? Biotzak eskatzen digun maitetasuna gure amaren antzera iñork egundaño eman eztigulako. Lurreko maitalien artean, zein izan da ama on bat aria? Ez lagunik, ez adiskiderik, ez seme-alabarik, ez senaremazerik, iñortxo ere ez. Gure amarentzat beti argi ta pixkor izandu gera; gure amak eztingu beñere akats andirik billatu; bere begiak, gure utsuneak ikusteko, beti lausoak egoten dirañ amak maitatzen gaitu, aspertu, gabe, seaskatik illobiraño, naiz ta ondo erantzun ez, naiz ta gu dollor ta eskergabeak izan; ama da beti gure maitalerik bero, itxu, garbi ta iraunkorrena. Zer diot? Amaren izena bera da maitale ta maitegarri, arantzarteko lore, gure malkoen legorki; ta ara zergatik datorren gure españetara, estu aldi guztietan, amaren izena; ara zergatik larri geranean esan oi degun berez: Ama, amatxo! O zenbat aldiz gozatu diran gure samiñak ama maitearen altzoan!

Baña ama oiek eztira betiko: nerea joan zan, askori joan zaizkitzute, ta beste asko, naigabe diot, aurki zerate umezurtz. Gaizki esan det: Kristauen artean umezurtzik ezta; denok daukagu zeruan Aita errukior bat, gure onari begira dagon Aita jakintsua. Bereak gera ta Berak daki gure biotzaren berri, Berak daki ezin gindezkela ama gabe iñola izan, ta Lurrekoaren orde, Kalbarioko mendian, Bere Ama samurra eskeñi digu amatzat. *Mulier, ecce filius tuus*.

Beraz Mariaren semeak gera? Bai, n. Kristauak. Mariaren semea nai-zalako bere irudi bedeinkatua nere gelatxoan gordea daukat; bere oñetan amaren aurrean bezela auspeztu oi naiz; nere españetara amaren izena berez datorkit; nere neke guztiak berari esaten dizkat; gabero gabero laz-tan bizia ematen diot, eta bere itzal gozoan lo egiten det. Eta nere antze-ra zuek ere noski.



Siñiste orretan zaudetelako etorri zerate gaur gure Ama zerutarraren samiñak oroitza.

Urteoroko oroitza osasungarria. Bear bada zuek ere, nere Kristauak, biotzaren gosea nabaiturik, zorion betea idoro naian, lurrean daukazute-lako ustez, ero ta itxu ibilli zerate bere billa, ta zelai loratsuetan zear zoaz-tela arantzaren batek ikutzean, ekaitzaren aizeak astindu zaiztuztenean, espar ta negarrez, zuen naigabeari begira, eztagola naigabe andiagorik esan dezute. Baña orrela ezta. Jaso itzatzute begiak Mariaren jarlekuraño, ikusi zazute or gure zeruko Ama, Jaungoiairen Ama bera negarrez. ta bere aurrean ikasiko dezute zuen naigabetxo ezala ezer; Mariak adieraziko dizute, erbeste onetan denok negar egin bear badegu ere, bere oñazea bezelakorik ezala egundaño izan, egundaño ezala izango. *Attendite et vide-te si est dolor sicut dolor meus.*

Oñaze ori zerbait ezagutzeko, ikusi dezagun Mariak bere Seme Jaungoikoarentzat eta gizonarentzat izan duan maitetasun beroa, bada maitetasun orretan dago bere oñaze guztien jaiotza. Ara nere itzaldiaren gaia.

O nere Ama errukarria! Zabal zadazu, arren, zure biotz biguna, biral zadazu zeruetako argi apur bat zure naigabe sakona begira dezatan, nere aditzalleai azaldu daiotetan, zure aurrean negar egin dezagun, emendik aurrera zure maitasun ta errukian bizi gaitezen. Laguntasun au, oitura dan bezela, aingeruaren itzez eskatzen dizut.

Agur, Maria, esanaz.

Attendite, etc.

N. a. m.: Zer da, gizartean, maitetasuna? Animan sortu oi dan landare atsegiña, biotz batek besteaganako daukan joera gozoa, amesik ederraren iturburua, erbesteko zori bakarraren kabia, gizon bidastiaren ezti abaska. Baño, arretaz begiratu ezker, laster ikusiko degu, maitetasuna, atsegiñ andien jatorri bada ere, askotan gazitasunezko itxaso biurtu oi dala. Ai! Ezta lurrean negu gabeko landararik, aldakor eztan biotzik, agortuko eztan iturririk, garraztu ezin ditekean ezirik. Egi ziur auek denok dakizkigu, eztira beñere gure burutik joaten, ta ara or bertan kezka samiñaren jaiotza, zorionaren erdian zorigaiztoaren asia.

Gañera berriz, badakizute, egiazko maitaleak anima bizi bat eginda bezela bizi oi dira, biotzez zearo alkaturik, uste ta iritzi batean, gogo ta ames berdiñetan; egiazko maitalien artean, bataren poz ta zoriona poz ta zoriona da bestearentzat ere, bataren naigabe ta oñazeak besteari ere izugarritzko samiñak dakartzkio. Ta nola erbeste onetan zorionezko loreak baño naigabearen arantzak askozaz geiago diran; nola batari edo besteari egunoro negar malkoa darion, ara or zorigaitzerako bigarren bidea.

Bide orretan ama diranak ikustendira geienbat, bada, len ere esan det, ama bat iñor ez bezela maitasunez semeari josia dago. Ama ta semeak zuaizta ta bere adarra dirudite. Adarrak ematen duan alea zuaiztaren gerritik datorren antzera, semearen itxura ta izakera, anima ta gorputza, amaren izakeratik oi datoz. Beti ezpada geienetan, semeak amaren begiak izan oi ditu, amaren arpegia dauka, amaren izketa, amaren ibillera, sarri amaren ontasuna. Iñork zerbait berea dala esan badezake, amak esan dezake bere semea berea dala. Bere erraitan sortu du, bere bularretan azi, bere besoetan billuraz jaso. Berak esan dizka izenik maitagarrienak, berak erakutzi dizka Jaunaganako otoitzak, bera izan da semearen lenbiziko erakusle, bera da semearen bizitza guztiko babes ta maitale zintzoa.

O zenbat txorakeri esan dizkigun bakoitzari geure amak! Zenbat ames egin dituan guzaz! Zenbat negar gure gaixo aldietan! Beñi ikusi nuan ama bat, leio zuloan parrez, txaloka, ziñuka, pozezko lerdea zeriola. — Zer dezu or? — galdetu nion. — Nere semeari begira nago. Ikastolara dijoa, Ikusten zeñ ederra dan? Ikusten zeñ argi ta azkarra? Agur egitera biurtu zait orañtze... Agur, nere lastana, agur. Baño andik laster lastan ura gaixotu zitzaion, ta ikustekoa zan orduan bere ama. Ai arren zotiñak! Ai arren malko goriak! Nola zeuzkan biotzaren erdian bere semearen oñazeak! Nola begiratzan zion! Nola zegoan semearen itzean zinzilik! Semearen gurari txikienak nola bote nai zituzkean! Nola estutzen zuan bere bularrean, indar ta bizia galduaz zijoa semetxoari bere indarra, bere kementa, bere bizitza osoa eman naiaz! Alperrik baño. Semeak jaunari beragana deitu zion, inguruko gizadiak zer esan ez genkigun, amaren naigabeak denok kutsutu ginduzan, denok negar egin genduan. Ama guztiak orrela oi dira.

Baña, zer daukate zer ikusi ama oien samurtasunak Mariarenaren ondoan? Maria, gallurretako elur zuna baño askozaz garbiagoa, bere sorreratik zeruko aberastasunez ugari apaindua, andre guztien artetik Jaungoiko samurrak bere amatzat aukeratua bada, geiago esan bearrik eztago.

Mariak ere bazuan Seme bat, ai ura semea! Mirariz sortua zan, bederatziz illabeteen bere sabel garbian eraman zuan, ta gau illun baten, negu beltzaren erdian, baño lurrean izandu dan gaurik alaienean, zeruko ainguruz inguraturik, mirariz jaio zitzaion bere Aurra. Ukullo txiroan ikusi zuan lenbizi; baño jaio ta laster, zeruko argien izenean, ukulluko atarian izar eder bat aurkeztu zan; mendietako artzai apalak Aurraren oñetan belau-nikatza zetozen; ta Semeari nai beste musu eman ban len, urrutietako



errege jakintsuak opariz beterik agertu ziran. Aingeru, izar ta gizonak bere Semea gurtu nai zuten!

O! Gurtu zezatela zeru ta Lurreko izakiak, baño bere Amak gurtu-ko zuan beste guztien gañetik, Bere altzoan egingo zion seaskarik eroso-ena; bere biotzean emango zion aterperik egokiena; bere biotzean aziko zuan maitero, bere malko ta palaguz narotuko zuan; bera egongo zan beti Jesusen aurrean auspez, gau ta egun, goiz ta arratsalde, jaioletordutik asi ta eriotzako ordu esturaño.

Beste semeak azi oi diran gisa, asi zan Jesus ere, ta asiaz zijoa bezela, bere Ama bigunak apainduri berriak idorotzen zizkon: bere kopeta zabalean illargi betearen patxadea; bere arpegian, eguzkiaren edertasuna; bere begietan, Jaungoikoaren begirada zintzoa; bere izkuntzan, Goiaingearuen soñu alaia; bere arnasean, zeruko lilien usai gozoa, ta apaiduri oiek nabaitzean, Maria doatsua maitasunez lertzeko zorian gelditu oi zan. Nola ez, bere semea aiñ maitagarria bazan, Semearen besotxoak ainbeste aldz Amaren lepoan katigatzen baziran, ta bere biotza, Amari, laztanga ematen bazion?

Baño Jaungoiko-Aurra, gizona zan aldetik, loratan bezela zegoan, ta lore orrek berazki naroak eman bear zituan laster. Maria Jesusen goramen osoa ikusteko jaioa zan, ta berak ikusi zuan bere Semea, amabi une zituela, Jerusalemgo Elizan, uri artako jakintsu andiak jakituriz izutzen: berak ikusi zuan, geroago, zeruetako erakuste osasungarriak erririk erri zabal-tzen; berak ikusi zuan itxuari argia, itz-gabeari mingaña, goseari ogia, elbarriari kemena, gaixoari osasuna ta ildakoai bizitza ematen: bere belarrietara etorriko ziren nunbait arako emakume eskertsuak Jesus maiteari esan zizkon itz aiek: *Beatus venter qui te portavit et ubera quae suxisti*, ta bere biotzaren oiarzunak garbiro erantzungo zion: bai, zorionekoa ni andre guztien artean, orrelako Semea Jaunak eman ditalako, Jaungoikoari esker andiak zor dizkat eta eskerrak ematen bizi naiz: *Magnificat anima mea Dominum*.

Ta ez uste izan, n.a., garai artan, Jesus, bere Amaren ondotik ertenda, ainbeste on egiñaz, zeruetako jakituria gizonari erakusten zebillen egun aietan, Maria ta Jesusen arteko maitetasuna zerbait otzitua izango zala. O, ez!: etziran aldakor, gure antzera. Gauza on bat obetu ezagutzean geiago maitatu oi da, ta Jesusek eta Mariak ondo ezagutzen zuten alkar. Semearen izen ospatsuak Amaren maitetasunari indar berria ematen zion; Mariarentzat, orduantxe zan Jesus, iñoiz baño erosoago, bere Seme, bere argi, bere zaintzalle ta bere Jaungoiko; Jesus oster, orduantxe bere Ama-rentzat maitalerik bero, zintzo ta eskertsuena.

O! Ama guztiak beren semeak ainbestearaño maitatzen badituzte, naiz ta seme oiek okerrak, bigurriak eta eskergabeak izan, nola maitatuko zuan Mariak bere Seme ona, bere Seme altsua, bere Seme Jaungoikoa?

Jaungoikoa esan det! eta emen nere adimenaren argi apurra illun-pean gelditzen zait. Mariak bere Semea Jaungoikoa bezela maitatzen zuan! Maitetasun ori, nork adieraziko du? Anima barruko bizitza ixilla eraman dutenak zerbait. Asisko Goiaingeru apalak, Gurutzeko Joane zeritzonak, Abilako Teresa batek; oiek erakutzi dezakete zerbait Jaungoikoagana maitetasuna zer dan: eztizko sugarra, kiskaltze alaia, erre bear atsegiña, Lurreko izkuntzan azaldu ezin ditekian gozamina. Baña gozamen ori zer dan Mariak bakarrik daki ondo, bada berak bakarrik ezagutu zuan osoro bere Semea ta berak maitatu beste iñork ez bezela. Mariaren begiak Jesusi begira zeudenean, zorionaren iturriari begira zeuden: Mariaren españak Jesusen arpegian jartzen ziranean, Jaungoikoaren arpegian jartzen ziran. Zeruak erakutzi zion bere Semea Lege Zarreko irudi guztien bukaera zala, ainbeste Igarlek itxarotako Mesias, Errege Paketsua, Aingeru guztien Nagusia, izar guztien Egillea, gizon guztien Gurasoa, jakintsu guztien Argi bizia, asiera gabeko Jaun altsua; Mariaren biotzak ori ta geiago nabaitu zuan Jesusenaren ondoan, ta Jaunaren maitetasunari bere alizate guztiz erantzun zion Mariak bere Seme Jaungoikoa gauza danen gañetik maitetu zuan, Lurreko donien gañetik, Zeruko aingeruen gañetik, zeruak berak eman zion neurki neurrigabea.

Eta oraiñ, n. Kristauak, gure maitearen zorigaitza gure zorigaitza izan oi bada, maiteareri nekea ta maitalearen samiña neurri batekoak badi-ra, zer izango zan Mariarena Jesus laztanaren oñazaldietan?

Mariari, maitetasunaren landarea ta naigabearen arantza ia batera sortu zitzaizkon. Bere Semea jaio ta laster, Jerusalemgo Elizan, Simeon Igarleak albiste negargarri bat eman zion, *et tuam ipsius animam pertransibit gladius*, ta orduan nabaitu zuan Mariak arantza orren lendabiziko sastadea, orduan zauritu zan beti betiko bere biotz maitale samurra. Nola ez, aditzalleak? Askotan gure Jaungoikoak egiten dizkigun on guztietatik andie-netakoa etorkizunen berri ez ematea da nunbait. Zuen artean egun beltz asko igaroko dira noski; bear bada zuen ondasun guztiak galduko dituzute; onik-onenean, zuen izen garbia norbaitek zearo loituko du; nork daki zuen guraso, aide edo adiskideren bat, zuen senar edo emazteren bat gaiz-ki ta laster ilko bada; baño ezer eztaigun artean ezeren kezka ta bildurrik eztago, etzaigu batere gauza okerrik oroitzen, ta zorion betean ezpada ere zorion itxuretan bizi oi gera. Adi zadazute, n. Kristauak, batez ere zuek, guraso zeratenok: Jaungoikoak oraiñ agertuko balizuteke zuen semerik



argiena, zuen semerik maitegarriena biar edo etzi urkamendian ilko dutela, nolako larria izango zenduteke gaur, nolako nekean biziko ziñateke beti? Bada Simeon Igarleak, etorkizunaren lañoak urratuaz, era orretako albiste latza eman bazion; guraso guztien maitetasuna bat eginda baño askozaz geiago maitatzen zuan Seme maitagarria, parre ta irri egiñaz, lapur gaiztoen antzera, gurutzean josiko ziotela agertu bazion, nork esan Mariaren naigabe ta oñaze itzala?

Egun artatik aurrera Mariaren bizitza eriotza izandu zan. Ezin aztu zitzaion egundano gizon ergelaren eskergabekeria, ezin zuan barrutik iñola kendu bere Jesusek eraman bear zuan nekaldi gogorra, beti gogoan zerabillen bere Semearen azken errukarria, ta Jesusek ematen zizkan poz guztiak ere, Mariarentzat, beastunez kutsuturik zeuden.

Naigabearen jarlekuraño zazpi malla igaro zituan gure Amak. Ezin-go diogu mallarik malla jarraitu, baño ikusi bearko degu orratik bere Semearen eriotz orduan, entzun bearko zaio animaren erditik ertetzen dion deadar samiña: *O vos omnes qui transitis per viam, attendite et videte si est dolor sicut dolor meus.*

N. a. m.: Goazen guztiok, irudimenez, Kalbarioko mendi tontorre-ra. Jaso itzatzute zuen begiak, jaso itzatzute zeru alderuntz, begiratu zazute mendi gallur ori ta ikusi zazute ondo naigabearen jarlekua. Jarlekua esan det, baño egoera esan bear nuke, bada gure Amak nun jarririk eztauka, lur odolduaren gañean zutik dago, patxadearen orde z nekea dauka lagun. Zeru goibelaren azpian iru zuaitz agiri dira, iru gurutze, ta erdikotan, besoak zabal zabalik Amaren buru maitea estaldu naian bezela, gauza guztien Egille Altsua, Zeru ta Lurrak egin dituan Jauna, nere bizitza orain bertan gordetzen dagon Jaungoikoa, Mariaren Seme bakarria, ilda ikusten det! *O vos omnes...* Lurrean negarrez zabiltzatenak, zuen neketoak ezin eramanik zabiltzaten gizadiak, jarri zazute zuen neke ori Mariaren oñetan, ta inork ezto ikusiko: aiñ da utsa.

Baña zertara igo da Maria bere Semearen urkamendira? Naigabearen beastunak azkenearaño irentzitzera. Ondo irentzi ditu.

Urkamendira daramazkitenen gurasoak eztute iñola leku orretan semien eriotzarik ikusi nai. Etxe basterrean egoten dira edo auzo-erri-runtz iges egin oi dute, garai artako zurrumurrurik beren belarrietara eldu eztediñ. Zer diot eriotza ikusi? Semien gañera erori dan epaia errukiz gordetzen zaiote, ta beren ilberria geroago, noizbaitean, pixkaka pixkaka jakin erazi. Baño etzaio gure Amari orrela gertatu. Mariak bereala jakin du Jesus Jaungoikoa ikasle dollor batek etsai makurrari saldu diola; bere Arkume otzana, gaizkille antzean, lotuta eraman diotela; agintzallien

aurrean eztuala bere aldeko lagun bat bakarria izan; Pedro berak, ausardiz betea zirudian Pedro adiskideak, aiñ erre z ukatu duala; biotz gabeko gizonak bost milla ta geiago zartada eman diozkatela; gaurik neketsuena igarota, zurbil ta indarge, ubel ta miñez gizonaren itxura gabe dagoala; arantzazko erregetxapelez jantzia, arpegi ederra zearo itxusitua, ezin dezakela iñork ezagutu; aiñ ona ta ongillea izanik, bere Seme Kutuna lapurren erdian, iltzera daramatela!... Mariari egunik garratzena eldu zaio. Baña ekaitzari arpegi emateko jaioa da, eztio Jesusi bakarrik utziko, beste adiskiderik ezpadauka, an izango du aldemenean bere Ama.

Azkenengo albiste au jakitean, bere bakartadetik azkar erten du; Jerusalemgo kale itzalak ioranez igaro ditu; eralle ikaragarrien artean dar-daraz sartu da; Jesusen odolak erakutzi dion bideari negarrez jarraitu dio, ta ara or nun daukazuten Seme illotzaren ondoan. Toki arrigarria Mariarentzat! Ortzen ikusi du nola bere Jesusi, Amaren eskuz maitaro egindako soña, indarrez kendu dioten; ortzen ikusi du, naigabez eroturik, egur igarraren gisara nola gurutzean josi duten; ortzen ikusi du, gurutze gañean zinzilik, bere buru minberatua nun ipiñirik eztaukala; ortzen ikusi du gizonari errukiz begira, inguru guztian gorrotozko begi zitalak idorotzen zituala; ortzen entzun dio, azkenetako itz bigunen artean, eriotzaren larriak atera dion mintzo estua: *Sitio*, egarri naiz, izugarritzko egarria daukat, maitasunaren egarriak ito bear nau. Ta orduan Mariak, egarri ura kentzeko, bere biotza urtu nai zukean, bere Jesus laztana bularrean berriro estutu, bere arnasa ta bizitza eman, bere anima maitalea edan erazi. Baño, ai! ezertarako tankerarik ezto izan, ezin izan dio ezer egin, laztan bat eman gabe il zaio! *O vos omnes...*

O, gurasoak, semien eriotzan ainbeste negar egiñ dezuten gurasoak! Badakizute noski seme bat iltzen ikustea zer dan; baño Semerik onena, Seme Jaungoikoa, urka mendi baten, lapur biren erdian, eralle gaiztoak parre ta irri egiten diotela, iñungo laguntasunik gabe iltzen ikustea zer dan eztezute egundano ikasiko. Zuen oñazerik andienak, gure Lurreko oñaze guztiak Mariaren oñazetik oso urruti gelditzen dira. Oñaze ori bakarria izan da, neurri ta berdiñik gabea izan da, ezin du gizonak ulertu, ezin dizutet nik adierazi. Gauza asko dira Lurrean gazi ta beltzak, garratz ta izugarriak; gazia da itxaso zabalaren ur irakiña; beltza umezurtzaren etorkizuna; izugarria, neguko gaberdian, trumoiaren burrundaba ta aize gogorraren txistua; garratza da, batez ere, eriotzako ordu larria; baño zorigaitz onen ondoan itxasoa ezta gazi, umezurtza ezta errukarri, ekaitzeguna ezta izuti, ezta batere garratz eriotzako ordua bera.



Jesus il danean, bere Amari Lur guztia uts-utsik gelditu zaio, bada Mariarentzat bere Semea zan Lur ta Zerua, zorion ta bizitza; bere Semea zan dana, ta bere Semea bakar bakarrik. Jesus il ezkeru, zeñek poztu dezake Mariaren biotza? *Non est qui consoletur eam ex omnibus caris ejus.* Egia da, Jesusek ordeazko bat eman dio, Joan ikaslea eman dio semetzat, baña Joan doneak ezin dezake iñola Jesusen lekua bete. Eguzkia itzali bada, nola egin dezake argi gau illunean zeruko izartxo batek?

Ezta bakarra, diozute. Mariaren pozerako, beste gizon guztiak Joa-nekiñ batean gelditu dira. Ez al ditu Mariak maita? Bai, obe Mariarentzat, bada maitasun orretan dauka bere naigabearen beste iturri samiña. Maitatu ez? Geiegi luzatzeko bildurrean nago, baña beste itz bi esan bear dizkizutet oraindik.

Jaungoikoari zor diogun maitetasuna geideari, au da, lagun urkoari zor zaionaz oso lotua dago, biak batera datoz; ta egiaz esan genezake Jaungoikoa maitatzen eztuanak eztuala geidea maitatzen, ta geidea maitatzen eztuanak ezta ere Jaungoikoa, bear bezela. Jaunaren maitale onak maitatzen gaituzte ondoen, ta zeñ izan da Zeru ta Lurrean Mariak aria gure Jaungoikoa maitetu duanik? Iñor ez? Bada ezta ere Maria besteko gizonaren maitalerik izan. Ainbesteraño maite ginduzalako, gure onagatik, gure zor andia ordaintzeko, Zeruko Aitaren irudira, bere burua baño gei-ago maitatzen zuan Seme kutuna mendi orretan eskeñi du, ta eskeintza ori baño agergarri oberik ezin eskatu genezake.

Orrezaz gañera, etzaio Mariari aztu bere Jesusen azkenengo agindua: *Mulier, ecce filius tuus*, emakumea, ara or nere ordeazkoa, ara or zure semea, ta ama on batek semearentzat gorde bear duan maitetasuna badaki.

Bai, n. a., Mariak amarik onenak bezela maitatzen gaitu, gizon guztiak bere semetzat gauzka; baño gizon oiek Mariaren pozerako, zer egin dute? Jesus maitea, bultzaka, urkamendira eraman; iltzez gurutzean gogor josi; il zoriko egarrian ospiña ta beztuna eman; semetzat artu dituan orduan, esku ta biotz, gorputz ta anima jesusen odolez orbandu! Poztuko litzateke iñor Semearen iltzallea semetzat emanda? Askozaz latzagoa ezta, milla bidar negargarriagoa ezta, iltzalle ori, gorrotatu bearrean, biotz guztitik maitatzea? Bada orrela dago gure Ama Kalbarioko mendian.

O, zeñek ulertu dezake Mariaren oñazea! Anselmo done argiak oñaze onen aurrean, gauza bat bakarrik esaten du, au da: Mariaren samiña *martiri* guztien oñazeak baño andiagoa izan zala. Bernardiño zoritzuak onela dio: Mariak igaro zuan naigabea gizadi guztian banatuko balitz, gizadi guztia miñaren minez ilko litzake. Tomas done jakintsuak Mariaren samiña Lurrean eraman ditekeanik andiena dala erakusten du. Azkenez,

Ebanjelioaren Idazleak, Jesusen nekaldi gogorra azaltzean, Mariarentzat itz soill bakarra daukate: *Stabat*, an zegoan Ama. Au mintzo soilla! Baña mintzo naro ta mardula, itz apaindu askok baño geiago adierazten digun mintzoa. *Stabat*, an zegoan. Bai, n. a., or dago Maria oñazezko mendi orretan. Alde batetik Jesus Jaungoikoa dauka gurutzean ilda, ta bera da Jesus maitearen Ama; beste aldetik, Jesusen iltzalleak ajolakabe parrez ikusten ditu, ta bera da iltzalle oien Ama. Zer geiago jakin bear degu gure biotzak samurtzeko?

N. a. m.: naigabe andi baten aurrean biotzik gogorrenak bigundu ta bururik arroenak makurtzen badira, nola ezkeru gu Mariaren oñetan auspez jarriko? Orretara etorri zerate zuek, Mariani bere oñazean laguntzeko asmoan errukiz beterik etorri zerate. Ondo egin dezute, bada gu izan gera bere arantzak, eta iñoren saminak errukirik bear badu, Mariarenak gurea bear du. Baña ezta naikua Mariani kupidaz begiratzea, oni bakarrik ezertako ezta. Kristauak: Mariaren samiña zearo kentzeko bizitza berria bear degu asi, gaiztakerietako bidietatik betiko **alde**; bakoitzari zeruak biraltzen dion gurutzea jaso; Jaungoikoaren legeari zuzen jarraitu; lagun urkoari guretzat nai degun guztia opa; Jesus Jaungoikoa biotz biotzez maitatu; gure uste, asmo, gogo ta iritziak Jaunaren mendean jarri; gure ibillera danak zeru alderuntz eraman. Orrela izango gera Mariaren seme-alaba onak, orrela gozatu daikegu bere anima, ta orrela bere biotzaren samiña zearo kendu. Mariak ori nai du, zuen izenean ori agintzen diot.

O ama bigun maitegarria! Legortu itzatzu zure malkoak; eztegu nai geiago eskergaiztoko izan. Oraiñ arteko bizitzaz damuturik, zure babesaren billa gatoz. Argal ta illunak gera ta bizitza berrian ondo irauteko, zeruko argi ta indarra bearko degu. Jarri zazu bada gure alde zeruetan gaur daukazun aginpidea; egin zazu gugatik arren oraiñ ta eriotzako orduan. O! garai larri artan, zure Semearen irudi bedeinkatua eskuetan euki eziñik iñork gure españetan jartzen digunean, denok eskatuko degu biziro zure kupida ongarria. Ez gaitzatzula orduan utzi, gaur zuri laguntzera etorri geranok zure laguntza izan dezagula, gaur zurekin negar egiten degunok, zurekiñ batean betiko zoriona iritxi dezagula. *Amen*, ala izan dedilla.



EUSKERAREN ALDE

*Bilbao'ko «Campos Eliseos» antzokian, ill onen 2'an,
Euskal-Esnalea'k, arratsaldean egindako jaian,
Domingo Agirre jaunak irakurritako idatzia.*

Arratsalde on, euskaldunak, nere anaiak.

Zorionean gaur ainbeste iritzitako gizadiak, errikoi zeraten denok, euskerazale guztiok oso alkarturik zakustaz.

Zer: dalata baña? Agindu oker baten adorez. O! Arrotasun gabeko izaterik ezta, ta guk ere, aitor dezagun, bagenduan noski gurea. Aitamak utzi ziguten: oroimen atsegiña jauregiko gelarik txukunenean gorde oi dan antzera, gure mendi tartean, pago ta aritzez inguraturik gendukan gure izkuntza, enda zarraren arnasa, antziñetako oiarzun biguna, gure arrotasun bakarra. Ta gure izkuntza maite oni, bere jauregi barruan, bere aterpe gozoan, ausardiz ta nabarmen, norbaitek, esi ta lokarriak jarri nai izan dizka.

O! Begiko ninian ikutu digute. Agindu ori da arkaitz gañean dagon arranoak, arranoa dala ta beste gabe, baso itzaleko erretxiñolari esango balio bezela: «ixo, utzi zazu beiñ zure jarduna, ixildu zaite». «Ixildu nadi-lla? —erantzun dezaioke txoriak— o! ezingo naiz iñola ixildu; berezkoa det nere txio jotzea, errekarteko iturriak beren murmurra, zelaletako loreak beren usaia berezkoa duten antzera; kendu zadazu nere bizitza, baño ez nere mintzoa, bada neri dagokitan txio ezti gabe ni ez naiz erre-txinol». Era berean esan dezakegu Euskalerritarak: «jakin zazute, agintariak: gure mingañera euskera berez datorkigu; euskalduna euskera gabe ezta euskaldun ta euskaldun izatea ezingo digu iñork debekatu».

Ezta gaurkoa gure mintzoa bere kabian ito naia. Aspaldietan dabil-tza, oraiñ gogor ta arpegiz-arpegi, beingoan zearka, leun ta ziraun, euske-ra bastertzeko aitzaki billa. Ara emen asmatu dituzten andienak.

Erbestekoak ezin dutela deusik ulertu. Ezta guk ere erbestekoan izkun-tza, ikasi gabe. Bakoitzari berea utzi bear zaio ta euskaldunari euskera. Guk eztiogu erbestean iñori, nai ta nai ez, gure izkuntza jakin eraziko, baña gure etxe barruan guri ulertu nai digutenak, ikasi dezatela gure min-tzoa. Au garbi dago ta ezitirudi geiegizko eskabidea. Ikastunentzat euske-ra ezta batere zalla, uste dan baño askozaz errezagoa da; baño ala ere nor-baitzuk alperreriz, nagitasunez, euskerari dioten gorrotoz, ezagutu' nai ezipadute, zer egin bear degu euskaldunak? Arrotzaren belarria mindu

eztediñ gure aboa itxi? Ta ez al da ori alperreteria agintzalle ta indarra nagu-si jartzea? Ez al da ori ikasbide guztiak zearo estaltzeko neurria?

Zarra dala. Zarra! Amaika gauza zar gorde oi dira lurrean arduratsu. Maite izan bear! Amaika tresna, amaika pitxi ta egintza zar erakutsi oi diz-kigute basterretan arro asko... Urliaren eskumakilla, sendiaren txapel koi-petsua, arako Jaunaren aulkia, beste arako gudariaren iskilloa; erromata-rrak egin zuten bidea, mairuai kendu zioten oiala, godotarren erako eliza-txoa, orko zubia, ango etxea, aruntzagoko gaztelua... zer ez? Ta ongi deri-tzot. Badira egundaño zartuko eztiran gauzak. Urregorria ezta beñere zar-tzen. Gauza onari, ona dan bitartean, zarra izateak ezti kalterik egingo. Egia, izkuntza zarretan zarrenetakoa da euskera, baño baita ere oneneta-koa, baita ere berdingabea. Eztago bada zarra dalako bakarrik zertan bas-tertu.

Gaur dan egunean ezertarako ezta. Jakin ezean izkuntza danak dirade alperrik.

Bai, euskera ezertarako ezta erdaldunen artean; baita ere geiago: alperrikakoa da beren mintzoaz oso azturik bizi diranentzat. Baño ez orde, oitura onari jarraituaz, gurasoak oi zuten bezela itz egiten degu-mentzat. Guretat ezta euskera egundaño alperrik izan. Beti ta nolanai bear da gure gogamenari jakkera egokia emateko; gure uste ta iritziaik gizartean adierazteko; gure aitonen izakera garbia ondorengoai erakuste-ko; gure poz ta atsegiñak, gure samin ta negarrak, gure animaren maiteta-sunak, itz neurtuetan, limurki eresitzeko; Aita Jaun Zerukoari otoitz bero ta zintzoak eroso egiteko... Ia zeñ asartuko dan maitetasunaren izkuntza, otoitzerako izkuntza alperrikakoa dala esaten.

Azkenez, gaixorik, ia illian dagoala. Gaixorik bai, ia illian ez, Jaunari eskerrak. Baña gaixorik baldin badago, zein ezta gaixoaren erruki? Nola eztegu euskera babestu bear? Noizko ditugu sendagarriak? Zertan daude eskubideko jakintsuak? Zer egiten dute zaintzalle izeneko gizon oiek? Nolakoa da, batez ere, gaixoa sendatu bearrean, geiago zauritu nai duan sendagillea? Nolakoa da bere ustez il zorian dagona jo ta zapaldu nai lukean agintaria?

O! Bene benetan arritzekoa da gure izkuntzari erbesteko gizon mal-tzurrok egin nai diotena; baño, ai! askozaz arrigarriagoa da geuk, euskal-dunok, egin dioguna; bada geuk jardun degu geien bat euskeraren kaltean, geuk iraindu degu erbestarrak baño ere geiago, geuk bota degu gure españetatik, geuk jaurtigi degu gure urietatik baso basterrera, izurritz kutsutua dagoanaren gisa. Bai, auzoetako mintzo apañak ezagutzean; gure izkuntza narras ta baldarra iruditu zaigu ta Euskalerriko semeak euskeraz



mintzatzen, lotsatu egin gera! Ori egin oi dute, beren gurasoaz, goizetik gabera aberastu diran edo zerbait ikasi duten ume dollorrrak. Geurea da, bada, errua; geurea obenik andiena.

Euskaldunak, nere anaiak! Ernaitu gaitezen ta bide berriak artu ditzagun. Nik badakit ederzaleak zeratela ta edonungo ederrari abegi ona egiten dakizutela. Ordu onean izan dedilla; baño etzazutela orregatik euskera iñon ukatu, etzazutela besteak baño gutxiagotzat euki. Euskalerrian jaio zeraten guztiok, andiki ta beartsu, andikiak batez ere, erri ta erbesteetan, etxe barruan ta enparantzaren erdian Jaungoikoagatik! euskeraz itz egin zazute. O euskera kutuna, nere mintzoa! Etzera zu iñoren lotsagarri. Iraunkorra zera Ernioko gallurak aria, lerdena zera Anbotoko erpiñen irudira, garbia zera Aitzgorriko elur zuria beste, liraña zera Aralarko Aingeruaren gisa, nerea zera ta maite zaitut. Zure kopeta zabalean antziñetako jatorri onaren kera ta kutsua dakuskizu, zure sorbaldetan izkuntza, gurasoen soñeko apaña daramazu. Naiz ta gaur gure mendi basterrean apala egon zure bizitza luzean alderdi askotan on egiña zera. Zuk eman diezu beste mintzo askori zure izatearen mendua, zure argiaren izpia, zure suaren txingarra, zure odolaren gorriunea. Izkuntza berri oiek arro ta gangar badabiltza ere, beti zure zorretan egon bearko dute. O euskera maitagarria! Zuri nai dizut eresi. Oso aurtxoa nintzala, oraindik seaskatxoan nengoala, ama laztanaren aoz sartu ziñan nere biotzean ta ordutik aurrera nere biotzean zauzkat. Etzera zu neretzat egundaño izan txiro ta itxusi; zu zera neretzat izkuntzarik gozo, samur, guri, mamintsu ta zoragarriena. Oraindik ezea zaude, oraindik kemena badezu, oraindik lore berriak eman bear dituzu. Gure animetan dago ta gure animetatik aterako degu zure azia; geuk ereingo zaitugu soro ta zelai, ibar ta mendi, egite ta baso-lur guztietan; erneko da oparo zure landare berria; gure izerdiz ta bear bada gure odolez narotuko degu, ta geuk azalduko zaitugu, azkenez, beste izkuntzen erdira onela esanaz: «ara emen euskera; ikusi zazute zeñ txukuna dan, ikusi zazute zeñ mardula dagon, begira zazute zeñ egoki apaindua jarri degun».

Ori egiñ ezik, ezkiñake seme onak izango.

Gora zu, nere mintzo zarra, gora euskera maitagarria!

ESKERRIK ASKO

Nexka baten itzalditxoa

Jaunak eta andreak:

Neure ta lagun guztien izenean eskerrak emon bearrean nago gure jakite laburraren neurketeak iraun daben bitarte, guztian guretzat euki dozuen maitaletasun bigun da samurragaitik.

Edozein neurketeak beragaz daroiaz beti estutasuna, larria ta bildurra. Gizonik andi ta azkarrenak badaki bere argitasunak oso urrean daukala azken, arnaituera edo muga bat; naigabez beterik gogoratuten dau eztala ibilli ikasbidietako baster guztietatik; ezagututen dau berak dakizan gauzetatik arontzago saill andi zabalak dagozala; ta orregaitik, bere jakituriako sailla erakustera deituten iakonean, bildurrez da ikaraz beterik gelditu oi da. Beste aldetik, oster, ikaslerik argitsu ta onenak, bere eskuarteetan ipiñi deutsezan liburuak buruan ondo sartu ditualako, bere irudimen gaztean zorioneko sari-irabazteak eta guraso eta ezagunen txaloak ames egiñ arren, oso errez euki leike ordu illun edo motel bat, eta zorigaitzoko ordu orretan gertau leikeo bere ames eder apaindua egingetzea, laiñoak mendian egingetzen diran gisara, ames gozoen tokian naigabe samiñaren aginkadea ta lotseak beragaz dakarren negargurea biotzaren erdian sortuaz.

Orregaitik, bada, ezta mirari, guk, emakume argalak, ikastetxe one-tako neskaxa gazteak, bizitzako bide estuetan oraindik ontzu sarturiko umeak, gizonagandik, jaiotzaz da gogoz, ain desbardiñ gareanak, gizona baiño argi gitxiagoren jaubeak eta askozaz lotsakorragoak; ezta mirari, diñot, emen euki dogun neurketa zuzenera bildurrez da ikaraz agertutea, zer gertauro iakun ez genkigula.

Zuek, jaunak, ezagutu dozue gure estutasuna, ta zuen itz egokiakaz arnasatu gaituzue, ta emen zerbait ganoraz da itxuran erantzun badogu, ez bakarrik geure erakusle Karmengo Arrebai, baita bere zeuen ontasunari deusagu zor.

Alan bada, asieran esan dotan legez, eskerrak emon bearrean nago ta eskerrak emotera jagi naz. Baña zelan? Euskeraz? Bai, euskeraz. Zegatik ez? Zarra dalako? Bastertua dagolako? Egokia eztalako? Zarrak dira ontzurre gorriak bere, ta ondo basterturik dagoz aspaldietan; baiña gaurko paper diruak baiño askozaz aberatsagoa, ederragoa ta egokiera geiagokoa da gure euskerea.



Ta, gaiñera, jaunak, biotzetik esan nai diran gauzak amak erakutsita-ko izkuntzan esaten dira ondoen. Eta niri amak, neure ama maiteak, seaskan nengoala erakutsi eustan euskeraz, euskeraz erakutsi eustan *Kurutze-Santuaren* egiten, euskeraz erakutsi eustan arren egiten *Aita gurea* esanaz. Orregaitik gauzarik gozo ta ezitsuenak euskeraz esaten ditut; orregaitik neu sortu nituan emakumeari euskeraz esaten deusat: *ama, amaxo!* orregaitik ikasi bear diran gauza guztiak ikasteko erdere bear dot, eta bear dotalako, erdere erabiliko dot buruan da miñean; baiña biotzaren erdian, beti euskerea! Orregaitik esaten deusuet zueri euskeraz: jaunak eta andreak: eskerrik asko.

GEHIGARRI SOLTEAK

Eleiza santak dauzkan lau ebangelistatik bat da, batez ere, gozotasun geiagorekiñ itz egiten duana gizonen gañean, eta au da S. Juan Ebangelista. Nun ikasi zuan S. Juanek bere eskribuetan erakusten duan gizonentzako maitasun andia? Nun? Ez al dezue igarten, a? Nun ikasiko zuan Jesusen albuaz ezpada? San Juanek, bere burua makurtuta, Jesusen bularren kontra euki zuanean, sentitu zuan Jesusen biotzeko tanbada ta gorabera, eta esagutu zuan Jesusengan etzeguala beste gauzarik Aita zerukuarentzat ta mundu guztiko gizonentzat maitasun neurri gabeko bat baño; Jesus etzala beñere bukatuko etzan maitasunezko iturburuba baizik; eta au esagutu ta gero eskribatu zituan gizonentzako añ pozgarri diran itz eder abek: *Deus chantas est*. Jaungoikoa karidadea da, Jaungoikoa maitasuna da.

Eta iñork dudarik izan etzezan, S. Juanek izkribatu ta utzi zituan itz abek: «Nik esaten dedana nere begiakin ikusi det ta nere belarriakiñ aditu det, nik ikusi ditut Jesusen mirariak, nik euki det Jesus nere alboan, nik ikutu diot nere eskuekiñ». *Testimonium perhibuit verbo Dei, et testimonium Jesu Christi quaecumque vidit.*

* * *

... biar itz egingo det Jesusek zigun maitasunaren gañean, ta etzi, Jaunak indarrik ematen badit, esango dizuet zer dan anima bat egia gabe ta maitasun gabe bizi danean.

* * *

Euskal-Erria da, ta Bizkaia ere bai noski, Euskal-Erriaren zatia bat dalako, egiazko leñargitasun ta prestutasunaren jabea, bada emen prestutasuna ta leñargi izatea lurrari dagozkio lurrari eutsiak daude, bere aritz zarrak lurrari eutsiak dauden bezela; ta ainbesteraño da au egia eze gure mendi latzen artean jaiotzea da naikoa leñargi, odol garbiko, etorburu edo jatorri onekotzat edonun artzeko euskalduna beste *titulu* gabe

Euskaldun enda edo arrasa on, azkar ta biotz andikoari, iñoiz ere loitu eztan euskaldun arrasari dagokio *apartetasun* au, bada bera da besterik ez bezela miragarritzkoa?, biotz barrutik *katoliko* ta *elizkoia*?, umantkorra santutasuneko ibarretan, goitandi ta ikusgarritzko bizitzako ibillera



guzietan, samur ta maitalea etxean; arrasa langillea, irabaskorra, argia ta *jan gutxikoa*, onbidetik dabillena ta erritar erbestekoak egiaz gora jaso duena, lurra umantez ta zerua santuz bete duan arrasa.

Nik agurtzen zaitut toki santu onetatik Euskal-Erri zorionekoa ta Jaungoikoari erregutzen diot jarraitu dezala bere laguntasun bedeinkaerak zure mendi, uri ta baserrietara bialtzen, eta lur onetan bizi diraden guztiak, beren antsiñako leñargitasun ta odol garbiak eskatzen duan bezela, goietatik datorzkioten bedeinkaeri leialak izan detezela beti, aitona zarren oiturak gorde ditzatela erbestetik datozen oitura gaistoekiñ eztitezela nastu, Gernikako aritz maiteak sinboliza nai dituan lege zarrak maita ditzatela; bada Gernikako arbola da antsiñetako lege zuzen, eder, kristandadetik artuak bere ostro artean erakusten dituan aritza, dolloren inbidia ta andien tsaloe daukan euskaldunen bandera. Maita zazute, a., maita zazute, gañera, zuen izkuntz ederra, agurtu zazute Euskalerrria nik berriz agurtzen detan bezela, erritar batek bere erri ona, seme batek bere Amatxo laztana maitatzen duan irudira.

* * *

Mariak, bere burua aberastasunez beterik ikustean, alabatzen du Jaungoikua esanaz. *Magnificat anima mea Dóminum*. gizonak ta emakumeak zerbait iñork emana, limosnaz emana bere gañeak ikusten duenerako, maitatzen due ta alabatzen due beren burua.

N. a. Izan gaitezen gizon ta emakume kristauak; begiratu gaitezan Mariaren ispilluan; ikasi dezagun beiñ betiko Mariagandik garbiak izaten beti, pensamentuz, itzez ta egitez; ikasi dezagun umillak izaten ta Jaunari eskerrak ematen gauza onenbat badaukagu, bada Jaunak emana da; eskaitezen kristauak izan itzez ezpada ese obraz.

O nere Ama zerutarra! Zu zera munduaren osasungarritzat sortua! Zure tronu orretatik gugana begiratzean gure konzienzia loitua ikusten badezu, begiratu zaiguzu errukiz ta eman eiguzu astija ta indarra konzienzia abek ondo ondo garbitzeko, bada emendik aurrera nere aditzalle guztiak zure gisara garbiak nai due izan. Ikusten badezu, o umiltasunezko erregiña gure biotza arrotasunezko pensamentuetan ibilli dala sarri, eman eiguzu argia gure ezereztasuna ondo esagutu ta umillak izan gaitezen. Izan gaitezela garbiak ta umillak, bada esagutzen degu garbientzat ta umillentzat dala zerua, zein guziera opa dizuedan. Amen.